

ATEISMOA KRISTAUTASUNEAN ERNST BLOCH

1. Ernst Blochen bizitza, nortasuna eta estiloa

Inolako tesirik ezarri nahi izan gabe, germaniar eta judua bi etnia hauen konbinaketak kalitate intelektual goreneko figurak kulturari eman dizkiola onartu beharra dago. Aski bedi Karl Marx, E. Husserl, L. Wittgenstein, Th. W. Adorno eta A. Einstein gogora ekartzea. Baita Ernst Bloch ere. 1885ean (Rhin) Ludwigshafenen jaioa, modu handirik gabeko familia baten baitan, Berlin, Heidelberg, Munich eta Würzburgeko unibertsitateetan egin zituen Filosofia, Filologia, Fisika eta Musikologia-ikasketak. Ikasketak amaitu eta kazetari-lanean ari zela bere espiritu kritikoak laster bultzatuko du prentsa eta aldizkarietarako artikuluetan giroan zegoen alemaniar belizismoari kontra egitera lehen mundu-gerratearen egunetan (1914-1918) eta Adolf Hitlerren erregimen nazional-sozialistari hogeita hamargarren urteetan. Horren ondorioz Alemaniatic erbesteratu eta Estatu Batuetan babesa bilatu beharrean aurkitu zen Paris, Viena eta Pragan barrena laburki ibili ondoren. Han, Ipar Amerikan, non inoiz ez baitzen eroso aurkitu, idazten du bere obrarik garrantzitsuenak: *Das Prinzip Hoffnung* 1949an Europara, A.E.D.-ra itzultzen da, Leipzigekeko Unibertsitatean Filosofiako katedra batez jabetzera. Bere espiritu burujabeak establishmentari aurre egitera bultzatzen du berriz ere, oraingoan erregimen komunistaren ofizialismo doktrinarioari. Berlingo harresia eraiki ondoren (1961) Ernst Bloch Alemaniako Errepublika Federalera aldatzen da lekuz eta bertan finkatzen du behin betirako egoitza izango duena. Tübingengo unibertsitateak irakaspostu bat eskaini dio. Berlingo Zientzi Akademiburuari gutun bat idazten dio bere burua erbesteratu izanaren arrazoia emanez eta esaten dio “jadanik ez dagoela pentsalari independente batentzat bizi-eremurik”. Sarrera hitzaldia “Iruzur egin al lekieke itxaropenari?” (*Kann Hoffnung enttäuscht werden?*) mugarri bihurtuko da. Baina hemen ere ez zen Ernst Bloch eroso geratu agintari akademiko eta politikoentzat. Ezbairik gabe kalera irten ikasleekin batera protesta egiten du Estatu alemaniarrek “Salbuespen-lege” sonatuak ezartzen dituenean. 1977ko abuztuaren 4ean ahiturik eta itsu emeki iraungitzen da. Azkenerraino buruari argi eusten dio. Hil baino apur bat lehenago heriotzak giza zorteaz ez duela azken hitza sumatzen zueneko “musikaren mirari geldi” haietako bat entzuna zuen. Hilobian, harrian ildaskaturik, bere filosofiaren muina den hori irakurtzen da “Denken heisst überschreiten” “Pentsatzeak jo eta gainditzea esan nahi du.”)

Ernst Bloch kultura historiko, literario, artistiko, zientifiko, filosofiko eta teologiko zabalaren jabe zen. *Jakintsu judu* bat da esamoldearen zentzu eder guztian. Azkenengoetako bat segur aski. Buberren gisa, Frommen gisara. Halaber, batzuetan deuseztailea gertatzen den izaera kritiko baten jabe ere bada. Bloch sutan jartzen da giza duintasunaren kontra doan edozeren aurrean. Baina horrek ez dio eragozten desarauezko grina bat bere ideien aurrean kritiko izaten uzten ez diona. Aurrengo izango dugu hori egiaztatzeko aukera.

Ernst Blochen estiloa eta mintzaira izugarri originalak dira. Sinbolikoa, rapsodikoa, enigmatikoa eta rabinikoa bere adierazpenaren osagai dira. Denbora behar da hartan barneratzeko. Itzultzea ez da erraza gertatzen. Hara zer dioten W.D. Marshen horretaz: “Oso gutxitan irakurri izan dut holakorik, lehen begiratuan opakua, korapilatsua, nahasia denik. Denbora behar da, pazientzia eta hats luzea bere hizkuntz pintura berrien

irudien aberastasunari jarraitzeko. Mintzairak espresionismo alemaniarra gogora ekartzen du. Lehenik zati, entseiu edo kapitulu bakoitzean enuntziatu kitzikagarria pintzelada gisa zuina ezartzen duena eta oharpen edo esperientzia arrunt bati buruzkoa. Gero azterketa historikoa, biblikoa, hasi musikaren edo literaturaren historiatik, xeheki eta zehatz-mehatz, edo alderantziz zazpi legoatako botekin historia korritzen duena. Eta berriz ere beste oharpen batzuek ateratzen duten argitara oraindik ezkutuan dagoena. Ondoren ondorio filosofikoak jai-giroko literatura, egungo kritika eta aitorten politikoarekin. Gero ipuinak, musika eta polizi nobelak, eta behin eta berriz bat ez datozen gauzak behartuz elkartzen dituzten muntaketak”¹

2. Blochen pentsamendua

Ernst Blochen filosofia pentsamenduaren familia neomarxistan (agian postmarxistan) sar daiteke, bere alderdi humanistan. Hegel eta Marx bere sistemaren bizkarrezur ditu. Hegel Blochentzat maisu handia da eta bera gabe ez dago filosofiarik. Eta Marx pentsamendu eta egintzazko apustu handia behin betirako alienazio orotik jaregindako gizadiaren alde. Gure pentsalariak atseginez errepikatzen du eslogantzat Marxen esaldi hura, zeinak gonbidatzen duen “gizakia umiliatu, esklabutu, abandonatu, arbuiagarri deneko erlazio guztiak iraultzera”². Baina pentsamenduaren abiapuntua Blochengan nagusiki pertsonal eta bizipenezkoa da. “Bizi izandako unearen iluntasuna”, bere burua erakusten ez duen arartekogabe hori, oraindik objektibaturik ez dagoen hori” (*Das Dunkel des gelebten Augenblicks, das Unmittelbare das sich selbst nicht sichtbar wird, noch nicht gegenständlich ist*) deitzen duen hori da³. Baldin eta Hegel eta Marx Ernst Blochek edaten dueneko iturburu baliotsuak badira, edate hori beti bezala irizpide-independentziarekin egiten du⁴. Gure pentsalariak beste iturburu batzuetara ere jotzen du. Bibliara lehenbizi. Larderiatu egiten ditu gizadiaren altxor preziatu hori alboratzen edo gutxien dutenak. Eta umorez gogoratzen du Bertolt Brecht beste neomarxista garaikide baten pasartea, zeinari bere liburu kuttunaz galdegin ziotenean erantzun zuen: “Barre egingo didazu, Biblia da!”⁵. Bibliari egozten dio Blochek jatorriz errealitatea behar bezala pentsatzeko era bakarra, hau da, etorkizunerantz zuzendua, utopia osokoa. Mistikoak dira era berean Ernst Blochentzat inspirazio-iturri beren irizpide-independentziarengatik, beren ekumenismoarengatik, beti ortodoxiaren mugetan mugitzeagatik. Halaber, gure pentsalariak ez ditu begiak ixten Mendebaldeko tradizioarik hoberenaren aurrean *burgesztat* joz, alor marxistako bere pentsalari batzuek egiten dutenez. Pentsamenduaren edozein historialarik kontutan izan beharreko ondare baliotsua ikusten du hartan. Ausartu ere ausartuko ginateke Leibnizekin konparatzera pentsamenduaren mahai mendebaldetar luze eta oparoak eskaintzen dituen “apur filosofiko” guztiak jasotzeko bere irrikan. Das Prinzip Hoffnung bere obra nagusiko aurkibide onomastikoa kontsultatzen badugu, harriturik gelditzen gara zeinen sarri, Hegel eta Marxen izenez gainera, agertzen diren bertan Platon, Aristoteles, Augustin, Antselmo, Moro, Spinoza, Leibniz, Kant, Schelling, Feuerbach eta Nietzsche bezalako izenak.

Pentsalari neomarxiten arteko beste inor ez bezala arduratu da Ernst Bloch gizakiaren arazo *existentziala* eskuarki deitu izan denaz. Hil edo biziko auzi-multzo hori da,

¹ W. D. Marsch, “*Hoffen worauf?*”, Hamburg, 1963, 30 orr.

² Ikus *Das Prinzip Hoffnung*, “Karl Marx und die Menschlichkeit”, B. 3., 1602. orr. Sonderausgabe.

³ *Gespräche mit E. Bloch*, (Traub eta Wieser arg.) Frankfurt M., 16 or.

⁴ *Ibidem*, 18 or.

⁵ *Atheismus im Christentum*, Frankfurt M, 1968, 20. or.

zeinaren jatorria gizarte-egoera ezgizatiar oroz haraindi aurkitzen den. Hemen gure autoreak aise gainditzen du Karl Marx. Baita Hegel ere. “Autoalienazio iraunkorra – komentatzen du- ez da gizarte faltsuan sortzen dena eta berarekin, kausa bakarra duen heinean, desagertzen dena bakarrik; bada autoalienazioarentzat sakonago kokaturiko beste jatorri bat”⁶. Dagoeneko aipatua dugu “bizi izandako unearen iluntasuna” blochiar hausnarketaren abiapuntutzat. Zalantzarik gabe, erro komunak ditu bere barrenean Ernst Blochek *das Erlangte* (lortua) eta *das Verlangte* (gura izana) deitzen duenaren bat etortze eta simetria ezarekin giza esperientzia oinarrizko horrekin. Baina ez dago heriotzaren auzia baino arazo existentzial serioagorik. *Media vita in morte sumus* errepikatzen du etengabe Blochek Sankt Gallengo fraidearen esaldia beretzat harturik. Ez dago eskola marxistako beste filosoforik, eta jakina Marxek berak ere ez dio hainbesteko egiaz eta erabakiz heriotzaren arazoari ekin. Inork ez du haren kontra hainbesteko kemenaz borroka egin auresuposamendu inmanenteetatik, noski. Inork ez du sinetsi izan berak bezala hura gainditzeko ahalasunean eta gertakortasunean bertan ere. Burghart Schmidt profesoreak, Ernst Blochen laguntzaile, lankide eta adiskideak kontatu zigun elkarrizketa pribatu batean superbizitza oro setati ukatzen zuen A. E. D.-ko funtzionari bati emandako erantzun umoretsua: “Baina, zer eragozpen ikusten duzu zuk hil eta gero, goitik gure errepublikaren aurrerapenak begiztatu ahal izatean?”

Dagoeneko aipatu dugu blochiar familia filosofikoa, bere pentsamendu-independentzia, bere izaera existentziala eta existentzialista bera ere bai. Baita berak bere filosofiaren abiapuntu eta bizkarrezurtzat daukan hura ere. Zerbait gehiago esan beharra daukat zutabe edo muin horretaz, horrela deitu nahi badiogu. Ernst Blochek berak aipatutako Jürgen Rühlerekiko elkarrizketan *prozesu*, bilakaera, etorkizuneranzko martxa penatu, misterio inmanente, ez transzendente gisa ulerturiko mundu batean kokatzen du. Bere sistemaren muin hori honela formulatzen du: “*Oraindik ez-aren (Noch nicht)* kategoria da bi formaren pean: subjektiboa eta objektiboarenean. Subjektiboa *oraindik ez kontzientea bezala (Noch-nicht Bewusstes)*, objektiboa *oraindik bilakatugabea bezala (Noch-nicht Gewordenes)*. Lehena barruan kokatzen da, bigarrena kanpoan”⁷. Mintzaira metafisiko aristoteliarraren ildoko formulazioen atzetik joanez gero, blochiar obran ere aurkitzen ditugu horrelakoak. Adibidez, gisa honetakoak dira: “A ez da oraindik A” eta “Eta subjektua ez da oraindik prediku”. Blochek bere filosofia ‘*oraindik ez izatearen ontologiatzat*’ kalifikatzen du eta, marxista orok kuttuna duen formulazio batez, *materialismo dialektikotzat*, baina bertan materialak eta materialismoak adierazle hauei egotzi izan zaien adieraziarekin ez dute zerikusirik edo oso gutxi dute. Gure filosofoarentzat materialismoak inmanentismo erradikala esan nahi du, errealtateak (bakar eta materialak) bere baitatik bere burua gauzatzea etorkizunarena ez den transzendentzia oro alde batera utzirik⁸. Baldin eta Blochen filosofia izendatzen bada, eta arrazoiz gainera, itxaropenaren filosofia, ohartarazi behar da termino hori ez dagoela lehen mailan gure barruan dugun zerbait adierazteko erabilia, baizik eta nagusiki izaera ontologikoa duen errealtate bat aipatzeko. Zeren errealtate-printzipio delako horregatik da giza historia utopien historia, horregatik suntsikortasun eta heriozko kosmologia honek ere natura eta gizadiaren artean harmonia beteko beste bati leku egin beharko lioke, heriotzaren deuseztapenaren aurrez aurre *kanpolurraldetasunezko* beste bati.

⁶ *Ibidem*, 34. or.

⁷ *Gespräche mit E. Bloch*, Frankfurt, 1975, 17 or.

⁸ Ikus bedi hau guztirako eta ondoren datorrenenak *Tübinger Einleitung in die Philosophie*, Logicum/ Zur Ontologie des Noch-nicht-Seins, Frankfurt M. 1970 (Neue erweiterte Ausgabe, 210-296 orr.)

Enst Blochek eguneratu eta birbaliotu egin du pentsamendu modernoko utopia nozioa Utopia *abstraktua*, errealitatean oinarririk gabe “airean gazteluak egitearen” pareko dena eta utopia konkretua hartan oinarria duena bereizten irakatsi digu. Konturarazi digu izan direla utopiak (*Tagesträume* deitzen ditu), nahiz eta penatuki, pixkanaka bidea urratuz eta historian zehar objektibatuz joan direnak. Horrela, esaterako, hegaz egitearen ametsa eta egitasmoa, itsasoak gainazalpean zeharkatzearen, esklabismoa eta sistema feudala ezabatzearen helburuarena, langile-mugimenduak zortzi orduko laneguna lortzeko egitasmoa eta abar.

Azkenik, Blochen pentsamenduaren azterketa labur eta soil hau amaitzeko gehitu beharra daukagu justizia hutsezkoa dela teologia kristau garaikidean izan duen eragina. Bitxia badirudi ere filosofiak baino teologiak areago sentitu du bere bulkada. Ernst Bloch erabakigarria izan da teologia kristau *eskatologia* gisa berreskura dadin. Moltmannena bezalako Itxaropenaren teologia edo Metzen Teologia politikoa bezalako era teologiko berriak ezinezkoak ziratekeen Blochen arnasarik gabe⁹. *Thomas Münzer als Theologe der Revolution* (1921) bezalako obra goiztiar bat ere lehen aldi bat eta iragarpen bat izan da geroago etorri den *Askapenaren Teologiarako*.

3. Atheismus im Christentum obra

a. Orokortasunak

Blochen obra hau, “Pentsamenduaren Klasikoak” bildumak euskaraturik eskaintzen duena, berantiar samarra da (1968). Aurretik etorri ziren beste obra nagusi hauek: *Geist der Utopie* (1918 eta 1923), *Subjekt-Objekt. Erläuterungen zu Hegel* (1949 eta 1952), *Das Prinzip Hoffnung* (1954, 1955 eta 1959), *Naturrecht und menschliche Würde* (1961) eta *Tübinger Einleitung in die Philosophie* (1963-1964). Ondoren beste hauek etorriko dira: *Das Materialismusproblem. Seine Geschichte und Substanz* (1972), *Experimentum mundi* (1975) eta *Tendenz-Latenz-Utopie* (1978) obra postumoa.

Atheismus im Christentum ez da Ernst Blochen obra nagusia, hori *Das Prinzip Hoffnung* baita. Baina horrek ez du esan nahi blochiar sorkuntzaren baitan obra garrantzitsua ez denik. Haren aldean hain tamaina handikoa ez izatearen abantaila du irakurlearentzat eta segur aski pentsamendu helduago baten aurrez aurre jartzearena. Lehen itxaropenak, G. Marcelek hainbeste gaitzetsitako optimismoaren ia kide zena, orain ezaugarri errealistagoekin agertzen da. Atheismus im Christentum, oro har, erlijio-filosofiako obra bat da eta ezer baino gehiago erlijio judu eta kristauarena, zehatzago esateko. Blochek galdetzen du zer dagoen erlijio-fenomeno judu-kristauaren barrenean. Baina Bloch den ateo edo antiteista radikalarentzat argi dago barren hori ezin litekeela izan giza historian jardunean ari den Jainko bizi eta eragile baten existentzia eta egintza. Obraren izenburua berak adierazten du. *Ateismoa eta Kristautasuna* behar zuen izenburuak. Baina emaztea eta lankide zuen Karola Blochek iradokita gaur daukanaz aldatu zuen Baldin eta erlijio-fenomeno judu-kristaua gure pentsalariak, Feurbachen ildotik, lilura soil gisa interpretatzen badu, inolako traszendentalitatetik gabeko subjektibitatearen proiektio gisa, horrek ez du esan nahi garrantzigabea denik. Hemen Ernst Bloch alden du egiten da berak *Vulgärmarxismus* deitzen duen edozein eratatik Erlijio-fenomeno judu-kristaua izugarri garrantzitsua da gizadiarentzat bere sakonera guztian irakurtzen jakinez gero. Hainbestearino, non bere filosofia *Religion in Erbe*

⁹ Ikus bitez, J. Moltmann. *Theologie der Hoffnung*, München 1973 eta *Diskussion zur politischen Theologie*, (H. Peukert, erg.) Mainz-München, 1969.

izendatzen duen. Esamoldeak konnotazio hegeliar eta nietzschearrak ditu. Jainkoa inmanentzian zurrupatua izan da edo besterik gabe hil egin da. Baina Jainkoaren heriotzak ez du esan nahi zentzu oro hondogabeturik geratu behar duenik¹⁰, alderantziz, ezker hegeliarraren izaera antiteistaren ildotik gizakia bizi dadin ezinbesteko baldintza da. Horrela, erlijio-fenomeno judu-kristaua, traszendentziaren bere erreferente lilurazkoaz gabeturik, ondare baliotsu bihurtzen zaigu bere *itxaropen*-eduki sendo eta bakarrari esker. Itxaropen hori ez da jadanik *pia spes* baizik eta *docta spes*.

Obra blochiarrek ekarpen bat izan nahi du kristau eta marxisten arteko elkarrizketarako. Ezin dezakegu ahanztu kristau eta marxista-taldeak, elkarrizketa ausart eta berri baterako, Salzburg, Herrenchiemsee (Bavarian), Marienbad (Txekoslovakia ohian) eta Bonn, elkartzen diren garaian sortzen dela. Obraren azpi-izenburuak norabide horretan begiratzen du batik bat: “ateoa bakarrik izan daiteke kristau ona, kristau bakarrik izan daiteke ateo ona”. *Atheismus im Christentum* obrako “Zum Verhältnis Maximus und Religion” saila arduratzen da zuzenki gaiaz.

b. *Bibliaren irakurketa blochiarra*

Atheismus im Christentum funtsezko bi puntu hauetan laburbil daitekeela uste dut. Bibliaren irakurketa ausart eta originalean eta irakurketa horren argitan sortutako eta antropologia filosofiko batean. Lehen puntuari dagokionez argi dago Ernst Blochen interpretazio biblikoak liburuen liburu den horren balioespen aparteko bat daukala auresuposatutzat. Hor bere judu izatea sartzen da jokoan zalantzarik gabe. Ernst Blochentzat Biblia da libururik unibertsalena, herritarrena, iraultzaileena, eta zentzu horretan Antzinateko beste edozein literatur obraren, adibidez, Homeroren sorkuntzaren oso gainera dago. Blochek ezagutzen du Biblia, irakurgai eta hausnargai bihurtu da. Bere interpretari eta zientzialari hoberenetako bat baino gehiago ezagutzen ditu Wolhausengandik hasi eta Von Radenganaino. Eta gogor kritikatzeko du ilustrazioa bere ideologia burgesarengatik elezaharra eta mitologia pobrea besterik hartan ikusten asmatu ez zuelako. Jadanik iradokia dugunez, gogor kritikatzeko du Bibliak gainezka dituen eduki herritar eta iraultzaileei ez ikusia egiten dien marxismo arrunta ere.

Ernt Bloch filosofo marxistak materialismo dialektikaren hermeneutika bat aplikatzen dio. Horrek esan nahi du esanaren arabera gaitzetsi egiten duela traszendentzia baztertzeko duten edo etorkizun inmanentea bakarrik besterik onartzen ez duten begiez bakarrik egindako Bibliaren irakurketa. Irakurketa horrek, izatez, esan nahi du bi Biblia daudela: zapaltzaileena eta zapalduena. Hau da, Biblian lehen liburutik hasi eta azkenekoraino klase-borroka ageri dela. Klase zapaltzailearen Bibliari Blochek *teokratiko* deitzen dio, *goiko* Jainkoaren Biblia, erabateko heteronomiarena, Marduk, Baal, Mammon eta Zeusen odol-senidea den Yahve batena. Mendetasun baldintzagabea eta sakrifizioak eskatzen dituen Jainko tiranoa. Jainkozkoaren irudi hori, feuerbachiar eta marxiar tesiak aplikatuz gero, sazerdote eta erregeek eraturiko klase zapaltzaileen proiektzio interesatua besterik ez da. Beren obra berezia *Priesterkodex* deritzana da. Berak asmatu du Jainko *sortzailea*. Itun Berrira etorri gero Paulo Tarsokoa izan da Blochen iritziz Kristoren sakrifizio berrerosle eta espiatzailearen teologia mamitu duena, *Gurtzearen pazientzia* bultzatu duena.

¹⁰ Ikus F. Nietzsche, *El gay saber*, Madrid 155 hh. (125. El hombre loco)

Biblia teokratiko eta hierokratiko honen aurrez aurre bestea dago, legítimo, autonomiarena, errebolta eta subertsioarena, Biblia *gorria*¹¹, Biblia *pauperum*¹². Baldin Mao-Tse-Tungek esaten bazuen “historia herriak egiten zuela baina zapaltzaileek idazten zutela”, Ernst Blochek parez pare sostengatzen du behartsuen Biblia hori sarritan ezabatua, zuzendua, berridatzia izan dela botereko taldeen aldetik. Horregatik dago detekzio-lana egin beharra. Biblia goitik behera korritzen duen hari *gorriari* segi behar zaio.

Bulkada iraultzaile handia Moisesek hasten du jainkozkoaren bere ikuspen berriarekin. Etorkizuneko Jainkoa da, ez goikoa. “Izango naizena izango naiz ni”¹³ Exodo eta Agindutako Lurraldearen askapenaren Jainkoa da. Mendetasunaren paradigmen aurrez aurre badira Biblian errebolta irudiak. Paradisuko sugea da horietako bat¹⁴. Blochek atsegin hartzen du tentaldi ofidikoak bere baitan daukan erreboltarako zirikadan. “Jainkoak bezalako izango zarete” hori benetako programa da berarentzat. Sugea animalia prometeikoa da. Gure autoreak segi egiten dio bere presentziari Biblian zehar, brontzeko sugea eraikitzen duen Moisesengan¹⁵, suntsitzen duen Ezekiasengan¹⁶, birbaliatzen duen Itun Berrian¹⁷. Bibliaz kanpoko mitologia ere miazten du (Herkules eta Hydra, Apolo eta Python). Kristautasunaren historian herese ofitak dira sugearen paradigma bere baitan hartzen dutenak arrazionaltasun prometeikoaren sinbolotzat. Subertsio antiteokratikoaren beste paradigma orain antropologiko batzuk hauek lirateke: Jakob Jainkoari aurre egiten diolako¹⁸, Babelgo dorreko gizakiak¹⁹ zeruraino igotzeko beren nahi eragotziarekin. Ernst Blochek leku berezia ematen die Israelgo profetei behartsuen Biblia horren lakukoak eskaintzerakoan. Horiek erakartzen dute herriaren arreta atzerapen larri bat egin duelako. Exodo eta erbesteko erlijio nomada bertan behera utzi edo alboratu egin dute ernalmenaren jainko arrotz eta egonkoiaren nekazal erak hartzeko. Baal eta Astartek hartu dute etorkizuneko eta Erreinuko Jainkoaren, Mesiasaren lekua, uzta-jaiak Bazkoa ospaketarena: Profeten erlijioak –dio Blochek– ez du izaera “zerutarra”. Munduari, gizarteari, portaera arduradunari begiratzen dio. Ez dago benetako kulturik justiziarik gabe. Zaletasun berezia sentitzen du Amosenganako eta behin eta berriz errepikatzen du bere obretan zehar esaldi profetikoa libre samar aipatua: “Zuek aldareak apaintzen eta behartsua goseak hiltzen”²⁰. Baita Isaiasenganako ere (Trito Isaias) “zeru berrien eta lur berriaren”, historiaren amaieran birsortzaile den eta ez hasieran sortzaile den Jainkoaren etorkizun inmanente bezala erlijioaz duen ikuspen indartsuarengatik²¹.

Hala eta guztiz ere, Job da Ernst Blochentzat Itun Zahar guztiko irudi goren eta paradigmaticoena. Joben liburua literatura gisa Biblian dagoenik eta hoberena da, ez da Job gure autorearentzat halako jaiara usadiozko batentzat izan den pazientzia mugagabearen eredu. Alderantziz baizik. Job Jainkoak sufrimenduaren aurrean duen

¹¹ Sinbolika blochiarrean kolore gorriak erreala, baliotsua, askatzailea, adierazten du batipat.

¹² *Biblia pauperum* nagusiki alfabetatugabea zen Erdi Aroko herriarentzat iruditzen itzulitako Bibliaren aipamena da.

¹³ Ex 3.13.

¹⁴ Gen 3.1hh

¹⁵ Zenb 21. 6hh

¹⁶ 2 Erreg 18.4

¹⁷ J 3.14

¹⁸ Gen 32. 24 Gure Unamunok arazo agoniko berberarengatik arreta berezia eskaintzen dio patriarkari.

¹⁹ Gen 11

²⁰ Am 8.4 hh

²¹ Is 65.17

isiltasunaren aurrez aurre gizakiak egiten duen errebolaren heroia da. Profetak baldin badira exodoaren gizonak, tenpluko kultuarenak, Job erlijio-elkarteari uko egiten diona da. Jobek era zakarrean hausten ditu sufrimenduaren usadiozko legitimazio erlijioso guztiak. Yahveren kontra jaiki eta kontuak eskatzen dizkio. Blochek ustezko interpolaziotzat baztertzen ditu Jobek Jainkoari men egiten dioneko pasarteak. Horrela gertatzen da Itun Zaharreko Prometeoa, “bere Jainkoa baino hobea den gizona”, Teodizea oro edo sufrimendua baimentzen duen Jainkoaren justifikazioa herio-kolpezt jotzen du behin betirako.

c. *Kristologia blochiarra*

Ernst Blochek jatorri marxistako beste edozein autorek baino hobeki garatu du Nazareteko Jesusen irudiaren interpretazio pertsonal eta sakon bat. Ez R. Garaudyk, ez M. Majovechek, ez L. Radicek gaituzten dute²². Jesusen irudi blochiarra Biblia subertsiboa osatzen duten paradigmaren ildotik doa. Job bera baino ere areago bera da Prometeo bibliko handia. Blochek lehenengo eta behin Nazareteko Jesusen nortasun indartsua azpimarratu nahi du. Justizi sentimendu sakonez hornituriko gizona da, aberastasuna metatzen dutenen, behartsu eta babesgabeen lepotik bizi direnen aurka sumindurik leher egiten duena. Elizak gehiegi eztitu du diskurtso haserretu hori. Gainera Jesus barnekoa ez, baizik lurrekoa eta politikoa den Erreinu hori jadanik hurbil dagoela. halere Erreinu atarian ikusten duenean orduan *bortxarik ezak* eta maitasunak dute hitza. Baina bada garrantzitsuagorik Blochentzat. Jesusek bere burua Mesiasatzat dauka eta ez du halakotzat bakarrik aldarrikatzen, Jainkotzat baizik. Autokontzientzia horrek ekartzen dio heriotza Sanhedrinaren aurrean. Honaino Elizaren joera exegesiko oso batek segiko lioke. Baina Blochek baieztapen harrigarri bat egiten digu. Dagoeneko iradokia dugu. Jesusek Jainkoaren Seme gisa duen autokontzientzia ez da Aitarekiko mendetasuna baizik eta errebelio eta ordezkapeneko. Jesus ezer baino lehen Jainkoaren lekuan jartzen den Gizonaren Semea da. Beragan egia bihurtzen da feuerbachiar goiburua: “gizakia Jainko da gizakiarentzat”. Hori da –aitortzen du Blochek- Laugarren Ebanjelioko esaldiaren esanahi sakona: “Aita eta biok gauza bera gara”²³.

Guztiarekin ere, hurbil dagoen Justizi Erreinu bat aldarrikatzen duen Nazareteko Jesusen abentura porrotean amaitzen da. Jesusek gurutzean adierazten du bere etsipena, mingostasun eta desesperoa. Hemen amaitzen da bere existentzia guztia, baina Itun Berriko idatziek Jesus horren berorren piztueraz eta igokundeaz hitz egiten segitzen dute. Blochen mentalitatean fikzio eta lilurak dira, baina balio handikoak. Biak behinbetirako askaturiko gizakiaren errealitatea mamitzen duen *Wunschmysterium* izugarri bati ematen diote gorputza. Blochek hemen apologo klasiko zaharraren konklusioa dakar. “*De te, homo, fabula narratur*”. Hitaz mintzatzen dituk Nazareteko Jesusen piztueraz eta igokundearen utopia hauetan.

Ernst Blochek ez du ahazten bere obra guztian zehar Kristautasunaren historia. Biblia pauperum, Kristo antiteokratiko eta antibotereaganako, bere hitzetan “herese handienarenganako” fidelitasun eta ezfidelitasunaren historia da. Benetan fidelak heterodoxo ofitak, Huss eta Thomas Münzer bezalakoak dira, baina baita mistiko eta sasi-mistikoak ere: Joakin de Fiore, Eckhart eta Boehme. Bloch oroitzapen berezia du joan den mendean Ketteler bezalako sozialkatolikoentzat eta hogeigarren mendean “Benedikto XV.ren irudi noblearentzat” bakearen alde egin duten ahaleginarengatik.

²² Kontsulta bedi I. Fetscher, *Los marxistas y la causa de Jesús*, Salamanca 1974.

²³ J 10.30

Blochen haserrea bigarren Luterorengana doa batik bat, printzeak nekazari erreboltatuen kontra xaxatzen dituenarengana, nazismoarekin hitzarmena egiten duten apezpiku alemaniarrengana, errepublikarren aurka gurutzada egin zuten 1936ko espainiar nazionalkatolikoengana.

d. Eskatologia blochiarra

Gure autoreak egiten duen Bibliaren azkeneko kapitulu nagusiaren irakurketa da. Inon hartzekotan hementxe hartu nahi du mintzaira eta diskurtso kristauaren ondarea. Eskatologia hau nagusiki “Aut Logos aut Kosmos?” sailaren baitan dago nagusiki jasoa. Utopia blochiarra antropologia da lehenengo eta behin, baina ez haraindiarena noski, orfismoak eta platonismoak duten espiritu huts akosmiko, ahistorikoarena, Ernst Blochentzat etorkizun antropologikoa lurrekoa, somatikoa, Diesseitigkeit-ez betea da.

Dena materialismo dialektikoaren materia aurpegibiko somatiko-espiritual, autarkiko, “goiko” ezeren menpe ez dagoenaren bere tesiarekiko adostasunean, *natura naturans*, ez *natura naturata* kanpoko beste printzipio batetik. Tesi horrek jatorria Aristotelesengan luke Avizenna, Avizebron eta Giordano Brunok ongi interpretaturik eta ez Erdi Aroko eskolastika kristauak²⁴. Materialismo dialektikoak autarkiaz gainera, bera izenak adierazten duenez, dinamikotasuna, etorkizuneranzko tirandura eskatzen du. Ez da *Arkadia*, hau da, iragan idilikoarekiko, *Urre-Aro* batetiko zerikusia duena, *Utopiarekiko* baizik. Hemen Bloch polemikan sartzen da Spinoza, Rousseau, Schiller, Goethe eta abar bezalako erromantikoekin. Baita utopiko sozialekin berekin ere, nola helenistikoekin (Teoponpo, Ianbliko) hala modernoekin (Moro, Campanella). Beren utopiak ez lirateke erabat halako izango zeren geografiaz bakarrik baitaude urrunduak, ez denboraz. Ez dira erabat askatu eta buruturiko gizadi baten etorkizunekoak. Gizadi horrek gainditurik edukiko du hain serioa, hain sakona den alienazio existentziala. Ernst Blochek alienazio-mota horrekiko duen sentsibilitatea jadanik aipatua dugu hitzaurre honen hasieran. *Atheismus im Christentum* obran bereziki hartzen du kontutan. “Errazagoa da elikatzea salbatzea baino”, diosku. Benetako arazoak mundu guztiak oinarritzko beharrianak asea dauzkanean sortzen dira. Denborazkotasunaren, gogait existentzialaren, ondorez radikalaren eztena, zergatik existitzen den zerbait eta ez ezereza bezalako galdera. Ideia-mota horrekiko loturan garatzen du Blochek bere gogoetarik sakon eta bizipenezkoena giza gaizkiari buruz²⁵. Batez ere gaizki gorena, antiutopia erradikalena dauka kontuan: heriotza. Ezein autore marxistak ez ditu idatzi hartaz berak bezain pasarte egiati eta hunkiorrak²⁶. Baldin eta marxismoak –dio gure autoreak– detekzio eta kritikako korrante hotz badu (*Kältestrom*), badu beste bat detektaturiko alienazioei erantzun askatzailea eskaintzen dien bero bat (*Wärmestrom*). Korrante bero horrek gainditu egiten du edozein erantzun estoiko bizi-ekortasunaren aurkako kontrapozio gisa. “Jaso zuen buruak”, esaten digu Blochek. Ez da ezereza azkenean zain daukaguna baizik eta Karl Marxek aurreikusiriko utopia askatasunaren erreinu gisa. Utopia hori esandako guztirengatik bada *kosmologiko* edo hobeki *kosmologiko-antropologiko* ere. Gizadiaren eta aldi berean naturaren betekuntza da. Ez dago bata eta bestea bereizterik. Ernst Blochek hemen, Arnold Rugeentzako gutunean, beste obra batzuen bezala, mintzaira marxiarrari heltzen dio: “Naturaren gizatiarkuntza,

²⁴ Ikus bedi, *Avicenna und die aristotelische Linke*.

²⁵ Gaiaren trataera metafisikoagoa *Tübinger Einleitung in die Philosophie* obrari dagokio.

²⁶ Heriotzaren gaiaren trataera zabalagoa hemen dator: *Das Prinzip Hoffnung*, B. 3., 1297-1392 orr (Sonderausgabe)

gizadiaren naturalkuntza”. Hau da, giza subjektuaren gain heriotzaren deuseztapena jadanik erorraziko ez duen natura bat, zeren eta bere izatearen barne-muinekoena jadanik erneta egongo baita eta suntsiera *ororekiko kanpo-lurradetar* izango baita.

Mintzaira kristaua ongi datorkio Blochi bere utopia birbalizatzeko. Aurrena Nazareteko Jesusen piztuera eta igokundearen mintzaira. Gero “*non omnis confundarena*”²⁷, zerutik lurrera jaisten den Jerusalem berriarena²⁸, jadanik adierazitako “zeru berrien eta lur berriarena”²⁹, “*summum bonumaren*” adierazpen teologiko-filosofikoa. Blochek beren izatera behin betirako iritsitako gizadi eta natura horretan jainkozkotasun erreal bat ikusten du. Hasieran ezer ez eta amaieran dena den jainkozko hori da. Blochiar mundu-ikuskerako “*Gott wird*” hori da³⁰

e. *Obraren balioespena*

Atheismus im Christentum obrak, gure iritziz, ederki erakusten ditu blochiar pentsamenduaren alde positibo eta negatiboak, oro har, eta baita bere izaera intelektualarenak ere. Irakurlea txunditurik uzten du Mendebaldeko kulturaren, hasieratik gure eguntara artekoaren bere ezagutza izugarriak, Batez ere filosofia eta literaturako obretan dagoen pentsamenduaren kulturarena. Halaber, harrigarria da -dagoeneko esana dugu- nola Ernst Bloch erlijio-kulturaz jabeturik dagoen oinarritzko obren irakurketari eta historiaz dituen ezaguerei esker. Erlijio-gaiaz bere epaia landu eta ematen duenean, oro har, -bere beste lankide batzuek ez bezala- jakinaren gainean egiten du. Gertakari hori aparteko samarra da alor marxista edo neomarxistaren barruan.

Fededum kristauarentzat eskergarri zaio Bibliaz, oro har, egiten duen aldeko balioespena eta, bereziki, Nazareteko Jesusen figurarena. Halaber, autore mistikoenganako eta justiziarengatik borrokan ari diren edo aritu ziren fededun kritikoenganako ageri duen begikotasuna. Atheismus im Christentum obran ez du Thomas Münzer handiak bakarrik lekua, baizik eta, Espainiako gerrate zibilean, bala frankisten pean josita hiltzera zihoazen milizianoak bere gorputzaz babestu nahi izan zituen Badajozeko apaiz anonimo batek ere bai. Ezinbestekoa da Blochekin ados egotea pietate faltsu batean bere burua babestuz behartsu eta zapalduen kausa alde batera uzten duen, edo okerrago dena, desberdintasunezko egoerei eustea zuribidetzen duen ideologia bihurtzen den erlijiotasun-era zorrotz kritikatzeko duenean. Ikuspuntu horretatik zalantzarik gabe gure autorea Eliza bera Jesusen ebanjelioari egin dion traizioaren aurrez aurre jartzen duen profeta ez fededuntzat hartuko genuke.

Bestalde, justiziazkoa da beste behin esatea, oso gutxitan ikusi ditugula bilduta hainbeste jakite eta hainbeste ezaguera kristautasunaz hainbeste dogmatismo eta ideologizazioz. Ernst Bloch ez da gauza erlijiozko guztia funtsezko errealiterik gabeko gisa, lilura eta engainu gisa ikusten duten bere betaurrekoak alde batera uzteko. *Deus major* baten aurrean ate-leiho guztiak erabat ixten dituen aukerako ateismoak egiazko interpretatze-aberraziotara daramate Bloch. Adibidez, Job, eta batez ere, Nazareteko

²⁷ Esamoldea libre samar Te Deum himnotik hartua dago, nonbait.

²⁸ Ap 21.2

²⁹ *Ibid*, 21.1, Is 66.22

³⁰ Ikus *Das Prinzip Hoffnung*, B.3 Der letzte Wunschinhalt und das höchste Gut, 1551-1602 orr. (Sonderausgabe).

Jesus Jainkoa tronotik botatzeko eta haren lekuan jartzeko gerra bat egiten duten gizon bihurtzera.

Itsumen antiteista horrek, ondorioz, testu biblikoak bihurtzera eta *exegesi basatia* deritzana egitera darama.

Blohek itxaropen erradikalki inmanentea aldarrikatzen du gaizkia baino, eta bere frogarik handiena den heriotza baino indartsuagoa den Jainkoagan oinarritzen den itxaropenaren aurrez aurre. *Docta spes* eta ez *pia spes*. Baina, *hoffen worauf?*, itxaron, zeran oinarriturik? galdetzen du berak eta galdetzen dugu haren lanak irakurtzen eta afektuz aztertzen ditugunok eta pertsonalki ezagutu dugunok. Oinarri blochiarra ezaugarri mistiko eta transzendentz apainduriko materia bat da, bere azken fasean dena izateko gai dena, heriotza gainditzeko gai dena. Ez da harritzeko Ernst Blochi ameslari eta utopizale izenak eman izana. H. Sonnemansek dio maitasunean eta transzendentzian oinarritzen ez den itxaropena itxaropen gabezia (*Hoffnungslosigkeit*) bihurtzen dela³¹. Egia da mistika materialistaren tonuak eta bere baikortasuna bigundu egin direla *Atheismus im Christentum*-en. Indartsuagoa da itxaropena betirako frustratua gerta daitekeelakoaren eta itxaropenak (*Hoffnung*) konfiantza (*Zuversicht*) esan nahi ez duelakoaren baieztapena. Urteak joan ahala bizi-esperientziak segur aski ikusarazi zion ez zela hain gauza erraza gaizkia eta heriotzaren gainerako garaitzapeen inmanente behin betirakoa.

Baina testuaren formaltasunari dagokienez, izan ziren Ivo Frenzel bezalako autoreak obra agertzean estiloaren gogortasun eta iluntasuna kritikatu zutenak eta beste obra batzuetako ideia eta pasarte gehiegizko errepikapenak³².

Atheismus in Christentum obra bihotz zabaltasunez irakurri eta aztertzeko ausardia izan dezan irakurleak berez epaitu ahal izango du ohar kritiko hauen egia eta tentua. Gauza bat ziurtatzen diogu, kultura garaikideko burutik jantzien, interesgarrien eta kritikoenetako batekin harremanetan jarriko dela.

Alfredo TAMAYO AYESTARAN

³¹ H. Sonnemans, *Hoffnung ohne Gott?*, Freiburg B. 1973

³² In: "Frankfurter Allgemeine Zeitung" 23/24 azaroa, 1968.

Biografia

Ernst Blochen obra nagusiak

1. Gesamtausgabe in 16 Bände, Frankfurt am Main, Suhrkamp Verlag 1957-1977.

Band 1 *Spuren* 1969.

Band 2 *Thomas Münzer als Theologe der Revolution* 1969.

Band 3 *Geist der Utopie* 1964.

Band 4 *Erbschaft dieser Zeit* 1962.

Band 5 *Das Prinzip Hoffnung* (2 v.) 1959.

Band 6 *Naturrecht und menschliche Würde* 1961.

Band 7 *Das Materialismusproblem, seine Geschichte und Substanz* 1972.

Band 8 *Subjekt-Objekt. Erläuterungen zu Hegel* 1961.

Band 9 *Literarische Aufsätze* 1965

Band 10 *Philosophische Aufsätze zur objektiven Phantasie* 1969.

Band 11 *Politische Messungen, Pestzeti, Vormärz* 1970.

Band 12 *Leipziger Vorlesungen zur Geschichte der Philosophie* 1977

Band 13 *Tübinger Einleitung in die Philosophie* 1970.

Band 14 *Atheismus im Christentum* 1968

Band 15 *Experimentum mundi* 1975.

Band 16 *Geist der Utopie* (Faksimile der Ausgabe von 1918) 1971.

Ergänzungsband zur Gesamtausgabe: *Tendenz-Latenz-Utopie* 1978.

Beste argitalpen batzuk

Geist der Utopie, 1º München 1918, 2º Berlin 1923.

Thomas Münzer als Theologe der Revolution, 1º München 1921, 2º Berlin (Ost) 1969.

Spuren, Berlin 1930

Erbschaft dieser Zeit, Zürich 1935.

Sujet-Objekt. Erläuterungen zu Hegel, Berlin (Ost) 1949, 1952.

Das Prinzip Hoffnung, B. 1 Berlin (Ost) 1954, B. 2 Berlin (Ost) 1955, B. 3 Berlin (Ost) 1959.

Das Prinzip Hoffnung (Sonderausgabe) E. Bände, Frankfurt M. 1959.

Tübinger Einleitung in die Philosophie, B. 1 Frankfurt M. 1963, B. 2. Frankfurt 1964.

Beste obra batzuk

Durch die Wüste. Kritische Essays, Berlin 1923.

Avicenna und die aristotelische Linke, Berlin (Ost) 1952.

Verfremdungen, B. 1 Frankfurt M. 1962, B.2 Frankfurt M. 1964.

Widerstand und Friede, Frankfurt M. 1968.

Gespräche mit Ernst Bloch (R. Traub und H. Wieser arg.), Frankfurt M. 1975.

Tagträume vom Aufrechten Gang. Sechs Interviews mit Ernst Bloch (A. Münster arg.) Frankfurt M. 1977.

Ernst Bloch Briefe (Karola Bloch etc arg.) 2 B., Frankfurt M 1985

Gaztelaniara itzulitako obrak

El pensamiento de Hegel, Mexiko 1949 (W. Rocesek itzulitako obra hau *Sujet-Objekt, Erläuterungen zu Hegel* jatorrizkoa baino lehenago agertu zen)

Avicena y la izquierda aristotélica, Madrid 1966

Tomás Münzer, teólogo de la revolución, Madrid 1968.

El principio esperanza, 3 tomos, Madrid 1977-80.

Derecho natural y dignidad humana, Madrid 1980.

El ateísmo en el cristianismo, Madrid 1983.

Ernst Blochi buruzko talde-lanak

Festschrift Ernst Bloch zum 70. Geburtstag (R. O. Gropp arg.) Berlin (Ost) 1955.

Ernst Bloch Revision des Marxismus, (J. H. Horn arg.), Berlin (Ost) 1957.

Ernst Bloch zu ehren (S. Unseld arg.), Frankfurt M. 1965

Ernst Bloch Wirkung. Ein Arbeitsbuch zum 90.Geburtstag Frankfurt M. 1975, Suhrkamp.

Ernst Blochi buruzko obrak (hautespen laburra)

Bahr E., *Ernst Bloch* Berlin 1974.

Bloch K., *Aus meinem Leben*, Pfullingen 1981.

Damus R., *Ernst Bloch: Hoffnung als Prinzip, Prinzip ohne Hoffnung*, Meisenheim 1971.

Gómez Caffarena J., Mayer H., eta abar. *En favor de Bloch*, Madrid 1979.

Gómez Heras J. M. G., *Sociedad y utopía en Ernst Bloch*, Salamanca 1977.

Holz H., *Ernst Bloch. Auswahl aus seinen Schriften. Einleitung*. Frankfurt M. 1967.

Jaeger A., *Reich ohne Gott. Zur Eschatologie Ernst Blochs*, Zürich 1969.

Kimmerle H., *Die Zukunftsbedeutung der Hoffnung*, Bonn 1966

Kraenzle K., *Utopie und Ideologie. Gesellschaftskritik und politisches Engagement im Werk Ernst Blochs*, Bern 1970.

Krieger E., *Grenzwege. Das Konkrete in Reflexion und Geschichte von Hegel bis Bloch*, Freiburg B. 1968.

Marsch W. D. *Hoffen worauf? Auseinandersetzung mit Ernst Bloch*, Hamburg 1963.

Mayer H., *Reden über Ernst Bloch*, Frankfurt M. 1989.

Moltmann J. eta Hurbon L., *Utopía y esperanza. Diálogo con Ernst Bloch*, Salamanca 1980.

Pelletier L., *L'anticipation utopique chez Ernst Bloch*, Université de Montréal 1989.

Pérez Cortés S., *Ernst Bloch: Sociedad, política y filosofía*, México 1988.

Ratschow C.H., *Atheismus im Christentum? Eine Auseinandersetzung mit Ernst Bloch*, Gütersloh 1970.

Roberts R.H., *Hope and its hieroglyph. A critical decipherment of Ernst Bloch Principle of Hope*, Atlanta 1990.

Sonnemans H., *Hoffnung ohne Gott? In Konfrontation mit Ernst Bloch*, Freiburg B. 1973.

Schmidt B., *Ernst Bloch*, Stuttgart 1985.

Tamayo A., *La muerte en el marxismo. Filosofía de la muerte de Ernst Bloch*, Madrid 1979.

Weimer L., *Das Verständnis von Religion und Offenbarung bei Ernst Bloch*, Madrid 1979.

Widmer P., *Die Anthropologie Ernst Bloch*. Frankfurt M., 1974.

Zimmer J., *Metaphysikkritik und Ontologie in der Philosophie Ernst Blochs*, Mag.-Arbeit, Osnabrück 1990.

Zudeick P., *Ernst Bloch*. Biografia, Valencia 1992.

Pentsatzea jo eta gainditzea da.

Erlijioak daukan gauzarik onena da hereseak sortzen dituela.

Erlijioa re-ligio da, birlotzea, hasieraren, sorkuntzaren Jainko mitiko batekin bereziki; Exodoko "izango naizena, izango naiz ni" harekiko aitorten zalantzarik gabea, are Gizonaren Semearen eta Eskhatonaren kristautasunarekiko aitortena ez dira erlijio gehiago.

Ateo bat bakarrik izan daiteke kristau on, kristau on bat bakarrik izan daiteke ateo on.

Erabakiorra: Transzendentziarik gabeko transzenditze bat.

Dies septimus nos ipsi erimus

(Augustin)

SARRERA

Gu bakoitzaren kasu dena abiapuntutzat hartuz egin behar da aurrera. Kasu hauxe da gehienentzat inolaz erabili, noren menpe egon, aurkeztu daitekeen bakarra. Ondo igurtzitzeko edo are lainotan ondo biltzeko biderik badagoen bitartean, ez dira koldarrak edo ahulak geldi geratzen diren bakarrak. Baina zutunik ibili nahi duen aseketasuna, gure baitako zati hain on hori, hazten doa etengabe, gaztetan batipat. Pausu zutuna abiatu egiten da, une berean indarrez eta kezkarik gabe oraindik zabarkiro eragiten duen zaharkitutik libratu nahi du. Babesten dutenen eta une berean helbururik ez dutenen orde, presio hustuak, huts presiogileak inolaz eman ezin dioten benetako helduleku bat bilatzen du. Aurrekoa eta aurreko horretatik dirauena nahiko txarra da; hara ginderamazenek nahiago izan zuten ixiltzea, horretarakoxe nahi dituzte bakarrik beren karguak. Erailketa eta lizuna bigarren; honetarako behintzat alemaniar jaierratsu maiteak ezin espero dezake txartelik. Beraz gorantzako begirada gutxitzen bada, alde kasik guztietan Aita-Ni batek ez dauka gehiago zapore hain onik, han goikoek ez dute hainbeste erakartzen. Gure gainean jarrita dauden jaunen kontra oharkor dago onena gaur egun; eta horrek baditu bere ondorioak gorago, guztiz goi-goian jarrita dagoenarentzat. Adabakiak jostea alferrik da, arropa apala bezala handikia urratu egiten dira.

Goikoak ez baina aurrean dagoenak erakartzen du, hura eratzeko. Behetik, askatasunean, argitasunean eta elkartasunean gure historiaz baliatuz. Halakorik ezinezko da oraindik *stablishment* burgesean, ezinezko erdi tzarista erdi sozialista den hartan ere, aginte errepublikar bihurtu orok *pro forma* zerbitzatzen duen herriaren aurrean zerbitzu aitorten hitzezko bat egin behar duen arren. Kalte gabeko bihurtu diren salbuespen gutxiak ezik, monarkia guztiak ezkutatu dira, agintaritzaren gailurra ez dago gehiago zeruko jaun baten bidez zilegiztatua. Beste guztien gainetik inportantea da hemen: Aita-Nik galdu du estatu forman ere loria harranditsua, monarkiek beren menpekoentzat goraka, goi goren batera botatzen zutena, erreflexuki bezala ideologikoki beraientzat abantaila ateraz. Zeruko tronua ere gizartean oinarririk gabe geratzen da lurreko tronurik gabe; honek, ordea, menpeko ohituei, erlijiozko premiarik gabe ere, sinesgarri egiten zien haren ispilaketa zerutiarra. Hain zuzen, subiranoa altura gorenean jarritz, epai arakaezinezko, nahimenik gabeko aingeru gortez, alabantzazko kantaz inguraturik. Jakingarria da zein alde gutxi dagoen honetan paganoen goi-goiko Jainkoaren eta Elizen ohizkoaren artean egoitzari dagokionez, moralaren aldetik besterik bada ere; odolak sakonekoa estaltzen du, gauak goia, aintza bizantziarrak dirau beti eta goi-goiko eguzkia monarkiaren pareko da. Baina oraindik gaineratu behar zaio: natur zientzien aldetik (hitz egin ohi denaren arabera) unibertsoa bera azken lauhun urteotan errepublika bilakatu da. Unibertsoa, nolabait ulertzekotan, bere baitatik bertatik ulertzen da, ez goi-jaun zerutiar baten bidez egin den sorkuntzetatik edo gidaritzatik. Jaun honek lehenagoko gailur hain nabarmena galdu egin du edo onenean oraindik aurkitu ez diren edo asetzen ez duten argibide enpirikoen zulo-estaltzaile mailara eratsia izan da. Gaurko eskolumeari ez zaio inolako tximistarik jaurtikitzen, ez du hartzen eguna Jainkoaren erregali bezala, ez dauzka mehatxuka goitik zigor bezala izurritea, gosetea edo gerratea. Hautsetara eskolume guztiak: hori ere ezin esan daiteke sublimeena oinarritzat jarritz, era fin, nolabait existentzialistan desliluratuei hori antzinako Jainkoarengako fede zahar irmoaren ordezkotik bezala bakarrik aurkeztu zaienean. Nolabait zulo-estaltzaile soila gogoratzen duen ordezkotik bezala: barrutik oraingoan, baina zein prezio hain merke, kasik lotsagarrian. Hain ohol meharrera erakarria geratzen da bere goia, egoeraren arabera, galdu duena; eta aurreraka, gure aurrean ez dago adorerik, eta ondorioz mundurik ere ez, are gutxiago berririk. Bai, mundu burgesa gero eta sinestetik urrutia dago, hartarako ordezkotik egosten dituen neurrian, *quieta non movere* horrekin.

Edonola ere, mundu moderno delakoak ez die behintzat erraz jartzen bereei aitzakiarik gabe intzentsua erretzen segitzea.

Ausarkeria zuhurak era guztiz burgesean aurre hartzen badu, ez du amore ematen. Baina erdi mailako gizakiari sinestea zail egin zitzaionean eta sarri sinestea utzi zuenean, era marxistan hasi zen berriro bultzada. Langile mugimenduak bere egin zuen ez bakarrik burgesiak lehenago egin eta eratu zuena, baita abaro jargoiari eta altareari ukatu ziena ere; argikunde berri berezi bat gaineratu zion horri, ahalik eta ideologiarik gabekoena. Lehen aldiz hain zuzen beren intereseko baitzen interes horren ilaunketarik gehiago ez izatea, aldiz bai interesagatik ilusioetatik libre izatea. Begirada arakatzaila iritsi zen, eta horren azken arrazoi bakarra ez zen Elizak agintedun klasearekin zuen itun betikoa: hortik, hazka eginez gero, jaunen frailetzarra, antzinako augureak eta beren "keinadak" ager zitezkeen ezer baino lehen. Eta ez bakarrik negoziotan: "Biblia esan eta kotoia esan nahi da", baizik areago: "herriari erlijioa gorde behar zaio", "gurutzearen pazientzia" guztiz ahituak biltzen duen zentzu maltzur eta alferrenean. Horretarako hain luzaz hertsu zuen beste munduko kontsolamendua, ez barnekoa bakarrik, areago egunen bateko ordainketa ustezkoa ere, gainerako loturak hautsi zirenean. Brechten "Mahoganny" obrak azken eskenan, horrela, bi talde azalarazten ditu, bi bihotz baina arma bat bera dutenak, idazkun bana ekarritz, bata dioelarik: "Lurraz gainetiko ondasunen banaketa zuzenaren alde", eta besteak berriz: "Lurreko ondasunen banaketa okerraren alde". Hortik, beraz, faktura edo kontsigna merezia Internazionalako testuan: "Ez zaituzte salbatuko goragoko izaki batek, ez jainkoak, ez kaiserrak, ez tribunuak". Oso garbia gertatzen da "Xirula miragarria" operan horri dagokionez azaltzen den osagarria, orohar sineskerien eta handik onura ateratzen dutenen kontura ari bada ere: "Eguzkiaren izpiek uxatzen dute gauda, hipokriten ezkutuko boterea xahutzen dute". Horregatik argikunde burgesak, bere loraldian, bere eginkizuna hain ondo bete zuen non, sineste zaharrak, hain zuzen ere bere kalakan, gezur handiagorik ezin baitzuen esan, hau da hainbeste ipuin mahairatu zituen non zutabeak ere hautsi baitziren. Baina era marxistan interes analitiko interesatua gaineratu zitzaion, ordurarteko jaunei aurrerantzean inolako ilundurarik onartuko ez zien guztiarekiko ideologia susmo hura, alegia. Argikundea beraz erlijioaren kontra ere burutu behar zen; tamalez ez bakarrik sineskeria kamutsen kontra, baizik areago, marxismo bulgarean, profeta burrunbarien kontra ere, are oraindik Kautskyk berak Thomas Münzer batengan gustuko aurkitu ez zuen "mistika apokaliptikoaren probatxo" deituaren kontra. Guzti hau, ordea, akituen eta zapalduen mesedetan ahalik eta zehatzen, ahalik eta sakonen, hau da ekonomiaren aldetik hura sortzen zuten erroetatik, jaunek gehien balia zezaketen ameskeriak erauzteko. Ur arretan, beste aldean arrantzuaren egiteko gogoia inmanenteki desegin zen. Materialismoa, esaten zuen Engelsek, mundua bere baitatik bertatik mundua ulertzeko moldea da. Eta goiko ustezko zero oro, Jainko bat jauntzat daukana: ez bakarrik natur zientzien aldetik, baita ideologiaren kritikaren aldetik ere, gizadiaren "aurre-historiako" *ad acta* zokoratua izan zen nagusi-morroiz lotura eta gizarteko heteronomia lurrean zilegiztatu eta santutzen zuen neurrian. Iraulketa horrela erabateko erabakira iristen da, heteronomia ororen kontra, beraz bere ilusio baliagarrienaren kontra: teokratikoaren kontra (guztiz goitik beherakoa), alegia. Horrekin askok uste izan zuten erlijioaren egitekoa bezala haren *toposa* ahiturik zeudela zeharo, ez zegokeela gorriarik gehiago, eta haren ultrabioleta (beste edozein bezala, bestalde) kalterako zitzaiokeela gorriari. Era horretan bukaturik zegokeen zirkulua: Aita-Nirik ez gehiago, lurrean bezala kosmoan errepublika, gizakia errentzat izakirik gorenena gizakia, -eta erlijiosoa gainera aztertutik alderantzizko bihurtua. Ez dago hondar aipagarriarik inolako erlijiotan, ez bada dorpekiro etsiarazientzat edo agintean dauden Tartufoentzat; haien egia, beraz, haien erabateko gainbehera litzateke.

Harritzekoa ordea, haurra bainera eta guzti jaurtitzen ez bada. Ez bakarrik dirau eta jolas egin nahi du haurrak gizonarengan, oraindik gehiago. Brechtek berak, frailetzarren lainoak okaztagarritzat gorrotatzen zituelarik, irakurketa gustukoenaz galdetu zitzaionean erantzun zuen: "Barre egingo duzu, baina Biblia da". Atorrante bezain harrigarri dirudi erantzunak, baina harrigarri argikundea argikeriarekin nahasten duen eskolatuentzat -eskolatu ez izaki egiaz- da harrigarri. Brechtenak eta Johanna neskarenak eta aieneak burrunbatzen dituen Taleko Koralarenak bezalako zerbaitek adierazten du garbi ez dagoela Biblian kumatzen duen askotzarik ezta herria, arlote handi hori, lotarazten duenik ere. Haurrak zikoniak ekartzen dituela eta mana zerutik datorrela kontatzen duten ipuinen antzekorik apenas aipatzen duen, ezta Berpizkundearen historiari atxekiak ere (hilobi hutsa barne delarik), gertakari kasik positibo bezala kontatu arren. Berez bakarrik betetzen den gurarizko misterio soil bezala eta gugandik datorren Gizonaren Semearen luzapen soil bezala kontatu ordez: *non omnis confundar*. Hori hain zuzen, goitik beherako transzendentziarik bat ere gabe, ezin justifika baitliteke hau lurrean hainbeste Golgota izaki berpizkunde oro gabe, ulerturik gainera, han oraindik *ens realissimum* bat jarri ordez, izan ere ez dela, ez bada ispilaketa lardaskatu eta hartaz erakarpenik gabeko bezala. Prometeo haitzari lotu zuen Zeus ere inoiz jainkotzat hartua izan zen, qua jainko transzendentzian - gorentasun esfera, oro lotzen duena, farisaikoki zigortzen duena, are errukitsu ere badena, "paganoki" kontrajarria dago Bibliak benetan, hau da antifaraonikoki, kristozentroki jainko izunen kultutik apartatzen duenarekiko. Hala ere badago apezek idatzi eta ondorengoei helarazi, jaunen elizan erabilitako Bibliako testuan maiz -jaunekiko zerbitzuan Israelgo benetako semeen arrenkuren kontra eginak izaki- erlijio paganoaren eta biblikoaren artean loturarik, besterik ez bada gurutzamendurik. Esaterako, Biblian alde guztietan azaltzen dira opariak, Ahalguztidunaren aurrean ahozpeaz erregutuz, horrela hura are transzendenteago delarik, bera bakarrik delako, lehenbizi henoteistaki, gero monoteistaki, agintzen duena. Aldareak odolez blai, gainean abereak ordezkari bezala jarrita antzinako Molokenen pareko bailiren kasik berriro ere, alabantzazko habeak, baina goian printzipioz kultura politeista gehienetan baino zalantzarik gabekoago. *Eta hala ere* eta hala eta guztiz ere eta horregatik hain zuzen, sentimendurik erabakiorrena Biblian goikoen kontrakoa da beren apezen jainko eta guzti, horren kontrako erreboltarako deia dago bakarrik hemen. Gerra palazioei, bakea etxaldee, aldareen apainketaren kontra, eta pobreak gose lazgarria jasaten du. Hala esaten du dagoeneko profetarik zaharrenak, Amosek, bere kabuz (Am. 5, 21, 23; 8, 4 eta 6): "Gorroto diet zuen jaiegunei eta zapuzten ditut, ken nere aurretik zuen abestien buila, ez baitut entzun nahi zuen salterioen musika... entzun hau, pobreak zapaldu eta gaixoak erauzten dituzuenok... pobreak zilarren truke eta behartsuak oinetako pare baten truke erosteko"; labur esateko hau "ere" Biblia da. Nola bihurtuko zen bestela Biblia pauperum zentzurik zorrotzenez, nekazari italiar, ingeles, frantses, are alemaniarren gerrateetan, baita ere Cevennesko altxamenduan, laurogeita hamar urte apenas Frantziako Iraultza aurretik? Zeus, Jupiter, Marduk, Ptah edo Vitzliputzilirekin ez zukeen Thomas Münzerek lortuko Egiptoko irteerarekin eta bat ere otzan ez zen Jesusekin dei egiten hasi zenean. Eta Luterok eraberritzaile bezala Bibliako azken liburua, Apokalipsia, arrazoiz deitzen zuen "taldeburu ororen ilusioen zakua". Oso urrun baitzegoen hau "Jaun errukitsu bat norberarentzat sortzetik", "Nekaldi, nekaldi, gurutze, gurutze, kristautasunaren atal bezala" predikatzetik, baina baita ere une berean santu adoretzuak jargoi zerutiarrean jartzetik ere. Hau betidanik han egon balitz bezala eta lurrekoaren ispilaketa soil ez balitz bezala, agintaritzaz ez hain "zuzen" baten bermatzaile ez balitz bezala: Biblia ez da horrekin inolaz agortzen, aldiz: ateismoak berak ez dio ezertan ukitzen agortezinezko denari; guztiz bestela baizik. Bibliako zati

agortuari (zentzu bikoitzean) heltzen diotenei pozbiderako balio ez badie ere. Faraoiaren mesedetan, hau da Bibliak - "kateetan ustezko lorerik" gabe- bortizkiago kontra egiten dionaren mesedetan. Sintesia ustel oro urrun dago, hala ere alor berriak hartzea, "askatasunaren erreinuaren" izenean, oso egoki datorkio Argikundearen bigarren ekitaldiari. Ustezkoaren kontrako oso sentikor izaki, une berean ordea guztiz iraultzailearen bezala transzendentetzailearen aldeko, hain zuzen ere transzendentziarik gaineratu gabe. Jainkorik gabeko mugimendu ez hutsal batek Biblia irakur dezake eta irakurri ere egingo du: heresia bibliko lurrazpiko eta paradoxazkoa da Jainkorik gabekoen mugimendua; biak mesederako. Lehenbizikoan sakontasunerako ("hutsalkeria", esan zuen Isaak Babelek, "kontrairaultza da"), bigarrenean gizon egitearen ulermolde prometeiko-eragilerako, ateo-utopikorako. Inoiz baino gehiago badirudi: halako harremanik gabe zati batean basakerian, zati batean nihilismoan hondoratuko dela Babelgo dorregintza egiazkoa eta ona. Gera bedi hori urrun, ontasuna inolaz ere hurbil ez badago ere eta hurbileko helburua ez bada ontasun izango, baldin hartan helburu urrunekoa: oraindik ernaltzen ari den aipaturiko guztiaren laburpenaren norantza eta zertarakoa esperimentu bezala han ez badago.

Garrantzizkoa da, alor honetan hain zuzen, norbera engainaturik ez geratzea. Han izan ere, asmo dena, inoiz baino sakonagoa, ez da lurrarekin hain erraz eta arriskurik gabe berdindua izango, lauarekin ez bada. Hala liluramendua hain axolakabekiro eta batez ere zuhurtasunik gabe kentzeak argien etsaiei eta beti ezkutatzen asmatzen dutenei laguntzen die bakarrik, dena batera egiten bada. Arlo erlijioso korapilatsuan dena eta gauza bakoitza sineskeriatzat zokoratzen bada, Bibliak "berak" gizakiei buruz bereziki ozen eta bortitz esaten duena, eta hain zuzen hori zokoratzen bada. Hemen ere balio du esaldi hark: *Pentsatzea jo eta gainditzea da*, eta hori ezin esan daiteke noski etzan eta eduki soilagatik. Eta are gutxiago esan daiteke oraindik, altxatzen ari den argiaren arabera Argikunde deitu ohi den benetakoaren orde, erro-errotik banalitzatzen duen haizeburukeria (hitz hau erabiltzen du Lessingek) soilagatik. Lessing hain zuzen herese bat zen, ez zen munduan bi dimentsio bakarrik zeudela hasieratik uste zutenetakoa eta ez *Spero ut intelligam* ere onartzen ez zuena. Gisa berean balio du hemen beste esaldi hark: *Erljioak daukan gauzarik onena da hereseak sortzen dituela*, axolabakoei bezala Hegel eta Naeckel nahasten dituztenei inolaz urrun geratzen zaien egoera bat. Horregatik premiazkoa da Israelgo semeen arrenkura hain ezagunaren eta une berean gustora ezkutuaren kariatz, Biblia bere *hereseen historia* oraindik eragilearen *sub specie* analitikoki, are detektibeen gisan irakurtzea; eta horretan saiaturiko gara ondoren. Hark zuzentzen du biblikoki garaiko morrontza, jaunen ideologia, mitologia heteronomo ororen kontra, ez bipiak edo herdoilak, are gutxiago Argikundeko Lessingen argiak eta are gutxiago oraindik *Aut Caesar aut Christus* esaerak jaten ez duten Bibliako altxor hartara. Hemen, beraz, baliozko gertatzen da morrontzako lur orotatik ateratzeko Exodoko kontsigna bezala hain positibo den esaldi hura: *Itxaropenik badagoen lekuan, erlijioa ere badago*; ez du balio, noski, zeruari eta agintaritzari loturik dagoen erlijioari dagokionez, alderantzizkoak: Erljiorik badagoen lekuan, itxaropena ere badago. Izan ere, giza itxaropenetik, *Novum* hobeagoaz uztarturik, sortzen da kritikarik gogorrena *re-ligioaren* kontra, lotura zapaltzaile eta atzerakoi denez; goian nonbait irmo jarritako goikoaren kontra, aurrehartze asekaitz eta autosortzailearen alderantziz, transzendentzia gabeko transzenditzearen alderantziz. Nahiko euskarri badago norabide honen aldaketa-ezean, sarri ustel atera badaiteke ere, ez baitu sekula amore ematen; euskarri sendoagoa inolaz biblikoki hipostasiaturiko Zeus, Jupiter, Marduk, Ptah, are Molok jaunena baino. Era berean aurki daiteke kontrajarpen iraultzailea, antiestatikoa Biblian -ustekabeko bat, eskandalu bat, ergelkeria bat teo-logo setatsuentzat- bere arrastoa sarri ezkutatzen duen historia biblikoan. Horren arabera,

ordurarte Jainko deitua mesianikoki finkatzen zena, Gizonaren Semearengan berarengan azaltzen da Biblian heresia indartsuen bezala. Horrela ematen du bide honoko esaldirako: *Ateo bat bakarrik izan daiteke kristau on, baina baita ere: kristau on bat bakarrik izan daiteke ateo on*; nola hots egin zezakeen bestela bere burua Jainkoren pareko gizonaren semeak. Eta geroko izendatze erromatarra gurutze erromatarra bezain zehatza izan zen; izan ere: *Atheoi* deitu zieten hasieran Neronen gortean martiri kristauei. Hau arazo bezala ulertu behar dute sakonean kristauek, sineskeria teokratikoez asperturik, beste zerbaiten gose baitira. Eta ateoek ere, altxorreko bonu-jainkoak inoiz agindu duenarekiko ezezko huts baten arruntkeriaz inolaz ase ezin baitira, erdipurdiko argikunde baten ondoren, bere ezezko eta guzti, nihilismoaren euskarri falta guztia altxatu behar denean. Era berean norantz, zertarako, laburpen, eskhaton zentzu guztietarako su eskasia, mundu gizatiarrak, are extragizatiarrak garbi erakusten duen arreta ezaren arabera neurturik. Idazteuna, alderantziz, "herio-mundu honetako aginte makilei emandako astinduez" beterik dago; mitologikoki noski, baina gerora zapalduko edo faltsotuko diren altxamenduz, gizakiaren duintasunaren aldeko sinaduraz, gizon egintzaz beterik -Faraoiaren eta bere jaun-hipostasiaren kontra, Jeremiasek bere Lamentuetan garbi "gure etsai deitzen duelarik", Isaiak "zeru berri bat, lur berri bat" zinez eskatzera bultzatzen duelarik "aurrekoetan gehiago ez pentsatzeko". Eta ez al dago han, alferrik gaitzetsia eta ofizialki balioz aldatua, hasieran bertan sugearekin gertatua, *"Eritis sicut deus, scientes bonum et malum"* dei iraultzaile eta oraindik kitatu gabea, baina historia egiten duena, piztientzat bakarrik den paradisuatik irteteko deia, alegia? Eta ez al du Sasiko geroagoko Jainkoak ez oraina bermatzen, baizik handik salbatzen duen *futurum* bat, "izango naizena izango naiz ni" bat, Jainkoaren ustezko ideia bera xahutzen duena? Azken uhin iraultzaile eta eskatologikoa, Exodo abiarazi batekin, erreinu utopiko batekin itsasertzeko *Novum* osoan. Horrela iristen gara Augustinen esaldira: *"Dies septimus nos ipsi erimus"*, oraindik gertatu ez den zazpigarren eguna gu geu izango gara, gure gizartean bezala naturan ere. Baita filosofia urrutiko eredu bereziki xahutzaile bezala, nahi bada guztiaren gainetik bereziki hegan egiten duen bezala kokatzeko modu hau ere, eta hau hain zuzen, gure garaiko zerbait da, gure garaiaren sakonean dago. Azpimarratzekoa da aurreagerpen berezi honen hiru mila urteko logika jainkorik gabe bezala erabat era erlijio-filosofikoan azaltzen dela. Aingeru zerbitzaririk gabe halaber, haiekin baino hobeto, altxatzen da Faustoren hilezkortasuna. Bibliakoki gure aurpegi desestaldua deitu zitzaion honi, filosofikoki berdin bilakatzea da.

I

HORTXE BERTAN

1

Lasai mesedez

Orduan bere baitara sartzen da bat. Bera hobetu egiten du horrek, bere ustez. Baina hori ez du inork igertzen, horrela luzeegi segitzen badu. Orduan sarritxo bere buruari bakarrik jartzen dizkio erreparoak.

2

Eztenaren kontra

Damuaren bidez bakarrik ez da bat helduago egiten. Batez ere ez, zimiko egiten duen kontzientziak heldutasunik gabe zimiko egiten badu, beti ohiturari jarraiki, beraz, zertxobait aldatuta bakarrik. Ahotsa orduan beti kanpotik dator, edo goitik behera, sarri era susmagarrian hain eroso den "Han goiko hartatik". Zuk makurtu egin beharko zenuke: behera, eta behera bakarrik, jotzeko dei honek, hortik datorren gehiegi eskatzearen kontra, ondo estalita dagoen, are on bezala azaltzen den deiaren itxura bera eta helburu bera ditu: ez dela irrikatu behar lagunurkoaren ondasuna, are juduak ere orain berriro gizaki direla. Horrela barneratzen den bitartean edo, sarri gauza bera dena, horrela uzkuratzen den bitartean, kanpoan dagoen trukaturiko Aita-Ni bat bezala kontzientziari, maiz menpeko soil den kontzientziari ez dio ezer esaten. Damuak, benetan hausten duen zerbait denez, ezin alda dezake soilik On-dit gidatzailea eta ezta gehienetan hura aldioro egoki datorkien jaunek ere. Hobe horregatik egiazko kontzientziarentzat, baldin jaramon egiten badio premia berbera izan eta premia hori kentzen dutenen ahotsari, inolako premiarik izan ez baina premia horretatik bizi direnak baztertuz. Horrek ezer baino gehiago heldutasuna eskatzen du eta behartzen, ez bere apaltasunaz, baizik bere adimenaz baliatzera. Batzuetan zailago izan ohi du adimenak argi eta garbi hitz egitea norberaren burua faltsukeriarik gabe aurkitzea baino. Sarri bada ordea loreen bidezko hizketa modu bat ere, premiak eragina, ulertteraza, baina hertsitzen zaila. Schwejk soldadu adoretua garai guztietan azaldu zen eta, zein harrigarri, zein irakatsiz oparo, ahotan ez tonu biblikorik gabea; ez baitzaio ahoa lotu behar gari jotzen ari den idiari. Nahiz eta idia erabiltzen dutenei, barrutik bezala kanpotik, hori beharrezko iruditzen bazaie ere. Batez ere, idia ez bada gehiago idi.

3

Begiratu esklabuen hizkerari

Goian entzun nahi dena hitz egiten du makurtzen denak. Hau ere esklabuen hizkera da, bere harra bihurritu egiten da, bere zakurrak buztanari eragiten dio betidanik. Hala ere mota honek, azken batean guztiz menperatuak, ezer ezkutatzen ez duen honek, ez du, lurrazpiko testuan, hau da bilatzen den horretan, zer pentsatu ematen duen forma bat. Aldiz beste esklabu hizkera mota batek deitzen du atentzioa, jaunentzat arriskuz beterik dagoenak eta horregatik haien aurrean disimuluz erabiltzen denak. Ez da bereziki ikertu, formen historiaren aldetik nolabait esateko, mereziko lukeen bezala, Bibliaren kritikarako ere jakingarria izan arren. Ez baita goikoek gogara aldatu edo tartekatu izan dituzten bestelako testu horiek bezalakoa, bai ordea behekoek nahita ezkutatua. Esklabuen hizkera adierazmoldea errusiarra da ustez, joandako mendekoa: polizia politikoaren aurrean (horren aurrean bakarrik) propaganda bezala ulertezinezko bihurtzeko artea adierazten du. Kontua bera, erraz uler daitekeenez, askoz ere zaharragoa da, erbesteratze (leku-aldatzeko) lehen forma propio bat, alegia. Esoporen alegietatik "mozorrotze" modu berezi hau Montesquieuren "*Lettres persannes*" obraraino doa, Luis XVI.ren Frantzia maskara persiarraren azpian ezkutatuz. Esklabuen hizkera zen azken batean Kaligularen erretratu bat idatzi eta irakurle guztiei Hitlerren izena ahora zetorkionean edo are esan ere esaten zutenean.

Hau esklabuen hizkera ona da, zentzu onean maltzurra, eta mundu menderatu batean eta legez lotutako batean ere askatasuna xuxurlatua bakarrik ez dadin ematen du bide. Eta idazmolde propio bat ere sortu du, ez bakarrik satira distiratsu bezala, areago, Schwejkena bezala, denbora desberdinetan maltzurkiro ironiko azaltzeko gauza dena, erretorikaren bira eskolaturik edo ironiaren ezagutzarik behar ez duena. Inguru hauetan Bibliatik ikasi al zuten, adibidez arrenkura hain sarri azaltzen den lekuetatik, kasu honetan eskuaren ostean ezkutatua? Ez bakarrik zilegi ziren irakurketetan, are jende pobreen apezen sermoietan ere azaltzen da hau. Bere olio ontzia beti betea ikusten ez zuen alarguntsa pobretik Baalen eta Mammonen frailetzarren oroitzara arte, haietan norberarenak ikusi edo adierazi nahi baitziren. Eta lurrera makurturik zegoen entzuleak, eta ez zegoenak ere, ez zuen pentsatzen madarikatu behar zuenean bedeinkatu beharrean aurkitzen zen Balaamek adina nahasmendu izango zuenik (Zenbakiak, 22): zein gustura erabiltzen zen esklabuen hizkeran katramilaketa hau, bira eginda, helburua aldatuta, hemengo jaunak bedeinkatuz hain zuzen eztenaren kontra ostikoz jotzeko. Horrela beraz sarri, alegien bidez hitz egiten zenean, zakua makilduz eta astoa jo nahiez, printzeak goralduz eta horren probatzat urkabea aipatuz. Bedeinkatzen den bitartean madarikatzen aritzeko artea geroago, antzinako adierazmoldea galtzean, ez zuten sarri ulertu hortik kanpo zeudenek. Gulliverren bidaiak, bere harrigarrikeria mozarrotu eta ironiko guztiekin, gerora haur literatura bilakatu ziren, guztiz inozo, *hors de concours*, behin-behineko; esklabuak aldatuz doaz.

4

Hindenburgen bibotea

Beren ahotsa entzunarazi ezin duten pobreei buruz erabat bidenabar hitz egin ohi da. Ezer eduki ez baina itxurak egiteko ahalmena duten aberats motari buruz, berriz, dena harrotu behar da eta batez ere dena txukundu behar da. Inoren lumaz, berari inolaz ez datozkionaz hor dagoena guztiz bestelako baten bidez handituz, hobetuz, eta behar balitz faltsutuz. Horren adibide nahiko tonto bat, baina une berean alegorikoa Hindenburgen biboteak eman zuen. Bibote harro bat eduki nahi zuen, goiko ezpainak ernalketa indar gutxitxo zeukan, ordea; horrela, bada, masailako bizar piskat erantsi zioten orduan eta ondo zepilatuaren itxura faltsua ematen zuen. Horrela ordezeko bat sortzen da, sehaskan kantatu ez ziotenaren ordezekoa nolabait esateko, itxura hutsezko bat alegia, gauza arrotzez apaindua. Eta Hindenburgen kontuei agur esateko, aberrikoa orain guztiz bestelako bihurtu den gorri batean: antzinako sehaska artifizialki, ahal bezain ametsik gabe, ahal bezain amets esnarik gabe hustu den leku guztietan apaintzen du ordezekoak beti. Eta honek gainera badu abantaila bat: zer badagoen eta geza zer den, haren imentario zuzen (eta baztertze) bat argitzen duela. Horrek gero, sozialdemokraten eta kristauen artean ere, bainuarekin edo gezurrarekin batera botatzean galdu zen gehi hura erakargarri egin behar duelarik, eta hori sarri garaiko izpirituari, bereziki han modernotzat jotzen denari hartu zaion mailegua baino ez da. Hemen ez bakarrik aurkitzen da Bultmann bere Godesbergen eta kontzientzia moderno delakora beste batzuk azpimarratzen duten etengabeko egokitzea, hau bere horretan balioko txanpon bezala hartuta, deabrua atera hortik-eraino desmitologizatuz, azkenean hutsa besterik geratzen ez den arte. Edo "egoeraren araberako" argi-ilun hura gerakin bezala, barneko iluntze bezala hartuta, gehiago jakin ezin daitekeelarik nor den bisitaria eta nor ostalaria. Baina badago halaber mailegutuan harturiko *Up to date* sotilago bat sorburutik askoz urrunagoa: hori jazza eliza barruan sartzeko ahaleginetatik luzatzen da bildutasun ziloraino, haren kanpoko forma bezala, eta berriro ez hozkarik egiten ez ezer kostatzen ez den Jesustxo maitagarriaraino. Eta edozein modutan, inorena ez den lurrean bi fronteetan erdian, inolako argibiderik eta fronterik gabe. Norberaren soroan hazten ez dena eta betiere norberaren uzta engainatu edo ordezkatzeko maileguak hemen ere

badaude, eta hori ez bakarrik Pedroren arrantzuaren erakarpen soil bezala. Guztiz bestelakoa izango zen eta izan ere izan zen ezer ez zeukaten aberatsak ezezik, areago engainatuak edo estaliak izan ziren ondaregabetuak zituen eskualde hartan, bere antzinako jakinarazpen *propioa* berriro irakurtzea. Herri irakite gehienetan gorria borrokatuz, bereziki benazko den eta garaitua izan ez den, beraz itxaroten duen lekuan. Itxarote hau, bere ostean tonu ezberdinetako gosea duelarik, ez da konpontzen ahoan ogi urria ipiniz, are gutxiago asperdura kontsumitzailearen bidez, eta ez du behar susper dezaten ere. Ez dator barnetik bakarrik, baizik behin eta berriro behetik, ez-edukitzetik, guztiaren zertarakotik azken batean; orain arte beti erlijiosoki bakarrik egin den galdera honetatik. Zertarako hau bere orokortasunean kanpora bota ordeztu, are gehiago benetako arku eta geziz bota ordeztu, saldu ezin daitezkeen salgai zarrak "modernotasunez" margotu eta estali ordeztu, atergabe diharduen oraindik-ez honi biblikoki ere jaramon egiten saiatu beharko litzateke behin eta berriro. Lehenbizi bereizketak eginez, bidea sasietan eta baratzetan zehar irekiz, zuzirik gabe ez, gero Idazteunera joz, ez zokora, baina bai zokoratuak zeudenen ondora. Zinez ez dago oso urrutira joaterik goitiko idolatriarekin, baina ez dago zer eginik ezta ere gurutzearen pazientzia deituarekin, hau ere makurturik baitago.

5

Hitza trabes doa

Debekatua atseginagoa ohi da. Hau are egiazkoago da bat serraila botatzen dutenekin gutxiago fidatzen denean. Hau probbarri bat da gomendiozko ez den zerrenda beltza egiten duten guztientzat. Alderantzizkoak ere balio du, gehiegizko laudoriorako, hau ere "han goiko" deitzen direnetatik datorren neurrian. Orduan laudatzea susmo txarreko da, askatzeko balio ez badu edo kontsolatzeko besterik ez bada, higatu egiten da gutxienez. Idazteunak balio zuen, sarri gainera, hau gabe ere, nolabait esateko gorako eta beherako une berean. Eta ez zen Idazteuna onartu ere egingo, *herriari* ahoa bakarrik begiratu izan balio. Instantzia goiegi bat ez da honena edo harena, haien ordezkari izan nahi badu ere. Gomendio indartsuegia, are gauza konpondutzat emateko modukoa duen senitarteko guztientzat ere balio du honek. Izan behar dute oraindik borroka egin zen eta borroka egin daitezkeen lekuko sastrakek, baina ez ihes eginez inolaz. Bestela ezin adieraz zitezkeen zehatz batek eutsi behar dion bidea.

II ESKANDALUA ETA ERGELKERIA

6

Sekula ez gehiago hain menperaturik

Berez inork ez du sofrituz atseginik hartzen. Baldin ez bada ez duela bat ere sofritzen, baizik haren menpean jarrita atsegin hartzen duela. Are kolpeak ere dastatuz, arimaren aldetik harrotzeko ezinbesteko bezala hartuz. Sufritzen ari denaren begirada orduan ez bakarrik da bakezkoa, baizik eskerrak ere ematen ditu. Hain zuzen eskertze hori bera agertzen da hipokrita bezala. Baina "Nagusia, esklaba gaitzazu" deia eta hura egiteko modua susmo txarreko bihurtu dira azkenean. Beste leku batzuetan ere azaltzen da eta arrenkurarik gabe makurtzen zenak ez zuen noski gizakien moduan begiratzen, izaki berri bezala, aldiz bai zakurren moduan. Botarik gorenena ere ez da gehiago aurpegiaren gainean eduki nahi. Aitortuz ere horrela ohorea galdu ordez, bat hobetu egiten dela. Egiazko hobeari gordineria eta une berean ergelegia gertatuko litzaioke hori.

7

Hasperenetik aienera

Halako gauzei ez zaie begiratzen gehiago jainera osoz. Ustez goitik erregalatu zaigunaren aurrean ez da inor belaunikatzen. Gisa honetako portaerek bezala sentimenduek antzinako hondar esklabuzaleetara itzultzen gaituzte. Premiak horregatik ez du gehiago otoitz egiten irakasten, garbiegi baitago haren zatirik handiena gure parekoek eragina eta prestatua dela.

Bienbitartean hau burutu eta gorde dutenen helpidea nahiko ezaguna egin da. Beste modu batera eralda daitezke noski, artifizialki anonimo bihurtu, baina bere lekua ezaguna da, eta leku hau guztiz lurrekoa da. Haragi eta odol ezagunez populatua dago, guztiz erabilgarri da beraz nahi bada, baina inolaz ez gure gainetik. Egoera hori noski guk ere, eta guk bakarrik, eragotzi eta alda dezakegu.

Baina zerbait on bihurtu den lekuan ere, oso gutxi dira benetan irmo irautesen dutenak. Eskuzabaltasunez emanagatik eskertzea, nork egiten du hori oraindik, paradisu bertatik, hegazti pila handi baten erdian, sehaskan kantatu izan baliote bezala? "Ez du edaten oiloak ur tantarik, begiak zerura altxatu barik": hainbeste giza oilo izanik, haurren bertso ergel hori ez da gehiago beraientzat alegi egoki. Salbatzaileari eskertzea egoki legoke, batez ere gizona noraezean dabilenean edo ingurua itoegia denean. Baina goi bat, gor dena, gehienentzat modu horretan ez litzateke kasik izan ere izango, erregearen zaldizko mandataria oso gutxitan datoz, eta erregeak gainera ez dira gehiago ohizko. Nahiko argitu ez den lekuan sentimendu zaharra ahitu egiten da edo bestela ezpainez bakarrik adierazten da. Aita-Niren bizikizuna, arrunt denez, galdutzat jo daiteke, beraz baita hura lekuz gora aldatzea ere. Estaturik gehienetan ez dago jargoirik gehiago, are gutxiago haren ordezkari bat, lurreko premiaren edota argibidearen zuloak lurgaindiko kontrapisuz beteko dituenik; ez bada zulo-estaltzaile soil bezala.

Luzaroegi eta prestuki eduki ditu esklabuak kateari lotuta elizak, eta ez Luteroren arabera bakarrik Pauloren arabera ere aginte oro, aginte denez, edozein motatako delarik ere, Jainkoarengandik dator. Herriaren opio deitu zitzaion honi jakina denez, baina inguru hobeetako kontzientziarentzat ere, bestelako haize interesatuetara egokitzen ez bada behintzat, bere egoera benetako eta hipokresiarik gabea da: ilusio baten azkena. Nahiz eta hemen, eta hemen hain zuzen ere: magia sinetsi oro lanbide arrunt hori duten artean miragarriago litzatekeen magia bera baino. Nagusia dagoeneko "ex" da, goikoari kolpe xahutzaile bat etorri zaio, sozialki eta zientifikoki gertatu diren hainbeste amilketen ondoren. Aginteduna, agintea bera, enplegatuen, beren onera etorritakoen saldo izugarriaren parean, azpian geratu da; nahikoa egon dira lehenago ere belauniko.

Are baliozkoago da orduan erdi desilusionaturiko kontzientzia egunorokotasun finkaturako, baita eskakizun arruntenetarako ere. Horrekin benetan ahazten delarik, beharrezko den neurrian, gehiago sinesten ez den lainoa.

8

Ezezkoa eta gaizki desilusionatuak

Zerbaitetik libratzeak esan nahi du une berean askaturik geratzea. Horrek lehenbizi hustu egiten du, norantz zintzotasunez joan hura hustasun garbi bat izan badaiteke ere. Baina une berean inportantea da jakitea norantz eta zertarako askatzen duen askatua izateak. Eta ez da inportantzia gutxiagoko gure kasuan hemen, hipokresiari benetako azkena eman ondoren, ea ez ote den horretan egiazko den zerbait utzi. Azkarregi, eta sarri axaletik eta gaizki desilusionatu ohi da, bere baitan adimen erdia bakarrik daraman gizon baten antzera. Eta berak oraindik han daukan beste erdia ez da beharbada onena, eta bai tximinotik datorren edo San Frantzisko Tartuforekin (bien berri inoiz izan badu, noski) nahasten duen gizonarena. Irtenbide bat azaltzen da orduan, berez txarra eta nolahalakoa, eta bere ostean hustasun bat uzten du, Argikundean nahi zen bezala, luzarora garbi eduki ezin daitekeena. Erdizkako Argikunde soilak ezin dio eutsi hemen, antzinako hipokresia ez badakar ere gehiago; baina frailetzarrek ez bezala gauza da ergel egiteko, hau da geza egiteko, *corruptio optimi pessima*, eta gero ordezkio izugarri nahasi eta odola eta lurra bezain beldurgarriak ekartzeko. Erraz da argitzen nolatan ikusi uste duen neska nekazari makets eta burutik erdi jotako batek Lourdesen Maria. Baina oso erraza da halaber eta zeharo insustantziala gizon batek *sputnikean* Jainko maitearen arrastorik ez duela ikusi azpimarratzea. Maila horren aurrean, fededun arruntenak ere esan dezake, berak lehendik ere bazekiela Jainkoa ezin ikus daitekeela. Labur esanda, gaurko ergelkeria intelektuala gaurko hipokresiaren tamainakoa da, *kitsch* bihurtua hemen, zirtzileria bihurtua han, biak beren edukitik urrun. Kosta ahala kosta, bereziki kostua merketu zaionari ezetz esate idor eta estuari erretolika hutsala dagokio eta alderantziz: itxuraz bakarrik dira biak bata bestearen kontrako.

Horretan aldatu gabe handi geratzen da noski, eta nola gainera, pentsatzen duen gizona, pentsatzen duena denez, ezin erabil daitekeela frailetzarrek nahi luketen moduan. Sentimendu jaieratsuak sotilki herdoila erantsi baino askoz lehenago, Argikundea bera baino askoz lehenago azaldu ziren nekazarien paperak frailetzar gezurtien kontra eta nola haiek tamalez jende gizarajoari barre eta iruzur egin zioten. Guzti hori gertatu zen larrutzaile eta harakinen mesedetan Idazteuneko hitza desitxuratzearen kontra; heldua izan nahi zuen gizonak berriro muturrean joko ez zuten norbait bezala aurkezten zuen bere burua. Nekazari garaituen lekuan burges razionalak etorri ziren eta hain zuzen haien Argikundean igertzen da dagoeneko heldu bihurtzeko eginkizun zapal ezinezkoa. Lurreko jaun graziazkoaren ukapena eta beste munduko Olinpo batena elkarrekin eskutik hartuta joan ziren XVIII. mendean. Burges frantsesak, bere adimen propioaz baliatzen ausartu zenean, ez zuen bakarrik jaun graziazkoaren irudi lurtiarra uxatzen, baizik haren ideia lurgaindikoa bera ere mamuaren mailan jartzen zuen. Garbi dago noski: jaunak ez ziren desagertu ondorengo garai burgesean, baizik jaun-esklabu jarrera berriak etorri ziren, ekonomiaren aldetik baliozkoak, oraindik guztiz ezabaezinak. Herriari dagokionez, beraz, goikoaren erlijioari, goitiko agintearen mito zaharrari eutsi egin behar zitzaion, honek kristautasunean, hau estatuko erlijio bihurturik eta horretarako noski baliorik gabea ez izaki, lurreko ondasunen banaketa okerra eta lurgaindiko ondasunen banaketa zuzena bermatu edo gutxienez argitu egiten baitzuen.

"Kontsola zaitezte arrenkura guztien kontra" formula erabiliz, era luteranoz salbazioa arima errukarrietara tokialdatu zen, eta era papistaz beren Jainkoa beste mundura. Bienbitartean ordea agerian geratu zen, beranduenera ere faxista alemaniarrekin, inolaz ez baitziren biblikoak: paganismo berriak berak, Haeckel eta Bölsche, are "Oihana da

nire eliza" berarekin zituela, ez zuela kendu inolaz benetako esklabuen morala, jaunen prentsa. Indartsuenaren eskubidea hautaketa naturalarekin batera ipini zen maitasunaren predikuaren lekuan, eta horrela agerian geratu zen Biblia ororen desagerpenak ez dakarrela derrigor Argikundea, bai aldiz Neronen zuziek askoz hobeto erretzen dutela. Baina fruitu hauek alde batera utzita ere: lehenagoko hezkuntza argituko filisteoak erakusten zuen, Haeckel, Bölsche eta "Oihana eliza bezala" guztiak baino lehen, ez dela fedea bakarrik itsu egiten duena. "Klaustrokeriari eta herriaren ergeltzeari buruzko egia", edo "Moises edo Darwin?" bezalako erdizka hezien, beraz erdizka desilusionatuen tratatutxoek ez zuten egiten garai hartako pentsalari librea zorrotzago edo irekiago beren pentsatzean. Batez ere jakingarri gertatzen da: antibibliko bihurturiko munduan bereziki pozik egiten da jauzi uztaleko suaren gainetik, ohitura hori ez zetorrelako Jeserengandik. Han ez zegoen euskarri garbirik, ezta kontzientzia erlijioso eta izpiritual baten ukiturik ere. Indar alemaniarren sorburu santuaren kontra zegoen hori Antikristorengandik zetorrela uste baitzuen garbi. Atzean Asisko Frantzisko eduki izan balu, eta ez Babel handia, zailago gertatuko zitzaiokeen.

Eta Franz Moor hain eroso eta kezkarik gabe otsoen garaira, otsoen esparrura bota zuen harako inmanentzia moduko hura gabe ere; helburu, xede, zentzu oro kendurik. Egiaz, lotsatzeko litzateke gisako ondorioak argikunde zahar egiazkoari egotziko balitzaizkio, zapalkuntzatik eta ezjakintasunetik askatzean, honek norberaren heldutasun gabezia errudunetik irtenarazten baitzuen. Hala ere azken batean antierlijiosoa, batez ere antikristaua zen desilusionatze batek ez zuen zinez segurtasunik ematen hamar agindurik eta tximista mengatzailerik gabeko magia ustelaren kontra. Egiaz, arrazoi gehiagoz oraindik: argikundearekin sekula fidatu ez den elizaren bitartez etorri zen benaz munduko izugarrikeria handiena egiteko tresna. Haragiaren piztueraren izenean bere fededunei debekatzen dien erraustean bertan, bera izan da hesi haustaile Inkisizioko sumeten bidez, aurrerapen printzipio bat noski sorginen erreketan ere. Baina: eliza ez da inolaz Biblia, baina beti eduki du hura bere kontzientzia txar bezala! Tolstoik horregatik ez zuen Haeckel deitu haren kontra, Jesusen erakutsiak baizik. Argikundea era horretan sakonago bihurtzen da, baldin Idazteunak gizonarekiko duen ulermolde sana, guztiak ukitzen dituen alegia, une berean zapuzten ez badu. Hain zuzen horregatik da Idazteuna -eta hori ez dago Argikundetik oso urrutik- hainbeste lurraldetan eta denbora luzeetan zehar denek ulertzeko eta denei itauntzeko modukoa.

9

Harrigarriak alde guztietan Biblian eta hango hizkuntzan

Zergatik ez du aspertzen gaur oraindik hizkera urrun honek? Edo, gehienera, hari buruz entzunez bakarrik hitz egiten denean aspertzen du. Edozein modutan ez da garbitu zergatik den Biblia liburu guztien artean guztietan herrikoena. Lurralde protestanteetan behintzat hasteko beretakoak irakurle izatera kolonizatu izan ditu. Idazteun deitu ohi zen, besterik gabe, mendeetan zehar ez da izan beste bat hainbeste argitalpen izan dituen, eta lurraldeetan barnerraino sartu zen. Irakurle horri eta hain urrutitik bildutako kontakizunei ez zitzaien inporta, kontakizun horiek sarri katramilatuak eta kontraesanez beteak baziren, kontakizun haiek isuri zituzten iturburuak ere asko zirelako. Gizonaren Semea bezalako hitz hain ilun batek berak ere irakurle soil zaletua prest aurkitzen zuen, eta halako gauzak adituen inguruetako hitz arrotzak baino errazago ulertzen zituela uste zuen. Idazteunaren interes hurbilari ez zion eragozpenik egiten haren jatorrizko lurralde kasik biztanlerik gabeak, are biziezinezko bihurtuak. Atzo oraindik gugatik galdetu zen han, hizkuntza norbaiti hitza zuzentze bezala, dei bezala, beste ezerk baino gehiago horrek egin du Biblia herriko. Hainbeste garaitan eta lurraldetan zehar, bertako zati balitz bezala, Nimrod hortxe bertan dagoela, Jesus bisitari dela. Baina hizkuntza biblikoaren izaera jator propioaren eta haren urruntasun espazialek, are

supraespazialek bildutako irudien bidez helarazia beti ere. Ez dago horrelako beste adibide bat, ez dago beste ezer era horretan etxekotu denik, berez arrotza izan arren.

Askori izan ere Idatziak hitz egiten die, beraiekin hazi izan balitz bezalaxe. Eta hori ez da gertatzen hurrei oso goiz irakatsi izan zaielako. Erpurutxo eta Hänsel eta Gretel ere oso goiz agertu ziren, eta Bizargorri ez zen gutxiago ezagutarazi Salomon erregea baino. Hala ere urrutiko errege honen irudia askoz gehiago itsatsi zitzaion fantasiari, bereziki xaloari. Hona adibide gehiago: Rebeka pozadera ondoan, "Ni naiz Jose, zuen anaia", Jesus haurtxoa estalpean, eta guztia, arketipo bezala, kontakizun zehatz eta laburretan. Gizartearen aldetik zabalkunde hau gertatzen da batipat Idazteunak inguru xume eta nekazari baten berri kontatzen duelako, lurraldea konkistatu ondoren han jaioa baita. Eta hau idatzi ez bibliko gehienetan ez bezala gertatzen da, zalduneriako munduko idaztietan edo apezen artean jaioetan ez bezala, edo Laotsengan, are Budaren Irakatsietan ez bezala, hauek ezin baitira urrundu beren bakoitzaren lurraldetik. Hizkuntza bera nekazaria eta demokratikoa da, eta horregatik Luterok testua halako moduan itzultzen zuen, non jendeak bere etxean ahotan erabiltzen zuen hizkerari begiratzen baitzion, testuak beraien gisan hitz egingo balu bezala eta ez beraiei buruz ihardungo balu bezala. Eta egoerari buruzko irudiak berak: Belengo estalpea antzinako iruditeria alemaniarrean elur handitan egotea bezain normala da beltzarentzat Kristo haurra beltza dela eta Moises beltz bat ari zaiela edo ari dakiekeela spiritual batean trumoika esklabuzaleei: *Let my people go*. Hemen ere noski arketipo bat azaltzen da, Rebeka pozaderaren ondoko irudian bezala edo Joxe eta bere anaiak berriro elkar ezagutu zuteneko eskenan bezala, poetizatua eta funtsean alegorikoa beraz, Bibliara soilik mugatzen ez den zerbait. Hemen Odiseako Nausikaaren eskena edo, ezagutzeari dagokionean, Sofoklerengan Elektraren eta Oresteren arteko topaketa bezalako zerbait, gogora ekar daiteke, nolabait esateko, gizatasun jatorrizkoz beterikoa. Baina erabilera arketipiko hau arren, pentsa al daiteke Ulisek eta Sofoklek etxolarik txikienean lekurik aurkituko zuketela gehiago landu ere egin gabe? "Eguneraketa" gabe, Giraudouxen *à la Amphitryon* 38-an edo Cocteau-ren *Orfeo*-n arketipoen birrartze guztiz literarioetan egiten den bezala, edo Thomas Mannen Joserren eskenan gertatu den bezala, jatorrizko testu sotil hunkigarrien parean alferrikako izan ohi dira guztiak. Eta bestelako dokumentu erlijiosoetan segitzeko: Ematen al dute aukerarik, esan bezala, Laotseren Taoren liburuak, Budaren Irakatsiek, Gilgameshen kantu babiloniarrek berak *tua fabula* bezala hartzeko, Metal Mendietako etxola batean neguko gau batean emakume nekazari batek irakurtzen duen Bibliak ematen duen bezala? Ba al da bestela inon aspaldi gertatu zen urrutiko lurretako herri txiki baten historia bat, idatzi baino behar ez zuena, formaren aldetik ere, eta ez bakarrik edukiaren aldetik, halako ubikuitatea lortu duen liburu bilakatzeko? Hemen ez dago jakia eta ostatua hobetu beharrik antzinakoetan eta beren klasikotasunean bezala, guztiz bestela baizik: Biblia alde guztietan, bertako bihurtzen zen neurrian, era harrigarritz etxeko bihur zitekeen. Honi dagokionez, hara oraindik azken lekuko sotil eta oso hunkigarri bat, Bibliaren hizkuntzari datzekiona eta ez bakarrik Metal Mendietako emakume nekazariarentzat balio duena, baizik Hebelen adibide bat ulertzeko, are "Emakume *noble* baten gau esnaia" ulertzeko balio duena. Ezkontzaz kanpo izan duten haurra aurkitu ondoren, morroia eta neskamea zigortu ordeztu, Hebelen emakume nobleak Bibliako hizkera oso egoki erabiliz, hitz egiten du: "Zuekin erabili izan dudana gogortasuna ordaindu nahi dut. Zuek jasan duzuen atsekabea gozatu nahi dut. Zuen haurrarekin izan duzuen errukia ordaindu nahi dut". Eta emakume noblearen joan-etorrian, Hebelek bere nekazarien aldeko postura hartzen du, askoz hobeto ulertzen baitute oso urrutiko hizkera hau beren lurren jabeen bertako testua baino: "Ez al dirudi Jainko maiteari entzuten zaiola hizketan profetetan edo salmuetan? Ongitasunera jotzen duen alimo bat eta miserablea onartzen duena eta eroriak altxatzen

dituena, halako alimo batek Jainkoaren antza erakartzen du eta horregatik barneratzen da haren hizkuntzan ere". Ez zen emakume noble bat izan, nekazalgo iraultzailea baizik, Bibliak zuen eduki demokratikoagatik eta hari zegokion hizkeragatik hura oinarritzko liburu egoki bezala jo zuena. Ez bakarrik haren maitasunezko baizik askoz gehiago haren haserrezko tonuagatik, Ajaben eta Nimroden kontra ("ehiztari indartsua", Münzerrek esaten duen bezala, "nere-zure auziekin gizakiak lehenengoz abaildu zituen") eta Egiptoko esklabutzatik ateratzeagatik. *Let my people go*, zapaldu guztiei hots egina, "herrien eta sinestearen banaketa eta bereizkuntzarik gabe", Thomas Münzerrek berriro esaten zuen bezala. Gainera egia da -eta hau da beti alderdi ezkorra hain zuzen ere Bibliari buruzko beste egiaren, bai, egia biblikoaren izenean-, egia ukaezinezkoa da jaunen elizak eta nekazarien etsai zen Luterok beraiengandik inolaz urrun ez zegoen Biblian hartzen zutela oin halaber, beste batean ordea, arrenkura azaltzen ez den batean alegia, ez bada Korajen taldea desegina izan zenekoan. "Sufrikario, sufrikario, gurutze, gurutze da kristauaren ondare" hots egiten die Luterok era berean biblikoki, Bibliaren hizkeran, ez Paulo gabe, nekazari altxatuei, eta hori ere zilegi zen. Bestela ez zukeen gaitasunik izango Idazteunak nekazarien gerrako altxamenduko liburu izateaz gainera beste muturrean jaunen ideologia bereziaren liburu ere izateko; menpekotasun goraipaturako eta itxaropen hutsal goraipaturako izan zuen bezala. Horrela bada Bibliak baditu atal oso handiak, ez herriari ez haren *spiritualsei* bihotz barnetik hitz egiten ez dietenak; *by Jove* (sarri Jupiterren eta jainko-enperadorearen antza duen Jaberren irudi batez) bai guztiz kontra. Baina hain zuzen *religio* Moises edo Darwin alternatibaren ahitu duen haizakeria ororen kontra eta anibalentzia bikoitz ororen kontra ere esan behar da: bibliko da baita ere menperatzen duenaren kontrako kontraerasoa eta horrexegatik hain zuzen zapaldu edo faltotu zen hura sugearenetik aurrera. Kontraeraso honek egiten zuen biblikoa era berean herriko eta sufrikario solidarioz eraginkor. Zentzu orotan eta azken batean "amamen ipuinetatik" ez oso urrun, haiek "ere", berez indiarrek edo arabeak izaki, urrunetik etorri eta kasik guztiz aldatu baitziren. Horregatik beraz gizakia tximinotik eratorri den lekuan amamen ipuinak eta Biblia elkarrekin doaz, "haurren eta inudeen zorabio" bezala. Baina zabalagoa da egiaz, hemen aipatu den zentzuan, hurrekiko eta herriarekiko hurbiltasuna, hain zuzen ere jaunen fraile gortesauei itxia. Testu biblikoari, lehen kolpean nolabait esateko, dagokien bezala eta ez bakarrik tolesgabeki.

10

Baina:

Azken karta pastoral alemaniarra

(1936)

(Oroitzapen baketsu bat)

Ondorio mingarriak izan bide zituen honek fededun askorentzat. Karta entzun zuten asko goitik behera ziprztinduta Hitlerren aldeko ziren. Ez bakarrik langile fededun bezala, baita hein batean burges txiki bezala ere, politikaren eta izpirituairen aldetik zapalduta, garaituta, jazarriak sentitu ziren. Artzainak bezala ardiak ere, eta zintzo asko zegoen haien artean, ez zeuden Hitlerrekin zaletuak, harekin isilpean nazkaturik zeuden. Nahiko ezkerreko zeuden, errurik egin gabe bizi nahi zuten.

Baina otzanak guztiz makurtu ziren, hura etorri zenean. Zentroa sozialdemokrazia bezala bapatean galdu zen ohorerik gabe. "Erromaren aldekoak" beti ere susmo txarreko ziren Alemania herrikoian, kultu katolikoa irainez bete izan zen. Gorrotoz beterik, pozik sortu nahi zatekeen eliza alemaniar-herriko bat, Jesus "salbatzailea" rekin edo hura gabe. Era horretan zail zen nekazari eta burges txiki katolikoaren koordinaketa (sindikatu kristauak ez aipatzearren). Amabirjina eta bere Semea ez dira arantzatsuak; horrela nazien kontrako errezeloak bazuen oinarri moral-izpiritual moduko bat erdi

mailako katolikoen artean. Horregatik harrigarriagoa gertatu zen Francogatik pozte arlotea, are Hitlerrekin presaka egin zen konkordatua. Naziek burutzen zituzten irain guztien aurrean erantzuteko elizak zuen ahulezia gaineratu zitzaion horri. Horregatik Mexikon eta Espainian gorriek egin zituzten pertsekuzio hain sarri aipatuak baino okerragoak onartu zituen. Erlijiosoen kontrako mila urtetako gartzela zigorrek, haien buruen erailketek ez zuten sortzen protesta koipetsu bat baino. Zein otzana izan zen atsekabea elizako buruen artean, zein bestelakoa sobietarren kontrako madarikazio zorrotz etengabekoen parean. Orduan etorri zen azken karta pastoralak, eta Münsterko Galen apezpikua bezala han zeuden salbuespen urriek ezin egin ahal zioten kontrapisu. Katoliko batzuk, berriak okerrak ez badira, kulpitotik jotzen zen SSren musika bezala sentitu zuten pastoral hori, harekin kidetasun handia zuela. Puntu honetan ez da bereizten beren Führerrari guztizko leialtasuna gordetzen zioten frailetzar luteranoen gorrotozko kantuetatik. Orduko aitasantugoa karta pastoralaren aurrean aita ponteko bezala ere jartzen da, absoluzioa ematen baitio.

Inoiz baino gutxiago aipatzen dira behartsuak, inoiz baino gutxiago babesten dituzte beren artzainek. Guztiz zokoratuak geratzen dira Zentruko ezkerreko hegaleko hondarrak, beste gauza okerrago batzuk isilpean gordetzeko. Are nabarmenago azaltzen da eskuineko hegala eta bere konponketak egiten ditu: zein ondo, zein egoki, Papek bat badu eta. Elizaren portaera demokratiko soziala anomalia bat bezala desagertzen da; Ketteler apezpikuak hirurogeigarren urteetan abiarazi zuen, baina Vatikanok amai bat ematen dio. Umore txarrekoek kasik pentsatu ere pentsa zezaketen kasik ez bakarrik aitasantuak bat egiten zuela garbi faxismoarekin, barneko bezala kanpoko erailketarekin, Espainiako proba orokorrarekin, Errusiaren kontrako Hitlerren azpijokoarekin. Han ez da azaltzen elizaren erdiko bide sonatua, mutur guztien kontrako gaitzespena, ezta etika guztiz harmonikoa edo eratasun jaierratsua ere. Karta pastoralak itxura ematen du Hitlerrekin egindako konkordatu santua ez zela bakarrik maltzurkeriaz egin, baizik baita ere pozez eta maitasunez. Ezin ekidin daitekeen irudipena da, kezka gehiago zegoela Hitler bakeak egiteko prest egon zitekeelako, ekialdeko gerra atzeratu egin zelako. Karta pastoralak nazi bigunei arrisku gorriaz ohartarazten die, marxisten adiskide zen Hitler alde guztietatik esku hartzera xaxatzen du. Entzun dezagun apezpikuen karta: "Orain Espainia boltxebismoaren azpian eroriko balitz, ez litzateke Europaren etorkizuna oraindik guztiz zigilatua geratuko, baina kinka oso kezkaragarria jarria geratuko litzateke. Horrekin berez ikusten da gure herriari eta gure aberriari zein eginkizun dator. Asma dezala gure Führerrak Jainkoaren laguntza, eginkizun izugarri zail hau betetzen herriar guztien laguntza irmo eta leialenaren bidez".

Hau da elizak kontzentrazio barrutiak eta torturategiak, juduentzako legeak eta hilketa festak dituen lurraldeari, are gerra esportatzen duen lurraldeari, zuzentzen dion aholkurik nagusia. Besoak estali gabe daramatzaten emakumeek ezin dute sartu elizan, baina judu bilusiek beren hilobia zulatu behar dute. Erromako kristautasunak Alemanian aurkitzen duen behaztoparri handiena komunismoa da; askoz gutxiago interesatzen zaizkio kontzentrazio barrutietako hiltzaileak. Benedikto XV.a, Lehen Mundu Gerrateko aitasantu bikain eta garbia, etengabe azaldu zen hilketen kontra; Vatikanoko egungo politikak, ezertarako beharrezko ez duen apezpikugo alemaniar batekin, bedekiaz ere ematen die, inoiz baino azkarrago eta gusturago. Ez noski Alemanian merkatu bat marraztu gabe, trukeko merkatu bat nolabait esateko. Elizaren etsaiek uste zezaketen gangsterrei aldatu nagusia eskaintzen zitzaiela eta kristautasuna goardia zuriaren merkantzia aparteko bezala gomendatzen zela. Gurutzea Herri Frontearen kontrako ametrailadora moduko bat balitz bezala; Espainian faxisten herio-autoak santuen irudiez apaindu ziren bezalaxe eta mila eta bostehun langileen hilketatik Tedeum bat kantatu. Katoliko alemaniar on asko lotsatu egiten da, iruditzen

baitzaio karta pastoralak eliza alokatzen duela eta kristautasunetik irabaziaren apologia baino beste ezer hoberik goraipatzen ez duela asmatzen; hori da sineste kristau-katolikoaren defentsa Hirugarren Reichean. Apologetika honen trukean Vatikanook segituan bere erakundeetarako giro ona izango duela espero du, "gure Führerari" lankideen arteko babesa eskatzen dio. "Horregatik, Espainiako izugarrikeriaren aurrean garai honetarako guztiz propio datorren hirugarren ideia: Auzia ez da Jainkoaren fedearen kontrako borroka, fede hori kristautasunak erakusten duen bezala, Boltxebismoaren kontrako segurtasun murru indartsuena eraikitze harrizko oinarria eratzen duena fede hori dela guztiz aitortzea baizik. Ez eliza katolikoaren kontrako borroka, baizik honekiko bake eta adostasuna, boltxebismoaren oinarri ideologikoak garaitzeko". Hauxe da karta pastoralak satankeria alemaniarrari, haren jarraitzaileen kemen bikainari, martirien harrotasunari ematen dien erantzuna. Ez dago inolako bakerik, esana zeukan Augustinek, Belialekin eta haren erreinuarekin; karta pastoralak bestelako iritzikoa da, konkordatutik faxismoarekin berdintzera lerratzen da. Amaitzeko katoliko alemaniarrei dei egiten die "irmotasunik irmoenean iraun dezatela eta bizitza katoliko kontzientziatsu baten bidez Estatua eusten eta herria sustatzen duten gure erlijio jainkotiarren indarrak egiazta ditzatela". Horrela goiklerok (behekoaren eta galtzen doazen goiko salbuespen gutxien alderantziz) egiten du katolizismoa berdin faxismoa berdinketa guztizkoa.

Hura behin-behinekoa izan zen eta garaiko artzainekin bakarrik ote dago lotua? Edo berriro katua zutik erortzen da, ondarez jasotako iragana berriro egiten da? Galdera zaila da, eta Rosenberg edo "XX. mendeko martiri" ez garenez, ezin dugu inolaz erabaki bere orokortasunean. Zalantzarik gabe elizaren mundukotasuna Konstantinoren emanketaz geroztik esplotazioari oso uztarturik dago; diru-poltsaren kontra joan ezean, gainerakoan da malgua. Jabego pribatua "natur eskubidearen" pareko da hemen; era berean Eliza Ertaroz geroztik (eta berriki Leon XIII.aren entziklikan) Estatu korporatibo deituaren gainean sendotzen da. Frantziako Iraultza egiaz onartua izan zen, baina ondoren etorri zen Errestaurazioa bera Salbatzailearen erlijioarentzat salbazio bat zen, Erromak ulertzen zuenez. Hamazazpigarren mendeko jesuitek, adibidez Belarminok, tiranoa hiltzea ontzat eman zuten zuten; baina azken batean gainerako beste guztien gainetik tirania izpirituala justifikatzeko, herriaren laguntzaz tiranotzan lehia egiten zion hiltzeko eskubide bezala. Eta orduan faxismoan kideko bat igertzen zuen, Ertaro berri delakoa; mundu antidemokratikoa igertzen zuen, bortxa agintekoia, eta azken monarkia absolutuari ongi-etorria ematen zion. Ez ziren alferrik izan Dominikarrak, "Domini canes" bezala, "Jainkoaren zakur usnatzaile" bezala, munduko lehen inkisidoreak; elizako hereseen auzietan, sorgin erretzaileetan zeukan Gestapok bere aintzindaria. Aldiz iruditzen zitzaion ordena eskalariak, San Frantzisko buru bazen ere, iraultzaren ustel kiratsarekin oso uztarturik zeudela; elizak ez zuen inolaz onartu kontsumoko komunismoak ordena monakalen mugak gaindi zitzaion eta "Ebanjelioko aholku" baino gehiago bezala irakats zedin. Zeruak eta infernuak martxan jartzen dituzte aitortza-liburuek onania bezalako bizio izugarrien kontra; baina hurkoa esplotatzea eta hari lapurtzea apenas hartzen den bekatu arin bezala, are gutxiago larri bezala. Odol xurgatzaileei karta pastoralak aipatzen duen "beste mundu zoriontsua" opa die kuriak, hain zuzen ere hemen; benetako beste mundua pobreentzat geratzen zen, hark kontsolatzen zituen eta kateari lotuta edukitzen zituen. Argumentu hauek ez zaizkie arrotz katoliko demokratikoei, ezta teologo katolikoei ere -modernismoarekin edo gabe; eta argumentu hauek, berriro diogu, Rosenbergekin ez bezala, urte egiazkoa gezurrezkoetik ondo bereizten zuten. Horregatik hain zuzen antikomunismo amorratu, gutxienik xahutzaile baten ustezko arrazoi erlijiosoaren gainera dator hemen argia, merezi duen argia alegia.

Ezkerreko propaganda atea Hitler aurreko azken urteetan ez zen izan taktikaren aldetik zuhurrena ezta teoriaren aldetik pentsa zitekeen sakonena ere, eta horren aurrean inpresioa indartu egiten da: hori kuriarentzat aitzakia bat zela bakarrik. Horretarako aski da ikustea nola bi neurri erabiltzen dituen Vatikanoko nazien antikristautasuna eta boltxebikeena neurtzeko. Ez da elizaren kontrako beren propaganda boltxebikeak hain bilau egiten dituen (Wuotan eta nazien demoniotzea komunista ateoaren Jainkorik eza soila baino askoz txarrago zitezkeen), baizik kuriak klaseak adierazi nahi ditu eta kapitalistaren alde egiten du apostu, honek adarrak baditu ere. *Erljioa herriaren opio* esaldiak purpuradun kristau asko era guztiz ez-kristauan haserretzen ditu; berdin dio esaldi honen aduanaren azpian atsekabetuek eta abailduek beren lehen arnasketa zoriontsua egiten badute ere. Aldiz, Rosenbergen eraso askoz gogorragoek, "paganismo berriaren" basakeriak, "Erromako mediku judu-etruriarrari" buruzko irain pertsonal zuzenak berak arrenkura eratsu bat egitera bultzatzen dute soilik Vatikanoa; bataioko sakramentua hausteak berak (juduen kontrako Nürenbergeko legearen eraginez), bestetan hain zorrotzak diren dogmatikoak, hotz uzten ditu. Alemaniako "kristautasun baikorra" bilakatu zen hilketa eta gartzelatzeko sailaren aurrean ere isil-isilik geratu zen kuria. Labur esateko, Vatikanoko Atzerriko politika, elizaren kontrako pertsekuzio orotan bezala, urduri jarriko da klase esplotatzailea lepotik heldua denean -hemen ere baliozko balitz bezala harako esaera gogor hura: *ubi pecunia, ibi ecclesia*. Zentzu honetan elizaren politika tamalgarriak bat egiten du jokamolde honekin ezezik, jaunekiko lehen konpromezuaz geroztik eliza kokatu zen oinarri historiko-materialarekin ere. Goikleroen eta beheklerearen arteko haustura ere zaharra da, nekazarien gerrateetan azaldu zen dagoeneko "jaunen frailetzarren" eta "herriko apezken" artean. Azken karta pastoralak azpimarratu egiten du era oso garbian, gehiegizkoan ez bada, etsaiek erlijioari egozten diotena: hura dela baliapiderik egokiena esklabu segitzeko eta tonto segitzeko. Horretan kuriak huts egiten du bere gorralpenaren bidez hasten duen negozio onari dagokionez. Naziak ez dira Fuldako artzainak eta Vatikanoko bidali berezia bezain tratalari zintzoak. Naziak Berri Ona erabiliko dute Alemaniako katolikoak berriro beldurtzeko eta nahasteko, baina ordaindu gabe joango dira. Izan ere karta pastoralak egitera bultzatzen duen hura Hitlerrek berak bakarrik egiten du, traba egiten dion Nazareteko judu bat gaineratu beharrik gabe.

Asma liteke zer gertatu zitzaizen fededun alemaniar askori. Artzain ebanjelikoek askoz "kristau alemaniar" gehiago jarri badituzte ere beheko hiladatan, gehienak goikoetan jarri ordez. Müller "Reicheko erretore" oso luteranoak ez zukeen karta pastoral beharrik, agintearen aurrean nola makurtu erakusteko. Eta agintearekiko antzinako bake luteranoak artzainei -zenbait martiriren salbuespenekin era berean- kristaukiro ahaztarazi zien nola zeuden papistak gorago. Ez dugu inolaz egin nahi Kulturkampf merke bat hainbeste katoliko on hartzen dituen Herri Frontearen garaietan. Hori Rosenbergentzat eta bere "XX. mendeko mitoarentzat" utzi beharko litzateke; hark daki IX. mendeko "saxoniarren harakinei" buruz eta Widukind bezala jartzen da haien erdian. Baina guk ez ditugu ahaztu nahi Hitler Kristorekin, eta are Goebbels predikatzailerik Asisko Frantziskorekin parekatu zituzten kamaradak. Ez ditugu ahaztu nahi Herri Frontean gudukatu zuten Espainiako apezak, ezta Badajozko erretorea ere, besoak zabalduz afusilatuak izateko puntuan zeuden langile-soldaduen aurrean jarri eta bere gorputzaz babesten zituena. Ez dugu ahaztu nahi Koloniako erretorea, hildakoen meza bost komunista ejekutatuen alde eman zuena; erretorea, bere antzeko asko bezala, kontzentrazio zelaian dago. Sakramentuak partitzen dituen erakunde aipatutik aparte bereizi zuten kristau hauek beren apezpikuen politika. Arrazoi berarengatik begirune osoa zor zaio, noski, iraultza soziala eta honek dakarren askapen guztiz beharrezkoa sakramentu bakartzat daukanari ere. Baldin Erromako eliza indarrez,

intzentsuz eta ergelkeriaz beteriko multzo soil bat balitz, baldin popeen antzinako eliza tzarista bezain tripazalea, iruzurgilea eta ezjakina balitz: orduan haren eraketak ez luke hainbesteko buruhausterik ekarriko. Karta pastoralak interesik gabeko bitxikeria lirake, Voltairek uste zuen hain zuzen elizak baino gehiago iraungo zuela berak, eta Schopenhauerrek idatzi zuen esaera nahasi hura, alegia eliza antzina oihan bat izan zela, barruan armada oso bat har zezakeena; baina arbola asko bota ondoren, sasitza bat bakarrik geratu zela, eta atzean lapur batzuk bakarrik ezkutatzen zirela. Voltaire bezala Schopenhauer oker zebiltzan ahotan darabilgunari dagokionez, eta azkenik haren muinaz ere bai; oker hori ez du gaur bere egiten antifaxismoak. Irudi katoliko nahastuak indar handia hartzen du hura zerbitzatu duten gizaki garbi eta argitsuetatik, antzinako bere eraketa, arte handi, eskolastika zorrotzetik, batez ere mundu honetako gaizkitik ez zetorren bere jatorritik. Guzti honek azpimarratzen du, ordea, bere historiako aro arriskutsuenetako bat, doilorrenetako bat ari zela pasatzen garaiko eliza. Karta pastoralak, zantzuz beteriko eran, ez bakarrik azaltzen da Goebbels bati bere zentzungabekeria bilaua sinetsiko bailion, Hitlerren erronka onartuko bailuen, Europako kulturaren kontrako benetako konplotaren susmorik ez bailuen. Ez bakarrik dirudi itxuraz, Goebbelsengandik egia hartuko zukeela, Göringengandik gizatasuna, Hitlerrengandik heziketa -itxura oso ageriko bat-, baizik harekin bat egiten du egiaz, eta aingerutxoek ez dute negarrik egiten. Karta pastoralak Herri Fronteko katoliko zintzoei erraztu egiten die Vatikanoren eta kontzientzia kristau-gizakiarraren artean bereiztea. Bere kanpoko politikan, gauaren eta gainbeheraren alde jartzen da Vatikanoa. Horrela, bada, Jainko gabeko inolako mugimenduk ez dio elizaren politika honi sekula kalte handiagorik eragin, karta pastoralak baino. Katoliko antifaxistak ez dira asalaturik geratzen elizak boltxebismoaren kontra eskaintzen duen bezalako "segurtasun murru" baten bidez. Horregatik ez ditu erakartzen ez iruzurtzen murru honek, apartatu ezinezko moduan Hitlerri lotua baitago. Beren fruituen bidez ezagutuko dituzue, horrek hau esan nahi zuen une hartan: garaiko Vatikanoren eta karta pastoralaren bidez. Bukatzeko beraz: Hirugarren Reicheko kulpito guztietan prediku guztiek oinarritzat hartzen dituzte -protestanteek noski katolikoek baino gehiago- Bibliako pasarteak - nolatan gerta liteke hori?

11

Beraz, hala ere: Idazteuna norentzat

Jende xumeari hitz egiten dio, esaten genuen gorago, era bereziki zuzenean. Denek entzuteko moduan hitz egiten du, hori aitortu behar zaio Bibliako hitzari. Eta jaunen frailetzarrek haren bidez antolatu dutena, hori ere zati handi batean Idazteunaren beraren arabera auzitan jarri eta gaitzetsi daiteke. Idazteunetik bertatik, beraiei honek kontzientziarik txarrena sor baitiezaieke eta hori ez bakarrik nazien garaiko karta pastoralagatik; lehenagoko suak (Kalvinok ere piztu zuen bat) ez dira noski oso-oso kristauak. Eta antzinako Ingalaterrako, Italiako, Frantziako eta Alemaniako nekazarien gerrateetako sermolariek alde guztietan beren astinaldien oinarrian Biblia jartzen zuten, esan dezagun hura zela benetako herri kanta. Jaunen frailetzarrak ez zuen inolaz entzuten halako "kanpora Akhab eta Jezabel", aldiz haren agindura hitz egiten zuen eta santukiro lausengatzen zuen, Jainkoaren graziaz. Hala eta guztiz ere: ezin erabil ahal zezakeen profeten haserrea ere, goitik behera, Idazteuneko beste zenbait gauza jaunekiko kidekoago zirenak horretarako hartuz? Eta ez birao edo hipokresia bezala gaizki erabiliz, baizik pasarte jakin batzuetan oinarrituz, agintearen menpean jarririk eta hark berak eraturik? Beraz Biblian ez dago *De te fabula narratur* baten aipaturiko edonon bat bakarra eta ez besterik klase guztiei zuzendua; egiaz herri guztietan zehar doa, baina emana izan den eran ez doa inolaz klase guztietan zehar. Aldiz haren barruan bikoiztasun bat dabil, pobreentzat sarri atsekabe, aberatsentzat ez beti ergelkeria.

Biblia Akhaben kontra, Jezabelen kontra, are Nimrod "nire-zure auziekin gizakiak lehenengoz abaildu zituen ehiztari indartsuaren" kontra, erabili zuen Münzerek erlijiozko beste testu batekin inolaz ezingo zukeen bezala. Baina Luterok Idazteunean, barnekoaz aparte, goikoa, agintea ere irakurri zuen eta bat ere kupidarik gabe, hango guztia Molochen testu batean indartsuago ezin zitekeen moduan gainera. Bai, Luterok herriaren ahoari arreta eskaintzera eramanean zuen edonon hori, hemen "Omnes jaun" bezala hain zuzen zapuztua izan zen, "balek ziztuka jo" beharko zuketenean herri arrote bezala eta ez noski "utzi nire herriari irteten" bezala. Eta gaur, testua hain bikain, barneko eta "propio" bihurtu denean, kosta ahala kosta mitorik gabea, suaren mitorik ere gabea, ez al zaio behetik gora jo zuen txispa merkatutik kendu, ezer aldatzeko ezgauza bihurturik? Edo goia ere, han goian hori "guztiz bestelako" hura izango da, eta horretan menpeko zintzoak ez dauka zer ukiturik. Gisa horretako "guztiz bestelako" numinosoan kontraka azaltzen da berriro oso-oso mitiko, hau da hain zapaltzaile, ze bai baitirudi Idazteunak ez diola arretarik eskaintzen herriaren ahoari baizik hura jo egiten duela; baina hori geroago aipatuko dugu. Ziur da aparteko ardura bat badagoela Biblian ez bakarrik nireen arteko txikienenganako, are arrenkuratzen direnenganako, are partidu harturik haserretzen direnenganako, guztiz kontrakoa. Baina honi dagokionez bada inolako beste erlijio liburutan aurkitzen ez den zerbait: sufritze bat sufritze izan nahi ez duena, matxinatzen den irteteko eta konpontzeko itxarote bat, bestelako izan nahi bat; ez bakarrik menpekotasunezko salmu batzuetan, baizik bereziki Jobengan eta beste batzuetan. Hasteko eta azkenetako urduria bakarrik izan daiteke hemen jaieratsu, are leialtasun utopikozko bere forma (beti urduritasunean edukitzen duena) da luzarora sakon den bakarra.

III

PROMETEO ERE MITO BAT DA

12

Gorantza

Batek dena bere barruan iresten du. Aurrean jartzen zaiona eta han dagoena gustuko ez bazaio ere. Beste batek hobeto mania dakion nahi du eta ez du beldurrik bere eskubideak eskatzeko. Azken batean bera baita kontua ordaindu behar duena. Ez da ohoratua sentitzen esaten zaionean hura aspaldi egina zeukala han goian. Eta dena gehiegizko gerta liteke, hain zuzen ere gutxiegi denean.

13

Arrenkuratik eztabaidara

Mehatxupean dagoena, lehenbizi ezkutatu egin ohi da. Beldurrak ezer baino gehiago atzera eragiten digu era horretan, zurbil jarri eta bakarti egiten gaitu. Beldurra berez zehaztasunik gabe zehaztua da soilik, izuak ez bezala ez dauka zeri bakar eta garbi bat, haren aurrean dardarka jartzeko. Horregatik are helbarritzaileagoa da haren lainoa, hain izan daiteke izua izugarria eta bortitza, ze nia haren aurrean babesik gabe amiltzen baita. Eta hala ere beldurrak ni gabeko barnetasunean kokiltzen du, bakarti egiten du, harremanik gabeko, edozein kolpe itxaronez. Alde guztietatik eta une berean guztiz barneko, erabat itsu sentitzea da. Norbera hala kokiltzeak badauka gero beste ni bat, han itotzen denaz aparte.

Izuak bakarrik, beraz, izuturik dagoena hartzen du bere baitan. Kanpoko zeri batekin batera, haren aurrean bere gizona jarri dezakeelarik. Ezgauza bihurturik guztiz norbera baieztatzeke, ni (beldurrean ez bezala) lauso baten kariaz. Nahiz eta hain lurjota eta are hain ahul bularrean: edozein modutan, handik etor daiteke arrenkura, lehen lelo hori, gainerako guztia horrela iritzi propiorik gabeko hautesle artalde mailara erasten delarik. Arrenkura horrek guztiz barnean segi dezake, ukabil zaratatsu baten pareko eta hau gainera zakuaren kontra joz. Izua barruan luzaro egon daiteke, batez ere mehatxuka ari den kanpokoaren, are trumoika ari den goiaren ezjakinean, horrek sortzen baitu izua. Hala ere, Idazteunak eztabaida ere deitzen duen arrenkuraren bidez bizkarrezur bati hasiera eman dakioke, zutik jarritz. Batipat ordea egin behar denari buruz eta norberari egingo diotenari buruz oraindik *azken* hitza ez dela esan antzeman nahi duen buru horri goian eutsiz. Bi jarrera mota aurkitzen dira hasiera honi dagokionez Biblian: bat otzana, sarri goi aldera buztana mugitu bakarrik egiten duena, eta beste bat setatia, eztenaren kontra jotzen duena, honek ez izan ez iraun behar ez balu bezala. Arrenkura zalantzarik gabe lotsagabea edo ergela izan daiteke, baina edozein modutan buztanari eragitea baino gizatiarragoa da. Eta zein sarri izan duen arrazoi, hain zuzen aurreraka joz, jaunei gustuko litzaiekeen bezain ergel ez izaki.

14

"Jaunak ilunpetan bizi nahi du"

Zerbaiten zalantza izan ohi da, harekin nola konpondu asmatzen ez delako. Buruari eragitea pentsatzea baino hasiera zaharragoa eta sarriagoa da. Gehiegizkoa eta zailegia den zerbait eskatzen zaigunean, dena aldrebes ateratzen denean, aurretik doa beti. Bere haurra zigortzen duenak bere haurra oso-oso maite duela, hori noberak makilka ikasi behar du lehenbizi. Jipoia emateko haserrea bereziki zuzena dela, jipoituarentzat goiegian dagoelako, argibide horrek oso argi azaldu behar du. Bestela ez legoke goikoa oso seguru *pentsatu* ere egiten duen zalantzaren aurrean -hau da benetako zalantza deitzen dena-, honek mesfidantzarekin hemen bat egiten baitu. Bere garaia iritsi denean, erraldoiei gure gainean jar daitezen, eta batez ere irakas diezaguten ez uzteko garaia iritsi denean. Haren irudi sinesle eta baieztatzailean gizatasunaren kontrako bada, orduan bera ere epaiturik geratzen da. Bera zulora bota baina orain bere eskura dauden

anaiak besarkatzen dituen Joxek Jainko jeloskorrak ez bezalako jarrera dauka, honek ez baitu ahazten laugarren belaunaldiraino. Eta gutxitxo bat harroxkoago den aldakorra, Abrahamek komentzitzen baitu Sodomari barka diezaion han hamar zintzo bakarrik bizi balira, hura bera, bestelako hitzarmen guztien kontra, bestelako jarrera batean dago. Bestelako jarrera hau noski, horregatik hain zuzen ere, azpimarratuko lukete lehenago hereseek gortesauek baino Idazteunean. Jobek, adibidez, ez zukeen bere semea gehiago halako konformidadez opalduko; jaiera ez zuen hark nahastu aginduarekiko, legeztatuarekiko menpekotasunaz.

15

Elkarren kontrako printzipioak Biblian:

Sorkuntza eta Apokalipsia

("Eta hara, dena oso ona zen" - "Hara, dena berri egingo dut")

Goitik behera hitz egiten duenak bera baino beherago zerbait eduki behar du, noski. Bereak haurrak balira bezala, ahalik gainera bere propioak, babespean hartu behar direnak. Horrela irudikatua, eta ez Biblia zaharrenean bakarrik, Jauna zen, norberaren leinuko Numena, ez gutxiago, baina ezta gehiago ere. Haren ondoan, Biblia zaharrenean, bestelako jainkoak ere bazeuden, Baalak, hura baino ahulagoak ziren orde. Eliasek barre egiten dio Baali, beharbada lo dagoela, beharbada kanpora joana delako, ezin baitu bere oparia hartu. Ez dago hala ere garbi ea Baalen apezten *asmakizun* soil bat den barre egiten zaiona edo ea egiazkotzat hartzen den idolo lehiakide bat den, bakarrik Jaberan aldean indar gutxiago duena. Hala ere leinuko jainko zen Jabe bakar bezala eta ez beste bat gehiago bezala; beraz era monoteistan eta ez era henoteistan soilik adoratua zen neurrian, haren ideia leku batean zegoen leinuko jainkotik gizaki guztien jaun zena izatera altxatu zen, hau da mundu osoaren jaun eta sortzaile zena izatera. *Sortzaile* izatearen ezaugarriak (beste herrietako munduko jaunek, adibidez Zeus edo Mardukek, ez zuten hori), ezaugarri horrek guztiz galerazten du, salmuak dioen bezala, pitxarrak eltzeginarekin eztabaida dezan. Horren orde sei egunetako lanaren sortzailea mintzo da azkenean (eta lehenago ere bizitza eratzen den hirugarren, laugarren eta bosgarren egunen ondoren): "Eta hara, dena oso ona zen". Hau ez dator guztiz egoki, jauna Noeren garaietan gizakien gaiztakeria munduan handia egin zenean, gizakiak egin izateagatik damutu izanarekin. Bien artean bekatua zegoen, sugea, bekatuen ordainetako akerra, jaunak egin zuen guztia ez zela oso ona, aldiz denetik izan behar zuela, dena sortzailearen nahiaren arabera gertatzen ez bazen. Sugearen bidez, beraz, etorri zen askatasuna mundura, baina lehen desobedientziaz eta haren ondoren etorri zen paradisutik botatzeaz geroztik mundu osoaren gainean jarria dagoen madarikazioak munduaren sortzailea erru guztitik (beraz sugearenetik ere) erabat libre utzi behar zuen; berak sortu zuen munduko miserian jatorri-jatorritik berak ez zuen zerikusirik. Jainkoa bera dela mundua eratu duena: pentsamolde hori ez da erlijio guztietan aurkitzen, eta bere egintzarekin era hain argian eta hain pozik dagoela, oso gutxitan. Haietan Jainko gorenak gehiago jauresten du, munduko nobleen antzera, axolagabekeria aristokratikoa; gerra eta agintaritza, hau da ezer demiurgikorik ez, are gutxiago buztinezko bolak egitea, egoki letorkieke Zeus edo Marduk edo Ammon-Ra jainkoen irudiei. Genesiako Demiurgoaren kontzeptzioa seguruenera Erdiko Erresumatik zetorren, Menfis haren hiriburuko bezala hango eskulturgileen Ptah jainkoa Egiptoko erresumako jainko bihurtu baitzuen; lan demiurgikoak harrez gero ez du desohoratzen, baizik kreaturak benetan sortzailearekin guztiz lotzen ditu. Horregatik ez zen galdu inolaz gainerako jainko guztiak, eta ez bakarrik Ra edo Marduk, apaintzen zituen jauntasun berezia. Are Egipto zaharreneko eta Babilonia guztiz astral-mitikoko eguzki enblema erabat galdu zirenean, haien orde demiurgo bat altxatu zen eguzkiaren gainetik, honek egin baitzuen eguzkia. Lurra, salmoak dioen bezala, oin-

aulkitzat hartu zuen eta guztiz lur-gaindikoak agintzen zuen zeruan, eta gainera bakar bezala, gainera ikus daitekeenaren gainean ikustezinezko bezala. Are zehaztu gabeago geratzen da hain zuzen miseriak Jainkoaren hipostasi guztien arteko hain orosortzaile eta guztiahaldunena den baten munduan miseriak duen lekua; eta nola zabaldu zen hala ere miseria. Jaunaren herrian bertan eta agindua zegoenetik apenas ezer betetzen zen Kanaanen. Horren ordeztu, berriz, asiriarrak, mediarak, persiarrak etorri ziren, Babiloniako gatibualdia, Antioko Epifanes, eta gero erromatarak, tenpluaren txikizioa, Jerusalem deuseztapena, eta azkenik herri guztien artean banaturik geratzea. Eta antzinako mundu berantiarra bera, orohar esateko: haren munduarekiko urruntzea, sorkuntzarekiko urruntzea, Jainko sortzailearen herrian, "Hara, dena oso ona zen" esan zuenaren herrian sartzen da. "Paue, paue", "geldi, geld" hots egiten zaio haren ordeztu sorkuntzako lanari; *Heimarmenê*-arekiko uste estoikoa, patua, deabruzko egiten da dena azkenik, demiurgoaren aldeko lagungaririk bat ere gabe, bekatu baten eraikuntza osagarri bat ere gabe: izpiritu gaiztoak bizi dira zeru azpian, munduko izpiritu gaizto batek *ab ovo* sortutako mundu batean, ez mundu erori batean. Handik aurrera hasten da beraz bikoiztasun propio bat, Biblian *sorkuntza* eta *salbazio* bezala pentsatuaren bikoiztasunak zuzenean hara jotzen ez bazuen ere. Bikoiztasun bat, Biblian hain zuzen paradisu sugeaz geroztik (sagarak ez zeukan harrik bat ere, ezagupen propio baten sagarra baizik) ostendurik eta zapaldu dagoena. Item, mesiasen ametsak aurrera egiten du, eta ez da azaltzen gure-gain batek, sorkuntzaren eta jaunaren jainko batek bidali izan balu bezala, baizik soilik *Exodoko* gure-aurrean bezala azaltzen da, Egipto erraldoitik irtete bezala, mundua bilakatu zen zabarkeria bezala. Halako eran, non oraingo munduan sartzen duen printzipio bat ezin izan baitaiteke horrela oraingo mundutik gidari bezala ateratzen duen printzipioa. Mundu hobe batera noski, are egiazko bakarrera, gerora kristautasunean *'mellon aion'*, miseriarik eta agintaritzarik gabeko *eon* deitura.

Gizakiak txiki edo handi bezala edukitzea zen guzti horretan auzia. "Erori" egin dira, erdi edo guztiz hondatuta daude, orduan berenez gaizkia bakarrik egin dezakete, noragabe ibiliko dira. Sugearen pozoiaz geroztik gizakiaren joerak txarrak dira gazte-gazte denetik, Luteroren arabera goitik behera hondatuta daude, bekatu egin beste erremediorik ez duelarik. Katolikoen arabera bere joera guztiz ahulduta dago, eta horregatik dator dei hura: "Jauna, jaso zuk gurdia". Eta beti jaso egin behar dela, guztiaren sortzailea guztiaren salbatzaile bezala azal daitekeela, guzti horrek bekatuaren ordainteko akerra eskatzen du, Luziferren izeba, Ptah-Jaberen arte-lan harrigarrian sartzen den demonioa. "Jauna, jaso zuk gurdia" horrek azken kreaturaren eta pentsamenduaren mugimenduak desakreditatzen ditu, orain orohar historia, giza *historia*, gizakiek egin deitzen dena desakreditatzen du. Honek egiaz, Augustinen arabera, egiteko bat izan behar du; historia kategoria alegia, gertakizun dramatiko bat bezala, bere ekitaldi eta bukaera erabakitzaile eta guzti, Augustinek azpimarratu zuen lehenbizikoz: ez da inolaz behin eta beti errepikatzen diren gertakarien joan-etorri bat, historigile greziarren artean gehienetan azaltzen den gisan; aldiz Bibliaren bitartez argituko eta burutuko den erreinuen arteko borroka bezala, gaizkiaren eta Jainkoaren erreinuaren arteko borroka bezala, honek azkenean garaituko duelarik. Hala ere, Augustinengan, gizakiarengan ere ipintzen duen nahimenaren lehentasun indartsu eragilea arren, ez da azaltzen hemen inolako benetako giza ekintzarik, Jainkoaren nahiaren, historiako haren egintza salbatzailearen jarraitze soil eta azken garaierarako, epaiketarako eta erreinurako prestaketa soil baizik (elizaren bitartez). Hala badago Augustinengan: historiaren kontzeptu dramatiko aurkitu arren, azken garai apokaliptikoetara den-dena zuzendu arren, munduaren garaia erdian Kristo aldaketa bezala aurkeztu arren, -badago *jauzi* bat historiaren eta erreinuaren eraikuntzaren artean.

Eta horrekin batera neurririk handieneko absolutismo teista bat, a-historikoa guztiz eta azkenik, historia hartu arren *civitas Dei*-k mundura bertara egiten duen erromesaldi bezala. Augustin honetan ez doa noski Karl Barth bezain urruti, honek historikoki azaltzen den Jainkoaren ekintzaren alderdi guztiak eta bakoitza ez-egiazkotzat jotzen baititu, hain zuzen ere Jainkoaren iharduera gizakiengan "tiroak egindako zulo" baita bakarrik eta ez historia. Hala ere *sorkuntzako* Jainko jeloskorrak Augustinengan ez du uzten bere munduaren (bere mundutik) salbazioa gizakiaren historiatik bertatik sortuko litzatekeen inolako argi baten eskuetan; hain zuzen ere Abraham, Jesus, *salbazioko historia* orohar goitik zehaztua dago, bestela Augustinen ustetan ez litzateke azkenean besterik izango erromesaldi zurtz eta noragabeko bat baino. Jainkozko sorkuntzaren eta jainkozko salbazioaren arteko bateratze pertsonal iraunkorrek, jainkozko sorkuntza eta bere egintza bekatuen ordainetako akerren, tartean sartu diren demonio eta txerrenen bidez gero eta gehiago zurizatzeak, guzti horrek prometeiko oro kanpora uzten zuen azken batean. Are, Jainko sortzaile zaharrak *apokalipsian* bere burua osatu eta egiaztatu egiten du bakarrik apokalipsiaren *jauzian*, horrek bere horretan ez baitu behar giza produktibitatearik ez historiarik. Baina denborara egiten den jauzi honek ez du izan behar inolaz ekarpen apokaliptikoaren edukira egindako jauzi bat; hau ezin uztartu daiteke inolaz sortzaile = salbatzaile berdinketarekin, ezta "Hara, dena oso ona zen" eta "Hara berri egingo dut dena"-rekin ere. Ezta inolaz ere jaunak bestelako itxura hartzen duen Moria mendiarekin, ezta sartzen diren demonioak ezezik Genesia zahar guztia ere kanpora botatzen duen Jainkoaren printzipio guztiz antitetiko harekin ere. Bai ordea edukiaren jauzi egiazkoarekin: "Zeru berri bat eta lur berri bat sortu nahi ditut, joana gogoan hartu ere ez hartzeko moduan" (Is. 65, 17); "lehengo gauzak igaroak baitira" (Ap. 21, 4). Hala ere jatorrizko teismo zaharra berriro hartzen da hemen; izan ere, bekatua eta demonioen sarrera dela-eta, sorkuntza batera, erorketa eta demonioen sarrera aurreko "lehen egoera" batera itzultzea dela-eta, radikaltasun osoz oldartzen den Berria behin eta berriz atzerago ipini behar izan da. Gizakiengan berriro-jaiotze bezala baino ez du oldartu behar, munduan natura "eraldatu", beraz paradisu zaharrera berriro itzuli bezala. Egiaz hemen ezin esan liteke *anamnesis* platonikoan eta ordo sempiternus idearum osoan bezala: "*Nil novi sub idea*", baizik nahasten da - eta beti gainera demiurgora salbatzaile bezala itzuliz- *restitutio in integrum* bat, itzuleraren obedientzia bat, itzulera bat obedientziaren bidez. Hala eta guztiz ere, sei egunetako egintza, bere paradisuaz ("parke bat, non abereak bakarrik gera daitezkeen eta ez gizakiak", Hegel) azkenean apokalipsian ez da eraberritzen. Hango azken ametsezko irudian Jerusalem zerutiar bat geratzen da bakarrik on bezala mundutik. Ametsezko irudi erlijioso hau bera ere "jaitsi egiten da" noski, beraz goitik dator, hala ere gizakientzat "prest dago andregai apaindua bere senararentzat bezala" (Ap. 21, 2). Ez du arrazoi faltarik beraz Luterok Bibliako azken liburua "taldeburu guztien ilusio kaxa" deitzen duenean; haren *eskhatona* ez baita ez barnekoa ez -bere mito zoragarrian ere- tabu erdietsezina, ez lurreko aitarekiko, munduko aitarekiko, ezarritako agintaritzarekiko hausturarik gabea ere. Alderantziz, *re-ligio* guztien, bir-lotura guztien artean arrenkurarik indartsuena dauka barruan; haren adventismoa *ordo sempiternus rerum* gabea da guztiz.

16

Desberdintasunak mitikoan, Bultmannen hondar izpiritualaren kontra, baita une berean Ottoren, Karl Barthen Absconditum desgizatiartuaren kontra. Mito bakoitzak eskatzen al du, Prometeorenak ere, bai desmitologizatzea?

Alde ipuin zabarretatik

Oso gutxitan esan ohi da ozen urrumatu behar dena. Eta zenbait gauzak freskotu egiten du itxuraz, gu beste era batera lotarazi baino egiten ez gaituenean, traste zaharrak

botatzen direla aitortzearekin. Urrun amamen ipuin zaharretatik, oso egoki, baina haietatik antzinako zentzubako bihurtu den eta nolabait esateko ezjakin diren mamuak kentzen badira bakarrik, baina ez goitik beherako azaltze eta kontaketa. Honek lehen bezala sorgintzen du beti ere, eta barneko belarriaz edo senaz bakarrik suma daiteke eta horregatik ez da "mitiko" bihurtu behar. Jesusen sendaketetan ez bezala, baita ere noski gurutziltzatua izateko bere ustezko nahian ez bezala: biek, uraren kontra igeri egitea eta bere burua agindura apal makurtzea, neurri berean izan behar dute orain mitiko. Bitartean horrek, esku-ezartze posibleak eta hilobi huts ezinezkoak, agian arimaren bizitza existentzial bati buruzko irizpide modernoak kontraesaten du. Gainera ipuin zaharretan bereizi egin beharko litzateke, hain zuzen ere mitikoari dagokiona arreta handiagoz aztertuz. Ea fabulatzeak giza egintza fabulatzaileri edo, edertuz, hura makurtzen duen presioari laguntzen dion. Ez baitago gugandik era berean urrun oraindik fabula bezala somatzen dugun guztia. Hasteko bereizi egin behar da lehen ondasun hura, zientifikoa ez bada ere, helarazteko erabiltzen den tonua. Sagarena eta harekin mitikoki lotzen denarena ez bezalakoa da nabarmen ipuinaren tonua. Gauza miragarrien berri eman dezake, amamen ipuinetan bezalaxe, baina: entzuleak ondoren harako bidea ireki behar du, ez dago ezer erabakita horren kontura. *Bigarren*, ipuinak eta are saga eta mitoa sortu dituzten gizarteko *maila* desberdinen arabera bereizi behar dira. Gurari plebeiekin hemen, handikiarekin han, haur eta pobrezia askorekin hemen, hainbeste sorgin eta Goliatekin han. Bere zoriona bilatzera abiatzen den jostuntxoaren eta erraldoi bidaztiaren, betiko menpekoen gainean trumoika eta tximistaka dagoen jaun handiaren artean: hortxe dago bereizkuntza argigarriena. "Erraldoien jostailua", Chamissoengan hain adiskidekor gertatzen bada ere, egiaz, bere morroi eta guzti, saga bat da; Andersenek "Ahatekumetxo itsusia", alderantziz, barruan daukan aldaketaren eta askatasunaren aldekoagatik, ipuin egiazkoena da, ederrena. Biak, ipuina bezala saga eta are mitoa ere ideia prezientifikoz beterik daude, garbi dago; baina zein bestela, zein bestelako zertarako eta xedetarako erabiliko diren ideia hauek amamen ipuinetako heroien adorean eta maltzurkerian, eta izua sortzen duen mitoko jaunaren indarrean. Badira nahasketak ere, noski: Txanogorritxo eta otsoarena jatorriz izarren saga bat da, goi-goikoa beraz, baina herri ipuin bihurturik geratzen da, ezaugarri guztiak aldaturik. Horretan adimenari berari, mitorik gehienetan ez bezala, ez zaio besterik eskatzen ez bada hartaz balia dadin. Eta era modernoagoan esateko: Chaplinen gisakoz beterik daude ipuinak; beraz ez dira "mito laburtuak" ulerpide erreakzionarioak adierazi nahiko lukeen bezala, ezta derrigorrez liluragabetuak. Aldiz, ipuinek badute zerbait, sagaren, despotismoaren feudalismoak baino lehen, mitoan desio bezala salbatu nahi zuena, alegia beste era bateko mitikoa hurbiltasunez propio zena -eta hori salbatu zuen. Beste era bateko mitikoa: horrek esan nahi du beraz *hirugarren*: mitikoan bertan, guztiz prezientifikoa izan arren, *erraldoien gisan dominatzen duenaren* eta palazioko matxinatzailearen artean gutxienez bereizi behar dela. Ipuina izan zen hain zuzen mito batzuk zuten irregulartasun guztiz inportante hau igerri arazi zuena, paradisuko sugearen mitoa barne, adibidez. Prometeiko guztia, are ipuin gisako sui generis bat mitikoari baitagokio, are gehiago oraindik: hark duen Zeus gisakoa erabat bereiz arazten du, hain zuzen ere urrunduz, Zeusek bere zerua oraindik hodei keaz estalita badauka ere eta drama grekoak, non gizakia konturatzen baita bere jainkoak baino hobea dela bera, nagusiki Prometeoren legenda bere barruan badauka ere. Baldin guzti hau ere, mito dela-eta, multzoan desmitologizatua baledi, hau da kanpora botea, Biblian ere ezkonformista diren askok beren zentzua, ez noski iluna bai aldiz argitzailea, galduko zuket. Gauza bera gertatzen da sugearekin, beste erako mito goren horrekin, heteronomoaren hodei kearentzat gaurko desmitologizatzaile askok eta beren "existentziak" nahiko luketen baino askoz zantarragoa baita. Eta guzti hau nahiz

paradisuko sugeari eta haren mito prezientifikoari dagokionez baliozko izan harako esaldi hura: bera dela nolabait jainkosa adimenaren lipua. Eta horrek azken batean, *laugarrenez*, mesfidantza antimitikoaren kontra ere ez du bihurtzen kritiko inolako era prezientifikoan. Hau da, esanahi mitiko batez ere astralmitiko batzuren aurrean, *naturaren ikuspegi zaharrei dagokionez*. Zalantzarik gabe izulaborriak eta ezjakintasunak parte oso garbi bat zuten horretan, eta behi sakratu batetik ilargiaren adarretaraino edo Eliaren suzko gurdiraino zihoan zentzungabekeria ez da inolaz prezientifikoa. Aldiz ordea aski da begiratzeko beste modu bat, modu *kualitatibo* soil bat, naturan *kualitatiboa* inolaz baztertzen ez duena, jatorrizko mitikoaren gaindi, are Schillerren "Greziako Jainkoak" gaindi doana. Naturaren edertasunaren, naturaren bikaintasunaren -fisikaren aldetik erabat objekturik gabeko, erabat aberririk gabeko bihurturik- "sentimenduetan", hari buruzko pinturaren eta poesiaren gisako irudiketa eta adierazmoldeetan bizi da, kualitateekiko arrotz bihurtu den fisikaren ondoan hark duen lekua beti oraindik arazo delarik. Marxek berak ere esaten du, Bultmann bezain radikal ez izaki, "Ekonomia politikoaren kritikari Sarrera"ko bukaeran: "Gauza jakina da mitologia grekoa ez dela arte grekoaren harrobia bakarrik, baizik haren zola ere badela". Eta zientziari dagokionez, ez da falta hemen, "kualitateek" bezala "formek" ere beren zentzua oraindik bazutenean, oroitzapen mitikoaren modu aparteko bat. Ez da ikazkinaren fedearen oroitzapena noski, ezta ustezko goitik beherako errebelazioarena ere, bai ordea kualitateak, are edertasun objektiboa *a limine* eztabaida ezinezko izan behar ez zuten mundu batena. Hala badago -*Hen kai Pan* oso zahar batekin- Keplerrengan, hain zuzen zehatza ez den naturako beste sail batean, kosmologia guztiz estetiko bat, hau da musikaren gisako bat, oroitzapen erabat pitagoriko-mitikoak dituen. Natur filosofia erromantikoak berak, Paracelsus eta Böhme gandik etorki, Schellingengan, beste era batean Baaderrengan, eta neurri batean Hegelengan ere bere gailurra duelarik, irudi natur-mitikoak, are analogia hain primitibo haiek galdu izan ez balira bezala jokutzen du benaz; batzutan oso susmagarriak dira, baina bestetan Fausto infernutan bezain distiratsuak. Azken puntu honetan ere ipuina beste mota bateko mitiko bezala azaltzen da beraz, ez Prometeorengan, bai ordea oraindik orfikoan kokaturik, isilpeka xuxurlatuz "iturri, sufrikario, kualitate". Arazoa ez da fantasia erailtzea soilik, baizik une berean dialektikoki mitoa haustea eta salbatzea argiaren bidez. Benetako sineskeriatik benetako urruntzearen bidez; urruntzearen debekurik gabe bestalde, teo-dizea, teologia itxuraz bakarrik desmitologizatu batean, *Hic Rhodus, hic salta* guztizko honetan.

Item, hainbeste kolorez jokatu den lekuan, zuhertasun handiz bereizi behar da. Zuhur zentzu honetan: katu guztiak ez direla beltz deitu behar alegia, ez ipuin guztiak amamen ipuin, mitoetan ere ez dela pasatu behar argia dakarren oro bereizkuntzarik egin gabe. Bada horren orde zurrera bereiztaile bat, oskurantismoari hatz mutur txikiena ematen ez diona, hain zuzen mitoetan, Luzi-feriko bat (argi-ekarlea, etimologiaren arabera zuzen ulerturik) behar balitz haietan aurkitzen duena. Naturari dagozkion beste gauza oraindik erabaki gabeko askorekin batera, Goethek "ezkutukiz betea egun argitan" deitzen duen bezala. Hau ere pribatuaren desmitologizatzearen hondar asozial eta akosmiko baten ondoan azal daiteke benaz. Horri dagokionez "Nur klopfen" (atea jo bakarrik) "Spuren"en (1959, 160 or. eta hur.): "Orduan igertzen da oraindik ez dagoela burututa, ezin duela ondo gelditu hain zuzen". Eta oraindik berriro "*Traumschein, Jahrmarkt und Kolportage*" (Amets izuna, feria eta kinkaileria) "Erbchaft dieser Zeit"en (1962, 182, 186 or.): "Ipuinak, kinkaileria argituz, matxinada esan nahi du; sagak, mitotik etorritik, patu jasana... Baina sagan ere batzuetan giza gerra aurkitzen da eta jaunaren gainean lortutako garaipena, zer harrapatu eskaintzen duena". Eta oraindik gehiago ("*Zerstörung, Rettung des Mythos durch Licht*" -Mitoaren deuseztapena, salbazioa

argiaren bidez-, *"Literarische Aufsätze"*n (1965, 345 or. eta hur.): "Ipuin moduko batek, eta hori gerta daiteke, dagoeneko airean dabilenetik asko salbatzen du... Baina ez al dauka Zeusen mito zahar, soil, dominatzaileak, Olinpoaz eta hodeiezko tronuz aparte, Prometeo bera ere barruan? Eta ba al dago ezer arketipikorik iraultzako irudietan, Bastilleko hondakinen gainean egindako dantzan bezala besterik ez bada, gogora ekartzen dituen gehigarri protomeiko indartsu batekin, berriro antzinako egunsentiarri, are udaberriari buruzko mitoak, haiek barrura ekarriz eta eraldatuz?... Uhin elektromagnetikoetako eskalaz ezin margotu, ez poesiarik egin, ez deskribatu eta adierazi daiteke arbolaren, ibaiaren, itsasoaren mendi garaien esperientzia eta are gutxiago egin daiteke filosofiarik". Eta oraindik berriro *"Physikalischer Relativismus"* (Erlatibismo fisikoa) *"Erbschaft dieser Zeit"*en (1962, 294 or.): "Naturan ere ondare arazorik ba ote beraz? Hain zuzen ere naturari buruz bata bestearen atzetik historian izan diren ideia bakoitzean -hasiera-hasierako ideia animista, magikoa, kualitateen arabera sailkatua- ideologiaz aparte, ba al da izatearen joera handiko une pasaturik natura une berean markatu eta informatu ahal zezakeenik?". Eta oraindik, baina ez azkenik (*"Ein Numinoses auch im religiösen Humanum"* -Numinoso bat Humanum erlijioso batean ere-, *"Das Prinzip Hoffnung"*en, 1963, 1.411. or): "Erreinua da beti muineko kontzeptu erlijiosoa, erlijio astraletan kristal bezala, Biblian -xedea guztiz eraberrituz- aintza bezala". Labur esanda, antzinako lur erlijiosoa hain gutxitua izan bada ere, ezin neur daiteke, ez-nazazu-ahantzi bezala dakarrena dakarrela, fantasia berezi eta trikimailurik gabeko batekin.

Bultmannen gela erlijioso ona, "gizaki moderno"

Hori ez da aski beraz, baldin ameskeria pinpirin moduko bat bakarrik egiten bada. Gelatxo preziatu isilari eta han oraindik itaunka ari denari dagokiolarik, bai benetan "propio". Ez balego bezala gisa horretako norberaren eta gaur egungo arimazaintzan hainbeste aire ustel nola dagoen itxura huts bihurtu diren mito eskastuetan. Labur esanda, *Bultmanni* dagokio pentsaera zahar baina une berean bereiztaile hau, berak 1941ean desmitologizatzea, hau da kontzientzia zientifiko moderno, Heideggerren existentzialismoaz, hau da norbera bakoitzaren oinarritzko topaketa modernoaz lotu baitzuen. Norbera bakoitzaren eta bere itaundua izate biblikoaren iltze gori pribatu hau da, ustezko era indibidual soilean (gizarteko "omen" bat gabe, "izaera" mundutiar gabe), gisa honetako kristau hondarrei geratzen zaiena. Gorputzekoa, gizartekoa, kosmokoa, guzti hau "mundutiar" bezala ez da kontutan hartzen, are mundu bezala erlijioaren aldetik ere, arimak ez dauka horregatik kezkatu beharrik. Ez ekimenez ezta ulermenez ere: Idazteunak existentziatik existentziara hitz egiten du, bestela ez du ezer esaten eta are gutxiago hitz egiten du "zerbaiti buruz". Edo azken hau gertatzen den lekuan, era prezientifikoan, mitikoan gertatzen da bakarrik, eta ondorioz, Bultmannen arabera, zientziaren aldetik zentzungabekeria bat da, kristautasunaren aldetik nahasmendu hutsa (norbera ulertzeko modu izan ordez). Kontzientzia "objektibo" orok, halako denez, zehazkiro profano, are zikinkiro mitiko denez, sinesmenaren barnekotasun "situazional" hutsaz ez du zerikusirik bat ere izan behar: hain zuzen gizaki erlijiosoak, modernoak bezala, ez du parte hartzen Idazteunaren "adierazpen" mitiko orotan (haren "errebelazio" ez mundutiar propioen honuzko aldean). "Errebelazioak ez du eskaintzen kosmo-ikuspegiari buruzko jakintzarik, aldiz itaundu egiten du" ... "Zer errebelatu da, beraz? Ezer ez errebelazioari buruzko auzia irakatsiei badagokie, baina dena gizakiari bere buruari dagokionez begiak irekitzen zaizkion eta bere burua berriro uler dezakeen neurrian" ... "Errebelazioa gizakiarentzat azken batean ezinbesteko eta erabakior den ezkutuen aurkikuntza bezala kalifikatuko da, "salbaziora", bere norberatasunera iritsiko bada" (*Glaube und Verstehen*, III, 1960, 30, 29, 2. or.). "Sinesmenean kendu egiten da pentsatze objektibatzaileak eskaintzen duen

(aldiz sortzen duen) lotura itxia" (*Kerygma und Mythos*, II, 1952, 198 or.); horretan ordea Bultmannengan "lotura itxia" behin eta berriro mitoarena da - mito iraultzailerik eta eskatologikorik ez balego bezala. Hala ere halako polbora honen susmorik gabe mito guztietan, bakoitzaren tenorea kontutan hartu gabe, Bultmannen teoriak ez du ikusten ezer ez bada "ez mundutiarrari" buruzko hizkera mundutiar zaharkitua, ez bada "transzendentzia ez objektibo baten irudikapen objektibatu" guztiz barregarri bat. Hala beraz, desmitologizatzeko halako modu batentzat ez dago urruntasun garrantzizkorik zerriak amiltzen dituzten izpiritu zikinen eta azken garaiei buruzko irakatsi "objektibatuaren" artean, hobeto esanda: apokalipsia ez bakarrik pribatuaren baizik azken garaietako kosmikoaren artean. Honetaz beterik dago Itun Berria, Eon "berri" lehergarri soilaren indarrez eta ez noski norbakoitzaren existentziatik gisa bereko existentziara hitz eginez, arimen krisi soil bezala, ez munduaren krisi bezala. Bultmannen teoriak ez du noski eskatologiko hau, benetako mito bada ere, guztiz ezabatzen, baizik leherketa leku historiko kosmikotik eta era hain lehergarritz han sartu den Kristorengandik kendu eta berriro ere arima bakartira eta haren jainko burgesera eramaten du. Horretarako Kierkegaard erabiltzen du, "une eta betikotasun" arteko haren arkuan kokatzen delarik; horrek ez bakarrik du zerikusia une eta betikotasun artean tinkoturiko "teologia dialektikoaz", baita eskatologia presente deituaz ere. Errebelazioak are gehiago akabera honetan, historiaren eta munduaren helburu bat ezkutatu ordez, nabaritasuna partikularitasun ezagunean piztu beharko luke, hori bestalde, qua Kierkegaard, toposean, unearen iluntasunean eta galde eraiki ezinezkoan pizten ez duenean. Halako inmanentzia inmanenteena egiaz beraz, bere hurbiltasun hurbileenagatik, ez bakarrik gizatiarki azaltzen denean, baizik inmediatu eragilea, oraindik helarazi gabea *guztian* dagoenean. Une eduki gabe honek, guztiek barruan eta azpian daukaten bezala, izatearen sekretua gordetzen du, are gehiago bera da sekretu hori. Horregatik Hic eta Nunc hau askatu gabe dago ez bakarrik indibidualki era kristauan, baizik baden guztian ere. Unea ezin da edozein modutan arima-zaintza gisan soilik itaundu, predikuen bidez bakarrik itaunduriko presentea berehala presentzia eskatologiko balitz bezala. Aldiz, presentziaren bidez erdietsi nahi den dirutan ordaintzea, labur esateko, metafisikoki ere ulertzen den egiaztapen esaera: Dirutan ordainduak barre egiten du, bere aurrean bide zabalak dauzka, ez ordea "Jauna dut artzain, ez dut ezeren beharrik" bezalako adierazmoldez "existentzialki" labur daitekeenik. Horretarako Jainkoaren obra izan behar du beti, une "kualifikatuetan" ulertzeraz ematen duena, are "lehen bere egintza *propiora utzitako* gizakia bere baitatik libratuko duena, era horretan Jainkoaren aurrean bizitzen ikas dezan". Ohartzen badugu puntu honetan nola orainarteko mito arrotz eta kanpokoetatik ustez Jainkoaren hitz berrira, "*kerygmara*" pasatzen den, segituan azaltzen da nola mito zabar bat, hain zuzen era zaharrekoa, Bultmannengan eta bereengan ondorio honetan "autohermeneutika" osoari aurretik jartzen zaion. Hau da jatorrizko bekatuaren lehen mito heteronomo bezala, haren arabera gizakiak bere baitatik libratua izan behar baitu, "*Deus pro nobis*" azalduta ere: Garbi dago, goitik behera emandako aginduaren aurrean menpekotasunik ez badago, harrokeria, bekatua eta errua geratzen dira. Jesusen *opalkuntza* bere bizia emateraino da hemen oraindik -berari segitzea kontutan hartuz- guri zuzendu digun bere hitzaren muina, ez bada Kristoren *kerygma* bera era berean eta besterik gabe goitik beherakotzat jo beharrekoa: "Kristoren hitza manu subirano bat da". Horregatik bada bedi, hildako gorpuaren berpizkundearekin batera, inolaz eztabaida ezinezkoa, ez ordea zentzuegaberia bezala, baizik eztabaida ezinezko guztiz bestelako zentzu batean, ez kontrako bezala, baizik parekorik gabe bezala, eta ondorioz benetako "eskandalu" eta "paradoxa" bezala. Horrekin hurbiltzen da Bultmann desmitologizatzaileria bere ohizko indibidualtzearen, are pro-nobis-hermeneutikaren kontra-mutur batera, Rudolf Ottoren (

"guztiz bestelakoa") eta, *cum grano salis*, Karl Barthen transzendentzia erlijioso guztizkoaren kontra-muturrera, alegia. Bultmannengan beti dirauen Goikoaren *pathos*aren bidez gertatuko da hurbilketa, "juizioaren", "graziaren", "erabil-ezinezko" bezala guri kendutako transzendentearen nagusigo heteronomo mitikoarekin. Oso garesti erosten da hemen pentsakortasun-iraunkortasuna Bultmannengan askoz inmanenteago dirudien ahaleaginean, hau da "presentea"renean. (Nahiz horretan Kierkegaarden, ez bada Pascalen "subjektiboa"ren, "*ordre du coeur*"en benekotasunetik gehiago egon Bultmannen Heideggerkeria indibidualistatik baino. Jesusen *aldaketa asmoz beteriko* esaldia ahaztu gabe: "Sua piztera etorri naiz, eta erre dezan besterik ez dut nahi"). Hala ere, "hurbiltasuna"ren elementua, bereziki "unea"rena ekarri da biziki gogora Bultmannengan eta haren "*Mythos und Kerygma*" liburuaren muina osatzen du. Itsutasun interesatuak hain bare ez dagoena estaltzen ez dion neurrian, gurutzearen "pazientzia" batekin batera, horretatik Jesusez aparte ere nahikoa baitago. Eta dirudienez "ez-mundukotzea" munduko egoera erabat ezkristauaren uztearekin ezkutaleku, are gaur kristau bat deitu ohi denaren alibi bihurtzen ez den neurrian.

Barthen ezkutuko gabinetea eta transzendentziaren gotorlekua

Norberaren egintzatik geratzen dena, berriketa epelaren bidez bereziki desagertu daiteke. Gizakiak bere burua sarriago jotzen du "modernotzat", jaierratsu borroka egiten duenean jaierratsu urrumatzen dutenean baino. Beraz, guztiz desmitologizatu gabe itaundua denean eta gero berriro mito zaharren menpean jarria denean ez, baizik segituan entzuten duenean nor den jauna eta nor morroia. Azken hau, benetan gure gainera amilduz, hau da fronte garbia finkatuz, heteronomia teologiko oso baten kontua da. Goitik beherako mitikoa eta hori bakarrik gurtzen duen teologia batena. "Gustiz bestelako" bezala (Rudolf Otto), "transzendentzia erabateko" bezala ("*Römerbrief*"eko Karl Barth). Horrela teologia liberal eta kultural mota oro hautsita geratzen da, baina baita "hominiko"-existentzialista ere, baita "eragile"-eskatologikoa ere; *Deus minime Deus pro nobis*. Ottok ere ("*Das Heilige*", 1917, 1958) berak dardara jaierratsua deitzen zuena gizakiarengandik eta beronen irrikatik guztiz apartatu zuen. Bere izate, pentsatze eta esatearen muga gaindiezinezko bezala bakarrik eduki behar du "begien aurrean" beti Jainkozkoa, ez berez autonomo bezala edota bera hartzen duen zerbait bezala. Honetan ezer baino lehen Ottori erlijioaren psikologiaren eta etnologiaren aldetik interesatzen zaio santuaren "sentimendua", ez Bibliaren aldetik bakarrik; horrela sentimendu hau zabalera handian azaltzen da eta "dardarazle-numinoso" bezala, iratxoetan bezala jainko izunetan oraindik zabalago. Horregatik aurpegiatu zitzaion berak santua "minus bere une morala" aurkezten zuela, hau da bere adierazmolde kristauaren samurtasunik eta argi berezirik gabe. Minus bat hautaketa honetako izuikara mitikoari bere osoan gehiago dagokiona eta ez bakarrik haren transzendentzia ez-gizatiarrari. Hala erakutsiko dira -heteronomo mitikoaren beste tabutzeetan baino atxikiago, baina une berean doilorrango- idolo primitiboak, are haserrearen, gerraren, mendekuaren idolo japoniarrak ere Otrikuliko Jupiter "bere giza masaila eder borobilduekin" baino lehenago aldarean. Baita ere Grünwalden Gurutziltzatua "Zatoz Jesus jauna, zaitez nere gonbidatu" baino lehenago, edo Fra Angelicoren zeru eliseoa baino ere. Lehenago *Theos Agnostos*, berez ezezaguna den jainkoa, ez bakarrik gizatiarki ezagutezinezkoa, da hemen azken batean "Gustiz bestelakoa"n ispilatu behar dena (nahiz eta, Ottoren eraginean ez den hain irrazionala, ulertzeko modukoa baizik, "adimenaren deuseztapen" faxista *en vogue* jartzearen bidez ulergarria). Erlijiosoa edozein modutan ahal bezain hertsiki lotu behar zitzaion *dardarari* mitikoan, hain zuzen ere goitik behera putz egiten duen dardara bezala; eta gauza bera Biblian ere. Eta samurtasun kristaua bera ere era horretan gau hotz paganora eramana izan zen, orain "*mysterium fascinosum*" deiturik, eta gainera, era berean oraindik misterikoki, trumoiaren antzinako jainkoaren "*mysterium tremendum*"aren ondoan azal zitekeen, hau da ezin ikus zitekeen. Era horretan ez dago noski inolako pasabiderik *Karl Barth* bezalako antifaxista irmo, kristologo bulartsu baten "gustiz bestelako" gustiz bestelakoarengana, badago ordean berriro haustura giza-jainkotiar bat, *Fascinosum*-ik gabe ere. Era horretan finkatzen zituen 1919ko "*Römerbrief*"eko, alegia gerora inolaz ere "kultura protestantean" komentatu ere egingo ez zen obrako, lehen Karl Barthekek mugarik gogorrenak gizakiaren eta goiaren artean, denboraren eta betikotasunaren artean. Horrela jarri zuen gora jasoz, bere borondatearen kontra, gizakia ez desagertaraziz, baizik guztia zeharo kamuts bihurtzen duen harmonia batetik polemikoki ateraz. Kamusturaren aipamen txikiarik ere ez dago gizakien adiskide-gizakien etsai den Barth harrigarriarengan, aldiz beheratu egiten du, guztiz erre-akzionarioki, gizakiaren egintza, estatuan eta elizan egiten duena bera ere barne, kreaturaren egintza soil bezala, egintza jainkotiarretik guztiz kanpoko bezala jarritz. Hortik gaindiezinezko, eta une berean guztiz heteronomo bezala azaltzen den ondorioak dio: "Jainkozkoak etengabeko ezetza adierazten dio munduari". Han ez du balio gehiago Bultmannen

"norberatasunaren auto-ulermoldeak", norbera "ezin-erabilian" baina erabiliz iruzurrez sartzeko, *à la mode* egokituz. Agian fundamental-ontologikoki, errotik edo nahastura dialektiko batekin, inork ez dakielarik nor den ostalaria, nor gonbidatua, zer betierekoa, zer tenporala. Aldiz Barthengan mundu honetako-beste munduko korrelazioa errotik hautsiko da, benetako Luteroz geroztik galdu zen temaren arabera alegia: Errebelazioa Jainkoaren jatorrizko hitzaren bidez, gizakiaren eta Jainkoaren arteko, izakiaren beraren mugimenduen eta autonomia *bakarraren* arteko bereizkuntza kualitatiko amaibakoarekin, bromarik gabeko transzendetziaren errebelazio da. "Benetako Jainkoa ordea da objektibotasun oro gabeko jatorria, objektibotasun ororen krisiaren jatorria, munduaren ez-izatearen epailea" (Der Römerbrief, 2, 57. or.). Hemendik, *krisia* Jainkoaren parusia bakartzat hartetik dator beraz Barthen esaera radikala: "Jainkoak bere betiko ezetza esaten dio munduari", hemendik halaber, berriro ere Kierkegaardena den une honetako dardara, Jainkoaren eta gizakiaren arteko ukitze amorratu bakar bezala, eta Kierkegaarden printzipio hura, alegia "Jainkoaren aurrean une oro kulpazitatearen kontzientzia zorientzuz gilea" dela. Bestela Jainkoa, *Kristo bezala ere*, ez dator gizakiarengana, mundura eta historiara eta une honetara, hor nabarmenago, goitiko tiro bezala, bere "tiroak egindako zulo" eta guzti (artileria irudi bat, eta ez arrazoirik gabe), onenean epaigune bezala. "Kristorengan munduaren errealtatearen plano errealtate jainkotiarrezko beste plano batek moztuko du perpendikularki alderik alde" (*Ges. Vorträge* I, 5. or.): unean ere, beraz, gehiago da zauri bat eta ez propio ukitze puntual bat, tangenteak zirkunferentziari egiten dionaren gisakoa. Hortik Barthen "hurbiltasuna" *Deus totaliter absconditus*-aren ganakoa, Jainkoaren ezkutatasunarekiko Luteroen gisan, berriro ere broma ororik gabeko transzendetziarekin lehiatzen ideologikoan. Izan ere Lutero berak, bere Jainkoa absolutuena bada ere, bereizten du *Deus absconditus* bat (hau da, Jainkoak guk ezagun dezagun *nahi* ez duen neurrian) eta *Deus revelatus* bat (hau da, Jainkoa bere hitzaren bidez gurekin harremanetan sartzen den neurrian); bereizkuntza bat, Barthelemy -hemen, *mutatis mutandis*, Lutero bera baino luteranoago-- inolaz onartzen ez duena. "Legearen izua" batzutan kasik gnostikoki "Ebanjelioaren maitasun"etik aparte eduki zuen Lutero baino askoz hertsiago loturik jartzen ditu Barthelemy biak berriro, guztia hain zuzen transzendetzia hertsienaren izenean, leku honetan bertan ere. Izan ere legearen, are erritualaren eta maitasun predikaren, maitasunezko batasunaren artean bada kontramugimendu bat heteronomoaren aldera jotzen duena, ez bakarrik ebanjeliora mugatzen dena, baizik Amos eta hiru Isaiengandik garbi Larunbataren Jaun denarengana doana, ez bakarrik gnosian, Marzion antitetiko handiarengan, baizik areago Joachim di Fiore, "hamahirugarren mendeko Isaiak" legearen aroa maitasunaren (eta argitasunaren) arotik bereziarazi zuen kiliasta handiarengan. Ondorioz garbi dago Barthelemy morrontza bat sartu behar duela ebanjelioan, betiere harako printzipioari jarraiki, alegia jainkoak dela eta ez deabrua munduari etengabeko ezetza ematen diona, eta harako beste anti-izpiritual, are anti-prometeiko hura: "Erligioaren egiazkotasuna da gizakiak bere buruarekiko duen izulaborria" (*Der Römerbrief*, 1940, 252. or.). Jesusek berak inolaz munduarekiko baiezko bat izan beharko zukeen (ez antzik gabe, ordea, Lutero bere burua Kristo oiloaren hegalean pean Jainkoaren haserrearen aurrean babesten duen moduarekin); nolana ere, beraz, Barthentzat mundua, erabat eroria bada ere, "Jainkoaren sorkuntza" bat da, eta erori gabeko bezala, hau da Jainkoaren egintza Jesukristogan, une berean da Jainkoaren baiezkoa munduari, haren dohain, egiaztapen eta justifikazio. Hemendik beraz, fede ulertezinezko, are eskatologikoarekiko "hutsune" bezala finkaturiko fede honen arabera argituko da azken batean legea "sinesgabetasun"erako zertua bezala, baina ezer baino lehen Jainkoaren baiezkoa munduarekiko Kristoren bitartez eta, azken "itunaren" ondoren, Kristoren bitartez

bakarrik ez zaio aitzakia biderik ematen analogia *entis* bati (beharbada zertxobait bakeaturik) Jainko-mundu erlazioan, beti kontrakoak baitira biak. Legea noski fedetik kanpo geratzen da, "Ebanjelioaren irudi" denez fedea, hobeki Jainkoaren hitz *baten* galdekizun, erabaki, epai denez; horregatik, eraberean agintzen du munduan, hau da munduaren kontra, analogia *fidei* eta hau munduaren guztiz kontrako bezala jarria dago, munduarekiko baiezkoa munduaren *azken*, eskatologia deitzen delarik. Berriro ere beraz, inolaz ere ez munduarekiko nolabaiteko erlazio batean, are munduaren ibilbidearen etendura baten utopiaren emaitza bezala edo, Augustinengan bezala, historian zehar dabilen *civitas Dei* baten azken denboratako etorrera bezala. Aldiz, bitartekotza inmanente-transzendente ororen kontrako baizik: "azken historia *egiazkoagatik* denbora *guztietan* esan behar da: azkena hurbil dago" (Barth, "*Die Auferstehung der Toten*", 60. or.). Alde guztietan, "denboraren gaindi jauzi egiten" duen denboraren azkenera arte, era horretan hots egiten zaio gerra bai aktualismo gizatiarrari bai historiaren eta munduaren ideiarri, jaunen mitoa azkeneraino ispilatzen duen gerra. Bere Jainkoaren beste mundukotasunaren tabua bezala gizakiak bere esperientzian eta pentsamenduan, bere kulturen, filosofian, are erlijioan, jabego izpiritual bezala, izan dezakeen guztiarekiko bere errebelazioaren nagusigoaren tabua Barthengan ez bakarrik da intenporalki berritua, are ezaugarritasun gorgonikoz osatua izan behar du.

Erraz desagertzen da noski buruari baliozko azaltzen ez zaiona. Sentimenera itzultzea, are han geratzea, Barthengan ere aurkitzen da, horrek beste-aldeko bat ere badakar berarekin. Hala ere sentimen hori ez da berarengan ahula, eta batez ere bere buruaz bezala bere adimenak kentzen dionaz ondo jakinda dago. Horrek guztiz beste munduko den ezeztatzailea eta erdietsezinezkoa (badira hemen harremanak Kafkaren "Gaztelua" eta "Prozesua" obrekin) ezagutzeko moduan, are ez ezagutzeko moduan jartzen ditu. Baina nola eta nondik azal dezake Barthekek betiko jakinezinezko horri buruz, eta hori xehetasun txikienera arte, etengabeko ezezko bat esaten diola munduari? Noski, gizatiarraren eta jainkotiarren arteko etenari buruz, Isaia aipa zezakeen (hau bere Jainkoaz beterik bazegoen ere), haren Jabe haserrearen esaldia: "Nire pentsamenduak ez dira zuen pentsamenduak, eta zuen bideak ez dira nire bideak" (Is. 55,8). Zeruaren eta lurraren arteko izugarritzko urruntasuna han aipatzen bada ere, Isaiarengan segituan dator ondoren Jainkoaren hitza gizakiari zuzendua, zerutik etorriz lurra emankortasunerako hezetzen duen euria baino ez diferenteago, eta beraz gizakiengan osatzen den hitz bezala, "hark ezin du niregana berriro hutsik itzuli". Barthekek bere burua alde batera utzi beharko luke, izaki bakar bezala, berak hain errotik azpimarratzen duen kreaturtasunaren ezagutzaren mugetatik; bestela ezingo zukeen informatu hain zehatz eta kasik osotoro *erretiratze* jainkotiarraz. Bai, "Ameslariaren Ametsak" liburuko Kantek teologoa "zeruko kutun" deituko luke, *malgré lui* erakusten baitie gizakiei transzendentzia itxia hain zuzen ere bere itxitasunean bertan. Eta orduan, etengabeko guztiz heteronomo honi loturik azaltzen den jainkotiarren pathosari dagokionez, zerk bereizten du bere ezinbestekotasun lurtiarra antzinako Moira, patuaren jainkosa itsuarengandik? Honek, oso goian badago ere, bere Zeus-Jaun baten gaindi agintari, teistikoki ez dauka kotizazio alturik. Halaber, hor dago puntu nagusia, zein bereizkuntza irizpide dago hala ad absurdum goraldaturiko heteronomia honetan, munduari bere etengabeko ezetza aspertzearaino esaten dion jainkotiarren eta arrazoi osoz, burutik oinetaraino, *etsai* bezala definitua izan den *eidos* Satanen artean? Egia da Barthen jaunen mitoa, gehiegikeria jakingarrieneraino hipostasiatua, bere buruari dagokion epai honen aurrean babesturik geratzen dela, haren izate gorenena ezin sar baitaiteke inolaz gizakien begietan, gizakien zentzuetan, gizakien historian. Ezta azken epai bezala ere bestelako azken krisi baten gainean, historiaren akabera batean,

munduaren irekitasun azken, hau da, eskatologiko batean. Era horretan Barthen jainkotiarren ideia bera, eta hori hain zuzen, historiarik gabea da, ondorioz inolako *novum*ik gabea, honen bidez garapen bat, estatikoaren alderantziz, ernaldurik geratzen baita; horregatik Barthen teoria guztiak -orain erabat mitologi tipo bezala Anti-Prometeo bihurturik- ez dauka inolako denbora motarik "*Eon* berri" batentzat, inolako sorkuntza biderik, ezta inolako lekurik ere historian edo naturan eskhatonarentzat. Horretarako berriro "unea" bakarrik da baliozko, baina ez eskubidez tiroak jotzen duen lekua, errealizatzen denaren beraren errealizazio lekua prestatu beharko balu bezala, baizik azken batean a-historikoki azpimarratuko da, ez beraz Joanen gisara orain hurbil dagoen baten zentzuan, era grekoan baizik, beti den baten zentzuan. Horregatik hain zuzen edonolako historiaren azken eskatologia ororekiko interesik eza: "*Egiazko* azken historiari dagokionez *edozein* denboratan esan daiteke: azkena hurbil dago". Horri buruz ondo esan da: "Egiari buruzko pentsamolde greko eta israeldar-kristauaren arteko, *Logos*aren eta promesaren arteko, epifaniaren eta apokalipsiaren arteko diferentzia hauek gaur arlo askotan eta metodo desberdinen bidez jarri dira argitan" (Moltmann, *Theologie der Hoffnung*, 1964, 34 or.). Eta diferentzia horiek, Moltmannek geroago esaten duen bezala, "Prinzip Hoffnung"eko metodoarekiko oso desberdin ez den metodoa kezkarik gabe aurretik jarritz eta ipiniz, "Geist der Utopie"koarekin batera, bizirik daude *naturaren* arazoan eta bereziki horretan. Beraz, *docta spes* batekin isilduz, baina eskatologia presenteegiaren kontra ez isilduz: "Sofritzea unibertsala izango da eta kosmoaren neurritasun orokorra lehertarazten duen bezala, gero poz eskatologikoak "zeru berri batean eta lur berri batean" berriro durundatuko du. Beste hitz batzutan: apokalipsiak bere eskatologia kosmologia bezala pentsatzen du noski, baina hau ez da eskatologiaren akabera, baizik kosmologia eskatologiko baten edo ontologia eskatologiko baten hasiera, izatea harentzat historikoa delarik eta kosmoa garapen apokaliptiko batera irekitzen delarik. Mundua etorkizun unibertsal eskatologikoaren kategorian historia bihurtze honek teologikoki izugarrizko garrantzia dauka, haren bitartez teologiaren erabateko horizonte unibertsal bilakatuko baita eskatologia... Itun Berriak ere ez dauka itxita apokalipsiak kosmoaren zabaltasunera eta irekitasunera, errealitate kosmiko honetaz gaindi, ireki duen leihoa" (*loc. cit.* 124. or.). Gainditze apokaliptiko abstraktuegi baten arrastoak hemen teologikoegiak izango dira berhabada, hau da, gotorleku sendoz eta gurutzearen pazientzia delakoaz hornituak; baina aurretik jartze orok sortzen du benetako kontrako bat, eta ez azkenik hutsaltasun historikoaren kontra, estatikotasun arrotz transzendente denaren kontra Barthengan. Hainbeste erakutsi baitu haren gurutzearen "pazientziak" kontrako jarrera, benetan haxe, erdibiderik eta komeriarik gabea, benetan idoloen ahalguztiduntasunarena, azken batean ez irreligioso, bai ordea metaerlijioso, ze berriro azaltzen da hemen ezagutzeko moduan. Barthekek, bere "sentimendu" antirrazionala arren, ez dauka zerikusi gehiegirik bestela hain "kultura protestante" den Schleiermacherrekin; izan ere Schleiermacheren kontrako Hegelen tesia bat ez da gurutzearen "pazientzia" edozeinetik hain urruti aurkitzen nola aurkitzen den azken batean -gizaki izateaz ari delarik han bezala hemen- heteronomiara, absolutismo transzendentera egokitzen den hura. Schleiermacherrek ere erlijioa "absolutuarengandiko erabateko morrontza baten sentimendu" ("munduaren oinarri ezin pentsatuzko ere") bezala definitua zuen. Eta Hegelek, ez bakarrik konszientzia eta kontuak eskatuz, halako menpekotasun sentimendu soilaren kontra gaineratzen du: "Horrela zakurra izango litzateke kristaurik onena..., baina izpiritu libre batek dauka eta eduki dezake bakarrik erlijioa" (*Werke*, 1832-45, IX. tomoa, 296. or.), -hau beraz guztiz *Theos Agnostos*en kontra, non bereziki Barthen *Jauna*, bere *Theos Kyrios* propioa bizi baita. Eta hala ere ez luke bizi behar, edo beste hitz batzutan: Ez al du sakontasun benetakoa irabazten Guztiz-Bestelakoak,

Absconditum berezkoak, izugarrizko sineskeria izunaren taburik gabe, jainkotasunetik kanpora gizakiaren misteriora, hau da *Homo absconditus*-era aldatzen denean? Berrito litzateke -Bultmannen "presentea"n bezala- Barthen "misteriotsu"an garestiegia prezioa, are alferrikakoa ere.

Edozein modutan Barthele, etengabe alienazioaz lan eginez, urruntasunarekin, heteronomiarekin, transzendentziarekin ordaindu du, Inkognitoaren arazoa berrito segurtatu du bere *Deus absconditus*-arekin, plus bat berau, kultura protestantearen eran erosotasunaren antropologia kanporatzen duena. *Deus absconditus* hori ezagutzeko moduko bilakatuko da beraz *Homo absconditus*-arekiko aipatze bezala: "Ondo ezaguna eta une berean Guztiz-bestelakoa, alor erlijiosoaren seinale bezala, abere-jainkoengandik indarraren jainko Batera arte, Jainko salbatzailera arte, ulergarri *homo absconditus*-aren eta bere munduaren argitasun-proiektzio bezala bakarrik egingo da... Jainkoa era horretan azaltzen da bere egiazkotasunean oraindik gauzatu ez den gizakiaren izatearen ideal hipostasiatu bezala; azaltzen da arimaren entelekia utopiko bezala, paradisua Jainkoaren munduaren entelekia utopiko bezala irudikatua den bezalaxe" (*Das Prinzip Hoffnung*, 1959, 1522. or. eta hur.). Hau ere eraldaturiko elementu eta arketipoei dagokie noski - mitologia da, baina inolako indarraren idolo hipostasiatu edo birritan tabuturiko bati ez dagokiona. Aldiz erabat kontra: guztiz bestelako mito kitatu gabekoei dagokie; ez dagokie inolako transzendente hipostasiatzaileei, baizik transzendentetzaile-utopizatzaileei, ondorioz *humanum* subertsiboaren hausturako mitoei bakarrik dagokie. Mito guztiak multzoan botatzea, pertsona kontutan hartu gabe, hau azaltzen da berrito, bereziki ikuspegi honetatik, Bultmannen etxeko traste kutxa bezala. Agintaritzako mito guztiak, bereziki horiek eta beren Olinpoa epaiaren aulki eta asmaezinezko baina hala ere beti egiazko transzendentzia bezala, horixe da Barthen maiestatearen mosaikoa (eta ez Jobena, baina ezta ere Gizonaren Semearen zeruarena). Horregatik esan zezakeen Marxek: "Prometeo da santurik bikainena egutegi filosofikoan"; baina hala da gisa berean egutegi mitologikoan ere, hau da mitoaren deuseztapen eta salbazioan argiaren bidez, hain zuzen azkenik hemen ere ipuinen gisan lehertaraztaile, gaurko egunaz gaindi. Ondorioa (itxi gabea) beraz da: prometeikoa ere, eta ondorioz eskatologikoki helburu den guztia ere mitoan aurkitzen da, mitiko den guztiak ere, misteriko guztiarekin batera, Prometeon, giza ekimen eta historiaren *Novum* eta *Ultimum*-ean aurkitu behar duen bezalaxe, baldin azken batean ilunkeria bat Bizantzio transzendentearekin nahastuko ez bada. Santu izan bedi zure izena, hau ere ez da menpekoen eta gortesauen elkarteko otoitz bat, ez da panegiriko heteronomo bat, baizik areago *Deus maximus, non-optimus*, onenean *non-existens*-en erauztea. Honaino bestelako neurri eta helburu batez desmitologizatzeari dagokionez, tabutzeari dagokionez, hura zehatz ukatzeko aukerak garbi jarritz. Eta obeditzeari berari dagokionez, egokiena, onena, Jesusen "Ikus, dena berri egiten dut" esaldia entzutzea da. Munduarekiko hurbiltasuna adostasunarekin ez nahasteko, ezta transzenditzea transzendente eskuratuarekin ere.

Albert Schweitzer ezkerotik azpimarratu eta galgatu dena:

Idazteunaren dei eskatologikoa

Nahiko luzaz iraun, ordea, inolaz ohizkoa gaitzen ez duenak bakarrik irauten du. Badirudi aski dela esatea Jesus gizon on bat izan zela, irakatsi eta gu baino lehen bizi izan zena, berak gu maitatu gintuen bezala elkar maite genezan. Horrela jokatu, elkarren artean ez dela joka ibili behar, baina jaunaren eta morroiaren arteko harreman iraunkorra bultzatu egiten dela eta hain zuzen ere une berean, onartezinezko portaera hau, maitasun handiz noski, estali egin zen. Inportanteen bezala anaia otzana gelditu zen, eta harekin konpondu behar zuen batek, morroiak katean lotuta edukiz. Horrela maitasunarekin bat etor zitekeen, hau da hipokresiaraino eta bestela zurikeriaraino

lasaituriko maitasun batekin, lehen baino hobeto gainera. "Ikusi, dena berri egiten dut", hitz hauen deia, alde guztietan funtzionarioen eskuetan jarritako irakaskuntza kristauan, penagarria izan zen benetan; liberalen artean estalia izan zen, kontserbadoreen artean irendua. "Nire anaietako txikienari egiten diozuena, niri egiten didazue": Münzer eta gisakoek, Jesus bezain ameslari izaki, maitasunaren benetako erreinua eratu nahi izan zutenek, eta gainera segituan, teologia kristauan gehienetan gaur arte prentsarik txarrena izan zuten, eta onenean bat ere ez. Horregatik hasieran harrigarriago irudi zitekeen, Jesusen predikuko "segituan" hau hain zuzen, hau da haren eskatologikotasun kixkaltzailea teologia guztiz burges baten erdian berriro aurkitu bazuten. Johannes Weiß, ondoren Albert Schweitzer, inolako nahastaileak ez noski, izan ziren exegesian aurkikuntza berri asaldagarri hura garai hartan egin zutenak. Joan Bataiatzailetik hasita: "Jainkoaren erreinua hurbil dago", hark horretarako bataiatu zuenak hain zuzen iruditut behar zuen ez iraultzaile bezala bakarrik, ergel santu bezala baizik. Weißek (*Die Predigt Jesu vom Reich Gottes*, 1892) irakasten zuen Jesusi buruz, garai hartan oraindik ez "historiko" baizik "etorkizuneko" zen bat zela, bere jokamoldean bezala bere adibidean "ez zuela zerikusirik mundu honekin", bera zegoela "hanka bat jarrita dagoeneko etorkizunekoan". Weißek noski atzera pausua eman zuen eta hain zuzen ere era ez "etorkizunekoan" Jesusen irudi eskatologikotik liberalera, ametsik gabekora joz. Eta ondoren, hasieran erregistro nahiko bortitzak erabiliz, heldu zion Schweitzerrek garai hartan Jesusen portaeraren ostean eta bere predikuan zegoen eskatologiari. Halako moldean non bigarren mailan bakarrik azaltzen baita Jesus Mendiko Hitzaldiko moral irakasle bezala, baina funtsean, ordea, berehala etorriko den zeruko erreinuaren mezulari eta igurtzi bezala. Salbatzailearen mito apokaliptikoa, azkenik Egiptoko irteeran oinarriturik, bazirudien beraz hemen Jesusentzat eta bereentzat haragi egin zela: "Eskatologiarekin hain zuzen ezinezko izango da Jesusengan ideia modernoak sartzea eta haiek Itun Berriko Teologiaren bitartez bizitza bezala berriro jasotzea" (Schweitzer, *Von Reimarus zu Wrede. Eine Geschichte der Leben-Jesu-Forschung*, 1906, 322. or.). Schweitzerrek aipatzen du areago, bere garaiko indarren eta oraindik estatikoa zen fisikaren orekaren erdian, iraulketa guztiz lehergarri baten erdian, Jainkoaren erreinua etorriko dela, hau da hondamendi bat etorriko dela ez bakarrik gerra gisakoa, baizik kosmikoa; Jesus bizi zela itxaroa, beranduenik ordea bere heriotzarekin etortzekoa. Izulaborria zero goietatik etorriko ziren zaldun apokaliptikoen aurrean, eta halaber liluramendu amorratua eta bataioa zeruko lorian, haren etorrera segituan edo hurrengo bide-ertzean bete beharko baitzen. Alderen alde jotze guztiz ez-burges hauek, Jesusi buruzko ikerketa soil bezala gainera, hain samurkiro egindako Jesusen eta bere jarraitzaileen eraldaketan azpimarratuak izan ziren, ustez berriro 1000. urte inguruko, edo 1525. urte inguruko azken egunen itxaropen egiazkotatik ikusi izan balitz bezala, hermeneutikoki erretore-etxetik ikusi orde; eta eragina Itun Berriari buruzko jakintzan beldurgarria izan zen hala ere. "Urak gora egiten du - murrak hautsi egiten dira", esaten zuen Martin Kähler teologo sistematikoak, eta bestela ere jatorrizko kristautasunak, eskatologikoki aztertuz, "gezurrezko bezala azalarazten" zuen kristautasunaren eta kultura burgesaren arteko sintesia harmonikoa. Horri jarraiki, Barthelemy adierazi beharko zuen: "Erabat eta guztiz eta mugarik gabe eskatologia baino ez den kristautasun batek ez dauka erabat eta guztiz eta mugarik gabe Kristorekin zerikusirik" (*Römerbrief*, 1921, 298. or.). Azkenik hemen ere, Weißengan eta Schweitzerrengan bezala, aurkikuntza berria, bugeski txokatzeko zeukan horregatik beragatik, guztiz kontrakoan, Jesus irudi liberalago batean, amaitu zen arte, ohi bezala erdi mailakoen eliza iraunkorraren zerbitzurako. Horrela Jesus honi dagokionez Schweitzer, azkenaren itxaropenaren izaera gainezkatzalea azpimarratzen zuelako hain zuzen, ameslari bat balitzen mintzo zen; garaia finkatzea bera, azken eguna etortzen ez

zelarik, oso erraz ilusiozko bezala agertu zen, "Jesusen hutsegite" bezala. Horren orde, beraz, geldiaraztea, kultur kristautasunera berriro itzultzea, garapenari laguntzea dator: "Hau da hortik etorri zena, alegia salbazioko historia bezala begiratzeak lehen eskatologia kristauaren lekua hartu zuela" (Ernst Käsermann, *Exegetische Versuche* I, 1964, 199. or.). Eta Moltmannek, *"Theologie der Hoffnung"*eko (1964) docta spes-aren bidez, ohartarazten du, ez arrazoirik gabe, Barthi dagokionez, honek Schweitzerrek ez bezala eskatologikoari oraindik eutsi egin nahi diola: hemen "eskatologikoa" "mundu-gaindikoa" nahasten dela, oraindik izan grekoa futurum biblikoaren orde, pentsatuz (l.c. 32, or.). Item, beste korrante batek jalgi behar du, lehen kristautasuneko mezu eskatologikoa (haren jatorri profetikoaz batera) aurrera garraiatu behar duena. Teologia noski ez, baina bai Biblia -promesaren mitoari esker- beterik dagoen neurri batean - denbora etorkizunaren arabera, toposa azkenaren arabera-.

Horrela ezinbesteko da hemen zabartzen ez dena. Hala badago arrenkura bilatzearekin Idazteunean, eta hori irakurle zintzo soilari berari ere ezin ezkuta lekioke, ezta (eta hobeto dirudi) gainetik pasarazi ere. Itxarotea -eta ez edukitzea, dagoeneko-edukitzea- horixe da hitz bibliko propioena; lizun bihurtutako hura ere: "Kontsola zaitzete" horrek, kontsolatuz, engainagarri bihurtu ez den lekuan, inolaz ere ez du hori sekula guztiz lasaitu. Horretarako idazkera biblikoa eskakizun gehiegiko bihurtu da, horregatik da hartaz bilakatuaren, badenaren urruntasuna handiegia. "Lehor bekit eskuineko eskua, baldin hazten bazaitut, Jerusalem", horrela trabes pasatzen da salmuko hitza, beren ardiak gorde nahi dituzten artzain ondo hornituen barna ere, eta haiek altzarazten ditu. Ez da inolaz oroitzu-edo aipatutako hitza, ez bada falta den Jerusalem batengan oroitzu, agindua bai baina horrela gaur denarekin bat ez datorrena alegia. Ez noski miseria birritan jasanezinezko batekin, baina ezta ere atsegin errukarri soilarekin eta askoz gutxiago ez-etorriarekin, hau da Eon hobe bateko denera eta han dagoenera ez-heltzearekin. Eta hori ondorioz ez dator bat zohardia kristauarekin edo norberaren azterketa soilarekin eta are gutxiago ongintzako azoka kristauarekin, eta ez da han presente egiten. Horretarako ez litzateke beharko noski zeharbide hain paradoxal eta eskatologiko bat eta ondorioz ezta Kristoren segiziorik ere. Aldiz esaten du Chestertonek ("Gizaki hilezkorra") hain zuzen hemen era desarmoniko batean (eta hori berak ez du esaten soilik "hurkotasun etika" anglosaxoi bezala harturiko kristautasunaren kontra edo are Shawen kontra): "Erroma suteen bidez errauts bihurtu zutela kristauak akusatzen zituztenek irain egiten zuten noski, baina kristautasunaren izaera askoz hobeto ulertu zuten modernoek arteko beste horiek baino, zeintzuk kontatzen baitigute kristauak elkarte etiko bat zirela eta beraiek beren hurkoekiko egiteko bat betetzeko bazutela gizakiei argitzen zitelako edo beren otzantasunagatik mespreziagarri bihurtu zirelako heriotzeraino poliki-poliki martirizatuak izan zirela". Katoliko egin zen Chesterton oso urrun zegoen iraultzatik, ez ordea lehen kristautasunaren Skandalon arriskuz beteriko egiazkotik, eta hemendik azaltzen da, gainerako amilen gaindi, konkordantzia bat William Blake kiliasta mistikoaren bertso deserosoraino, eskandaluaren beste ikuspegi ingelesaraino: "Iraultzarako deiak Salbatzailearengandik hiltzen zuen tiroka, eta Frantziako mahastietan azaldu zen haren haserrearen argia". Zalantzarik ez dago hemen "Idazteunaren ulermolde" eskatologiko arindu gabekotik ikusita: Aurari dagokionez etendura hauek -Blakengan oraindik bautistak- hurbilago gertatzen dira lehen kristautasuneko benetako traszenditzetik Bultmannen, Barthen, Schweitzeren "eskhaton" guztiak batera hartuta baino. Hermeneutikaren aldetik inolaz Itun Berrira mugatu ezin daitekeen Exodoaren aipamenarekin batera, aldiz bere jatorri arketipoa Egiptoko irteeran eta askoz lehenago baitu. Horrela beraz Amosengandik Danielengana apokalipsia sui generis bat eramanez, Paulorengan ere ezin baztertua, profetak, otzan bada ere, entzun egin behar dira: "Mezu

eskatologikoaz, profetek *orainarteko* salbazioko oinarria *ukatzen* duten leku guztietan hitz egin behar da" (v. Rad, *Theologie des Alten Testaments II*, 1960, 131. or.). Eta zerk egiten du azken batean azpiegitura kontserbatu beharrekoaz aparte, - egiteko soziala teologorik gehienek, Melanchthonengandik dagoeneko Münzerren kontra, eskatologia borrokatu edo indargetu bat bihurtzen baitute-, zerk egiten du *erabidez* ere hain erraza egiteko hau betetzea? Historiarekiko arrotz den izanaren pentsamendu grekoarekiko lotura da irauten duena, Bibliako historiaren, promesaren, *Novum*-aren pentsamenduaren orde. Izanaren zehaztapen ireki bezala harturiko *Futurum*-arekin Jabe berarenganaino: "EI", Zu Zara, dio Delfoseko Apoloren tenpluko idazkunak, "Eh'je ascher eh'je", Izango naizena izango naiz ni, horrela dio Jaberena aurkezpenak, eta ez bakarrik sasi sutuan Moisesen aurrean. Hortik, beraz, dator antzinako presente ororekiko arrotza den Bibliako Jainkoaren irudikapen bereziki zentzumenetatik aparte, hortik epifaniaren eta apokalipsiaren arteko aldea, baita Platonengandik Hegelenganaino doan egiaren eta egiaren eskatologiaren anamnesia (berriro oroitzea, zirkulu) soilaren arteko aldea, bere izatean bertan irekia, oraindik-ez-izanarekin. Horri dagokio Bibliaren xede, asmo eta zentzuan *mesianikoan* errotzen den eskatologiaren indar berarizko hura, Hermann Cohenek -era berean eskatologia "zentzuz" makurtuz antzinatearen kontra, etorkizuneko-izanaren alde- azpimarratu duen bezala. Hemen halaber teologiako fakultate ebanjeliko batetik etorri gabe, dagoeneko etorri den mesia eta epifania gauzatu ere gabe: "Hauxe da mesianismoak jartzen duen asmakari kultur-historikorik handiena. Herri guztiek urrezko garaia iraganean jartzen dute, lehen garaian; herri juduak bakarrik espero du gizadiaren garapena etorkizunean. Mesianismoak bakarrik baieztatzen du gizadiaren garapena, aldiz urrezko garaiak gainbehera finkatzen du. Horregatik garai mesianikoa urrezkotzat kalifikatze ohizkoa oker zabar bat da, pentsamendua itzularazten duena hain zuzen. Iragana eta oraina desagertu egiten dira mesianismoan, denboraren kontzientzia bakarrik betetzen duen geroaren aurrean" (Hermann Cohen, *Religion der Vernunft*, 1919, 337. or.). Honek balio du "Eh'je ascher eh'je" hartaz geroztik, Cohenek, juduen artean sortu ziren ebanjelioak eta apokalipsia kanpoan uztea ("Sineskeriazko izua gertakari nazarenoaren aurrean" deitzen zuen hau Buberrek), mesianikoa, "arrazoi moral" bezala, beste teologo kristau edozeinek baino gehiago bereizten badu ere "kutsadura mitiko"tzat jotzen den eskatologikotik. Hauxe da ez-antzinako biblikoaren aipamen zorrotzagatik, beraz Eskatologia biblikoagatik, ordaindu behar izan den prezio alferrikakoa, "desmitologizatze" kristau oro gainditzeko duena. Hortik irakatsi oparoa, hain zuzen ere, orain garbi aipaturiko mitoekiko erabateko etsaigoak mesianikotik mesia baten pertsona oro bezala (Joben anti-Jabe) apokalipsiako *guztizko futurum* oro ere kanporatu egiten duela. Nahiz pertsona, hau da iraultzailea mesianikoan, aurreratzea aldaketa kosmikoarekin batera, hau da zero berria, lur berria, mitikoaren *beste alde* horri dagozkion arren, hori baitagokio benetan arrazoiari, ez Adam zahar ergelari. Horrela azaltzen da berriro amai honetan, zein neurri handitan iraultzaile-pertsona bere promesaren mito apokaliptikoarekin *implicite* exegesia biblikoaren muinean sartzen den, are zein era erabakiorrean *mito argitsu* hauek kontrako argia eragiten duten beren parekoen gainean Bibliaz kanpo ere, hau da "beren haserrearen argi" faltarik ez duten kriptomesianikoen gainean, Biblian bakarrik esan den "Ikusi, dena berri egiten dut" behar dutelarik ordea piztu daitezen. Baita Biblian ere Zeusen kontra: honek uholde hiltzaile bat bidali baitzuen gizakien gainera, Prometeo argi-ekarlea haitzetan josi baitzuen, gurutze batean bezala, munduko jauna, noren kontra prometeikoa gizakien alde altxatzen den, beren jainkoa baino hobe izaki. Berriro azaltzen da beraz Prometeoren mitoa, oraindik bere oinen gainean zutundu gabe, baina pentsamolde greko estatikoan ez bezala ulertua izango da guztiz, alegia *futurum*-a inbadituz *novum*-aren indarrez, eta hori Biblian azaltzen da lehen aldiz bere ikuspegi

propioan, haren neurri utopikoan. Nahiko arrazoi da gaizki gera dadin *ultimum-a novum*-ean, exegesia ororen *eskhaton pro nobis* hori, honek oraindik Olinpoa bihotzean bazekarren ere, baina Eon berriko kristauak, beren buruak benetako egiazko bakartzat uste zituztenak, hurbilago zeuden.

Marxismo eta Erlijio erlazioari buruz

Beldurrak sortu ditu jainkoak.

Lukrezio

Pausoka begirantza

baina izutu gabe

goaz gu aurrera.

Eta astun eta urrun

beldur santuzko estalki bat dago esegita.

Goethe

Ateismoa da erlijioa kenduz

helaraziriko humanismoa.

Marx

Horrela, bada, Jainko gabeko inolako

mugimenduk ez dio elizaren politika honi

sekula kalte handiagorik eragin, karta

pastoralak baino.

Azken karta pastoral alemana, 34. or.

Frailetzarra ez da ahaztu behar

Bat zapaltzen duena, batek gogo onez bota ohi du urruti. Antzinatek esan ohi da, premia irakasten duela otoitz egiten. Hala ote da ere, otoitzetik bizi direnek premia hori zaintzen dutelako? Artalde batek, sakabanaturik egonda ere, ez zuen etorrarazi artzain arretatsuegirik. Klase kontzientzia daukan langile batek, burges txiki liluratuak ez bezala, ez du hau ahaztu inolaz. Ikusi egin baitu bere salbazioaren hainbat arduradun izpiritual bera esplotatzen eta zapaltzen zuen boterearen ondoan jarrita. Zein bake inozoa boterea izanik aberastasunetik, aberastasuna boteretik, zein lotsarik gabea. Zenbat bedekazio apostoliko alde guztietako Francoentzat, zenbat otoitz jaierratsu igo ziren garai zezaten, zenbateko lagun giroz itxi ziren begiak berriro ere juduak eta hereseak, inoiz baino ahaltsukiroago, erre zituztenean. Eta gero eta gogorrago bihurtu ahala, altzakuella luterano gehienak boterearen alde zeuden, azken batean hain barnetik eta hain menpeko baitzetozen. Antzinako kolpe asko ustel atera behar du oraindik, harik eta nortasun zalantzatiek, are maltzurkiro irmo zeudenek hainbeste ikasi edo hainbeste argitu eta estal zezaten, azkenik galdu ziren arte. Ondraduak badira noski oraindik bi elizetan, baina egokitzen direnak dira gehienak inolaz, eta bakoitzak katutik duena, ekialdeko seta beren mesedetarako etorri baitzaie, beti oinen gainean erortzen da, beldurtzeko moduan. Gainera hemen zerbait ezartzen bada, ezer ez baino hobeto da noski, eta badira nortasun kristau benetakoak lizunarengatik eta supilengatik hain zuzen ondorik esnatu direnak. Baina askoz urrunagotik dator ondare bezala beste zerbait, elizako lozorro soilak gainditu ezin dezakeena. Iturriek ordea beste nonbait dariote, eta frailetzarrak, agindutakoa jarraiki, beti estali edo itsutu ditu.

Herriaren opioa, bestela ere nahiko zerbitua ote?

Norbera sorgortzeko gogo ordaindu egin behar izaten da. Herriarentzako opioak betidanik lurruntzen zuen, azken batean fede guztiak haren kerua zeukan. Ez litzateke halako erasorik gertatuko gisa horretako gauza guztien eta bakoitzaren kontra, baldin eliza hain erne egon ez balitz agintzen zuten botereen ondoan. Baldin ez bada hoiekin, Goi-ertaroan bezala, agintaritzaren lehen maila nork hartu lehian zebilenean. Morrontzaren eta ondoren soldatapeko esklabuen desagitearen arazoa azaldu bezain laster etorri zen opresioa, hutsik egin gabe, sorgortzeari laguntzera. Horregatik eta ez natur zientziatzko zuhurtziagatik ulertzen da behar bezala, Marxek Voltairen *Ecrasez l'infame* ez zuela gainditu, bai ordea indartu eta suskribatu zuela. Ez zuen gainditu,

berak eliza estatuarekin batera bestelako jasanezintasunen ispilaketa bezala, hau da ekonomikoki baldintzatu eta defendiezinezko bezala aitortu zuelako; horregatik sakonago jarri zuen zulatzailea. Baina garai hartako matxinatzaile burgesak indartu zituen, orduko tenplua trukalariena baitzen, elizen jainkoa orohar klaseen gizartearena zen bezala. Goi eta behearekin, zigortu eta handikiekin, etengabe goraldatzen ari diren zerbitzari eta ipurzuriekin beti opioaren zeruan. Horregatik beraz Marxek ez bakarrik errepikatzen zuen ez zegoela Jainkorik batere edo Jainkoa apezen asmakizun pikaro huts bat zela. Azkenak edozein modutan faltsuki jakintzat ematen du lehenagoko apez guztiek, druidengandik hasita, Voltairen zuhurtzia zutela eta hamazortzigarren mendeko ateo bat bezain argituak zirela eta nahaspilo bat sortu zutela beren jakituria egiazkoaren kontra. Halako arinkeria ez-historikotik ez dago arrastorik Marxengan; bera eta entziklopedisten artean Hegel eta Feuerbach aurkitzen baitira. Azkena bereziki bere desioaren teoriarekin, eta gero erlijioaren beraren hausturaren eta alienazioaren teoriarekin: erlijioa ez zen sortu gezurretik, baizik ilusio ulertezinetik. Erlijioan erdibi egiten du gizonak bere burua, hasteko norbanako mugatu bezala jartzen du, ondoren norbera mugatu gabeko, jainkotu, bila dabilen alienatu bezala, Jainko bezala. Eta biak, haustura bezala beste munduan hipostasiaturiko alienazioa, kendu egin behar dira: "Naturaz eta gizakiaz aparte ez da ezer, eta izaki goikoak, gure fantasiak sortuak, gure izate propioaren ispilaketa fantastiko baino ez dira". Eta ispilaketa hau da, hain zuzen, Marxek azken batean elizaren zeregin guztiz ideologikoa klaseen gizarte aurreratuenetan ulertzeko eta sakontzeko erabili zuena. Feuerbachengan ustezko izate gizatiar orokor eta beti berdin irauten duena, izaera erlijiosoa ere, Marxek historikoki esleitu, aldatu eta zehaztu zuen bezalaxe: gizakiak gizarte desberdinetan nola diren, hala dira ondorioz autoalienazio mota desberdinetan ere. Horregatik, bada, erlijioaren kritikak Marxengan Argikundeko oldar zaharra eskuratu zuen berriro, zeruko lurruna berriro iruzurraren ideologiarekin uztartzeko gaitasuna, alegia: ez berariazko, subjektibo, antzinako garaietan eutsi ezinezkoarekin, baizik objektibo, gizarte mailan ezinbestekoarekin uztartzekoa. Erlijioa lehen aldiz historikoki klaseen gizartearekin lotu zen, horrela Argikunde garaiko nolabaiteko orokortze bat erlijioa elizarekin kasik berdintzen den neurrian bakarrik trabeska igarotzen delarik. Ondorioz sektak bezalako sinestearen forma sozial erabat bestelakoak, erabat elizaren kontrakoak ez ziren kontutan hartu. Baina horrela gertatu zen, erlijioa indartsu bilakatu zen bere forma sozial bakarrean, elizarenean, kritika bete-betetz ideologia bezala pentsatua izan zela. Hortik etorri ziren beraz herriaren opioa zela zioten kritika marxistak, hamazortzigarren mendean ez bezala irainezkoak hainbeste ez diren kritikak, bai ordea zerbait zorrotzagoak: analisi ekonomikozkoak. Irizpide horiek, eta hara proba adibideekin, Pio XII.aren garaian egiazkoago izateko gaitasuna zuten zuzen gero, haien oroitzapena ezin utz daiteke marxismo bulgarraren esku soilik. Marxismoaren gailurrekoak dira; ateismo burgesa bezala marxismo bulgarra arrunkeria bilakatuko balira, marxistak ezezkooz gainera ikuspegi bat ere garbituko luke. Bai, esan daiteke: erabileraz zeharo gastaturiko arrunkeria materialistak berak erlijioari dagokionez badauzka oraindik bere inplikazio posibleak, autoalienazioaren kontra, Marxen bitartez Feuerbachekin. Bien bitartean gaurko zentzu sakon burgesak, aingeru poetikoekin edo transzendentzia erdietsezinezkoarekin berearen alde borrokatzen duenean, nola komeni hala, bestela ere ohizko den inplizitu bat azalarazten du: jabego pribatuaren apologia.

Beldurra da ezer baino gehiago, menpeko izatera behartzen duena. Baina baita desioak goitik bete daitezkeela dioen usteak ere bihurtzen du gizakia eskale. Horregatik ez da izan lotsagabekeria berez irreligioso egin dena (hori hain zuzen eskaleari baitagokio) baizik gizatiarra. Materialismoari betidanik eginkizun gizatiar askatzaile bat etorri zaio gainera; jarrera zutun bat ipini izan du goitik beherako presioaren kontra. Jakitea

(*Sapere aude*, ausart zaitetz zure adimenaz baliatzen) patu ulertezin, are zerutiartuaren kontra. Lotsagabekeriarik gabeko erlijioaren kritikak horregatik beti izan du bere baitan Virgiliok Lukrezio goraiatzeko egin zuen bertsoaren tenorea:

Felix, qui potuit rerum cognoscere causas

Atque metus omnes et inexorabile fatum

Subjecit pedibus strepitumque Acherontis avari.

Beraz, jarrera zutunak eta jakiteko nahiak moldatzen dute erlijioaren kritika handiaren tenorea; ez dago Tersites han, baizik beti Prometeo bere zuziarekin. Hemen noski ezin gaintitu daitezke kolpetik eta abstraktuki estadioak, baina ez dago ezer -hain zuzen ere ideologia forma hain zaildukoa denean- *revolutio in capite et membris* ordeza dezakeenik, are gehiago oraindik atzoko eta gaurko "sozialista erlijiosoei" aski zaienean dagoen lekuan dagoen jaunen eliza arrosa gorri soilez margotzea. Hemen ere lur berria eta ez adabakiak begiztatu ordeza, Marx gaztearen aholku ez bakarrik politiko estatalaren arabera: "erdipurdiko izpirituek halako garaietan estrategia osoen kontrako ikuspegia dute. Uste dute borroka-indarrak gutxituz kalteak konponduko dituztela, ... Temistoklek ordeza, Atenas hondamendiaren arriskupean zegoenean, atenastarrak bultzatu zituen hura erabat utzi eta itsasoan, beste elementu batean, Atenas berri bat sor zezaten". Hori horrela dela beraz, orain arteko jaunen elizaren kontrako, eta honetan, are orain arte eraturiko erlijio orotan, jarritako herriaren opioaren kontrako radikalismo hain inportante orotan: badago, bereziki Marxen opioari eta erlijioari buruzko pasarteari dagokionez, "beste elementu" bat barruan, eta marxismo bulgarrek ez du hura inoiz pasatu, hemen ere "Atenas berri bat sortzeko". Herriaren opioari buruzko esaldi hain egiazkoa izan ere materialista bulgarrek nahi eta jasango luketen baino testuinguru tamaina berean egiazkoago eta une berean sakonago batean aurkitzen da. Horregatik opioari buruzko esaldia guztiz isolaturik testuingurutik moztu dute; baina honek "*Einleitung zur Kritik der Hegelschen Rechtsphilosophie*"-en sarreran honela dio: "Erlijioa da giza izaeraren egiaztapen fantastikoa, giza izaerak ez baitauka inolako errealitate egiazkorik... Miseria erlijiosoa batarengan benetako mixeraren *adierazpen* da eta bestearengana benetako mixeraren kontrako *protesta*. Kreatura zapalduaren zuzpirioa da erlijioa, bihotzik gabeko mundu baten arima, izpiriturik gabeko egoeratako izpiritu den bezala. Herriaren opioa da. Herriaren zorion ilusiozko bezala erlijioa kentzeak esan nahi du haren benetako zoriona eskatzea... Kritikak ametsezko loreak kateatan hautsi ditu, ez gizakiak fantasiarik gabeko, kontsolamendurik gabeko kateak eramane dituzan, baizik kateak bota eta lore biziak bil dituzan... Erlijioaren kritika irakatsi batez amaitzen da, alegia, gizakia dela izakirik handiena gizakiarentzat; inperatibo kategoriko batekin, gizakia izaki sumiliatu, morroi, mepreziagarri bihurtzen duten harreman guztiak iraultzearekin alegia". Hauxe da beraz testuinguru osoa, "zuzpirio"ekin, baita "protesta"ekin ere orduko egoera txarraren kontra, eta ez dihardu lozorroz bakarrik. Bulgarizatze ororen kontra zera adierazten da horrekin: nekazarien gerra alemaniarreko predikua gehiago zela, eta beste zerbait zela, "mantutxo erlijioso" soil bat baino, Kautskyk geroago adieraziko zuen bezala, eta prediku mota hori "era berean" Bibliatik zetorrela, kasik erlijioa ez balitz bezala *re-ligio*, berriro lotze bakarrik. Beren elizako argiak inolaz kasik salbuespenik gabe askatasuna ehorzteko bakarrik azaldu ziren bitartean edo bere Jainkoaren semeen askatasuna mundura sekula ekarriko ez zuena bultzatzeko. Eliza bat izango da, *nolens volens* bere ideologia errestituzatzaileaz beterik izan beharko ezlukeena, marxismoaren aurrean zergatik damutu eta zer pentsatu izan beharko lukeena. Marxismoak baino askoz gehiago erlijioaren kritikak, Marxen testuinguruan duen zentzuan, tabu ez-berezitzaileetatik askatzen du. Opioaren pasarte gehiago ez erdizkatu baizik bere osoan aipatuari buruzko pentsatzeak ez du miraririk egingo, baina fededun desideologizatupei, taburik gabeko

fedegabekoei azkenean elkarrizketa eremu delakoa irekiko die gutxienez. *Ecrasez l'infame*, horrek esan nahi du infamia bezala, bestela esanda, erdipurdikeria eta seta kentzea.

Mahaian bestela irakurtzen zen, mistika laikoen mugimendu bezala, nekazarien gerrako sua xinpletzea

Gizon zintzo denak, ez du sekula berariaz ezer ilundu. Ez zeukan ur arretan arrantzuan egin beharrik, ezta, jaieraz, beste aldean arrantzuan egiten bazuen ere. Jakina, mistika hain zuzen herrian oso zabaldua zegoen hamalaugarren mendea aurretik, eta "myein", begiak itxi hitzetik dator hitza. Baina asmoa ordea zen, ikusleitsuak bezala, segituan argiago ikustea; gorputz dardara, izpirituak hartua izatea, ahotik adurra botatzea xamanen gauza zen, ez mistikoena. Mistika, auziak duen zentzu zehatzean, *Eckardt*engan errazen ezagun daitekeenez, *adimenaren* gailurrean jarri zen. *Filosofiaren* gailurretako batean sortu zen, antzinako azken pentsalari handiaren baitan eta haren bitartez: Plotino. Hemen "haplosis" bezala da pentsatua, hau da: arima razionalaren azken xinpletzea, izatez berdin den jatorrizko Bat-arekin bere funtsera biltzen denean. Horretan ere huts egiten du kontzientziak, estasia orgiastikoetan bezala, baina ustez goragoko den argi baten mesedetan eta ez gorputz-dardaretan, lainoan, odol isurietan bukatzeko. Plotino eta neoplatonismoa dira beraz jatorria, are geroko mistika kristau ororen edukia; ez Dionisio Aeropagokoak ez Eckardt maisuak erantsi zioten ezer. Ez bada, Eckardt dagokionez, uste sozialistarentzat oso inportantea dena, harengan Ertaro berantiarreko elizaren kontrako laikoen mugimendu hereseak hizkuntza alemaniarra aurkitu zuela. Arimatasunaren batasuna munduaren oinarriarekin, "Lehena-denarekiko jo-nahi" alemaniarra, "jatorrizko gardentasuna bilatzea": guzti hau ondare neoplatonikoa da, baina ondorio handiak ekarritik sakramentuen elizaren eta gero agintaritzaren ororen gaitzetsia Eckardten mistika; aitasantuaren eskomunikazio buldak azpimarratzen du, "herri xumearen aurrean fede egiazkoa iluntzeko propio dena irakatsi" zuela, eta bere irakatsia deuseztu egin behar zela "jende xumearen bihotzak gehiago pozoindu ez ditzan". Egiaz, bere aurretiko *Joachim di Fiore*, Kalabriako abate mistikoarekin batera, hurrengo bi mendeetako iraultzetan gertatu zen bezala. Husstarrengan, Thomas Münzerrengan Alemaniako nekazarien gerran, ideologia aldetik argitasuna nagusi ez zen gertakarietan noski, baina laino mistikoak jaunaren klaseari inolaz lagundu ez zien gertakarietan. Jo daiteke laino hori tamalgarritzat, Kautskyk egiten duen bezala, Thomas Münzerrengandik, ttipitzaile guztiz burges txikiz, "mistika apokaliptikoaren probatxo batzuk" erabiltzen dituenen. Baina ezin dei daiteke Huss edo Müntzer bat biltzen dituen laino hori derrigor, nolabait esateko *a priori*, erreakzionario. Egia da, noski, mistikoak, Jainkoa gizakiengan ipintzen dutenean, une berean beste munduko bat (eta gainera bere-berean transzenditzen duena) badelakoan daudela, hura, paradoxarik handienez, gizakiarekin bat egiteko. Hori guztia egia da, baina beste mundukokeria guztia kentzen duenetakoa da berriro paradoxa: gizakiarengatik eta harengan. Ez heriotzak ez neke guztiek, Paulok dioen bezala, aparta dezakete gizona bere baitan aurkitzen duenetik. Edo Eckardtek betiko jaiotzari buruzko bere sermoian Pauloren hitzei gaineratzen diena: "Nik neure baitan somatzen dut zerbait nire adimenaren distiratzeko duena, igertzen dut zerbait badela, baina zer den, ezin dut ulertu". Norberaren azturaren edo garaiaren arabera, halako esaldietan aurkitzen den argiaren sentimendua esperimentatu daiteke denik eta absurduen eta legezkoen bezala, ulertu daiteke edo bestela arrotzetasunik handienaz ez ulertu. Gauza bat dago ordea garbi: Gizakiarekiko beste munduko baten aurrean gizakia deusezte, hau da, erlijioa autoalienazio soil bezala ez duela sermoi honek inolaz adierazten. Baizik oso gutxitan edo sekula ez dela pentsatu hain altu *anima mea anima nostra* gaiari buruz; zein altu eta

zein gogaikarri zitzaien hori tiranoiei, gerora erakutsi zuten praktikan batista iraultzaileek, Eckardten eta Tauleroren jarraitzaileek. Bera Jaun gorenarekin batasun pertsonalean zegoela pentsatzen zuen, hura beste munduan tronutik kentzen zuen urlia bat: hori seriotan egiten zuena ez zen onena morroi izateko. Bai, transzendentzia bihurritu honen paradoxak, mende askotan zehar, mende asko geroago harrigarriro eman du su oraindik – are Feuerbachenari su eman dio: eraldaketa irreligioso bertaraino. Gottfried Keller errealista eta lurreko semea da, "Grünen Heinrich"en azken zatian bere konte librepenatsatzaileari Angelus Silesius mistikoa, Eckardten dizipulu berantiarra eta Ludwig Feuerbach atea zein antzekoak diren adierazten diona. *Tertium comparationis* da jainkatzeko urruntasun altua subjektu gizatiarrera berriro itzultzea, hau da erlijioaren antropologizatzea. "Guzti honek", ulertu zuen konteak, ez bazen paradoxaz, bai gutxienez gehiegikeriaz, "guzti honek kasik inpresio betea ematen du, ezen Angelus zintzoak gaur bizi beharko lukeela, eta azaleko halabehar gutxi batzuk aldatu beharko lituzkeela, eta Jainkoaren kontenplataile indartsua gure garaiko filosofo hain indartsu eta oldez beteriko bihurtuko litzatekeela". Kellerrek arrazoi berberaz apuntatu zezakeen Hegel gaztearen mistika-ostekora eta Feuerbach aurrekora, honek idazten duenean: "Jainkotasunaren objektibitatea gizakiaren hondamendiarekin eta esklabutzearekin batera joan da... Lehenagoko ahaleginez aparte gure egunetarako geratu da, zerura merke-merke saldu ziren altxorak, teorien gutxienez, gizakien jabetzako bezala, erreibindikatzeko" (*Die Positivität der christlichen Religion*, 1800). Honaino lehenbizi mistika erlijiosoaz, hobe esanda: erlijioan sartzen den mistikaz, hau bere hartan ez baitator guztiz bat, marxismo bulgarak uste duen bezala, mahai mugikorrek edo atso zaharren lelokeriekin. Ezta lainoarekin ere, halako eran non Eckardt, idatzi zuen baino argiago idatzi izan balu, inolako mistiko izango ez zatekeen. Non altxor gizatiarrak badagoen zero baten ilusiotan merke saldu diren, lehen ikuspegi hau gizakiaren autoalienazioan ez zen etorri edozein modutan ekarpen mistiko batzuk gabe. Eta hori ez dagokio ez elizen transzendentziari ezta erlijioarekiko etsaigo abstraktu soil bati, baizik "lore biziak" biltzen dituen Marx osoari.

Metafisika estatikoaren amaia; utopia zehatza

Kaltegarri bihurtu den izen bat ez da erabili behar noski gehiago. Bestela iritzi faltsu eta nahaskorrak esnatzen ditu, eta alferrikako lana egin behar da haiek kanporazten. Eta ardo berria ez da isuri behar zahagi zaharretan, ezta zahagi hauek benetan eta inolako okerrik gabe antzinako zahar onarenak izan badira ere. Beren garaia igaro da, metafisika hitzak berak ere hain historiakoa, are, usteldua dirudi. Ez zitzaion falta beste zoritxarrik ez bada Rosenberg bezalako lapur faxistek etiketa honekin pattar merkea sal zezaten eta gaurko C. G. Jung, Klages Uriges bezalako laguntzaile faxistak izatea. Metafisika jator eta zinezkoa ezin pareka daiteke noski inolaz guzti horrekin; ez du merezi zinez halakorik. Kaltea badakar eta kaltegarri bihurtu bada guztiz bestelako arrazoi batengatik bihurtu da - eta benetan gutxienez zurrunduz, debekatuz, are maltzur bihurtu da bere ondorioetan, ustezko beste aldean, prest dagoen helduleku bihurtu da. Era horretan egiaz benetako Metari, hau da gaurko egun honetan dagoen biharrari giltza estatiko bat botaz. Alde guztietan ipinia zen bezala, non "egiazko izana" beti larritasun ororen ostean jarria zegoela baitzirudien, deitzen zelarik ere (*omnia sub luna caduca*) ideia, substantzia edo gisako materia egina. Filosofia berria, bere benetako Meta arren eta harengatik hain zuzen, ez da gehiago inolaz antzinako metafisika, ez da gehiago, oraindik-ez-azalduarekiko bere loturak inolaz ez duelako biderik ematen "*ontos on*" baterako, atzeko oso bezala dagoeneko dena bere atzetik lukeen ontologia baterako beraz. Halaber, noski, ontologia da (arloan ez du garbitu ez positibismoak ez bestelako eunukutza agnostikok), baina esentzia-izan ororen oraindik-ez-izanaren ontologiatzat hartua da bakarrik. Horregatik ez da hartua helduleku bezala, hesitura guztiak itxita

baitaude, ezta prest dagoen ab-solutu baten metafisika bezala ere. Halako garaipen edo bukaera falta zaio erabat *-qua* dialektika, *qua* materia klimaterio historiko kosmikorik gabe- benetako materialismo dialektikoari. Falta zaio bereziki, ibilbide dialektiko materiala oraindik irekia delako, egiazko posibilitatez soilik inguratua dagoelako, ez ordea dagoeneko erabakitako errealitatez. Eta azkenik sartu den utopiaren aitortzen hau, oraindik-utopia, esentzialean izanaren determinazio esentzial bakar bezala, metafisikaren beraren muineko gai bezala. Oraindik-ez-izanaren ontologiak sortzen du etengabe orain artekoa ez bezalako beste ontologia bat, eta horrela hemen existentzia eta esentzia ez dira igotzen gehiago elkarrekin proportzio zuzen batean. Eduki finkodun metafisika zahar kasik guztian gertatzen den bezala, dagoenik eta *Metaphysicum* errealena guztiaren ostean duela, bere izan-moduaren (zailaren noski) arabera gehienik ere *futurum* eta ezkutu joeradun bat aurkeztu ordez. Eta hitz bat oraindik metafisikaren gaintitze delakoari buruz, ez positibistek eta eunukutza agnostikoak bakarrik baizik okerkiro bere auzirako Heideggerrek argitu duenez. Hau da prozesuaren ideiarik gutxien duen pentsalariak, marmario zaharkitu edo imitatuak, hura "izanaren ahazturak" ("des Seyns von eh") arduratzen baitu baina inolaz ere ez izan-posibilitaterantz joateak. Esan esaten du Heideggerrek harrigarriro, hau da kasik metafisikaren "loturarekin" bere baitaren barruan: "Hasteko metafisikaren gaintitzea aurkez daiteke metafisikatik bertatik abiatuz bakarrik, bere beraren bitartez bere beraren gaintitze baten moduan" (*Die Überwindung der Metaphysik, Reden und Aufsätze*, 1954, 79. or.). Baina bere "gaintitzea" hain zuzen orain arteko metafisikaren momentu progresiboak "salbatzen" dituen gaintitze denez, Heideggerrek bukatzen du azkenean geroago, hain zuzen "posiblea" irentsiz, berriro bezatuz, debekatuz: "Lurraren lege sotilak zaintzen du hau gauza guztien hastearen eta igarotzearen apaltasunean, orok jarraitzen baina inork ezagutzen ez duen posiblearen zirkulu finkatuan (!). Urkiak ez du gaintitzen bere posiblea. Erlauntza bere posiblean bizi da. Nahimena da... lurra bere posiblearen berezko zirkuluaz gainti behartzen duena, gehiago posible ez dena eta ondorioz imposible dena" (l.c. 98. or.). Garbi dago metafisika gaintitzeko modu hau hain zuzen datzala haren barruan mundua aldatzen duen Meta izan litekeena kentzean (baita Platonengan ere, hiru bider Sirakusara Meta hori dela-eta joan zenean, hemen arazoa urkiaren eta erlauntzaren posiblea baino handiagoa delako). Heideggerren ustezko ez-gehiago-metafisika arbolarik txarrena da antzinakoen artean, lur eta arrazaraino jaitsia, eta "bere beraren bitartez bere beraren altxatze"aren guztiz kontrakoa, ez-bukatua-izanaren, oraindik-ez-izanaren ontologia baten zentzu posiblean. Metafisika Heideggerrengan zuzenean nolabaitekotua da oroitzapen soilaren, zirkuluan ustez ibiltzearen, betiko (Nietzscheengan ustekabeko) berberaren itzuleraren metafisika zahar onartezinezkoa bezala. Aldiz metafisika Friedrich Engelsengan lehen mailan, ez beste mundukokeriarekin, baizik hain zuzen estatikoarekin berdindu eta horregatik zapuztua baldin bada, terminologia aldaketa nabarmen bat adierazi nahi du, burgeski ulertzen inolaz ulertzen ez dena. Hartaz dialektika ohizko hizkera marxistan ez da tamalez gehiago metafisika, ez da hala ordea Heraklitogan, Platonengan, ezta Böhmenrengan eta inolaz ere ez Hegelen "biziaren pulsu dialektikoan". Guztiz bestela, Frantziako Argikundeko benetako materialista beste mundurik gabeak marxismoaren arabera metafisiko deituak izango dira munduaren irudi estatikoan geratu diren neurrian eta geratu direlako; marxismoan bertan kosmoaren ideia mekaniko-trinkoarekin gertatu den bezalaxe. Ardo berria zahagi zaherre ez dagokien bezala beraz, utopia dialektiko zehatza eta haren *Novum*-aren posiblearen "azpi-oina" ez dira orain arteko metafisikaren atal ez dagokienez birlotze soilaren, *re-ligio* soilaren arrazoi honi -noski propioari. Baina marxismoan -premiaren erreinutik askatasunaren erreinurako jauzi eskaini bezala- sarturik dago ondare subertsibo eta ez-estatiko guztia, Biblian bertan

sarri estalia egon dena eta "birlotze" bezala azaltzen ez dena. Hori aldiz, Exodoan estatiko denetik, askatasunaren erreinuaren aldeko protesta eta haren arketipo bezala azaltzen da. Goiko ororen kentze bezala, non ez baita agertzen gizona, iraultzarekin transzenditzea bezala eta une berean iraultza transzenditzearekin -transzendentsiarik gabe ere. Baldin ordea Biblia azkenik manifestu komunistaren begiekin irakur badaiteke. Horrela bakarrik lortzen da gatz ateo ezein geza bihur ez dadin eta marxismoan inplizitu dagoena gatz gezatzen uzten ez duen Meta harekin uler dadin.

18

Bibliaren kritika azterketari bezala:

hari gorriak eta desteokratizatea testu zapalduan

1. Ez dago ezer non gaizki edo ondo zerbait aldatu ez den. Askoz gutxiago geratzen da poesia zirriborro bat, berriro aztertu ondoren, lehen zen bezala. Baita bereizi daitezke lardatxak maisuarengandik, honek, hark ez bezala, egiten ari den estatua batean zer kendu eta zer moztu badakielako. Horretan noski gauza asko lehen baino okerrago utzi daitezke eta, ugaltzean, azkenean gehiegikeria bat ere egin daiteke: Eskua mahaitik kanpora, dio horregatik aholku erromatar batek. Hala ere kenduz, are gaineratuz ez da gehienetan uzten zerbait ez ezagutzeko moduan, guztiz bestela baizik, gauza garbiago geratu ohi da. Bada azken eskua delakoa emateko eskubidea ere; hala da hain zuzen eskakizun kanonikoan. Honekin noski, gisako azterketetan, hasteko lehenagoko testuak gorde egiten dira, baina argitalpenerako proba bezala, nolabait esateko. Horrela konparaketa bat egin daiteke, merezi badu behintzat, eta gutxi dira horri uko egiten dioten idazleak. Gero bereziki, gehienetan bezala normal jokatzeko bada, testuan egindako aldaketa orok lehendik ondo zegoena gorde, hobetu, argiago jarri egiten du eta sekula ez txartu. Guzti hau alde zuzenetik ipini behar da, ikus dadin testu aldatua zenbateko neurrian bereizten den lehendabizikotik. Zeharo bestela gertatzen da, argi gera dadin, beste batzuek, geroagokoek, hari ez dagokiona egileari gaineratzen diotenean. Ezin entzun dakioke ahoz, baina haren ondarea bai zapaldu edo faltsutu daiteke. Halako testu ez fidelak azaltzen dira, seguruago, eragin handiagoko bihurtu diren neurrian. Horregatik merezi dute haien azpian bestelako tonua sakontzen, entzuten bada.

2. Lehenago ahoz bakarrik helarazia zena, gehienetan ondo gorde ohi zen. Bildua zen, entzulerik gehienak ere ohituta zeuden, hitzez hitz gorde behar zen. Baina errepikatzean, hau da hemen berriro idatzita jartzean, are testu idatziak geroago biltzean, aldatzen da leialtasun hori. Testu hondatua azaltzen da, ez dauka gehiago inolako zentzurik, kontraesanak jasotzen ditu hurrengo esaldian edo hurrengo orrialdean. Litekeena da ez dela agertzen zentzugabekeria ahitu bat, baizik zentzu moduko bat, gainera sotilagoa, baina testuari bere jatorrian kantatu ez zitzaiona; orduan hondatu dena nekezago igertzen da testuan. Sarrienik halako lekuetan halabeharrik du errua, dela kopiatzailearen hutsegite edo narraskeriagatik, dela testu idatzian dauden hutsuneak oker konpondu edo sakabanatua gaizki antolatu delako. Guzti hau gizakiaren, guztiz gizakiaren erruari dagokio eta ez dugu aipatzen hemen Elisabeth Förster-Nietzsche. Baina ez al dago bestela ere testu bakoitzean, berez hura agitaratzen duen argitaldaria zabarra bezain inozo ez den batean, liluramendu bat, inozo bakarrik izan ez dadin? Are oraindik ez bakarrik zabarra, ez bada maskara bezala, oso trebe baizik luzaz estaliko den iruzurra egiteko? Elisabethen eta Kosimasek eraketa fintxoagoaz beraz, beste era bateko asmo eta helbururi egoki ez datorkiona berariaz zapalduz, berariaz eraldatuz? Badago noski agintzen dagoen gizartearen bultzada, agindua ez esateko, testua aldatzeko hil ondoren argitaratutako obretan, ahozkoaz edo zatiez egindako obretan ere. Ez zegoen holakorik noski Grimmen ipuinetan ezta ere Pisistratok zabalarazi zituen kantu homerotarren bilduman eta idazketan. Zein onura atera zezakeen berak edo bere

erregimenak testua zapalduz edo zentzuz aldatuz? Tersites arren, noren kontura Iliadak idatziz kontatzen baitu amorratu edo iraintzaile itsusi bat zela bakarrik, beti zeukalako zerbait printzei aurpegiatzeko edo gerraren kontra hitz egiten zuelako. Bestalde mitoaren aldetik Odisea idatzian ez dago nahikoa ulerturik edo trabaturik; horrela Kalipso, "ezkutua", heriotzeko jainkosa bat, betiko gaztetasuna agintzen duena. Kantuen segida, gertakarien korapilatzea askotan zalantzazkoa da, araztua dago bereziki heldu zaigun Homeroren epopeian. Horrela sortzen da 1795ean F. A. Wolfen Homeroren lehen kritika. Eta zer esan liteke "Homerida" soilen lanari buruz, kontutan hartzen bada kapituluaren segidaren nahas-mahasa, filosofiako obra nagusien idazketa askotan, adibidez Aristotelesen Metafisikan, dagoen mataza egiazkoa? Horregatik Homeroren bezala Aristotelesen zati gaizki helarazietan puska bat erredaktatu zituenari zor zaio, eta hori zabarrei eta subalternoei egotzi behar zaie, famulus Wagnerri eta ez Mefistori. Baina harritzekoa da zein gutxitan galdetzen duen testu kritikak *Cui bono*-gatik, eta zein gutxi pentsatu duen testu kritikarik famatuenari, hau da Bibliarenari, dagokionean. Inon baino gehiago Bibliako testuan aporiak, inolaz narraskeriatik eta seguru subalternoenengandik ezin etor daitezkeen tartekatze interesatuak azaltzen diren arren. Honi hain zuzen eskaini dio arreta Bibliaren kritikak -kritika filologikoen artean ezagunena denez- arrazoi oso bereziengatik eta materialaren tentsio handiarengatik. Horrek kritika hau zabaltze berrien beharretan jartzen du, daukagun testuan harrigarriro bestelako, jazarriro bestelako pasarteak sumatzeko. Izan ere mahaian, idazketa handien aurretik, irakur zitekeena ez baita guztiz ezabatu edo estali.

3. Alde guztietan iger daitezke oraindik ezkutatu diren arrastoak, haiek bilatzen badira. Aspaldidanik ez zeuden zirkulazioan era rabinikoan testu bakezkoak, Biblia egina zegoen. Bibliaren eskuizkribu zaharrenak ez zuen gainditzen Kristo osteko seigarren mendea, ezta Qumrango aurkikuntzek ere Kristo aurreko lehenengoa. Aurkikuntza hauek, beste irakurketa modu bati dagokionez, esateko ez zuten ustekabekorik bat ere eskaintzen, Esra eta Nehemias ezkerotik batipat Biblia ofizialarekin bat baitzetozen. Esraren Bibliaren erredakzio ofizialaren ondoren mende asko geroago moldatuak ziren noski, eta horregatik aspaldi kanoniko bihurtua zen testuan apenas gogora ekar dezaketen iturburu desegokirik. Bai ordea Esra eta Nehemiasen garaian, Esraren bereziki, Kristo aurreko 450. urte inguruan Persiako atzeritik itzuli zen "Jerusalemerako elizako komisarioaren" garaian. Baziren orduan oraindik iturburu prekanonikoak, ondo gordeak, herriaren Babiloniako gatibualdi delakoari buruz, baina Esra eskribak erabat teokratikoki isolatu zuen Moisesen garaiko "Lege liburu" zaharra, eta hala bere eskuetan zeukan lana Jerusalem aldera etorri zenean. Orduan gertatu zen "Jaunak Israeli eman zion Moisesen legeko liburuak ekarri zuela, eta elkartearen aurrean legea atera zuela" (Nehemias, 8,1). Horrek beraz ekarri zuen, horrela sorturiko estatu klerikalean, Itun Zahar idatziak eta haren "legearen pozak" oraindik Bibliaz kanpo bizirik zegoen literatura israeldar judu haren zati txiki bat bakarrik zekarrela. Honek bere aldetik bizibide esanguratsu, baina gainbeherakorra, bereziki inkonformista eraman zuen (hala herri kontakizunetan, Haggadatan); sarri legearen eta klerikalki otzandutako profeten albora. Azpimarratzekoa da Esra elizako komisarioaren nondik norakoaren eraginari dagokionez, bere izpirituko apezak beti zalantzan zebiltzala ea Jobena bezalako liburuak edo Kohelet bera ere, eta gero Kantiken Kantika "Idazteun" ote ziren edo haiekin, era berean eritual bihurturiko eskolako hizkeraren arabera, "eskuak zikintzen ote ziren". Ondorioz hala idatzia zegoen Itun Zaharrari zegokionez Esraren garrantzia harrez gero azpimarratu eta goratu egin zuen ortodoxia rabinikoak. Guzti hau, antzinako errege garaiaz geroztik aintzindariak bazeuzkan arren eta haren legearen poz propioa arren, profetarik gabe, are haien kontra. Izan ere benetan Esra eta Nehemias ezkerotik Bibliaren testua betikoz deitura amankomun teokratiko batera eramaten

saiatu ziren; Faraoiarengandiko irteera profetiko ororen kontra Jaberren ideari dagokionean ere. Hemen desagertu zen zeharo testu ofizialetik Israelgo semeen arrenkura; horren ordezkari, bekatuen ordainari, Jainkoaren transzendentziaren igoera menderatzaileenari pisu handiena ematen zaio. Idazketa, berridazketa guzti honengatik beraz, bihurtu da inolaz Biblia benetan Bibliaren kritika arakatzailerako aukera eta gai. Hau da, hain zuzen *Cui bono* galdera zuzendu daiteke azkenik zati zeharo iraultzaile zenbaiten eraldaketa jaieratsu edo ez hain jaieratsuetara. Horrela salatuko da testuaren eraldaketa, haren hondaketa soilak salatuko dira, labur esateko: erreakzioaren arabera egindako idazketa. Edozein modutan nabarmen geratu izan ziren beti zati hautsiak Itun Zaharrean, historiaren eta historien liburu hain luze honetan, inoiz ezagutu den nahaspil lan zabalenean.

Uztai berri bezala atxiki zitzaiona, gaur den erara geroago biribildu zen halaber. Itun Berriari dagokionez, ez da Jesusen bizitza hitzez hitz, baizik sarri hari buruzko lehen predikua. Horretara jo zuen, berandutxo, ondorengo Bibliaren kritikak, hau da ez legeari lot dakiokenak, baizik ondorengo Pauloren heriotze-opalkuntza teologiari eta idazteko orduan Jesusen irudian eragina izan zuenari lot dakiokenak. Baina berriro hemen, erabat bestelako modu batean ordea, nola portatu irakatsi zen, hain zuzen gurutzearen pazientzia bezala (honetaz Jesusek ez zuen hitz egin, eta Paulok berak ez zuen Jesus zuzenean sekula entzun, ez ikusi). Markoren Ebanjelioaren egileak erabil zezakeen noski orain gordetzen ez den Jesusen esanaren bilduma bat, baina haiek zati handi batean, lau Ebanjelioetan, misiorako eta eraiki beharreko elkarteko bizitzarako arinduak eta zuzenduak izan dira. Testu hautsiek behin eta berriro jartzen dute hori egunargitan, hala "bataioa Kristoren heriotzean" Jesusen hitz ez hain pazientziatsuenaren parean (Lk. 12,49): "Lurrean sua jartzera etorri naiz, eta nahiago nuke dagoeneko piztua balego" testuaren parean, alegia. Era horretan, bada, Ebanjelioen kritikak ez dio heltzen antzinako Esraren kodifikazioari, baizik Pauloren heriotze-opalkuntza teologiaren eraginari, eta hori kronologiaren aldetik ere: Pauloren gutunak 50. urte inguruan daude idatziak, hiru lehen ebanjelioak berriz geroago, 70. urte inguruan, eta Joanen Ebanjelioa 100 urte Kristoren heriotzaren ondoren. Gaurko Itun Berriaren zabalerari eta jatorrizko formari buruzko azken erabakia -hau da iturburuetatik, are iturburutik instituzio maila soilean apartatzen dena- 382ko sinodoan hartu zen Damaso aitasantuaren garaian; harrigarria den gauza, Joanen Agerpena gorde egin zen apokalipsi bakar bezala. Hala ere, duela 1.100 urtez geroztik eta lehenagotik, bidea markatzen zuen Bibliaren kritika Itun Zaharrera zihoan eta doa gaur oraindik, eta Ebanjelioena askoz geroago dator. Bere behatzaileek *propioaren* kariaz eta elizaren eraikuntza, berreraikuntza eta fardelgintza *propioaren* kariaz ez zen dena zurrin gelditu, bai ordea luzamendutan atzeratu. Konponketa guztien kontra kritiko segitu zuen ordea Itun Zaharreko filologiak (eta ez bakarrik filologiak) Genesiko testutik Joben libururaino, Prometeoren zatia barruan duela, eta Isaia profetarekin, honek "Ikusi, dena ona zen" haren kontra, "zeru berri bat eta lur berri bat" sortarazi baitzituen, "lehenagokoetan gehiago pentsa ere egin ez dadin". Hemen bereziki ez bakarrik topatzen dira diferentziak hizkeran, nahas-mahas kronologikoan, bat ez datozen kontakizun paraleloetan, egiazko kontraesan konponezinezkoetan, badaude areago tartekatze nabarmenak ere -egiptiarrak erdi-erdian, Exodoaren kontra. Ezer baino gehiago hau hartu behar luke kontutan Bibliaren kritikak, jaramon eginez oraindik ondo idatzi gabeko eginkizun sozialari, azterketa arakatzailerak egiteko inolako Thomas Münzerrik sutuko ez lukeen testu mota hori eskaini baitzion. Arakaketaren helburu beraz izan beharko luke *positiboena*, hau da Biblian aurkitzen den Esraren gisakoa aztertu eta garbitzea, lurperaturik dagoen "herri xumearen gisakoa" ezagutzea eta salbatzea. Zati batean lurperatua dago bakarrik, noski, bestela goiko mailakoen eta despotismo jainkotuaren beste erlijio liburu edozein batek

bezala jokatuko bait luke Bibliak, erlijio liburu zapalezinezko eta iraultzaileena izan ordez. Eta hori beti leku gehiago hartzen ari den antitesiari esker: *Gizonaren seme - Egiptoko lur*. Hara zuzenduriko testuaren kritikak ezin luke inolaz neutrala izan, Homeroren kritika izan litekeen bezala, aldiz horrek helburu bat ematen dio (*nemo audit verbum nisi spiritu libertatis intus docente*) filologiari.

4. Hala beraz lehendabizi txikienaren arrastoari jarraitu zitzaion. Behin horretan jarririk, atentzio berria piztu zen, ordea, handik etorri zelarik kritika zalantzaz beteena. Lehen-lehenbizi kontraesan kronologikoak somatu ziren, motarik errazeneakoak. Adibidez uholde handiak batean 540, ondoren 150 egun irauten duela; edo Abraham, Jainkoaren aurrean ernaltzeko zaharregi zela aitortu ondoren, Sararen heriotzearen ondoren ezkondu eta seme gehiago dituenen. Gatibualdi ondorengo judu legezaileek bezala hitz egiten dute antzina-antzinako legenda beduinoko aitalehenek. Joseren anaiek, aldiz, ez dituzte ezagutzen jakiei buruzko debekuak. Eta zenbat makur gehiago, hain zuzen sagaratuak, zulatu behar izan zituen Bibliaren kritikak; harrigarriago gertatzen da beraz, haren hasiera herabea Ertaroko komentatzaile rabinikoen artean aurkitu behar dela, hain zuzen ere guztiz bestelako Esra batengan, Ibn Esra rengan hamabigarren mendearen erdialdera. Honek ahaleginak egin zituen komentatzen 5. Mois. 1,1 eta 5; 3,8; 4,41-49 pasarte salatzaileak, horietan Moisesek, oraindik Kanaan sartu gabe, "Jordango beste aldean" hitz egin, legeak aldarrikatu, lurrak hartzen baititu. Garai hartan ordea ohartarazten du Ibn Esrak, Moisesek hau gogoratu eta idazten duenean, kanaandarrak zeudela Jordango beste aldean; eta aurrera segitzen du: "Hemen misterio bat dago; isil bedi hura ulertzen duena". Azkenik askaturik geratu zen Bibliaren kritika da giza zorrotasunaren adibiderik jakingarrienetako bat; horregatik ez da arrazoirik gabeko - hain zuzen Ibn Esra aipatuz- Spinoza izan bazen hura inauguratu zuena. Inon ez da azaltzen hemen bezain ausart bere adimenaren askatasun osoa, faltsutasunaren tradizio tinkoenaren haustura. Spinozaren *Tractatus theologico-politicus* obrak, 1670, 7-10. kapituluetan ondorioztat ateratzen du, Genesia Erregeen 2. libururaino Esra apezak idazti desberdin, elkarren artean kontraesanez betez, osatu zuela. Bibliak berak galdutako gisako bi liburu aipatzen ditu: "Jaberen gerrateen liburua" (4. Mois. 21, 14) eta "Zintzoen liburua" (Josue, 10, 13; 2. Sam. 1,18); azkena 1000. urte inguruan Salomonen garaietan egina. Testuaren lehen anatomia moduko bat hasi zen Jean Astruc medikuak aurkitu zuenean Pentateukoan bi idazle desberdin bereiz daitezkeela. Jainkoa izendatzeko haiek erabili zituzten izenen arabera deitu zituen Jabista eta Elohistak, eta izen horiek harrez gero geratu egin dira (Astrucen *"Conjecture sur les mémoires, dont il paroît que Moïse s'est servi pour composer le livre de la Genèse"*, 1753, izenik gabe azaldu zen). Bibliaren kritika filologikoaren sortzaile honek Spinozak baino atzerago jotzen du, Moises eta ez apezgoa jartzen duenean haren izena daramaten liburuaren erredaktatzaile bezala. Garrantzizkoa da noski teologo katoliko bat izan zela, Ibn Esra ren ondoren Bibliaren kritikorik zaharrenetako bat, Aita Masius Josueren liburuaren komentario batean dagoeneko, 1574, apuntatu zuena Esra apezak eta bere Nehemia izan zirela ustez Itun Zaharraren azken erredaktatzaile nagusienak. Astrucen iturburuaren ikerketa, luzaz kontutan hartu gabea, garaile atera zen hemeretzigarren mendean: Wellhausen, aitzindari askoren oinordeko eskukontrakoak eskaini zuen analisirik zorrotzena (*Geschichte Israels*, 1787, I. liburukia), Gunkelek umotuen eta oparoena (*Genesis*, 1901). Wellhausenek gainera ekuazio pertsonal bat, antisemitiko erakoa, erantzi zuen oker berrien iturburu bezala. Jabista eta Elohistak beren aldetik beste gehiagotan zatitu ziren, are Palestinako hegoko idazle ez israeldar baten, S-iturburu deituaren susmoa azaltzen da azkenurreko modan; hari egotziko zaizkio paradisuaren eta dorregileen kontakizunak, bestela ustez Jabistarenak izan zitezkeenak (cfr. Pfeiffer, *Introduction to the Old Testament*, 1941, 159. or. eta hur.). Hipotesi hauek kontutan

hartzen badira, kantez eta ezagun daitezkeen legendez aparte zalantzarik gabe Bibliaren orean lau zati nagusi finkaturik geratzen dira: Jabista, Elohistak, Deuteronomioa eta Apezen kodea. Jabistak ahozko tradizioa idatzi zuen bederatzigarren mendean, Elohistak zortzigarren; profeten eskolek eskaturik lan egin zuten biek seguruenera. Deuteronomioa (Moisesen 5. liburua) zazpigarren mendekoa da, Jeremiaren erreferentzia ugari ditu, oso nabarmen bereizten da, Zenbakien eta Josueren liburuekin erkatuz gero, esaldien bikaintasunagatik eta estilo aberats erretorikoarengatik. Azkenik sartu zen (hala Genesiko lehen kapitulu guztia, hau da ustezko Bibliaren hasiera) apezen dokumentua, 500. urte inguruan Babilonian sortua, eta guztia azkenik erredaktatu zuen Esrak berarekin ekarria zuen. Azkenik antzinako kanta batzuk eta jatorrizko legendako hondar zati batzuk ezagun ditezke oraindik; hala Lamek lehen-beduinoaren kanta (1. Moises. 4, 23). Era berean Deborahren garaipen kanta zalantzarik gabe zaharra (Ez. 5, 2 hur.), Jainko batekin Jakobek izandako borroka (1. Moises. 24-31), Jainkoak *a tergo* egin zuen lehen azalpena 2. Moises. 33, 21-23an, tonuz eta edukiz 2. Moises. 3, 2-6ko Sasitza sutukoa baino askoz zaharragoa. Jabista eta Elohistak zazpigarren mendean bateratu ziren lehen aldikoz, pasarte ugari tartekatu ziren apezen kastaren interesetan, Itunaren liburua eta Deuteronomioa, jakiei buruzko lege berezietuekin eta Erritual osatuarekin. Idazketa honi buruzko kontakizuna 2. Erreg. 22, 8 eta 23, 3 hur. pasarteetan aurkitzen da: dirudienez Helzias apez gorenak legeko liburua tenpluan aurkitu zuen eta Josias erregeak herria behartu zuen eliza judu berriko karta onartzera. Azken idazketak ordea, benetan erabakitzaileak, eklesiastikoki egosiak, kanonizatzailak, leku hartu zuen Esra apezaren bitartez, Babiloniatik itzuli ondoren, bosgarren mende erdialdera: Esra apezak, esan bezala eta guztiaren gailur bezala oroitzekoa, Jainkoaren legea bere eskuan zuela etorri zen Babiloniatik (Esra, 7, 14) eta hura batzarrearen aurrean irakurri zuen Jerusalemen (Nehemia 8, 1 eta 8). Garai beretsuan bestalde Bibliako idazteko karaktereak aldatu ziren: antzinako alfabeto feniziarren ordez idazketa kuadratura hautatu zen, arameatarraren aldakin bat; horrek ere aldaketak erraztu zituen. Oraindik gaineratu behar da geroagoko Septuagintaren Bibliaren itzulpen alexandriarra, puntu askotan bestelakoa, eta batez ere gaur daukagun Bibliaren testu masoretikoa baino laburragoa. Horrela sortu zen oreka, Pentateuko deitutako dena, barruan era askotako tartekatze eta soldadura dituela profetatik eta bereziki Isaiasengan. Era horretan uler daiteke Jobena bezalako liburu herese baten egoera eraldatua, are irtenbiderik gabea, halako tartekatze eta ezabaketei esker bakarrik kanonean sartu zena. Semitikako aditu amerikar batek, D. B. Macdonaldek arrazoiz esaten du idazketa modu berezi honi dagokionez: "Pentsa, *Faust* amaitu aurretik hil zela Goethe, lehen zatia argitaratuta zegoela, bigarrena ordea ordenatu gabe eta amaia idatzi gabe; orduan argitaldaria mekaniko batek guzti hori hartuko zukeela, nola edo hala guztia josi eta Faustoren herri liburuko amaiaz bukatuko zukeela. Horrek eskainiko liguke gutxi gorabeherako konbarazio bide bat Joben liburuaren gaurko egoerari dagokionez"; hala ere pentsa liteke "argitaldaria mekanikoa" ez zela hain mekanikoa ere, baizik S. Officium Inquisitionis-ko bazkide moduko bat zela, *de puritate fidei* lege liburua eskuetan zuena. Eta horrek testu herese baten kontra, kondenatu ezin duenez, etengabe moztuz, kontrakoa txertatuz jotzen duela. Biblian lehendik idatzitako zati asko, noski, hain zuzen teologiaren eta politikaren aldetik ondorio garrantzitsurik gabeak, adibidez uholdearen iraupena edo are patriarka baten ernalketa indarra, ondorio garrantzitsurik gabe aldatu dira. Baina Joben liburua eta, geroago ikusiko denez, *ad Kain*, *ad Jakob*en borroka "aingeruarekin", gehiago *ad paradisuko* sugea, *ad Babelgo dorrearen* eraikuntza testuak, labur esanda pasarte oso azpimarragarriak ez dira ondorio garrantzitsurik gabeak; era berean ez da ondorio garrantzitsurik gabea haien eraldaketa, haien demoniotzea. Eta inolako Biblia erredakziok ez zituen doitzen pasarte hautsiak,

ezta nolabait ere Jabistaren eta Elohistaren artean garrantzirik gabeak, baldin gai berberaz ari baziren. Igerri zen hala ere: arbasoen kultuaren arrastoak ezagun daitezke, baita arrasto politeista ugari ere, hala besterik ez bada Elohim pluralean eta Jainkoak bere jainkokideei egindako hitzaldian (1. Moises. 1, 26; 11, 7). Adam birritan sortua izango da, Genesiko lehen kapitulua behin era batera eta bigarrenean bestela; apezen kodean ezabaturiko sorkuntzaren historia baten zatikiak aurkitzen dira, bereziki itsaso oldartuari dagokionean, profetengan (Is. 51, 10) eta Jobengan (38, 8-11). Jabista harritu egiten da gonbidatu arrotzen mahaitik egiptiarrak erritualki apartatzen direlako Joseren palazioan (1. Moises. 43, 32); beraz jakiei buruzko lege juduak, ustez Moisesek emanak baziren ere, guztiz ezezagunak zitzaizkion. Eta Moisesen bigarren liburuan Tenpluko erritualari dagokionez, hala esaten du Jeremiak berak 7, 22-an hura baliorik gabe uzten duen esaldia: "Zuen arbasoei, Egiptotik atera nituenean, ez nien erre-opariez edo bestelakoez ez ezer esan ez agindu". Honek eta bestelako askok aporiak pilaka adierazten dituzte, oldarketa gutxi azaltzen den lekuetan ere; Bibliaren kritikak filologiaren indar zorrotzenaz argitzen ditu: liburu zatien zerrenda jarraia kronologikoki kenduz eta, batez ere, oinarritzko osagai ezkutu edo gainetik pintatuak aurkituz. Zailagoa da eta askoz garrantzitsuagoa *apezen asmoz, erlijioaren arloan era kontrairaultzailez* estali diren hondar *haien* ikerketa. Antzeman daitezkeen uharte gutxi batzuk dira, baina amilduriko lurralde bateko mendi gailur bezala altxatzen dira zuzenketa itsasoan. Halako Azore batzuk bezala azaltzen dira hain zuzen paradisuko sugearen hitzak eta beren gisara bizi diren zeinbaiten bizimoldea, Jainkoaren besoaren kontra, Kainengandik mesiasen pentsamendura arte, inolaz ez datozelarik bat Jabe "Israelgo sendagile" bezala sinetsiarekin. Item, Bibliaren kritika era horretan erabili eta berriro itzuli gabe zeharo ezinezko da erlijioaren filosofiarik bat ere, are gutxiago oraindik esanahi iraultzaile utopiko bat duena.

5. Atea irekita dago, erasoaldi heresea ere beti arduratu da horretaz. Nekazarien gerrateei, eta ez bakarrik alemaniarrei, guztiz mesederako gertatu zitzairen azpituak tematsu eta alferrik zapaldu hori. Garbi dago Bibliako pasarte eta leku batzuetan bultzada ideologikoaren oinarrian arrabots ekonomiko eta sozialak aurkitzen direla. Baina horri buruzko informazioak, nolabait esateko sugea tanka-tanka, askoz ere zapalduagoak izan dira goiaren kontrako erantzun mitikoak baino. Israelgo semeen arrenkura politikoa eta horren kontra gero datorren "Jaunaren" haserre, 4. Moises. 16.ean kapitulu batean zehar aurkitzen da kasik bakarrik, "Koreren taldearen altxamendua" bera baino garatuago. Eta Koreren pasartean bertan herriaren altxamendu bat erabat estalita dago, halaber zuzendua, "gizarteko nabarmenenak" eta "izen handiko gizonak" aipatzen baitira soilik. Horiek noski Moises eta Aaronen kontra altxatu ziren, laikoaren apezgo moduko baten bidez. Baina orduan berriro azaltzen dira berberak apezaren goimaila bezala, lebita bezala, behar baino lehenago palazioko errebolta moduko zerbait soilik egin bailuten. Hau da guztia, salbu noski amaia eta irteera, hor -errebolta praktiko baten aurrean- apezaren Jainkoaren, apezentzako eta jaunentzako Jainkoaren erantzuna azaltzen baita, eta ez bakarrik legenda gorriaren zapalketan. Talde osoa, noski, xahutu egiten du izulaborriaren Jainko honek, hemen ez baita gerraren Jainkoa baizik goardia zuriaren beldurgarritasunarena, bera balitz bezala, qua Idazteunak Esraren eta Nehemiasen eskuetan, izudardara zuri ororen Jainkoa. Hala bada, "lurrak bere ahoa irekitzen du eta guztiak duten guztiarekin iresten ditu, bizirik infernura joanez, horrela jakingo duzue jende horrek Jauna iraindu duela... Israelgo semeak oroi daitezten, Aaronen odoleko ez den inor" (hau da: apez gorenaren odoleko) "ezin dela hurbildu lurruna eskaintzera, Koreri eta bere taldeari gertatu zaiena gerta ez dakion" (4. Moises. 16, 30; 17, 4). Honek gutxienez desagerturiko azpiegitura politiko iraultzailearen aipamen bat egiten du, haren demoniotze ideologikorako gomendagarria

delarik, hain zuzen ere, indartua edo tartekatua izan den apez kastaren kultuko Jainkoa, despotismoko Jainkoa. Hemen ere bazuen eraginik harako Jainkoaren ideia hark, obedientzia soil bezala ulerturiko paradisuan ere baliozko zenak, hau bailitzen "parke bat, non", Hegelek esaten duen bezala, "abereak bakarrik eta ez gizakiak gera zitezkeen". Baina halaber hemen falta da harako Jainkoaren ideia hura, apezen erredakzioan ere zapaldu ezin zitekeena, hark hitz eman baitzuen morrontzako lurraldetik, Egiptotik, basamortuan barna askatasunaren lurraldera eramango zituela. Baina Jainkoaren ideia, izateko modu bezala Bestelako hau sortzen den futurum bat duela, ezin eutsi daiteke goitik behera instituzionaldutako eta horrela zentzu bietan prest jarritako inolako erlijiotan. Ezin euts daiteke Moisesen garaietara data atzeratu zuen erbestealdi osteko kultuko batzarrean, ezta harengana apezen eta kultuaren bidez bakarrik iritsi daitekeela helburutzat harturik transzendentzia altzaraziz ere; eta han zigor bezala jarritz transzendentzia horren errukigabetasun handiena, harekin menpekotasun osoz bekatuen ordainarekin eta penitentziarekin bakarrik harremanak izan daitezkeelarik. Bibliari dagokionez -governaturiko kultu elkarte batek duen eskuliburu era horretan moldatua, nahiz gero eta zatikatuago eta sumendien mehatxupean dagoena izaki- egiatan "Jainkoak inspiratua" denez, apologetika asmoekin, gehienera ere alegoriekin eta esanahi sinbolikoekin jokatu behar zen. Halabada, testuaren jarraipen fededunarekin soilik eta ez Bibliako benetako ardatzarren bilaketa bereizlearen bidez: gure parte hartze gero eta handiagoz aurrean daukagun misterio erlijiosoan. Sortu zen noski, Bibliako pasarte zatikatuen kritika falta zenean ere, komentario bat ez bakarrik doitzailea, baizik areago sakona eta parabolikoa bai Ertaroko eta bai ondorengo exegesia juduan bezala kristauan. Gertatu ere gertatu da, Bibliaren kritika ez ezagutzeagatik beragatik, hala ere testuaren aporiaren gaizki ulertze emankor baten bidez espekulazio harrigarri bat posible izan dela. Hala Filonek, Adamen sorkuntza bikoitza Genesiko liburuan bi iturburu desberdinen bidez ulertu ordez, hitzez-hitz hartu eta onetsi zuen. Ondorioz lehengizon lurtiar bat eta zerutiar bat ikusten zituen, azkena guztiz ez-teokratikoki Gizonaren Semera jasotzen duelarik Jesusengan, Mesiara, Logosera. Baina halako bat arauaren salbuespen paradoxala da, alegia kritikak atzemandako pasarte zatikatuak bakarrik direla *subertsibo estalitik* edo (Exodoko liburuan) *ezaba ezinezkotik* Bibliako ardatz ez-teokratikoen organona ezagutzeko moduan jartzen dutenak. Badago argi eta garbi lurrazpiko Biblia bat eta haren ikerketa Bibliaren kritikari esker egin ahal izan da, nahiz orain arte apenas hasi den; lurrazpiko Biblia bat bezala argikuntza heteronomoaren, teokratikoaren estalkiaren beste alde honetakoa bezala haren *contra* eta *ultra*. *Homo absconditus*-a, *Eritis sicut deus*-etik Gizonaren Semearenganaino eta haren zeruko tronu ez transzendente, baizik haren erreinu eskatologikoraino: horrek bihurtzen zuen benetako *Biblia pauperum*. Honen asmoa zen egiaz, Baalen kontra, "gizakia izaki zapaldu, baztertu, desagertu bezala azaltzen den harreman guztiak kentzea". Zentzu horretan aipatzen du bi Itunetan giza utopiaren erlijioa, ez ilusiozko zerbaiten utopia erlijioan. Edo, Marxen beste mugimendu batekin, Jainkoaren hipostasia erabat gure oinen azpian jarritz: "Jainkoa azaltzen da beraz bere egitasunean egin gabe dagoen gizakiaren izaeraren ideal hipotasiatu bezala; entelekia utopiko bezala azaltzen da" (*Das Prinzip Hoffnung*, 1959, 1523 or.). Halabada: lema ez da "desmitologizatzea", are gutxiago Prometeo -eta Baal- "kerygmatic" bereizten ez duena, baizik *desteokratizatzea* da Biblian salbatu beharreko testua ulertarazten duena. Baldin Bibliak etorkizunik izango badu, transzendentzia gabeko etorkizun horrekin transzenditzen duen neurrian eta horren bidez izango du. Lekuz aldaturiko gu-gainetikorik gabe, goi-goian, Zeusen gisakorik gabe, aldiz bai "aurpegi estali gabearekin" *potentialiter* gure-aurrean batean, gure benetako unean (*nunc stans*). Handik eratortzen den Bibliaren benetako *visio haeretica* beraz han

barruan, hain zuzen zere bere barru-barruan dago. Zapalkuntzaren kontrako haserre bizia (sarri zapaldua) hantxe dago eta lurra egunen batean beteko duen Guztiz-bestelako egiazko baten *itxarote* paregabeak zuzentzen du. Goi-goian Kronion trumoigilearen mitologia Jainkoaren bestelako ustemoldeek ere badute, baina sarri ez hori baino gehiago; Bibliak bakarrik jotzen du zuzenean itxaropen gizatiarraren Jainkoarengana, "osoaren" itxaropenera - "Osoa datorkenean, ordea, amaitu egingo da erdizkakoa" (I. Kor. 13, 10). Halako seinale batera begiratzeak -baina Bibliaren kritika guztiz bestelako batekin, hau da kritika *Bibliaren bitartez* eginez- bikoiztasun bat erakusten du ondorioz, lehenago baino zorrotzago ordea: idazteun bat herriarentzat eta idazteun bat herriaren kontra. Eta bikoiztasun hau zorrotzu egiten da bata bestearen aurka, azpian irakurtzen den, bera ere lurrazpiko izaki, apologetikoki itsutu ezin daitekeen Biblian. Hainbat pasartetan batarekin zorrotzen da: Nimroden munduan gizakiekin noraino heldu den; nora jo behar duen aurrerantz gizakiekin itxaropenaren erreinuan.

IV

EXODOA JABEREN IDEIAN BERTAN, DESTEOKRATIZATZEA

19

Ez orain arte bezala jarraikiz

Zerbait jaregin nahi da. Dena da hutsala, hori ere idatzita dago. Badu tonu bat zapaltzen duenak, baina baita ukatzen eta hautsiazten duenak ere. Eta hala berritu den oro ez da aurrekoaren aldean askoz bestelako. Aurreko hau ordea entzunez berri bihurtu den hori abiatzen den puntua da. Orduan gauzari leial zaionak eta hartan fida daitekeenak egiten dio horri kontra. Bestela halako hori lehenago ere ez zen jarriko kolokan eta bidean abiatuko.

20

Jesusen hitz harrigarri bat, erabateko irteera

Lehenago zena, aztertu egin behar da. Ezerk ez du balio berez, ohitura izango da beharbada, baina gure atzean geratzen da. Balio du bakarrik gure aurrean dagoen norantza aurretikoan bizirik dagoen edo ez dagoen neurrian. Baldin atzeraka lotzen gaituena faltso bihurtu bada, lokarria moztu egin behar da. Are oraindik gehiago hasieratik egiazkoa ez bazen, lotura bezala bakarrik egiazko bazen. Adierazgarria da nola Rut leiala ez zen itzuli atzera bera zetorren lekura, baizik itzuli gabe aukera libreaz berari zegokion lekura jo zuen. Baina zein harrigarriro zorrotz jotzen duen Jesusen ontasunak puntu honetan bera datorren lekua ez den beste alde batera. Zein desegoki sentitzen den Jesus, haragizko seme bezala ere, etxe eta obeditze zaharraren aurrean. Hori gairitu du, bere anatema hots egin dio, halakorik ez dago gehiago bere gainean. Aita-Ni zaharra amildu egiten da, jaio berri bezala jartzen da hemen bat pareko batekin, aita eta ama utziz, Jesusi jarraiki. "Eta bere ikasleengana eskua luzatuz, esan zuen: Hara, hauek ditut nik ama eta anai-arreba" (Mt. 12, 49). Hemen ihes egiten du Ni menderakaitz batek habi erosotik zuzendari eta guzti; hautaturiko dizipuluak bakarrik dira senide, senideago ordea oraindik bera eta besteak lotzen baina gehiago zapaltzen ez dituen erabat bestelako itun batean. Aita eta anai-arreba ez baina guztiz bestelako beste zerbait bihur daiteke hemen arrotz, Jesus baino askoz lehenago. Beldurrik bat ere gabe abiatu zen, bere kabuz, eta gazteria "hondatu" zuen.

21

Hausturaren irudi zaharragoak; lehen begiratu sugeari

Heldu bihurtzen denak ez du uzten inork erabil dezan. Eta berria betidanik behetik etorri izan da, finkatua zegoen ohituraren kontra jarri da handik aurrera. Hasieran hain zuzen asko dago eztenaren kontra ostikoka ari dena. Goitik behera landuta zegoen Idazteunean bertan ere ezin zitekeen hori erabat ezabatu, beraz madarikatu egin zen. Horregatik iraun egin zuen, zigorrak ez baitzukeen bestela lekurik izango, izutuz, nahi zen bezala. Hain erakargarri bezain esnatzaile den sugeak eman dio hasiera leloari; haren irudia ez da izan zinez hain sotala bere beste azalpen guztietan. Pozoia dauka, baina Eskulapioren makilan berriz sendabidea; amileko dragoia da, baina beste nonbait goi-goiko tximista argia. Eta lehen-gurasoak zoritxarreko egin bide zituenetik askoz geroago, suge idolo altxatuari zuzendutako begirada batek Israelgo semeak legenetik salbatzen ditu. Gezurrik esan ere ez zuen esan, landetako abere guztien artean maltzurrena baitzen; ez behintzat berak agintzen zuenaren punturik garrantzitsuenari zegokionez. Adami agindu zionean Jainkoa bezalako izango zela, eta ondoren Jabek Adam ikusten duenean, hala esaten du: "Hara, Adam gutariko bat bezalakoa bihurtu da eta badaki zer den on eta zer txar" (1. Moises. 3, 22). Baina zein motatako bekatu da Jainkoa bezalako bihurtu eta on eta txar zer den jakin nahi izatea? Han ez dago garbi, are bekatua denik ere, eta jaierratsuen baezinekin ondoren Jainkoa bezalako bihurtu nahi ez izatea jatorrizko bekatu bezala

ikusiko zuketen testu honek horretarako bide eman izan balu. Eta on eta txar zer den jakitea, ez al da hori edozein modutan gizon bihurtzea, Adam eta Eba oraindik zeuden abereen hortu soiletik kanpo? Eta nolako proportziorik eza Jaberren zigorraren (heriotzearen aizkoraren azpian jartzea) eta erruaren artean, azken batean "Jainkoaren irudi", lehenago Jabistak esaten duen bezala, inor izan ez badaiteke? Ez bada erru hau testuari oso egoki zetorkiolako (geroago goikoa oso zuri garbitzen dutenei bezala), hemen ordezeko lehen aker beltza jartzen den bitartean. Baina auziak daukan askatasun distira oso gaizki disimilatua dago hain zuzen ere pasarte honetan, lurrazpiko dei daitekeen Bibliako pasarte nabarmenen honetan. Horregatik gutxiago disimula daiteke, begiak irekiarazten dituen fruitua ez baita hazten belaki bezala, baizik berariaz, ezagutzaren arbolan, "eta arbola atsegin bat zela, zuhur bihurtzen zuelako" (1. Mois. 3, 6). Sugearen pasarte honek lurrazpiko Biblian behin eta berriro adierazten du azpiko mugimendua buruan argia daramala, eta ez esklabuen errugabezia huts eta makurtua. Beraz lelo honek aurrera segitzen du, zapalduta noski, baina horregatik beragatik beti da garrantzizko. Nahiz hasieran, testua ez bakarrik oso zaharra baizik areago gohibehetua izaki, desegoki zena eta barruan zeukana ez ageri hain garbi. Hala ere argitzen du, *cum grano salis*: sugearen izpiritua bizirik dago oraindik igareguan, bidea mozten zion gizonarekin *Jakobek* egunsentira arte izan zuen *borrokari* buruzko historian (1. Mois. 32). Baina Jakobek iztergiltza borrokan zehar zainartu zen arte ez zuen honek azpiratu, eta orduan ere Jakobek irmo eutsi zion oraindik. Egunsentira arte borrokatu zuen harekin; baina egunargitzearekin bere kontrarioak borroka bukatu nahi zuelarik (gaunumen ktoniko baten antzina-antzinako ezaugarria), ezagutu zuen Jakobek ez zuela gizon soil batekin ihardun igareguan. Hala ere ez zuen askatu kontrarioa, elkarri beren izenez galdetu zioten, hura ezagutzeak aztien erritoaren arabera izendatuaren gainean boterea ematen baitzuen. Numenak ezezkoa eman zion, baina jainko bat bezala aurkeztu zuen bere burua, are geroagoko testuaren arabera Jainkoa bera bezala. Horren ondotik ez dator inolako otoitz apalik edo are omenezkorik, egiaz ez dator otoitzik bat ere, baizik zin bat, zerua behartze bat, behartzen duena bertan gizakia delarik: "Ez zaitut utziko bedekatzeko ez banauzu". Israel (Jainkoarekin borroka egin duena) izen berria ere gaineratzen zaio Jakobi, hau da geroko leinuaren izenaren etimologia erauzi bat (1. Mois. 35, 10ean Jabek berak berriro egiaztatua). Ibaiko jainko lokal bati buruzko legendak eman bide zuen horretarako materiala: gaueko izpiritu bat, egunsentiari beldur diona; numen lokal hori ondorengo lanketan monoteistikoki gaineratuko zen. Halaber badu honek antzik Jabek Moises eraso eta hil nahi duen 2. Mois. 4, 24-26eko erailketari buruzko pasartearekin. Jabe mota hau Jabistak Jakobek pasartera aldatu duenean, Jabistak eta geroago Elohistak ere paradisuko kontakizunari Jabekin eta kerubin soilarekin (Jabista ez da guztiz bere aldean jartzen) estalki bat paratu diotenean, nabari geratu zen iraultza ildoarekin benetako lotura bat. Bidea mozten zion izpiritu lokal soil batekin izandako borroka ere iraultza litzateke halaber, Bibliaz kanpo oso gutxitan aurkitzen dena, hau da beldur demoniakoaren kontrakoa. Jabekin izandako borroka ondo atera zen, ondoren ez zuen izan zigorrik, eta kasik Joben borrokara bezain urruti doan begiratu posible bateraino zabaltzen du ikuspegia, eta zalantzarik gabe atzeraka sugearen hazitik hurbilago dagoen zerbaitera: *Babelgo dorregintza*-ra (1. Mos, 11, 1-9). Hemen ordeza zigorra dator ondoren, Edendik botatzeari hartaz sari txikiago bat erasten dion mendeku batekin. "Gizakien gaiztakeria gero eta handiagoaren" kontrakoa uholdea, deuseztapen izugarri kasik guztizko hau zenbait mende lehenago gertatua zen, eta orduan azaltzen da gizakien gaiztakeria beste alderdi eratzaile eta progresibo batean: "hiri bat eta dorre bat eraiki, gailurra zeruraino iritsiko dena, horrela ospetsu gaitezen". Haggadak, Bibliaren alboan eta haren ondoren bizi den herri kontakizun tradizioak, gauza askotan apezten zuzenketa eta zuzentasunik gabe "herriaren ahotsa" gordetzen

duenak, tradizio folkloriko eta beti apainduria soil ez den honek aipaturiko testua guztiz bestela tartekatzen du Midrash batean. Hala esaten dute hemen dorregileek: "Jainkoak ez du eskubiderik goiko mundua beretzat hautatzeko eta behekoa guri uzteko. Horregatik egin dezagun dorre bat, idolo bat gailurrean jarritz, eskuetan ezpata duelarik, Jainkoarekin gerra egin nahiko balu bezala" (Gen. R. 38, 7). Inportantziarik apenas duen testuinguru honetan, dorregintzaren legendako materiala benetan Babiloniatik badator, zazpi oinetako tenplu garai astral mitikoetatik badator alegia; hura han zegoen Jabistaren garaietan, 900. urte ingurutan, aspaldian bukatu gabe, hybris mendekatzailearen kontraerasoaren arketipo zahar baten adibide inolaz. Baina "Babelen ideia", Goethe gazteak Estrasburgeko katedralaren aurrean eta hura eraiki zutenen omenez deitu zuen bezala, Jainkoak bezala sortu nahi hau paradisuko sugearen aholkuaz uztartzen da zuzenean, hau da Jainkoa bezalako bihurtu nahi izateaz, izan nahi izateaz eta horregatik hizkuntzen nahasketarekin eta lurralde guztietan banatzearekin gaitzetsia izango da teokratikoki. Haggadak areago pasarte guztiz subertsibo batean Moisesen heriotza bera dorregintzaren arketipoarekin uztartzen du, hura zuzenbidearen kontra zela ohartaraziz noski, baina goitik behera datorrena bezala ipiniz. Pasarte hau erabat bestelakoa da pazientziaz bizitza bukatu, bizitza buka dakion onartzen duen 5. Moises 34ko pasartearen parean; gizakiak ez du alferrik jan ezagutzaren arbolatik, dorre oro heriotzean bukatzen bada ere eta ez zeruan. Haggadako kontakizunean Moisesek ez du hil nahi, Jaber bere hitza aurpegiratzeko dio: "Thorán idatzi duzu (5. Moises. 24, 15): egunean bertan eman behar diozu lansaria pobreaki, hori egin gabe eguzkia etzan ez dadin, zergatik ez didazu ematen neri nere egintzaren saria?". Jabek orduan bere bekatuak aurpegiratzeko dizkio Moisesi, eta haien artean kaporal egiptiarren hilketa, hau Egiptotik askatzearen lehen egintza izan ez balitz bezala. Goiaren kontrako dorrearen beste gailur honi buruzko beste bertsio batek -eta horretan ez da azaltzen gizakia- deblauki adierazten du Moisesek hil egin behar zuela, Jainkoaren berdintzat hartua ez zedin, Jaberren herio-aingeruak neke handiz azpiratu zuela azkenik, zerua, lurra eta izarrak negarrez hasi omen zirela Moisesen heriotzearen ondoren. Eta Jabek besterik gabe bere esku propioz ehortzi omen zuen Moises, haren hilobira erromes inor joan ez zedin eta bere orde zuzen hura adora ez zezaten; baina mundu osoa omen zen Moisesen hilobi. Honek bezain leial ez du beste legenda batek adierazi Jaberren ideia gizaki batenaren bidez truka daitekeela; trukagarritasun bat, bestalde, gizakia jainkoaren irudi berekoa dela dioen mitoan jarria zegoena. Apezgoak ez du mito hau ezabatu, eta fruituak eman ditu geroago mesiaren kategorian, bigarren Jainkoren kategoria bezala, Gizonaren Semearen kategorian. Hesitzen duen, hizkuntzak nahasten dituen, aurpegia itzaltzen duen Jaberrenaren ez bezalako bestelako irudi batekin noski: "Ez ari elkarri gezurka; gizaki zaharra eta haren egintzak erantzi eta jantzi berria bere egilearen arabera jakinbidean berritua" (Kol. 3, 9). Halako zerbait da, Jakob bere borrokaren azpian adierazten denarekin batera, balio duena, baina Exodoaren arabera bakarrik, Jaberren beldurrezko irudiak ere bere baitatik probatu duen irteeraren arabera noski. Borrokak berez ez du zoriontsu egiten, gurekin batera doan eta alda daitekeen seinalearen laguntza ere izan behar du.

22

Hausturak Jaberren beraren irudi teokratikoan; Exodoko argiari

(2. Mos. 13, 21) lehen begiratu

Baina gurekin doanak bere-berean beste era batean aurkeztu ahal izan beharko luke. Besterik ez bada goi-goiko baten kontra, haren aurrean mundu honetako jaunaren aurrean bezala morroi erretxindu baten gisan portatzen delarik. Gustoko zuen bezala hitz-egiten zion honek, agindu bezala eskaintzen zitzaion oparia, apaldu zedin. Horrek ehiztari ezkutuaren onginaia erakarri beharko lioke, hain zuzen ezkutuarena, beraz bi

bider harrapatu ezinezkoarena, gainetik kenduarena, gosea eta izurritea, baina era berean, pozik egon dadin emandako hamarrenak direla-eta, behar denean jakia dohan partitzen duenarena. Oparia kultu guztietan aurkitzen da, Bibliaz kanpo ere bai, baina Biblian oso goiz azaltzen da, eta gainera ez bakarrik apalduz, batez ere ez harrigarriro *Kainen legendan* eragozpenik gabe igotzen (1. Mos. 4). Hau zuzentzen zaio, eta hori da bere ezaugarria, erabat hitzartutakoaren kontra, ohizkoa eta aurkeztutakoa ez den beste Jainko bati. Eta hori, hemen oparia eskainiko zaion irudian bertan eten traidore, erdi estali batekin bakarrik. Ez baita ahortzi behar: Kainek soroetako fruituak eskaintzen dituenean, Abelek odolezkoak eskaintzen dituela, bere artaldeko lehen jaioak beren gantz eta guzti, eta Jabek Abelen opariari begiratu zion bakarrik onez, odolezkoan bakarrik pozten zen. Baina ondoren dator aldaketa, eta Kain izango da odoltsua, lehen hiltzaile bihurtuko dena, eta Jabe berberak (geroago Abraham bere semea lepo egiteko kapaz dela uste duena) madarikatzen du Kain. Baina gero berriro, Jainko berberak, lehengo gogorra, laugarren belaunaldiraino zigortzen duena ez balitz bezala, ez bakarrik arintzen du madarikazioa, baizik kendu ere egiten du. Lurraldetik gaizkilea erbesteratu ordez, beste lekuren batekoa balitz bezala, guztiz kontrakoa hots egiten du: "Ez, baizik Kain hilko duenak zazpi halako nozitu beharko ditu"; eta Kainen hatza deitua, ohizko iritziaren kontra, babes hatz bat da hain zuzen ("inork hil ez dezan"). Hori nahikoa ez balitz, hasieran anaiaren hiltzaile bezala aurkeztua eta madarikatua izan zenaren hazia oparo bedeinkatua azaltzen da: haren hazikoa da Jubalkain, "zitara eta xirula jotzen dutenen arbasoa", haren hazikoa da Tubalkain ere, "brontze eta burdin lanetan maisua". Anaia hil zuela hainbeste azpimarratzen duen testu helarazian, bada areago zulo bat, oso adierazgarria, dagoeneko Masoretetik seinalatua (1. Mos. 4, 8), 8. bertsikuluan bertan alegia, kanpora utzitako zerbaiten zuloa hain zuzen: "Orduan Kainek hitz egin zuen bere anaia Abelekin... (!) Eta orduan gertatu zen, biak soroan zeudela, Kain bere anaia Abelen kontra altxatu eta hura hil egin zuela". Soroetako fruituak bakarrik eskaini zituen eta horregatik odola atseginez edaten zuen Jaberren haserrea bere gainean jaso zuena, Kain hau berbera, kanpora geratu diren hitzekin, ez da egokitzen lehengoarekin hiltzaile bezala. Neurri batean, bera salbatzen duen Jainkoa geroago madarikatzen eta odola gogoko duenarekin egokitzen ez den bezala; bien arteko irudi aldaketa ezkutaezinezkoa da. Judutasun berantiarrean izan zen Kainiten sekta bat, 8. bertsikuluan kanpoan utzi zen hartan endredu bat antzeman uste zuena, hau da bertsikulua behartu, irauli eta hain zuzen Abel errudun egiten zuen sekta bat. Handik dator beraz Kainiten esatera: "Odolean du atsegin mundu honetako jaunak", hau da: bera ez zen beste bat hain zuzen, Abrahamen opariaren gaitzespenean bezala, omen zen aurkeztua, bere burua hobe bezala aurkeztu zuen bat. Horrela beraz une berean aurkitzen gara, aldeztu aurretik inolaz asmaezinezkoa ez baina hazi egiten den Jainkoaren ideia haren alor hartan, non Jainkoak -nolako erorketa berrirekin, ordea- gizonak gehiago iresten ez dituen. Behin eta berriro Moloken gisakoan eroriz, buztan-moko mozketako odola ez dariolako (2.Mos. 4, 24-26) Moises eraso eta hil nahi duen numenetik hasita onartua den azken giza-opariraino, Paulorengan Jesus deitzen deneraino. Hala ere ezin jarri daiteke -bere beraren gezurtapen garbiago bat Kainen seinalea baino- Isaaken opaltze gaitzetsia erabat zerrenda odoltsuan. Hasten da noski despota itxurako proba batekin, Abraham morroiaren zakurren pareko obedientzia, haren giza sentimendu hilduratuak eta ez haren adimen hilduratu probatu nahi baititu. (Horregatik Kierkergeardek hutsalki goraiatzatzen du Abraham "Jainkoaren aurrean une oro kulpaz izatearen kontzientzia zoriontsugilearen" adibide bezala jarritz). Noski, Abrahamek Jainko benetan gehiegizko baten aurrean proba gaitzetsi zuenean, Jaunak amore eman zuen eta semearen ordez aharri guztiz errubako eta beste era batean babesik gabea onartu zuen. Baina ondoren dator Molok erabat hausten eta une berean erne jartzen duen pasarte (1. Mois. 22, 14):

"Moisesek toki hari Moria izena ezarri zion, Jauna *ikusten den* tokia". Eta ahariaren oparia bera, guztiz alde batera utziz gizakiaren oparia, kultuko gai iraunkor izan bazen ere, profetengan gutxienez, Jaberri buruz zuten ikuspegi ez paganoan, ez zen izan gehiago Jainkoaren hain gogoko. Horrela soiltzen da hain zuzen profeta handi zaharrenean, Amosengan, Jaberriren ideia opariaren usainetik eta atsegin jainkotiarretik guztiz urrun. Beste era berri batean aipatzen den numenak, berriro ere haren onginahia erakarri behar bada ere, ez ditu behar Abelen jaioberriak ezta Isaaken artaldekoak ere, haien odolik eta gantzik behar ez duen bezala. Beraz: "Zuen jaiak gorroto ditut eta gogaikarri zaizkit, eta zuen batzarreak aspertu egiten naute. Opari erreak edo jai opariak eskaintzen badizkidazue ere, ez dut atseginik horretan; ez ditut begiratu nahi zuen esker opari finenak" (Amos 5, 21-22). Zein urruti dagoen hau jaioberri eta hamarrenetatik, baita gizagaindikoak eta hain sarri gizakonstrakoak pozik edukitzeko leinuetako idoloek aldiari aldiari eskaini behar zitzaizkien gerrako presonerren hilketetatik ere. Lurren jabe eta zerga hartzaile jainkotiarren aldaketa posiblean dagoeneko azaltzen da hain zuzen: gizakiaren aldatu nahiari datorkio benetako aldagarritasun bat, mugikortasun bat Jaberriren ideian bertan ere. Zeus, mito greko guztian zehar, tinko dago esferan bertan ere, Parmenidek, guztiz sekularizaturik, hura definitzen duen bezala. Jaberriren irudi zaharrak, sarri oraindik ekialdeko despoten portaera erori eta behin eta berriz goitik beherako zapaltze estatiko zuzen-zuzenez beteta egon arren, inondik ere erakusten du, inolako beste jainkok ez bezala, badagoela aukerarik aldaketarako, lagun egiteko, berezitasunen erromesaldirako. Azkenik hala gertatzen da erarik indartsuenean, orain berriaz gogora ekarri behar den bezala, Moises berarengan, haren aurrean nolabait esateko, suaren ikuskizunaren ondoren honek bere izenaz galdetu zionean. Eta kontutan hartu behar da Jabe hau ez zela bihurtu Biblia honetan iluntasunean jargoia daukan Jainko baten, ezta antzina-antzinakoa den baten, betiko Aita-Ni tirano izan eta horregatik ahitu den baten inolako oroitzapen. Baizik opariaren demonioa azkenik ikusten den Moria mendia makurtu egin zen, bere ideia bera ere (irudikatzea) etorkizunean ("Eh'je ascher eh'je, Izango naizena izango naiz ni", 2. Moises. 3, 13, "Egiptoko zamapetik askatuz"), erabat irteera batean eta haren itxarote dimentsioan jartzen duenez. Halako imago batek (hura askoz geroago egiazko irteeran nolens volens egotzi bazen ere) lehenagoko munduaren jaun asebeteari berari zailtasunak sortzen dizkio eta hori Kainen seinalean, are Abrahamen opariaren baino era dualista askoz nabarmenagoan. Orain Jaberriren orainarteko ideia ororekiko exodoa posible zen azkenik Jainko hitzaren azpian pentsatuaren egiazko izateko modu bezala harturiko futurum honekin, Abrahamen lehenagoko promesa tartekatu guztiekin baino hobeto gainera. Exodoaren Biblia orain egin zen posible, Faraoiarengandik aldeginenez eta haren kontra, honek ere, Jabe berak bezala, Egipto bakarrik sortzen baitzuen eta ez Kanaan, ez "zeru berria eta lur berria": labur: gehiago lurpeko bakarrik ez den Biblia batek iraultzailetik, profetikotik, mesianikotik daukana eraginkor bihurtzen da bide erdian bezala aurkitutako "Eh'je ascher eh'je" baten Morian.

Askotxo itxaron beharko zen, harik eta gisako aurrehartzeari fidatu arte. Jaunak sarriegi huts eta traizio egin ziela sentitu behar izan zuten, harik eta apezek salbatzailea etorkizuneko bakarrik zela aitortu zuten arte. Era horretan "Eh'je ascher eh'je", norantz erromes bat ez bakarrik basamortukoan, baita denboran ere gerta zedin. Jabe noski Israelgo semeentzat ere Jainko berri bat zen, I. Moises. 4, 26an tartekatu den testua arren, han izen hau isolaturik azaltzen baita atzerantza bezala aurrerantza. Arbaso legendarioetako, beren leinu beduinoetako Jainkoa El deitzen zen, baita Schaddai ere; Genesia hasten da Elohim plural ez henoteista ezta monoteistarekin. Jabe geroago ere antzinako Jainkoaren irudien ondoan jarri izan denean ere, Jainkoaren ideiak israeldarren aldagarritasun berezia daukala egiaztaturik geratzen da hain zuzen izen

ugarien bidez. Jabe bera, Jainko guztiz jeloskorra, orain erabat bakarra, bere ibilbide propiorik eta etorkizuneko irekitasunik bat ere gabea, jatorriz Sinai inguruan beren larreak zituzten keniten leinuko Jainkoa zen. Jabe ("haize, ufa egiten duena") garai hartako Sinaiko ekaitzaren eta sumendiaren Jainkoarekin bat zetorren hemen guztiz. Era berean bapatekotasun honek, ustekabekotasun honek, *Tremendum* zalantzarik gabe goren honek ke eta trumoiekin Egiptoko ihesaren ondoren Moisesek kenitengandik hartu zuen Jauna adierazten du, leinu hartan ezkondua baitzen; Sinaiko sumendiarekin lotuta dago era berean askoz geroago Salomonen tenpluan (1. Erreg. 8, 12) "Iluntasunean" bizi nahi zuen Jauna ere. Are gehiago oraindik leku eta pasarte berean: "Sinai mendi guztia ketan zegoen, Jauna hara jeitsi baitzen sutan, eta kea igotzen zen labeko ke bat bezala, mendi guztiak dardarka egiten zuelarik" (2. Mois. 19, 18). Oso urruti oraindik Jainkoaren berezitasunak gizakientzat eredu bihurtuko zuten soilunetatik. Oso urruti orobat Moisesek "Eh'je ascher eh'je" hartan bere aurrean zeukan egun hartatik, bere-aurrekoaren futurum ireki bezala Jaberren beraren ideia propioenean. Erabat mendi naturalik gabe goi-goian, gure-gaundikoaren ortzi astral-mitikorik edo zero guztiz zabaldurik gabe. Eta horrela gaineratu behar zaio "Eh'je ascher eh'je"ren guztiz alde honetako, hau da, gizatiarrezko ertzean dagoen puntu erabakior haxe: Moisesek gogora ekartzen du altxatu den sinbolo hau "*morrontzatik irteteko bide erakuslearen*" sinbolo propio bezala, askatasunaren itxaropenaren *ikurrin* eta horizonte bezala. Une berean zapalketaren eta ekaitzaren idolo den bat mundu honetako gidari eta urrutiko helburu bihurtzea posible egiten duen aldaketa honek ez du parekorik historian: Moisesek zin baten bidez egiaztatu du hori, baina hala ere oraindik hain iluna eta mehatxugarria den Jaberren ideian bazegoen inolaz lekurik eguneko hodeiarentzat, gaueko suzko pilareentzat, *exodo bat basamortuan zehar Kanaan aldera* erakartzen duenarentzat. Eta eskualdeko exodoan, balioaren aldetik inolaz konbara ezin bazitekeen ere, bazegoen lekurik geroago menpekotasunaren jainko soila edonola sublimatuz tarte bat egiteko Ituneko liburuko moralak sortzen duen Jainkoarentzat, erre-opariak eta esker-opariak eta kultu oro arren: Hamar aginduek "Israelgo mediku" bat hipostasiatzen dute, geroago esango den bezala, baina ez gehiago bere morroien segizioari kontrakoa ere eska diezaiokeen autokrata ahalguztidun bat. Horregatik esan zezakeen Amos profetak, oparien bezala kultuaren Jainkoari exodoa egozten dionean: "Zuzenbidea ordea ura bezala azalduko da eta nere eskubidea ur-korrante indartsu bezala" (Amos 5, 24). Horrela esan zezakeen Isaiak, hainbeste *Kiddusch-haschem*, giza pneumaren bidez izenaren hainbesteko santutzea gertatu ondoren, antzinako jaun odolzalearengatik, sumendiko Jainkoarengatik, are Sabaotheko Jainkoarengatik "Israelgo Santua" zela. Honek, erreboltari esker, humanuma Bibliako Jainkoaren hipostasian sartze hasi berriari esker, harekin guztiz bat ez zetorren grekoak ez bezalako beste zerbait adieraz zezakeen: "Zeus ozenegi eta zaratatsuegi portatzen den ororen zigortzaile bezala dago jarria, eta epaile oso zorrotza da" (Eskilo, *Persiarrek*). Zein harrigarria, horren aldean, etortzeko dagoen Jainko bat, zuzentasunaren itsaso bat, Isaiak ez presenteki, guztiz utopikoki esaten duen bezala; eta hari bakarrik zor zaio orain benetako alabantza. Zenbatetan gertatzen den noski antzinako gorteko zerbitzu betea eta antzinako teokrazia sinetsi hura, egitekotzat dardara sortzea zuena; eta maiestateak zapaldu egiten du, hain sarri salmoetan, are profetengan ere. Baina Faraoia eta hark sortu zuen Egipto atzean uzten dituen Exodoko argia ezin desegin zitekeen, eta horregatik munduaren sortzailearen irudiak eta ez bakarrik munduaren jaunaren irudiak desagertuz joan behar zuten helburu-numenaren irudiaren eta haren hiri ez iraunkorren aurrean. Eta hori are gehiago, basamortuaren ondoren agindutako lurra egiptiarrago azaltzen zen neurrian. Are gehiago Kanaan *existentea* ustelago azaltzen zen neurrian, oraindik bera ez den,

bera aginduz soilik eta onenean bere hitzari eutsiz etorkizuneko baino ez den Jainko baten arabera.

23

Nazirtarrak eta profetak, Jaberren irteera pro-bidentzia etiko unibertsalera

Hala, bada, herria libre zen, adreiluak garraiatzeko. Baina agindu zitzaion lurrean, oso gogor borrokatu ondoren ere, ez zituen dastatu esnea eta eztia. Gosea ez zen desagertu, aldiz ugaltu egin zen; soro oparoak, hara berrogei urteren buruan iritsi ondoren, nekerik handienaz hartu behar ziren. Behin eta berriro azaltzen ziren etsai berriak, palotea eta ezpata biak batera erabiliz eraiki zitekeen bakarrik etxea. Bizitza seguruagoa egin zenean ere ez zuen amore ematen zapalkuntzak herriarentzat. Egiptoko kaporalek izena besterik ez zuten aldatu, hiri israeldarretan zeuden orain eta eskuraturiko ondasunen gainean. Bere agintaritza berri propioaren azpian herriari dezepziorik handiena etorri zitzaion, are basamortuko nomada garaikoa eta Egipto baino lehenagokoa baino okerragoa zen bizitza. Beduino israeldarrak Kanaango pobre-aberats sailetan sartzearekin leinuko antzinako bizitza sotila, neurri batean lehen-komunista, galdu egin zen. Gutxi batzuen aberastasunak hemen ere, alde eta garai guztietan bezala, askoren pobrezia ekarri zuen, herri-ondasuna galdu egin zen, jabego pribatua azaldu zen haren orde, eta harekin batera jaun eta morroiaren arteko bereizkuntza ezaguna etorri zen. Zordunak esklabu bezala saldu zituzten fededunek, lur jabe handiek uzta atzerrira esportatu zuten prezio altuagotan, eta horrela urritasuna sortu zuten etxean. Epaileen liburuak, heroen garaia dela-eta, estali egiten ditu sarri halakoak, baina Erregeen bi liburuak goseteei eta haiekin loturik dauden kontrakoei buruzko berriei beterik daude: "Gosete handia zen Samarian" (1. Erreg. 18, 2); eta halaber: "Erregearen (Salomonen) egitez, harria bezain ugari zen zilarra Jerusalem" (1. Erreg. 10, 27). Familia patriarkala bera eta auzotarren arteko lotura zuen herriko komuna moduko mugatua ez ziren erabat galdu, baina leinuko lotura bere oinarriarekin, herri-jabegoarekin, amaitu egin zen. Une berean Jaberren ideia aldatu egin zen; garaipen ekarle bezala eutsi zitzaion aurreko jaun Baal iraulien kontra, baina berriekin bere aurpegi beduinoa, are benetako Moisesstarra, morrontzatik ateratzen zuenarena, galdu egin zuen. Ezkontza nahasiek eta jaunek kanaandarrekin zituzten negozioek haien jainkoekiko harremanak ekarri zituzten, baalim-ak ibai eta mahastietako jainko bihurtu zirelarik, emankortasunaren jainko lokal bezala; Jabe aldiz arrotza zen Kanaan, ez ziren harenak ez aiena ez pikondoa ez gordea ez etxea. Bera azken batean paradisu bezala imaginaturiko larreetara joaten ziren herrien Jainkoa zen, ez zen lur jabeen Jainko bat, haien lekuetarako ez zuen balio bere bedeinkazioak. Handik, beraz, "Jainko-izunkeria" iraunkorra, ekonomiaren aldetik bezala magikoki eta erlijiosoki baldintzatua: Baali, ez Jaber, eskatu behar zitzaion zokorra bedeinka zezan. Hari zor zitzaion antzinatik uzta berriaren hasikina, hari eskainiak zitzaizkion antzinatik Kanaango uztako esker festak, Jaberren tenplua apaintzeko erabiliko ziren "aldareko adarrak" bezala (Amos 3, 14). Hala eta guztiz ere Jabek iraun bazuen, Baalen santutegiak, Sikhem eta Bethel, haren aurrean bota baziren, lurraren emaitza "Jaberren landare" bezala azaldu bazen eta Baalen uzta festa Passah israeldar, etxolen festa eta antzeko bilakatu baziren: atxikitasun hau hain zuzen Jabek berarekin gertatu zen eta beti berarekin loturik azaltzen zen garaipenaren oroitzapenari bakarrik zor dio. Bera ez zen soroetako Jainko bat, bai ordea Kanaan ere, zeruan goian, Baalim eta errege guztiak baino gorago, indartsu ikus zitekeen tximistaren Jainkoa. Orobat azaltzen da Deborahren kanta oso zaharrean, indartsu eta gogor bezala, haren bitartez apalek boteretsuen gain menderatzen dituztelarik, "berri bat hautatu du Jainkoak" (Epaileak 5, 8). Eta hala ere: Jaber gero eta erru gehiago botatzen zitzaion herrian, garaipena ez bazen, garaipenaren fruituak galduarazten zituelako; lehen

zalantzak entzun ziren Gurasoen Jainkoari berari zegokionez ere, hain aldakor zelako. Jeremiak (15, 18) horrela lehenagoko gauza asko entzuteko moduan jartzen ditu, berak Jaberri arrenkuratzen dionean "urik eraman nahi ez duen ibai bat bezala bihurtu zara, erreka atzipekor, inor fida ezin daitekeena". Horretan azaldu ziren, hain zuzen beduinoen garaiko tradizioetan oinarrituz, kontrako erdi nomada batzuk, klaseen arteko banaketaren bezala Baal-Jabe baten kontrakoak; *nazirtarrak* ziren. Eta ez zuten predikatzen ideal erlijioso berri bat baino ezer gutxiago (antzinakoaren maskara azpian): Bizitza *sotil herritarrera* itzultzea, Jabe *pobreen Jainko* bezala. Nazirtarrek bazuten lotura kenitekin eta rehabituekin, Moises ezkondu zen leinuarekin alegia, hartatik zati bat Israelekin Kanaanera etorria baitzen (Epaileak 4, 11). Rehabitak ordea nomadak ziren betiere, herri jabegoa zutenak, jaun eta morroirik gabe; ez soroen kulturak ez Kanaango jainkoek limurtu zituzten eta Sinaitik zetorren Jaberriaren kultuari leial eutsi zioten. Ardoa gaitzesten zuten (Islamak beduinoen ohitura egiazko hau gorde eta santutu egin du), eta Jeremiaren garaietan oraindik, ez bakarrik rehabituen garbitasun hau, baizik haien bizitza nomada Jaberriaren oso gogokotzat jo ohi zen (Jer. 35, 5-10; 18, ur.). Eta hain zuzen rehabitak, garai hartako Tel Aviven, are garai hartako Kapuaren etsai hauek izan ziren nazirtarren edo nazariten (*nasir*, aukeratua) mintegia, hau da sekta bat, erakunde ez esatearren, Moisesekin, ez arrazoirik gabe, lotu ohi zena (4. Mois. 6, 2-5). Barauarekin batera, nasirtarrak ez zuen uzten labanak ilea uki ziezaion; ilean zeukan, Sansonen mitoak gogorarazten duen bezala (Epaileak 16, 19), nazirtarrak bere indar magikoa, inolako bezatzek deuseztatzen ez zuena. Eta antzinateko erakunde gutxi, bere izaera aszetiko, antikanaandar eta erronkagile guztiarekin, iraun du tinko Biblia osoan zehar nazirtarrenak bezala. Sanson, Samuel, Elia nazirtarrak ziren (Epaileak, 13, 5; 1. Sam. 1, 11; 2. Erreg. 1, 8), baina hala zen Joan Bataiatzailea ere, basamortuko irudi latz hura: "Gamelu-ilezko jantzia zuen soineko eta larruzko uhala gerriko; matxinsaltoak eta baseztia jaten zituen" (Mk. 1, 6), eta bere amari iragarri zitzaion: "Handia izango da benetan Jaunaren aurrean; ez du ez ardorik ez pattarrik edango" (Lk. 1, 15). Halaber nazirtar baten iragarpena bera jaio aurretik doa Biblian aldenik alde, aldian aldian erabiltzen da Sanson nazirtararentzat (Epaileak 13, 14), Samuelentzat (1. Sam. 1, 11), Joan Bataiatzailearentzat (Lk. 1, 13); eta iragarri guzti hauetan ez zen inolaz aberatsik zerura iritsi. Nazirtarrek talde bezala Mammonen kontrako bestelako sekta judu berantiarrekin, eseniarrekin edo ebionitekin (*Ebionim*, pobreak) loturarik izan ote zuten, ez dago hain garbi; ziur dena da ordea: maitasunezko komunismo lehen-kristaua ez zen etorri "*Erregeen* liburitik". Israelen kenitenganaino bertaraino doan tradizio batean har zezakeen oinarri eta nazirtzan gorde zen herri jabego nomadaren, are nomada-aurreko lehen-komunaren oroitzapenean. Nazirtarra gizaki natural bezala, bera zen "provo" bezala azaltzen zen, baina ibiltari bihurtzen zen, bera bezalako *beste saileko* irudi arrotzekin topo egiten zuen bezain laster: Bibliak hain zuzen profeta (*nebiim*) deitzen dituen *dervitxe* israeldarrekin. Hauek zerikusi gutxi dute geroagoko profeta israeldarrekin: Amosek gaitzetsi egiten du haiekiko nahasmendu oro, neurritasun ironiko batez (Amos 7, 14); geroago profetak bidali bezala sentitzen ziren, ez hartuak bezala. Berez nazirtarrak urrun zeuden Jaberriaren xamanengandik; adurjario hauek izan ere kontrako alorretik baitzetozen, Baalen kultuko alderdi orgiastikotik, alegia. Baalen profetek bezala atalen estrokatzea eta norberaren zauritze odoltsua egin ohi zuten hauek ere (1. Erreg. 18, 26 eta 28); Eliarentzat sasiko ziren; musika orgiastikoz erotzen ziren, saldoka erortzen ziren eromen profetikoan (1. Sam. 10, 5). Irudi zapuztu hauetako batzuk noski ez zuten botatzen adurra Baalontzat, Jaberentzat baizik; Baalen erakunde batek ziharduen hemen salbuespen bezala ez jaunaren aldareen alde, ezta Akhab eta Jezabel berrien alde ere. Nazirtarren izaera erdi-nomada ere lotu zen azkenik nolabaiteko bohemio magiko batekin: Samuel hain zuzen profeta sailen burutzat aipatua

da (1. Sam. 19, 20), eta Elias eta bere ikasle Eliseo ere buru izango ziren noski. Hala eta guztiz ere, beraz, gertatu zen azkenean hartuak, arkaikoak soilik zirenak, entzule, epaile, itxarotzaile bihurtu zirenari esker, ezinbesteko lotura egin zutela nazirtzak eta egiazko profeziak, hau da *prediku sozialak* eta *Jabe berri baten eta bere egunaren nahiak*. Samuel, 1050. urte inguruan, filistarren arrisku garaiko erregegilea, ez zen sartzen barneko politikan, baina Eliak, 850. urte inguruan, Akhab erregea eta Jezabel tiroarra mehatxatu zituen, Eliseok berriz dinastia osoa desegin zuen. Hala, beraz, Kanaan Kanaan ez zenaren esperientzia *basamortuko Jabek Israel uztearen* bidez argituko zen. Hau irteerako Jainkoa zen betiere, baldin nomada garaiko elkarre sotilera eramana bazegoen ere. Nazirtarren eragina, nekazaritza aurreko oroitzapen lehen-komunista zegoen atsedean eta jubileoko urtearen sorkuntzaren oinarrian ere (3. Mos. 25, 5-17, 23-25); hemen irauliz ez bada, bai zati batean eraberrituz. Guztien poztasunaren, lanaren eta lurraren atsedean, jabego pribatuaren erlatibizatzearen eskakizun bezala zazpi urtero, berrogeita hamar urtero. Jabe ez zen igaro maila honetan leinuko jainko baten imago zaharretik probidentzia moral unibertsal batera, profetengan ikusten den probidentziara. Baina nazirtarren predikuak Israelgo klaseen gizartea ukatu zuen, leinuaren garaia bakarrik egotzi zitzaion, aberatsik eta pobrerik gabe, gaiztokiro amaitarazi zen garaia. Era horretan Jabe garbi geratu zen Kanaan bere promesak bete ez izanaren lotsalditik: Mammonzale berria, herriaren lukurreroa zen leial izan ez zena, ez Jainkoa.

Baina zalantza hor zegoen, eta lehen-gurasoen moralak ez zuen baztertu ahal izan. Egoera gero eta txarragoa zen, goseteari etsai handien eskutik zetorren herio-arriskua gaineratu zitzaion. Erabat beste gisakoak ziren konkista garaian edo Saulen azpian borrokatu zituzten erregetxoaren parean. Zer zen Goliat Asiriako gerrako gurdien aldean, zer Salomonen loraldi laburra haren ondoren etorri zen mila urtetik gorako beldurraren parean. Profeta berriek horregatik, Amos ezkerotik, aberastasunarekin batera beren estatua munduko merkataritzan nahastea ere borrokatu zuten. Horrela Nilo eta Eufrates ondoko indar handien aurrean beren lurraldea salbatuko zutela uste zuten, hura nolabait ikustezinezko bihurtuz. Asmo demokratiku bakezale nagusi honek, nazirtarren asmoarekin lotua, neurri batean haiekin uztarturik baitzegoen jaun kanaandarren distiraren kontrako gorrotoan, profeten prediku moralak zeukan aurretik eta ekonomiaren eta politikaren aldetik haren oinarrian dago. Erdian jarritako Palestinako estatu honek Egipto eta Asiria etsaien artean neutral izan behar du, zuhurtziaz Jainkoaren eskuetan itxaroten duen lur bezala. Arrazoi gehiagorik beraz indar handien egiturara, haien diru, lur zabala eta luxuzko merkataritzara barneko bezalako kanpoko hurbilketa orotik apartatuz. Baina horri gaineratu zitzaion prediku *sozial moral* indartsu bat, antzinako bonbonkeriaren ilauntze oro gainditzeko duena. Jaberaren lehen nahi gizatiar bezala pentsaturik doa Amosengandik Isaiasenganaino eta geroago: "On egiten ikasi, bila zuzen dena, lagundu zapalduari, jagon umezurtzen eskubidea eta bultzatzen alargunen auzia" (Is. 1, 17). Lukurreroak eta nekazarien zapaltzaileak Jaberari nazka sortzen diote: "Zuzenbidea espero du, hara, odol isurketak daude, eskubidea, hara arrenkura. Zori gaiztokoak etxeari etxeak erasten eta soro bati beste bat gehitzen diotenak, arbolarik gehiago geratzen ez den arte, beraiek bakarrik lurraren jabe direlarik" (Is. 5, 7. ur.). Guzti hau nazirtarren ondare da, bestela ere beraiek profetei, beduinoen garaiari dioten maitasuna bezala, haurtzaroa, Israelen eta Jaberaren arteko ezte garai bezala, Oseak dioen eran. Jabego pribatua ez da noski gehiago borrokatuko nazirtarrek borrokatzen zuten bezala, gizon orok bere mahatsondoaren eta pikondoaren azpian eseri behar du, baina arrazoi eta helburu duelarik ez dadila gehiago morroirik izan ezta eguna heldu aurretik itoko denik ere: "Lurra haren gaiztakeriagatik zehatuko dut eta jainkobakoak haien hobeenagatik, eta harroen handinahiari amaia emango diot eta tiranoen hantustea

apalduko. Urre gorria baino garestiago egin nahi dut gizona eta gizakia Ofirko urrea baino baliotsuago" (Is. 13, 11 ur.). Hau nahi duen Jainkoa ez da zalantzarik gabe munduko *Fifth Avenues* desberdinetan elizak eskaini zitzaizkion eta eskaintzen zaizkion Jainko bera; ezta, Thomas Münzerren zin solemnearen arabera, herriaren opio ere: "Honela mintzo baita Jauna: ahaltsuari harrapakina kenduko zaio eta indartsuari atxiloak ihes egingo dio; eta zure erasotzaileei borroka egingo diet eta zure semeak salbatuko ditut. Eta zure zapaltzaileei beren haragi propioa janaraziko diet eta beren odol propioa edango dute ardo gozoa balitz bezala; eta haragi orok ikasiko du, ni naizela jauna, zure salbatzaile eta askatzailea, indartsua Jakobena" (Is. 49, 25 hur.). Hauxe da eduki sozial eta morala profetengan; ezta dagorri bihurtuko zen hori erabat prediku iraultzaile *sozial apokaliptikoaren* bidez. Honek kanpotik zinez badirudi antzina-antzinako bekatu-ordain lotura erabiltzen duela. Zoritxarra horren arabera zigorra da edo bezatzeko makila hezitzailea, baina zintzoak zigorrik gabe jotzen du argira, denek jasotzen dute soldata ondo banatua, Kanaaneren ere, eta hain zuzen hemen. Hala ere predikua ez da amaitu itxuraz akatsik gabeko goiko justiziaren automatismo honetan, harekin hasten dela ezin uka badaiteke ere, eta *bekatu-ordaina truke forma* profetek azken bezala gogora ekartzen badute ere. Horregatik da gogoan hartua beraz eta gero, subertsiboaren behin-behineko eten batekin, goitik beherako ordezkio ordainketa bezala. Eta horrek, beraz, Kanaaneren gertatuko zoritxarragatik Jabek zuen erantzukizuna, profetarik gabe ere, arintzen zuen; horregatik Joben adiskide pastorek, zintzoek, oso berandu ere zio mekaniku hau erabili zuten. Gedeonek hasiera-hasieran, gerrako zoritxarrean, galdera egin zuen, gero profetei azaldu zitzaiena, eta gero Jobengan osatuko zena: "Jabe gurekin bada, zergatik atera zaigu guztia gaizki? Eta non dira haren egintza harrigarriak, gurasoek guri azaldu eta esaten baitziguten: Jabek atera gaitu Egiptotik?" (Epaileak 6, 13). Galdera honi Jeremiasek eman zion -beti oraindik bekatu-ordain berdintasunezko loturan- ortodoxo bihurtu zen erantzuna, baina hura ahitu gabe: "Eta Israel zure herria Egiptotik atera zenuen... eta haiei eman zenien haien gurasoei emango zeniena agindu zenien lurra, esnea eta ezia darizkion lurra. Eta hara iritsi eta hura hartu zutenean, ez zuten entzun zure ahotsa, ez zure legea bete, ezta agindu zenienik egin ere; horregatik etorri zaizkie gainera zoritxar guzti hauek" (Jer. 32, 21-23). Hau noski ezer baino lehen Jaberena apologia da, Jainkoa zuritu nahi duena, gizakiei erruak botatzen dizkielarik eta gizakiak, gaizkia egiteko askatasuna badute ere, heldutasunik gabeko bezala aitortzen dituelarik. Bekatu-ordainaren predikuak hasierako bultzada bat moldatzen du moral apokaliptikoan, benetako bekaturik gabeko ordain baterako Jainkoaren erabakia, ustez igertezinezkoa, profeten ustearen guztiz alderantzizkoa, hantxe bertan bazegoen ere. Are profetak berak ere, *deus absconditus*-aren guztiz bestelako ideia sartzen duelarik, hari dagokionez Jainko Jaun batekiko okerrak ulertze arriskutsua ez zuen berariaz blokeatu, aldiz Jaberri esanarazi ere egin zion: "Nire pentsamenduak ez dira zuen pentsamenduak, eta zuen bideak ez dira nire bideak" (Is. 55, 8). Benetako *berezitasun profetikoa* aldiz etorri zen *moralitasun askeak patuari dagokionez azkeneraino, bereziki azkeneraino eskatu gabe lagunegitetik*. Lagunegite honek, orratzaren jarrera berri honek markatzen du aldea Jonas Profetaren eta haren bidez gauzatu zen (berak ulertu ez bazuen ere noski) Niniberen hondamendiaren aldaketaren, alde batetik eta bestetik Kasandra "profeta" grekoaren artean, honek Atriden kontrako madarikazioa iragartzen bazuen ere, ezin baitzuen egiaz haren aldaketa gauzatu (cfr. *Das Prinzip Hoffnung*, 1514 or.). Lehendabizikoa *kontra-jotzearen prediku morala* zen bere Novum biblikoari dagokionez, hemen esaldi honetaraino luzatzen delarik: "Egin penitentzia, zeruetako erreinua hurbil baitago", eta beste harako kasik teurgikoraino: "Itzul zaitezte, zuen bekatuak ken dakizkizuen; horrela iritsiko zaizue Jaunaren aldetik atseginaldia" (Ap. eginak 3, 19 ur.). Profetek hautatzeko

askatasun heldu bat irakasten zuten, finkatutakoaren gainetik zabaltzen dena, gizakiaren erabakiaren indarra irakasten zuten. Horregatik profetek ez zuten hitz egin etorkizunaz kategorikoki, finkaturik legokeen etorkizun bezala, baizik hipotetikoki, alda daitekeen, ordezkorik eduki lezakeen etorkizun bezala. Horregatik dago halako aldea Kasandraren eta are Tiresias ikusle kontenplatiboaren artean eta Isaiaren artean; horrek bereizten du Israel profeziak sinesten zituzten gainerako herrietako augureen azalpen pasiboetatik. Gizakiak bere eskura dauka gutxienez bere patua, eta Jainkoaren ideia ez hominizatu, bai ordea humanizatu batek eman beharko lioke horri oinarri, Kanaan gaindi iragartzen duen batek, alegia. Leku jakin bateko ez bilakatuz, beraz Baalen santutegietatik hartutako ordurarteko kulturik gabe: moralaren aldetik eraikitzen den Jaberren zerbitzua profetengan erritualetik ulergarrira aldatu zen, leku jakinetako intsentsuzko aldareen inguruko zeremonia hutsetatik oraindik eman ez zaigun, baizik oraingoz alde guztietan eskaini egin zaigun Kanaan bateko eraketa lanera. Israelen hautaketa baliozko da hor oraindik, baina haren Egiptoko irteera zabaldu egingo da: "Ez al zarete Israelgo semeok niretzat Etiopiako haurren pareko, dio Jaunak? Ez al dut nik atera Israel Egiptotik eta filistiarrak Kaptortik eta siriarrak Kir-tik?" (Amos 9, 7). Eta hala iritsitako bedeinkazioa, profeta guztien arabera, orokorra izango da, Isaiasengan Sinaiko oroitzapenak Sion mendi unibertsal batera aldatuak azaltzen dira: "Jaunak Sion mendi guztiaren gainean eta bertan batzartuko direnen gain egoitza bat sortuko du, hodeia eta kea egunez eta dirdaia eta sugarra gauez; aterbe izango baita bikain den ororen gain" (Is. 4, 5). Era horretan amaitzen da Jabe berriaren irteera zentzu askotan berezia den erdietsitako Kanaandik mundu orokor gizatiar batera; *Jabe izango da herri guztietako zintzoen batasun puntu numinosoa*. Kanaanen lekualdatze hau eskatologikoraino, Jabe agindutakotik irteera posible hau, are bere-beraren baitatik oraindik beti etorkizuneko den hiri batera irtete hau, profeten egintza da ordea, Amosekin hasirik, Danielengan amaitzen ez dena. Hasierako asmo apologetiko soila: Jabe eta hondamendia Kanaan biak batera pentsatu nahia, izugarri gauditua izan zen guzti horrekin. Askatasuneko Jainkoagan moralitasunaren Jainko bat sortu zen, Jainko ideal bat, haren tasunak gizakientzat benetako eredu izango direlarik. Horrela hasten da hemen Jaberren irudia bera munduaren sei egunetako sorkuntza ustez hain bikaina zenetik alde egiten. Hala gisa berean Jainko sortzaile baten egintza benetan nekez lortua profetengan, harritzeko bada ere, ez da aipatuko, aldiz: "Berri bat egin nahi dut, ernetzen ari da, ez duzue igertzen, bide bat egiten dudala basamortuan eta ibaiak lugorrian" (Is. 43, 19). Beraz, azken *creator spiritus* honek (oraindik Jabe ote da?) orain kasik izan ere ez den, egiazko zazpigarren sorkuntza egun batera jotzen du Trito-Isaiarengan: "Hara ikusi, zeru berri bat eta lur berri bat sortu nahi ditut, lehengoen oroitzarik ez da izango eta ez da berriz gogora etorriko" (Is. 65, 17). Egiptoko irteera, Kanaango sarrera beraz azken maila apokaliptiko batean errepikatuko da -itxaropen hutsalekin, baina baita ere palazioko iraultza batekin Jainkoaren irudian bertan. Moralitasunak beraz gizakiei neurri arriskutsu bat eman zien Jainkoaren bideak neurtzeko, hura zuzentasunaren sinonimo bezala irakatsia baitzitzaion; eta *ultima irratio regis* ez zitzaion gehiago aski. Jabe arrazoi moralaren muin bezala, hau da, irteerako Jainkoaren ondoren, *bigarren desio irudi handia* teologian; ateismoak berak ez du guztiz kendu, izan ere, beti bezala zuzen-zuzenean, izatetik idealera pasatzen baita. Etorkizuneko paradisu, Isaiak bere Jainkoari esanarazten diona: "Ez du epaituko begiek ikusten dutenagatik, ezta epairik emango belarriek entzuten dutenagatik, baizik zuzentasunez epaituko ditu pobreak eta epai zuzena emango die lurreko behartsuei" (Is. 11, 3-4) -gizakiak heldu egiten dituen etorkizuneko paradisu hau ez da gehiago abereen hortua, bere errugabezia eta ezjakintasun hutsalekin. Zuzentasuna ez da gehiago goitik datorren bat, trukeko mekanika bat bekatuari bere ordaina, zuzentasunari bere irabazia zehatz ordaintzen

diena. Azken batean profeten predikuaen hasierako ekimen apologetikoan oraindik adierazia eta haren iragankortasunak aurkezten zuen bezala. Ez zen lortu ordea *fatum* hori zuzenbidearen auzitegi jainkotiar bezala doitzea; zuzengabekeria zen atsekabez beterik zegoen eguneko munduak beti kontraesaten zuen hura. Eta hala ere bekatu-ordainaren lotura pareko bezala azpimarratzen bazen, Jaberren apologia zen zuzentasuna, hain zuzen haren kontrako arma bilakatzen zen. Goitik bidalitakoaren parekotasuna hain zuzen, hemen bekatariei, han autojustifikatuei, sarri ozenki faltsu bezala agertzen zen; eta berdintze bat beste munduan, ondo bizi zen gaiztoari gogozkontrako eta beldurgarri, pobre zintzoari eroso eta kontsolagarri litzaiekeena, antzinako Israelen, Daniel baino lehen ez zen eskaintzen. Job probatua horregatik, bere kontzientzia aztertuz, indartsu jartzen zen Jainkoaren bidez etorri zitzaion patuaren kontra, ez baitzitzaion iruditzen parekoa. Berriro hala ere ez da moldatzen lehen gertatutako exodoaren jarraipenik gabe, hau da pro-bidentzia berri bat gabe profetengan.

1. osagarria: Heldu bezala norberaren burua probatu ahal izatea

Norberaren kabuz zerbait konpotzea, hori berandu etorri zen. Heldubakoek zuzen jokatzeko dute zerbait hala aginduta dagoelako eta hura egin behar delako. Agindutakoaren kontra jokatzek zigorra dakar berarekin, aldiz aitzakiarik gabe aginduari obeditzek saria dakar edo besterik ez bada zigortzen duen gaitzaren aurrean babestu egiten du. Jaunak, aurretik jarritako Aita-Nik ez beste inork hitz egiten duen lekuan, han ez da beharrezko onerako asmorik ezta onaren ulerpenik ere, eskatu ere ez baitira egiten. Jaunak "bihotz garbi bat" sor dezala, hori beranduko eskari bat da, inork berez bete ezin dezakeena inolaz, baina eskatu ahal izateko ere alde aurretik barneko mugimendua, damua, konbertsioa eskatzen dituen. Hau ikus daiteke profetengan, entzuteko moduan kontzientziari mintzatuz, gudan sortzen duen hunkipenarengatik eta ez aginduarengatik, agindu bezala somatuz. Kanpoko eta goiko makila hemen oraindik guztiz desagertu ez bada ere, eta ez da desagertu, jaun handiek, zeinen kontra bueltatzen den lehenbizi Amos, ez dutelako ulertzen beraiena ez den beste zigor motarik. Baina makila ere ez zitzaion egokitzen profetengan beren Jainkoari bera azaltzeko bitarteko bezala bakarrik; helduen Jabek hemen sarriago zigortzen zuen bera ez azalduz, hau da, bera urrunduz. Era horretan sen txarra bakar-bakarrik geratzen zen eta ikus zezakeen zertarako gauza zen, nolabait esateko sen ona adina erantzukizun izan zezakeen. Eta sen onari dagokionez: politikaren aldetik egiaz "lasai egoteko" (Is. 7, 4) gomendatzen bazitzaion ere, moralaren aldetik ezinegon handiena gauzatzen da Amosengandik azken Isaiasenganaino, jokabide gaiztoaren kontra eta batez ere hipokresiaren kontra. Ezpain-jokoen kontra, "harritzko bihotza haragian" (Ez. 11, 19) edukitzearen kontra, une berean otoitzak marmarikatu eta gaiztakeriak egiteko modua ematen duena, baina ez barneko damua, konbertsioa eta haien emaitzak dakartzana. Atzera bezala aurrera jotzen duen damua ere horretan aurkitzen dute profetek, indar gizatiar soil bat, asmoaren arabera hazi eta berritzen dena, ez ordea aginduaren eta erritoaren arabera. Horregatik ezin jakin daiteke hemen ere ea etengabe aipaturiko Jainkoak konbertsiora deitzen duen, horregatik bere haserrearekin nahiko zeregin daukana den, edo gizakia den halako kontzientzia "bikainez" profetengan bere parekoari hitz egiten diona. Hori oraindik estalita dago, baina konbertsiorako deiak hemen ere entzuteko moduan eragiten du barnetik, hau da azpitik gora. Horregatik bazuen dei horrek mendekuzko zerbait Jainko judutarraren azpian bizi ez zirenei ere bazegokiena eta haiek kezkarazten zituen. Nahiz haien ikusleek ez zuten somatu gizakiekin batera etorkizuneko ere zerbait beratu zitekeela.

2. osagarria: Jasan eta eragiten duen profezia (Kasandra, Isaias, Jonaren proba), borondate ona eta desio-lurra patuaren kontra

Aldez aurretik zerbait txarra igertzen denean, orduan hari ez zaio beldur bakarrik. Arrenkura ere sortzen du, zoritxarra oraindik etortzeko ez balego bezala, baizik ezinbesteko bezala gainean bailegoen. Edo bestela: inolaz argi ez den borondate batek ez du amore ematen guztiz etorkizunekoaren aurrean, munduaz gaindi ezarria dela badirudi ere. Azkena, patua gure gainera tiratu eta bidali den zerbait bezala, duela mende gutxira arte uste zen goitik behera botatako tximista bezalako zerbait zela kasik azken batean. Horrela jokatu zuten horren aurrean haien ustezko igerleek edo profetek, eta hauetarik, qua bigarren aurpegi deituari dagokionez, posesiorik gabe ere, Bibliaz aparte ere badago. Azpimarratzekoa da ordea: igerri bakarrik eta dei egiten ez zuten estilo pagano zaharreko profetek eta Bibliakoek jokabide ezberdina zutela patuaren ibilbidearen aurrean. Eta hau noski moral izaerako *konbertsio* batera deitzen zuen Bibliari esker, horrek patuaren gainean ustez eraginik bazuelako. Hain zuzen Kasandra grekoaren jarrera azken batean arrenkura guztiz pasibo bat zen, Israelgo profeten prediku trumoiatsu eraginkorra ez bezala. Kasandrak iragartzen zuenak: Troiaren hondamendia, Atriden etxearen patua, "ezinbesteko" eta aldaezinezko honek ez zuen inor deitzen " premia aldatzera", eta inor baino gutxiago Kasandra bera; hala bukatzen zuen "nahikoa da bizitzaz" hitzekin. Hor dena ezinbesteko da zoritxarra iragartzen duen orakuluan bezala, hau beste era batean Kasandraren moduko bada ere, *ex institutione*. Ez bakarrik bere gainean urrutira begiratzen duen Apolo duela, Atropos bera baizik, aldeazinezkoaren Parka barnean duela; aldaezinezkoari ihes egin nahi bazaio, ihes egin nahiak berak eramaten du hartara; horixe da Ediporen kasua, Biblian pentsa ere ezin daitekeena. Profeta biblikoak sentitzen ziren hain zuzen premia aldatzen zuen predikatzaile izatera deituak eta hori egiteko bidali bezala, norberaren eraberriketa eta haren bidez patua ere aldatzeko ahalmena zutelarik; karisma moral bat zutelarik profetizatzeke lehen eskubidetzat. Kasandra aldiz bere dohainarekin gehiago sentitzen zen jota ohoratuta baino; are Tiresias ikusleak berak, zoritxarraren profeta bezala bakarrik azaltzen ez bazen ere, bere bokazioaren antzinako legendan ez zuen aldez aurretik jartzen bere alde inolako karisma ohoragarririk: iragartzeko dohaina Afroditarengandik jaso zuen, hau bainatzen ari zela kukika aritu zitzaiolako itsu bihurtu izanaren ordainetan; Isaiak bestelako profeta eskolatik jo zuen, hain zuzen etorkizunaren ikuspenean konpromezurik handiena eskatzen zuen eskolatik, erreakzio morala eskatuz eta ez inolaz goitik beherako albiste jasotzaile soil baltz bezala. Garbi dago halako bozeramaile hutsaren teoriaren bidez (nahiz maila apalenean Maimonidesengan, maila altuagoan "infusio" Tomasengan aurkitzen bada ere) ezaba zitekeela profezia biblikoan giza izaera indartsua eta batez ere Moisesen haserre bizi-bizi eta alarmatua, hori Jaberena idazkari soil bati ez zitzaionez posible izango, azken batean haren aginduak ezagutarazi besterik ez baitzuen egiten. Item, igerle hebertarrek, besteek bezala, ez zuten hainbeste eskaini patuari buruzko iragarketarik, patuari ihes egiteko aholkuak baizik. Eta beren ekintza burutzen zuten, urrezko zekorrarekiko profeten haserreari profeten itxaropena gaineratuz. Anti-Kasandra efektu bat alegia, Jeremiasengan berarengan eta bereziki harengan konbertsioaren ondoren bake apokaliptikoa eta dirdaia kasik bortizkiago distirarazten duena, desesperazio gutxiago izan duten profetengan baino. Eta hori Jainkoaren zuzentasunari dagokionez nahasmendua gero eta handiagoa izan arren edo horregatik hain zuzen, Joben arrenkura kasik gogora ekartzen duelarik: "Ikusteko atsegin zen guztia xahutu du, eta bere haserre sua bezala ixuri du Siongo alabaren etxabolan. Jauna etsai bihurtu da" (Jeremiasen erostak, 2, 4 hur.). Israelen heriotze-mehatxua, Jaberena beraren lurtean, geroko hainbeste prognosiren zati bezala bihurtua zegoen kasik Jeremiaren egunetan. Eta hala eta guztiz ere exodo posible hark, erabat etorkizunera zuzendurik hain zuzen, erabateko itxaropen eragile bat dauka barruan, Kasandraren gisakoak, are negatibo

egiazkoak, sekula ezagutu ez duena. Baina beti aldaketa iragarpena hipotesiaren mailan gertatzen da, hau da norberaren konbertsioa burutzen bada, norberaren erabakiaren premisarekin eta haren bidez dator alternatiba; hala Amosengandik Daniel, azken profetarenganaino. Eta hau azkena izan zen, hain zuzen, Maimonidesek berak esaten duen bezala, profezia ahitu egiten delako abaildura hila besterik ez dagoen garaietan eta itxaropen gabeziak herbestealdian hura amaitarazi egiten duelako (Maimonides, *Zalantzatien gida*, ed. Meiner, II, 236 or.). Azpimarratzekoa da profeten loraldian ere, haien ikuspena ez zela izan kontenplatibo soil eta hala etorkizuneko patuaren profezia bakoitza, txarrean bezala onean hura egituraturik ez dagoenez, profezia soil baino gehiago dela. Izan ere, alda daitekeen patuak *anti-patu* bezala azken batean osatzen du profezia biblikoaren desio eta nahimen lurraldea. Ez noski Jaberena "otzantze" oso zaharrekin -tartekatuak izan arren- eta hark, ezer baino gehiago epaile zorrotz bezala, hots egindako epaiarekin uztartu gabe. Hala Sodoma eta Gomorrako historian; honek muin bezala beti mehatxuka dagoen Jerusalemen hondamendia dauka eta era berean muin bezala dauka patuaren aldagarritasuna, hamar zuzen bakarrik baleude alda daitekeelarik. Noe zuzen bakar bezala salbatzea bera piskat honi beroni dagokio, hemen Jabek zuzen bakarra haren alferrikako konbertsiorik gabe eta gizakiaren eskaririk gabe uholdetik aldendu bazuen ere. Edozein modutan mitologia grekoan Kasandra ez-pasibo, ez-alternatibo batek ezin aipa zezakeen halako aurretiko bat (Isaiak 54, 9an Noeren salbazioari buruz, Amosek 4, 11n Sodomari eta Gomorrari buruz egin zuten bezala). Eta ezin zuen aipatu noski, Moira grekoa edo ezinbestekotasunaren jatorrizko indarra, Zeus beraren gaindi, berarentzat eta batez ere gizakientzat erdietsezinezko zelako. Aldiz, Jaberri, bere agintari bakar izateagatik beragatik eta are bere-berarekin neurtu zitekeen "justiziarengatik", dagoeneko Moises aurretiko probidentziari zegokionez ere, arriskuan zegoen bere erantzukizunari, hau da moralari buruz galde zekioken - *malgré lui* Itunean.

3. osagarria: zergatik suma zitekeen profeta beti Moises berri bezala

Sarri ireki eta oldartu zen hemen antzinatik hitzetan eskandalizatu zuena. Amos gizon ausart bat zen, borraru aberatsengatik bera baino lehen beste inor ez bezala haserretua, eta hala ere lehen profeta honek badu bere ondarea gerora Danielek azken bezala izango duen bezala. Horrela (Amos 2, 5-7): "Sua bidali nahi dut Judara, Jerusalemgo jauregiak xahutuko dituen... Hain zuzen zuzenak diru truk eta pobreak oinetako pare baten truk salduak direlako. Pobreen burua hautsetan darabilte eta behartsuei bidea mozten diete": sekula ez zen lehenago kanila hain gorri bat ireki. Eta gero munduaren aldaketa bera Jaberik gabe, *regens* berri batekin Danielengan (7, 13-14): "Eta hara, ortziko ikuskizunean Gizonaren Semearen gisako bat etorri zen, zaharrarengana hurbildu eta hari aurkeztu zioten. Hark eman zizkion agintea, ospea eta ahalizatea herri, jende eta hizkuntza guztiek zerbi zezaten. Bere agintea betikoa da, igarotzen ez dena, eta bere erregetzak ez du amairik". Gizaseme salbatzaileari buruzko ezkutukiz beteriko testu hau erabat bakana da iraganari dagokionez, profeten artean Ezekielengan bakarrik aurkitzen da (1, 26) aipamen gisa, ez ordea Moisesen liburuetan. Eta hala ere profeta israeldarrak (haietarik inor ez zen harrika joa izan) behin eta berriro Moisesen argitan azaltzen dira; hura gabe profeta ez balira bezala. Izan ere ez agindu morala, ez etorkizunaren promesa sortu ziren lehenbizi profetengandik eta ez zuten utzi alde batera Moises beren jatorri zaharrean edo *eskhaton* sutsuenean, hura Israelez kanpoko iturrien bidez ordezkatzeko. Inoiz "panbabilonikoki" argitu nahi izan zen bezala, Hammurabiren Legeko liburu antzina-antzinakoaren bidez eta, etorkizunaren promesari dagokionez, azken batean Moisesen osteko den Persiako mesianismoaren bidez, Zoroastroren etorkizuneko itzulerari buruzko irakatsiaren bidez. Biei, inolaz, Hammurabiren legeari bezala mesianismo persiarrari -eta hau gainera Isaiaren ondoren (11, 1) azaldu zen-Egipton izandako eskubiderik gabeko esklabualdi baten, Kanaanera egindako Exodo

arriskutsu baten oroitzat falta zaie -eztanda soil bat dira apoteosi harranditsu baten ordezt. Nahastezinezkoaren oihartzun etengabe hau da beraz profetek beren Moises historikoan bakar-bakarrik dutena eta honek, benetan eten eta jauzi handi batez bada ere, haietan gordetzen duena. Profetek haserre salatu zuten zer bihurtu zen Kanaan, baina oroitzat eta itxaronez une berean: "Dabid berri bat, exodo berri bat, itun berri bat, Jainkoaren hiri bat espero izan dute; hartaz zaharrak berriari dagokionez etorkizuna iragartzen zuen esanahi berezi bat hartu zuen" (Von Rad, *Theologie des Alten Testaments*, II, 344 or.). Hau etengabeko jazarpen gogorrean apezten kultuzko erlijioaren aurrean, eta baita orduan kleroak eta bere *establishementek* hasiera ematen zioten agindu erritualen azalergia guztiaren aurrean ere. Profeten morala bezala utopia ere ordezt ezinezko izango ziren Moises gabe, ezta *eztanda gisan* sortuta ere. Eta Oseak arrazoiz basamortuko garaiaz "Israelen eztezt garai" bezala hitz egin zuenean, ez zuen hitz egin bakarrik orduan "Jainkoak bere herria maite zuelako", oraindik Moises zeukalako baizik, eta Israelek Kanaan izango zituen zoritzarrez ezer ez zekielako. Oraindik hala ere Exodoaren oroitzapena gordetzen zuen sekta erdinomadatik, nazirtarregandik etorriko zen Elia bezalako profeta bat ere; eta honek berriro basamortura jo zuen, antzinako ituna egin zen lekura eta guztiz tartekatua ez zen Moisesen dekalogora. Neurri handienez *administratiboki* tartekaturiko dekalogoaren tenorea bere zatirik onenean profetek ezagututzat eman zuten; ez kanpotik ezarritako lege bezala, aldiz bai batasun bateko, promesetako Jainkoarekin erabat *bien aldetik*, are *sinergetikoki* zerratutako itun bateko artikulua bezala. Sinaitik jaitzi zen bere Jainkoarekin itun moral bat egitera eraman zuen Moisesek Exodoko herria, eta bere burua behartutzat hartuz hitz egin zuen Jainko honek profetengan ere. Horren arabera itzultzen du *Septuagintak* ere, gertatua zen profeten predikaren arabera, *b'rith*, itun *diathêkê* hitzaren bidez, hau da: bien arteko akordio: kasik "konstituzio", Jainkoari bere hitza hartuko balio bezala eta hain zuzen moralitatea beraren neurri bezala jartzen dio. Ondare izugarri bat, zalantzarik gabe, Moisesengan dagoeneko sublimaturik dagoen Jainkoaren idearena, galdetze morali buruzko planteamendu guztien gainetik jarria dagoena, adibidez Sodomaren eta Gomorraren hondamendiaren aurrean. Hori profeten konbertsiorako dei etengabeetaraino - ez bakarrik baitago herriari, baizik haren bidez Ituneko Jaberri ere zuzendua, lehen aldiz pentsatu ere egiteko moduko bihurtu den konjuru moral bat duelarik magiko bat izan ordezt. Eta hain zuzen konjuru modua hau, Jaberriaren ideala bere baitara itzultzeko eskari bezala, Moisesen tradizioan aurkitzen da lehenbizi eta askoz lehenago, profeta guztientzat inimiziazio izaki: "Baina Moisesek Jaunari eskatu eta esan zion: Baina Jauna, zergatik irazeki nahi duzu zure haserrearen zure herriaren kontra, Egiptotik indar handiz eta esku sendoz atera duzun zure gero? Zergatik esan behar dute egiptiarrek eta adierazi: Beren zoritxarrerako atera ditu, mendietan hil eta lur azaletik gal daitezten? Itzul zaitez zure haserrearen amorrutik eta zure herriaren kontrako zoritxarra damu ezazu. Ekar itzazu gogora zure zerbitzari Abraham, Isaak eta Jakob, zure izenean zin egin eta agindu baitzenien... Orduan damutu zitzaion Jaunari bere herriari egingo ziola esan zuen hondamendia" (2. Moises. 34, 11-14). Horregatik, eta ez azkenik aldaketa eskakizun honengatik, Pentateukoan bertan Moises profeta deitua izango da, are handiena: "Eta gerokoan ez zen sortu beste profeta bat Moises bezalakoa, Jaunak begitartez begitarte hitz egiten ziona" (5. Moises. 34, 10), eta horregatik hain zuzen, testu beraren arabera, berak, Jainko jeloskor batek, ehortzi zuen, hartaz "haren hilobia non dagoen inork ez du jakin, gaurdaino". Era berean Moisesen propio da, hain zuzen ere arbazo eragile bezala profeten arteko ondare eraldatu denez, hari buruz nominatiboa ez erabiltzea: ez *berak* Jainkoa, baizik *bera* ezagutu zuen Jainkoak begitartez begitarte; kasik beraz Isaaken oparikoan begiak irekitzearen *reprise* bat bezala, hain zuzen "Moria mendian, Jaunak *ikusit egiten* baitu" (1. Moises. 22, 14). Beste azken ondorio bat dator oraindik Moisesen

begitarte hari loturik, ez noski Itun Zaharreko profetetan, bai ordea Jesusengan, hau ere hasieran erabat profetatzen hartua baita; begitartearen inguruko *distira* da. Moises Sinaitik jaitsi zenean, "Israelgo semeek ikusi zuten haren begitarteko larruak distiratu egiten zuela, eta orduan bere begitartearen gainean berriro estalkia jarri zuen" (2. Moises. 34, 35). Jesus bere dizipuluekin mendi garai batera joan zenean, Moisesen distira honek hartu zituen Jesus antzaldatzeraino: "Eta antzaldatu egin zen haien aurrean; aurpegia eguzkia bezain distiratsu bihurtu zitzaion eta jantziak argia bezain zuri. Eta hartan, Elia eta Moises agertu zitzaizkien Jesusekin hizketan. Orduan Pedrok esan zion Jesusi: Jauna, zein ederki gauden hemen; nahi baduzu, hiru etxola egingo ditut, bata zuretzat, bestea Moisesentzat eta Eliarentzat hirugarrena" (Mt. 17, 2-4). Azken argi propioa, kosmikoki jotzen duena, profetengan oso gutxitan eta munduaren hondamendiaren ikuskizun bezala sarturiko Deutero-Isaiarengan (24, 17-20) tartekatuta dagoena, ez da aurkitzen inondik tradizioiko Moisesengan. Eskema eskatologikoa: hondamendia eta ondoren hautatuen distira lehenago ere aipatua aurkitzen da harako errenkada hartan: Egipto-Kanaan, Itsas Gorrian itotzea-agindutako lurrian sartzea; baina ordurarteko mundu osoaren hondamendiari buruz, hura gehiago gogoan ez izateko moduan, Isaiak esaten duen bezala, tradizioak jaso dituen Moisesen hitzetan ez da ezer aurkitzen eta bere aurretik gehienik ere uholdeari buruzko arrastoetan. Beraz profetengan azaltzen da lehen aldiz munduaren eztanda ("zeru berri, lur berri"), baina inolaz Jaberren egintza bezala eta ez, Joben liburu berantiarrean bezala, Jaberengandiko berarengandiko exodo bezala. Baina berak sortuari buruzko arrenkurak, bere hesiturako hesolen kontra joka aritzeak, Moisesen promesen Jainkoarengan pentsatzeko bide ematen dute noski, borborka nahi izanez gero, baina ez hitza betetzen duen Jainkoarengan, ezta antzinate hobe batean Jaberren egintzei dagokionez ere. Horrela beraz profetarik gehienak, berriro ere Moisesek bezala inolaz agindutako lurra zapaldu izan ez balute bezala, gero eta eskatologikoago bihurtzen dira. Mahatsondoaren azpian, inoren beldurrik ez izateko moduan, esertzea bera etorkizun bilakatzen da, inoiz esnea eta eztia isurtzen ziren lurra bezala, are itsaso baten gisan mundua bete beharko lukeen Jaberren justizia bat bezala (Is. 48, 18).

4. osagarria: "Sinesten dut Jainkoa, baina bere munduari zaputx egiten diot" (Ivan Karamazov); esaldi honen esanahia profetengan

Benetan da jakingarria zein gutxitan begiratzen duten igerleek atzera. Lehen egunetara, Idazeuna munduaren sorkuntzaz hasten den haietara alegia. Badaukate Moises, arbasoen aurreko historia gogora ekartzen dute, baina ez Genesia, ez behintzat idatzita dagoen bezala. Beharbada hau profeta zaharrenek ez zuten ezagutzen edo ez zuten behintzat sakon ezagutzen, lehenbizi jabistikoki eta batez ere apez izkribuaren arabera arbasoen historia elohista jarria zegoen bezala. Baina honek ez du balio profeta berantiarrentzat, are gutxiago oraindik Jaberren egintza zaharrenak, munduaren sorkuntzari buruzkoak, iturburu jabistarik edo sazerdotalik gabe ere (1.Mois. 1-14) legenda baitziren eta horregatik antzinatek ezagunak. Eta hori are zihurrago da, gogoratu den bezala (cfr. gorago 15. kap.), gizakia lohiez egiten duen Jainko sortzaileak Egiptoko Erdiko Inperioko eskulturgileen Ptah jainkoaren aztarnak baititu, eta hark sakontasun iluna azpimarratzen du, noren gainetik Jainkoaren Izpiritua hegatzten den, eta Babiloniako sorkuntzako sagako lehen urak gogoratzen ditu, bere uretako demonioa sakonean, jainkoen garailea, jainkoaren argitzailea gainean duela. Batez ere azken motiboa (Babiloniarrez: Marduken borroka Tiamat, kaosaren herensugearekin sakonetan) profeta askorengan azaltzen da jabistak inolaz bere egin ez dituen ezaugarriekin. Beraz Bibliako sorkuntzako kontakizuna lausotzeak, are isiltzeak ez dauka oinarritzat profetengan ez ezagutzea. Hain zuzen, jabistak eta apez-iturburuak baino gehiago eta bestelakorik ere badakite profetek kontaktzen Genesiari dagokionez:

hala kontatzen du Isaiak (51, 9 ur.) Jabe jatorrizko herensuge hiltzaileari eta itsas lehortzaileari buruz; profeten ondorengo Joben liburuan (38, 8-11) denbora guztien hasieran ozeano iraultzaile bat hesitzen, troxatzen eta mugatzen da: hala eta guztiz ere profeziak harrigarriro interes gutxi zeukan Genesia aipatzeko, kasik kontrako interesa ere aurki liteke. Ez noski "Jainkoaren Izpirituaren" kontra sortzaile denez, bai ordea mundu hain akatsez betearen hasieraren Genesi *pathos*aren aurka eta bere egintza hain on iruditzen zaion eta haren kontrakoa era berean berak sortu duen gizonaren gainera, bekatuen ordain-aker balitz bezala, botatzen duen Jainkoaren aurka. Eta Jainko berak, munduaren sortzaile eta halaber zuzentzaile bezala, langintza indartsu deusez hau gizakien gainera, bereziki bere herri hautatuaren gainera aldatzen duenez, profetengan horrela orohar gauzatu denarekiko aldentze bat sortzen da, labur esanda: amai-emate bat, erremate-emate eskatologiko bat horrela izan den "Egipto", "Babilonia" orokiko. Hortik beraz Isaiak: (43, 18): "Ez hartu gogoan antzinakoa, eta ez egin kontu iraganari", guzti hau gertatu den sasihazkundeari dagokionez, promesaren orainarteko hondamendiari dagokionez, ez denean areago *deus creator* eta halako hondamendiari baiezkua eman dionari dagokionez, hala ere, are behartzaileago etorkizun deskreditatu gabeko batera irekia, iraganean bete ez den promesa batera irekia. Horregatik bakarrik geroxeago testu berean (Is. 46, 9 ur.) eta azalez bakarrik kontrako dirudiela: "Gogora iragana antzinatek hona; ni Jainko bainaiz, ... *ondoren etorriko dena aldeztu aurretik iragartzen duena*,... nire asmoak iraun egiten du", hala ere sekula baino zehatzago eskatologikoki biderkaturik, badena izan den bezala, izan dena ustez hain zuzen baden bezala, are benetan baden bezala betekoa da. Hargatik beraz, orain erabat eutsi beharreko *hasierako Genesiaren kontra*, Trito-Isaia 65, 17an hain zuzen eta, gizakiei dagokienez azpimarraturik, 66, 22an: "Nik egingo ditudan zeru berriak eta lur berriak nire aurrean iraungo duten bezalaxe, dio Jaunak, era berean zuen haziak eta izenak ere iraungo dute". Itxaropen hutsala iragarritz noski, hemen berriro ere, San Sellulasantan inolaz *deus creator* orainartekoari dagokionez, berak bere burua, inolaz batasun pertsonal batekin - honi dagokionez, zalantzak egingo ditu Jobek- *deus salvator* bezala profetizatzen duelarik; hala ere gauzen konponketa lehenagokoa benetan joana balitz bezala azaltzen da hemen. Horregatik, ez arrazoirik gabe, paradoxal azaltzen da musika distiratsuen Brahmsen Requiem-ean Isaiasen 51, 11 bertsoa kantatuz: "Itzuliko dira bai Jainkoaren salbatuak eta Sionera joango dira lekaioz, eta betiko poza izango da haien buruen gainean". Nahiko soteriologiko Genesian hain zuzen, paradisutik bota ondoren, heriotza patu betiereko eta "ezpata biluzi eta kolpatzailea" zeukan kerubin batek bizitzako arbolarako bidea mozturik zeukan erlijio batean.

Beti aurrera baino gehiago atzera begiratzen zutenak ez ziren inoiz ikusle deituak izan. Baina, ordurarte sustrairik bota ez zuen etorkizun batek iresten zituen haien aurpegiak. Era horretan beraz iraganean ez zen zapaldu arbasoen historia, ezta Moises bera ere, *arkhê* propioa, munduaz aurretiko tradiziozko historia mitikoa baizik. Hura benetako jatorri ez balitz bezala edo azken batean oker mundutiar baten jatorri balitz gehiago hartatik *salbatzen duena* baino. "Paradisua" bera, "bekatuan erori" aurretik, "Hara, oso ona zen" hura helburutzat eduki zezakeena, bazirudien hain oso gutxi borobildua zegoela, non "Sion berriak" profezietan ez zukeen izan nahi haren eraikitze berri soil bat. Jabe sortzailearen eta *arkhê* horren bidez bilakatuaren goralmen urriek (sarri Salmuetan beraietan ere mingostasun handiz eteten dira) irregular itxura daukate, gutxienez aspaldidanik egiazko ez balira bezala. Egia da bidenabar sorkuntzako legendak inoiz aipatzen direla, baina harritzeko moduan legenda iraultzaileak dira, apezgoaren Genesian inondik azaltzen ez direnak. Egia da Deutero-Isaiak ere itxura guztien arabera izendatzen duela Jabe harritu hura, lurra oinarritzen duena, zerua zabaltzen duena (Is. 48, 13), are 44, 24ean aurkezten du arnasketa zahar berean "zure

Jaun, zure salbatzaile, bera bakarrik zerua zabaltzen duena eta lurra inoren laguntzarik gabe sendo jarri zuena" bezala. Bien bitartean halako aldi berekotasun, homogenotasun eta egintzak ez dio gain hartzen ez kopuruz ez pisuz beste aldeko, Genesia berriko Jainko salbatzaileari. Hura da eta izango da helburu nagusia lehen Genesiak atzera egin dezan profeten kontzientzia, eta demiurgikoaren eta hark salbatu behar duenaren arteko tentsioa itxuraz bat datozen testuko pasarte hauetan bortitza sentitzeko moduko bihurtzen da. Baita tentsioaren handitasuna munduaren sortzailearen (askatzailearen mesedetan) ezabaketa behinenean oraindik adierazia ez bada ere. Baita Jainkoaren beraren haustura baten ondorio antitetikoak atera ez badira ere, gerora Joben liburuan bezala eta, askoz geroago oraindik, era manikeo dualistan, Marzionengan, honek "gure aita, munduaren sortzailea" Kristo salbatzailearekiko eromenaren kariaz etsai, hau da deabru bihurtzen baitu. Genesiako mundua edozein modutan profeta guztiengan Jaberentzat zama bilakatuko da, oraindik bere baitatik irteera egin gabea izaki, bai ordea egintza betikoa goraipatzen duten zeruetatik irtena; *iam homini religioso satis erat*. Hortik dator beraz benetako Isaiaren eta ez bakarrik Joben oihartzuna Ivan Karamazovengan Alioxarekin hizketan ari dela: "Nik onartzen ez dudana ez da Jainkoa, ulertu ondo, baizik hark sortu duen mundua, hori da nik onartu ezin dudana" (*Die Brüder Karamasow*, Piper, 1959, 382 or.). Dualismoa, gutxienez indarren banaketa entzuten da hain zuzen Deutero-Isaiaren pasarte kointzidente txokanteetan. Horren arabera, eta hori ohizko tradizioari buruz ere azpimarratu beharko litzateke, "behin Jabe munduaren sortzaileaz, beste behin Jabe Israelen sortzaileaz, Israel >erosten< duenaz hitz egin daiteke... Israelen sorkuntzari buruzko hitzarekin profetak ordea antzinako exodoko tradizioak Israelgo Jainkoari izendatu zizkion historiako gertakariak adierazi nahi ditu,... Egiptotik askatze-erostaren salbazioko historia, etorkizuneko baten tipo eta eredu dena" (v. Rad, *Theologie des Alten Testaments II*, 251. or.). Ondorioz, guzti honetan bakar eta gutxienez muineko bezala, profetengan munduaren sorkuntzari dagokionez irauten duena Egiptoren sorkuntza da, hau da, hori une berean promesaren sorkuntza izan zitekeela, *Egiptotik-irteera* baten sorkuntza alegia. Eta hori ez da gertatzen edukiari dagokionez inolaz *sortzailearen beraren*, dei egiten duenaren, oraindik deia egina ez daukanaren loturaren bidez ezta *hutsa betetzen ez duen hitzaren bidez ere, baizik osatzen duen "hitzaren"* bidez. Ez espazioa betetzen duena bezala, era giza gaindiarrean bada ere, baizik denbora betetzen duena bezala, historiako etsipen oro gaindi dezan, hasierako Eden oro etorkizuneko "Jainkoaren erreinuan" berregin bakarrik egin ez dezan. Sortzeko indarra duen sortzailearen, salbatzailearen *verbum mirificum* honek mundu sortzaile zena sorkuntzako ekintza bera erabat bestelako, azken egiazko Genesia baten promesako hitz bihurtzen du. Baina beti ere, eta hemen ere bai, sortzailea, sorkuntzako hitz eragilea jartzen da bereziki Israelen, mesianikoaren sorkuntzan helburu gisan, hau da etorkizuneko Genesia batean, salbazio batetik salbatzen duena bezala. Bestela sortuak eta era horretan inguratzen gaituenak profetei balio die laudoriozko bozkario urrietan ere gehienik adibide bezala "egin bedi argia eta argia egin zen" baterako, baina berez oso urruti dago *Telos* eta *Eskhatonetik*. Horregatik gertatuko da itxaro den, ez inolaz gogoratzen den Genesia Trito-Isaiarengan hain ozen: "Sion dela-eta ez naiz isilduko, eta Jerusalem dela-eta ez naiz geldituko, harik eta haren zuzentasuna distira bezala azaldu eta haren salbazioa zuzi bat bezala piztu dadin arte; ... eta zuri izen berri bat ipiniko zaizu" (Is. 62, 1 hur.). Une berean *eskhaton* hau urrun jartzen da, ez ordea oso urruti lurreko bakezko erreinu soiletik, honek bere duen pikondoaren azpian bakoitza izurik gabe esertzearekin; eta horrek azpimarratu egiten du oraindik pozarekiko antitesia lehen Genesian eta haren espazioan. Lehertuz noski, ikusi denez, *Eskhatoneko* zama *apokaliptiko* bera azken profetan, Danielen, garbi hasten bada ere. Eta gero Baruken apokalipsia siriarretik Joanen Agerpenera arte hazten doa;

mundua guztiz lehertarazten duten ezaugarriekin, profetengan inolaz iradokiak baitzeuden, ez ordea apartaturik. Ezinegon eskatologiko gorenaren, une berean azken garaietako eragin zehatzagoaren, horizonte kosmiko-antikosmiko erraldoien ezaugarri balira bezala. Baina profetak apokaliptikoen aurretik etorri ziren zentzu guztietan, ez azkenik jite utopikoaren zentzuan, jakinduria liburu judu berantiarretatik guztiz bestelako, hauei egotzi nahi baitzitzaien nolabait esateko *eskhatonaren* tximista. Apokaliptika pentsaezinezko litzateke profetikoki nahi zen lurra, zeruarekin batera, irauli gabe; Prometeo hebertar propiorik gabe legoke.

Egonarriaren mugak, Job edo Exodoa ez Jaberren beraren ideia, baizik ideiatik, mesianismoaren zorrotasuna

A. Jobek salatzen du

Gizalegez jokatzeko duen gizon zintzo bat onez fida ohi da gainerakoekin. Baina bilaukiro iruzur egiten badiote, kolpetik begiak zabaltzen zaizkio. Jobek bere burua egoera horretan sentitzen du, zalantzak dauzka, are Jainkoa ukatu egiten du Jainko zuzen bezala. Gaiztoa loratzen da, jaieratsua zimel daiteke, hori ikusten du Jobek berari gertatzen zaiola. Ezin esateko moduan sufritzen du eta Jaberri arrenkuratzen zaio, hau da: ez du bilatzen gehiago bere zoritxarraren errua, ez gehiago bere ahulezian edo erru propioetan bakarrik. Berea ez bezalako bizitza batean egiten du amets, ikusten dena baino aginte hobe batean, ez du ulertzen gehiago mundu miserablea. Joben galdera da harrezkero gehiago mututu ez den hura: Non dago Jainkoa? Sufrikarioak hemen noblezia kentzen zuen, baina zutun eta galdetzaile bihurtzen zuen.

Ez zuen ahaztu inondik ere arrenkura, eta adimena ez zegoen geldi. Israelgo semeen arrenkura ezaguna da, apez-testuan zehar gero eta handiagotuz egiten du bidea. Eta horrela sor zitekeen hain zuzen libururik iraunkorrena, Jobena, benetan berandu, 500. eta 400. urteen artean. Askoz lehenagokoa da noski ingurunea, Joben herri-liburu deitua, Satanen tentazioa eta amaiera ona. Joben idazleak beretik sartu du herri-liburuan, Goethek bere Fausto txotxongiloan sartu zuen bezala. Herri liburua, oraindik lehen bi kapituluetan eta azkenean gordea, oso zaharra da noski; izan ere kaldearrak azaltzen baitira Job 1,17an beduino lapur bezala (eta herri izar-irakurle hau aspaldi ez zen halakoa). Ezekielek ere, Joben kontakizuna seguruenera egin baino berrehun urte lehenago, Joben izena aipatzen du antzinatetik ondo ezaguna balitz bezala, Noerekin eta era berean arkaikoa den Danielekin batera (Ez. 14, 14 eta 20). Oso gutxitan egokitu zuten Job, liburukoa bera noski, rabinoek. Batzuk esaten zuten Abrahamen garaietan bizi izan zela, beste batzuk uste zuten 2. Moises. 9, 20ean aipatzen diren Jainkoaren beldur ziren Faraoien morroietako bat zela. Guztia dirudienegiz gizon kezagarri hau ez-judu bihurtzeko asmotan, jaieratsua bazen ere. Hala ere Babiloniako Talmudak harrigarriro Moises izendatzen du Joben liburuaren egilezat; egiatik hurbilago zeuden R. Jokhanaan eta R. Elieser, Job Babiloniako herbestaldetik etorri ziren juduetako bat zela esaten zutenean; horrela liburua datatu zuten - "Biblia kritikako" kasu benetan jakingarri eta goiztiarra- Ziro baino geroago. Bestalde legearen judaismoak liburua beti arriskuz betetzat jo zuen, ustez egilea Moises bazen ere, harengandik urruti egotea hobe zen idazti bat. Beranduko argikunde judukoa da zalantzarik gabe liburua, hala ere garai honek ez du nekerik aurrezten eta gizaki osoa hartzen du, ez bere adimen eszeptikoa edo are ezkorra bakarrik. Idazleak informazio zabalak jaso behar izan zituen, bere hizkera aberatsena da Itun Zaharrean, ezohizko hitzak azaltzen dira, erro akadikoak eta arabeak dituztenak, naturaren ikuspegi ohi ez bezain zabala dauka. Formaren aldetik berrikuntza bat da elkarriketa, nahiz bizitza judutik, diskurtso erlijiosotik zuzenean hartua izan. Elkarriketa hedatzen da ihardespenen bidez, elkarrekin bila dabiltean solasaldi bezala, Platonen gisan; muina askoz gehiago da eraso eta defentsa, ezadostasun gero eta gogorrago eta nabarmenagoen bidez. Defentsa Jaberena da, honen zuzentasuna defentsara beharturik baitago erarik bortitzenean. "Zergatik bizi dira gaiztoak eta zahartu eta ahaltsu izatera iristen dira?" (21, 7). Eta zergatik dira gose pobreak? Ez dira gose Jainkorik gabeko direlako, aberatsek zapaldu eta esplotatzen dituztelako baizik, eta Jainkoak hori ikusten du. "Olioaren beren ehotarrien artean zukutzen dute eta beren dolare propioa oinkatzen eta hala ere egarria sufritzen dute. Hiriak gizonen intziriez betearazten dituzte eta zapalduen arimek garrasika dihardute, eta Jainkoak ez ditu botatzen" (24, 11 hur.). Prediku (era berean) antikapitalista ere Joben aurretikoa zen,

profetengan azaltzen zen, baina ez gaitzari kontra egiten ez zion Jainkoaren kontrako arrenkura: hala, beraz, hementxe hasten da Teodizearen premia ezinbestekoa. Tragiko grekoek adierazi zuten bai, baina Joben liburuan hasten da inon baino gehiago balioen iraulketa izugarria, ahal izate utopikoaren aurkikuntza esparru erlijiosoaren barruan: Gizaki bat bere Jainkoa baino hobea izan daiteke, hobeto porta daiteke. Job ez zen kultutik bakarrik irten, gizartetik ere irten zen: eraso garbi bat da hau.

Hasteko berriak zalantzan jartzen duen tradiziozko gurikeriari bakarrik aurre egin zion. Klitxe eginak, alde zurretik idatziak, ez egiazkoak aipatzen dituzte hiru adiskideek, Jobi tradizioa aurkeztzen diote kontra, baina hala ere ez dute isilarazten. Ez Elifas apal zentzudunak, bere prediku epigonal beteaz, ez Bildad arruntak ezta Zofar zabarrak ere. Hasieran lagunak Job komentzitu nahirik azaltzen dira, baita aiduru ere, baina gero, Jobek setati Jabe borrokatzen duenean, etsaia jarriko dira, Job bekataria dohakabe bezala tratatzen dute. Jainkoaren kontra bere haserrea zuzentzen du eta ahotik iraultza deia ateratzen du, hau da egonariaren amaia, hau da tradiziozko zuzentasunaren Jainkoaren kritika. Jobek bere miseria, bere zauriak erakusten ditu, bere desanparua: "Ikusi nola Jainkoak bidegabekeria egiten didan eta bere sareaz inguratu nauen. Ikusi okerragatik garrasika ari naiz eta berak ez dit entzuten, oiher egiten dut, baina han ez dago zuzenbiderik" (19, 6 hur.). Okerrago oraindik, ez du zuzenbidea aldatu ere egiten, Jabe pertsonak kontutan hartzen ez dituen erailketa bezala da: "Biak hiltzen ditu, jaiatsua eta jainkobakoa" (9, 22). Bere ahalguztiduntasunean, are horregatik hain zuzen, tiranoa erantzukizunik gabeko da: "Indarra behar bada, bera indartsuegia da; auzia bada, nor dei dezake hara?" (9,19). Guztientzako zuzentasunaren *Magna Charta* ez da baliozko: "Bera ez baita gizaki bat, nori erantzun diezaiokekan, epaimahaiaren aurrera biok batera azal gaitezen; gu bion artean, gu bion gainean bere eskua ezar dezakeen epailerik ez dago" (9, 32 hur.). Izugarria da hor azaltzen den kontraesana probidentzia etikoa baduen profeten Jainkoaren eta halabehar zabar baten edo deabru baten errealitatearen artean. Kanaan bera Egipto bilakatua zegoen, izena bakarrik zeukan aldatua, Israel antzinako mixerian bizi zen berriro. Bekatu-penitentzia, zuzentasun-salbazio lotura hain zalantzazko bihurtu zen, non Joben liburutik kanpo ere aspaldi ez baitzuen kontsolamendurik eskaintzen; hala 88. Salmua, kredoan sekula sartu den poesia itxaropen gabekoenetako bat. Poesia honek ez du aipatu ere egiten bekata miseriaren zio posible bezala, eta promesaz aseturik, Joben benetako galderaz amaitzen da: "Hilobian inork zure errukia ospatuko ote du edo zure leialtasuna hondamendian? Zure mirariak ilunbeetan ezagunak al dira edo zure zuzentasuna ahazten den lurrean?" (Sal. 88, 12 hur.). Eta bekatuari berari dagokionez, egokia zoritxarra zigor edo bezatzeko makila bezala hartua dadin tradizioaren arabera, Jobek tradizio horri erantzuten dio galdera ezeztagarriaz: "Bekatu egin al dut, zer egin dut zure kontra, oh zu gizakien zaintzaile? Zergatik egin duzu zure kontra jo dezadan eta niretzat nekagarri nadin? Eta zergatik ez didazu barkatzen nire okerra eta ez didazu kentzen nire bekata?" (Job 7, 20 hur.). Hiru adiskideek ordea, Jaberaren abokatuek, ez daukate honi ezer jartzekorik ez bada ordainaren, bekatu-penitentiaren dogma bere forma zurrunean. Beren Jabe aitzakia arrote horretan ezkututzen da eta azkenean azaltzen den Elihu gazteak azpimarratu egiten du oraindik Jabe ezezko eta etsai bezala, are 37, 21ean ondoren segituan agertuko den tiranoaren aintzindari bera bailitzen azaltzen da. Adiskideek kontatzen dutena beti da goitik beherako ordainaren dogma, eta profetengan eduki zuen baldintzazko izaera ororik gabe gainera. Faktore subjektiboaren indarra, moralitasunaren indar bezala, patuaren ibilbidean, aukeratze eta erabakitzearen esanahi sakon osoa, munduan elkarrekin agintzea bera, Amosen eta Isaiasengandik Malakiasenganaino gizakiari zegokiona: osagai horietatik bakar bat ere ez da gelditu lau fede defendatzaileen hipokresian. Baina aski gertatzen da Joben kontzientzia morala

Jabe, epaile nolabaitekoaren kontra eta adiskideen, hau da epailekideen kontra irma irauteko. Eta aski ez balitz, hala balio du Jainko batek, izen hori merezi badu, ez duela zigortu behar baizik salbatu egin behar duela; eta ez duela epaitu behar inolaz ezkutua, horretan asmorik ez badago. Gizaki batek gain hartzen dio bere Jainkoari, are hark baino argitasun gehiago du - hori izan da eta da Joben liburuaren logika, azkenean azaltzen den menpekotasun itxuratia arren. Irteeraren jatorrizko kategoriak eragiten du hemen aldaketarik bortitzena. Israelen Egiptotiko, Jaberren Israeldiko exodoaren ondoren, Joben Jaberengandiko exodoa gertatzen da hemen; baina zein aldetara? Zalantzarik gabe sufritzen dagoen gizonak ihes egin nahi luke jotzen duenarengandik. Eraso egiten du, bakean utz dezaten nahi duelako, beldur da, baina ez du begirunerik. "Zure egitekoak egotzi Jaunari, eta zure asmoek ondore ona dukete" (Prob. 16, 3); halakorik ez da gehiago sinetsiko. Jobek kargu hartzen dio etsai izugarriari: "Hara, hemen duzu (salaketa idatzian) nere sinadura; ahalguztidun, erantzun iezadazu" (Job 31, 35). Eta Jabek erantzuten dio ekaitzetik, era harrigarrian erantzuten dio, hau da galderei galderen bidez, hirurogeita hamar eginez. Galderen artean deskribaketa basatiak tartekatzen ditu: hala deskribaturik datoz ostruka, zaldia, arranoa, ekaitza, zazpi konstelazioak, ozeanoa haur troxatu basatia, hodeiak, Behemoth eta Leviathan. Jobek eskura zeukan munduaren kritikan mundu hobe baten susmoa tartekatu zuen; Jabek erantzun bezala asmakizun bat bestearen ondoan jartzen dizkio naturaren alderdi inmediatek eta izatearen naturaren indarretik abiatuz, hau da Jobek, bere legenarra arren, bere galderez adierazten eta bere arrenkuraz ukitzen ez duen alor batetik. "Nor da senik gabeko hitzez nire asmoa iluntzen duena?" da Jaberren lehen galdera (38, 2), eskola maisu batena bezain beldurgarria. "Non zeunden zu, munduari oinarri ipini nionean?", da Jaberren bigarren galdera (38, 4), sumindu arranditsua, azken batean xahutzailea eta ondoren datorkio erantzuna bere buruari egindako salmuan: "Ni goraiatzan bainaute goizeko izarrek eta pozez oihukatzen Jainkoaren seme guztiek". Jaberren galderak sarkastikoak direla esan izandu da, baina inolaz Joben sarkasmoa etorri zitzaizen lehenago: "Zer da gizona zu hartaz oroï zaitezen, edo-ta gizasemea, zu hartaz axola zaitezen?" (7, 17). Honekin Jobek salmu bat aipatzen zuen, kreaturaren jaiara eskertua bere sortzailearekiko azaltzen zuen pasarte oso jakin bat (Sal. 8, 5), baina ironiaz beterik aipatzen zuen, atsekabeen erdian dabilen sineskaitz batek bezala, eta horrela sarkasmorik dastagarriena sortu zen, bera Jainko baten esanera legokeen har bat balitz bezala. Badago parekidetasun erretoriko aipagarria 31. kapitulan bere egintzak kontatzen dituen Joben eta 38. kapitulan bereak kontatzen dituen Jaberren artean; Joben errolda ez bakarrik dator lehenago, baizik moralitatea jartzen du Jabek natura jartzen duen lekuan. Jaberren galderek, natur zientziari dagozkien neurrian, ez daukate beren barnean betikotasunik, Jainkoaren hitz diren beste idaztietan propio den bezala. Mende gutxi Joben ondoren, Plinio eta Plutarkoren garaietan, Jabek begien aurrean ipintzen dituen naturako harrigarrien zati bat ez zatekeen izango gehiago hain bikain. Natur ikerle batek, Alexander von Humboldtek alegia, goraiatzan du 37. kapitulutik, Elihuren aintzinsolasetik Jaberri dagokionez: "Hodeitza batean gertatzen diren prozesu meteorologikoak, haize ezberdinen arabera lurrunaren sorketak eta desagiteak, haien koloreen jokoa, txingorraren eta trumoi burrunbariaren sorrera sen oso zehatzez deskribatu dira; gure gaurko fisikak esaera zientifikoaren bidez formulatu baina behar bezala asmatzen ez dituen galdera asko aurkezten ditu" (*Kosmos*, Cotta, III, 35). Hala ere hori ez zen Job kezkatzen zuena, eta horregatik lotura egokia falta da. Jabek galdera moralei erantzun fisikoak ematen dizkie, kolpe bat emanez kosmo neurtezinezko ilun-argi batetik menpekoen ulermen mugatuari. Bortitz dira hemen zalantzarik gabe naturako irudi hurbilak, harrigarri gertatzen da nolabait esateko panteismo demoniako baten usain ukaezinezkoa (65. eta 74. salmuetan aldeztu aurretik edo une berean eratua).

Natura ez da gehiago, Genesiko 1. kapituluaren bezala, giza historiaren leku edo eskena soil, baizik soineko bat, Jainkoaren handitasunaren gako bat da - Jainkoaren egintzak ez dira gehiago antropozentrikoak. Teologia gizatiarra hautsi egiten da, haren gainean ortzia eta kolosoak daude. Hala, beraz, hemen, Genesia 1, 10 eta 14aren kontra, izarren lurraren sorkuntza aurretikoak dira (Job 38, 7); era berean naturaren hondamendiaren osteko gizakiaren salbazioari buruzko teleologia gizatiar oro, promesa oro (apokalipsia profetikoetan bezala) falta da Jainkoaren hitzetan. Jabek bere handitasunaren proba bezala abereen mundutik hartzen ditu adibide zentzubakoak edo odoltsu zabarrak; helburu razionalak ere falta dira hemen. Ostrukak "ez dio jaramonik egiten alferrik lanean aritzeari, Jainkoak ergel sortu baitu" (39, 13. ur.); "arranoaren kumeek odola edaten dute, hildakorik dagoen lekuan hantxe dago bera" (39, 30); Behemothi, hipopotamoari dagokionez, "uste litzateke Jordan ibaia edango duela bere muturmintzekin" (40, 23); eta ez gizaki batengatik, baizik Leviathan, itsasoko herensuge moduko batengatik esango da: "Lurrean ez dauka parekorik; ezeren beldur ez izateko eginga baita" (41, 25). Behemothen eta Leviathanen ereserkiak geroago sartuak dira seguruenera Joben liburuan; hala ere ez-gizatasun honen izpiritua oso zuzen, kolorez guztiz beterik ispiatzen dute. Eta makurkeria erabatekoz hondatzen du Jabe honek profetek esne eta ez-tian zentraturiko bere probidentzia moral eta razionalari buruz esan zutena; hala ikus daiteke iragarkizun orogainetiko eta heteronomoan, "inor ez dagoen lurrean, gizakirik ez dagoen basamortuan euri egiten duela" (38, 26). Guztia Bibliari guztiz arrotz egiten zaion teofania bat da, eta balirudike berriro ere beste Jainko bat dela, sumendiko Jabe arriskutsuarekin zerikusirik bat ere ez duena alegia. Isis demonio bihurtu bat edo naturako Baal bat dakar azken batean gogora; gogora dakar areago, zur eta lur uzteko moduan, mutatis mutandis, milaka urte geroago zerbaitetan - Spinozaren Jainkoa. Berriro ere entzungo balitz bezala Jaberaren hizkera, helbururik eta are zentzurik gabea, Spinozaren adierazpenean: Jainkoak natura zuzentzen du bere lege unibertsalen arabera, ez gizakiaren lege eta asmo berezien arabera ("*adeoque Deus non solius humani generis, sed totius naturae rationem habet*"). Joben Jaberari falta zaio noski Spinozak aipatzen zuen *ratio* eta autarkia; hala ere harrigarria da hurbiltasun antiteleologikoa. Horregatik ez da baztertzeko Spinozaren erlijioaren lehen iturrietako bat Joben azken kapituluaren egotea, baina, Spinozari dagokionez, Pan erabat demoniorik gabeko batekin inolaz.

Baina zergatik azaltzen da Job errudun bezala, are komentzitu bezala, zergatik esaten du: "Eskuaz ahoa itxiko dut" (40, 4)? Rudolf Ottok, "*Das Heilige*" bere liburuan, irtenbide bat ikusi nahi izan du ongiaren eta gaizkiaren bestalde idorrean, Jabe honek bere beste alde irekiko balu bezala. Jabek onbide anker hautatuzko irudiak eskainiko lituzke; ez dago urruti halaber *Bhagavad-Gitaren* II. kantuko oroimena, non Krixna Ardjunari azaltzen zaion, hau da heriozko eta hilortuzko jaki nazkagarri bezala. Baina guzti horrekin ere Job ez litzateke errudun sentituko, ezta komentzituta ere, baizik berriro ere lurjota, izpirituaren aldetik deuseztaturik, *ex allo genos metabasisaren* bidez, hau da, profeten aurretiko, are Kanaan aurretiko demoniotarrean. Eta: Joben egileak beharbada Jaberaren demoniotartasun argitu eta une berean ozen iragarri hau (bereziki instrumentaketa kosmiko bikain batez) kontsolagarriago aurkituko zuen eskuartearen zuen justiziaren Jainkoaren maskarapean zuen zuzentasun gabezia baino. Inolaz hala ere Joben egilea ez da Rudolf Ottoren edota mistikaren maskarapean dauden gau odoltsu nahasiaren gaurko adiskideen aintzindari. Bere heroe desesperatua iraultzaile bezala aurkeztua zegoen, are, esana dagoen bezala, Prometeo bibliko bezala azaltzen da, honako "Eskuaz ahoa itxiko dut" (40, 4) pasarte egokitzen ez zaiolarik. Bukaerako konformitatezko eskena antzinatasunari dagokionez Joben sendaketari buruzko herri-liburuaren amaiera tradiziozkoetik, Jobek Jainkoarekin bakeak egiten dituenetik hurbil

dago; eskena honek zubi egiten du hemen. Dela egileak tartekatu zuela, bere heresia arriskurik gabe agertu ahal izateko; eta hori lortu zuen. Dela naturako ekaitzaren eskena geroago tartekatu zela; eta hori aurreko zatiekiko duen hizkera batasunagatik, bere indar poetikoagatik ez dirudi egiazko. Dela azkenik, Joben egilearen baitan bi pentsamendu elkarrezinezko batera datozelako; iraultzaile-gizatiarra eta harekiko guztiz bestelako bat, ez-gizatiarra, kosmiko-heteronomoa (muinaren ezpaltze bat, idazle handiengan parekorik ez lukeena). Beraz, kasu zail honetan apenas geratzen den besterik ez bada ekaitzaren eskena lehen zentzuan ulertzea: heresien estalketa bezala, hura adieraztea baitzen inportanteena. Naturako Jainkoaren handitasuna (horri buruz salmoetan adibide bikainak azaltzen ziren), handitasun horren prezioa herri-liburuaren antzinako kontakizun estalkiaz lotua izan zen; eta estalkia izarrez apaindua izan zen. Inportantea, are erabakiorra guzti honetan da sarri ikusi gabe utzia, alegia idazleak askoz lehenago *beste irtenbide* bat ipini zuela, *iraultzaren sakonetik benaz sortutako bat*. Irtenbide honek pasarte honetako testua erremediorik gabe hondatu delako, orobat Luteroren itzulpenak gaineratu dion harmonizazio eliztiarraren eraginez, bere argitasuna galdu du, bere argitasunaren gatz. Jobek Vulgatan bezala Luteroren Biblian esaten du hain zuzen: "Baina nik badakit nere salbatzailea (*redemptor*) bizi dela, eta geroago lurretik esnatuko nauela. Eta ondoren nere larru honetan bildua izango naiz eta nere haragitan Jainkoa ikusiko dut. Neronek ikusiko dut bera eta nire begiek ikusiko dute eta ez beste batzuek" (19, 25-27). Teologo protestante edo Itun Zaharreko filologo pila bat saiatu da jatorrizko testu hondatuari buruzko barrundatan; hala Duhm bere "*Kommentar zu Hiob*", 1897, eta Bertholet, hari jarraiki. Baina testuan zalantzarik gabe helarazten den *goël* hitz hebertarra ezin itzul daiteke salbatzaile hitzaren bidez, hau da harrez gero hitz honek hartu duen esanahi kristau otzanduaren bidez. Ez du esan nahi ezta ere Jabe salbatzaile bezala, pasarte honen ulermolde judu-ortodoxoaren arabera; *goël* hitzaren zentzua baita: senide eta oinordeko hurbilena, hildako baten mendekua hartzeko obligazioa daukana, antzinako garaietako *goël had-dâm* bezala, odol mendekatzaile bezala (4. Moys. 35, 19). Gaur daukagun testuak, barneko loturarik ez duen bere egoera hondatuan, hitzez hitz honela dio: "Eta nik badadit nire mendekatzailea bizi dela eta bera azkenik (azkena) hautsetatik altxatuko (sorotsi, irmo egon, eutsi) dela. Eta nire larrua ken diezadatenean, eta neure haragitik Jainkoa ikusiko dut. Baldin (hura) nerez (niretzat) ikusten badut eta nire begiek ikusi zuten eta ez beste batek". Bertholetek (*Biblische Theologie des Alten Testaments II*, 1911, 113. or.) testuaren nahasmendua ordenatzen du, barrundak erabiliz, saio bezala: "Baina nik badakit nire odol-mendekatzailea bizi dela eta azkenerako hautsetik altxatuko dela. Nire errugabeziaren lekukoa nire ondoan izango da, eta errutik libre utziko nauena nirez ikusiko dut, nik nire begi propioez ikusiko dut eta ez beste batek". Hebraiera berantiarrean noski, beraz Joben liburuan ere (ontzat emanez, halako bozkariozko pasarteetan esanahi arkaikorik ez dela hobesten), *goël* hitzak orohar abokatua esan nahi du; baina esanahi ahuldu hau ez datorkio inolaz Joben haserreari, Jobek Jaberren kontra dagien guduari. Ez datorkio bere baitan egin egin duela sentitzen duen okerrari, eta lehentxeago hain bortizki salatu duenari: "Lur, ez estali nire odola eta ez eman nire deiadarrari atseden lekurik. Hara, nere lekukoa zeruan dago eta goietan nire aldezea" (16, 18 hur.). Horrela esanahi bakoitza doa mendekatzailearengana, Joben mendekatzailearengana, Job deuseztaturik sentitzen baita eta bere odolak zerura egiten baitu deiadar, izendatu gabearengana, ezezagunarengana, honek errugabe baten hilketa benetako justiziaz pertsegitzen eta desegiten baitu. Garbi dago "odol mendekatzailea" "salbatzailea" ordeztu jarritz ez dela eskaintzen Kristoren inolako "profeziarik"; baina ez da aipatzen akerra lorezain bezala, etsaia kolpatuaren abokatu bezala. *Jobek bilatzen duen adiskidea, senidea, mendekatzailea ezin izan daiteke Jabe bera, haren kontra dei egiten baitio Jobek*

mendekatzaileari. Hari berriro segituan erasotzen baitio, 31. kapituluan zintzo baten kodea kontrajartzen baitio. Egiaz Joben hiru adiskideen, tradizionalen ahotsa, besterik ez bada tenplea, ez da orain arte gisa berean tradizional den 19, 25-27ko exegesian inolaz inon galdu. Ezta "odol mendekatzailea" filologikoki gutxienez ezabaezinezko bihurtu arren; harmonizazioa, beti berdin dirauen teokratiko baten zentzuan, garaile ateratzen da beste Bibliaren gainean, nahiz hau hain hondaezinezko altxatzen den testu hondatua. Horrela beraz Joben eta bere izaera hain bikoiztasunik gabearen hankaz gora jartze bat egingo da, Auschwitz izugarriaren ondoren Jainkoaren menpeko izatea zein premiazko denaren seinale bezala. Hiru adiskideek beren jarraitzaileak dituzte milaka urte pasa ondoren ere, Job eraberritzailearen *ad minorem gloriam*: "Jainkoari (!) odol mendekatzaile bezala deitzen dion deiadarrean ere, antzinateko (!) ideia bati heldu dio berriro: Jainkoa da bizitza ororen jabe; bizitza edozein indarkeriaz arriskuan jartzen bada, han dago jokoan Jainkoaren zuzeneko interes bat; hori badaki (!) Jobek eta horregatik handikiro dei egiten du Jainkoarengana - Jainkoaren kontra" (beraz ez berdinarengana). "Bere borrokako tentsio izugarrian Jainkoaren irudiak desegingo ote duen mehatxatzen du. 14. kapituluan dagoeneko halako zer bait bideraturik zegoen, baina han Job saiatzen da desegiten, denborazko segida baten zentzuan: hasteko haserrearen Jainkoak ekiten dio" (baita zuzen baten kontra ere?), "gero bere kreatura maite duenak. Orain ordean tradizioko Jainko babeslearen eta bere esperientziako Jainko deuseztatzailearen arteko etena sakondu egiten da, bata bestearen ondoan ipiniz. Jainko adiskide baten existentzia bapatean eta zorionez Jobek ezagutu duenean, ezinezko egiten zaio (!) Jainko etsai baten egiazkotasuna ezabatzea. Batetik bestera handikiro (!) gora jotzen du, eta badaki Jainko bermatzaileak, Jainko salbatzaileak Jainko etsaiaren kontra" (nahiz biek bata bestearen ondoan bakarrik egon behar duten betiko berdintasunean) "bere auzia garaitaraziko duela. Irakurle oro konturatuko da bi pasarteak, 16. kap. 19. ur. eta 19, 23. ur." (azkena hain zuzen odol mendekatzailea azaltzen dena) "Joben borrokako puntu gailurren direla; beste inon ez du hura inguratzen halako ziurtasun batek eta halako kontsolamendu batek" (v. Rad, *Theologie des Alten Testaments* I, 413). Benetan irakurlearen ziurtasun horrek berak edo hobe esateko Joben hiru adiskideenak testuaren araberrago aitortu behar du: "Ezin seinala daiteke irtenbide bezala, elkarriketa ere ez baita hemen amaitzen...; seinale garbia, arazoa (!) ez dela konpondu haustura kontsolagarri hauekin" (exegesia bihurtuago gehiago). Jobek dei egiten dion odol mendekatzailea ez bakarrik ez da haserrearen demonioa, odola berak isurtzen duena, baizik oraindik gutxiago azkenik azaltzen dena, inolaz haserrearen edo salbazioaren menpeko dena, gizakiaren atsekaberako salbatzaile begirada propioa daukana, Joben liburuaren azkenean erabat bestelako bezala azaltzen den kosmos-demonioa. Hau aspaldi ukatua zuen Jobek: "Ekaitz batekin hautsiko nindukeen eta nere zauriak zergatirik gabe ugalduko" (9, 17). Jobek nahi zukeen hain zuzen Jabe ez zekion era horretan agertu eta zapaldu. Mundua gizakirik gabe ere izan zitekeela, hura ez dagoela gizakiari lotua: irakatsi hau ez da inolaz Jobek espero zuen mesianikoa. Hurbilago dago mendekatzailea, "Israelen eztei garaiko" Exodoko Jaberengandik, baina Exodoko izpirituak eskura daukagun sorkuntzarekin eta mundua zuzentzeko moduarekin bat ere zerikusirik ez duelarik inondik. Beraz: mesianismoaren *zorrozatasun osoa* azaltzen da, oraingo munduaren eraketaren guztiz antitetikoa. Joben galderei, bestelako izateari buruzko itxaropenari dagozkien zalantzei erantzuna *mendekatzailearen erreinuan emango zaie, eta hori norberaren kontzientzia onarekin lotuta dago*; bestela ez zaie beste inon emango. Hori da beraz Joben idazleak xedetzat zuen irtenbidea; eta moztu egiten du Jaberaren eskua eta haren desbideraketa natura batera, non gizakiak ezer edo oraindik behintzat ezer balio ez duen. "Gizon batek Jainkoarekin eztabaidarik izan ahal baleza, gizaseme batek bere adiskidearekin bezala!"

(16, 21): Zu desiratuenen hau ez dago noski patuaren nahas-mahasean, baina ezta ere aldeztetik markaturiko naturaren *Tremendum* soil batean.

B. Prometeo pazientziatsu edo hebertar? Jabe baztertuz ere ez dira desagertzen Joben galderak

Ezaguna denez, gizakirik haserretuena pazientziatsuen bezala jarria izan da. Zuzen-zuzenean aurkeztua; zalantziak berriro eskortara itzularazi behar zituen Jobek. Herri-liburuak garaitu du idazlearena; pazientziatsu otzan bezala dago iraultzailea elizaren arabera. "Jaunak eman zidan, Jaunak kendu zidan", hasierako hitz hauek, "Jaunak bedeinkatu zuen ondoren Job lehen baino gehiago", azkeneko hitz hauek erdian egosten ari zen guztia deuseztatu zuten. Horrela bihurtu zen Job pazientiaren adibide, eta Spenglerrek Fausto arabe deitzen du, inolaz ere ez delako. Izan ere mendebaleko Fausto bilaka zatekeena, uste zuen Spenglerrek, "arima magikoan" menpekotasun borroka bihurtuko da, inguratzen duen kupula batetan bizitzen jarriko. Job errebolatua hain zuzen ekialdeko atsotitzetan bere guztiz kontrakoa bilakatu zen, kameluaren izen metaforikoen artean hau ere badagoelarik: *abu Eyyûb*, Joben aita. Koranak Job goraipatzen du, pazientziatsu izatera ez bestetara makurtua, menpekotasunaren eredu bezala, Islamean bertan ere atentzioa deitzen duelarik, eta bederatziarren Surak bere borroka sakoneko kietismoaren bidetik argitzen du: "Ez dago ihesirik Jainkoarengandik urruti, harengana baizik". Egia da judu ortodoxoei ustezko Jainkoaren pazientziatsua behaztopa gertatu zaiela beti, baina elizarentzat aipagarriro menpean jartzen diren guztien *princeps* bihurtu zen. Talmudean hala ere Job oso susmagarri da beti, esan bezala: *ba'at*, errebolatu egin zen, da iritzi zabala; egiaz Talmudeko pasarte baten arabera Moises bera izan omen zen Joben liburu idatzi zuena, baina eztabaidako edo Jaberren herio aingeruaren kontra altxatutako Moisesena izan behar zuen, Haggadak kontatzen duen bezala. Elizak bere aldetik Job sarriegi bere hiru adiskideekin nahasten du, klerikalizatze orok muturloki bezala prest dauzkan komentziozko arrunkekin. Elifas inozoaren parera makurtzen du Job, inolaz ere herri-liburuko tentaldigainditzailaren parera. Jabe hiltzaile deitzen zuen gizon bera izan behar zuen horrek, "horrek biak hiltzen ditu, jaieratsua eta Jainko bakoia" (9, 22); hau da Jainkotasunaren erronkari titanikoa. Hau da gizona erronka titaniko horretarako erdi-jainkorik ez aurkeztu ez behar ez zuena, tragedia grekoan Zeusen kontra bezala, bai ordea bere subjektu propioa horretarako erabili eta ipintzen zuena, gizaki bezala irmo egonik etsaiaren ustezko ahalguztiduntasun baten kontra. Labur esanda, ordainketa moralaren dogma, esperientzia izugarrien bitartez, ustel bezala azaltzen den mundu batean aurkitzen da Job; ez du bakarrik sufritzen, ordezkari bezala egiten du protesta. Profetek iragarri nahi zuten erabaki moralaren eta patuaren arteko lotura baldintzatua ere aspaldi galdu zen hiru adiskideen ordainketa dogma sotilean, sari eta zigorraren mekanismo moduko batean. Egiazko bizitzak ez zuen halakorik erakusten, ez zuen erakusten probidentzia onberarik ere, are gutxiago erakusten du azkenik gizakia ekaitzean txikitu eta lurraren zatitxo izatera makurtzen duen Jabe hark ere. Are, Jabe honek berak eskema honetan berriro aldatzen du Joben adiskideek bera bihurtu zuten probidentziaren desio irudia bera; horregatik ironiarik sakonenaz Elifasi ahakar egiten dio: "Nire haserrea piztu da zure eta zure bi adiskideen kontra; ez baituzue nitaz zuzen hitz egin, Job nire morroiak bezala" (42, 7). Baina Jobek Jainkoaren irakasteko modu horretatik atera zezakeen ustezko menpekotasuna ez litzateke inolaz Berri Onaren gisakoa izango. Etsipen soila ekarriko luke baina ez kontsolamendurik; etorkizuna ere moztuta dago, azken eskenako Jabek ez baitu esaten, ondo antolaturik dagoen naturako demonio batentzat bezala, hitz mesianiko bat bakarrik. Inolaz ez du oratzen 19, 25eko Joben itxaropena, berarengana zuzentzen denean, alderantziz: itxaropen orok bere oinarria dauka eta edukiko du Joben beraren kontzientzia onean eta mendekatzaile bat

bilatzen duen berarengatik sortzen den erreboltan. Jaberren azalpenak eta haren hitzek zuzenean egiaztatzen dute Jobek Jainkoaren zuzentasunarekiko duen sinesgabezia eta zuzentasunaren Jainkoaren agerpen izan ordez Jainko baten beraren ateismo bezala dira moralari dagokionez eta handik abiatuz. Kasik hala Jaberren eskenaren idazketa ikuskizun paradoxalaren seinale bat da, Jean Paulek titulatu zuen harako hura bezalakoa: "Kristo hilaren hitzaldia munduko eraikuntzatik behera, Jainkorik ez denaz". Gero eta menpekotasun gutxiago sortzen dela, orduan eta gehiago bihurtuko da ustezko teodizea bere alderantzizko: Gizakia Jaberengandik aldentzea, hautsaren gainetik altxatzen den mundu baten irudikatzea. Inolaz ere ez da mundu hau Jobengan heriotzaren ondoko bizi-iraupenarena, haren bitartez dena on eta eramangarriro berdintzen delarik. Judaismoak ez zuen halakorik ezagutzen Joben garaietan, gorputza lurrera eramango da, itzalen lurraldera. Jobek mundu bat aipatzen du bizirik gorde edo eraberritu zaizkion begiez ikusiko duena, injustiziaren printzipioari auzia egiten dion mendekatzaileak edo ordain-kitatzaileak ekarria. Gizakiarengan eta haren moralitasunean bide bat adierazten du, natura bezala Jainkoa zeharkatzen duena. Hazten ari diren Joben esperientzien, Joben pentsamenduen bidez teologikoki beharrezko diren aitzakia guztiak falta dira oraindik; hasteko orain ezinbesteko bihurtu den teodizeako apologia guztiak falta dira. Bekatuan erortzea falta da irakaskuntza osatu bezala, haren bitartez sorkuntza txarra Adanen okerraren bidez eta sartu diren demonioen bidez zuritua dadin. Areago falta da oraindik Satanen ideia osatua, Jaberren bekatuen ordain-aker izugarriena, noren gainera botako zen bizitzako txarkeria oro; Joben herri-liburuan hura azken batean salaketaren aingeru bat da, kasurik txarrean inbidiatsu eszeptiko bat; Joben liburuan edozein modutan ez da inon izendatua izango. Antzinako garaietan beharbada okerrerrako tentatzaile bezala hartua zatekeen ("Eta Satan Israelen kontra jarri eta Dabid bultzatu zuen herria zenba zezan", I. Kron. 21, 1), baina hemen ere ez egile bezala. Lehen Isaiasengan aurkitzen den Luziferren erorketako arrazoia bera ere ("Nolatan erori zara zerutik, goizeko izar eder hori!", Is. 14, 12) gerora egokitu zen Satanologian; leku horretan Babelgo erregeaz bakarrik ari da. Eta Jobek bere erreboltaren sakontasunetik teodizea zuritzaile guzti horiei kontrajarriko lieke: Jabe ezin izan daiteke une berean ahalguztidun eta on, Satani baimen ematen badio. Ahalguztidun eta gaizto izan daiteke bera, edo on eta ahul: ahalguztiduntasuna eta ontasuna bateratuz lehenago txarkeriarentzat bezain leku gutxi dago gero deabruarentzat pertsonalizazio edo bitartekorik gabe. Egia da profetek bezala haien eraginpean Pentateukoan tartekatutako pasarteek batzuetan badutela beste dualismo mota bat, kontutan hartzen ez dena, eta hori gutxiago jotzen zuten Joben eragozpenek. Eta hain zuzen ez, hemen kontrajarpena ez delako ontasunaren eta gaizkiaren artekoa, Ormuzd eta Ahrimanen artekoa, maitasunaren eta indiferentziaren artekoa baizik, nolabait esateko. Profetek, Jaberren toposari oraindik eutsiz, irakasten zuten zoritxarra aita zuzen batek heziketarako eta probarako bitarteko bezala erabil dezakeen zerbaitez gailu, berez, hau da Jabe gizakiengandik apartatze soilaren bidez datorren zerbaite ere badela. Deuteronomio berantiarrean adierazten du hori Jabek: "Neure aurpegia ostenduko dut haien aurretik, eta suntsituak izango dira, eta zoritxar eta neke asko jazoko zaizkie. Egun horretan esango dute: Jainkoa gurekin ez egotea ez ote da gaitzok ekarri dizkiguna?" (5. Mois. 31, 17). Zoritxarra eta nekea Jainkoarengandiko urruntasunean, Jainkoaren urruntasun horren bidez loratzen diren izaki batzuk bezala ikusiak daude hemen; ez dira ikusiak Jabek edo kontrako jainko batek hala nahitako bezala. Patu jareginak dira, indiferentzian jareginak eta berez ekiten dutenak indiferentziarekin gurari gizatiarren kontra - naturako demonioa bezala Joben liburuaren azkenean. Jainkoaren ahalguztiduntasunak eta ontasunak huts egiten dute biek ere halako puntuetan: Egiptok edo Asurek, Jainkoa bertan ez denean, zoritxarra ekar dezakete Israelen gainera, berez

sortzen den haize-erauntsia bailitzen. Profetek aldaketa honen bidez bekaturik eta Satanik gabeko teodizea bat bilatu dute; eta oraindik Augustinengan haren oihartzuna senti daiteke, honek, Satanen erabilera oparoena egiten badu ere, esaten baitu: zoritxarra omen dator Jainko gabeziatik, Jainkoa ez omen da munduko gaizkirako *causa efficiens*, baizik *causa deficiens* bakarrik. Joben haserrea noski ez litzateke baretuko ezta Jainkoaren urruntasunaren halako, bere lagunena ez bezalako, teodizearen aurrean ere, are gutxiago berak Jabe bera naturako demonio guztiz arrotz bezala ikusten duenean. Munduko miseriarentzat Jaberaren koartada bat ez da erantzukizunaren aurrean inolako aitzakia ezta ordezkio; benetako ahalguztiduntasuna eta ontasuna ez lirateke sekula indiferente bihurtuko ez nekatuko. Eta hau ez bekatariei dagokienez, eta are gutxiago, Joben errealismoak etengabe egiaztatzen duen bezala, zintzoei dagokienez. Teodizea oro harrez gero, Joben galdera gogorrek kontutuan hartuz, leialtasun falta da. Joben liburuak ahalguztiduntasunaren eta guztizko ontasunaren abokatuak martxan jarri ditu, halaber haren harmonizazio oro *a limine* eragotzi du. Jabe Jainko sortzailearen edo are zuzentasunaren Jainkoaren ideia, gehiago izan ere ez dela esateraino, erabat utzi duten gizakientzat, haren justifikazioa ez da noski gehiago problema edo, dirudienez, erlijioaren historiakoa da bakarrik. Teodizearen irtenbide errazena, esaten zuen Argikunde frantsesak, da: *que dieu n'existe pas*. Beraz, ateismo moralari, Joben liburuko amaierako teofania oro uler daitekeen bezala ulertuz, ontologikoa gaineratzen bazaio, teodizearen arazo guztiak *causa sui* gabeko apologetikaren antza hartzen du azkenerako. Are -eta hau garrantzia handikoa da- Joben galderak eta salaketak, bere errebolta osoa, tronuan dagoen Jainko bat kentzen bada, xederik gabeko azaltzen dira.

Hau horrela al da, hau da, galdetze mingots berari dagokionean? Joben liburuak ez al dauka ateo erosoentzat beste errealtaterik ez bada historikoa edo psikologikoa edo, nola ez, poetikoa baino? Ez al da geratzen oraindik natura basatia, Jabe gabe ere, gizakiaz kezkatu ez dena eta ezer sentitzen ez duena? Ez al dira geratzen gaisotasuna, nahasmendua, ezjakintasuna, destaina bizitzan, ez al da geratzen zerbait hura bizitzan - baldintzaketa edo hipostasia transzendenterik gabe ere-, nori buruz Jobek esaten duen: "Errudun edo errugabeko, biak hiltzen ditu" (Job, 9, 22)? Ez al da geratzen heriotzea, nori buruz Jobek betiko hitz izugarriak botatzen dituen: "Zer itxaron dezaket, lurrazpia (*xeol*) da nire etxea, eta ilunetan dago egina nire ohea. Hilobia deitzen dut neure aita eta harrak neure ama eta arreba. Non dago, bada, nire itxarotea, eta nire itxarote guztiarekin, nork ikusten du hau? Lurrazpira joango da eta nirekin hautsetan geratuko da" (17, 13-16).

Unibertso gor bat geratzen da, gizakiaren helburuen zerrendekin betiere oraindik bateratu gabea; guri geratzen zaigun erreakzioa salaketa ez bada, geratzen zaigu, bai, gutxienez galdera izugarria, harridura negatiko izugarria. Teodizea bezala pentsatuari dagokionez, orain zentzu inmanente baten *arazo* bezala ezpaldurik, apologiarik eta agintaritzat transzendente goren baten eta haren zainketaren ustekeriarik gabe dagoelarik: ez al dute behar gurarizko ametsek, hainbesteko nekea daukatelarik, kontsolamendurik, haientzat hala ere aldeztu aurretik zerbait ikusia dadin? Ez al dute behar gizatasunaren kontra eraikitzen diren egintzek, ez al dute behar zehatz izan nahi duten utopiek, oraindik-egiaztatu-gabekoen plangintzek munduaren muinean parekideren bat? Miseriaren eta hura gelditzeko joeraren arteko, esplotazioaren eta esplotazioko dialektika jarraituaren arteko elkarketak ez al du ulertua izan behar? Ez al du behar dialektika materialistak berak, hau da hain prozesu neketsu, hain neketsua behar duenak, justifikatua dadin? Nondik dator premiaren erreinua, hain luzez zapaltzen duena? Nolatan ez dator kolpetik askatasunaren erreinua? Nolatan lan egin behar du premian barna? Zerk zurretzen du haren atzeratzea? Arazo hauek ateismoan ere dirautenak dira, historiarik eta egiazkotasunik gabeko, are zentzurik gabeko optimismo

ez diren neurrian. Eta halaber historiari gabeko nihilismo ez diren neurrian, gizakia amets-egile barregarri delarik (nahiz gizaki hauek beraiek ere eskuartean daukagun munduko diren), inguratzen gaituen heriotz-arroztasun soila bere baitan duelarik, harako ez-gizaki-izate gorgoniko-kosmiko hura bere baitan duelarik, non guri-ez-dagokiguna behin eta berriro bildu behar den. Joben galderak ustezko zuzentasunaren Jaberengandik irtenez ere ez daude erantzunda. Lekualdatuak, eraldatuak geratzen dira ekaitz beldugarriaren aurrean ere, Jaberik gabeko munduaren isiltasunaren aurrean ere. Teodizearen irtenbide errazena ez da beraz harako: *que dieu n'existe pas*; orduan galderak sortzen dira guretzat guztiz gor, iluntasunez zikindurik dagoen munduaren ibilbidearen aurrean eta haren barruan higitzen den materiaren aurrean. Modurik errazena da, munduan behin eta berriro irtete bat badagoela, oraingo egoeratik ateratzen duena, eta itxaropen bat, haserrearekin lotzen dena, are izate berri baten posibilitate konkretu jakin batzuetan oinarritua dagoena. Helduleku bat bezala etorkizunean, inolaz huts egin ez duena baina inolaz irabazi ez den prozesu batekin, haren irtenbidearen, gure irtenbidearen ernalketa ahaztezinari esker. Jainkoaren ideia zesarretetik irtetzea, Jobek hasi zuen bezala, gizakia tirania mota guztien gainetik, goitiko justizia zalantzarri baten gainetik, are naturako maiestate baten bere baitako mistika berri baten gainetik jarritz: *irtete hau ez da inolaz irtetetik irtete bat*. Alderantziz: erreboltatuak dauka Jainkoaren konfidantza Jainkoagan sinetsi gabe; hau da *Egiptotiko Exodoko* Jabe berezi batengan du ustea, egokitze mitologiko ororen zergatia igerriko balitz ere, jaunen erantzun oro gorantzako jatorriari dagokionez amaituko balitz ere. Jobek aipatzen duen Jainkoa: bere fruituetatik ezaguna, hainbesteko indarrez eta handitasunez agintzen eta zapaltzen duena, zerutik dator faraoi bezala, baina Job hain zuzen da jaieratsua sinesten ez duelako. Ez bada irteeran eta azken hitza, odol mendekatzailearena, odol isuria geldiarazten duenarena, labur esateko Gizonaren Semearena bera, Jaun Handiaren orde, era gizatiarrean oraindik esan gabe dagoela. Hitz bat, nondik ez den gehiago irteten, baizik hark berak, erabat izurik gabe, ezabaturiko goian sartzen duen.

V

AUT CAESAR

AUT CHRISTUS

25

Zein legamiaturik gauden gizakiok

Gu geugandik ez gara oraindik inora joan eta hemen gaude. Gure baitan oraindik ilun gaude, baina ez bakarrik gu guztiok gauden orain eta hemen hurbilegi eta bertanegiarengatik. Baizik, beste inolako aberek bere motakoari ez bezala guk elkarri hozka egiten diogunez, gure ezkutuan arrisku handiko garelako. Eta gauza gehiegitan gure barruan ezkutatuta, oraindik kanpora atera gabe gaudenez gero, beste bizitza mota edozein baino ezgauzago gara, aurrera egiteko irekita gaude. Guztiz aurrean oraindik etortzeko dagoen batean laguntzen ari gara gu.

Horrela aurretik hurbiltzen gara beti, legamiaturik. Izan ere hasten dena, jarioan bada ere, hasi egiten da, oraindik hasi ere egin gabe zegoelako. Eta hori, gu fronte gisa denentzat eta denetarako garen gizakitasunetik apenas norantza eta gehienik ere ahalegin bezala, zertarakoa atera delako. Inolaz horretarako badago aurrerapausu bat, baina oso sarri zalantzatia, beti orekatu beharrekoa. Eta hori hain zuzen ere, norberarentzat izateko helburua begien aurrean garbi dagoenean. Azkenik gure begitarte ezkukurako: gure auzi zuzenerako seinale bat zen eta da Jesus. Oraindik ez da atera legamitik eta bere pasabidetik, baina beste ezer baino lotuago dago gizakiekin eta haiekin geratu da. Seinalerik apalen noski, baina une berean kiskalgarrien bezala, gu gehien iraultzen gaituena, gu gehien behartzen gaituena. Bestela, hain luzaz eduki den bezala hipokritakiki edukiz, ez litzateke handik erakarpenik sortuko, ezta "ni naiz" bat ere, baizik berriro kumatzea. Baina guztiz bestelako zerbait ipini eta finkatzen da, Jesus horrek hain zuzen gure izenez deitu nahi gaituenean, gure izena aitortzen duenean. Gisako esnatzea samurra izan liteke, baina beti astintzen du, berri egiten du.

26

Otzantasuna eta bere "amorruren argia"

(William Blake)

Badira jaiotzetik arkume direnak, hauek erraz eta gustura makurtzen dira. Beren izaera da halakoa; horiei ez die Jesusek predikatu, indarrez, Idazteunean esaten den bezala. Are gutxiago oraindik dago bera Praixku ezteiek uste duten bezain xuabe. Otsoek batez ere ardientzat paratu duten bezala, hauek bi bider ardi daitezten. Hain geldi, hain mugarik gabe pazientziatsu aurkeztuko zaie beren ustezko artzaina, beste ezer ez balitz bezala, alegia. Fundatzaileak inolako grinarik gabea izan beharko zukeen, eta hala ere bortitzenetako bat zeukan: haserrea. Horrela irauli zizkien mahaiak tenpluan trukalariei, eta horretarako ez zuen ahaztu zartailua. Jesus beraz da pazientziatsua, bereen inguru lasaian dihardunean; ez dirudi haien etsaiak maite zituenik. Baina hara Mendiko Hitzaldia: ez da ari gizakiak elkarren kontra sutzen Kristoren izenean, Jesusek burubero baten gisan bere ikasleei hori gomendatu izan balie bezala (Mt. 10, 35, hur.). Mendiko Hitzaldia otzanak eta bakezaleak zorioneko deklaratu, ez dago zuzendua borrokako egunera, Jesusek hurbil uste zuen egunen azkenera baizik, Joan Mandeoaren predikuaren arabera; hortik dator beraz Zerueta Erreinuaren aipamen *bertatikoa*, *segituko* kiliastikoa (Mt. 5, 3). Aldiz *borrokarako*, Erreinuaren *sorkuntzarako* dator beste hitza: "Ez naiz ni etorri bakea ekartzera, ezpata baino" (Mat, 10, 34). Ez hura barnekotzat bakarrik hartuz, baizik kanpoko eta kiskalgarritzat: "Lurrean sua jartzera etorri naiz, eta nahiago nuke dagoeneko biztua balego!" (Lk. 12, 49). Horixe bera adierazten dute William Blakeren bertsoek 1789.ari dagokion argudioan: "Erreboltaren izpirituak tiro egiten du Salbatzailearengandik / eta Frantziako mahastietan azaldu zen bere amorruaren argia". Jesusen predikuan hautsi bakarrik ez baizik garbitu ere egiten

duten ezpatak eta suak palazio soilak baino zerbait gehiago jotzen dute; Eon zahar osoari dagokio, hura kendu egin behar baita. Baina lehen lerroan nekatuen eta zapalduen etsaiak daude: aberatsak, eta hauek -ezinezko denaren ironia osoa erabiliz- gamelua orratz begitik pasatzen ez den bezala, ez dira Zerueta Erreinura joango. Elizak gerora orratzaren begia asko zabaldu du eta horrela Jesus erreboltaren ikuspegitik kendu du. Gozotasuna, hain zuzen okerra egiten zutenen aurrean, atera zen garaile horrela, eta ez Jesusen amorrua. Hala ere Kautskyk berak, "estalkitxo erlijioso" bat besterik ikusi ez bazuen ere, "*Ursprung des Christentums*" liburuan (1908) aitortu behar izan zuen: "Gaurko proletargoaren klaseen arteko gorrotoak ez du sekula erdietsi kristauarenak bezain forma fanatikorik". Eta guztiz bestelako alderdi batetik, hau da "estalkitxo erlijiosoaren" aldetik, beraz *malgré lui* eta horregatik benetan txokatzeko moduan argitzen du Chestertonek nola azaldu zen Jesusito maitea eta nola ondoren mugatu zen jatorrasun etiko eta haren eraberrikeretara. "*Gizaki hilezkorra*" liburuan gisa honetan ematen dio merezitakoa: "Erroma suteen bidez errauts bihurtu zutela kristauak akusatzen zituztenek irain egiten zuten noski, baina kristautasunaren izaera askoz hobeto ulertu zuten modernoek arteko beste horiek baino, zeintzuek kontatzen baitigute kristauak elkarte etiko bat zirela eta beraiek beren urkoekiko egiteko bat betetzeko bazutela gizakiei argitzen zitelako edo beren otzantasunagatik mespreziagarri bihurtu zirelako heriotzeraino poliki-poliki martirizatuak izan zirela". Ezin estaltzeko moduan altxatzen da era honetan ere lehen kristautasuneko osagarri iraultzailea, orain artekoari eta haren zapalkuntzari amai bat eman dakion. Hor badago kontrapozoi bat pentsamolde jaieratsuen esne soilaren kontra, kontrakolpe bat umiliazioarentzat. Epelak bere ahotik bota egin nahi zituen Jesusek; ez dago Jesusen hitz bat gure orain arteko gizarteei dagokienik, are gutxiago Mendiko Hitzaldia, dena azken egunetan espero direnetarako dago zuzendua, gehiago: prestakuntzak egiteko. Hango adierazpen moralak ezin uler daitezke adierazpen apokaliptikorik gabe; eta hori Joanen Agerpen berantiarra baino lehen, hau ez baita jesustarra bakarrik, baizik beti ere prediku jesustiarra aipatuz ari den agerpena. "Eon hauskor honen azkeneraino sendo irauten duena salbatuko da" (Mk. 13, 13), hori Mendiko Hitzaldiko eskakizunen osagarri zorrotz bat zen. "Zuei esaten dizuedan hau, denentzat esaten dut: egon zain" (Mk. 13, 36). Hori ez da inolaz ere kietista, bai ordea, William Blakek esaten duen bezala, amorru gezurtaezinezko honetan argiarekin lotua.

Bataiatzaile etortzeko dagoenarentzat

Sufritzen bakarrik dagoena ezin altxa daiteke handik oso erraz. Nola eta ez duen jotzen arima ere zapaltzen dion pisuaren kontra. Sakonetik aldatuko duena entzun uste duenean, ate bat ikusten du. Batez ere aldaketa denboran oldartzen denean, aurrera jotzen duen aldaketa bat, eta gainera bapatekoa. Hala Joan Bataiatzailearen denboran, bazirudien denbora heldu zela, ordurartekoaren neurria beteta zegoen. Penitentzia egin behar zen, Zeruetako Erreinua hurbil etorria baitzen, eta haren aurrean garbi egin behar zen. Jordanen bataiatuz, ur korrontetan, antzinatik ere larru soila bakarrik garbitzen ez zuen uretan. Baina berria zera da: norbera bataiatu beharreko bat azaltzen dela, bataiatzen duen bat eta batez ere ohizko garbiketa erritual bat gehiago egiten ez duena, baizik lehen aldiz etortzeko dagoen bat hartzeko prestatu behar duena; harritzekoa: Joanez ordurarte Idazeunean inork, ezta Eliak ere, izan ez duen zuzeneko berezitasun aitzindari batekin etorriko denaren mandatari izan nahi du, baina ez mandatari bakarrik noski. Mezulari honek ez baitu ezagutzen bera baino indartsuagoa, bere ondoren etorriko dena eta ohizko uraz ez baizik suaz eta izpiritu berriaz bataiatu behar duena. Hortik, beraz, Jesusi Bataiatzaileak egiten dion galdera harrigarri eta ulerkaitza (Mt. 11, 3): "Zu al zara etortzekoa, ala besteren baten zain egon behar dugu?", eta Jesusen erantzuna bere jarraitzaileetako ez zen bati: "Zoriontsua, sinesteko niregan oztoporik aurkitzen ez duena" (Mat, 11, 6). Hala eta guztiz ere -eta horrek erakusten du Jesus gazteak zein neurri gutxian ikusten zuen bere burua "etortzekoa" bezala-, hala eta guztiz ere hasiberritan zegoen Jesusek onartu egin zuen Joanez bataia zezan. Era horretan, basamortuko nazirtar bat ez zen, baina eragin mandeo-persiarra izan behar zuen Joanez segitzen du lehenagoko edozein bezala odol agiri nazionalaz gaindi. Bataiatzaileak bere Jainko deitzen duenak "Abrahamen semeak harri hauetatik atera ditzake" (Mt. 3, 9). Beste itun bat agertzen da eta zain dago, zoriontsu ordea ez zuen oraindik egiten.

Berri Ona Jaunaren beldurrarekiko kontrako bezala; Jesusen sartzea Jaberengan

Batek etorri behar zuen, azkenik makurtua zutun jarriko zuena. Beti gauza bera espero zen, lehenbizi goitik behera, baina gero, ezer gertatu ez zenean, behetik. Juduen artetik etorriko zen heroea, bidali bat, baina bere kargua hura behar zuenak baino hobeto administratuko zuen bat. Mundua larritasunean ibili izan ez balitz, ez litzateke mesiasik ere beharko. Jesusek zalantza asko izan zituen mesias bezala azaldu arte, hasieran Bataiatzailearen jarraitzailetzat jo zuen bere burua, bataioa ere hartu zuen, zikin sentitzen zen. Tentaldien historiak (Mt. 4, 3-6) erakusten du Jesus komentziturik zegoela deabruaren gauza zela norberaren burua Jainkoaren Seme deitzea. Pedrok, bera Kristo deituko duen lehenbizikoak, errieta gogor bat jasotzen du (Mk. 8, 33). Sei egun geroago gertatu zen "antzaldaketak", kanpotik, hodeietatik entzundako ahotsak (Mk. 9, 1-7) eraman zuen Jesus azkenik dirudienez, eragozpen guztiak gaindituz, bere misioaren kontzientzia hartzera. Eta hemen jadanik garbi dago: misioa egiaz ezta zen, baina helburua ez zen *inolaz ere ez barnekoa bakarrik*, gerora, ustel atera zenean, esan zen bezala. Jerusalemera joan zenean izan ere Jesusek Hosannak onartu egin zituen; eta dei hori herriaren errege dei zaharra zen. Politikaren aldetik garbia zen, hain zuzen Erromaren kontrakoa: "Goretsia bedi gure aita Dabiden erreinua" (mk. 11, 10), "Hosanna Jaunaren izenean datorrena, Israelen erregea" (Jn. 12, 13). Apez Nagusiaren aurrean bere burua mesias bezala aitortzen du Jesusek, eta ez hain zuzen barneko eta abstraktu bezala, baizik Daniel ezkerotik tradiziozko ziren ahalmen seinale itxaron guztiekin (Mk. 14, 62). Pilatoren aurrean titulua hartzen du beretzat: Juduen errege; titulu horregatik izan zen gurutziltzatua (gurutzeta da erromatarren zigorra iraultzaren

kontra). Egia balitz Jesusek ez zuela izan nahi juduek espero zuten mesias, orduan ezin uler daiteke zergatik izan zituen kezka bere burua mesias bezala azaltzeko, eta zergatik gaudituz zituen kezka hauek. Bere burua gizon zintzotzat joko zukeen, arimazaintzat, gehienik ere profeta zaharren jarraitzailetzat; ez zen beharko zerutiko ikuskizunik halako ausartkeria bat erabakitzeko: *Tu es Christus*. Argikundekoek lehenbizi eta ondoren -errugabetsun gutxiagoz- teologo liberal antisemitek era horretan Jesus juduen mesias ametsetik apartatu dute, esan nahi baita: eskatologia politikotik ere. Hala hasten da joera hori tamalez Renanen "*Jesusen Bizitza*" eta zientifikoki Holtzmann, Wellhausen eta Harnackek prestatu zuten, eta Kristoren barnekotasun parekorik gabeko soil batez amaitzen da. Mespreziorik handiena inolaz Wellhausenekin aurkitzen du, Juduen erregeari dagokionez: "Berak begien aurrean zeukan erreinua ez zen juduek espero zutena. Haien itxaropena eta gogoia betetzen zituen, horiek beste ideal eta antolamendu altuago batera zuzentzen zituen neurrian. Zentzu horretan bakarrik dei zezakeen bere burua mesias: juduek ez zuten beste bat itxaron behar, bera ez zen juduek nahi zutena, baina bera zen egioazkoa, juduek nahi behar zuketena. Beraz, behar den bezala, hitzari orohar ematen zitzaion esanahia gorde behar bazaio, Jesus ez zen mesias izan eta ez zuen izaterik nahi ere. Bere erreinua ez zen mundu honetakoa, hau da: guztiz bestelako zerbait jartzen zuen mesiasen itxaropenaren lekuan" (*Israelitische und jüdische Geschichte*, 1895, 349. or.). Horrela eskatologia kendu egingo da ebanjelioetatik, filologiaren aldetik ondoen ziurtatutako zatietako bat bada ere; era horretan Jesusek, nolabait esateko, Jainkoaren erreinu etiko bat bakarrik aldarrikatuko zukeen, Daniel ezkerotik pietate judu guztia bizi izan zen amets apokaliptikotik guztiz aparte. Albert Schweitzerren meritua da (*Das Messianitäts- und Leidensgeheimnis*, 1901) proportzio zuzenak berriro finkatu izana, baita teologia liberalean ere: Jesusek etika (penitentzia, erreinurako prestakuntza bezala) eskatologian kokatu du, ez eskatologia etikan. Eskatologikoa, egia esan, Schweitzerrengan ere ez da ulertzen politiko-mundutiar-erreal bezala, baizik naturgaitatutako bezala, oso-oso naturgaitatutako bezala, zeru berritik *eta lur berritik une berean* oso urruti; edozer delarik ere: etorriko den erreinua azaltzen da hemen Jesusengan *lehen gauza* bezala, ez maitasuna. Erreinuaren intentzioaren ondoren dator maitasunarena, eta erreinua, kosmoko hondamendi bezala, ez da psikologiako gertakizun bat, bai ordea kosmokoa, Jerusalem berri baterantz. Jesusek ez du inolako denborarik ikusten begien aurrean barnekotasun soilaren etsipenerako, bataiatzailearen seinale garbi eta profetiko honetan bizi zen erabat: "Egin penitentzia, zeruetako erreinua hurbil dago eta". Bere ikasleak bidaltzen ditu (Mt. 10) binaka hiri juduetara, berria zabal dezaten; orain azaldu behar duen neke mesianikorako prestatzen ditu, gainerako aukeratuak bezala pertsekuzio gogorrek, beharbada heriotza bera ere aurkituko dutelako. Ez du espero inolaz bizirik aterako direnak joan diren bezala itzuliko direnik, hain hurbil baitago munduaren azkena, mundu berria: "Ez dituzue Israelgo herri guztiak igaroko, Gizonaren Semea etorri aurretik" (Mt. 10, 23). Aitagureak berak ere badauka lotura garbi bat segituan etortzeko dagoen *eskhatonaren* nekeekin; itzulpen oker batengatik bakarrik eduki lezake barnekotasun soil bat: "Eta ez gaitzazu tentaldira eraman, baizik libra gaitzatzu gaitzetik": tentaldiak (*peirasmos*) ez du esan nahi norbanakoa bekatura okertzea, baizik larrialdia, neke eskatologikoa, Antikristoren pertsekuzioa egunen amaieran. Pertsekuzio honek amaitu egin behar zuen, kaliza horrek igaro egin behar du, Eon berriak jaio behar du, haren etorrerak denbora, denbora luzea benetan, kontrairaultza baterako utz ez dezan. Hain zalantzarik gabea zen Jesusen sinestea, hurbil zegoen Sion berria ekarriko zuena izateko, non sineste hori gurutzean bakarrik galdu zuen. Sekula gizaki batek bizi izan duen unerik beldurgarrienean, herio oinazeekin batera, sinestea baino bortitzagoa, harako desesperaziozko garrasi hartan: "Jauna, zergatik utzi nauzu?" Hori hots egiten

du benetan egin zitekeen moduko bere obra nola galtzen den ikusten duen batek, horrela ez du hots egiten arima zuzentzaile soil batek ezta arima soilen zeruko errege batek ere. Izan ere, atsekabetuei eta zapaldueri zuzentzen zaien mezuaren bitartez jasotzen zuen bultzada *sozial* nazirtar-profetikoak ez zeukan inolako herio gogorik edo kontsolamendu guttiz izpiritualik. "Nagusitasunez irakasten baitzuen, eta ez beren arteko lege-maisuek bezala" (Mt. 7, 29), eta are gutxiago oraindik arimako doinu soil baten, nolabait esateko sentimendu eta izpiritualitate betiko soil baten Kristo sublimatu bezala. Mt. 11, 25-30 *logiona* gisa politiko-erlijiosoko poz dei bat da, zalantzarik bat ere gabe mesias-errege baten aginte hasiera adierazten du, eta azken esaldia dekretu bat da: "Eramanerraza baita nere uztarria eta arina nere zama". Zalantzarik ez dago horrekin ez dela adierazten gurutzeko uztarria, zama modu hori ez zen bat ere eramanneraza eta arina, hark ez zukeen eskainiko inolako berri pozgarririk. Subjektiboki beraz Jesusek bere burua mesiasztat hartu zuen tradizioak adierazten zuen zentzuan, objektiboki Jesus ez da inolaz azaltzen alber handi bat bezala barnekotasun ikustezinezko batean edo are zeruetako erreinu guttiz transzendente baten ostalari bezala; alderantziz, salbazioa aldarrikatzen da Kanaan bezala. Arbasoei agindu zitzaienaren betetze bezala, balio galerarik gabe, erdipurdikeriarik gabe, ezer kendu gabe, Kanaan bat mami izatera jaso: "Ez da inor, Jainkoaren erregetzarengatik etxea, emaztea, anaia-arrebak, gurasoak eta seme-alabak utzi eta, mundu honetan askoz gehiago eta gero Eonean betiko bizia hartuko ez duenik" (Lk, 18, 29-30). Barnekotasunetik bazegoen nahikoa mesiasen itxarote soilean, goi sinetsian nahiko eta gehiegi zerutik: lurra zen salbatzailea eta ebanjelioa behar zituena. Oraindik hala ere zalantza bat bakarrik balego ea Jesusek - gurutzeko porrota baino lehen- egiazko salbatzaile bezala azaldu nahi ote zuen, zalantza hori kenduko zaio *hitz honen* bidez: *ebanjelio bera*. Sendaketa mirarigile bezala azaltzeari uko egiten ez dion Jesusek Ebanjelio hitza erabiltzen du mirarizko sendaketa bezala mundu guztian, Jainkoaren erreinuaren bitartez (Mk. 1, 15). Bat ere barnekoi ez den honoko definizioa bildaltzen dio gartzelara Joan nazirtarrari: "Itsuek ikusten dute eta herrenak badabiltza, lepradunak garbi egiten dira eta gorrek entzuten dute, hildakoak bizten dira eta behartsuei berriona ematen zaie" (Mt. 11, 5). Baldin Jesusek ebanjelioaz testamentu bezala hitz egiten duen pasarte batzuk (Mk. 13, 10; 14, 9), geroago tartekatuak balira ere, hitza bera ez da inolaz beranduagokoa, inolaz ere ez, Johannes Weissek definitzen zuen bezala "misio hizkeraren adierazpen soil" bat, post crucem; beraz izpirituala. Aldiz Jesusen garaian bertan premia zehatzaren amaierako, zorion zehatzaren hasierako salbazio hitz erlijioso-politiko bezala gaizki ez ulertzeko moduan loratzen zuen. Eta ez bakarrik judu zapalduak, baizik ekialdeko gainerako herriek ere bizirik zeukaten garai hartan itxaropen bat, etorrera sentimen bat. Haien zapaltzaileek beraiek ere, erromatar asetuek, ebanjelio hitza erabiltzen zuten bakezko hitz bezala, gisa sibiliniko zorion hitz garbi bezala (errepublikaren azken mendeko segurtasun falta gorriaren eromenean); ezaguna zen haur errege jainkotiar baten iragarpena Virgilorengan, laugarren Eglogan, Augustori zuzendurik: "*Magnus ab integro saeculorum nascitur ordo ... redeunt Saturnia regna*", hau da: Saturnoren urrezko garaiak, Saturnalak badatoz berriro, eta horrek hemen hain zuzen ebanjelioa esan nahi zuen, eta ez beste ezer. Asia Txikiko Prieneko aldareko harri batek hitzez hitz Augustoren jaioteguna goraiatzan du munduarentzako "ebanjelioaren" hasiera bezala, urrezko aroaren hasieraren zentzuan. Beraz, hitza Palestinara ere sartu zen, berri onarentzat inoiz baino leku gehiago zeukan mundu batera, *ondorengo guztiarentzako ezinbesteko zorion hitz politiko sozial* bezala sartzen da. Loturik etenik gabe *Olam-ha-Shalom*, profetengandik tradizioak zekarren mesianismoaren bakezko erreinuarekin. Ezin lot zitekeen barnekotasun edo beste-mundukotasun soilarekin; horretarako hain zuzen misioaren hizkeran esanahi aldaketa orokor bat beharko zen, eta hori ez zuen egin

Jesusek. Katakunbetako kristauak ere, inolaz baketsu-dualista-transzendente-iheskoi ez izaki, ez zuten inolako bakerik egiten Neronekin eta beronen erreinuarekin; bestela ez zituzten botako haren basapiztietara. Beraz batere herrena ez den Kristoren bultzada hau da, besteren artean, nekazarien gerra, ez arrazoirik gabe praktiko-kiliasta, iradoki zuena. Jatorriz ebanjelioa bere esanahi iraultzailearekin berdin zen: "Betea da garaia, eta gainean duzue Jainkoaren erregetza" (Mk. 1, 15). *In summa*, mesiak bezala ebanjelioak esan nahi du: Jesusek ez du bere egitekoa ahuldu bezala, hau da ez du mundu honetako bezala hartu.

Horri ez diote kontraesaten inondik ere, bi mila urtez kristautasunaren kalte-gabezia agerian jartzeko erabili diren ustezko Kristoren bi esaldi pneumatikoek: *erreinuaren barnekotasuna* eta *erreinua ez da mundu honetakoa* dioten esaldiek, alegia. Jesusek ez zuen esan: "Jainkoaren erreinua zuengan dago"; pasarte horrek (Lk. 17, 21) aldiz, ondo itzulita dio "Jainkoaren erreinua zuen erdian dago" (ejnto;" uvmw'n); eta hori ez zien bere ikasleei esaten, baizik, ikasleak seinalatuz, fariseuei. Horrela Jainkoaren erreinua noiz etorriko zen haien galdera maltzurari erantzuten zion, eta erantzunak esan nahi du: Jainkoaren erreinua, espazioari dagokionez ere, hurbil dago, hemen harengan aitortzen direnen elkargoan dago. Jesusek ez du erantzuten hain zuzen Luterok itzuli duen bezala: "Jainkoaren erreinua zuengan dago", era horretan *e contrario* izpiritu soilaren ezmundukotasuna garbi azpimarratzeko. Luterok jarraitzen dio: "Erreinua ez dator imintzio handiekin"; Jesusek esaten du, hitzez hitz itzuliz: "Erreinua ez dator igertzeko moduko eran" (*meta paratêrêsêos*). Igertzeko modukoa, *paratêrêsis* hitza, Luka medikuak Jesusen ahotan jartzen duen hitza, hizkera heleniko kultuan medizinario eta astrologiako adierazmolde bat zen; ez zuen barnekotasuna adierazten, adierazten zituen bakarrik eta konbarazio bezala astrologiako seinaleak edo medizinario sintomak. Adierazten da beraz eta iragartzen da, igertzeko moduko lasai horren orde, ustekabeko jauzi berezia, guztia aldatzen duen *bapateko* oldarketa. Jesusek oldarketaz hitz egiten du bera aitortzen dutenen elkargoan; hauek bakarrik, haizeak nondik jotzen duen estalkia hara astiro jartzen ez dutenak, seinaleen arabera astrologiaren egoeraren luzamendutan ez dabilzanak, baizik elkarre berrian azkar paratuak, prestatuak, zigilatuak daudenak aterako dira onez erreinuaren oldartze bapatekotik eta harekin batera bat ere barneko ez den apokalipsiatik, eta hartarako armatuak egongo dira. Eta aurrerago: "Nire erreinua ez da mundu honetakoa", esamolde hau gramatikaren aldetik ez da inolaz ulertezinezkoa bere zentzu soilean (hJ basileiva hJ ejmhJ oujk e[stin ejk tou` kovsmou touvtou), baina Joanen ebanjelioan bakarrik aurkitzen da, historiari gutxien hertsian, Paulok gordetzen du, eta argi eta garbi hil ondoko helburu baten zerbitzuan dago. Helburu hori da: Kristau bat auzitegi pagano baten aurrean bere maisuaren hitzak aipa ditzakeela zentzu honetan, alegia: Kristok eta kristauak ez dute zerikusirik traizioarekin. Horregatik Joanez apez nagusiaren aurreko eztabaida gainerako ebanjelistek baino zulo gehiagoz uzten du; ordea, auzi eskena erromatarra askoz luzeago jartzen du. Juduak oso egoera txarrean ipintzen dituen bezala, Pilato hobean uzten du; goi-funtzionario erromatarrek prezidente bat eskaini behar zuen, hiru aldiz Jesusi dagokionez aldarrikatzen baitu ez duela harengan errurik aurkitzen, eta hiru aldiz libre utzi nahi izan zuen. Eta Joan auziko eskenaz baliatzen da ezer baino gehiago Jesusi hitz bat esateko bide emateko, egiaz nahita tolesgabea dena, are -aukera honetan- kasik salbatzeko balio duena. Baina Joanez ez zuen hartu hori Jesusek aldarrikatu zituen esaldietatik, baizik elkargoaren premiagatik eta hura arintzeko nahiagatik; arrazoiz, beraz, lehen mailan, ez da kristologikoa, baizik auzitegikoa eta apologetikoa (cfr. pasarte honi dagokionez, Johannes Bauer, *Kommentar zum Johannes-Evangelium*, 1925). Kristoren adorea eta are haren duintasuna gutiesten du Pilatoren aurrean hain zuzen esaldi etsia erabili izanak, epaile erromatarren aurrean ameslari handi bezala azaldu izanak, ameslari -

erromatarren aldraren aurrean- kasik barregarri eta arriskurik gabeko bezala. Baina elkartekide kristauen duintasuna ez zuen gutiesten (martiri izateko gogoia oraindik esnatu ez zen artean) auzitegiaren aurrean aitzakiak aipatzeak; hortik dator, beraz, juduen "gaiztakeria" azpimarratua, Pilatoren nobletasuna azpimarratua eta captatio benevolentiae esanguratsua, Joanen osteko garaietan. Zalantza egitekoa da ea Joanen pasarte honek salbatu ote zuen kristauren bat Neronen aurrean, baina inolaz seguruago bide eman zuen, Pilato eta Neron ere kristau egin zirenean, kristautasunaren lurreko eskakizunak guztiz arintzeko. Ondoriotan oparo izan den esaldia ez zen gehiago interpretatu apologetikoki munduko opalgaien aldekotzat, baizik munduko jaunen apologetikatzat: eta hori seguru ez zen Joanen asmoa. Jesusek berak, berriz, ezin zezakeen esan hainbesteko ondorio zabalak izango zituen esaldi hori; berak ez zuen inolako dualismorik jartzen mundu honen eta bestearen artean, halako moduan non mundu hau geratuko baitzen ukitu gabe eta beste munduaren ondoan, elkarren artean ez nahasteko hitzarmen baten bidez. Mundu honek desagertu egin behar zuen beste munduaren aurrean, honek epaituko zuen hura, Joan Bataiatzaileak hain zuzen Kristori buruz iragarri zuen bezala: "Eskuan dauka sardea garia garbitzeko eta alea bere mandioan jasotzeko; lastoa, ordea, inoiz itzaliko ez den sutan erreko du" (Lk. 3, 17). Bestela ere "mundu hau", "beste mundua" esaera azaltzen den leku guztietan, auzitegiko eskenako tartekatzeaz aparte, huts egiten du aitzakiazko zentzuak erabat. "Mundu hau" esaeraren pareko da "oraingo Eon", "beste mundua" "etorkizuneko Eon hobearekin", *mellon aion*, hau da, etorkizuneko munduaren aroarekin berdintzen du, orain dagoen munduaren *alderantziz*. Hala Mt. 12, 32; 24, 3: adierazten da tentsio eskatologikoa, ez hemengo hemengotasun trinko baten eta hango bestekotasun trinko baten arteko urruntasun geografikoa. Mundu honen egiazkotasun bakarra izango da bestean amiltzea, honen Eon hobia mundu honetan bertan sartuko baita azkenik azken eguna jaikitzean. Halako erreinu bat ez zaie hots egin behar hildakoei, bizi direnei baizik, hemen elkartuta daudenei; ez du behar inolaz heriotzik, ez hil osteko beste mundurik (Mt. 16, 28; Lk. 21, 32). Zerga txanponei buruzko elkarrizketako hitzek ere: "Eman, bada, Zesarrena Zesarri eta Jainkoarena Jainkoari" (Mt. 22, 21) ez dute aldeztzen Pilatoren aurreko etsipena; eta hori hitz hauek Paulok bezala, are gehiago oraindik konpromezuak egingo zituzten geroko kristauek orobat lardaskatu bazituzten ere. Zerga txanponei buruzko elkarrizketako desinteresatua askoz gehiago da benetako eskatologikoa: erreinua hurbil dagoelako, hemen berdin dio Zesarrek. Pilatoren aurreko desinteresatunak berriz eskatologia, Jesusen predikuko zatirik egiazkoena alde batera utziko luke, erabateko desinteresatua litzateke, eta ez baldintzatua, ironikoa, burlatia eta arriskuz betea, Jesusen badenari buruzko gainerako hitzetan bezala. "Oraintxe da mundu honen gaitzespena; oraintxe mundu honetako buruzagiaren kanpora botatzea" (Jn. 12, 31) - Leku egingo zaio Eon zeru eta mundu berriari, hau da zeru berri eta mundu berriaren hemen egiazkoenari. Paulok bezala Marziona ere Kristoren transzendentzia asko azpimarratu badute ere, hau ez da lurgaindiko harrapatze soil bat, indarrez jarri nahi du lur berri bezala desagindako zaharrean. Gizonaren Semea ez da gelditzen Guztiz-Bestelakoan, gurutzeko hondamendiaren ostean ere, berpizkundearen ostean ere jaitsi egiten da: ez desinteresatze bezala, baizik "ahalmen eta aintza handiz" (Lk. 21, 27), guztiz mundu berrira zeruratze bezala. Jerusalem zerutiarra, azken apokaliptiko ondo azpimarratua, andregai baten antzera apaindurik hara datorren bezalaxe. Mundu zaharrak, zaharregiak, premiatasun honetako Kairos-a irabazi du, are horregatik badirudi hala eta guztiz ere hain hurbil dagoen zeruetako erreinuak ez lukeela behar *indarririk gehiago*. Horri dagokio bereziki Mendiko Hitzaldiko Jesus, honek indarririk gabeziaren zoriontsu hots egite ororen ostean (Mt. 5, 3-10) hurbil etorri zitzairen zeruetako erreinua ipintzen baitu. Hau da, ez, edo ez bakarrik, herriko sari bezala, baizik

"bait" oinarritzaileak "haiena da zeruetako erreinuaren" aurrean esan nahi du funtsean, indar erabilera oro, trukalariak bestela ere erortzen ari zen tenplutik botatze modu oro, bere garaia iritsi zaion denbora batean alferrikako bezala aldarrikatzen dela. Baina behekoak altxatu eta goikoak beheratzen dituen indar iraultzailea Jesus *apokaliktikoan* guztiz osatua izango da *naturan*, nolabait esateko gizakiaren beraren errebolta baterako ordezkari bezala, hondamendi kosmiko baten superarma baten bidez. Era horretan ez dago noski etsaiarekiko azken maitasunik bere hartan, badago noski *kairos*-fedea automatiko bat (neurria beteta dago, denbora osatu da), baina ez dago bakerik Belialekin eta bere erreinuarekin. Eta horrekin borrokarik gabeko giza pazientzia hondamendiaren aurrean *norberari* egiten zaion bidegabekeriaren kontra zuzentzen da bakarrik, baina ez da *besteari*, *ahul eta txikiago* bezala gertatzen den bidegabekeriaren kontra zuzentzen dena; gaizkiari kontra ez egite oso eroso eta oso zabaldu honi dagokionez ez du balio zeruetako erreinuak; askoz gehiago balio du Jesusek bere ahotik botako dituen epelei buruzko esaldiak. Hala ere, egiaz, Jesusen mezuaren muinean -eta hori da kreaturarentzat gogorrena bertan edo hari buruz moralki landu behar den paradoxa- *maitasuna* dago, *Agapê*. Baina honek, giza maitasuna jasotzeko modu bezala, orain arte sekula entzun gabeko eraso ororen itzultze bezala, Jesusen predikuan edo oraindik agintzen duen errealtate sozialean leku du inolaz betiere hurbil dagoen etorrera baten irteeraren argitan. Eta gisa berean, alderantziz noski, etorreraren beraren *edukiak*, harengatik gertatzen baita hau, *Agapê* izan behar du, erdietsi den Jainkoaren semeen bakezko erreinuarekin, eta ez bestelako edozein ekintzarekin ez bada Kristoren jarraipenari dagozkionekin. Hala eta guztiz ere: gibelalde hau berehala iristeko bezain hurbil azaltzen ez denean, arazoa oraindik borrokatzen ari den azken garaian krisia, hau da, bereizketa, erabaki denean, hor Jesusen predikua aurreko *Olam-ha-Shalomaren* profeta guztiena baino gogorragoa da. Han hitz gutxi dago etsaiaren maitasunaz, benetan azaltzen baita -eta hori ez da geroago tartekatu- gerra izpiritual harrigarria: "Ez naiz etorri bakea ekartzera, ezpata baizik" (Mt. 1, 34); "Ni ukatzen nauean, eta nere hitzak onartzen ez, badu nork gaitzetsi: nik esandako hitzak berak gaitzetsiko du azken egunean" (Jn. 12, 48). Behin eta berriro gain hartzen du beraz Jesus iraultzaile eta herresetzarrarengan *etorreraz kanpo* borroka bat oraingo mundu honen artean eta honen lekuan eta gaurkoaren erdian bere erdiminak dituen bestearen artean. Hor bada gerra, pertsekuzio, hautatuen sendotasuna (Mk. 13, 8 ur.) - *Eon honek eta bapateko jarraigoak, etorkizuneko Eonaren oldartzeak elkarrekin gurutzatzen dira lurreko eremuan*. Horregatik matxinatzaile bezala auziperatu zuten erromatarrek eta arrazoiz zioten beldur apez nagusiek eta fariseuek herria atxeki zitzaion (Lk. 19, 48) eta apez teokrazia eta legeko erlijio guztia, Esra eta Nehemias ezkerotik finkatua zegoen bezala, deuseztatu beharreko mundu zirela esaten zuen gizonari. Halako Jesus bat arriskutsua zen, bere kontra eta bere radikaltasun eskatologikoaren kontra ez zen sortu, gaizki ulertuagatik, juduen goi-karguen eta zapaltzaile erromatarren arteko interesen bat egitea. Mundu honen begietan gurutzean hila ez zen izan ameslari inozo bat, baizik egiazko munduaren balio aldatzaile adventista bat, zapalkuntzarik eta jaunen Jainkorik gabeko beste mundu baten eredu handia. Apezek beren alde adierazi zuten itxuraz bakarrik, Jesusek bere burua Jainkoaren Seme, hau da Mesia bezala aitortu zuela, eta horregatik "legearen arabera" (3. Mos. 24, 16) Jainkoaren kontra birao egiteagatik hil egin behar zuela (Jn. 19, 7). Izan ere, Jesus aurretiko mendean, Hasmoneoen dinastiaren bukaeraz geroztik, baziren ameslari asko, mesiatzat azaltzen zirenak, eta ameslari zirenez ez zitzaien ezer gertatu. Era berean, izan zen Jesus ondoren Hadrianoren kontrako altxamenduko heroea, Bar Kokhba, hau da izarren semea, eta Rabbi Akiba bezalako autoritate batek ukendu egin zuen mesia bezala. Baina Bar Kokhba borroka egiten zuen, desesperoaren amilean noski, orduko Judearen alde, aberats, pobre eta apezekin

batera. Erromaren kontrako altxatu bat zen, baina borroka egiten zuen tradizioz jasotako etxeko munduak iraun zezan, bere apezan teokrazia eta guzti; horregatik bedeinka zezaketen apezek, eta horrela mesia titulua, bakar eta izugarri hura, hemen ez zen hartu Jesusengan bezala biraotzat. Jesus aldiz ez zen nahiko baketsua, mesia bezala kontutan hartua izan zedin, bere Gizonaren Semearen erreinua urrutiegi aurkitzen zen behin eta berriz azaldu eta zilegiztatzen zuen *Jaunen* Jabe harengandik, honek *ez* baitzuen atera Egiptotik. Gizonaren Seme mesiak ez zuen bere burua azaldu bere jaunaren Jainko bat zuen Dabiden erreinu soilaren zaintzaile edo zaharbertitzaile soil bezala. Ez, bere burua azaltzen zuen Exodo berri bezala, hau da hasieratik azkenera arte eskatologikoki itzularazten zuen Exodo bezala: *-Jainkorantz gizaki bezala.*

Argikuntza morala eta eskatologikoa Ebanjelioetan

Dauden gauzarik onenak ezin egin daitezke denak batera. Batez ere bata besteari balioa kendu bide egiten diotenean, besterik ez bada nahimena indartsuago pizten duenean. Eta horrela geldoago doan negozioaren martxak hura lortzeko mila pauso behar dituen edo beharbada eskuratu ere eskuratuko ez duenean kolpe batez lor daiteke. Modu honetako oposizio ezagun indartsuenak badu zerikusirik Jesusen prediku moralarekin eta salbaziozkoarekin. Ba al dago denborarik aldaketa moral bat egiteko, bitarte laburrean, erreinua etorri aurretik, ba al du lekurik ere? Hamar aginduak lurrean bizi luze bat egiteko zuzenduak zeuden, erosoak ez baziren ere, eta lapurretaz, lekukotasun gezurrezkoz, are hilez azkarrago aurrera egiten bazen ere. "Zure hurkoa zeure burua bezala maitatu behar duzu" agindua ere, dagoeneko 3. Mos, 19, 18an aurkitzen da eta Jesusek indartu bakarrik egingo du, ez bere prediku bezala, baizik legearen eta profeten giltzarri bezala (Mt. 22, 40): agindu hau ere harreman iraunkorretarako emana dago. Norberekoikeriari muga jartzen dio eta hura mozten du bakoitzak bere buruarekiko izan behar duen arretaren barruan hurkoa ere sartzen baitu. Zein denbora, zein leku, zein erreferentzia sozial edo ez-gehiago-sozial ematen zaie ordea Mendiko predikuko aginduei? "Egin on gorrotatzen zaituztenei, eta eskuineko masailan jotzen zaituenari eskaini beste masaila. Soinekoa kentzen dizunari, eman soingainekoa ere, eta zurea kentzen dizunari ez iezaiozu eskatu" -mundu honetarako portaera bat adierazten al da hemen? Aholku hauek errudun egiten dituzte haiek betetzen dituztenak, ez bakarrik jasaten baitute beraiei egin zaien bidegabekeria, baizik beren senideei egiten zaiena: kontra ez egitea bidegabekeriari ote dagokio eta ezpataren kontrako gomendioa heriotze-oparira daramaten eta eramango duten geroko gertakariei bakarrik ote dagokie? Sarri atentzioa deitzen du Jesusen Mendiko hitzaldiak lanaren eta elikatzearen gertakaria zein arinkeria ekonomiko erabiltzen dituen, soroetako liliak eta zeruetako txoriak analogia bezala hartuz (Mt. 6, 25-28). Ondorioa izan zen Jerusalemgo elkargoa oso azkar pobretu zela, eta horregatik Paulok haien korintotarren eta erromatarren artean eskatu behar izan zuela. Egiaztatu egiten da horrela lehenkristauen garaiko rabi baten esanera handia: gizakia errazago dela salbatzen elikatzen baino. Sarri oso hartzen da etxezain zuzengabearen parabola bitxia, negozioen moralaren ikuspegitik harritzekoa (Lk. 16, 1-6); aholkua da, leialtasuna hautsiz, are Mammon zuzengabeaz, adiskideak egitea. Biek: norberaren ekonomiaz ez arduratzeko kontseiluak bezala Mammonen munduaren barruan bereizketa moral guztiak alde batera uztekoak zentzurik badute munduaren izatea aurki galduko bada bakarrik. Jesusen prediku eskatologikoak gainerako guztia berberarengana zuzentzen badu; Jesus agintedun bezala azaltzen den esanaren arabera: "Betea da garaia, eta gaian duzue Jainkoaren erregetza. Egin penitentzia eta sinetsu ebanjelioa" (Mk. 1, 15). Orduan munduak benetan berdin dio, orduan Mendiko Hitzaldiko arau beldurgarriak ez dira zuzentzen ez munduko jokamolde luze batera ez arrakastatsu batera. Gerora (Pauloren eta are Luteroren bitartez) ondorio hain oparoak izango dituen Jesusen esaldiak: "Eman Zesarri

Zesarrena, eta Jainkoari Jainkoarena" ez dauka fundatzailearengan esanahi bikoitzik. Kontaduria bikoitz batena ez bada; Zesarren mundua hasteko hain da garrantzirik gabea eta duen distira izanda ere hain funtsik gabea, gau bat ostatuan pasatzea bezala denez, hurrengo goizean goiz berriro alde egin behar baita. Erabakiorra Jesusentzat da benetako aholku kiliasta, norberaren ondasunak pobreei ematea, era horretan norbera subjektiboki eta objektu bezala ere Zesarren interesen barrutitik irtetea, barruti hori hutsala eta denbora gutxirakoa baita. Ebanjelioa, era horretan ikusita, *ez da soziala*, ezta ere *lehen mailan moral*a. Salbazio eskatologikoarena da: "Jainkoaren erreinuaren ebanjelioa predikatzen bidalia izan naiz" (Lk. 4, 43). Itxaropen eskatologikoa dago Jesusen predikuaren oinarrian Galileako lehen denboraz geroztik dagoeneko. Hau ez dute ebanjelistek Jesusen hitzen artean sartu (heriotze-oparia edo berpizkundearen pentsamendua bezala), aldiz filologikoki ondoren egiaztaturiko Testamentu Berriko zatietako bat da. Hala ere guzti honekin Kristoren predikuaren zati bat, bortitza bada ere, azaltzen da bakarrik; haren ondoan, barruan, batzutan hari buruz zatika, azaltzen da, ondasunak pobreei emateko aholkuarekin batera, maitasunaren prediku bat, lurrean lor daitekeen moduko maitasun eta maitasunagatik beragatik. Hain zuzen ere bata bestean katramilatze honen bidez eta berak sarri dituen harreman zailen bidez sortzen da Jesusen predikuaren asmo eta argiketa bikoitz baten eta bereziki bata bestea ispilatzen duen bikoitz baten arazoa, orain eta gero artekoa, hemen eta han artekoa. Pintore holandarrek ekarri zuten argiketa bikoitzaren arazoa beren irudietan, hain zuzen ere gauza bat bera kandela batek eta ilargiak une berean argitzen dutelarik. Halako argiketa bikoitz eta horregatik batera ezinezkoa ikusi nahi izan da, salbuespenik gabe, ebanjelioan: ebanjelio sozialarena eta eskatologikoarena, alegia. Arazo honi sakonena aurre egin dion Albert Schweitzerrek (*Das Messianitäts- und Leidensgeheimnis*, 1901) Jesusen "*Interim-Etika*" iraukerak batez hitzegin zuen; erreinua ongiaren eta gaizkiaren gaindi zegoenez, "supra-moral" bezala. Argiketa guztiz eskatologikoak balio du egiaz hemen behean epe luzera bete ezin daitezkeen Mendiko Hitzaldiko eskakizunetarako eta horrek bereziki balio du indiferentzia ekonomikoarekin eta handik datozen aholkuentzat, hala adibidez soroetako lilien parabolarentzat, baina ez du balio, Schweitzerren argiketa moralaren erabateko erlatibizatzearen kontra, aipaturiko Jesusen maitasun predikuari dagokionez, horren moralak erreinurako prest eta duin egin behar baitu, gehiago oraindik: bere zatirik sakonenetan erreinuko eduki eskatologikoan parte hartzen du. Jesusek areago mundu honetarako aginduak ematen ditu, moisetarrak edo talmudekoak baino zorrotzagoak gainera; hala, ezkontza-banaketa debekua (Mk. 10, 2-12). Gogortze hau are bakanago eta nolabait esateko mundu honetakoago da, Jesusek, bere jarraitzailei dagokienez, familiako loturarik ez baitzuen inolaz onartzen (Mt. 10, 35-37), eta gainera erreinuan, haragizko harreman oro desagertzen denez, ezkontzarik ez dago. Jesusengan *prediku sozial eta moral soil*a bakarrik da anaiarteko sentimenduaz, haien egintzak eta anaiak beraiek direla eta arduratzen dena. Hori da, beraz, bere maitasun predikua, eta bere gailurra dauka sakonera jotzen duen, baina guztiz igertzeko modukoa eta inmanenteki egiaztatu daitekeen esaera hartan: "Nire seniderik txikien hauetako bati egin zeniotena, niri egin zenidaten" (Mt. 25, 40). Ezinbesteko du maitasun predikuak (Jainkoa maitatze soiletik nekatuak eta atsekabetuak maitatzen itzultzeak), hura -Mendiko Hitzaldian ez bezala- epe luzeagoan eginezinezko gerta ez dadin. Lehen elkargo txikietan eta limosnen beharretan zegoen maitasun komunismoan egiaztatu zitekeen anaiarteko balioen ametsa. Eta hartan, Kristoren moralitasunaren muin horri dagokiona, sarri errazegi erruki bero deitzen dena, baina suarra ere badena. Kreaturarekiko hausturak ez zuen hau hautsi bizi laburreko negarrezko munstro bihurtzeraino, munduarekiko hausturak ez ditu ezgauzatzen alde ekonomiko guztiak igurtzitzeko olio bihurtzeraino. Aberastasuna etsaitzat hartzen da,

ebanjelioa nekatuei eta atsekabetuei zuzentzen zaie bakarrik, eta gaztetxo aberatsak ondasun guztiak saldu eta irabazia elkargoarekin partitzeko enkargua hartzen du (Mk. 10, 21); eta hori ez formalki, *medicina mentis* soil bezala, bere kreaturaren hausturarako, baizik eduki-enkargu garbi bezala, jabego gabeziaren eduki-etika batekin. Berriro ere ez da aipatzen balio sorkuntza, baina Apostoluen Eginetako esaldi bakar batek mendeetan zehar, erreinua etorri gabe ere, zabaldu du maitasunezko komunismoa: "Fededun guztiak bihotzez eta gogoz bat ziren: inork ez zuen esaten, zeukana berea zuenik, baizik eta dena denena zuten" (Ap. Eg. 42, 32). Eta hain ospatua zen guztien pobreak ere erreinuarekiko *lotura zeregin autonomo eta berez baliozkoa* izan behar zuen. Zehatzago: Maitasunezko komunismoaren *filadelfia* erreinuaren oinarritzko baldintza eta etorrera leku da; eta hala bihurtuko da *lurreko arau*. Horri buruz dihardu Jesusen hainbat parabolak, eta hala, norberaren ondasunak ematea altxor bat da, Zeruetako erreinuan erdiesten dena eta inolako sitsak jaten ez duena (Lk. 12, 33), baina halaber anaitasunak altxor hura irudikatzen du. Haziaren neurriko den halako erreinu baten txikitasuna ez da eragozpen hain zuzen beste munduko obra laburbildua izan dadin. Hemen beraz jarrita dago errealtatean bertan azken egoeraren osagai bat, ezer izugarririk eskatzen ez duena, hau da maitasunaren bidez norbera desegitea, Mendiko Hitzaldian bezala, ezta desinteres sozialik ere. Egiaz, *filadelfiak* erreinurako heldutako eta prest egin behar zuen neurrian, balio zuen azkenean, etorrera hitz bezala eratua zegoenez, era berean epe laburrerako bakarrik. Anaidia bera ere bere inguruan mugitzen zen geroago utzitako esparru batean bezala; bere esparrua noski utopikoki erreinukoa zen eta hura kontzentratzen zuen, baina haziak arbolarekin duen zerikusia zuen berak, eta arbolak maitasunaren bestelako kalitate handiago eta pentsaezinezkoak erakusten zituen. *Item*: "Saldu ondasun guztiak eta eman limosnatan. Egin itzazue hondatuko ez diren poltsak; pila zeruan huts egingo ez dizueten aberastasunak; hara ez baita lapurrik hurbiltzen, han ez baitu sitsak jaten... Zaudete prest, jantziak loturik eta kriseilua bizturik; izan zaitezte nagusia ezteietatik itzuli zain dauden morroiak bezala: iritsi eta atea jo bezain laster irekitzeko prest daudenak bezala" (Lk. 12, 33-36). Hemen, beste inon ez eta, ezin garbiago azaltzen da funtzio moral-eskatologikoen segida, azkenik proportzioz. "Guztizko eran, honek Jesusentzat balio du, bera denez gertakari eskatologiko gorena" (Käsemann, *Exegetische Versuche und Besinnungen* 1/2, Göttingen, 1967, 199/200 or.). Ez dago bizitza moralaren atzera egiterik, inolaz ere, baina bere-beraren etengabeko erlazio apokaliptiko bat Jesusen aldaketan eta predikuan aldaketa honen historilarentzat ere bazter ezinezkoa da. Bazter ezinezkoa den bezala erlazio apokaliptiko hau moralaren eta erreinuaren artean azaltzen den erlazio hain handiaren exegesiarako. Horrela, beraz, *historiari* leial izango zaion Jesusen predikua eta lehen elkargoaren exegesia baterako: "Pentsamendu mundu apokaliptikoa mundu izpirituala da, non Testamentu Berriko gizonak etxeko ziren" (Stauffer, *Theologie des Neuen Testaments*, 1948, 6. or.). Etxean beti ere, etsi beharra edo Mendiko Hitzaldiko zoriontasun moralen arabera eratzen zen zori bat zetorrean eta ez inolaz zeruetako erreinua; antzinako denbora luzeak azken eguna guztiz, guztiz estaltzen zuenean.

Jarraitzaileek anaiartean zuten gose, gauzen ibilbidea ez zen aldatzen. Maitasuna ez zen iristen, ez bazen inguru oso txikietan, lehen bezalatsu beraz. Tenpluko oihalaz aparte, iragartzen zen guztietatik ez zen ezer erdibitzen, erreinua ez zen hurbiltzen. Hura oldartu bitarteko ustezko epe laburrak munduko gauzekiko portaeran neurri batean indiferente bihurtu zituen edo izugarritzko gauzak eskatu, eta hori inolaz gauzatu bazitekeen, luzaz ezin zitekeen gauzatu. Epea bukatu zenean, ekonomiaren aldetik, baina baita moralaren aldetik ere, eta are gehiago, gizarte mailan, sortu zen gutxiago zehaztu zitekeen esparru bat. Hasieran gehiegi inporta ez zuen eta kasik mespreziatzeko

ere bazen aholku hura, Kesarrena Zesarri ematekoa alegia arriskuz beteriko bihurtu zen nekatuen eta atsekabetuen maitasunari zegokionez. Munduarekiko berdin-diotasunak berarekin ekartzen du zaharra lehen bezala uztea; eta ekartzen du, Paulorengan ezagun daitekeenez, zaharra isilpean onartu egiten dela. Zein arimako otzantasuna Paulorengan esklabutasunaren aurrean (haren kontra estoikoek hots egin zutenean); esklabuei areago gomendatzen die obediencia komentzitua beren jaunen aurrean. Barnekotasuna eta beste mundukotasuna beraz behera zetorren Zerueta erreinua ordezkatzeko. Aberatsei beraiei barkatu egin zitzaion, are kasik Zerueta erreinua ziurtatu ere egin zitzaion, limosna ematen bazuten: "Emaile alaia maite du Jainkoak (2Ko. 9, 7); horrek beste soinu bat zeukan harako gameluaren esaldiaren parean, hau errazago pasatuko baitzen orratz begi batetik aberats bat zeruetako erreinuan sartu baino. Hala *civis romanus* den Paulorengan estatuarekiko tentsio oro falta zen, ez nazional-iraultzailea bakarrik, baita morala ere. Jainkoaren nahaia egiten duten kristauak ezin izan dezakete istilurik estatuarekin, hain zuzen ere, Paulorengan moralitatea ere galdu egiten delako, eta Luteroren "*sola fides*" irakatsiak bere erroak harengan dituelako (Münzerrek geroago "Zorrak Kristoren gainera bota" deitzen zuen hura). Mundua orduan iragankortasun eta aldaezintasun sasiitxura harrigarri batekin begiratuko da; iragankorra da Jesusen promesaren arabera, aldaezinezko da (irauten duen bitartean) deabruaren aginte esparru denez. Kristauen kontrako pertsekuzioak iristeko puntuan zeudenez, Paulo lasai geratzen da Zesar eta Jainkoaren arteko dualismoaren kontura. Gero Augustin baino askoz lasaiago, honek *Civitas terrena* eta *Civitas Dei* artean hasieratik azkenerainoko etsaigoa ipintzen baitu. Lasaiago Krisostomo bezalako Elizako gurasoak baino, hauek, Konstantinoren ondoren ere, maitasunesko komunismoa, soziala bera ere, goraipatzen baitute. Horren ordezkari garrantzia gero eta handiagoa hartzen du Paulorengan prediku eta adierazpen eskatologikoak, erreinuaren predikuak *-hil ondoren* etorriko den erreinuak, noski. Munduaren eta Jainkoaren arteko dualismoa hemen Jesusengana berarengana aldatua azaltzen da, hau da munduko aldaketa eta maitasunezko egintzak egiten dituen Jesusengana eta bestean berpiztutako Jesusengana. Horixe adierazten du antitesia harrigarriak: "Bizitza honetarako bakarrik baldin badugu Kristo gure itxaropen, gizon guztietan gu errukarrienak. Baina Kristo hilen artetik bizitu da, lo daudenetatik lehen-fruitu bezala berbiztua" (1 Ko. 15, 19 hur.). Eta orainaldi kristau oro aldaketa bat da "fedez, ez ikusiz" edo zeharka bakarrik, "orain erdizka ispilu batean bezala ikusten da" (1 Ko. 13, 12); bizitza kristaua funtsean Kristoren *desestalketaren* itxoinean egotea da. Horrela beraz itxaropen ordezkari itxoin jarri zen, pazientziaren psikologia, gurutzea heriotze-opalketaren bidez zuritzea. Garbi dago ez bakarrik datorrela heriotze-opalketaren teologia Paulorengandik, baizik baita ere berbizkundearen inguruko ustezko itxaropen misterioa: harekin bideratuko da oraingo Eon honetan agintzen duten indarren desegintza, harekin sorkuntza berri baten egunsentia. Eskatologia hori ez zen gehiago Jesusena, hurbil zegoen erreinuarena; azken batean itxaropenarena zen eta itxaropena esna daukanarena. Zentzu honetan inolaz bazuen gizartea arriskuan jartzen zuen zerbait, hau da nahimena suspertzea itxaropenaren bitartez. Era beretsuan montanistengandik baptistenganaino eta aurrerago gauzatua izan zen, inolaz ere pasiboa eta egintzarik gabea ez zen fede batez. Pauloren kontserbadoretasunak ordeza bere eskatologia propioa iturrian bertan ito du: salbazioa oraingo eginez. Kristau elkargoak izan ere salbazioaren orain aurreratze bat izan behar du (antzeko moduan eta antzeko arrazoiengatik geroago Augustinek berriro bideratu zuen Mila Urteko erreinuaren ametsa une hartan bazen elizaren bizitzara). Beraz, ez bakarrik desagertu zen ebanjelio morala (maitasunezko komunismoa), baizik azkenik eskatologiko berria ere (Kristoren berbiztea zela eta), horretarako Paulok bidea adierazi zuen. Bienbitartean, guztiz tartekatua izan den Jesusen esanaren gurutzeari: "Bete da dena" oso egoki zetorren etorkizun eskatologikoari

benetan falta zitzaiona giltzaz ixteko. *Crux locuta est, resurrectio finita est*: gainerako historia guztia geratzen den negar-herrian eratuko da, eta apo-kaliptikoa aurreko alderantza blokeatu egin da, hitzez hitz ulerturik, hura desestaltze izango baita, hau da guztiz beteta dagoenaren desestaltzea. Denik eta oraindik guztiz lortu gabeena izan ordez, nahiz argigarriena baden, eta bere mesia bezala pentsatua *per definitionem et per effectum* benetan oraindik etorri gabea den. Hala ere, jatorrizko ebanjelioa bere zati eginkor irekian bat egina dago: moralaren aldetik nekatu eta atsekabetuekiko maitasun bezala, eskatologiaren aldetik "gure aurpegi estali gabe" deitzen denarekiko itxaropen bezala.

28

Gizonaren Semea Kristoren ezkutuko seinale bezala Jainkoaren

Seme ordez; "Erreinuaren misterioa"

Erraz esaten da gizakiak ez duela asko balio. Esaera honek zuhur itxura dauka, eta egoeraren arabera susmo txarra sortu ere egin dezake. Azken hau, hain zuzen, norberarekiko gorrotoa bezala norberak bidezkatat jotzen duen gizakiarekiko gorrotoa berariaz kristau gisaz jatzten denean. Bizitza norberaren indarrez hobetu nahia batzuetan hutsala azaltzen da, bestetan harroa eta edozein modutan alferrikakoa. Gizakiaren irudi hain txikikero marraztu batek onena menpean egotea du, batez ere txarra besterik ez delako eta gainera indarbako delako. Goiko indarra espero ohi da, hemen behean gaiztakerian bizi direnen eskuetan dena lagatzeko aitzakia bezala sarri, horretatik oso ondo bizi direnei eroso datorkielarik. Adam erori egin zen, harengan eta haren bitartez lardaskeriak bakarrik dira posible. Baina Biblian hain zuzen gizakiak asko balioko balu, beste inon baino askoz gehiago? Hantxe aurkitzen da esana harrigarri hura: Gizonaren Seme, eta hori Jesusengan mesiasen, beraz ez bakarrik goitik bidaliaren titulu propioen bezala. Titulu horrek apal edo are indarbako itxura dauka Jainkoaren seme tituluaren parean. Egiaz ordea altuena da, egiaz altuena eta adierazten du gizakiak balio oso handia daukala; bere indarra eta forma azkena dira, dena gainditzten dituen. Egia esateko Gizonaren Semea esaera bera (uiJo;" ajnqrwvpou) esamolde aramearraren hitzez hitz egindako itzulpen zentzurik gabeko bezala, *bar enâsch* aramearraren, *ben adam* hebertarraren itzulpen bezala eskaini nahi izan da; *ben enâsch*, *ben adam* esamoldeak norbait esan nahi zuen, gizaki soil bat. Wellhausenek uste zuen, berriro ere azentu antisemitiko batez, uiJo;" ajnqrwvpou juduen gisara erabilitako grekera modu bat zela, "gizonaren seme" (Menschensohn) alemanierazkoa berriz erredundantzia bat. Paulok era berean Gizonaren Seme esamoldea ekidin egin zuela, barbaroa zelako, semita ez zirenentzat ulertezinezko. Baina Testamentu Berrian Gizonaren Seme esamoldea kasik bakarrik dator Jesusek bere buruari dagokionez egiten duen azalpen gisan, sofritzen, hiltzen, eta batez ere (Mk. 8, 38) garaile itzultzen den bat bezala. Egia da zalantzan jarri zela pasarte hauen jatortasuna, gero erabat erreparorik gabe hartu ziren, hala Bultmannek, ez ordea Käsemannek, Pazko ondorengo apokalipsiak sartu zituela uste baitzuen. Baina dagoeneko Danielengan aurkitzen da esamolde harrigarri hori, erlazio mesianiko osorik gabe noski, eta haren doinu apokaliptikoa hurbil sentitzen zuen ezpairik gabe bizi zen Kristo Pazko aurretikoak, bereziki gizatiar bezala. Egia esateko, beraz, Gizonaren Seme esamoldeak hizkuntza semitetan, Bibliak, lehenbizi Danielek 7, 13, erabiltzen duen lekuetan, ohizko ez den zerbait, oso harrigarri den zerbait adierazten duela. Gizonaren Seme, *ben adam*, esamoldeak azken batean adierazi nahi du *lehengizaki zerutiarraren* seme, Adam jainkotiarra. Semea ordea hemen harengan azaltzen den esentzialtasunaren irudia da, ez hark egina. Harrigarritasun hau eta haren adierazpen moldeak falta zitezkeen Paulorengan, gizon-egiteak hura estaltzen zuelako, baina haren bidez adierazten den puntu berezia: lehengizaki zerutiarra ez da inondik ere falta Paulorengan. Jesus horregatik ez zen lehenbizi gizaki gizon-egitearen

bidez, baizik bera da Adam, lehenbiziko Adam, bestelakoa, izpirituala bere esentzialsunean bertan. "...Bigarren gizona zerutik dator" (1 Ko. 15, 47). Lehendik baden lehengizakiaren kategoria bera Testamentu Zaharrean dagoeneko jarria dago Joben liburuan: "Lehenjaioa al zara gizonetan, mendiak baino lehen sortua ote?", itauntzen du Elifasek (Job 15, 7); mundua baino lehen sorturiko bat onartzen du beraz, barre egiten du ordea hori Jobi gogortxo egiten zaiolako. Baina Ezekielengan ere irakiten dago kategoria hau: "Gizonaren seme horrek" hots egiten du hemen Jabek, Tiroko erregea dirudienez aipatuz, baina Adan zerutiarra altxatzen da, argi eta garbi. "Zigilu garbia zara zu, jakituriaraz betea eta neurri gabe eder. Egina izan zinen egunean prest zeuden zuretzat ttuntuna eta xirula. Kerubin bat bezala zara zu, hegoak luze zabaldu eta jagoten duena; Jainkoaren mendi sainduan jarri zintudan, suzko harrien artean ibil zintezan" (Ez. 28, 12-14). Kerubina goiaingeru bat da, ezagutza guztiaren jabe dena, urrez eta aintzaz distiratsu; itxura hori zeukan beraz Adan honek, eta benetan lohiez egindako gorra ez bezalako Adam bat zen. *Eskatologiari dagokionez* ordea, esan bezala, Gizonaren Seme esamoldea lehenbizi Daniel profetarengan agertzen da: "Eta hara, zeruetako hodei artean bazetorren bat, Gizonaren Seme bat bezala Zaharrarengana eta haren aurrean aurkeztu zuten. Hark eman zizkion agintea, ospea eta erreinua, herri eta gizaki eta hizkuntza guztiek zerbi zezaten" (Dan. 7, 13 hur.). Gizakiaren forma duena, Gizonaren Semea pasarte honetan ezin izan daiteke Israel herria (sufritzen duen Jainkoaren morroia bezala, Is. 53); zeruetako hodeien artean baitator. Harengan ezkututzen da aldiz lehengizaki zerutiarra, orain egiaz eskatologiko bezala, Adam mistiko bat, salbatzaile irudi bihurturik. Hemengoak dira baita ere Jainkoaren "jakituriaren" hipostasia harrigarriak; jakituria berarengandik ateratzen da izaki oso bezala, ez era dualistaz, baizik pertsona gisa libre eta orobat hasieratik bertatik. Egiaz, "jakituria" ez dago inolaz Jainkoarengan, baizik gizakien erdian guztiz: "Bide ondoko muinoetan, bideburuetan jartzen da" (Prob. 8, 2) eta hitz egiten du: "Jaunak eduki ninduen bere egintzen hasieran, ezer egin aurretik, han nengoen ni. Aspaldi urrunetik sortuta nago, hasieratik lurra baino lehen; amilak oraindik ez zirenean, egina nengoen ni; iturriek oraindik ura ematen ez zutenean" (Prob. 8, 22 hur.). Era horretan pertsonalduriko "jakituria" baten eta "lehengizaki zerutiar" baten erlazioak Jainkoarengan garbiak dira, baina halaber garbiak dira Filonen *Logos* aren eta Joanen Ebanjelioaren artekoak ere; era berean ezer baino gehiago Gizonaren Semearen kategoriarekin batera lehenagotik bazegoen Jainkoarengandik kasik emantzipaturiko toposarekin. Baina iturburu horiek guztiak oso gazteak dira, "Pazko osteko" ez badira ere; ur guztiz garbirik ez dator judutasun *gatibualdi aurrekotik*. Ezekiel, 570. inguruan, Babiloniako Gatibualdikoa da; Joben liburua eta Salomonen Esaerak, biak 400. ingurukoak, Gatibualdi ostekoak dira; Danielen liburua, 160. ingurukoa, inolaz Itun Zaharreko literatura berantiarrekoa da. Litekeena da aipaturiko Ez. 28, 12-14 pasarte jatorrizkoa ez izatea eta geroago han tartekatua izatea; eta hortik etor liteke Tiroko erregearen eta Adam-kerubinarene arteko irudi nahasi bitxia. Antzinako judaismoan beraz lehengizaki, lehen Gizonaren Seme zerutiar bati dagokionez ezer aurkitzen ez denez, eta hari buruzko ideia nahiko kolpetik azaltzen denez, uste izan da gisako lehenbiziko Jainko-gizon honi dagokionez jatorri ez judu bat izan zezakeela. Are aipatu izan da jatorri hori: Reitzensteinen arabera, Lehengizaki zerutiarren mitoak Iran zaharrean dauka jatorria, eta gainera Kristoren egunetan hain zuzen egin zen ezaguna sekta juduen artean (*Das iranische Erlösungsmysterium*, 1921, 117. or; cfr. halaber Kraeling, *Anthropos and Son of Man*, New York, 1927). Horren arabera, beraz, Gatibualdi aurretiko eta Jesus aurretiko Israelek ez zuen inolako Adan preexistenterik ezagutu, Irandik ekarria izan zen besterik gabe. Guzti honetan, hala ere, Bibliaren propio den zerbait dago garbi: mesias dabidarra, Jesus bera bezala, Gizonaren

Semearekin parekatu aurretik hartua izan zen eta judaismo berantiarrean lehengizaki zerutiarraren dotrinaren bitartez hain zuzen berariaz zabaldua, izugarri gaitzeta izan zen. Ez zen zabaldu transzendentean, esan nahi baita: ez zen inolaz sakabanatua izan mundu honen beste mundu bateko esparruan, bai ordea zabaldua era makrokosmiko metakosmikoan. Apokalipsiak beste gisako eskena bat jartzen du Dabiden aintza zaharraren lekuan: zeru berri bat eta lur berri bat jartzen ditu batera. Neurri honi ez zetorkion gehiago ondo Dabiden leinu soila; gizaki itxura zeukan esentzia preexistente hartara zabaldu zen, Apokalipsiko eskenari nolabait esateko egokitzen zitzaionera, alegia. *Edukiaren arabera* ere egoki zetorkion, hau da *antzina ezkutuan zeuden kontrafiguretako* bat bezala Jaberri dagokionez: *sugearen, Kainen, Joben mendekatzaillearen* familiartekoa. Horregatik, Kristoren garaian, Lehengizakiaren neurria irabazita zegoenean, Adamen *azalpen bikoitza* Genesian inportante bihurtu zen, bikoiztasun hori gainera ezin argitu baitaiteke Genesiaren idazketa berantiarraren bidez. "Eta Jainkoak gizakia egin zuen bere irudiko, Jainkoaren irudiko egin zuen; eta gizon eta emakume egin zituen" (1 Moises. 1, 27). Horrela dio *apez-kodeak; Jabistak* aldiz, Genesiako 2, 4ean sartuak, Adamen guztiz bestelako sorkuntza bat dakar, antzekotasunik bat ere ez duen Adan batena: "Eta Jainko Jaunak lurreko buztinez egin zuen gizakia eta haren sudurrean hats eginez bizirako arnasa ixuri zion; eta gizakia bizidun egin zen" (1 Moises. 2, 7). Apez-kodea baino askoz zaharragoa da Jabista, baina apezkodeak landu dituen iturriak Jabistak landu dituenak bezain zaharrak dira; idazketa eta konponmoldea bakarrik dira Gatibualdi ostekoak, Ezekiel, Esra eta Nehemiasen lana dira. Egia da ezin adieraz daitekeela zenbateko neurrian sartu den antzinako sagaren lanketan, kasu bakoitz eta zehatzetan, material berria; litekeena da beraz apezkodeko Adamen antza, Adamen distira Gatibualdi ostekoak, Irandik ekarriak izatea. Baina horrek ez dauka egiaren itxura gehiegirik, apez-kodeak ez baitzukeen tartekatuko ezer - lehengizaki Jainkoaren itxurakoa bezala- Jaberren bakar eta goren izatearekin gurutza zitekeenik. Beraz, seguruenera hemen dihardu era subertsiboko saga oso zahar batek; saga hau izan daiteke irandarra edo nahi bezain irandar zaharra, baina horregatik ez da Boussetek aspaldi uste zuen bezala (*Die Religion des Judentums im neutestamentlichen Zeitalter*, 1903, 251. or.) "Israelgo pentsamendu giroan sekula entzun gabea eta guztiz berria". Arazoa ez da ea apez-kodeak Jainkoaren antzekotasuna tartekatu duen, aldiz badago beste arazo bat aurretik: zergatik ez duen antzekotasuna kendu edo gaitzetsi; sugaeren "eritis sicut Deus" harekin egin duen bezala. Azken batean, beraz, Adam zerutiarraren doktrina (gizakiaren prototipo bezala) Biblian Azoreuharteak moduko bat da, hau da tradizio subertsibo eta antiteokratiko galdu batetik geratu diren mendi gailurretako bat da. Judaismo berantiarrak noski Adamen historia bikoitza beti azpimarratu du, batzutan Gizonaren Seme mesiasekin lotuz eta bestetan lotu gabe; beraz horrek esan nahi du: *Jesusengan lehen aldiz guztiz agertzen den Gizonaren Seme=mesias lotuz*. Filonen obra nagusia (*Legum allegoriae* I, 12) ez zen gauza oraindik Adanen sorkuntza bikoitza Bibliaren kritikaren aldetik argitzeko, eta horregatik espekulazioaren bidea hartu zuen; horrela Filonek ikusi zuen dena dardarka jartzen zuen misterio bat, kristologikoa ere bazena, Genesiko testuko kontraesanean, Adani zegokionean. Berak ikusten zuen lehen sortuan, Antzeko-Adamengan Adan edo lehengizaki zerutiarraren beraren misterioa, horretan zerutiarra egiaz ez zelarik oraindik mesias, baina zeruko jaiotza erabakiorraren bitartez Jainko forma hurbil daukalarik. Filonen *Mesias-Logos* ere (eta hori gabe, Joanen Ebanjelioko "logos"-hasierako Kristo eta Pauloren epistoletakoa pentsaezinezkoak lirateke) "Jainkozko esentziaren kopia" da, bera da "Seme lehenjaioa", "Jainkoarekin lotzen dituen apez gorena", "ikus daitekeen Jainkoa, ezin ikus daitekeenaren egoitza". Guzti honek alde aurretik paratu egiten ditu Gizonaren Semearen predikatu *kristau propioak*, eta halaber hauek Adam

zerutiarrarekin duten lotura. Ezinbestekoa gertatzen da hemen sinesten den Gizonaren Semearen preexistentziari dagokionez Jn. 3, 13: "Ez da inor ere igo zerura, zerutik jaitsia baizik, hau da Gizonaren Semea", eta ondoren bereziki Jn. 17, 5: "Orain, Aita, aintza nazazu ni zeure ondoan, mundua mundu izan baino lehendik zure aldamenean nuen aintzaz". Paulok berak ez du erabiltzen, esan dugun bezala, Gizonaren Seme adierazmoldea, baina zalantzarik gabe haren edukia adierazten du eta Danielengandik, Genesiko 1, 27tik esamolde horretara jotzen duten zantzuak adierazten ditu. Hala, Kol. 1, 15.ean, Jesus-Adami buruz diharduela: "Jainko ezin-ikusiarren irudi da Kristo, sorkari guztien lehenseme". Are 1 Ko. 15, 47 eta 49: "Lehenbiziko gizona hautsetik denez, lurtarra da; bigarrena zerutik dator. Eta lurtar haren antzeko izan garen bezala, zerutiar haren antzeko ere izango gara". Lehengizakia Paulorengan ez da inolaz Filonen bera, Adam ahula da, "bizitza naturalean egina", Kristo ez delarik azaltzen *protos* bezala, *eskhatos* bezala baizik, "azken Adam, izpiritu biziemalea" (1 Ko. 15, 45). Baina *eskhatos* hau egiaz ordea Filonen *protos* da edo "gizaki zerutiarraren irudia"; honek Adam ahularen bekatu guztiak jatorrizko distirara bueltatzen baititu. Azken Adam alde guztietan ahularen ostean geratzen da, hain zuzen ere hura buztinetik libratu eta antzekotasunean eraberritzen duen neurrian: "Adamengandiko guztiek heriotzea duten bezala, Kristorengandiko guztiek bizitza izango dute" (1 Ko. 15, 22). Eraberriketa sortzailearen parekotasun berbera azaltzen da Erm. 5, 11-20ean: bekatuaren kontra, heriotzearen kontra, legearen kontra, denak Adam ahularen antolamenduari dagozkionak baitira; zuzentasunaren alde, bizitzaren alde, graziaren alde, denak Adam zerutiarraren antolamenduari dagozkionak baitira. Aldez aurretik ontzat ematen da, bestela ere antzinako apokalipsian oinarri ematen zuena, azken denboran lehen denborako gertakariak atzekoz aurrera errepikatuko direla, apokatastasi bezala, birkonpontze bezala, baina -eta hori *mesianismoari* dagokionez garrantziarik handienekoa da- berriaren, sekula entzun ez denaren, entzun gabekoaren pathos iraunkor batekin birkonpontzean. Birkonpontze honek ekartzen ditu beraz zehazkiro antzekotasun eta Jainko forma berriak eta azkenik distiratzten dutenak. Petriren lehen epistolako 1. 20ean bezala, Jesus berriro itzultzen den lehengizaki gisan azaltzen da, "mundua mundu izan aurretik zegoen Kristo Jainkoaren asmotan, baina agertu azken denbora hauetan agertu da zuen onerako". Jainkoak tajaturiko lehen gizaki haragi egin hau bezala azaltzen da Jesus Jainkoaren erreinuko erregegai bezala. Eta hain zuzen ere mundua baino lehenagoko substantzia gizatiar bezala geratzen da bereekin mundua galdu ondoren ere, are Jainkoaren erreinua ondareztat jasotzen du berak eta hura gizakien gisako egiten. Dabiden Semea jarria zegoen apokalipsiko makrokosmo-metakosmoa azkenean *makranthropos*, gizaki handi bihurtuko da: "Harik eta sinesmenean eta Jainko Semearen ezagutze sakonean bat izan arte, gizon bete-beteak, Kristo bezain helduak eta beteak izatera iritsi arte" (Ef. 4, 13). Hauek dira mundu berri baten neurriak, ez gehiago zaharrarenak, Jabe gizatiartasunetik apartatu eta ulertezinezkoaren munduarenak. Eta horri dagokionez, Joben adiskideetako batek esan zezakeen: "Zerua baino goragokoa da, zer egin nahi duzu? infernua baino sakonagoa, zer jakin dezakezu zuk?" (Job 11, 8). Eta giza mespreziatzaile eta agnostiko honi erantzungo dio Efesotarren epistolak, *makantroposaren* fedean eta han azaltzen den eta gizakiari Kristoren bitartez eta hari egoki datorkion neurrian oinarri hartuz: "Horrela ulertu ahal izango duzue, santu guztiekin batera, zeinen zabala eta luzea, gorena eta sakona den" (Ef. 3, 18). Hain gorenkiro pentsatzen zen hemen gizakiaz, hobe: bere misterioaz: *atzeraka bezala aurreraka asko balio zuen*.

Zalantzarik gabe, ezin lasai egon daiteke buztinez egindako gizakiaren aurrean. Jesus, berriro itzultzen zen Adan bezala, lehenbizikotzat, antzekotzat hartua izan zen. Badago, noski, Gizonaren Semearen *bigarren arrasto bat*, Jesusi dagokionez albotik badoa ere.

Oraingo honetan Gizonaren Semearen arketipoaren transferentzia harrigarri eta utopiaren aldetik jakingarri bezala Jesusengana, hobeto oraindik: Christos bat - Moises berarengana. Haggadak lehenprofeta era guztietan preexistente egiten du erabat: Jakobek gaueko bere ikuskizunean igo eta jaisten ikusi zituen aingeruak (Mos. 28, 12) egiatan Moises eta Aaron ziren. Lehenprofetaren goralmenak "Moisesen zerura igotzea", Kristo osteko lehen mendeko idazti apokrifoa bere gailurra erdiesten du (*Die Apokryphen und Pseudepigraphen des A. T.*, Kautzschek argitaratua, 1900, II, 311 or. hur.). Idazti honetan azpimarratua dago guztiz Adan zerutiarrarekin parekatzea, inolako zalantza arrastorik gabe. Moisesek hitz egiten dio hemen Josueri: "Jainkoak egiaz mundua bere legearengatik (beste irakurketa bat: bere herriarengatik) egin du, baina horrek ez du azalarazten munduaren hasieratik sorkuntzako hasikina... Horregatik ni hautatu eta bilatu ninduen, munduaren hasieratik horretarako prestaturik nengoena, itun horren bitarteko izan nendin" (1, 12). Moisesen maiestate berbera azaltzen da Josueren despedidako hitzetan: "Hiltzeko diren guztiek hartzen dituzte lurrean beren tamainako hilobiak, baina zure hilobia egunsentitik iluntzeraino zabaltzen da eta hegoatik iparreko mugetaraino: lur guztia da zure hilobia" (II, 8). Hemen Moises lehengizaki munduan inmanente da, eta munduan inmanente dena, munduan sartu den lehengizakia Moises da; baina beste apokrifo zaharrago batean Moises, inolako Physisik gabe, are gizonegin beharrik ere gabe askoz gehiago da. Etiopieraz gorde den Kristo aurreko bigarren mendeko Henok liburuak ikusten du Danielek bezala gizakiaren itxura izaki preexistente bezala zaharrekin zeruan, baina lehengizaki honek, mende bat geroagoko Henok etiopiarren *Irudien Hitzaldiak* liburuan mesiaren ofizioa hartzen du. Adam zerutiarra izango da Eon berria ekarriko duena, are haren edukia bera, gizakiaren helburuekin guztiz bat eginez; helburu horiek ez baititu oraindik egiaztatu sorkuntzako lehen Eonak. Gizonaren Seme esamoldea bera ez da gehiago galduko apokalipsia juduetan: bizirik dago Henoken liburuan, Esraren IV.enean, Baruken apokalipsian. Eta gainera lehen gizakiaren irudia rabinismoan bertan ere goian dago, eta arrazoi handiagoz literatura sekretu judu berantiarrean: gizakiaren distira zaharrena eta azkena, biak berdin izango dira. Kasik loturarik gabeko azaltzen da autoadorazioa Adam-mesiasengan Jaberren adorazio absolutuaren ondoan edo haren barruan -giza-totemismo bat, kasik kristaua bera baino bortitzagoa. Lehenengo Adan Talmudean erraldoi bezala deskribatua da, haren gorpuzkerak eta handitasunak biak, zerua eta lurra, betetzen ditu. Kabbalak ere *Adam Kadmon* munduko misterio propio eta une berean haren giltza bezala ipintzen du: "Gizakiaren forma", esaten du Soharrek, "da goian zeruan eta behean lurrean dagoen guztiaren lehen irudia; horregatik hautatu zuen Zahar Santuak (Jainkoak) bere forma propiotzat" - Adam Kadmon makrokosmoa eta Jainkoaren modelo bat une berean. Kabbalak hamar "Sefirotak", hau da distirazko hamar atributu jainkotiarrek, anatomiaren aldetik ere, Adam Kadmonen irudian banatzen ditu. Hau makrokosmoan banatzen du, horrela *mak-anthropos* bilakatzen delarik: Eta honek "koroea", "jakituria", "ulermen" *sephirotak* lehen irudiaren buruan eta lepoan daramatza izen bezala, "edertasuna" bularrean kokatzen da, "maitasuna" eskuineko besoan, "zuzentasuna" ezkerrekoan, "oinarria" ernalketa organoetan, "indarra" ezkerreko izterrean, "distira" eskuinekoan, "erregetza" oinetan. Horren ondoan Kabbalak filologia arriskutsu bat erabiltzen du bere Adam Kadmon hori Biblian bertan ere izatearen hasieran jartzeko, lehen Adami buruzko aipamenetan (1 Mos. 1, 27) sei egunetako sorkuntzaren azkenean jarri ordez. Biblia hitz hauez hasten da: *bereschith bara elohim*, hasieran sortu zuen Jainkoak; hitzak beste era batera, era "esoterikoan" banatuz ordea, behar diren bokalak aldatuz, esaldiak honela dio: *bara schith bara elohim*, berak sortu zuen aharia, berak sortu zuen *Elohim* (indar jainkotiarrek). Bera, orduan da *Ainsoph*, lehen ezereza, zerbait sortuz distira egiten duena, baina *schith*,

aharia, Adan Kadmon da, *elohim* horiek berriz dira *Sephirotak*, barruti kategoriak Adam Kadmonen munduko gorputzean. Guzti hau fantasia hutsa da, baina harrigarriro sakon jotzen ditu ezereztasunaren buztinezko Adam, ortodoxiako Jabe eta bere gizaki harra. Ez-gizatiar, hemen esan nahi du: arakaezinezko moduan bakarrik dago atzean "*Ainsoph*", ez-zerbaita, bakartasunaren lehen-ezerez santua, hango iluntasunean Adam Kadmon bere buruaz galtzen delarik. Maileguak bezala zerikusiak ugari dira emantzipazio sistema neoplatonikoarekiko eta Genesiarekiko (Kabbala handik baitator), baina garrantzizkoa zera da: bereziki hurbil daudela era horretan berriro azaltzen diren *ofita radikalen anthropos-logos* doktrinatik (Adam esnatu zuen paradisu sugearen aldekoak). Hauek ere azken batean beren sugearen izpiritua gizaki handiaren munduko izpiritu bezala aurkeztu zuten, zehatzago esateko: munduko paradisu debekatu eta ezkutatuko. Suge-lehengizakia beraien ustez paradisu ozeanoa edo Jordana da, hari buruz idatzirik baitago: "Edendik ibai bat sortzen da, baratza ureztatzeko, eta lau besotan banatzen zen" (1. Mos. 2, 10). Bestalde, ibaia sortzen den Eden gizaki handiaren garuna da, eta zeruko esferak bezala larri inguratzaileak jazki gisan bere biran dituelarik. Fantasiakeria handia hemen ere noski, baina berriro ere gizakiaren itxuraketa bat eta halakoa non bera baita zorion lurrik handiena, paradisu zerutiarra, aitaren jargoitik *urrunduz* eta lehen gizakiari *gaineratuz*. Adam Kadmon egiaz Jainkoagan atsedean duen kosmoa da, baina ezer baino lehen, azkenik *kosmo honen oraingo eon hau kendu ondoren geratzen* dena da. Oraingo mundu honek berari ez dagokion esparru bat hartzen du; egiazko bihurtu den bere benetako itxura *makanthropos*arena (arkaiko-mesianiko) da. Itxaropen pentsamendu izugarri honek ere, gizakiaren itxura duena bestalde, *Kabbala* guztia zeharkatzen du garaipenaren dotrina berri baten bidez, ez soilik bizitza ondoko baten bidez, baizik areago munduaren ondoko baten bidez, berpizte gnostikoari edozein denboratan apokaliptikoki lot dakiokelarik. "Hasieratik", predikatzen du Valentino gnostikorik esanguratsuenak (Alexandriako Klementeren bidez helarazia, *Stromata* IV, 13, 89), "hasieratik zarete zuek hilezko eta betiko bizitzaren seme zarete eta heriotza zuen artean banatu nahi zenuten, zuek hura honda eta desegin dezazuen, eta heriotza zuengan eta zuen bidez hil dadin. *Izan ere zuek kosmoa desegiten baduzue, baina zuek desegiten ez bazarete*, zuek agintzen duzue sorkuntzaren gainean eta iragankor den guztiaren gainean". Ez bakarrik oraingo lurra, baita sorkuntza eta haren orde zetozen iraunarazpen printzipioa ere sortzen da guzti honen ondoren zeru berrian, gizakiaren hipostasiaren lur berrian (eta bestela beste inon ez). Beti urrunago ihes egindako gorentasun bat bezala, are ahaztura bezala dago aita irudi zaharra gizakiaren mistika honetan. Hari dagokio A-teismo oro gainditzen duen otoitz ederren, iraunkorrena, Ebaren Ebanjelio apokrifiko batean aurkitzen den Jainkorik gabeko otoitz hura, *unio mystica* gizatiarra Gizonaren Semearekiko *unio* bezala jartzen duena: "Ni naiz zu eta zu zara ni, eta edozein lekutan zaudela ere ni ere hantxe nago eta bizidun orotan ereina nago, eta edozein lekutakoa zarela ere, ni bilduko nauzu; baina ni biltzen nauzunean, zeure burua biltzen duzu". Konfidantza mota bikain hau Ebaren Ebanjelio apokrifiko sententzietako bat da (Cfr. Wendland, *Die hellenistisch-römische Kultur*, 1912, II, 298. or); Aitagurerik gabe bizi da, *anthropos-agnostos* batekin bat dator guztiz, hemen sakabanaketaren ondoren, bilketaren ondoren funtsezko bakar bezala horrek geratu behar duelarik. Identitate gurariak egiten du erlijio mugimendu honetan *makanthropos*a presente -ez gehiago mundu bezala- erreinuko irudi bezala baizik.

29

Gizonaren Semearen handitasuna ere desagertzen da; erreinua "txikia" da

Ni hain zabaldua orde egin al daiteke presente inolaz? Gizakiari, are bizi den izaki orori dagokio bere neurria, horrela gaude ohituta, hala ezagutzen dugu, bizirik gabeko

gaiekin gertatzen ez den bezala. Muino bat ordokian mendi bezala ikus daiteke, mendi bat zeruraino altxa daiteke eta betiere mendi handi bat izango da. Baina Adam *erraldoia*, zerua eta lurra betetzen dituen, rabinoak ametsetan jartzen zituen, ez da gizaki, baizik mustro bat da. Gizatiar ezagunak jasaten du jasoaz izatea, jasaten du zerura igotzea eta betiere ezagun da oraindik, baina ez du inolaz onartzen era kosmiko eta zeruko zabaltzea. Horren ondorioz makanthroposaren pentsamendua bera ere bere guztiz kontrakora joan zen: mito astral moduko berri batera, alegia. Ez bakarrik agertu zen berriro sineskerian, mikrokosmo-makrokosmo konparaketa ospetsuan ere azaldu zen, hasieran estoikoek prantatu zuten bezala eta azken batean gizaki handitik dator. Gizakia mundua txikian da, eta mundua gizakia handian: analogia honek funtsean gizatiarra kosmoaren mesedetan ipintzen du. Gizakia Parazelsorengan indar kosmikoen "barneko muina" da, gauza guztien esentzia dauka laburbildumarik finenean; baina era horretan ez al da arrazoi berarengatik munduaren jaun homogeneous haren ispilu soil bakarrik? Azpimarratzekoa da mikrokosmoaren dotrina, *makanthroposaren* ideia sekularizatu bezala, ez zela azaldu fedea gizakiarengan zen garaietan, kosmozentrikoengan zenean baizik; Stoaren jaiera mundutiarrean, gero Berpizkundean, Parazelso eta Leonardorengan. Mikrokosmikoaren neurri berriro makrokosmikoak, bere neurri makrokosmiko erraldoi berrituaren bidez hain zuzen eska zezakeen harako kolosalasuna, mustroaren gisakoa, gero lurreko izpiritu bezala Fausti esango diona: berak ulertzen duen izpirituaren antzeko dela, ez bere antzeko. Harrigarriro behera etorria bestalde, baina ez hain kosmomorfoa azaldu zen berriro makanthroposaren ideia sineskeria sistematikoan, bereziki Swedenborgengan. Kantek bere "*Träumen eines Geistersehers*" obran nahiko destain harritua azaldu du azti honen iritzien eta historien aurrean; *makanthroposa* munduko esparruan, Swedenborgengan mamu baten gisan dabilen bezala, jakingarriro ironizatua eta karakterizatua izango da. Jakingarriro, ez zentzunak bakarrik, baizik gizakiaren neurriaren senak ere, mistikoa den senak protesta egiten baitute barnekotasunaren *koloso mundutiarrearen* kontra. Kantek Swedenborgen arimen eta izpirituen dotrina iraindu dituenean (kosmografikoa baita doktrina hori), segitzen du: "Hemendik, nekeak merezi duela uste badu, iritzi bat egin daiteke zenbateko neurrian den abenturatsu eta bitxi haren ameskeria oro bateratzen dituen askakizuna. Indar eta gaitasun desberdinek arma edo barneko gizakia den batasuna osatzen duten bezala, era berean izpiritu desberdinek osatzen dute... gizarte bat, zeinak bere baitan gizaki handi baten itxura erakusten duen, eta zeinengan izpiritu bakoitzak itzalezko irudiak leku hartan eta ustezko gorputzaren ataletan ikusten dituen, bere osatze propioa halako gorputz izpiritual bati dagokiolarik. Izpirituzko gizarte guztiak ordea batera eta izaki ikustezinezko guzti hauen mundu osoa azken batean azaltzen dira berriro gizaki handienaren itxuran" (*Werke*, Hartenstein, 1867, II, 372. or. eta hur.). Kanten destaina Swedenborgen obraren kontra ziprztindua eta pertsonalki txunditua azaltzen da, esan bezala; beharbada aipatu berri dugun pasarte honetan igertzen da hori gehien, batez ere Swedenborgen *makanthroposaren* ideia dela eta. Berriro azaltzen da ideia hori mustrokeria bezala, ez bakarrik formarengatik, baizik areago bere fantasiaren objektuarengatik, *makanthroposak* une berean kosmikoa izan beharko lukeen neurrian hain zuzen. Munduaren zati oso bat birjina eseri baten irudiaren bidez margotzea bezain inozoa da hori, eta gainera astral mitikoa da. Horrek ametsezko irudi bihurtzen du: gizatiarra baino ez mundu guztian -berriro Leviathan kosmiko; gizatiarra osotasun jakin erraldoiaren esku jartzen du. Egiaz, Swedenborgek azkenean ez du gehiago adierazten bere gizaki handiak esparru bat, are munduko esparru bat, betetzen duenik, aldiz hau harreman soil batez eginga dago, eta hain zuzen arimez edo izpirituz osatua dago. Beraz Swedenborgek puntu honetan irtenbide bat ipintzen du gizakiaren irudi kosmiko zabalgarriaren, Gizonaren Semearen irudiaren ikuspegitik irteteko. Bide bat irekitzen

du, kosmografiarekiko analogia oro arren, *gizarte soilaren Adam Kadmonean beste baten, munduaren ondorengo makanthroposaren* gogorapen bat ere: *Corpus Christi eta erreinuaren* ideia gogorapena, alegia. Honentzat ez du balio Kanten destainak, eta ez du haraino luzatu ere luzatzen; gizaki handi baten eta azken batean gizakirik handienaren itxuran azaltzen den gizarte hau izan ere Kanten etikan berriro itzultzen baita zantzu mistiko bezala. Gizartea Kantengan mundu inteligibleko hiritargoa da, gizakia bere izaera moralagatik hango delarik: eta hark berak, gizadiaren lotura moral eta erlijioso bezala, gizaki itxura inteligiblea dauka. Gisako azken loturaren utopia bezala bakarrik eskatzen du *makanthropos* irudiaren itxurak berriro seriotan hartua dadin, ameskeria izun eta geza guztien eta analogia huts guztien gainetik. Itxuraren irudia hemen helburu irudi da; Adam Kadmonen gisan benetan seriotan Alfa eta Omega bakarrik iradokitzen ziren, eta hasierako Alfa gainera, *amaierako Omega* sorkuntza guztian zehar xede bezala jarria gera zedin besterik gabe. *Makanthropos* burua da munduaren amaieran, etorkizuneko erreinuaren itxura. Zentzu honetan, halako ikuskizunak zeukan humanismo erraldoiak arrazoiz iraun zuen espekulazio kristauean, gehiago kosmozentriko ez baizik gizakiarekiko fedezko zelarik. Hala Baaderrengan: "atal guztien izpiritu itxura-emaleak bere zentrua daukan buruak gutariko bakoitzari (Pauloren arabera) atal bakan bezala bidali digun izpiritua da idea itxura-emalea, horretarako atal bakoitzak buruaren eta gainerako atalen laguntzaz eratu eta hazi behar duelarik. Izan ere (Ef. 4, 13) Jainkoaren Semea Gizonaren Seme bezala etorkizunean sorkuntzaren osotasuna bete eta horrekin batera izaten segituko du bakarrik, bere gizatasunaren handitasun betearen garaia beteko denean, hau da, bere gorputz handia bere atal guztiekin burutik beteko denean, hura guztiz zabalduko denean" (Baader, *Werke*, IV, 352. or.). Gizonaren Semea ez da bihurtu mundua bezain handi, baizik bere benetako "barneko mamia" edo beharrezko den Bata bezain handi.

Baina horrek esan nahi du bestelako handitasun bareago bat sortzen dela. Jesusek haur bezala ez du leku asko hartzen, baina hala eta guztiz ere bere fededunak erabat gainditzen ditu. Hurbiltasun saldu gabea, non Gizonaren semea soma daitekeen, trumoirik gabe dator. Hemen hesparru neurtu gabeak ez dira gehiago neurtezinezkoak, erreinuak ez dauka barruan ez Behemoth ezta Leviathan ere. Gizonaren Semearen agintaritzaren pean pentsatua, amaierako makanthropikoa ez dator lehian oraingo munduarekin eta haren zabaltzearekin. Gizonaren Seme guztiz ulertua hurbiltasunaren neurrian geratu zen; horregatik eta hain zuzen horregatik noski ez zen geratu *oraingo* gizakiaren neurri *emanean* oraingo mundu honen barruan. Horrek bereizten ditu azken batean grekoen Jainkoen antropomorfizazio ustezkoa eta Itun Berriko Jainko Gizona. Grekoek azken batean emandako gizakia, haren irudi naturalaren arabera, hartu eta numen gizon eginaren esparru bezala jarri zuten. Ez zuten hartu gizaki emana bere adierazpen beti traszenditzailean, baizik giza abere bikain moduko bat, ederra, azkenekoa eta moral gaidikoa jarri zuten Jainko bezala. Eta horrela abere irudi erlijiosoaren antzinako misterioa galdu egin zen, "naturaltasunagatik" hain zuzen; itxura numinosoa daukan jainkoen irudi greko bakarra Medusa da.

Jesusen irudi zahar bera -artzain on bezala Orfeoren arabera, Kristo bizardun bezala era gazteagoan kopiaua agian Fidiasten Zeus bezala- era naturalekoa da, ez gizatiarrekoa Corpus Christi eta bere buruaren pentsamenduaren zentzuan. Eraketa gizatiar hau, beraz, ez zegoen pentsatua lehengizaki mistikoan, eta are gutxiago, gutxiago badaiteke oraindik, koloso makrokosmiko bezala. Ezezaguntasuna bera da, ezezaguntasunaren markoa, era erlijiosoko antropomorfismo klasiko-klasizistari falta zaiona; *Anthropos Agnostos*aren neurri *ireki* edukia falta zaio. Eta horregatik Gizonaren Semea eta haren azken hesparrua zehazkiro neurtzen duen pentsamolde oro esparru honetatik kanpo dago. Hala Gizonaren Semearen pentsamoldea Hegelengan; hala, batez ere gizatiarra,

Hegelek kristautasun bezala Jainkoen prozesu luzetik ateratzen duena. "Historia oso honetan gizakiak kontzientzia hartu du eta haxe da erdietsi duen egia: Jainkoaren ideiak beretzat ziurtasuna daukala, gizakia Jainko zuzeneko eta presente dela" (Hegel, *Werke* XII, 1832, 253. or.) - ez da ordea Gizonaren Semearengan asmo den subjektua era horretan Jainkoaren ideiak bere autokontzientzian bilatzen eta berriro eskuratzen duena. Izan ere Hegelen erlijioaren subjektua era berean bazterrik gabea da gizakiaren misterioari dagokionez, baden gizakiaren, baden elkargoaren, baden munduaren, are aldezturik agindutako Aitarenekin sineste baten neurrian du era berean atseden. Hegel gazteak bere idazti teologikoetan esaldi sakon eta egiazko bat badauka Jainko objektiboari buruz, alienatu bat bailitzen: "Garaiko izpiritua azaltzen zen bere Jainkoaren objektibotasunean, hau, neurriari dagokionez, ez amaibakotasun batera, baizik guri ezezagun zitzagun mundu batera aldatua zenean, haren lurraldean guk parterik ez dugularik, baizik guk gehienik ere eskatu eta amestu bakarrik egin dezakegularik, gizakia bera ez-ni bat eta bere jainkotasuna beste ez-ni bat ziren neurrian" (Cfr. Haym, *Hegel und seine Zeit*, 481. or. hur.). Baina Hegelek alienaziotik berriro ekartzen zuen nia eta norberarentzat izatea, tinkotasun egokitu bat zen, bere historia zeukan, bere bakardadea eta objektibotasuna zeuzkan. Hegelen gizatiarra ("nahimen substantzialaren erreinua") estatuan galtzen zen, Hegelen erlijioak ez zuen hura salbatu, ezta berriro ezagutu ere. Hartaz, humanismo klasizista erlijioaren arloan ere ispatzen da Joben ostean, Gizonaren Semearen ideiarekin ostean, gizaki bat bere Jainkoa baino hobea eta zentralagoa izan daitekeen aitortzarekin ostean. Gizonaren Seme eder eta ikusteko moduko bakarrik eginaren erlijioa egiaz da, Hegelek dioen bezala, betiere "gizakia Jainkoarekin bakeatu denaren kontzientzia". Irakiten dagoen erreinuaren erlijioak aldiz ez du biltzen jainkotiarra gizakiaren neurri ezagunera eta ez du bakeatzearen oreka egiten; guztiz bestela: Gizonaren Semea eta bere hesparrua gizatiar *ez-eman*a dira. Kosmo existente baten neurri erraldoiekiko bezain kasik debies ipintzen dira subjektu presentearen irudierekiko; *Anthropos Agnostosek* ez dauka inolako zerikusirik Jaberenekin ideiarekin neurtezinezkotasun txarrarekin. Baizik hain zuzen: handitasun lasaia eta misteriotsuagoa altxatzen da, areago: mistikako makanthroposa azken batean txikia da, paradoxa osoz, eta txikitasun honek hain zuzen bihurtzen du *makanthropos*. Inolaz ere txikitasun bat da handiarekiko kontrajarpenik bat ere gabe, hurbiltasunaren eta barneratzearen txikitasuna, beharrezko den Bataren barnemuin existentia. *Une betearen txikitasuna* da, erlijioaren alorrean *unio mysticaren* une bezala aurreirudikatzen. Une hau egiaz da gizatiar oro hartzen dituen "beti" eta "leku guztietan" bat edo errealtate irekia "orain" eta "hemenean"; haren zabaltze erlijiosoa mistika kristauean erreinua da bakarrik. Haxe da mendekatzailaren ostean Jobek ikusi duen lurra, Deutero-Isaiaren liluramenezko lurra: "Jaunaren salbatuak berriro itzuliko dira eta Sion aldera joango dira ospe handiz eta betiko poza izango da beren buruen gainean" (Is. 51, 11); betiko poza, horixe bakarrik. Desiozko misterio kristau guztiek bat egiten dute horretan, ez daude loturik gehiago kanpoko objektu izugarriren batekin, gizakiekiko arrotz litzatekeen batekin. Jaberenekin irudikatzearen handitasun despotikoa ezabaturik dago hortik, baina Exodoko Jainkoaren pean pentsatuak Jainkorik gabeko balioa hartzen du, Gizonaren Semearen balioa, alegia. Guztiz egin gabearen, bere baitan inolaz erabaki gabekoaren balioa; horren arabera, beraz, Jaberengan, Jaberenekin ordeztu jarritako Gizonaren Semearen ezkutukiak ez bakarrik formalki baizik edukia aldetik ere, bere asmo propioaren arabera, guztiz erabaki gabeko, erabat eta guztiz erabaki gabeko amaia dauka.

Komeni ez dena, izan ere izango ez balitz bezain arriskurik gabeko bihur daiteke. Era horretan erabilerraza ez zen hainbat esaera azpiratu zen, hala esaterako aberatsei eta orratz begiari dagokiena. Eta orobat areago bere buruari zegokion Jesusen esamolde betiere harrigarri hura: Gizonaren Seme, horren bidez inolako jaun izan nahi ez zuenak bere burua aurkezten zuelarik. Zein erraza litzatekeen esamolde hau, haren ostean in petto ez dagoen eta azken batean arameeraz bi hanken gainean dabilenaren deskribaketa alferrikakoa baino ezkutatuko ez balitz. Wellhausenek egiaz uste izan du, Gizonaren Seme esamoldeak hizkuntz erabilera aramearrean ez zuela adierazten giza banakoa baino (gizaki generoaren alderantziz). Gure hizkuntzan abere hitza generoari dagokion bezala eta haietako bakoitza edo gehiago generoaren zati, abel buru deitzen den bezalaxe. Horregatik, gauza hain arrunt bat ezin omen zitekeen izan Jesusen titulu; uiJo;" tou` ajnqrwvpou bezala egindako grekerako itzulpen okerrak sortu omen zuen azkenik erosoia ez den lilura hori. Honek ez die lehiarik egiten gehiago, era hain deserosoan bere kabuzko izaki, Jainkoaren Seme, Jaun, predikatuei, hauek guztiak errazago, hau da goitik behera sailkatu baitaitezke. Baina, argiturik geratu da Gizonaren Seme terminoa arameeran ere ez zela hain ohizkoa, aldiz antzinako eta poesiako bezala azaldu zela, eta ondorioz bat ere ohizko ez zen zentzu terminologiko bat ekar zezakeela barruan. Hain zuzen ere Daniel 7, 13an azpimarratutako zentzua, Gizonaren Semearen irudiari dagokionez gramatika aldetik bakarrik ez, baizik espekulazio aldetik ere arazoak sortzen dituen; eta entzute edo idazketa oker moduko baten bidez hainbeste ondorio dituen eta bere jatorriari dagokionez betiere argitu gabe dagoen Gizonaren Seme izaera inolaz ere ez da ezabatzen Jesusen arazo sakonetik, are Jesusek erakusten duen harrotasunetik. Gizonaren Seme, ez da ikasleek ematen dioten izendapen bat, baizik azken batean Jesusek bere burua izendatzeko erabiltzen duena; ez dago beste sarriago bat berarengan. Eta betiere erabakiorrena dena: Gizonaren Semeak, barruan *Gizon* muineko hitza darama, eta gainera asmo den *Novum* eta *Absconditum* horiek adierazpenean dituela, beste bide bat seinalatzen du, gehiago oraindik: askoz ohizkoagoa izan zen Jainkoaren Seme izendapen dinastiko eta nolabait esateko legitimatzailearen aldean Kristoren beste topos bat seinalatzen du. Jainkoaren Seme titulua Zeusen zenbaezinezko seme morganatikoetatik Alexandro Jainkoaren Seme neo-egiptiarrarenganaino eta harantzago luzatzen da; Gizonaren Seme titulua lehen elkargo palestinarrekoa da eta bestela ez da beste inongoa. Eta hori, hasi Filonen Bitarteko-Logosetik, batez ere Jabek lehenbizi sortu zuen bere "lehenbiziko Adametik", "lehengizon zerutiar" honetatik era genealogikoan itsatsia zetorren, nolabait esateko, atzerriko korronteak arren; Paulorenganaino 1 Ko. 15, 47an eta, oso bestela, Apokalipsiraino. Baina hemen ere gehiago azpimarratzen da lehengizon "preexistentea", bigarren Adam bailitzen, Jainkoak sortu zuena baino; areago, Filonengan bezala Pauloren gutunetan Adami nahasten zitzaion Melkisedek "lehen apez nagusiaren" (1. Moiss. 14, 18 h.) legenda berezi eta kasik Jaberik gabekoa - guztia beste hildo baten mesedetan. Hebertarren Gutunean Melkisedek horrela Jesusen aintzindari, ez bada kontrairudi, bihurtua izan da eta hain zuzen "lehen Adam" bera gaituz, eta hori Jesusen autoktonotasuna biziki azpimarratuz, bere-beraren arbaso bailitzen: "Ez du aitarik, ez amarik, ez arbasorik; ez zaio jaiotzerik aipatzen, ez heriotzik: Jainkoaren Semearen irudi" (baina Gizonaren Seme honek ez duelarik sorkuntzazko semetzarik, Jabegandiko jatorri menpeko eta ez berezkorik ez duelarik eta behar ere ez duelarik) "betirako dirau apaiz" (Heb. 7, 3). Eta Filoni dagokionez, ez dago berarengan noski Melkisedek eta geroago Jesus gogora ekarriko dituen Jainko Aitarekiko bestelakotasunik, bai ordea geroago Paulorengan sortzailearen, "hitza egiten duenaren", *Logos* propio denaren gisako *zatiketa* bat Jaberengan, munduaren sorkuntza aurreko lehengizon zerutiarraren mesedetan. Horregatik *Logos* ernarazlea alde batetik

da bere baitan daukan jakituria zerutiarra, eta bestetik berriz jainkotasunetik ateratzen dena, antzekotasun independentea, lehenjaioa baina ez egina, ondorioz era ez propioz semea, esan nahi baita: "ateratzen den *Logos*" bezala hain zuzen (lovgo" pro? orikov"). "Bitarteko" bat, neurri txikian ez baina handian, hau da, lehengizonari eta *Humanum* propioari dagokionarekiko transzendentziarik gabe, mundukoa dena eta hartaz arduratzen dena. Horregatik hain zuzen falta da Gizonaren Semearen kategoria Filonengan "bitartekoa" deskribatzean, geroago bakarrik azaltzen baita Jesusek *bere burua izendatzean*, ez bere ikasleengan, Kristo titulua; horretarako aldeaz aurretik apokalipsia behar baitzen. Horrek esan nahi du: Gizonaren Seme bezala "agerian jartzen" denarekin adierazia -Danielen profezia ez oso prekosmikoaren baizik gehiago eskatologikoaren arabera- erabat apokaliptikoki bakarrik, itzuliko den Kristorengan erabat eraginkor eta ondorioz ikusteko moduko bihur daitekeela; azken gauza hauetaz aparte Gizonaren Semeari dagokion guztia bere burua ezagutu nahi duen Jesusen beraren izendapen bezala bakarrik geratzen da. Hain oparoa eta ugaria da Jesusengan bere burua izendatzeko modu hau, ze gainerako guztiak kasik desagertzen baitira, - eta hain zuzen Jesusek Gizonaren Seme bezala gehienetan zama eskatologikoa duelako. Hala azaltzen da zehazkiro literatura apokaliptikoan, adibidez Henoken liburu etiopiarrean, Gizonaren Semea izaki zerutiar preexistente bezala, Filonen doktrinan ez bezala, munduaren sorkuntzan parte ez hartuz, hain zuzen ere denboren amaian bakarrik, zero berriaren eta lur berriaren sorreran izan behar duelako eraginkor. Gainera, -geroago ikusiko denez- apokaliptika *dominatzaileak* Gizonaren Semearen arketipoak berez duen gizonarekiko hurbiltasunetik apartatzen du, baina ezaugarriei dagokienez gurekin bizi ez den baizik goitik behera datorren Kristoren *Kyrios* iruditik, garai helenistiko berantiarrekotik, *qua* Gizonaren Seme, urruti dago. Hain zuzen ere, oraindik etortzeko dagoen Gizonaren Semeak bere burua ebanjelikoki guztiz osatu behar duelako, eskatologiaren barrutian bakarrik Gizonaren Semea Jesusekin parekatzea bete zelako, dauka Gizonaren Seme kategoriak ez bakarrik, ikusi dugun bezala, oraingo soinu gizartekoa, baizik etorkizunean guztizko izango dela uste dena. Hortik azkenik beti misterioz beterikoa, hobeto: misterio eramalea hantxe bertan; filologiak ez du hori noski ezabatuko, azken batean hori *homo absconditus* berberaren esku baitago.

Horrela geratzen da gurekin bakarrik hasten dena gudan oraindik ilun bezala. Ez zegoen oraindik Jaun *Jesus* titulu bezala, gainerako printzeak bezala goratua eta oso ondo ikusteko moduan jarria. Lehen elkargoan "goren" bezala Gizonaren Semea zegoen bakarrik, ez *Kyrios Christos* guztiz bestelakoa, are kontrajarria. Bousseten merezimendu eraberritzailea da (*Kyrios Christos*, 1965 ⁵), hain zuzen ere Gizonaren Seme eta Jaun tituluetan lehen elkargo palestinarreko Jesusen irudia kultural bihurtu zen kristautasun helenistikotik bereizi izana. Horren arabera beraz, Joanen idazti nahiko berantiarretan beraietan ere (Joanen ebanjelioa eta gutunak) *Kyrios* titulua guztiz falta da edo berariaz baztertua izan da. Horren ordean, Gizonaren Semeak hitz egiten du, geroko goraltzearen aurre-azalpenean ere, filadelfia osoz, bere toposari, ez teodinastikoari, beraz ezta teokratikoari dagokion bezala. Gizonaren Semeak hitz egiten die hemen mahatsondo gisan gizakiei, hauek bere ahiena homogeneousak balira bezala: "Zuek nire adiskideak zarete..., aurrerantzean ez zaituztet morroi deituko; morroiak ez baitaki nagusiak zer egiten duen" (Jn. 15, 14). Horren arabera, Joanen idaztiekin ere sinesle hauek hain Jesusengandik hurbil eramaten dituzte, "ze haiek handikio -beharbada hemen Paulorekiko kortzajarren bat badago azpian- Kristoren morroi predikatua beraiei dagokienez ukatu egiten baitute eta horregatik dirudienez *Kyrios* titulua ere baztertu egiten baitute" (Bousset, l.c. 155. or.). Zalantzarik gabe hemen Gizonaren Seme goratua, hain zuzen ere apokaliptikoki desestalia, ebanjelioetan epaile eran pentsatua izan da, gehiago bere Aitaren aintzan, bere aingeruek inguratzen dutela (Mt. 16, 27; 25,

31 h.), beldurra sortuz inolaz, baita ere lehen elkargo ez bakarrik helenistikoaren, areago bizantziarraren begietan. Hala ere garrantzizkoa da sartu diren tronuen irudi horien kontra, haiek ere Gizonaren Semeari dagokionez bere goralmen horretan ez dutela galtzen ezer *Dominus maximus triumphans* baten mesedetan, baizik haren konparazio bidea izango da gutxienez artzaina, ardiak akerrengandik bereizten dituen (Mt. 25, 32) eta batez ere, guztiz oldartzen den apokalipsian, bildotsa argi bakar bezala Jerusalem zerutiar batean (Jn. Ag. 21, 23). Ez bakarrik Jesus Jaun batek, baizik haren aprioriak Gizonaren Seme bezala iraungo du nabarmen hasiberritan dagoen kultuko Jainkoaren Eliza batean, Kyriosaren hipostasian. *Humanum mistiko, mistiko bakar baten a priori* bezala, harekin sartua baitzen eta haren arabera ez bakarrik erakutsi baitzuen: "Ni eta Aita bat gara", baizik: "Zuek nere anaietako txikienari egiten diozuen, neri egiten didazue". Hartaz bereziki kristautasun helenistiko berantiarrean azaltzen da segituan etortzeko dagoen Gizonaren Semearen itxuraren ondoan, areago haren orde, inperadorearen antza duen *Kyrios Khristos* kultuan adoratua. Eta Gizonaren Semearen itxura pobreen artean geratu zen, barnetik eta batez ere kanpotik gizona agertzen ez den goiko ororen kontra protesta egiten dutenen artean, borondate oneko, elkarrekin bizi diren, izpiritu beteko, izpiritu libreko anaia hereseen artean, Thomas Münzerrengan eta Danielengan Gizonaren Semeak duen aurpegiari eta eraikitzaileek baztertu duten Jesus benetako giltzarriari buruzko Allstedteko bere predikuan. Baina *Kyrios* Jainko *Khristos* oso egoki etorri zitzaion elkarte kristaua beren kultuko heroearekiko soldaduzka moduko zerbait bihurtu eta horrela, eta horrela azkenik, mundutiarrago ziren agintariekiko eta azkenik agintaritza orokiko leialtasunera ekartzen zutenei, Pauloren eta beste batzuren ustez hori ere "Jainkoarengandik" baitator. "Aspaldidanik dagoeneko adierazi izan da kristauen *Kyrios*aren kultuak duen analogia Zesar erromatarren kultuarekin... Giro horretan bilakatu eta hazi izan da kristautasun antiokiarraren gainerako elkarte lehenkristau helenistikoetako. Inguru horretan eratu da erlijio kristau gaztea Kristoren kultu bezala, eta inguru horretatik hartu zen guztia laburbiltzen duen *Kyrios* formula, Jesusek elizkizunetan zuen leku gailena adierazteko... "Jainko izeneko asko izanik ere, nahiz zeruan nahiz lurrian -eta benetan horrela jainko eta jaun asko daude-, guretzat Jainkoa bat bakarra da: Aita; eta jaun bat bakarra: Jesu Kristo" (1 Ko. 8, 5 h.). Hitz horien bidez Paulo apostoluak berak zigilu bat jartzen zuen lotura guzti hauen azpian... *Kyrios*en kultua, elizkizuna eta sakramentua izango dira lehenkristauen oinarritzko jarrera eskatologikoaren etsirik arriskutsuenak eta esanguratsuenak. Baldin haiek inoiz guztiz eraturik badaude, hauek goitik behera botatzen dituen indar oro galduko dute. Baina haxe izango da bilakaera: Gizonaren Semea nahiko ahaztua izango da eta ulertzen ez den hieroglifiko baten gisan geratuko da ebanjelioetan, kultuan presente dagoen *Kyriosi* baitatorkio etorkizuna" (Bousset, l.c. 91, 99, 103, h.). *Kyriosi* inondik ere elizako agintaritzaren etorkizuna zetorkion eta datorkio, ez lehen elkarteari eta haren Gizonaren Semeari etorkizun bezala balio ziona, oldartzen zen "Eon hobe" bezala, harrez gero kristautasunari, besterik ez bada bere Jesus Jaunarengan eratzen zaion behatoparri betiere etengabe alboratu eta bazterturiko bezala. Hau ezarrikeria geratzen da, Gizonaren Semea kanporatu ondoren, Jainkoaren Seme ofizial bezala Gizonaren Semean, haren orde: eta hain zuzen orduantxe, Semearen mito ofizialean -oraindik ez *Kyrios* bezala, baizik azkenik, hala eta guztiz ere, azkenik berriro-Gizonaren Seme bezala. *Deus homo factus est*, berriro ere Jaberrengandiko Exodo biblikoaren azken itzulera bibliko honek, horrela sinesten zen egun apokaliptikoa, Jaberren garaipen eguna bihurtzen zuen egunen amaieran guztiz bestelako "aurpegi desestali", hain zuzen ere gure aurpegi, Gizonaren Semearen aurpegi bezala, baita Paulorengan ere (2 Ko. 3, 18). *Item*, eskatologia zaharragoak Jainkoaren etorrera iragartzen bazuen, gisa berean iragartzen zituen kristauak Kristoren etorrera eta *Parusia*.

Hau inolaz da Bibliako azken hitz esanguratsuen gehiago antiteokratiko ez den baizik azken batean ez-teokratiko den Gizonaren Semearen *toposetik* abiaturik. Haren sakontasun hurbilena ez dator bat inolaz kultuko *Kyrios* behin eta berriro paganoarekin, ezta inolaz ere Jesusi buruzko, haren gaineko eta haren kontrako gorteko teologiako *Pantokrator* tiuluarekin (bizantziarrekin).

31

*Guztiz kristozentrikoa, Joanen 17.aren arabera,
"Ebanjelioaren giltza"*

Pobreei ez zien minik ematen beraiek bezain pobre zen batek hitz egin ziezaien. Beraietako bat zen horrela, ez mesfidatu beharreko jaun bat. Baina bere burua non ipini ez zekien Gizonaren Seme batekin ez zen etorri alderantziz, hau da goitik behera, galde zezakeen ezer. Horregatik ere igo zen Jesusen oroitzapena beti kultuko ohitura gisan Jaun izatera, eta hortik jaunari dagokiona, ez bakarrik etimologikoki, guri durundatzen digun aintza moduko hartara. Hala batez ere laugarren ebanjelioan, berantiarrenean, lehen elkargotik urrutienean. Ez zuen idatzi noski Joane; egilea, hobe esan: egileak Paulori entzunaren menpeko dira. Ezer baino gehiago "osaketa" asko etorri ziren, sarri gnostiko goiztiarrak (2. kapitulutik aurrerarako mirarien kontakizun kasik axalekoek erakusten duten bezala), bestela ere jatorriz nahiko espekulatiboa den testura. Hala ere ebanjelioen kritika hemen hain zuzen Itun Zaharreko Bibliaren kritika ez bezalakoa da nabarmen, hain zuzen ere erasketa askoak kontutan hartuz: huts egiten du (oraindik) dena adostasunean jarriko duen "apez-kode" batek. Ebanjelio honen egileen giroan ez zen eratu oraindik apezdun elizarik, kultuko elkarterako bidea hasita bazegoen ere, haustura lehenkristauaren tentsio galtze eraginkor paulotarra mundu honekiko nolabaiteko bakeari dagokionez hasia bazegoen ere. Azpimarratzekoa eta hala ere harrigarria da horregatik: *Kyrios* titulua, lehenkristaigo helenistikoan era hain erabakiorrean sartu zena, falta da edo guztiz desagertzen da, eta ez dira "morroiak" baizik "adiskideak" Jn. 15, 14 h. pasartean solaskide direnak. Gehiago oraindik: "Horren arabera, Joanen idaztiek ere sinesle hauek hain Jesusengandik hurbil eramaten dituzte, "ze haiek *handikiro* -beharbada hemen Paulorekiko kortzajarren bat badago azpian- Kristoren morroi predikatua beraiei dagokienez ukatu egiten baitute eta horregatik dirudienez *Kyrios* titulua ere baztertu egiten baitute" (Bousset, l.c. 155. or.). Eta Jn. 17.ak batez ere aipatzen duen Jesusen "aintza" ere ez da jartzen dinastia gisan guztiz goian sailkaturiko *Kyrios* baten, Jainkoaren Seme baten hurbilezintasun erabat irentsi beharreko batean. Horren orde laugarren ebanjelioak, beranduen egina bada ere, ez bakarrik gorde du lehen elkarte palestinarreko Gizonaren Seme esamoldea, baizik sakramentalki banatzen den Kristorekiko komunikazioarekin muinetik lotu du. Ez da kultuko Jainko bat, baizik Gizonaren Semea *expressis verbis* bereei edan eta jan dezaten ematen zaiena (6, 53). Ez Jainkoaren Seme tituluak bere *pathos* otzanarekin Jaberri Aita bezala dagokionez, ez *Kyrios*en oihartzun eta zantzu posible hauek, bere Jainkoaren Seme gabeko konformismo paradoxalez zerikusirik dute ebanjelio honek barruan daraman muin harrigarriro kristozentrikoarekin, ez-teokratikoarekin. Eta ezer baino gutxiago 17. kapituluarekin, sortzailearen despedidako mintzaldiaren heldutasunarekin; kapitulu hau, ez arrazoirik, gabe "Ebanjeliorako giltza" deitu izan baita. Bera ere hermetikoa da, bizibide kristauaren sortzaileak indartsu eskainia.

Ez hilez beraz, baizik adio esanez eta hori gainera inguruan gurutze gutxi duela. Jesusen testamentua, bere horretan, ez da "ulertezinezkoa", baina hala eta guztiz ere "ikasleentzako irakatsi ezkutuko" bezala aurkeztzen da (Käsemann, *Jesu letzter Wille*, 1966, 17. or.). Jesusek lehengizon ez-sortu bezala hitz egiten du hemen ere, Aitaz hitz egiten du, ondorioz bera egin duen Aita izan behar ez duelarik: "Orain, Aita, aintza nazazu ni zure ondoan, mundua mundu izan baino lehendik zure aldamenean nuen

aintzaz" (Jn. 17, 5). Jesusek sortuaren Jaunarengan jarri du bere burua ez-sortu bezala, bere izatean Gizonaren Seme bezala, *per se* bezala, bidalia izan soilaren formula pasiboa arren, formula hori Jesusentzat berezia ez bailitzen. Izan ere, bera bidali duen Aitarena ez baita "azken batean gure ebanjelioan formula kristologiko ez bakarria ezta bereziena ere. Jainkoak bidalia 1, 6.aren arabera Bataiatzailea ere bada eta "bidalia izan" esan nahi du bakarrik "ahalmen oro dituen ordezkari" izan. Edozein modutan, printzipio rabinikoaren arabera ordezkaria da bidaltzailearen ordezkaria eta hartzaileak haren berdintzat hartu beharrekoa. Ebanjelioan horregatik formula trukatu egiten da beti: "Ni bidali nauen Aita" eta Aitarekin bat izate beste hura, honek ematen baitio esanahi kristologiko berezia" (Käsemann, l. c. 25. or. h.). Item, "Ni eta Aita bat gararen" zentzu berariaz kristozentrikoa muineko da eta hala geratzen da hain zuzen ebanjelio esoterikoen honetan, honek berriro ere azpimarratzen baitu: "Aitak duen oro nirea da" (Jn. 16, 15). Hala, bada, *homousia* gaindiezinezkoa da, baina orain amaiera *honetan*: *Berdintasuna*, Aitarekin, hau da munduaren sortzailearekin ez bada, *Jainkoaren zein ideiarekin orduan?* Jesusek zalantzarik gabe Aitarekin batera munduaren sortzailea ere iradokitzen du tradiziozko zentzuan, haren nahia egin dadin. Hala, ebanjelio honetan Aitari berriro itzuliko zaio han eta hemen dohain emalearen tasunei dagokiona, Kristok berak bere propioen bezala eta orain azkenik agerian jarri den bezala aitortu duena: argia, egia, bizia, zeruko ogia eta ura; hor bakarrik falta da, inolaz ere betiereko den Jaberengan, berpizten dena. Eta hala ere ustezko beste norbaiti izendatze eta teodizea hau da (Job inoiz izan ez balitz bezala) horregatik hain zuzen aurrekalde soil eta orobat estalketa exoteriko, Jesusek bere beragatik bakarrik, hau da bere *lehen* sarrera eta azalpenagatik, esaten baitu bera dela argia eta bizia. Baldin Joanen ebanjelioan eskatologikoak itxuraz protologikoaren aurrean, bere prologoko *hasierako* argiaren aurrean, atzera egiten badu, atzera egiten du hango Logos horrek ("Hasieran bazen Hitza, eta Hitza Jainkoarengan zegoen eta Jainkoa zen Hitza") inolaz ere sortutakoa ez bezalako beste mundu baten Alfa adierazten duelako eta horrela bakarrik, Kristo amaian duelarik, beste mundu batera aurreratzen delako. Hala bada, eskatologikoa *lehen* Genesiaren protologikora polemikoki horrela zuzenduz, ez da inolaz zabaldua eta mundu honen *lehen Creator* (edo baita gnostikoki *Emanator*) baten arabera atzeraka berriro datatua, alderantziz baizik: jatorrizko argiaren *lehen Proton*-a ("eta ilunak ez zuen hartu") hain zuzen da *bigarren* Genesia baten eskatona, - Kristo Logosaren bitartez. Eta egiazko sortzaile Kristo Logos izango da, kultura berri bat sortuz, bere irudiaren arabera gizakia eratuz eta horregatik "mundu honetako buruzagaiak" (Jn. 16, 11) gorrotatu egingo du; "mundukoak ez direlako, neu ere mundukoa ez naizen bezala" (Jn. 17. 14). Benetako apartatze bat Gizonaren Seme-Logos eta bere *Veni Creator spiritus Deus Creator*-engandik bien arteko dualismo hasi berria finkatzen duena. Inolaz ere hasi berria den dualismo bat, azken agurreko hitzaldian iheserako arrazoi eremitatarrak, transzendente soilak, akosmikoak, Nirnava gisakoak falta direnean, "mundu honetako buruzagi" ustezkoaren izatetik "ikasleen ateratzea" arren, hobe: horregatik. Halako denez, mundua bera ez da ahitzen, hara bidaltzen baititu hain zuzen dizipuluak, historiaren *eskenatokira* bezala, azken agurreko hitzaldiak; Parakletoa mundu honetako eskenatokian (nahiz ez Eonean) azalduko den arte. Halaz ere Kristoren testamentuko hitzaldian bikoiztasun propio bat nagusitzen da, hau da, beti, esan bezala, *Jainkoaren ideia*, "Aitari" dagokiona, harekiko *Homousia* baieztatzen baita hain zuzen. Horrela bakarrik aurreko guztiari dagokionez iristen da punturik *behinena* laugarren ebanjelioko giltzaren indarrean eta arrakastatsuena *Jaunen Jainkoaren ideia* ororen *kontra*. Horrela entzun daiteke orain Testamentuan jarraian datozen esanahiak, azkenik Gizonaren Semearen beste teofaniei dagozkienak. Pasarte guzti hauek Jainko oraindik ezezagun bati dagozkie: "Ez baitute ezagutzen ni bidali

nauena" (Jn. 15, 21); "Eta hori egingo dute ez Aita ez ni ezagutu ez gaituztelako" (Jn. 16, 3); "Mundua sortu aurretik maite izan nauzu zuk. Aita zuzen hori, munduak ez zaitu ezagutu; nik ordea ezagutu zaitut, eta hauek ezagutu dute zuk bidali nauzula. Eta ezagutarazi diet zure izena, eta ezagutaraziko ere, zuk izan didazun maitasuna haiengan izan dadin, eta ni haiengan" (Jn. 17, 24-26). Guzti honetan arazoa da juduei ere orainarte ezagun zitzairen Exodoko izen baten deitura, deitura bat profetengan, Jobengan, areago *Eh'je ascher eh'je*-gan adierazi nahi zen haren kontrako ez dena (geroago Marzion manikeoak Joanen pasarte hauei jarraiki guztiz antitetiko bezala jartzen zuena), baina jaunen Jainko irudi mota oro arren (ageriko idoloen irudirik gabe ere) *Kyrie*-ren erdian aurkitzen zena. Dizipuluen aurrean ez zuen ukatu egiaz agintaritzaren hipostasia zahar honen errealitatea, baina ezin hurbilago gertatu behar zitzairen nekatu eta atsekabetuei, umiliatu eta minduei ordura arte ezezagun eta ahobateko irudi kontrajarria. Hala orobat Aitagureak "zeruetan zaudenari" izenaren santutze bat gaineratzen dio, inolaz betiko ohizko goralmena adierazten ez duena, baizik aldaketa bat erabat bestelako den izen baterantz, benetako santutzearen indar bezala gainera. Eta hau hain zuzen gehiago teokratiko ez den jainkotasun neurri batez, era kristaueko ontasunak gu gizakion artean antzinako Jainko jeloskorra oraindik eredu bezala ez baitu jartzen, baizik alderantziz: "Eta barkatu gure zorrak, *guk gure zordunei barkatzen dizkiegun bezala*". Hau beraz da izenaren santutze bat, azkenik Kristoren pareko denez *Homousiaren* zentzuan, "laguntzailearen" zentzuan, Kristoren azken nahiak azkenik oraindik Parakletoa izendatzen duenez, - "mundu honetako buruzagiaren" kontra-. "Egiaren izpirituak", Parusiak oraindik huts egiten duen bitartean, Kristoren eta ez antzinako erlijioaren *statuseko* Jaunaren beldurraren lekukotza eman behar du, eta Parakletoak esaten duena Kristorengandik hartua izango du, ez teokraziatik ezta Zeruko Aitaren "graziazko tronu" maitagarritik. "Badut hamaika gauza esateko oraino, baina oraingoz ez zarete gauza ondo jasotzeko. Baina, egiaren Izpirituak, etortzean, egia beteraino gidatuko zaituzte; ez baita mintzatuko bere kabuz, entzungo duenaz baizik, eta etortzekoa iragarriko dizue. Berak aintzatuko nau, niretik hartuko eta zuei adieraziko baitizue. Aitak duen oro nerea da. Horregatik esan dizuet *niretik hartu* eta zuei adieraziko dizuela" (Jn. 16, 12-15). Benetan, "Kristo hilaren mintzaldi bat munduko eraikuntzatik behera, Jainkorik ez denaz" -ez bada, "nirea". Laugarren Ebanjelioko pasarte giltza hauetan gai persiarrek edo lehen-manitarrek eraginik izan zezaketen (egiaren izpiritua, *Vohu mano* zen azken Zoroastroren zuzenbidea, egunen amaieran): hain zuzen egiaren izpirituaren sartzea, haren arabera hitz egin behar baitu Parakletoak, ez da tartekatze *faltsutzaile bat*, baizik *oldartzailea*, hain zuzen ere lehengo Jainkoaren izen beraren santutzean (Gizonaren Semearen edukian). Horrexegatik beragatik geroago mistika hereseak "hirugarren ebanjelio" bat finkatuko zuen, Origenesengandik Joachim di Fiorerenganaino, indarrean jarrita dagoen "Izpiritu Santuaren" aroa, Aitaren eta Semearen aroen ondoren. Hain zabalkiro eragiten zuen Kristoren sarrerak aurreko Goi teokratikoan, non gizakia ez den azaltzen, gutxiago oraindik gizakia "egiaz" azaltzen den, beraz -beste formula bibliko batek ezagupen distira kristologiko berezi hau beharbada argitzen duen bezala- "aurpegi desestaliz". Era horretan Gizonaren Seme enigman eta bere kidetasunetan, zeru-aita hipostasiatu bati merke-merke saldutako altxor onak *Humanum* guztiz hermetiko batera eramango dira. "Aurpegi desestalia", horrekin adierazten da ez bakarrik eskatologikoki baizik apo-kaliptikoki, hau da hain zuzen des-estaliz, etengabe asmo den gure identitate bera eta hau Gizonaren Semearen *Erreinu* bezala *alde guztietan*. "Jaberen egun" zaharra denboraren amaian laugarren ebanjelioan Kristoren Parusiarako, hau da Jaberik gabe dagoen Gizonaren Semearen Parusiarako, guztiz A-Kryrios, beraz *A-Theos* halaber, *Cur deus homo*-ren zentzu egiazkoan. Beste pasarte batean esaten den bezala,

"Jainkoaren ideialaren egia da bakarrik Erreinuaren utopia, eta horretarako lehen baldintza da goian Jainkorik gera ez dadin, inolaz ere ez baitago edo ez baitzegoen bat ere han" (*Das Prinzip Hoffnung*, 1959, 1514. or.). Jesusek azken agurreko hitzaldia dizipuluen irakaskuntza ezkutu bezala aurkeztu zuen; Augustinen esaldi kasik bakar batek: "*Dies septimus nos ipsi erimus*" barneko bezala entzun du azken batean kanpoko izan nahi duena, eta kanpoko bezala iritzi, barneko bezala izan zitekeena. Ez da inolaz muga ideial bat baino gehiago gure *hurbileko* eta *urruneko* egitekoen trukaketa eta laguntza iraunkorrean, era horretan lehenbizikoak ezitsu eta azkenak ez huts izan ez daitezten. Bina kristautasunak, asmo den Exodoaren ondare bezala, horrela asmorik onena ipini du aberria izateko. Sarri bezala kontsolatzen duen ebasio bateko ihespuntu bezala bakarrik, baina -zenbat orientatzaileago bere baitan geldiarazten duen beste ihespuntua baino- perspektibaren aldetik egiteko dagoenerantz. Hau, beraz, inolaz ere ez barnean soilik jotzen duen ukabilez edo, itxuraz soilik alderantziz, mundua bestaldekeriatan hegaldaturik; Berrion adierazia aldiz gertatu zen gero eta okerrago dagoen munduan eta haren mesedetan.

32

Paulo, delako Gurutzearen Pazientzia, baina baita ere Berpiztearen eta bizitzaren zinezko baieztapena

Dizipuluak ez ziren gehiago dizipulu, dena era hain mingarrian gertatu zenean. Gurutzeko heriotze ez zen heriotze berezi bat, inolaz ere ez oso apartekoa. Egunero hil ohi ziren han gaizkile arruntak eta zenbait esklabu, gizaki bezala hartuak ez zirenak, jarri ohi zituzten zintzilik habe izugarri hartatik. Uste osoz ikasleek eta, batez ere, soroetako legendako artzainek, guztiz bestelako zerbait ulertua zeukaten Berrion bezala. Era berean, Jesus historikoak ez zuen espero gisako heriotzerik, bezperako Getsemaniko gau larria arren; hiltzean hain zuzen utzia sentitu zuen bere burua. Ikasleei ziurtatu bazien haietako batzuk etortzeko puntuan zegoen Erreinua bizi zirelarik ikusiko zutela, bera ez zen inolaz baztertera geratzen. Moises berriak ez zuen uste Kanaango atarian hil behar zuenik, ezta Berrionaren Mesia bezala ere. Ez zegoen ustez horregatik ezer ikasleen artean argigarriagorik, ez bada errege hau urkabearen bidez, bizi-ekarle hau heriotzearen bidez gezurtatua geratzen zela. Medizinarik sendaketek, hauek bereziki, galdera erakartzen zuten ea zergatikitsuak sendatu eta hilak berpizten zituena ez zen gai bere burua gurutzetik askatzeko. Kristoren heriotzearen ilusiozko desio ametsak eta paradoxa batek mendiak lekuz aldatu baino gehiago egin zuten: gainbehera honen ez bakarrik beldurra, are oraindik miseria bera bihurtu zuten garaipenik bikainen. Bizirik eta azpiratu gabe zegoen Jesus hiru bider ukatu zuen Pedrok, Zesarean lehen aldiz "*Tu es Christus*" deitu zion Pedrok berak, gero hain koldar bezain nolabait esateko desilusionaturik harengandik urruntzeko. Baina, Jesus bere haragian gehiago bizi ez zenean, hondamendia gertatu ondoren hain zuzen, Pedro harro hil zen martiri bezala Gurutziltzatuagatik, eta asko eta asko etorri ziren haren ondoren. Egia da, hilobi hutsaz hitz egin zela, baita soineko zuriz jantzita hurbil zegoen gaztetxo batez ere (Luka eta Joanengan, inolaz bi dira). Gero ikasleek bizitzaz oso beteriko zirudien agerpena izan zuten Emausen, gero berriz Tiberiade itsasoan. Eta hala eta guztiz ere: garai hartan, agertuak, mamuen sinestea orohar kasik berezko zen garai hartan, aparteko zerbait ziren, Jaunari bakarrik erreserbatua? Gainerako mamu agerpenetan (eta *realiter* sinetsiak baziren) heriotza ezabatzen ote zuten? Batez ere Bakarraren, gurutzean hildakoaren berpizte egun aparteko eta bakar izan behar zuenera mugatzen al ziren egiaz? Labur esanda: Jainkoaren Seme baten berpiztea izan behar zuen, bere heriotzaren ondoren tratua izateko, hori al zen bere froga mesianikoa? Horregatik Bat bakarraren berpiztearen geroagoko dotrina ez zitzaion egiten arrotz Tomas sinesgogorrari bakarrik, edozein modutan ez zegoen ikusita benetako aparteko gertakari baten, ezin neurtzeko

moduan hondamendia gainditzen zuen baten lekukotasuna. Eta hala ere opal-heriotzearen dotrina, haren zailtasun katramilatua alde batera utzita ere, hamarka urte Pedro baino geroago, etorri zen Pauloren bidez. Bortitza beraz zen lehen ikasleengan Jesusen heriotza egiazkotzat hartu nahi ez izana bakarrik eta hori bere pertsonaren *ondorengo eragin gero eta handiagorari* esker, bere *pathos* eraginkorrarekin: *arima hori ezin gal daiteke eta bere itxaropenak ez gaitu hondatzen utziko*. Horregatik beraz -desagerturiko beste herri soil batekin sekula gertatu ez den bezala- haren azkena gehiago azal zitekeen hasiera bezala, are guztiz hasiera ireki bezala. Baina inolaz ere ez luzaz, ez Jesus bizirik gehiago ezagutu ez zutenentzat, baizik lehen ikasleek bezain zentzu sinetslea zuen batentzat bakarrik. Horrela azkenik *Theologia* propio bat eskaini behar zen, labur esateko opal-heriotzea izpirituen agerpenen orde, zorrak ordaintzeko martiri heriotza eta dialektikoki eskuraturiko Pazkoa haren bidez eta haren ondoren. Paulok hain zuzen ekarri zuen, lehen kristauengandik kanpo noski, paganoen misiorako beharrezko zen aldaketaren osagai paradoxala: Jesus ez da Mesias gurutzea arren, baizik hari esker. Antzina idatzia zegoen: "Urkatua Jainkoak madarikatua da" (5. Mos. 21, 23), baina orain Paulok, parekorik ez duen iraulketa eginez, erabakitzen du: "Legearen madarikaziotik erosi gaitu Kristok, bere burua guregatik madarikazio eginik" (Gal. 3, 13), eta: "Gurutzearen, berpizkundearen eta zeruetara igotzearen bidez egin zuen Jainkoak Jesus Jaun eta Kristo" (Ap. Eg. 2, 36). *Item*: ez bizitzaren, portaeraren eta doktrinaren bidez (ikasleei iruditzen zitzaion bezala), ezta Gizonaren Semea Jaberena izaeran sartuz (apezen ortodoxiari iruditzen zitzaion bezala), baizik bakarrik Golgotan eta Golgotaren bidez azaldu zen mesias, are gehiago horrela jaio zen. Horretarako apropos zetorren noski judutasunaren barruan Moises osteko pasarte bat Deutero-Isaiasengan, bereziki egokia, ustez buruhezurra bera aipatzen zuena: "Benetan hark eraman zuen gure gaisotasuna eta bere gain hartu zituen gure saminak... Horregatik emango diot nik jendetza handia harrapakintzat, eta indartsuak hondarkin bezala edukiko ditu, hain zuzen bere bizitza heriotzari eman diolako eta gaizkileen pareko jarria izan delako eta bekatu asko bere gain hartu eta gaizkileen alde otoitz egin duelako" (Is. 53, 4-12). Guzti hau ez zegokion hitzez hitz mesiasi, Israeli eta guztiz aurrikuspenean zegoen haren bizitzari, aurrerantzean atsekabearen eta bere soldata urrunaren bidez hautatuari baizik. Edozer delarik ere, hemendik loturak egin zitezkeen sufritzen zuen mesias baten geroagoko irizmoldeekin, adibidez zulora botea izan zen Jose semearekin, harekin loturarik ez zuen Dabiden seme mesia garailearekin ez bezala. Nabarmen ordea Pauloren opal-heriotzeari buruzko doktrinan isurtzen ziren (Harnackek deitzen zuen hau Kristoren Ebanjelioaren orde Kristori buruzko Ebanjelio bat) iturburu ez juduak, oso desberdinak badira ere. Arrazoi nagusienetako bat zen hemen alde zurratik Aita Jainko bat, bere Seme errugabea era horretan uzten duena (berak hiltzen ez bazuen, geroago marziondarrek esaten zuten bezala), traizio salaketa orotik, are deabrukeria orotik libre uztea. Izan ere, erabaki asmaezinezkoa edo Jaberena borondate santu azterrezinezkoa, Joben adiskideek ere zuritzeko erabili zutena, ez baitzen aski gehiago judaismo berantiarrean eta kristautasun paganoan bereziki. Ezagutza sakonari, Golgotarekiko barkazioari ez esateko, hasteko gizakiaren beraren oker bat eskaini zitzaion eta era maltzurragoz ondoren etikaren aldetik errudun zirenen eta zorrez beteriko zordunen arteko parekatzea; horrela etorri zen betebeharraren eskubide erromatarra kitaketan, Aita Jainkoa errutik libre utziz. Zuzenbide errukirik gabeak ordaindu beharreko zorren kontua kitatzen zuen, eta opal-heriotzeko Kristok haiek ordaintzen zituen bere odol errubakoaz, oraindik gehiago: irabazi gehiegizko graziazko altxor bat pilatu zuen elizak administra zezan. Pauloren gurutzeko heriotzaren apologetikarako beste iturburu bat ez zen noski hain juridiko eta logikoa, bai ordea apostolu hau zuzentzen zitzaion ekialdeko mundu pagano helenistikoarekiko, hain

zuzen kultuaren aldetik Jainko baten hilketa ezagunarekiko mitoaren aldetik, bereziki hurbil zetorkiona. Hemen eskaintzen zitzaion, betebeharraren zuzenbideak ez bezalako beste oihartzun bat zuelarik, hil eta berriro bizten zen era paganoko jainko baten arketipo antzina-antzinakoa. Izadiko jainkoak ere, Attis-Adonis, Tammuz babiloniarra bezala, hil egiten ziren, ordezeko satisfakziorik gabe inolaz, udaberrian berriro esnatzeko. Bazeukaten, Jainkoa lur azpian, Hadesen geratuko zen antsiaren kontra, beren ordezeko Ostiral Santuko liturgia ere, bazeukaten beren "Attis-berpiztu-da" ere, bazeukaten beren Berpizkundeko Pazkoa *sui generis* bat ere. Gaur oraindik durundatzen du honek *Ver sacrum* ez bakarrik sekulartu batean, bere esanahi teologikoaren aldaketa eta guzti, adierazten denean "izadiak konturatu gabe misterio kristauak ospatzen dituela". Attis-Adonisi gaineratu zitzaion gero oraingoan inolaz "panbabiloniar" ez zen Dionysosen misterioarekiko, neguko indarraren gainean horrela garaitzen zuen jainko txikitu eta berriro bizitzara etorriarekiko parekatzea kultuan. Guzti horretan, beraz, aurkitzen da aldezturik eraturik modu pagano mitikoan heriotze-berpizte, ukapen gogorrenezko gau bete-argiaren oldartze, are eztagararen dialektika paulotar bat; bestela ez zen etorriko, "argi eta biziaren" pareko Jesusen *Kharisma bizi izana* galdu zenean, era mitikoan salbatzen zuen gurutzearekiko jaiara bat. Egiaz Jainko Aita batek onarturiko opal-heriotze bat, *conditio sine qua non* bezala, Jainkoaren Bildots hilarekin zor baten ordainketa bezala, Urteko Jainko eta egutegiko jainkoaren mito tradiziozko guztietan ez zen aurkitzen: hori paulinismoaren berezitasuna zen. Eta hala eta guztiz ere, ez zen hau berezitasun propio bat, baizik bazuen jatorri bat, erabilitako betebeharren zuzenbidea eta tradiziozko Izadiaren eta Urteko Jainkoaren mitoa baino askoz lehenago kokatzen zena. Opal-heriotzearen dotrinaren azken iturria ez bakarrik da bereziki odoltsua, baizik baita ere bereziki arkaikoa: aspaldi baztertua izan zen *gizaki opari* antzina-antzinakotik dator, azken batean *Molok* aurretikoa da. Eta horrela beraz kristautasunaren kontrakoenetik dator; prezio horretan beraz finkatu zuen Paulok testu berria, hau da misioarena: Jesus litzateke mesias ez gurutzea arren, baizik gurutzean amaitu zuelako.

Ikusten denez, era horretan zenik eta bildotsik otzanena, erabat ez otzankiro hila izan zen. Bere gainetik idolo beldurgarri bat sinetsi izan balitz bezala eta hau odolezko bataioaren bidez bakarrik baretuko balitz bezala. Garai eta bitarteko guzti basatietara atzera egite hau guztiz harrigarria da eta oraindik harrigarriago Izenaren santutzetik Jainkoaren irudi hain basati batera atzera egitea. Horretan ez dira lagungarri gertatzen bazterturik zeuden lurreko oroitzapen kutsagarriak: Kanaandarren artean arrisku nazionalik zenean, erregeak bere seme propioa opaltzen zuen, eta gauza bera feniziarren artean ere. Baina guztiz beste mota bateko oroitzapena izango litzateke haien Molok, eta Jesusek ez du inolaz ere aipatu. Areago oraindik, bizirik zirauten abereen opariak, zazpi mende Jesus baino lehenago, Amosek, profetarik zaharrenak, ez ahazteko moduan eraso zituen (Amos 5, 22), eta geroago Oseak (Os. 6, 6); Mt. 9, 13.ak, aipua eginez, Osea aipatzen du. Eta giza opariei dagokienez: gaitzetsia izan zen Isaaken opariaz geroztik - nahi bezain tartekatua izaki ere- giza opariek, izenaren santutzeagatik hain zuzen ere, liturgiaren aldetik ez zuten kontzientzia onik. "Eta Abrahamek leku hura deitu zuen: Jaunak ikusten du. Horregatik gaur egun oraindik esaten da: Jaunak ikusten duen mendia" (1 Mos. 22, 14); Pauloren opal-heriotzearen Golgotak berriro baztertzen du mendi hori, profetekin batera. Egiaz, Jefteren alabak eta beronen patruak erakusten duten bezala (Epaileak 11, 30-40), giza opariek garai historikoetaraino irautea dute, ez ordea liturgikoki, eta gure odolaz ordainduko zaion deabrua kitaturik geratuko da. Horregatik harrigarriago gertatzen da beraz Pauloren betebeharraren zuzenbidearen ostean aspaldi ahazturiko eta gutxienez ere gehiago jainko bezala goresia ez zen zeruko kanibala, Jesusen beraren opaltzea (probidentzia hain bazterrezinezkoaren bidez, nolabait esateko, beste erremediorik geratu ez zitzaionean) satisfakzio bezala onartuz. Horregatik, ez

arrazoirik gabe, opal-heriotzaren dotrina hau hain zuzen, bestela Paulo miretsi ohi duen Marzionek Jaberren sineste kontrakora erakartzen du, -esan nahi baita: Jesus opari gisan hil zen, noski, baina "hasieratik hiltzaile" zen baten, munduko gaizkiaren opari gisan, alegia. Ez arrazoirik gabe Origenesek, herese eta Elizako gurasoetakoak, gutxienez oso ondo ulertu zuen, Satan, ez Jabe, zela Golgotako ordainketaren helburutzat hartua eta izendatua zena. Zein bestelakoa den horren parean Gizonaren Semearen maitasuna, berak azken afarian anaiei bere gorputza eta odola ematen dienean "Jaunaren nahia beteko da" esan ondoren, zein bestelakoa den hau erru-zorraren ordainketa moldatu duen eta hilketa lekura joan behar duen bildotsari kobratzen dion hartzekodun zorrotz baten nahiaren aldean. Garbi dago guzti honetan: opal-heriotzearen doktrina erruki gabekoak gurutzea zurtzeko ez du ukitzen oraindik *berpiztearen mitoa* bera, honek eta beronen desiozko misterioak martiriozko heriotzerik gabe ere dagoeneko argitzen baitzuen. Hiltze bakartia, bere ukatze jasanezinezkoaz, aski zen Pazko fede bat nahi eta desiratzeko; honek berak, oraindik bizi zen Jesusen argi eta bizitzan nahiko zerjana zeukan bezalaxe, kristologikoaren beraren bidez finkatzen zuen seinalean. Opal-heriotzearen doktrinak alderantziz bazeukan azken honetan ere zio bat eta ondorio bat, -*qua* gorputza, bizitza eta odola jasotzen dituen goiko jaun heriotzaren kontsolamendu eta berpiztearen gaindi azkenean askoz lurtiarrago zen zerbaitetan sakon sartzen zena. Eta horrek argitzen du orain dotrina honen atzera egitea aspaldiko denboratako Molokengana, edo hobeto: honek atzera egite hau aspaldi gizatiartu zen Jaberren irudikapenen ostean politikaren eta ideologiaren aldetik gomendagarri egiten zuen; *une honetatik* paulinismoan Luterorenganaino eta handik aurrera oraindik. Izan ere osagai iraultzailea opalduko bildotsaren mitoari esker azken aldiz etena baitzen Biblian. Era horretan santzionatu behar zuen *gurutzearen pazientzia* delakoa, zapalduentzat hain gomendagarria, zapaltzaileentzat hain eroso, eta orohar *agintaritzaren aurreko obedientzia erabat* baldintzarik gabea Jainkoarengandik etorria bezala jartzen zuena. Aldagarriaren eta berriaren gailurrean jarri nahi zukeen itxaropenaren teologia oro berriro ere baretu egiten da, pasibotasun ero batekin, Jesusen itxaropenari gurutzearen aurrean eta hantxe bertan gailurra hausten dionean. Guzti hori ez iraultzaren *Quod ego*-ko, are gutxiago dialektikako, baizik apologetikako diren Pauloren gurutzearen atalei dagokienez; "Sufrikario, sufrikario, gurutze, gurutze da kristauen ondare" esaten du horregatik geroagoko Luterok (nekazari larrutuei, ez jaunei). Laburtuz, opal-heriotzerik eta hari datorkion Jaberren atzera egiterik gabe, zentzu honetan Pauloren gurutzeari buruzko agindu politikoak euskarririk gabe geratuko lirateke. Eta hori hain zuzen *aldaketaren, berriaren eta salbazioaren bestelako* pathosaren indarrez, "lege" soilarekiko berarekiko antitesia bortitzaren indarrez. Horri dagokionez ordea: "Izan bitez guztiak ezarritako agintarien menpeko..., horregatik agintarien menpeko egiten ez denak, Jainkoaren erabakiari egiten dio aurka" (Erm. 13, 1, h.); esklabu jabeen erlazio jasanezinezko bat erasten zaio horri: "Esklabuok, egin beti mundu honetan nagusi dituzuenen esanak... Egin dezazuen guztia egizue gogo onez, Jaunarentzat bezala eta ez gizonentzat bezala" (Kol. 3, 22, h.); -gurutzearen pazientzia baten baliagarritasuna, batez ere Kristoren itzulera jazoten ez zenean, ezin zitekeen izan handiagoa. Eta hala ere, behin eta berriro, ez *qua* saminen gizon eta Moloken opari bezala, baizik *qua* Jesus lurtiarraren distiran ustelezinezkoaren *Imago* azalduari datorkion azentu erabat paulotar erraldoi bezala: jentilen apostoluak, kontaduriaz beterik, Izadiko Jainkoaren mitologia bere egin badu ere, bere fededunei bataio bat ekarri die Kristoren heriotzean, eta ez-bakarrik-heriotzean. Era horretan leku ematen zien -beti *Phôs kai Zoê*, Jesus ukenduz igurtziaren argi eta bizitik abiatuz- era esperimenta ezinezko baina postulatiozko desiozko misterio bat onartzeko: "Bizitza honetarako bakarrik baldin badugu Kristo gure itxaropen, gizon guztietan gu errukarrienak. Baina bizturik dago Kristo hilen

artetik, lo daudenetik lehen-fruitu bezala... Adamengandiko guztiek heriotzea duten bezala, Kristorengandiko guztiek bizitza izango dute" (1 Ko. 15, 19-22). Honek ez zien lagundu ahitu eta atsekabetuei beren bizitzako miseriaren kontra eta batez ere Adam zaharra ez bezala horren errua zutenen kontra. Hala ere hertsiezinezko bat mugiarazten saiatzen zen, horretarako heriotzaren masail-hezurak (heriotzea estraterritoriala zitzairen neurrian) halaber desegokiak izaki. Gurutzeko herio-modu zorrotzagoari azken batean loturik ez zegoen gisako anti-herio-mistikatik abiatuz, orduan lehen aldiz azaldu zen antzinate berantiarreko fobia nihilistan bere eragina izan zuen Pauloren Kristok. Horretan ere gizakiaren neurrikoaren tribunu bat, anti-utopia gogorrenaren kontra mundu presente, guretzat hemen guztiz heteronomo zitzagunean, - heriotzearen kontra.

33

Berriro Berpiztea, baita Zeruratzea ere; Itzulera desiozko misterio egiaztatu bezala opal-heriotzea arren; Homousiak Jesus tribunua ez du inolaz bihurtzen inozo

Ontasunak bizirik zirauen oraindik eta ez zuen nahi ahaz zezaten. Baina guzti horren ostean beti zegoen, eta ez bakarrik Mendiko Hitzaldian, erreinua hurbil zegoela. Horrela azaldu ziren, etorri ez zen edo oraindik behintzat etorri ez zen erreinuaren orde, joana omen zen Jesus ikustezinezkoaren hiru azalpen. Lehen misterio lurtiar-lurgaindiar bezala berpizteak balio zuen, bigarren bezala zeruratzeak, hirugarren bezala itzulera. *Berpizte* behin eta berriro aipatuak ez zuen laguntzen gurutzetik jeisteko, baina gu guztion zain dagoen hilobitik ateratzeko lagundu behar zuen. Ondorioz, kanpotik edo orohar gertatzen zen Izadiko Jainko baten igoera (hortik etorri baitzen Pazkoa) soil bat ez bezala, baizik norberari zegokion bezala onartu zen hau. Jesus, izan ere, hainbeste azpimarratzen den lo dauden eta esnatzen direnen arteko lehen bezala, ez zen Jainko bat, guztiz gutariko bat baizik. Azken Afarian dagoeneko gure *Athanasia* propioaren *Farmakoa* lehen aldiz eman nahi ziguna. Inolaz hala ere *bigarren* desiozko misterioak, *zerura igotzeak*, Jesus gizakien gisako izatetik urruntzen du. Horrek urrundu egiten du *Kyrios* eta Jainkoaren Seme desestali bat oso bortizkiro gizakien elkartetik, goitik beherako altxatze nobletzaile moduko bat gertatuko balitz bezala; Jesus goi-Herakle bat bezala goi-izar irudi batera aldatua izango balitz bezala. Horregatik ebanjelioek garrantzia gutxi ematen diote zerura igotze honi; Mk. 16, 19, Lk. 21, 51 aipamen laburrak dira, Berpiztearen mezuari dagokionez ez bezala. Apostoluen Eginak (1, 9-11) azkenik ematen du zerura igotzearen berri, hodei baten gainean, etorrerako hego zerutiarretan beraietan gertatu izan balitz bezala; era horretan amaitzen du tronura igotzeak berrogei egunez gorputzaren aldetik hurbil uste zen berpizte baten elkartasuna ikasleekin. Zerura igotzearen historiak, Heraklez aparte ere, Biblia barruan noski, Eliseorengandik halaber apartatu eta urruntzen den Eliaren igoera gogorarazten du (2. Errg. 2, 11), suzko gurdian eta suzko zaldiekin; baina honek ere eguzki dinastiaren itxura dauka, Eguzki Jainko batek gurdiaz, eta orohar gora doazen heroeak lurraren esferatik desagertzen direlarik. Zeruratzearen azalpena ez zetorkion gaizki Kristoren ezkutatzeko orobat guztiz feudalari, gerora Doketismo deitu bezala azaldu zenari alegia: dotrina honen arabera Kristok itxura hutsezko gorputz bat bakarrik eduki zuen, gurutziltzatu aurretik utzi zuena; heriotzea maskara bezala bakarrik bizi izan zuen, Kristo *Pneuma* orbanik gabea, zuriz jantzia, ordurako albora egina zen bitartean, goitik behera begira egon ez bazen. Guzti hau gainera, esan bezala, ebanjelioetako pasarte harrigarri bat oinarritzat hartuz, Jesus preso hartu zutenekoa alegia: "Gazte bat ondoren zihoakion, soinean oihala bat besterik ez zuena. Heldu zioten, baina oihala utzi eta, biluzirik, ihes egin zien" (Mk. 14, 51 h.). Gazte haxe zatekeen, beraz, doketen ulermoldearen arabera, Kristo bera, eta horrela ez zatekeen joango auzitegira eta ondorioz ezta gurutzera eta heriotzera ere. Are gehiago azpimarra zitekeen pneumatismo ez-gizatiar hau zerura igotzean eta gorputzean bizi izanaren ukapena, hau

da Gizonaren Semearen ukapena, guztiz ulertzeko moduan ipintzen da. Azken batean, noski, zeruratze hain zorrotzaren bidez ez zen galdu fededunen kontzientzian ez-jauna, hau da goi-izaki pneumatiko igotzaile guzti hau, *goiko espazioko* pathos bereziarekin, azkenean inolaz nobletu gabe goian oldartzen zen izaki baten aurrekalde soil bilakatu zen. Horrela etorri zen hain zuzen Jesusen esaldi hura: "Aita eta ni bat gara" hitzez hitz etxeari dagokionez, *zentzu usurpatzaile* batez soilik, eta hori zerura igotzearen bitartez. Gizonaren Semeak hemen ez bakarrik jo zuen zuzen hemen Jainkoaren Semearen mitoan trabes, baizik areago jo zuen zuzen "Aitaren eskuinaldean" tronuan esertzearen mitoan trabes: tribunu bat esertzen da orain tronuan, eta horrela hura kentzen dio. Horregatik Paulorengan ere Kristo beti da, zerura igo ondoren eta zeruko duintasuna izaki, Adan bat, hain zuzen Paulok kategoriatik horretan uzten du: "Lehenbiziko gizona hautsetik denez, lurterra da; bigarrena zerutik dator" (1 Kor. 15, 47), eta bere giza izaera gorde egiten zaio han, *tribunus plebis* batena izaki hasiera bertatik. Beti antropologiko dirauen Kristoren irudia oraindik gorde egingo da zeruratzearen mitoaz espekulaziorik gehien egiten duen Itun Berriko zatian, hau da Hebertarren Gutunean. Ebanjelioek zeruratzeari "arreta gutxi" eskaini bazioten, Hebertarren Gutunak muineko bihurtu zuen: "Eta hala, Kristo ez zen sartu gizonek egindako santutegian, zeruan bertan baizik, Jainkoaren aurrean gure alde orain agertzeko" (Hb. 9, 24); horren bidez orain arteko Jainkoaren "santutegia" Jerusalem zerutiar bihurtzen da, "milaka eta milaka aingeru dituela" gainera (Hb. 12, 22). Zeruratzea, Kristo berarekin gertatzen bada ere, hemen berriro, herri maila apaletatik urrun doan jaun handi baten segizio bezala deskribatu ordez, itxaropen jasotzaile eta erakarlearen irudi adierazgarrienetako baten bidez dago aurkeztua, ainguraren arketipoaren bidez alegia: "Itxaropen hau geure gogo-bihotzen aingura tinko eta seguru dugu, oihaletik barrura sartua, hara sartua baitzen Jesus guregatik, aintzindari gisa" (Hb. 6, 19 h.). Honenbeste beraz beste aldeari, tribunuarenari dagokionez eta baita ustezko desiozko misterioari dagokionez, edo Pauloren beste gutun batean (halaber egilea zalantzazkoa bada ere) halako itxurazko nobletzeaz esaten denari dagokionez, Salmuko aipamen bezala gainera: "Gora igotzean gatibuak berekin eramane zituen" (Ef. 4, 8). Kristok hemen Jaberren gurdiak egin behar zuen gauza bera egin behar zuela (Sal. 68, 18 h.), horrek Kristoren tribunutza askoz nabarmenago bihurtzen du, indarrez oldartzenago Jaberren irudimoldearen eginkizuna handiagoa litzatekeen horretan eta tronuaren aurrean egote hutsaz egiten ez duenean. Hori zen aspaldidanik han sublimaturik bezala eufemistikoki zeruetako Tzarrak aldatu behar zuena: "Jauna da zure sendagilea" (2. Mos. 15, 26), "Ni naiz Jauna, zure salbatzailea eta eroslea" (Is. 49, 26), eta hori zen, hala ere, Exodoko sinbolo berezia arren, maiestate hipostasiatu bezain hurbilezinaren irudian jator itsasten ez zena. Baina horrekin loturik zegoen oraindik zeruratzearen beste motiboa, gatibutasuna gatibu eramane zuenarena, Exodotik zetorrenarekin, hau da lurraldearen konkistarena, eskualde gorenaren hartzea gizakien elkargoko buruaren bidez. Lurralde kanaandarraren konkista egiaz Kanaan beraren pareko zela, zeruratzearen mito osoa haren inplikazio usurpatzaileekin batera desiozko misterio hipostasiatu bat zen, hobe esanda, izango zen bitartean: bereizkuntza erabakior hau erlijiozko ipuinetako bezala desiozko lurralde berezi baten aurrean, ez da aipatu behar soilik. Baina goi-goikoarekiko eta haren ordez, Gizonaren Semearen bidez, egindako usurpazioaren mito apenas errealak badu zentzurik, "Aita eta ni bat gara" horren ondorioak hain luzaz sinetsi zen transzendentziaraino bertaraino eramaten dituelako. Eta sinetsia zen goi-goi hartatik etorri zen desiozko *hirugarren* misterioari, *itzulerari* dagokiona: *eskhaton* honetan ez zitzaizen azaldu kristauei beste mundu soilik gehiago.

Jaun izan nahi ez zuen jaunari ez bakarrik begiratu egiten zitzaion, berriro ere itxarona zen. Hain leku gorenetik egin behar zuen etorrerak ez zituen inondik ahaztu gizonak,

bestela ez baitzitzaien etorriko berriro beren Jesus hau. Jesusek noski hemen Mendiko Hitzaldian ez bezalako itxura dauka, eta Joben zentzuan, odol mendekatzailerik bezala ere azaltzen da. Haren itzulera ahitu eta atsekabetuentzat, umiliatu eta saminduentzat bakarrik izango da otzana, hau da hartarako paraturik baino paratuago daudenentzat. Beraingana jauna dator senargaia birjina zuhurrengana bezala; zorrotz ordea etorriko da epelentzat, ahotik jaurtiki ditzan, eta batez ere zapaltzaileentzat. Hemen nahasten zaio inolaz, guztiz berriaren orde, orain arteko indarraren eta eramoldearen iraulketa soil bat, era horretan behekoak altxatuak daitezten, goikoak apalduak bakarrik daitezten, baina batez ere berriro itzultzen zena bere kutunek tronu zerutiarreko jaun baten Mikel Goiangeru soil bezala har zezaten; hain zuzen ere, haren gudarosteen Jaunaren irudian, hartaz oldartu arren, bera "eraldatzen" duenik ezer gertatu ez balitz bezala. "Goiaingeruaren oihuz eta Jainkoaren turut hotsez aginte-deia eginik, Jauna bera jaitsiko da zerutik, eta aurrena Kristorengan hilak biztuko dira; gero gu, bizi garenek, geldituok, haiekin batean hodeietan gora, airean, Jaunarengana eramango gaituzte eta Jaunarengan egongo gara betirako" (1 Tes. 4, 16 h.). Hauxe da beraz gizakiengana itzultzeari dagokionez igoeraren ondoren Mikel eta gudarosteari hartu zaizkien tonua, baina, hala ere, berriro ere Gizonaren Semearen modua, bestela hain zaratatsu moldaturik dagoen itzulerakoan: "Hara, atean nauzu deika; norbaitek nere ahotsa entzun badeza eta atea ireki, harenean sartuko naiz eta harekin afalduko dut eta hark nirekin" (Apok. 3, 20). Hau gainera zapalduetik maitasun bera balitz bezala gaizkileei itzulerakoan, Parusian, auzi bezala agertzen zaiena eta askatuei salbazio bezala datorkiena. Jakob Böhmeren argibide guztiz kristozentrikoaren arabera: Apokalipsian argi desestali bera da gaiztoei haserre bezala eta hautatuei ezkontza bezala agertzen zaiena. Eta azkenik itzulerak zeruratzearen guztiz kontrako mugimendua eta, orobat, asmo zuen haren emaitza bakarra aurkeztu behar zukeen. Emaitza izan behar zuen: zerua, Jainkoaren jabego propioa zena, gizakien hiri bihurtu dela: Jerusalem berria. Gorakoaren kontrako mugimendua izan behar zuen: Jerusalem berri honek, zerutiar zenez hain zuzen, gizakiengana -jaitsi behar zuela; ez zeru berri hori eta lur berri hori guztiz antropozentriko bihurtu gabe: "...andregai apaindu bat bere senarrarentzat bezala prestatua" (Apok. 21, 2). Era horretan beraz, azkenik bereganatu ditu erabat *Homousia* jesustarrak Aitaren irudia haren azpian zeuden eguzkiaren eta ilargiaren mundu zaharrarekin batera: "Eta hiriak argitzeko ez du ez eguzki ez ilargi beharrik, Jainkoaren aintzak argitzen baitu eta bildotsa du kriseilu" (Apok. 21, 23). Honen kriseilua era horretan Jainkoaren aintzaren kriseiluarekin guztiz parekatuko da; beraz Kristo honengan -Moises are Mahoma erlijio sortzaile ez-mesianiko bezala azaltzen direnengan ez bezala guztiz- ez du garaitu behar Jainkoaren antzekotasunak, *Homousiak*, baizik azkenik Jainkoaren berdintasunak, azkenerainoko *Homousiak*. Jainkoaren antzekotasun soila baieztatu zuten ariotarrek, eta horrekin ez zegoen baieztatzetik Gizonaren Semearen bere-beraren sarrerarik Aitarengan, ez bildotsaren eta bere hiriaren kriseilurik bere-beraren aintza jainkotiar bezala. Horren orde, ortodoxia batek, Nizeako kontzilioak doktrina ariotarra kondenatu eta Atanasioren dotrina Aitarekiko Homousiari buruz kanonizatu zuelarik, inoiz erlijio sortzaile batek, inoiz Parusia batek izan duen *topos* goienena eta iraultzaileena eskaini dio Kristori. Hau altxatzen da, erremediorik gabe, Gizonaren Semearen kategoria desiozko misterio mitikoetan eta gainera mistikoetan oldartzen denean, eta Kristoren bultzada biziarazten du, Jainkoa hil bada ere.

34

Sugeari buruzko bigarren gogartea (cf. 21. kap.): Ofitak

Iritsi da garaia bultzada oso ausart bat gogora ekartzeko. Gure buruen aurkezpenari dagokio zuzenean, eta hori inolaz ordea jazkera oso berezian, sugearen jazkeran alegia.

Edengo paradisuko suge honek gainera gazteria okerbideratu du eta jarraitzaileak aurkitu. Halako ukituak ez ziren ahaztu, beti itxuraz aldatu badira ere. Jesusen ondoren berriro hartu zituzten ofitek (*Ophis*, suge), hirugarren mende inguruko sekta gnostiko-kristau hark. Ofitek (haien iritzia beren garaiko kontrarioen bidez kasik bakarrik ezagutzen ditugu) *Ophis* gurtzen zuten, abere honen kultu antzina-antzinakoa matriarkatu garaitik edo zaharragotik hartu zuten eran. Bere kultua, ezaugarri baikorrak dituela eta geroago gehienetan ezkorrak dituela, erlijio askotan aurkitzen da, baina Biblian duen gailentasunik gabe. Sugea zen lur sakon misterioz beteko abere zentzu bikoitzekoa; hortik datoz gas pozoitsuak eta sendatzeko iturriak, ametsak, iragarkizunak, sumendiak eta altxorrak. Sugea horregatik hasieratik bertatik ez zen izaki sotil bat: pozoiazen iturri bezala sendaketarena (Eskulapioren sugea) da une berean; sumendien ez tandaren Jainko bezala eta une berean gaztetzearen, eraberriketaren Jainko bezala. Alde batetik erabat amilekoa zen, da Hidra, Piton, Tifon, eta zeruetako jainkoek garaitzen dute. Heraklek Hidra garaitzen du, Apolok Piton, eta bere leizearen gainean Delfo eraikitzen du; Sigfridok ere, baita Mikelek ere "amiletako herensugea" garaitzen dute: baina halaber da tximistaren sugea, sua zeruan. Goiko eremu berekoa da Ureo, Egiptoko erregeen sugea diadematan eta eguzkian dagoena. Ofitek ordea -Bibliako bestelako tradizioak itxaronez eta haietan setaturik- guztiz bestela larrutzen zuten beren idoloa. Antzina-antzinako kultua, berez izadiaren mitoari soilik zegokiona, harrigarriro uztartu zuten iraultza erlijiosoaz: hain zuzen ere paradisuko sugeaz parekatuz. Honi buruzko testuak dio: "Suge haxe da Moisesek bere ondoan zeukan indarra, suge bihurtzen zen makila da... Suge orohartzaile hau da Ebaren *Logos* zuhurra. Haxe da Edengo misterioa; haxe da Kaini ezarri zitzaion seinalea, harekin topo egiten zuen orok hil ez zezan. Sugea Kainena da, honen oparia ez baitzuen onartu mundu honetako jainkoak, Abelen opari odoltsuak onartzen zituen bitartean; odolean baitu bere poza mundu honetako jaunak. Bera da, azken egunetan, gizaki baten itxuran azaldu zena Heroderen garaietan... Horregatik ezin salba daiteke inor eta gora igo, sugea den Semerik gabe... Haren irudi bizia da mortuko brontzezko sugea, Moisesek altxatu zuena; haxe da harako esaldiaren zentzua (Jn. 3, 14): "Eta Moisesek mortuan sugea altxatu zuen bezala, Gizonaren Semeak ere altxatua izan behar du... haren bitartez egindakoa, bizia da'" (*Hipolito, Elench, V, cfr. Leisegang, "Die Gnosis", 1941, 147. or. hh.*). Ofitek beraz Genesiako sugea ez bakarrik interpretatzen zuten printzipio bizi-sortzaile bezala, baizik halaber mundua lehertarazten duen adimen bezala; berak irakatsi zien lehen gizakiei ezagutzaren arbolatik jaten, "arrazoi jainkosaren bipia" bezala arbolatik zintzilik zegoela. *Eritis sicut deus scientes bonum et malum* - abereen ortu soiletik kanpora, eta jatorrizko bekatua zatekeen hain zuzen Jainkoa bezalakoa izan nahi ez izatea. Horren orde z gizakien gainera haren demiurgo hutsaren haserrea etorri zen, harengandik izan ere, ofiten doktrinaren arabera, ezagutzaren arbolatik lehen aldiz jateagatik askatzen hasiak baitziren. Hala ere, argia zekarren sugea, Biblia idatzian gaizkiaren lehen mamu satandar ilun bihurtua izan bada ere, etengabe azaltzen da Bibliako pasarte zatikatu subertsiboetan. Eta hori, aipaturiko testu ofitaren arabera, Moisesek eraiki eta Israelgo semeak sendatzeko begira zezaten (4. Mos. 21, 8-9) agindu zuen mortuko brontzezko sugetik hasi eta Jesusenganaino; gisako sinbolo zelarik ez zen ibili bere bizitza guztian lurrean arrastaka. Jainkoa bezalako izateko nahiaren sugearen haziak ez bakarrik zeukan eragin subertsiboa pertsonengan, baizik bibliko-prometeiko hau ez zen gutxiago azaldu Jainkoak berak bezala sortu nahi izatean, Babelgo dorregintzaren mitoan adierazten den gisan; eta berak ere prentsa klerikal txarrena dauka. Hari ere sakabanatze batek erantzuten dio, oraingo honetan hizkuntza eta lurralde batasunetik lurralde guztietan barna banatuz; Jabe honek ez du onartzen zeruraino iristen den gailurrik. Eta hemendik berriro ikusteko moduko den sugearen

sinbolora, Moisesek mortuan altxatu zuen sendaketa sugera, salbazioko sugera: hala egon zen haren sinboloa Hiskia erregearen garaietara arte lurraldean, gailurretan. "Bera izan zen Moisesek egin zuen brontzezko sugea hautsi zuena, ordura arte Israelgo semeek intsentsua eskaini eta Nejustan deitzen baitzuten" (2 Erreg. 18, 14), hau da metalezko gauza. Baztertze hau K.a. VII. mendearen bueltan gertatu zen, eta 700 urte geroago oraindik Joanen ebanjelioak harako parekatze hura idazten du, ofitek hainbeste azpimarratuko zutena, alegia: "Eta Moisesek basamortuan sugea jaso zuen bezala, halaxe da jaso beharra Gizonaren Semea" (Jn. 3, 14). Eta hemendik aurrera ofismoan paralelismorik txokanteenak nahasten dira Kristoren gurutzeko heriotzearen eta paradisuko sugearen kontrako madarikazioaren artean, honek lehen gizakiei "begiak ireki zizkien" eta. Biek jasan zuten demiurgoaren haserrea, Kristo suge salbatzailea beste arbola batean, hau da gurutzeko habearen, izan zen josia. Baina: Kristoren azalpen berria -hemen ukitze bat gertatzen da Zoroastroren hirugarren eta azken azalpenaren mito persiarrarekin-, etorkizuneko Kristoren Parusia hau *tximistazko sugearen* itxuran gertatuko da. "Jauna gaberdian oldartzen da", eta segituan, azkenik, demiurgoaren mundu gaitzetsia hondakin huts bihurtuko da. Garbi dago une berean: parekorik ez duen altxamenduko mito bat sortzen da hemen; harrigarria da inolaz, tamalez pneumatiko bakarrik geratu den itxura daukala. Hain seta bortitza izaki, sugearen hitzaren iraulketa hain apartekoa, *Eritis sicut deus* batek beti exegesi teokratiko soilarentzat aurkezten dion hozkada hain indartsua izaki. Kristo antzinako sugearekin, Mefisto mamu apartekoarekin, parekatze izugarriak egin zuen gainerakoa, ulertezinezko moduan, gero era pneumatikoan ere, ez politikoa bakarrik, isiltzera behartua izan baitzen. Eta horrekin batera, ofitengan semea eman duen aita onarengandik urrun, bigarren aldiz irteerako argia itzali, eta oraingoan erroagotik itzali ere, egin duen mundu honetako deabruarengana bortizki gurutzea desbideratuz.

Honaino dotrina harrigarri honi dagokionez; ondoren ez zitzaizkion ondo atera gauzak. Beste inolako heresia ez bezala, hau guztiz bitxiaren mailara aldatua izan zen. Eta ez bakarrik zuloz beteta helarazi da, baizik areago gnostikoki zikindua, era horretan muina, mamikoa eta arriskutsua iger ez zedin. *Ab ovo* beraz azaldu behar zuen suge-Kristo berdinketa parekatze harrigarriak birao harrigarri bezala. Horregatik, Elizako Gurasoek, eta geroago Elizako historiak, ez zieten garrantzia handirik eman ofitei, benetan ziren herese larritzat hartuz. Ero bezala isildu zituzten, destainez noski, baina bestela haiek ahazteko gomendatu zen. Hori hobe zen ofiten behaztoparria bera baino: ezagutzaren arbolatik sagarra jatearen eta ondorengo zigorraren arteko erlazorik ezak kezka sortzen baitzituen oraindik. Baita, berez, ulertzen den bezala, teologia ez-kristauan, rabinikoan ere; Kristo suge bezala hemen oso egoki etorriko balitz ere. Jatorrizko bekatuaren *arazo-akuilua* ordea, suge-Kristo parekatzerik gabe ere, hantxe zegoen, eta lehen mailan Itun Zaharrean aurkitzen zen. Horrelaxe helarazi zion zuzenean teologia rabinikoak eskolastika kristauari; eta inork baino lehenago Maimonidesek. Jakingarria da, hain zuzen ere han, aspaldi lorturik zegoen ofitismoaren ahaztean, konpondu gabe zegoen haien problemaren planteamendua ikusi izana - eta haren ostean zegoen noski "konponbide" ohizkoa, ohizko zuzena, baina ez egokia. Hala ere, Maimonides pentsalariak eta ez berritsuak (*Führer der Verirrten* I, Meiner, 30. or. hh.) honela hasi behar izan zuen: "Jakitun batek, urteak izango dira, gogarte serioa merezi duen honoko galdera garrantzitsu hau zuzendu zidala... Galdegileak dio: Idaztiko hitzen segida soilaren arabera badirudi azaltzen dela sortzailearen jatorrizko asmoa gizakiei dagokienez izan zela, hau gainerako bizidunak bezalakoa izan zedin, adimenik eta pentsatzeko ahalmenik gabea eta ongiaren eta gaizkiaren artean bereizten ez zuena. Baina hura esaneko izan ez zenean, esaneko ez izate honek ekarri zion gizonari bakarrik datorkion osotasun handia saritzat... Hau ordea ez da besterik, ez bada norbaitek esango

balu bezala, gizon edozein bat, bekatu egin eta oker oso larriak egin dituelako, izaki hobe bihurtua izan dela, hau da, izar bezala zerura aldatua izan dela". Galdera hau egiaz oso nabarmen zigorra sariari dagokionez aipatu gabe uzten duenetakoa da, baina saria inolaz "esaneke ez izatearen" arabera fruitu bezala, bestela erdietsi ezin daitekeen ondorio bezala zertzen du; horrela etorri zen beraz, aurrera segitzen duen "galdegilearen" arabera, Jabek abere bezala sortu zituen Adanen eta Ebaren gizaki bihurtzea. Maimonidesek galdegile honi (beharbada berak asmatua da) ematen dion erantzuna saiatzen da, bere burua komentzitu nahirik, "gizakiaren sortzailearen" apologia bat egiten, abiapuntutzat hartuz, alegia, honek Adani inolaz adimena emango ziokeela, baina ez sentikorra, afekturik gabea, gizon eroriak gero galdu zuen hura eta ez balio-epailearen adimen lausotua: "Horregatik" ondorioztatzen du hemen Maimonidesek (benetan loturik, bere galdegilea hain azkarra ez, baina bai zorrotzagoa eta zehatzagoa den bitartean), "horregatik esango da: "Jainkoak bezalakoak izango zarete, ongia eta gaizkia ezagutuko duzuelako". Ez da esango: "egia eta gezurra ezagutu eta ulertuko duzuelako". Baldintza bakoari dagokionez" (sc. ezagutzaren eta ez iritzi soilaren objektuari dagokionez) "ez dago inolako ongirik eta gaizkirik, baizik egia eta gezurra bakarrik". Horrela gorde, are beharbada zorrotzago bihurtu den problemaren aurkezpenean bizirik zeuden beraz Maimonidesengan eta antzera geroago Tomasengan, nolabait esateko, era berean ofitenak ziren osagaiak, guztiz beharrezko zen ezagutzaren debekuaren apologetika baterako akuilua beti ere izendatzen baitzuten. Eta horrela inolaz galderaren aurkezpenak noski luzaroago iraun zuen erantzun katramilatu eta korapiloari alferrik ihes egin nahi zionak baino, ofitek sugeari buruz emandako definizioaren arabera galdegileari egokiago eman zekioken arren. Horrela iraun zuen bere hartan ofitismoak, tradizioaren aurrean eta haren barruan hain isilpean gordeak, seigarren mendera arte, dirudienez pertsekuzioak merezi zituen heresia bezala ere: Justinianok 530.enean lege bat eman zuen argitara ofiten kontra. Eta Marzion, demiurgoarekiko arrotz den Jainkoaren ebanjelista bera ez bada, bai marziondarrek gerora oraindik luzaz (Teodoreto gotzainak 450. urte inguruan adierazten duen bezala) paradisuako sugea munduaren sortzailearen kontra ohoratu zuten, ezagutzako arbolako zenez, eta brontzezko suge baten sinboloa erabili bide zuten beren misterioetan (cf. Harnack, *Marcion*, 1924, 169. or.). Ertaro berandura arte iraun zuen brontzezko suge honek, orain mezako kalizean, ekialdeko eta mistiko zen Tenplarioen apainketan ornamentu bezala. Hammer-Purgstall orientalista handi eta gainera Tenplarioen etsaiak, ordena harrigarri honen erlikia sailen artean "diagrama ofita" hau ere aurkitu uste zuen, Origenesek deskribatzen duen gisan: Jabe minus Exodoaren eta mundu hobe baten sugearen izpirituaren arteko munduko arrasto bezala hain zuzen. Are gainera, dirudienez sektarioki erabili ziren Barrokoko irudi batzuetan ikus daitezke oraindik apainduria batzuk harrigarriro zehatz gorde diren uztarketak dituztenak: brontzezko sugea tenpluko ataurre zaharrean aurkeztua dago Kristo gurutziltzatu bezala eta Golgotako gurutzea ezagutzaren arbola bezala sugea josirik duela. "Merlin" idatzi zuen Immermannek areago "Epigonen" bere nobelan (9. liburua, 2. kap.) oraindik seinale ofitak aurkitu uste zituen antzinako hilerri turingiarretan (ontzat emanik, edonola, Immermannek ez zuela sakonegi begiratu Neanderren Elizaren historian, garai hartako ofitei buruzko oroitzapenik bortitzenean). Eta eraginik handiena zeukan garai hartan Hegelek, ez noski suge-Kristo parekatze ofita onartzen zuelako, hori barregarri irudituko baitzitzaiokeen, bai ordea, esan bezala, paradisuaren balio aldaketa kriptofita egiten zuelako. Gizakien arteko berdintasuna "jatorrizko egoeran" ez zuen planteatu Hegelek, Hegel oraindik erdi-feudala zelako, arrazoi gehiagoz ezta ere -arrazoi ulergarriengatik- "jatorrizko egoeran" ospatua zen eta Adam egin zuenari hain gustagarri zitzaion adimenaren loaldia. Horregatik hain zuzen ere iruzurtiari egindako diosal lurrazpikoa: "Paradisua

da parke bat, non abereak bakarrik gera daitezkeen eta ez gizakiak" (*Werke* IX, 413. or.); horregatik Adanen erabakiari dagokionez: "Esan dezakegu beraz, lozorro honetatik ateratzen dena, kontzientziaren argira datorrela guztiz, zehatzago, beretzat badagoela ongirik eta gaizkirik" (*Werke*, XI, 194. or.; cf. gainera Bloch, *Subjekt-Objekt, Erläuterungen zu Hegel*, 1962, 331. or.). Ofitei dagokienez isilarazi nahi dituzten berriak bakarrik, batez ere Ireneorenak, badauzkagu ere, ezin ahaztu ahal izan zen guztiz bekatuan erortze delakoa, eta horrekin batera haren jatorrizko tonu erabat eta guztiz heresea. Uztaiia bera oso handia da abere kultu askoren artean eta ezagutzaren arbolako sirenaren artean, Kristo-Luzifer baten artean, azkenik arrakastaz apokaliptiko den hirugarren edo tximista sugaeren artean. Guzti horretan fantasia oso handia bada, oraindik handiagoa da horretan nahasmendu ororen zehar aurrera jotzen duen arginahia. Beraz berriro esan daiteke mitoen historia baino askoz gehiago bezala sartzen dena eta, edozer delarik ere, "diagrama" ofitaren ordeztu giltza ematen zuena: Paradisuko suga da Arrazoi Jainkosaren bipia. Zorionez badago arrazoi puskarik iraultzaren historian giltza hori inolaz ere ez miragarri bezala, baizik berezko bezala beti jotzen duena.

35

Exodoko argiari buruzko bigarren gogoeta (Cf. 22. kap.):

Marzion, mundu hau gabeko Jainko arrotz baten mezua

Garaia da dagoeneko beste bultzada ausart bat gogora ekartzeko. Marzionen dotrinak ez zeraman argi eta garbi suga berarekin, baina kasik era bortitza zen tentagarri. Marzion, Erroman 150. inguruan, munduaren eta haren sortzailearen "legea" oso zorrotz kontrajartzen zituen kristau gogorrak aukera antitetikoa eman zuen. "Antitheseis" deitzen zen Marzionen liburu galdua, bere etsaien aipuetan hala ere erdizka gordea. Eta mundu honetako bizitza loratsuarekin bezala galkorrarekin zerikusirik zuen guztiaren kontra zuzentzen zen: haragizko ongi bizitzearen kontra, baina baita ere heriotzaren kontra (haragiarena baitzen hau ere). Antzukeria da gure ustezko sortzailearengandik, gure haragizko "Aitarengandik" datorren oro; eta ankerra, "zuzena", erruki gabea da. Vatikanon, bibliotekara eta eskulturen bildumara daraman galeria luzean, gehienbat katakunbetatik datozen ehundaka oro hitzen artean, badago bat Marzionen izpiritua duena (eta Job berriro ere ez litzateke oso urruti egongo). Erliche batek erakusten du neskatala baten esku eta beso altxatu bat, inolaz ere otoitzerako prest ez dagoena, goraka seinalatzen badu ere. Erlichearen azpian hiru lerro dorpe baina ondo zuzenduetan jartzen baitu: "*Procope, levo manus contra deum qui innocentem puellam sustullit quae vixit XX, pos. Proclus*". Horrela sinesten duen eta hogeit urte zituela errurik gabe eraman zuen Jainkoaren kontra bere eskua altxatzen duen neskak Prokoporekin, agian bere senargai zenarekin, hitz egiten du, eta harria Proklok, bere aita edo anaiak edo, Katakunbak lekuko, kristaua zen inguruko norbaitek jarri du, baina marziondar bat bezala hain zuzen bizitzaren eta heriotzearen gainean aginte duen jaunaren kontra zegoen batek. Oroit hitzak ez du jartzen inolako planeten idolo paganorik patu nagusiki txarraren gidari bezala ("Heimarmenê" inpersonala); *contra deum* horrek singular bat adierazten du, ohizko era monoteista zuzenean. *In nuce*, beraz, jarrera marziondarra zeukaten alimoa eta sentimenduak aurkitzen dira: *contra deum* = *contra Jabe* munduaren eratzaile eta munduaren jaun bezala. Marzion beraz, guztiz kristautzat jotzen zuen antitesiaren aukera eman zuena, Jesus ordurarteko Jainkoaren esparru judu eta biblikotik ateratzen saiatu zen. Hori, noski -kontutan hartu behar da hori- tentsio lurtiarrik bat ere gabe, are juduekiko etsaigorik bat ere gabe (Marzionek Paulo judua bere maisu bezala ohoratzen zuen), baina Jesusek ez zuen inolako zerikusirik izan behar Jaberren Bibliarekin, hau harena den neurrian. Marzionek ez bakarrik jartzen zuen Kristoren Berriona Itun Zaharrari kontrajartitako bezala, areago baizik, guztiz bestelako bezala jartzen zuen; Zaharrarekiko etena Ebanjelioak Berrira

egiten duen eta paregabeko bezala azaltzen den jauzitik dator. Horrela Marzionengandik dator egiaz eta jasoa izan da Itun Berri baten kontzeptua; horregatik, noski, Marzionek, zahagi zaharrak beti gaitzetsiz, Pauloren adiskide zen Lukasen eta gorde diren Pauloren gutunetatik hamar onartu ditu bakarrik bere kanonean, ardo berriarenak bailiren. Orohar Marzionek Itun Zaharreko Jaberekiko lotura guztiak urrundu zituen, Jabe berriro guztiz demoniotartuz, eta harekin batera hain kezagarri ziren profetak eta areago oraindik Joanen bidez egindako bataioa, "Elia berriro itzulia" bezala, kanpora geratu ziren. Une berean ordea gero eta garbiagoa izango da lotura Paulorekiko, lehenago emandako legearen hain nabarmen antitetiko eta etsaiarekiko. Horrela Paulok ez zuen zinez Jabe ukatu munduaren sortzaile bezala, bai ordea munduaren zuzentzaile bezala, oraindik zehatzago: legegile bezala. Paulok apostolu zenez "legearen" eta "Ebanjelioaren" arteko hiato hura finkatu zuen, baita "aginduetako moralaren" eta "askatasunaren" artekoa ere, "justiziaren" eta "graziaren" artekoa, horrela Jesus inolaz ezin aldatuzkoa bihurtzen zelarik. Beste aldetik ordea, Marzionek -munduaren sortzaile gaiztoa munduaren zuzentzailearekin nahastu nahi ez zuelarik- lotura estu bat egin zuen, Pauloz aparte, bere garaian berriro zen antzinako Persiako erlijioiko *dualismo* zaharrarekin. Ahriman eta Ormuzdekin, printzipio gaizto eta onarekin, munduaren sortzailea adierazten duelarik bata, munduaren salbatzailea besteak. Honek begien aurrean jartzen zuen munduaren zuzentzaile gaiztoaz aparte munduaren sortzaile gaiztoa ere, era mitologikoan, gero Mani eta Manitarrengan eta areago "*civitas terrena*"ren eta "*civitas Dei*"ren arteko gudan Augustinengan. Dualismo persiarrak edozein modutan, Ahriman guztiz gaiztoa polo bakar bezala ongiaren parean zuelarik, Marzionengan bateraezinezko bihurtzeraino zorroztu egiten zen Paulok Legearen eta Ebanjelioaren artean jartzen zuen antitesia, eta era berean zorrozten zuen Novum guztizkoa, halakotzat azpimarratu baitzuen Marzionek Ebanjelioa. Itun Zaharreko legearen parean gailentasun oro adierazi arren, hau "heziketa maisu" bezala, paidagogos bezala, Kristoren parean nolabait ohoratu egiten du Paulok (Gal. 3, 24) eta batez ere oso gutxitan edo sekula ez du finkatu demiurgoaren eta Jainko gorenaren arteko berdintasuna. 2 Ko. 4, 4. pasartea arren: "Sinesgabe hauei *Mundu honetako Jainkoak* itsutu egin die adimena, Jainkoaren (egiazkoaren) irudi (bakar) den Kristoren aintzazko berrionaren distira ikus ez dezaten". Bestalde ordea Marzionek Paulorekin batera Persiatik hartu eta ondoren gnostiko zen dualismoan bereizkuntzak egiten ditu nabarmen, batez ere Jaberren printzipioa gaizkira besterik gabe laburtzeari dagokionez: Marzionen Ebanjelioko-ez-den-Jainkoa ez da besterik gabe gaizkia, baizik hau dago haren ondoan *justiziazko anker eta errukibakoaren* zerbitzuan. Guzti horrekin Kristok *mundu honekiko guztiz arrotz eta berarekiko errugabe den Jainkoak* bezain zerikusi gutxi dauka, honek agertarazi baitu Kristo *contra deum huius mundi* (Cf. Harnack, l.c. 106. or. hh.). Marzionen definizioak beraz *Theos Agnostos* baten antzeko definizio hasiberri bat ere gaingitzen du; izan ere Paulok Atenasen predikatu zuen Jainko soilik ezezagun honek (Ap. Eg. 17, 23), atenastarrek aldare bat eraiki zioten honek, ordurartekoaren aldean guztiz arrotz zen bat adierazten bazuen ere, Marzionengan ez zuen askatzen haragitik, boteretik, mundutik, izarretatik, izarren gaingiko Jainkotik, Marzionen harrapatzaileari azken batean dagokion bezala. Ez du zalantzarik uzten Marzionek inolaz, hain pozkiro ustez harrapatzen duen eta etxera daraman Berrion honek, Exodo mutur-muturreko honek munduaren etsaiaren soinua duela azken batean, beraz enpirikoki ere iluna dela. Atera egiten du beraz, Marzionek ezabaturik daukan Itun Zaharreko Exodoko arketipo handiak bezala, ez bakarrik gatibualditik kanpora, baizik areago haragitik eta mundu honetako orotik kanpora, baina ez hobe den zerbaitera. Munduarekiko agur soilik pneumatiko eta soilik *logos*-mitiko honek azken batean bere aszesian ez dauka begien aurrean konparazio bidez bederen esnea eta ezitia darien lurralderik bat ere; eta

marziondarren doketismo pneumatiko soil honen arabera Kristo ez da inolaz berpiztuko bere haragian. Egiaz, benetako Kristo ez zen beren ustetan haragian jaio ere egin; hartan atxiloturik, Jainko guztiz berri eta guztiz arrotzari buruzko Marzionen mezuaren arabera ezin eskaini ahal izango zukeen bere bultzadaren *garbitasuna*. Horregatik, hemen ere, aszetika abstraktu eta sarri banaldu honekin, baita Marzionen Jainkoari dagokion arrotzasun guztizkoaren definizioaren beste aurpegi honekin ere, ez da azaltzen inolako urruntzerik mundu honetako *gizakiarekiko*; alderantziz: hara itzultze oraindik beteagoa zen asmo zuena. Bere beraren, erarik propioeneko Transzenditzea alegia gizakiaren berdin zen aberri bateko arrotzasunera. Ez bakarrik arrotzerriko neska batek sortakatu behar zituen lehen baino hobeto hemengo loreak, eta inolako bidaiari arrotzak kontatuko zuen urrutian lore urdin baten kontua erromantikoki eta horrela aztoraturik edo dardarka bakarrik helduleku berri bat seinالاتu behar zuen, aldiz: sekula entzun gabeko zerbait, sekula amestu gabeko zerbait, baina guztiz ezaguna zen zerbait sortzen zen, hemen sekula izan zelako aberri zena hain zuzen. Horregatik Kristok, Marzionen ustez, aszesia enpirikoki guztiz iluna arren, harrapaketaen musika guztiz ageriko batekin etorri behar zuen edo, Tertulianok ere uste zuen bezala: Kristok beren gezurrezko Aitaren etxetik lapurtu behar zituen hain zuzen ere Jainko onari zegozkion eta garretan erre nahi zuten izakiak. Kristok andregaia zeraman lekua izan behar zuen, mistika orotan bezala, baita aszesia finkaturik gabe zeukan batean ere, oraindik gehiago izan behar zuen, inolaz ere ez gutxiago hemen dagoeneko ezaguna den argia eta bizitza baino. Puntu honetan hain zuzen Marzionek -pozaren publizitate gaitasun enpiriko oso gutxiz, noski- Paulo hartu du oinarritzat: "Ez du, ez begik ikusi, ez belarrik entzun ez bihotzek sumatu Jainkoak" (horren azpian guztiz espero zena) "prestaturik daukana bera maite dutenentzat" (1 Ko. 2, 9). Arrotz *hartzaile* honek, sekula entzun gabeak, Kristoren bitartez bakarrik suma daitekeen honek ematen du Marzionen anti- "lege", anti- "justizia", anti- "munduaren sortzaile eta munduaren zuzendari"arentzat ustezko "askatasun", "grazia", "etxeratze" *zentzua*. Ezer baino gehiago horren bidez batez ere munduaren sorkuntza, "*Deus*" *creator* honekin, Exodoaren bidez, azkenik eskuraturiko Berrionari esker, aldarrikatu behar zen - *ultima Antithesis est creatoris finis*.

Guzti honetan gehien harritzen duena harrigarria bera da, tximista bezala erabat eskainia. Eta zinez erabateko *jauzi* bezala, kontutan hartuz orain arte gertatu den guztiak hondatzeko ez bestetarako ez duela balio. Beti gero eta okerrago doanak, okerra besterik ezin ekar eta eragin dezake; horrek balio du Marzionen ustetan historia osoari dagokionez Jesus arte. Horregatik ez dauka historiak, hura etorri arte, inolako bitartekotarik; horregatik dago Jesusen jaiotza esanahi osoz zero urtean, denbora zenbaketa berriaren hasieran, zenbaketa honek itxuraz bakarrik denbora historikoan egon behar duelarik. Marzionen arabera ulertzen den zero urtea guztiz bestelakoa da historia barruan finkatu eta horrela onarturiko zenbaketa hasiera soilen aldean, adibidez *ab urbe condita* erromatarraren aldean. Paradoxa bezala gogora ekartzekoa litzateke Jakobinoen zero urtearen "era berean" ustezko hasiera berri guztizkoa, hark historiaren "Itun Zahar" osoarekiko egiten duen etena, dena printze eta frailetzarren iruzur soil bailitzen. Pareka ezin daitekeen guztiz bestelako Topos batean, hau da erlijiosoan, ez du onartzen Marzionek ere, aitzindari oso bezala, bitartekotza historiko oro bere *Novum* horren aurretik; ez bakarrik beraz egintza eta gertakarien bitartez egindako bitartekotza bat, baizik areago igerkizun edo promesen bidez egindakoak ere. Ezta profeten bidez, areago paradisu suge ofitaren bidez ere eduki zitekeen eskura Berrion kristauaren ustekabekotasuna; inolako historikotasunik ez dago kolpetik azaldu den salbazioaren aurrean, bere *historice gratis data gratia* horren aurrean balio duenik. Horrela etorri zen Marzionen bidez harako jauziaren kontzientzia hura mundura, betiere jasotze ororen kontra esaten duena: historiak ez dauka salbaziorik, salbazioak ez dauka historiarik.

Esaldi hau bere absolututzean egiazko ez bada, garbi dago beronen albertentzia, bere kontrapozoina historiaren bidez egindako bitartekotza katea halaber absolutizatu ororen kontra, eta ezer baino gehiago historiaren gurutzean bizirik hiltzatua izate baten kontra. Askatasuna atzetik guztiz determinaturik egotearen ordezkaintzen da guztiz era gehiegizkoan hain zuzen aldeztu aurretiko determinazio halaber gehiegizkoaren kontra; Novumak bere bitartekotzan bertan ere ez du galdu behar bere jauzia, ustekabekoa miragarriaren mirariari dagokion bezala baitagokio hura honi. Horrekin hain zuzen irekitzen zen baita ere objektiboki harrigarriaren sakontasun handiagoa Marzionengan (hori gabe jauzi *historiko* soilak formala bailitzateke). Hori da hain zuzen *Arrotzaren* sakontasuna, eta hain zuzen ere guztiz ezezagunaren eta horregatik etxeko baten arrotzasun bezala. Jainko arrotzak, ez bakarrik munduarekiko errugabe denak, hark kutsatu gabeak, baizik haren erruki duenak, Kristorengan bakarrik ukitzen zuen mundua, hain zuzen harengan estalirik zegoena. Estalia oraindik bere ebanjelioan bertan ere, eta hain zuzen ere *ABSCONDITUM* transzendente honek izan behar du bere urruntasunean argitzaile bakarra; esan daitekeena bakarrik izan baitaiteke hemen itsusitua. Gisa honetan hasten du Marzionek bere Antitesia: "Oh mirariaren mirari, liluramendu, indar eta harritze da, Ebanjelioari buruz ezin (sc. bere poztaz aparte) esan ez hari buruz pentsatu ezta inolaz ezerekin ezin pareka daitekeela" (cf. Harnack, l.c. 118 or. hh). Marzionen ustez ez zekiten ezer, Kristo etorri arte, ez gizonek bakarrik, baizik are haiek gurtzen zuten Jainko sortzaileak ere, *toto coelo* apartaturiko Jainko arrotz honi buruz; dualismo oro gainditzen duen esaldi honek Apostoluen Sinbolo *Pater-Christus* lotura bihotzaren erdian jo zuen. Izan ere Eros kristauarekin ez beste ezerekin egokitzen ez den halabehar honek eman zion arrotz den honi orobat bere etxekotasuna: "Aberri da inor oraindik izan ez den lekua". Gizakia jaio den estutasun eta egoera desegokitik ihes egiteko arrazoien arteko eta gure geure "aurpegi desestaltiko" orainarteko erabat arrotzetik guri bakarrik hurbil zaigun arrotzasun honetara bidaiari arrotzaren harrapatzeko arrazoien arteko lotura, -lotura hau ez da azaldu inondik ere orain arteko inolako erlijio motatan. Zalantzarik gabe, orain arte guztiz helarazi gabea, erabateko berria, erabateko arrotza *politikaren* eta historiaren aldetik zentzugabekeria jakobino bat da. Baina horrek beste soinua bat dauka *soteriologiaren* eta azken denboraren aldetik, zentzu lehenkristauan. Batez ere, Marzionengan desio eta itzarote pasarte batek ukitu gaituelako, hari errazago egiten baitzitzaion etorri ez zenarengan sinestea etorri zenarengan sinestea baino. Horrela beraz bitartekotza ez-historiko bat, bai ordea psikologikoa eta *eskatologikoa* erakutsi daiteke hemen. Eta beste zerbait oraindik: ukitu bat (mezu kristauean) hurbiltasun bortitzagokoa eta pozt bortitzagokoa era berean. Marzionek amesten zuen "Gustiz-Bestelako" hura, inolaz ere ezin zitekeen izan harri bihurtzen zuen Gorgonari egindako begirada bat; benetako pozt ekarri behar zuen. Pozt honetako transzendentearen osagai bortitza bera ere transzendentzia ororen heteronomotik transzendentzia gabezia, hain zuzen ere gu berta-bertatik argitzen gaituen batean, kolpetik aldatzeko aukera ematen zuen horrek. Gizonaren Seme Kristok ez dauka inolako Jainkorik, are gutxiago arrotzik bere gainean, ezta graziaz guztiz beterikorik ere; baina Marzionen fantasma kristauak bazeukan bere goia seinale-argi bezala Atoposetik itzultzean.

VI
AUT LOGOS
AUT KOSMOS?

36

Ate aurrean deika

Badago barne bat, iraun eta xitatu besterik egiten ez duena. Baina norberaren burua bakarrik xitatu nahi du gero, sarri oilo baten antzera gainera. Hala ere, benetako gogartea, hau da han barruan bila ibiltzea leku irekira garamatzan atearen aurrean dei egitea da, bera ere leku irekitik baitator. Badago kanpoko bat han eta kasu honetan, handik deitzeari dagokionez, erakarriz edo noiz irekiko itxaronez. Era horretan gainera dagokion bezalako da, gure barne propio bezala, gutxienez nagusiki dagokiona da eta ez erabat objektibo, gurekin zerikusirik bat ere ez balu bezala. Kanpoan guri benetan dagokigun zerbait badago, alor horretan bakarrik merezi du gure buruak zaintzeak. Hortik izan ere oraindik bere baitan ehotzen ari den barne bat, hain zuzen ere gizatiar bezala, berez bete ezin daitekeena, aldiz kanpoko behar duena eta hari arreta eskaintzen diona, azken batean hartan eratzen dena. Bestela barnekoa, guztiz irekia izan ordez, sutondoan esertze soila da eta balio horixe besterik ez du. Inoren kontura edaten duen arima bakarti edo, nahi izanez gero, ederrarekin batera, norbera justifikaturik gauzatzen dena. Azkenean barneko argia berehala kriseilu urri bat izango da, eta era kristauan gainera bazegoen oraindik han txepel inozo asko. Ez bakarrik norberaren burua zaintzea, zabalero tentagarria duelarik gainera, hau gaindituz, hau gainditurik daukala. Bestela barnekoa inolaz ez da izango aldatzen denetakoa, horretarako badago ere.

Orfeo eta Sirenak

Hain gure propio dena aurkezten zen, kanpokoak han eta hemen haren premia duela dirudien lekuan bakarrik. Horrela nahi zien aurre egin, batez ere aurre egin ziezaiokeen, gizakiak gauzen martxari. Martxa hau berez ere bazihoan, haren kontrako ni-azti piskat era oso neurritsuan onartu eta horrela berak kobratu ondoren. Pentsa bedi Orfeoren sagan, bereziki zuzenaren kantari bezala, inolaz ordea entzutera eta *ad notam* hartua izatera behartzen duelarik. Baina inolaz, sagatan kanpoko gauza bakanak aldatzen direlarik; hemen dagoenarekiko kontratoneu setati batek jotzen du inoiz edo behin. Orfeoren Ni soinu-joleak egiten du sagan, abere basatiak, are arbolak eta ibaiak etor daitezen bera entzutera. Soinu gozo oraindik lasaiarekin, otzangarriarekin, baina aldi berean dagoeneko urtzailearekin oldartu zen Orfeo Tartaro higiezinezkoan, Furiak berak ere samurtu zituen, Ixionen gorpila gelditu egin zen eta Euridize kasik egun argiraino ekarri zuen. Aztikeria guztiz zuria erabili zuen ordea Sirenen aztikeria beltz eta gizakien etsaiaren kontra; Orfeoren kantak, zuzenean kontrajarririk, isiltzera behartu zituen, eta itsasoan amildu ziren. Ostean atzaparrak, urraketa eta heriotza besterik ez zeuzkan haien erakarpen liluragarriak era horretan izan zuen, Orfeoren kantak haiek apolinokiro gainditzeko zituelarik, azken gaitzetsi eta ezeztatua. Geroago, noski, Euridize galduagatik erostan ari zela aurkitu zuen Menade mozkor taldea Orfeok ezin zapuztu ahal izan zuen Sirenak bezala. Aldiz hauek haserreturik txikitu egin zuten behinola Dionysos bezala eta honen antzera orain ez du irudikatzen kantu gizatiar oldartzaile bat, bizitzako jainko orgiastiko bat baizik. Uztarketa honetan ez dihardu gehiago otzanduz, isilaraziz, are oldartuz, baizik bera ere natura menadetarraren martxari atxikia balitz bezala. Sagaren segidan Orfeo, txikitu bezala, berriro ere Euridizerekin bat egingo bada ere, Hadesen bat egingo izango da, malkoz beteriko isiltasunean, inolaz ere dionisiako ez den leku batean. Hain zuzen ere Euridizerengatik leialki negarrez ari delako, haserretzen dira Menadak eta inolaz ere orgiastiko iraungo duen dotrina baten kantaria txikitzen dute. Era sirenatar berri baten antzo, oraindik mundu zaharraren sabelean legokeen Logos kantari batekin topo egingo bagenu bezala.

Hala ere gain hartzeko nahia, aurrera igarotzekoa, bortitzagoa zen inolaz. Eskola orfikoak, hala deitu baliteke, Hadesetik irteteko gauza zelako ohoratzen zuen legendako bere maisua. Orohar inimiziazio honetan kontua zen bere jarraitzaileak bizitza aldabera baten eta heriotz hain seguru baten antsiatik ateratzea. Halako ihesi salbatzaile edo salbazio iheslari batek hain gorputz eta mundu zale dirudien bizitza greko batean arrotz itxura dauka. Benaz arrotz itxurarik handiena dauka, mozkor kanta dionisiakoa kontutan harturik, aszesia orfikoak eta gorputzaren eta haren mundukortasuna uzteak, mundu grekoaren hemengotasun iraunkorraren erdian. Baina *soma* eta *sêma*, gorputza eta hilobia berdindu egin ziren eta gorputz atalak lokatzen zituen mozkorren jainkoak gainera gorputzeko hilobiaren murruei gaindi egin behar du jauzi. Ixionen gorpila benetan geldiaraztea gure jaiotzako gorpila behin eta berriro gorputz berrietan geldiaraztearen pareko zen. Gehiago sirenatar ez zen guzti honetan, mundutik ateratze guzti honetan, akosmikoki joko ez balitz bezala, noski. Era orfikoan ihes egiten zaion mundua bera, bere goian gutxienez, hau da argi bezala, sendotu egiten da; hain zuzen eguzkia, beti ere inolaz zentzu eraldatuan, "pagano" da oraindik. Baina, gorputz-hilobi parekatze orfikoak munduaren eta hemengotasunaren sentimendu grekoari hitzez hitz traba egiten zion zatiki arrotz baten gisan. Platonengan baino askoz gehiago, honek ere ez baitzuen hain ondo hitz egiten arrazoi honengatik eta ez arrazoi apoliniko soilengatik inimiziazio orfikoei buruz. Bitartean Platonen ideien ikuskizunak berak hemengo mundua uzten zuen, haiek han goian -zikintasunaren ideia bera eta argiarena ere- biderkatuak eta "zerutiarkiro" baitzeuzkan. Horregatik orfikoek, Platon baino askoz lehenago,

pentsamendu greko berantiarra, batez ere gnostikoa, mundua gartzelatzen hartzen zuena, dastatu zuten. Utzi beharreko bezala, *paue, paue*, zaude geldi, amai zaitez deiarekin - Ixionen gurgilaren pareko litzatekeen munduaren martxaren kontra zuzendurik. Eta leher zitekeen hitza hustasun akosmiko soilean ez itzaltzeko moduan. Badago hor hondar beti oraindik greko eta mundutiar bat, areago, geroago ikusiko denez, askoz urrutiago doan zerbait, hau da ondare ekialdear pagano, beraz *astral mitiko* bat. Eta horren arabera izpiritu gizatiarra kanpoko naturaren anateman bezala haren biran berotzen zen eta ez zuen nahi, ezin zuen handik alde egin nahi.

38

Irteera eta kosmo kontserbatua estoikoengan eta Gnosian

Nahiko luzaz alde egin zuen barnetasun soilak kanpokotasun gogaikarritik beretzat bakarrik izateko. Norbanakoarena izan zen, merkakuetatik urrun geratu zen, albora egiten zuen eta oso gutxitan ekiten zuen kontra. Era horretan zuhurra zena oso gutxitan zen pertsegitua, bai baitago aholku bat, ez bakarrik epikureoa, baizik batez ere estoikoa, ezkutuan bizitzeko. Eta horrekin batera badago aholku bat berez pasiboa ez dena, batek bere eskumenean ez dituen harremanetatik hurbil ez kokatzeko edo ez kokatzen uzteko dioena. Baina hori sarri gainera arima lasai edukitzeko asmo soilarekin, ez *secessio plebis in montem sacrum* batekin, bai ordea Stoa soilarekin bihotzean urrutiegi begiratu gabe, baizik etsipendurik, beraz era desegokian zuhur izan nahiez. Itxurazko guztizko irteeraraino, hau horrexegatik munduz betea egoki, Stoa gortesau orotan bezala, iragartzen zuelako: Badaudela gauza batzuk munduan gehiago onartzen direnak haien kontra jotzean, haiekin bat egitean baino. Bestelakoa da ordea, eta arazoz beteagoa benetan zuhur estoikotzat hartuaren beraren Logosa. Hau mundutik urrun aparta zitekeen, handik ihes egin nahi bezala azkenik, hain zuzen ere bere apartatze zorrotzean, berriro munduarekin bat egin nahi baitzuen. Mundu "akatsik gabearrekin", munduarekin "natura" zenez, "Zeusen hiri" zenez, Zeus orobat panteistikoki hartuz. Horrela zuhur estoikoa hasten zen zutunik ibiltzen, baina lehen bezain "natural" iraunez, horrek ez bakarrik barneko bezala kanpoko trabetatik libre egiten baitzuen, baizik areago - azkenean- Logosa norbanako soilengandik at munduan bertan aurkitzen baitzuen eta harekin loturik baitzegoen. Eta horrela munduko estatu gizatiarkiro eratu bateraino, hau bere sorreran bertan ere nahasi gabe libre utzi behar zelarik, *imitatio naturae rectae* baten bidez hari jarraiki. Ibilera zutuna munduan sinesten duen Stoa honetan ez da gertatuko haustura baten bidez, baizik igotzearen bidez, kreaturaren gero eta "naturaltze" leialago baten bidez. Hau da: Traba den munduaren gaintitzeak gizaki librean eta bere izukaiztasunean ez du hain zuzen horrela munduko naturatik irten nahi, baizik zinez munduaren egiazko izatearen, munduan-izatearen, naturaren perfekzioaren zeregin inmanente bat aurkeztu nahi du. Horrela baieztatzen den munduko askatasun era estoikoan ulertuaren eta premiazkotasun era estoikoan ulertuaren arteko kidetasunean ezin kontrajarri dakioke halabeharra, *Fatum*-a, "Heimarmenêa" askatasun estoikoari - askatasun honek bere izatea gero eta sakonago aurkeztu eta baieztatu nahi duelarik- trava bezala, baizik alderantziz, gida bezala *-volentem ducunt fata, nolentem trahunt*. Orfeoren kantuak hemen esferen harmonia kosmikoki baieztatutik ez zuen irten nahi inolaz; hemen hain loturik egon nahi zuen *Logosak*, zuhurrarengan autarkiko egiten denak, *Kosmoaren* ibilerarekin eta jokaerarekin. Era horretan gizakiaren arima bereziki hurbil azaltzen zen dena eratzen zuen Pneuma batekiko mundu presente, inmanente eta bestalderik gabekoan. Hain zuzen ere, libre bihurtu den gizakiarengan "Hegemonikon-ak", munduan zutunik ibilarazten zionak, "*Logos spermatikos*" haren, bere adimen ernaltzailearen zati izan behar zuen eta hala iraun ere iraun behar zuen.

Irteera gero eta bortitzagoa egin zen, ingurua okerrago bihurtzen zen neurrian. Gizaki gero eta gehiagok beren patua zapaltzaile eta etsai bezala sentitzen zuten neurrian, ez

ziren altxatzen haren kontra, baizik harekin deseginda sentitzen ziren. Horrela azaldu zen hemen gizakia gatibu bezala, eta arimak neska bat zirudien haragizko, materiazko eta estatuzko etxe izugarri batean, misterioak erakutsiko zion bidean, bahiketaren ez beste ezeren zain. Ez azkenik heriotzea gauzatzean, hori ere gnostikoen ustetan igotze bat baitzen, nahiz beldurgarria, beheko mundu honetan jaiotzea erorketa bat zen bezala. Igotzen eta itzultzen ziren arimek zeharkatzen zuten mundua, bere garaitasun planetario eta propio kosmikoan, estoikoez oraindik baieztatzen zuten "Zeusen hiri" ez baino, beste edozer bihurtu zitzairen. Alderantziz, hemen planetetako izpirituek menderatu zuten mundua, "arkonte" gaizto eta "kosmokrator" benetako bezala, Stoa ez bezala adiskidetsu ez zen *fatum* batek. Horregatik batez ere badoan arimak, hain zuzen "zeruetako bidaia" egiten duenean, paseko hitz bat behar du, horrela munduaren dominatzaile planetario gaiztoen artetik, hau da kosmoan kaltea sortzen dutenen artetik, "Heimarmenê" beraren iturrietatik onez pasa dadin. Azken hau inolaz mito astral ilun bihurturik, azken batean gizakien etsai bilakatu zenean, beraz inolaz ere ez zegoen lekurik gehiago Stoa-Natura on batentzat, ezta "naturarekiko homologia" batentzat, Stoa bezala. "Ez bakarrik planetak, baita esfera tinkoen hamabi abere zirkuluak ere eta abere zirkuluko hamabi izar irudiak ere hondamendiaren demonioen artean jarriak izan ziren; izarren zero osoa deabruaren hagin sail bat zen, unibertso osoa tirania. Eguzki, ilargi eta izar denak batera esfera fatala dira, patuaren esfera, Heimarmenêren esfera; munduko agintaria deabrua da" (cf. *Das Prinzip Hoffnung*, 1315 or.). Hortik beraz *Paue, paue*, gelditu, gelditu hori premiazkoaren martxan, Paulo gnostiko batenganaino eta bere "herio-mundu honetako habeak astintzeraino". Are oraindik etsai herri gnostiko eta izar-demoniakoarekiko hitzez hitz egindako loturaraino: "Ez gara gu ari hezur eta haragizko gizonen aurka borrokan, baizik aginte eta ahalmenen kontra, hau da iluntasunean agintzen duten munduko jaunen kontra, zero azpiko izpiritu gaiztoen (*Kosmokrator*) kontra" (Ef. 6, 12). Eta aurrera segitzen du Augustinenganaino, Gnosia kristauko Jesus batengandik etorritz, honek arkonte gaiztoei burua itzultzen dielarik, gizakiak gehiago ikus ezin ditzaten: "Kristautasuna horregatik filosofia paganoa baino goragokoa da, zero azpiko izpirituak gaitzetsi eta arimak haiengandik libratzen dituelako" (*De civ. Dei* X). Agur munduari beraz, Gnosiatik abiatuz, edozein aldetara begiratzen dela ere, naturaren alorra badirudi barneko bezala kanpoko transzendentziaz lehertarazia dagoela: eta hala eta guztiz ere -benetan azkenean- *hala eta guztiz ere* Gnosia berak ere *antzinako lurraren eta zeruaren topos* era berean *ezin* utzi ahal izan du. Hain zuzen ere ezta gailur-gailurrekoen bezala ere: izan ere arimaren igotzea, Logos gnostikoaren igotzea bezala nolabait esateko, hemen geratu zen, eboluzioaren bezala emanazioaren aldetik ere, gaitzetsirik, besterik ez bada erabat naturaren mitoen kategorietan bildurik. Eta hori Valentino gnostikoarengandik bere eragina erakutsiz Jakob Böhme eta Franz Baaderrenganaino; munduarekiko jaierarik handiena zuten Stoa eta haren Zeus-Naturan baino "*Physica sacra*" askoz handiagoz gainera. Izan ere ilargia eta eguzkia arimaren argia mundutik ateratzean ez bakarrik dira demoniako, baizik areago eskabatzeko makina moduko bat, ongia atera eta gora eramaten duena. Batez ere naturari zegokionera, hau da, bi sexuetara zegoen zuzendua emanazioari buruzko dotrina gnostikoa, jatorrizko argitik behera mundura. Oraingo honetan igoeraren bide erakusle bezala berriro jatorrizko argira; ilargia eta eguzkia, emakumezkoa eta gizonezkoa behin eta berriro binaka, "Syzigian", argi-isurketaren mailatan munduan zehar gordez. Valentinok bereziki garatu du jatorrizko argiaren gisako jaisten (emanazioen) eta halaber destolestaketen (eboluzioen) segida espektral eta era berean kategorial hori. Gora eta behera dabiltzen zeruetako indarrena alegia, zeruetako eskailerarena, Itun Zaharreko eta Babilonia zaharreko hainbesteko oihartzuna duena, Jakoben ametsetik (1 Mos. 28, 12) munduan zehar doazen Plotinoren ideien

distiretaraino. Hemen propio gnostiko dena binakatzea da, "Syzygia", ideia segida honetako talde bakoitzeko ezkontza kategorial androginoa: *sekula ez da ustezko Logosaren eskala bat, gora eta behera, gorputzaren eta naturaren arabera zehaztu*, ezta kategoriak hain sentikor eta emoziozkoago. Horrela gisako lehen ideia bikotea Valentinorengan da gelditasuna (*sigê*) - amila (*bythos*), bigarrena izpiritua - egia, hirugarrena Logos - bizitasuna eta horrela zortzigarren eta azken talderaino, non argia zuzenean iluntasunean azaltzen den eta horrela hura ulertzen ez duten horietan amiltzen den. Baina horretan ere eterra eta argia dira itxaropen, aurrera joz eta bakeatuz azkenik beheko munduaren inguruan tenkatzen dena. Era horretan ilargiaren eta eguzkiaren lilura, irudi liluragarriak sabai bihurtzen dira hemen beraz oraindik hain deabruturik dagoen Heimarmenê-ren gainetik, ez dira ateratzen izarren mitoetatik *Sursum corda* oro arren, eta hain zuzen horrexegatik ez gainera. Stoa baino neurri handiagoa hartzen du mito astralak, kosmo-gaioak aldatua izan arren, bere eskenatokiak lehenean segitzen du, ilargiak eta eguzkiak ez dute alde egiten beren lekuetatik. Horren arabera, udaberri guztiz berri bat sortuko litzatzeke izarretatik eta ez barnetik distiratzeko duen argitik.

39

Mito astrala eta munduko bizitzaren eta zeru izarreztatuaren jogune babiloniar egiptiarra

Zein luzaz jo zuten bide guztiek kanpoaldera, haietan zihoanarekin batera. Gizakiari kalte egiten ziona bezala hari laguntzen ziona neurri handienez ez zen gizatiarra. Haren esku hartze propio eta nolabait aldatzailea, naturari zegokion kanpokoan eta haren ibilbidean, txikia zen. Horren ordez tximistaren eta trumoiaren aurrean beldurra, eskumenik bat ere ez antzutasunaren kontra, ezin ezer egin urte oparoen gain eta are gutxiago urte txarren gain, gizakia galdurik Panengan. Gainera haren izate erraldoiak ez bakarrik zuen eragin zapaltzailea, baizik batez ere izu-sortzailea; horregatik iresten zuen horrek norberaren burua, nolabait hari kontra jartzen zitzaiona, agertzen ez zen mundu batean. Horri ez dio inolaz kontra egiten salbuespenik gabe erabili den jatorrizko aztikeriak, jatorriz dena arimatzen zuen munduaren irudi animistak ere kontra egiten ez dion bezala. Helduleku magikoa bera ere, eta batez ere hau, ez da konpontzen hura deitzen dutenak lagundu behar dituen izpiritu panikorik gabe. Haren antzeko bihurtu behar du honek, baina, buruaren lekuan, abere edo demonio edo ilargi maskara buruaren aurrean jarritz. Eta gisa horretako kultuek beti eta alde guztietan pioiak, xamanikoak, behar bazituzten ere, naturaren mitoko erlijio guztiek beren ilargiaren edo beren eguzkiaren aurrean elkarte matriarkalak edo patriarkalak erakusten zituzten noski, baina ez inolako sortzaile propio izendunik eta pertsonalik. Naturaren erlijio estatal egiptiar edo babiloniarretan ere ez dira azaltzen neurri txikienez Moises, Mohamed eta, batez ere, Jesus bezain presente eta jaso. Horren ordez erlijio europar "paganotako" bat nork "sortu duen" galdetzeak arrazoiz nahastu egiten du, are kasik zentzurik gabeko gertatzen da. Horrek esan nahi du: Naturaren mitoaren sinestearen jatorrizko hizlari hipotetikoengan ere gizatiarra Panera aldatu zen, azkenik Amalur xuxurlaria amilera bezala, Gilgameshen eguzkirako bidaia bezala, Thot jakinduriaren idazlea bezala, azken batean ilargiaren jainko besterik ez baita. Edozein modutan ere, zuzenean naturaratu baina gizakiari dagokionez guztiz alferrikako azaltzen diren jatorrizko sortzaileen arteko bereizketa baino askoz inportanteagoa zen naturaren mitoan, han aurkitzen zen matriarkatuaren eta patriarkatuaren arteko bereizketa, hemengo lur-ilargiaren erreinuaren eta hango eguzkiaren agintaritzaren artekoa alegia. Bachofenek aurkitu zuen naturaren idoloaren *itxura emakumezko eta matriarkalak* ezarri eta estua zabalaren ordez ohoratzen du sinbolo gisa, koba hegiaren ordez, gaua egunaren ordez, Gea-Luna Sol ordez. Horren oihartzuna somatzen da oraindik "ktoniko" bezala iraun duten kultu guztietan, baita Antigonaen uterus gisako "Pietatean" ere, baina batez ere Zibeles,

Astarte, Isis, Demeterren amatasun lorietatik hasi eta Mariak azpian daukan ilargierdi bertaraino. *Era gizonezko eta patriarkalak* berriz ezarri eta ohoratzen du bakarrik eguzkiaren seinalea, *agintzen duen* maiestatearen seinale kosmoformo aparteko bezala. Hortik datoz beraz zabala, eraikuntza, argia gora eta behera ibiltzeko zeruko eskailera, dorre planetarioak, piramide mailadunak koben ordeztu, gero eraketa geometriko hertsia duten piramideak, tenpluko bideak beraiek, babiloniarren arabera eta batez ere egiptiarren arabera, eguzkiaren ibilbidearen imitazio bezala. Berezi tenpluaren neurriak eta formak astronomiaren eta kosmoaren neurri eta formen ispilu bezala eraiki behar ziren; bestela ezin irudikatu ahal izango zuten beren eguzki-jainkoaren "etxea". Kaldearren artean, kupula zeruko kupularen kopia bezala sortu zen, garbi dago hori planeten apainduriko Panteoian eta baita ere *Hagia Sophia*-n, irudiketa kristauak apenas aldatu duen ortziaren irudiarekin. Hala *Imitatio coeli* orok, Jainkoaren etxeetan gertatzen denez, antzinako mito astral harrigarriro "pagano etara" jotzen du eta batez ere ikuspegi bat irekitzen du haren eguzkiaren lehentasun matriarkatu-ostekora. Hemen lehenbizi guztizko kanpokoak agintzen du, koba matriarkaetik gora guztiz zabalduriko esparruak, Gea Uranosekin batera, azkenik Uranos goian dagoela. Mito astral hau ez da luzatzen bakarrik Stoara eta Gnosiara, baizik areago, guztiz paradoxalki, Bibliako Exodoaren, beraz naturatik ateratzen duen Logosaren mitora bertara ere, hura lehenbizi estaliz, baina baita ere hura ahitu gabe zailago eginez, hura edonolaz -Joben liburutik Apokalipsiraino- esparru ez-gizatiar batera eramanez, mitoaren aldetik, hain zuten ere mitoaren aldetik, konpondu ez den batera.

Hemen berriro begiratu behar da zein luzaz iraun zuen ohizkoak. Nola sartu zen arrotza, Kanaango lurretik edo urrutia gotik edo goragotik etorritik, idazti "izpiritualean". Israeldarren aurretiko Kanaan, antzinako kolonia babiloniarra izaki, lurraren eta izarren kultuz beterik zegoen noski, eta Jaberren kultuak luzaz borrokatu behar izan zuen Baalimen kultuarekin. Bestalde, Egiptori dagokionez haragi-eltzeaz aparte, asko zegoen ahaztu gabe oraindik, hala adibidez Ptah sortzailea, buztinaz irudiak egiten zituen. Egia da Asia Hurbileko eragina Biblian, batez ere babiloniarra, indartsuena bera zelako, gehiegizko neurrian azpimarratu zela hemeretzigarren mende inguruan, aurkikuntza berriekin sarri gertatzen den bezala. Delitzsch, Winckler, Jeremiasek "Babel-Biblia" bikoiztasuna suspertu zuten, eta horren arabera ez bakarrik Hamar Aginduak eta lehenago jatorrizko bekatua, uholdea eta dorregintza nagusiki saga babiloniarretako ondare izan behar zuen, baina baita Aita-lehenak, Joserren historiak eta jarraian, nahiz ez hain astral, Moisesenak ere. Jesus bera ere azkenean (Arthur Drews, "*Die Christusmythe*") Asia Hurbileko Landarediko Jainko, urteko Jainko bihurtua izan zen, haren bizitzaren ibilbidearen egutegia eta are zodiakoa berreginez. Analogiak era gehiegizkoan erabiliz, era berean egin da galdea: bizi izan al zen Napoleon? Drewsen Kristoaren mitoaren parodia bezala jarri eta erantzuna ezezkia izan zen. Hau ere saga erabat eratorria litzateke: Napoleon = Apolo, ama Letizia = Leda, jaioterria Korsika = Kreta; hamabi mariskalak = zodiakoko hamabi zeinuak Napoleon-Apolo-eguzkiaren inguruan; Santa Helena = Mendebaleko lurraldea, eguzkia erortzen den lekua. Hala ere, halako parodia jakingarriak arren, arrazoi osoz ahaztu den goragoko Babel-Biblia bikote gehiegizkoa arren, Bibliako zati garrantzitsu batzuk zalantzarik gabe mito astralen eragina izan dute, baina ezin ondoriozta daiteke horregatik ahistoriko edo muin propiorik gabeko direnik. Alfred Jeremias "Panbabiloniako" Biblia ondoen ezagutzen zuenak berak ere ez zuen egiaztatzen hori; honek kanaandarra eta mitikoa tiroaren jogune bezala, are "apainketa" soil bezala, gertakari historiko egiazkoetatik eta haiek Biblian zuten bestelako zentzutik banatu egiten zituen. Egia da Panbabiloniarrek Bibliako *Halleluja* ere "guztiz" *hilal* hitzetik, ilargi berriaren izen semita zaharretik eratorri dutela, etabar; baina halakoak beti azaltzen dira etimologietan arakaturik. Aldiz:

"Kontakizunari itsatsita dauden gai mitologikoez berez ez dute ezer frogatzen osagai guztiaren historitasunaren kontra... Testuinguru guzti honetan, Sanson bezalako irudi batean, haren historia mito soil bat baino ez omen delarik" (bere ileak eguzkiaren izpi bezala hartzekoak dira eta hartaz haren indar bezala) "eta haren izen soila izaera (astral) mitikoaren froga bezala aurkeztu behar omen delarik" (Sanson = eguzki txiki), "ezin utz daitezke oinarri historikoak albo batera". (Jeremias, *Das Alte Testament im Lichte des alten Orients*, 1906, 73. h). Horri gaineratu beharko litzaioke Tell-Geßler historiak ere eguzkiaren saga eskandinabiar oso zahar bat aurkezten duela, herriko heroei eta herrialdeetako gobernadoreei aplikatu zaiena; baina honek ez du ezer egiaztatzen bien izate historikoari, are iraultza suitzarrari dagokienez. Baina Tellen semearen buruaren gainean zegoen sagarrari tiro egiteko eskaeran bertan mito astral soil bateko gaia agertzen da, Geßler oso erraldoi bezala edota eguzki gaztea hil nahi duen neguko erraldoi bezala jarritz; eta gai hori era analogo ukalezinean Biblian ere aurkitzen da bi puntu erabakior desberdinetan. Konkordantzia oso handiak ditu, Egiptoko haurrak hiltzen dituen Faraonengan, eta Betleemgoak hiltzen dituen Herodesengan. Baina badago lurraren mitoa ere eguzkiaren mitoaz uztarturik Jose zuloan dagoenean, Attis feniziarrean, Tammuz babiloniarrean (helenizaturik Adonis), Kristoren heriotzearen eta berpiztearen kultuan, hiltzen eta berpizten den landarediko jainkoa eta eguzkizko urteko jainkoa une berean adierazten direlarik. Neguko koba eta Pazko eguna biak dira bata bestearengan katramilaturiko patuak egutegiko jainkoaren, lurrazpira amiltzen den eta bizitza berrira altxatzen den urteko jainkoaren *gearen* eta astroetako mitoaren ibilbide biribilean (indar osoz hain zuzen Babiloniako Tammuzen festetan irudikaturik dagoen bezala). Eta azkenik areago estereotipo bezala ospaturiko zirkulu hau (urtero negu, urtero udaberri) *arrazoi handiagor* egindako aipamen astralmitiko baten bidez eten eta berriro itsatsi dakioke *berriari*. Hain zuzen ere *zodiakoko abereen* segidaren bidez, horrela izan ere eguzkiak hiru mila urtero udaberriko bere puntu aldatua hartzen baitu berriro. Batez ere, zodiakoko abereen segidak aldatzen ari zen eta haiei zegokien munduaren aroen (eon) ulerpidea izan behar zuelako. Honetan uzten bada zodiakoko hamabi zenbakia -Napoleon-Apoloren hamabi mariskalen bidez nolabait trabestitua-, Jakoben hamabi semeak, hamabi apostoluak, are oraindik Jerusalem zerutiarreko hamabi ateak eta hamabi oinarriak (Ap. 21, 12, h.): arrazoi izango luke horretan indusketa babiloniarrek, panbabiloniar gehiegizkoak, erreparatzean zodiakoko mitologia ere sineste biblikoan Eon berri baten seinale bezala, etxeko seinale bezala, azaltzen dela. 3000 urte inguru baziren egutegia bat ez zetorrela eguzkiaren udaberriko ekinozioko puntuko egoerarekin; zezenaren, "Apis zezenaren", Egiptoko "urrezko zekorraren" seinale aldera lerratzen zihoan, Babilonian bezala. Kristoren jaiotza inguruan aldatu zen garbi zodiakoko seinalea hurrengo jarraitzen zionera, aharira, etxeko *arnion* = "ahari txikia", eta "bildotsak" garaitu du. Horrela beraz egokitzen zaio bildotsaren seinalea garai hartako margo kosmikoari, gehiago oraindik: otzantasunaren seinaleak halaber bazeukan garai hartako kontzientziarentzat esanahi eta "jatorri" astralmitiko bat. Astralmitikoak hartzen zituen guztiz festa ez-biblikoak, eta biblikoak edozein modutan koloreztatzen zituen, denak elkartuz, eguberri eta eguzki aldaketaz, Pazkoz eta udaberri, naturaren *ver sacrum*-az. Horregatik beraz aski zen festa hauek argitzeko Asia Hurbileko egutegi erlijiosoaren eragina, hau da Logosaren lerro gizatiar pneumatikoa ziklo lurtiar eta zerutiarren menpe jartzea. Horrek edonola argibide errazagoa ematen du, eguberri eta Pazkoako naturaren mitoiari dagokion guztian, besterik gabeko argibide pneumatiko goragoko batek baino, adibidez naturak "bat egiten" duela esaten duenak baino, edo ukatu bezala eta azken batean gure oinetan dagoen bezala naturak "konturatu gabe misterio kristauak gurekin ospatzen dituela" esaten duenak baino. Bestela kontrako eragina, astralmitikoa, Biblian bertan ere, pentsa ezinezko litzateke,

baldin han -bertan dagoen sineskeria eta eztabaida ezinezko bihurtu den fantasiakeria orogatik- adierazita ez balego era berean "naturaren" zabaldua erraldoi eta ukatu gabeko hura, gizakiaren egintzaren senik gabeko aurremaila, jatorrizko ez den aurrealor bakarrik izatera makurtzen uzten ez dena. Hala, bada, naturaren edukia, gizakiak bere alor propioa haren gainean eraiki ondoren, azala edo onenean lehengaia izango litzateke, gizakiaren egintza, hark egina, moldatua eta azpimarratua zabaldua bezala eta haren toposa beti barrik izpiritu bezala, izpiritu eta berriro izpiritu bezala hartuko lukeen bitartean. *Retourner à la Nature* arkadiar, are mikro-makrokosmiko sekula isildu gabeak kontraesaten du hori, kontraesaten du harako "gizakiak lurra *bere menpeko* egiten du" esaldiaren gehiegizko absolutizatzea. Eta bestela, kanpoko eta haren materialtasuna alferrik leudeke? Eguzkia, ilargia eta izarrak, bakoitzak berarena ez litzatekeen lekua balu ere, Apokalipsiaren arabera, ez al lukete edukiko Topos honen mehatxua gutxienez, izpirituala bakarrik ez den beren esparrua? Hauek dira gizatiartasunaren autoulermolde bibliko eta logos gisakoan mito astralaren antzinako tiroaren joguneak ernai iraunarazten dituen arazoak; ez bakarrik historiaren aldetik, baizik metafisikaren aldetik ere. *Aut logos - aut kosmos* esaerak ez du adierazten hartaz besterik gabe hau edota bestea, *Aut Caesar - aut Christus* antitesiak bezala, ez baitakar berarekin guri kosmo bezala emandako eta alda daitekeen eta bestela izan litekeen lurraren erabateko baztertzea. Eta horrekin batera, oraindik gogora daitekeena, "naturak" indiferentziaz edo soseguz edo hazten doan handitasunaz aparte esan nahi duena. Naturaren bizitza emanarekin homologo, lur edertasun arkadikoa bere soseguan, ilargi-eguzki gisako *syzygikoa* bere bikote gorenaren handitasunean. *Item*: horixe da "paganismoaren" tentazioa; hura Biblian ez bakarrik izan da soilik astindua, baizik hautsia eta gainditua.

40

Excursus: Arkadia eta utopia

1. Ahul eta otzan ere desira daiteke. Baina nahi ezin daiteke horrela nahi, apostua bestelakoa delako hain zuzen. Desiratze soila horregatik sarriago eta zabalago azaltzen da, gizaki batek irrika benetan eta luzaz eraman dezake bere baitan, nahi gabe ere. Orduan azken batean itxaron daiteke zoriona berez magalera etor dakigun. Eta hain zuzen horrela irudi lekiguke ederren.

2. Garbi dago horretan haur gisako ezaugarri bat. Eta badago baita ere gauza hobearen irudi bare bat, desiratzeak, hau da, berez pasibo izaki, helburu duena. Haur izaerak erregali jasotzea ezer baino gehiago behar eta maite duen bezala, hala era berean amesten denari falta zaio nahimenaren eta adimenaren ahaleginez lortu eta eskuratu behar den guztia ere. Ongiaren modu hau dagoeneko kanpoan aurkitzen da edozein modutan, gure bitartez *izatea* besterik ez du behar.

3. Hala, bada, helduen artean ere bazegoen inolaz erakarpen bat haruntza jotzen zuena. Guztia etengabe orlegi eta loretsu eta ohe egin baita han. Ez borroka gogorak ezta hura egiteak ere ez baitu bat gaizto egiten han, han ez baita halakorik behar. Horrela, beraz, egoera horretan bizi zen ez erdietsi ezta ezabatu ere egin ez zen amets arkadiar berariazkoa. *Arkadia*, hau da: berez otzan den paisaia, elkarte, zorion presente idiliko soila, otsoaren gisako orotik *a limine* urrun. Berotasuna, segurtasuna, bozkarioa, errugabezia loratzen dira otsoen orde, asmo bereko zirenen talde bat bizi zen ibar hartan natura halaber adiskidetsu batean. Halako idilioa ez zen arrazoirik gabe artzainen eskualde bezala aurkeztua, erabat bukolikoki Teokritoren Idilioez geroztik edo Epikureoren ortu noblekiro zinikoen kopia gisan. Urrezko aroaren sagak areago arketipo bezala balio zuen testu bat gaineratu zion eta geroago Bibliako paradisuen irudia, benetako jatorrizko ortuarena, Eden galduarena. Berpizkundeko lorategi hain artifizialek ere, are rokokoek eta batez ere lorategi ingeles berantiarrek, itxuraz Händelek bere "Largon" kantarazten duen harako "kanpora zuen itzal berdeetara" hura, egiaztatu dute.

Nolabait esateko lorategi gisako bat bere baitan bateratua hemen, Teokritoz geroztik, eskura dagoen artifizialtasun oro barna eta behin eta berriro arkadikoa buruan izanik, basatitasunik gabe, eskenatoki arkadiar baten etengabeko ispilaketa eta are sentimendu garbiz. Horretan ez bakarrik dago artzainkeria, baizik hementxe zegoen baita ere, plan nabarmen goragoko batean, Mozarten Figaroko azken ekitaldiko lorategia: han ez da sartzen inolako hats hotzik gainerako mundutik, izarra dago gailur irmoan, "gaueko izarrek hain maitekiro begiratzen du gure maitasunaren gainera", ezkutuki samurra, loreen usaina, udako gaua, liluramendu barea inguru guztian. Klopstocken oda batean arrosazko hormekin xuxurlatzen duena ere "eta gure inguruan Eliseoa zegoen", grina bera ezin izan daiteke paradisuko giroa nahi delarik etengabeko samurtasunezko errugabeziarik gabe, erori gabeko Arkadia bete, inolaz erro ez den Venusen mendi. Horrela halaber ez da Arkadia irudietan, literaturan Zyterea bete bat edo Tassoren Armidaren lorategi magikoa, ez dago beraz sargori, baizik adiskidetasuna eta bakea. Baina hori erabat da gazte, lurtiar, inolaz ere ez serafindar, ezta antzina tartekaturiko beste munduko zorionean ere, irudi gehiago edo gutxiago zerutiarretan ere, haien inguruan Eliseoa eratzen zelarik. Zein hunkigarria den horrela hain zuzen Arkadia Glucken Orfeoren musikan, halako Eliseoa ikustean: "Zein ortzi gardenak estaltzen duen leku hau, / argi samurrenak distiratzten du nire begirada"; erori gabeko natura inolaz. Irudi zerutiarrek ere itauntzen dute hemen gizon eta emakumearengatik, nahiz eta, hobe xamurtasuna haien osagarri delako. Eta Rousseuren hemengo alde hau behin eta berriro da helburu, egiaz protesta bare bat zapalkuntzaren bezala, "ez-naturalaren" eta artifizialaren kontra. Ezer baino lehen adiskidetasuna zabaltzen da luze eta zabal eskualde honetan, Arkadia deitzen bada behintzat.

4. Jatorrian izen hau egiaz ez zen inolaz ere ederra. Arkadia deitzen zen jatorriz inolaz oso apartekoa ez zen Peloponesoko larre eta mendi eskualde bat. Hango paisaia pozezko eta are zoriontsua K.a. 42. urtean sortu zen Virgilioren esker. Halako adierazpen bat egiteko aukera Polibio historikariak eman zion, berez garrantziarik ez zuen Arkadiakoa baitzen bera eta bere jaioterriarekiko maitasunaz edertu zuen hura. Hango artzainak gizakirik onen eta jatorren eta alaien bihurtu zituen eta kantara emanak une berean. Egiaz Pan artzainen jainkoak, xirula lehenen jo zuenak, bazeukan han egoitza mitiko bat. Horregatik, Virgiliok bere artzain poesiak, bere Eglogak idatzi zituenean, Arkadia jatorrizko lur bukolikotzat jo zuen. Berritua izan zen antzinatean dagoeneko Arkadiako poesia "sentimental", hau da Schillerren ustez "natura bilatzen zuena", Berpizkunde hasieran berriro Sannazaro napolitarraren bidez, 1480.ean idatzi zuen artzain-nobelan, hain zuzen ere "Arkadia" izenburua emanik, eta ondoren etorri ziren beste askoren bidez. Baina parajea bera, erabilera poetikorik gabe, pinturaren bidez adierazia izan zen, bereziki Poussinen Arkadiako bi irudiri esker. Egia da halaber -eta hemen Manierismoak hartu zuen esku, iraganari begiratu beltza emanez hain zuzen ere naturan, hango bakerik ederrena alde batera utzita-, egia da Poussinengan ere kontrakolpe melankoliko batekin, *Carpe diem* haren erdian. Arkadiako irudietako batean izan ere ikus daiteke buruhezur bat, bestean berriz zerraldo bat, nolabait esateko, gorputz arrotz inmanente bezala, azpian idatzirik duela: *Et in Arcadia ego*. Hori gero Schillerrek inolaz "Eroapen" poesian berriro ere antzinako musika arkadiarrez osatu zuen, hobe esan, atzekoz-aurreratu zuen, zerraldoa, *vita brevis*, albo batera utziz eta *ars longa* hobetsiz. Eta hala itzuli zuen esaldia: "Ni ere Arkadian jaio nintzen", beraz: artistaren *Ego*-a iraganean jarritz, baina baita ere aberri arkadiar musikal berriro eskuratuaz hornituz betirako. Ego Goethe bestalde, Erroman bigarrenez izan zenean, inolako manierismorik gabe, benetako "Arkadiarren elkargo" batean onartua izan zen, hauek osasun, sotiltasun, gehiegikeriekiko urruntasun klasikoak arkadiar bezala ohoratzen eta erabili erabiltzen zituztenez. Artzain ohoretsuak biltzen ziren hemen Panen baretasun

berariazkoan: "Horrela joaten ziren lur irekian barna, Erromak barruan eta murrue inguruan dituen hainbat landetako orduetara. Horren bitartez uste zuten naturara hurbildu eta aire garbian poesigintzaren jatorrizko izpiritua somatzen zutela". Utz ditzagun berriro ironia eta auzi arkadiarraren kategoria goretsiak ere, eta itzul gaitezen aire garbi edo naturaren gustu gutxi daukan Poussinen Arkadiako irudiko *"Et in Arcadia ego"*ra: Goethek esaldi hau jarri zuen guztiz eraberritu bezala, idazpuru guztiz munduzale bezala bere *"Bidaia Italiarrak"*-en lehen argitalpenean, Italiaren eta norberaren izatearen ohorerako gainera. Horregatik *"Et in Arcadia ego"* erabat apartatzen du buruhezurretik eta zerraldotik eta berarengana, bizi den artistarengana zuzentzen du, eta Arkadia, antzinako Peloponesokoa, gero poesia soil, Magna Graecia-ra zuzentzen du zehazkiro, Italia bailitzen. Zodiakoak hemen balio izango balu, Bikien zeinu aldatua litzateke, Castor greko batena eta Pollux erromatar batena, halako Arkadia bat bedekintatuz. Arkadia baino hurbilago Italia adierazten zuen Alfieriren esaldiak, hau zela giza landarea ederren zabaltzen zen lurra. Goetheren arabera, zabaltze bat bezala, halaber berez osasuntsu bezala, gaiso egotea alde aurretik jarria ez balego bezala, ohizko zentzuan sendatzeko beharrik gabe, sendatzea gaisotzeari bakarrik lotu behar balitzaio bezala. Eta *"Italiako Bidaiak"* eta haren ondorengo sorkuntza baino askoz geroago, Goetheren Faustoko Faustoren eta Helena greziarraren gaiaren bidez itzultzen da Arkadia bere lehen jatorrira, Peloponesora, hura baitzen Helenaren aberria. Baina une berean aberri hau izango zen topaketaren leku baliozko bakarra, inolaz ere zentzurik zabalenean ulertuz: "Ez zara harresi artean atzemana izango! / Badirau oraindik betiko gazte sasoian/ guretzat, bada alderdi zoragarri bat / Arkadia Espartaren auzoan. / Erakarririk lur zoriotsuan bizitzeko, / patu alaienera ihes egin zenuen! / *Tronuak oin-aulki bihurtu dira*, / zabala bedi gure zoriona Arkadia bezala!" (Fausto II, 3. ekit., 9.566. bertso eta hh.). Hor gainera zantzu *librea*, *libre izate erregalatuaren* zantzua azken bi bertsoetan uka ezinezkoa da. Libre izatea inolaz ere hegoaldeari dagokionez ondo heziaren zentzuan, organikoki eta arrandikeriarik gabe sendatzen denaren zentzuan inolaz han, hartan, Goetheren Credoaren arabera era ez bakarrik antzinakoan: "Zein gauza gozoa den bizidun oro, zein egiazko, zein baden!". Honetan ez zen falta, oraingo zorion emale batekin batera, atseginaren zorion errugabea, baina inolaz ere beti Hörselberg gabe. Berriro ere Italiara joanez (Arkadia benetan oso berezi, hau da dionisiako bihurtu batekin) 1787ko Heinseren *"Ardinghello und die glückseligen Inseln"* nobelan, non gizakiak ez bakarrik landare bezala ederrenen zabaldu nahi lukeen. "Gero eta sakonago joan zen bizitzan, eta santuago bihurtu zen festa, begiak distiraka ari ziren pozezko malkotan... *Betiereko udaberria*, itsaso eta lur eta osasun edertasun eta emankortasuna". Heinserengan ere Peloponesoko jatorrizko paisaia baketsua abegi ontasun moduko bat bihurtu zen (ez noski guztiz "Arkadiarren elkarte" ospetsuaren zentzuan); Panek hori sehaskan kantatua zion dagoeneko. Virgiliogandik Goetheganaino noski desioak, eskatzeak, arteak, inolako estaturik bat ere gabe, han oporrak eginak zituzten noski, batez ere Rousseunismo harrigarri batez horniturik, mahaia paratua zegoen dagoeneko leku adiskidetsuan, bakean utzia izate bakarrarekin. Honaino beraz adierazgarri den idilio eta poesiaz, alegia: zein arina eta baketsua litzatekeen gure bizitza, medizina naturala zentzurik zabalenean, ondo hezitakoen lekuetan fidatuz.

5. Zein garrantzizkoa izan zen ordea hain zoriontsu deituriko lurraldeak jokatu zuen papera, eta ez bakarrik poesian. Maitagarria benetan, Italiarekin konparatuz, baina garbi dago bertan bizi ziren nekazariak ez zirela bisitari zoriontsuak bezain arkadiko. Horrela beraz Arkadikoa, orainarte zorretan utzitako guztia arren, apainketa gisan oraindik, lurralde *sozial-utopiko* batera sartzen da etengabe, eta hemen bere ezaugarri propio eta ez poetiko soilarekin. Horrek seinalatzen du utopia sozialean arkadiko pasiboaren eta

pentsamolde nahai eta planifikatuaren arteko diferentzia. Hauxe da irudi arkadiko jolasti, nagusiki pasibo, halaber gehiago gizartetik apartatzen direnen arteko eta berezko *produktzio* eredu sozial-utopikoen arteko diferentzia, azken hau gizartea sarri abstraktuki baina beti era inmanente eta eraikorrekin hobetu nahi zuen eredu bezala harturik. Egia da inolaz utopia sozialari dagokion guztiak halaber eta aspaldidanik hegoalde-ama-natura arketipo arkadiar soilen eragina duena; -tentsioa kenduz, baina berriro ere kontutan hartzeko modukoa.

Horrela, bada, leku hobe batean hasieratik bertatik ezer mingarririk ez badago. Batez ere han banda pozgarriek jotzen dutenean, nahiz gehiegizkoak izan, baina txikienean ere azkeneraino eramanak, orduan Bonbonerrian gaude. Uso erreek hegan egiten dute ahora, ibaiek ardoa daramate, hau eta bestea ere gizartean Arkadiatzat jotzen da. Prezio merketuan, noski, baina gehiago preziorik bat ere ez eta seguru nekerik ere ez den moduan merketurik. Hain gutxi, ze lehendik ere ez baitzuen nekerik sortzen inolaz berez erregalatzen, abegi ona egiten eta ematen duen zerbait edukitzeak. Eta hori oso nabarmen ikusiko da arkadiarrak utopia sozialen, batez ere zaharrenean *toposean* izan zuen eraginean, eta haien barruan. Utopia hauek finkatzen dira *barruti presente* batean bezala baina *urruti batean* ordea, ez *egiten ari den denbora batean*, orainetik urrun batean, ez hemendik (gizarteari dagokionez) urrun batean. Hegoalde oparoa aurkitzen da, ordezkio nolabait, bestela guk *egin behar dugunaren* zulo estaltzaile bezala besterik ez bada, Theopompos edo Jambulos baten utopia sozial helenistikoetan; *geografiaren aldetik* bakarrik daude urruti, ez *etorkizunaren aldetik*. Tomas Moreoren Inon-ezak, Utopiak Berpizkundean itsasoko bidaia behar du bakarrik badagoenera besterik gabe iristeko; eta beste hainbeste -bestela hain neurri eskasean arkadiar eta adiskidetsu bada ere- Campanellaren *Civitas solis*-ek, ehun urte geroago. Han alde guztietan daude "uharte zoriontsuak" edo hegoko itsasertza gutxienez, dena erakargarri margotzen duen bidaiako liburuki bat bezala kasik, hobe oraindik: Gauguinen Tahitiko irudi paradisiarretan antzo, hobe oraindik: argiaren gelatan bertan bezala. Lehenbizi Mercieren "L'An 2240" obran, hamazortzigarren mendean, gero zabalago, hemeretzigarren mende hasieran, Fourieren "*Le nouveau monde industriel*" obran utopia soziala denbora urrunera, etorkizunera bidaliko da. *Homo faber* da aurkezten dena, lurraren begikoaren ordezkio, eta harekin *rerum novarum* jakinguratsua bezala gauza horiek sortzen eta uztarketa desberdinetan finkatzen dituen gizona. Egiaz, *rerum novarum cupidus* esaldia bera zaharra da eta Zesarek erabili zuen historia-egile erromatarrei baino gehiago lehen galiarrei dagokienez. Egiaz benetan eta erabat bestela egiaz, badaude lekualdatze batzuk Virgiliorengan bezala Biblia guztian zehar esnea eta ezitia darion lurraldea etorkizunean, azkenik eskatologikoki oldartzen den lekuan kokatzen dutenak. Virgilioren 4. Eglogak, Bibliaz aparte ere, bazituen halako iragarpenen eraginak; Biblia barruan lehenbizi Agustinek eta ez azkenik Joachim di Fiorek, Ertaro garaian, Kanaango egiazko mahatsondoak *Omega historiko* bezala finkatu zituzten. Horrela gisa honetako Logosak ere ez zuen baztertu geografia soilaren tradizio asko jatorragoa, geografia hori presente bezala, eta ez egiteko bezala jartzen zuena. Elizarentzat edozein modutan hain etorkizuneko zen salbazioko lurraldea berriro eratzen zen urrutiko barruti batean, nahiz prest zegoen beste munduan, guztiz altzariz jantzia ez bazegoen ere. Eta zehatzago, guzti honek dituen eragozpen sozial benetakoei dagokienez, gizakien laneko emankortasun propioa ez zen aski iraultza industrialaren hasiera aurretik utopiarik ausartena urrutiko existentziarik gabe pentsatzeko. Beraz dagoeneko urrutian, Gea-z beterik badagoen zerbaitetan guri eskaintzen zaigunaren izate-barrutirik gabe. Beti dago honen ostean festa eleusiar bat, Demeter "munduaren ama zorion emale" eta guzti, Zibeles ama oso handia eta bere semeak bezala izan ahal izateko gogo eta guzti. Hortik beraz utopia sozial *egintzaileetara* ere iristen den iritzia:

halako mundu hobe bateko zoriona, errugabezia, bakea eta adiskidetasuna era arkadiarrean erdietsiko dira, hau da borrokarik gabe, sorkuntza ahaleginik gabe, segurtasunez *a limine*. Horrela erakusten zuen bere eragina Arkadiak tentsioa baretuz, ez bakarrik oratuz, bai jakinaraziz adiskidetasunaren barruti utopiko hori bera. Era horretan ordea portaera arkadiarra ez da baliapide egokia *auzi* arkadiarra, *rebus sic stantibus*, irabazteko, Geßler beti han bada. Baina era berean baita ere: Arkadiarra *fruituen eta helburuaren irudi* bezala *jakinarazpen* bat baino gehiago da bidean, *zuzentzaile* bat da -inplikazio askoz sakonagoak sortuz- mundu hobearen eredu. Zilegi den Baldin balitz? batekin, baldin iraultzen emaitz posiblea denboran izan litekeena, benetan "uharte zoriontsua" edo Roussearen "*Nouvelle Heloise*" paisaia, labur esateko: "adiskidetasuna" zuzenbidearen zuzentzaile bezala hartu behar balitz. "Hain erraza eta baketsua litzateke gure bizitza" (Brecht), hain indartsu segurta zitzakeen "osasuntsu izateak berak" giza egintzak artifizialtasunaren kontra.

6. Bestela ordea etengabe dirau bi moduen artean banatzen dituenak. Alde batetik artzainaren artean eta bestetik *homo faber*, egiten eta nabarmentzen denaren artean. Gordetzen eta ezer baino gehiago uzta biltzen duenaren artean eta eraikitzen, sekula hala izan ez dena eta izan ere izan ez denaz gaindi jasotzen duenaren artean. Era horretan inolaz ez dago gainerako ibilbidean alternatibarik itxuraz "garatu" *bakarraren*, eta "egintzaile" *bakarraren* artean, Heideggerren "sendren" edota Th. Lessingen "Lurraren gainbehera izpirituan-en" artean, are Klageren "izpiritua arimaren kontraesale bezala" artean. Arkadiarra jatorriz ez da zorion burges bat inolaz, eta lotsagarriena izan da "odol eta lur" bezala iritzi zaionean; horrela bakarrik litzateke eraikuntzaren alternatiba, batez ere munduaren eraberriketaren izpiritua erabat ezereztasunean, hoztasunean eta artifizialtasunean jartzen duen beste gainbeheraren alternatiba. Horren ordeaz arkadiarra da, esan bezala, zuzentzaile bat, pentsatzen duen "ez nazazu ahaztu" batekin batera; eta hori hain zuzen eraberriketaren, urdinera jotzen duen zaldun urdinaren *Plus ultra* batean, konstituitzaile arkadikoak ez du gutxiago balio gehiegi planeiatzen eta berotzen duen, eta dagoeneko benetan eraikitzen hasi den utopia sozial baten zuzentzaile bezala. Baina orobat balio du jaso dituen bere baketasunean eta gizatasunean; beraz, orduan ere, gero eta gehiago, *rebus sic fluentibus*, bidearen eraikuntzan bertan helburua galtzea zigortuz. Oraindik askatasun asko geratzen da beraz, hemen hitzaren bi zentzuetan: naturalizat harturiko liberalismo bezala eta libertate natural bezala, zeru azpi zoriontsuago batean. Hartaz giza landare esaerarekiko zorra bere era idealean kitatu gabe dago guztiz; ezta Belvedereko Apolo hain goren eta ingurura begiratzen duenarengan ere. Giza azalpenaren irudi gidatzaile naturalen honek ere gustu arkadiarrari erantzuten zion, eta erarik ez kristauenean gainera.

41

Excursus: Bikote gorena edo ilargi-eguzki syzygia maitasunean eta haren utopian

1. Bik elkar maite dutenean, lehenbizi apartatu egiten dira besteengandik. Baina bien artean eta haiei dagokienez esan ohi da: gerta dadila. Ez bakarrik lotzen du, baizik biak bat egiten ditu eta bata beste inon ez bezala berriro bi. Hori ernalketa araurik gabekotik atera zen bezain laster, harrigarriro handi bezala ere azal zitekeen. Beraz, era deigarrian eta denen aurrean gertakari eta kasu bakoitzean ni eta zu soil baino gehiago bezala azaltzen zen. Bazirudien beraz ohizko ezkontza deitua baino gehiagotarako zela ez bakarrik beraientzat eta beren seme-alabentzat, baizik argi eta garbi besteentzat ere. Era deigarrian eta denen aurrean azaltzen da oraindik beste bata bestearentzat izatea, are gartsuki gertatu zen behinola.

2. Has gaitezen, hasieratik era ez hain aparteko hau aztertzen, egunorokotik. Mutil batek, adibidez, inolaz ere nahi du bere neska hautatuarekin ikus dezaten. Gehienetan

harro dago noski, baina ez al da agertzen gurari honetan irudi bat, hain zuzen ere *ikus dezaten* nahi duena? Batez ere zorrotasuna nolabait esateko eta samurtasuna, gizonaren indarra eta emakumearen grazia elkarrekin osatu nahi dituen gisakoa? Hori *kitsch* bihurtzeraino joan daiteke eta esanahi zaharragoak gordetzen ditu sarri, elaberrietara doa Richard Vossen "*Zwei Menschen*" gisan, baina lehenago joan zen lapurren elaberrietara, buruzagiaren eta bere lapur andregaiak osaturiko bikote berariaz goraiatuarekin. Aipatzeko moduan luzatzen da bi pertsonen kontu hau benetan biko bezala egunkarietako esaera zahar hartaraino: Printze oinordekoak eta bere emazte gorenak gure hiria bisitatu dute. Printzesa guztiz onbera, printzea guztiz indartsu, ilargiari dagokiona eta eguzkiari dagokiona haragi bihurturik. Gauza oso zahar bat, oraindik irauten duen bat azaltzen da halaber azken honekin begien aurrean, ideologiak erabili duena, klaseei dagokionez baliozkoa, agintzen dutenentzat baliagarria, baina bere horretan guztiz ahitzen ez dena. Eta inon baino gutxiago, bikote gorenaren erretratu batek pertsona oso fin batzuen ez duela derrigor izan behar pentsatzen denean. Aldiz, eragin gehiago zeukan han goiegitura ez bakarrik sozial batek, baizik arketipo eta astral bezala gora jasotako batek; mitoen historiaz guztiz bete batek, geroago ikus ahal izango denez. Arkadiarrak eta bere *imagoak* lur adiskidetsua, *Bona Dea*, *Magna Mater* zeukan euskarritzat; bikote gorenaren *imagoak* aldiz ez zuen ezer gutxiago irudikatzen ez bada ilargiaren eta eguzkiaren arteko topaketa, uztarketa eta bateraketa munduko maitasunean.

3. Horregatik, hitzez hitz, goraka egiten zen bien inguruan, hau da goraka erakarrit. Emakume-gizon osagaiak era kosmiko batean ziren, nolabait esateko, eta hori kristau ez ziren oinarriak hartuz. Luna izan ere (Gearekin batera) idolo matriarkal bat zen Sol patriarkala zen bezalaxe; sentimendua gau babeslea hemen eta indarra, egun distiratsua han. Egia da egiazko ilargia eta egiazko eguzkia ez daudela biak batera egiazko zeruan. Bai ordea inolaz irudi erotikoa bezala. Horrela azaltzen da maitasun handiari dagokionez "*Westöstlichen Diwan*" obran: "Badator eguzkia! Azalpen bikaina! / Ilargi erdiak besarkatzen du. / Nork batera zezakeen halako bikote bat? Nola argitzen da asmakizun hau? Nola?". Heraldikaren aldetik bikote magikoa gordetzen duen Turkiako eguzki-ilargi ordena batekin loturik, hemen, Hatem eta Suleikari izarren gisan beren oraingo distira bikoitza egotziko zaie. Goethek ekialdeko gisako bikote magiko bat ekarri du gogora: "Sultanak egin zezakeen eta munduko bikoterik goren-gorenena ezkondu zuen", askoz atzerago eramanez, ezkontza zerutiarra alegia. Izan ere Babiloniako erlijio astralean bazegoen "ezkontza santu bat", kasu honetan jainko sultan eguzkizkoarena. Baal-Marduken, egunaren kultuko jainko gorenaren ezkontza zerutiar bezala Istar-Sarpanit ilargi jainkosarekin. *Hieros gamos*, ezkontza santuak bazeukan Babilonian urteberritan festa berezi bat; beharbada Eleusin fededun berriei sinbolikoki aurkeztzen zitzairen Zeusen ezkontza Demeterrekin, Ekialdeko bateratzearen festa horretatik dator gainera. Areago, urbi eta orbi eraman zuten Antzinako Babiloniako bateratzea erromatar berantiarrek, Heliogabalo zesarra, Baalen apez siriarraren aurrean Tannit ilargiaren jainkosa kartagotarraren apezesarekin era guztiz sinbolikoan ezkondu zenean. Eta hori bere eguzki jainkoa ilargi jainkosa kartagotarrari ematen zion ekitaldi berean; apainduria soil bihurturik, baina ikusteko moduan ezkontza astral baten kopian, antzinako Babiloniako haren festan bedeinkazioa erakartzen zuen zuku bat antzo munduan adierazia izan zen edo adierazia izan behar zuen bezala. Bikote gorena, orain era *antzinako*-ekialdekoan, une berean heterairaren itsasketa garrantzizko bat duena ("ilargi kasto aldikor dabil"), loratzen zen geroago, guztiz egiazko, Egiptoko lurretan Antonioren eta Kleopatraren maitasunean. Antonio bere emazte Oktaviak Atenasera iritsi zenean, atenastarrek ospatu zuten, erabat izarrik gabe, Dionysos berri bezala eta bere eskuetan jarri zuten, erabat Luna gabe, Athena hiriko jainkosa; Antonio bera

nahiko erromatar zen mila talentu dote bezala eskatzeko. Partenongo altxorretik ordaindu zitzaizkion, baina bikote gorenaren mitoa bizitzaz ordaindu zuen, Kleopatrarengana joan eta harekin geratu zenean. Biak bizi izan ziren Isis eta Osirisen oinordeko bezala, ilargiaren eta Egipto berantiarrean gero eta sarriago jatorrizko eguzkiaren jainkoaren lekua hartzen zuen Osiris haren ondorengo bezala, -orain ordea era berean Asia Hurbileko mito astralean, erortzen eta berriro bizitzara datorren eguzki bezala. Antonio-Kleopatra ez bakarrik izan ziren Osiris-Isis bezala ohoratuak, baizik areago elkarri hala ohoratzen zioten; beren seme-alabak, garbi adierazteko moduan, Helios eta Selene deitzen ziren. Are oraindik bere burua hiltzeko Kleopatrak erabili zuen sugea hemen Istar-Isis ilargiaren jainkosaren aberea da; Sidonen aurkitu zen Istaren estatua txiki bat bularrean suge bat zeukana. Ez zen beste era batean hil historiako Kleopatra oinordeko zenez, ez zuen bestela geratu nahi izan legendaren begietan ez bada Istar-Isis bezala, ortzi goian Osiris-Antonio zeukala; "bikiak", bikote hori Shakespearek ere deituko duen bezala. Dinastiari guztiz egokitua dago guzti hau noski, baina ez da guztia horretan ahitzen: ilargi erdia eguzkiarekin batera, "ikuskizun apartekoa", hori itsatsi zaie ekialdean maitasun irudi kasik guztiei. Bi natura bat eginda, munduaren bi argikariak beraien barruan dituela, beraien gainean, -utopia erotiko bat kristautasuna baino lehenagoko eta kanpoko gisako mitologiarekin batera.

4. Alabaina: herritik hain zuzen etorri zen beste bikote bat, eta arrakastarik handiena izan zuena gainera. Eskena lurralde biblikoan altxatzen da gainera, Samariako Simon Aztiari dagokio, Faustoren eta greziar bakarrik ez den bere Helenaren aintzin-irudiari. Simon Aztia, Jesusen garaikide bat, nahiko gaizki ateratzen da Apostoluen Eginetan (8, 9-23): diruzalea, aztia, iruzurgilea; azkenean Neron zesarraren aurrean airera altxatu omen zen, Jesus bezala bera ere jainko zela egiaztatzeko, eta erori eta lehertu egin omen zen. Baina lehia itxura daukan informazio honetaz aparte, ez bakarrik uste da historiako benetako Simon Aztiak idatzi zuela *Megalê apophasis*, Agerpen Handia, baizik areago: azti honen ibilbideak eta legendak bikote gorenaren arketipoaren haragi egite *ezkutuen* bezala aurkezten dira. Halako moduan non hemen sortzaile bat hasieratik azaltzen baita galdu den zerbait bilatzen ari dena bezala, aurkitu behar den galdutako zerbait, alegia. Horrela etorri zen bera lurrera, ez Jainkoaren Seme bezala, baizik antzina bere alabarekin, bere maiteenarekin, bere bigarren pertsonarekin bat zen Jainko Aita bera bezala. Bere da artzain onak daraman ardi galdu bezala adierazten dena, eta baita ere Sophia bezala. Bibliako liburu berantiarretan Jainkotasuneko bigarren pertsona bezala azaltzen den jakituria bezala. Greziarren artean, aitortu zuen Simon Aztiak, haren susmorik izan zen Athena bezala, alaba misterioitsua, benetan bakarra, Ennoia bezala Zeusen burutik sortua baitzen. Beraz, Sophia honek, horrela irakasten zuen Simon Aztiak, *jatorrizko Jainko*, *jatorrizko gizon* bezala, *Jainkoaren alabaren Jainko Aita bezala*, -Sophia honek, Jainkotasunaren bigarren pertsona bezala lehen pertsonarekin inzestu sagaratu edo ezkontzan loturik geratu ordez, bere azpiko eskualde apaletara begiratu zuen, demonioek beren egoitza duten lekura, eta hauek bahitu egin zuten. Ez ordea bera bahitzaileekin maitemindu gabe, geroago Troiara bahiturik, baina ez pasiboki eramana, eta Luna aldakor bezala ikusia zen Helena bezala. Utz dezagun hori. Demonioek menperatu egin zuten Sophia, munduko gela behekoenetan eduki zuten ezkutaturik eta txandaka emakume gorputzetan haragi egiten zen. Berak ematen dio emakumeari edertasun misterioitsuena, Helena troiarrari noski, baina baita ere -eta horretaz segidan- Tiroko Helenari, inolaz erregina ez zen bati eta inolaz ere Ilion goren ez zen leku batean. Jatorrizko aitak bitartean, bakarrik geratutako *Megalê dynamis* horrek, Jatorrizko Indar Handiak Sophiaren lapurketaren ondoren goiak utzi zituen, eta bera ere txandaka itxura desberdinetan haragi egin zen beheko mundu guztietan zehar, galdutako alaba-maiteena bilatzeko eta aurkitzeko. Bere azken gorpuztea, hau da haragi

egitea, iragarri zien Simon Aztiak bere ikasleei gero, Samarian Simon Azti bezala ikusia izan omen zen, eta bere bilaketaren amaia Tiron gertatu omen zen. Han gertatu baitzen unerik gorenena: berak aurkitu zuen Ennoia-Sophia lapurtua bere haragi egite ezkutuenan baztanga bezala marinelen bordel batean, Helena tiriarr bezala, hain apaldurik eta horregatik hain ezagutzeko moduko, hain betea eta ahal bezain altxatua izateko moduko. Zalantzarik gabe Simon Aztiak une horren legendarekin arketiporik bortitzenetako bat eskaini zuen, hau da *Anagnorisis*-arena, galduen arteko berriro ikustearen momentuarena alegia. Hori ez da sarri gertatzen legendatan ere; Biblian Anagnorisis hori, beti bortizki eta hunkigarriro jotzen duen zerbait bezala, Jose eta bere anaien topaketan azaltzen da, Grezian Sofoklerengan Elektrak eta Orestek berriro elkarrekin topo egitean dutenean, hobe esateko: elkar ezagutzen dutenean. Ireneo da (Adv. Haer. 2. kap.) gogo txarrez kontatzen duena goian aipatu dugun bikote gorenaren kasua Simon Aztiaren eta Helena tiriarraren kasuan; une berean bordelak Helena tiriarra hain zuzen ilargi eta izarren mitoaren tradizioa eraman zuen, Ennoia-Sophiaren tradizioaz aparte. Möhlerek esaten duen bezala: "Astarte siriar feniziar hura, Luzianok (*De dea Syra* 4) Seleneia deitzen duena, ez bakarrik zen zerbitzatua emakumeen eta birjinen prostituzioaren bidez, baizik, sagak kontatzen duenez, bera ere hamar urte luzez eta hain zuzen ere Tiron prostituitu zen" (cf. Hilgenfeld, *Die Ketzergeschichte des Urchristentums*, 1963, 174. or.). Baina Anagnorisis legendarekin berarekin ordean Simon Aztiak hartu zuen berriro bere ibilbidean Selena-Helena hau; Jainkoa eta baiaderak era astralean. Elkarrekin abiatu ziren beraz biak, Azti eta inolaz penientziarik egiten ez zuen Maria Magdalena hau Erromako erreinuan zehar. Bikote gorenaren irudi ez dinastiko honen inguruan berehala Simondarren kultu elkarte bat eratu zen, Elizako lehen Gurasoek oso gogor borrokatu zutena eta elkarteak galdu egin zen. Baina areago, iraupen setatsu eta une berean nahasiari dagokionez: Simon Azti izan zen argi eta garbi Faustoren sagaren irudiaren iturburu zaharrena. Eta Helena, troiar bezala bakarrik harturik noski, 1587ko Faustoren lehen liburuan azaltzen da Simon Azti-Fausto ahaztu gabearen ondoan. Simon Aztiatik bakarrik azaltzen da Helena Faustoren ingurugiroan, Goethe eta honek Fausto-Helena bateraketari gortean, Espartan ematen dion edukia baino askoz lehenago. Inolaz, *kristaututako* munduak berak apenas zeukan lekuri edo ez zeukan bat ere bere bikote handi eta kanonikoki aurkezturikoentzat, ezta mito astral bezala harturiko edo hala izandako zantzuarentzat. Ez zeukan lekuri maitasun zoriontsu edo are gutxiago zoritxarrekoentzat, ezta bikote ez-garaile baizik sufritzaile eta heriotzera kondenatuentzat ere, bikoitza hemen halaber oso gora jaso egon arren. Romeo eta Julieta, Paolo eta Francesca da Rimini, Tristan eta Isolda bezalako bateraketa hain desberdinen bikote-transzendentsia funtsezkoak, baina baita ere Abelardo eta Heloisa bezain errealek direnak, edo kasik kristau ondare diren Werther eta Lotterenak, ez daude munduarekiko inolako analogia lukeen zantzu eginak. Arrazoi handiagoz oraindik ez dago -ezta herese sekta kristauetan ere- sexualterik Ave Maria eta Spiritus sanctus mailan ere. Eta Mariarengan oraindik garbi badaude ere Istar-Isis irudiak, eta Jesusengan Heliosenak: Maria ilargi erdiaren gainean dago *zutik* eta ez da hura, Jesusek zeruratzean eguzki ikurrin bat darama baina *eskuan*. Eta Maria zen Kristoren ama, ez alaba, ez galdutako erdia edo ordezkio bezala jatorrizko jainko edo jainko-gizon batekin berriro ezkontzen zena. Tanchelm izeneko Brabanteko lekaide bat hamaikagarren mendean neska nekazari batengan haragi hartu zuen Maria Birjinarekin denon aurrean ezkondu zenean, kristautasunetik kanpora geratu zen herese bezala. Eta gehienik ere apokrifo batean, Egiptiarren ebanjelioan azaltzen da -hemen *qua* Salome-Jokanaan- Jesus mesiaren eta Maria Magdalenaren arteko topaketa batetik oraindik -ez birao bezala pentsaturik- lehenbiziko eta bigarren argiaren oihartzun bat maitasunezko zero magikoan.

5. Descartesen garaian oraindik Baal eta Astarte gisa erotikoan zeruan zeuden bitartean, ez noski kristauan, bai ordea Ekialdeak oraindik gorde zuen batean, Sara neska judutar baten zeruan alegia, eta Baal hori Sabbatai Zewi mesias gezurrezkoa zen. Neska kaletik jaso izan zen, bataiatua, eta komentu batean hartua. Heldutasunera iritsi zenean, nobiziak ezagutu zituen amets harrigarri batean bere jatorria eta gainerakoak. *Pogrom* handi batean hila izan zen bere aitaren izpirituak esaten zion aurki azalduko zen mesiasen emaztetarako izendatua zegoela. Horrela ihes egin zuen Poloniako komentutik, adierazi zitzaion bide luzean abiatu zen, eta gaua igaro -ezaugarri tiriari bat-bordeletan bakarrik igaro behar zuen, Sabbatai Zewi aurkitzeko. Benetan mesiatzat hartua zena Kairoko gortean zegoen orduan eta harekin, nolabait esateko, ospatu behar zuen ezkontza zerutiarra. Hori 1666. urtean gertatu zen, Zewik apokaliptiko bezala iragarri zuen urtean; horrela, beraz, mesia honek, inolaz Simon Aztia Aita Jainko gizon eгина bezala gogora ekarriz, bere dekretuak sinatzen zituen: "Ni Jauna zuen Jainkoa, zuek Egiptotik ateratzen zaituztena". Gezurrezko mesiasak bere andregai benetan hartu zuen, baina era penagarrian amaitu zuen, Barrokoko judaismo kasik guztia aztoratu bazuen ere. Turkiako Sultanak sokaren eta islamera sartzearen arteko aukera aurkeztu zionean, atezain bezala hil zen serrailo batean. Baina Bikote Gorenaren arketipoaren ondarea berriro ere errepikatuko zen judaismoan, inolaz Sulamita eta Salomonen, Salomonen eta Sabako erreginaren apainduria jakingarriaren pean. Sabbatai Zewiren leial batzuk geratu ziren oraindik, baina ezer baino gehiago hemen erabat judutasun barruko eta apokaliptikoa zen antzinako mito erotikoaren forma zen berritua eta bultzatzailea. Horrela, apenas ehun urte geroago, Alemanian, berriro ere halako mesianiko bikoiztu bat sortu eta sinetsia izan zen: Jakob Frankek, Hanaun, mesias bezala eta berriro ere *Megalê dynamis* bezala Simon Aztia legez bere alaba propioa emaztetzat harturik gortea ipini zuen. Alaba Jainkotasuneko bigarren pertsona bezala, lehendabizikotzat bere burua hartzten baitzuen, eta gainerakoek hala sinetsi ere sinesten zuten. Nassauko dukea bere dizipulua zen, eta Frankdarren sekta batek joandako mendera arte iraun zuen Polonian -Fausto-Helena edo ebanjelio apokrifo bat irakurri gabe gainera. Mendebal kristauan, masoien gisara eta ekialdeko kutsuz inolaz durundatu duen Bikote Gorenaren arketipoaren bestelako azalpenetako bakar bat ere ezagutu gabe. Adibidez Mozarten Xirula Miragarrian, "gizon eta emakume eta emakume eta gizon iristen dira Jainkotasunera" direlarik, Pamina gaueko erreginaren alaba bezala, Tamino Sarastroren eguzkiaren zirkuluaren eta bedeinkazioa sortzen duen haren itunaren oinordeko bezala. Horrela hemen mitoak erarik bizienean eta gizakiarekiko erarik maitagarrienean durundatzen du, *logia* solar hau ireki ondoren. "Xirula miragarriaren bigarren parte", Goethek geroago era harrigarri, ez harrigarri batean idatzi zuena, Paminaren eta Taminoren ezkontza Fauston garbi gainera Simon Aztia-Helena oroitzapenean durundarazten du, operetara murrizturik. Eta Pamina-Taminorengandik Helena-Faustorengandik bezala haur bat dator, han "genius" deitua, hemen "Euphorion", batean amildu, hurrengo gora igo, egiten duena. Horrela Mozarten eta Goetheren Pamina-Taminori geratu egin zitzaion, ekialdeko mitoen oihartzuna duten ipuinetan, Fausto Aztiari dagokionez Helenarekin geratu ez zitzaiona: ilargi erdiaren eta eguzkiaren arteko maitasunezko topaketaren metaforaren iraupenarena, aspaldiko denboratatik hartua, Helena arreba edo emazte delarik.

6. Bazegoen beti han gure larruan ez dela ezkututzen dirudien zerbait jokoan. Nola segitzen zuen beraz sinesten zen bikote horrek gizakiaren izateaz aparte ere oraindik? Ilargi eta eguzki erako zen lehenbizi, beraz erabat ez-gizatiar, bikote gorenean uztartu behar zutenak. Era horretan kosmikoki fundatu behar zen loturari dagokionez guztiz azpimarratzekoa da bikotetasuna, hain zuzen ere Simon Azti-Helenaren garai bereko emanazioari buruzko dotrina gnostikoan eta geroago kabalistikoa aurkitzen dena.

Jatorrizko Bat baten argi isurketa honetatik emanatzen duten kategoriek izan ere, mundua eratuz iluntasunean behera, "natura bikoitz bat egina" erakusten baitute. Eta hau hain zuzen, gorago azpimarratu den bezala, ondoren datozen gizonezko-emakumezko irudien kategorietan eta *penis-vagina* ordainetan zeruaren eta lurraren artean. Emanatzen duten irudien kategoria hauek, gnostikoen arabera Eonak, Kabbalaren arabera Sefirot deituak, aldioro bikoteka zeuden eratuak bata bestearen ondoan, ilargi eta eguzki bikotea zenbakiaren aldetik bezala tasun sexualen aldetik biderkaturik gain hartuz. Honen eredu bat (nahiz halaber ilargi-eguzki, jainkosa-jainko batasunari zegokiolarik oraindik) pitagorarrek eskaini zuten hain zuzen beren munduko hamar bikote pare unibertsalen beren taularen bidez: emakumezko eta gizonezko - ez-zuzen eta zuzen - mugabako eta mugatu - asko eta bat - ezker eta eskuin - mugikor eta geldi - oker eta zuzen - eskalenu eta koadratu - txar eta on - ilun eta argi. Taula pitagorar honek ez du eskaintzen noski eredu bat bere balio sakabanatueta, ez bada gehiago aldioroko ezker-eskuin atalen arteko ordainetan eta batez ere Eta-ren "syzygian", era horretan hamar bider ezkontza, kategorien kualitate-ezkontza formala paratzen dutelarik. Baina halako gehiago izan behar zuten zeruaren eta lurraren artean, hain zuzen ere oihartzun erotiko kosmikotan, *syzygian*, eon bikoteetan inolaz ere kualitate formalak bakarrik ez zituztenak. Eta eskolako jakituria gnostikoak ere horretan amets egiten zuen noski horrekin, Bikote goren soilekin Sefirotean, bikote bezala alegia. Valentino gnostikoak, Simon Aztia baino ehun urte geroago, emanazio zerutiarretako emakume-gizon kategoriak (gramatika aldetik ere genero femeninoa eta maskulinoa) deitzen zituen: Baretasuna (*sigê*) - amila (*hythos*), egia (*aletheia*) - izpiritua (*nous*), bizitasuna (*zoê*) - argi distira (*phôs*), elkartea (*ekklesia*) - gizakia (*anthrôpos*) eta horrela segidan. Zortzigarren eta azken bikote kategoriaraino, hau ere era berean androgino azaltzen delarik: jakituria (*sophia*) - kontzeptua (*horos*). Bikote goren guztiak ere, goitik behera datozen ideien emankizunean, eta berriro gora doazenetan. Bikote gizatiarren moldaketa arrakastatsua izango da moldaketa kosmiko honetatik etorki, urrezko ontziraino iristen dena, bizitza (*zoê*)-argi (*phôs*) batasunen laburbilduma astralean bertan. Hartaz maitasunak ez du norbakoitzaren gertakari mundutiar bat izan behar, ezta goitik behera era gnostikoan darion kabalaren ere, baldin eon pareek, hemen sefirot deituak, azkenera arte oraindik emakume-gizon izan behar badute ere. Azken bezala bazegoen hemen *-coniunctio*-aren ispilaketa mundutiarraz gaindi, *penis* gisako *Jota* bat biraka: Jainkoaren seinale bezala - gnostikoki ondorio zuzena, kristauki izugarrikeria bat. Baina seinale honek sinatzen zuen gardentasunik handienaz jatorrizko izateak berarekin zuen *cohabitatio* beti gauzatua, *syzygia* gorenena.

7. Oso katramilatua guzti hau, gehiegizkoa ez esateko. Zein bestelako azaltzen den hortik ikusita bikote *kristauen* eraketa ere, ezer baino lehen denek eskura duten bikote bezala. Izan ere orain arteko bikote goren guztiei leinu altua funtsezko gertatzen edo gertatu ez bazitzaie, maiteminduek besterik ez bada urrutitik jarraitzeko moduan argitu nahi bazuten ere, geratzen zen oraindik harrotasun bat, edozein baten kontua izan ezin zitekeena. Ezer baino lehen bikote gorena gurutzatzen zen antzinako ezkontza pagano eta astral zerutiarrekin, kristautasunaren aldetik ukatuekin, gnostikoek bakarrik gogoratzen zituztenekin. Atzentze horrek zilegiztatzen zuen guztiei, atsekabetuei eta umiliatuei zuzendutako ezkontza sakramentu guztiz bestelako eta kasik guztiz *pneumatiko* bezala. Alferrik ipini ziren Testamentu Berriko Maria guztiak, bereziki Maria Magdalena Jesusen ondoan, hau ere noski gnosi kristanean bakarrik. Bekatari lirainari dagokio, ez Maria Birjinari, "Pistis Sophia" ereserkia, asko maite izan zuenari, eta ez barkatuz inolaz: "Maria bikaina, zu zorientzua, zu *Pleroma* (betetasuna), gizaki guztien artean ohoratua". Halako goraltzak ordea apenas egin zuen eskolarik, gehienik ere badago Maria Magdalena-Jesus legenda baten hasiera eta apokrifoetan, Egiptiarren

ebanjelio apokrifoan bakarrik esaten du Jesusek: "Ni etorri naiz, emakumezkoaren egintzak desegitera", Salome hiltzaile eta inolaz ere penitentzigile ez zen printzesa hetairarekin ustez topo egin zuen batean. Hala ere, aukera ez hain adierazgarritan leku gutxigo dauka maitasunaren sinbolo kristauak, ezkontzako sakramentuak, Eba zaharrarentzat Adan zaharrarentzat baino, eta Eba ez da bilatua izango Ennoia-Sophia bezala, baizik hautsia, eutsia, neskame bezala moldatua. Horrek hain zuzen emakumea eta gizona haragizko *coniunctio solis et lunae* modu orotik apartatu behar zituen kultuko ezkontza kristauaren irudira eramanez: *elkarte-Kristo*: emakumea elkartea bezala, gizona buru bezala jarritz. Zantzu kosmikoaren ordez, Corpus Christi izango da zantzua, inolako osagai zerutiarrik gabe edo haiekin, baina hauek oso makurturik, oso aldaturik jarritz. Eta gauza berak balio du gizonarentzat buru bezala: "Izan zaitezte elkarren menpeko, Kristoren begiramenez" (Ef. 5, 21)... "Bere gorputz-atal baikara gu. Eta horregatik gizasemeak bere aitamak utziko ditu eta emazteari lotuko zaio eta biak haragi bat izango dira. Misterio handia da hau; Kristori eta Elizari dagokionez diot nik" (Ef. 5, 30-32). *Item*, izarrez eta ahalmen arrotzez beteriko antzinako zerua asmoaren arabera *Corpus Christi*-az betea izango da, kosmikoki badagoen edo ustez badagoen ez bezalako *neurri eta helburu* guztiz bestelako batekin hain zuzen: "Horrela eraiki behar da Kristoren gorputza, harik eta sinesmenean eta Jainko Semearen ezagutze sakonean bat izan arte, gizon-emakume bete-beteak, *Kristo bezain helduak eta beteak* izatera iritsi arte" (Ef. 4, 12 h.). Emakume eta Gizon osagaiak, are haien artean maitasunezko gaueko ilargi basatitasun deitu izan dena ere, eguzkizko osagai sutsu guzti honek eta, berarekin, jesustarra ez den haren amaierak, gisako ezkontzako sakramentuan, ez du egiaz inolako lekurik izan edo izan badu isilik gordea bakarrik. Azken aipaturiko Efesotarren pasarteak ere zeharka edo alegori gisan bakarrik balio du gorputz bakarrari eta haren elkartea irudiari dagokionez ezkontzan; zuzenean (*unus christianus nullus christianus*, hain zuzen) hemen *Corpus Christi Eliza* izendatzen da. Eta hala eta guztiz ere imagoak: Kristoren forma duen gizaki bikoteak kanpoko altutasunetik galdu duen adina irabazi du barruko bakarrik ez den sakontasunean. Inolaz ere konpondu ez den Pan gisakoaren edota pneumatikoaren arteko lurreratze tentsioak erakusten du horrela erotikan bertan eta beronen irudi handietan bere itxuraketa; idazle berarengan ere. Shakespeareren Antonio-Kleopatra maitasunak oso gora jotzen du, Helios eta Selene ukitzen ditu, baina Otelos-Desdemona maitasunak beste erreinuko zati bat dauka bere barruan: "Ikus, pleiadeek itsasoa *ukitu* nahi dute dagoeneko", horrela mintzo da, kantatzen du Otelok maitasunezko gauerako sarreran; inguruko ikuskizuna isildu egiten da maitasun honetan, mundua sakona bihurtuko da. Hemen azaltzen da bai *Pneumaren* gailentasuna sakramentu batean han bi gizaki *Unio*-an ez direlarik izango lur osoa bezain handi eta hala ere honek maitasun inguru izartsu bezala irauten duenari. Eta hau areago eduki berri, irten arazle eta Venusek bakarrik zuzentzen ez duenaren sakontasun hain bestela erdietsiaren bidez.

42

Berrito Logosaren mitoa edo gizaki eta izpiritu;

Feuerbach buruz, Cur Deus homo, mistika kristaua

Gurea sutan dago oraindik errauspetan

Ateratzen dena barru batetik dator. Hau ahula eta errauspetan sutan badago, ezin nabarmen daiteke kanpotik. Gugandik-kanpoko indartsuegi badator gainera, ez dago besterik ez bada hari makurtzea, haren eskuetan jartzea. Norbera izateari etsiz, bestela ere garatu gabe baitzegoen eta inguratzen duen klanen ere inon baino gutxiago libra baitaiteke norbera izatearen zamatik. Arimari buruz kontatuko balitzaio basagizon deitu bati, ez zukeen halakorik aurkituko bere baitan, eta hain zuzen ez, arimak ikustezinezko izan beharko lukeelako. Baina hegatan ari den hegazti bat erakutsiko zukeen, bere

leinuarena noski, eta hots egingo zukeen han zihoala hegatan bere arima. Guzti hau oraindik ni gabezia maitagarri bat zen, gehiago oraindik igerri gabeko barnea berarekin eramanez, lapurtuz, baina kasik ezerez bihurtuko zen gizakia kanpoko zerbaitek maitasunik gabe erasotzean, tximista, trumoi, ekaitz eta beti piztien erdian egonez. Eta hala eta guztiz ere, han azaltzen da gizakiarena berarena den jartze baten arrastoa, ondo edo gaizki bizidun den batena, gizakirik gabe ez trumoiean, ez gauean ezta argian bertan ere hala ez zena. Lehen goiz gizatiarraz geroztik aztikeria ahaleginak egin izan dira eta otoitzean bertan ere hain motelduz bezala berriro argituz aurrera segi zezakeenez, hasieratik bertatik bilatu izan da kanpoko inguru guztian galdatzen zuen bat bezala hitz egin zekiokeen bat. Eta guzti hau gizakiaren barnea hain gutxi hartzen zenean, hain zuzen horregatik norberaren parte hartzea ez zen igerri hain luzaz. Orduan goi batera dei egiten zuen berak, kanpoko izpirituak oso goian, izarren gisan hain zuzen, azaltzen baziren ere. Irudikapen beldurgarriek, are gehiago maitatuek bestela erlijioso deituko ez litzatekeen alor bat ernaldu zuten. Honek balio du eguzkiari eta ilargiari bota zitzairen lehen begiratu, norberaren ustetan, jaieratsuari dagokionez ere, harrigarrian gizakiaren neurriari zegokion guztiari dagokionez ere balio duen bezala. Beste munduko gehiegizko argiaren aurrean aitzakiak erakusten zituen bezala eta artzainari larretan hitz egiten dion bezala: "Ez izan beldurrik". Horretaraino iritsi zen, ondoren ez zen sekula amaitu gora begiratzean gizakiaren parte hartzea.

Feuerbach eta "antropologikoa"

Horrela irekitzen, eskaintzen, apaintzen den barrua, ezer baino gehiago gurarizkoa da. Hemen ez dator egoki hobe dela txolarre bat eskuetan, uso bat teilatuan baino. Mannarekin amets eginarazten duen premia desagertzen den lekuan ere, bestelako gose batek dirau, hurbilean ez daukana urrutian irudikatzen duena, eta hura hartzeko prest jartzen da. Haren irudiak zalantzarik gabe gaizki dabiltzanak beren jaunen eta haien mahaietan ikusten dituztenen kolorez margoturik daude, eta *norberaren* pobreziatik urruntzeko balio dute gehienetan, mundu honetako kontsolamendurako. Baina gora jasotako irudi hauen neurri erlijioso gehiegizkoak gabeziaz beterik dagoen eta hala ere irrika handiak dituen barne batean gertatu beharko luke, era horretan inolaz halakorik azaltzen ez den goi batera aldatuak izan daitezen. Pobrezia soilak ez da barneko distira handi bat inondik, baina gabeziaz beterik dauden gizonek fantasiaren distira oparoa eduki behar dute, hau da, objektiboki bertan ez egote bat, beren buruak beren-beraien beste munduan saltzen utz ditzaten. Bestela Hegel gazteari bere "*Positivität der christlichen Religion*" obran hainbesteko *Logos subjektiboz* esanarazten zion materiala faltako litzateke: "Lehenagoko ahaleginez aparte gure egunetarako geratu da, zerura merke-merke saldu ziren altxorak, gizakien jabetzako bezala, teoriarik gutxienez, erreibindikatzeko - baina zein garaik izango du adorea eskubide hori baliozko egiteko eta haien jabetza hartzeko?". Eta horrela -estaia asko beherago, baina eutsiz hala ere- zerutiarra gizakiari berriro itzultzeko Feuerbachen ahalegina etorri zen -gizakia presentetzat hartuz edonola. Ondoren etorri zen "Erligioaren kritika antropologikoa", jainkoen eraketarena, gure mundu propioaren ukapen berreskuratu beharreko horiek. Gizakiaren kopia soilak dira eta gora jasotako hipostasiak: gurarizko edukiak dituzte noski, gizakia bere "izate" orain arte apartaturik egoteak presuposatzen duten bezala mitiko - mitikoegi bezala kendu nahi zirelako. Aldiro Jainkoa bere gurtzaileen antzera sortua da, krudel edo maitagarri, ahalik mugarik gabeko, xuxurlari lurra bezala, distiratsu eguzkia bezala, hilezko eta patuaren aldaketatik ahalik eta urrutien. Era horretan Feuerbachen berreskuratzea *ad hominem*, elizako jainkoari, *implicite* mito astraleko goi soilari era antropologikoan liluramena kenduz, baina une berean berriro ere subjektura ekarri nahirik. Horregatik dio Feuerbachek behin eta berriro: "Gizakiak jainkoak sinesten ditu ez bakarrik fantasia eta sentimendua dituelako, baizik areago

zoriontsu izateko irrika daukalako. Izate zoriontsu bat sinesten du ez bakarrik zoriontasunaren ulermolde bat badaukalago, baizik areago berak ere zoriontsu izan nahi duelako; izate perfektu bat sinesten du, berak ere perfektu izan nahi duelako; izate hilezko bat sinesten du, berak ere hil nahi ez duelako. Bera ez dena baina izan nahi duena, hori da berak bere jainkoetan irudikatzen duena; jainkoak dira gizakiak egiazko bezala pentsatu eta egiazko izate bihurtu dituen gurariak; jainko bat da gizakiaren zoriontasun irrika fantasian kunplutua" (*Über das Wesen der Religion, Werke* 1851, VIII, 257 or.). Guzti honetan garbi dago eta jakingarria da: Feuerbachen oldartzeak erlijioan, bereziki kristauan, beste munduko altxortegiko "altxor kristauai" lehentasuna ematen diela gizakiaren analogia gutxiago duten erlijio paganoen, bereziki izarrek gurtzen dituztenen aldean. Haietako materiala Feuerbachen "erlijioaren antropologizatzean" bertan askoz zailago da "gizakiaren zorionera", are "bere izatearen irrikara" berriro erakartzen. Horren ondorioz daude zerutik kentze asko Feuerbachengan "Kristautasunaren esentziara" zuzenduak, ez izarren kultura (hauetara antropologoa zehatzago ondorengo ikerketatan zuzendu zen). Feuerbachen gizatiartzearen "Maitasunezko sargoria" bera (Marx) Marduken edo Vitzliputzliren idolo altxorretan oldartu ondoren ekidinezinezkoa zatekeen; *Eritis sicut deus*, aipatu ere ez egiteko.

Nabari dago horrela berreskuraturiko gizona hemen, hala eta guztiz ere, nahiko geldi dagoela. Feuerbachek ez du pentsatzen gizarte mailan, gure izatearekiko apartatzeari dagokionez, autoalienazio honen erro ekonomikoak lehenean daude oraindik. Arrazoi berarengatik da beti ere hemen "gizakia" genero orokor eta estatiko bat; ez da azaltzen orainarteko gizarteko harreman multzo oso aldakor bezala (Marx). Nabari dago gizaki hitza, "gizarteko harreman multzoaren" bidez hain zuzen ere oraindik ahitu ez denez (Marxengan ere ez), Feuerbachengan bere-beraren beste munduko hipostasiatzeetan oldartuz ez dela gehiago aberastu. Feuerbachek, mundu honetan irrikak eratuz, nolabait esateko idealki, azkenik hemengo bihurtu den jainko izateaz hitzegiten duenean, *homo homini homo* ez du eramaten era liberalean ulerturiko desio multzo eskuarretatik askoz harantzago. Baina inor ez da saiatu Feuerbach baino sakonago beste mundura aldaturiko desio irudi gizatiarrak gizakiak bere buruari dagozkion bezala eraldatzen. Inor ez zegoen hain beharturik *metodikoki*, hala esaten du garbitasun gehiegizkoz, *malgré lui*, giza ildo radikalarekin kristautasunean. Horregatik, azken batean, Feuerbachen giza *genus* soila berarengan bertan gainditurik geratzen da *subjektuaren ospakuntza* hain indartsuaren bidez, horrela beste mundutik berriro ekarritako gizatiarra ez baitu hartzen hain orokor eta burges bezala, ezta ere naturaren araberako eta mundu honetako bezala. Erlijioaren *gurariaren teoria* batek hain zuzen biltzen du egintza *gainditzaille* bat, utopiko bat, subjektuan ere amore ematen ez duena, baldin beste munduan betetze hipostasiatu guztiak ilusio badira. Horregatik, aberatsagoa da bere buruaren kontzientzia duen eta indartsu bihurtu den subjektuaren maila, hain zuzen ere naturaz gaindi, ez bakarrik beste mundu hauts bihurtu batean. Horren gurari iruditeria, ez era goinaturalez baizik era barnenaturalez transzenditzen duen potentzia erabat gizatiar bezala agertzen da. Hortik beraz azkenik Feuerbachen esaera: "Beste munduan sinestea da beraz naturaren mugetatik subjektibitatea askatu dela sinestea -beraz gizakiak bere buruan sinestea" (*Das Wesen der Religion*, 1845, *Werke* VII, 252. or.); eta oraindik gehiago: "Erlijioaren misterioa da gizakiaren esentziaren misterioa bera". Era horretan, bere giza genero ustez estatikoa arren, oraindik begitartez begitarte ikusi ez duen *homo absconditus* baten kasik atarian gelditzen da. Guzti horrek zalantzarik gabe subjektibitateari itsasten dionaz aparte ateismoari ere Feuerbachengan ezaugarri berezi bat itsasten dio, azken batean, "antropologikoki" kritikaturiko kristautasunik gabe posible izango ez zen ezaugarri bat alegia. Hor Feuerbachengan ez dago azkenik inolako "ezer-ez bada" bat, inolako "ezer ez bada-natura" bat ilusiorik gabe ikusi eta

beste mundutik libratutako errealitatean. Aldiz: gizakiak beste mundu hori asmatu besterik ez du egin eta gurarizko irudi asmatuz eta desio egiaztatuz bete, ezer ez bada natura aski ez duelako egiazko bezala eta, batez ere, bere esentziak berak inolako egiazkotasunik ez duelako. Horregatik beraz Feuerbachen ateismoa giharrik ez duen ilusio baten desegintza bezala pentsatua dago eta era berean, teologiaren aldetik, azken batean gizakiarena den horretan egin diren mugatzeen eraldaketa akuilatzaile bezala. Feuerbach Argikunde da, beste munduko kandidatuen ordeztatu mundu honen ikerleak jarri nahi zituen neurrian; horrela hala ere beste munduak, ezer baino gehiago "Askatasunaren Erreinu" baten (Jainkoaren semeena) ez-bakarrik-kimera bezala, *hemengo mundu hobe* bateko kandidatuak sortu behar zituen. Mito astralak Feuerbachengan guzti honetarako askoz leku gutxiago ematen du mito kristauak, eta batez ere, hango Gizonaren semeak ematen duena baino; ospakuntza eta mundu honen aldeko, natura bezala, erabaki oro arren.

Kritika antopologikoaren eta mistikaren arteko topaketa harrigarria

Jarraiki datorrena, atzetik dator halaber, eta horretan gorrotatzea ez da beti antzeko bihurtzen duena. Badira orobat kontraesan ezagunak, elkar ukitzen dutenak, batez ere haietako bakoitza azken muturreraino eramaten denean. Baina hemen aipatzen den Feuerbachen dotrinaren eta mistikaren arteko ukitua bestela paratua dago, hain zuzen ere erro kristau guztiak arren gogoz kontra, edozein modutan hitzarturikoaren kontra hurbildurik. 17. kapituluaren ikusi zenez, Gottfried Keller izan zen hori lehenengo igerri zuena, gisa honetako bi jarraitzaile kontrajarririk topo egin ondoren, "*Der grüne Heinrich*" liburuan, "Kristau izoztua" kapituluaren. Feuerbachen gisako predikari ibiltari bat abiatzen da bidaian, librepentsalari horrek guztiz motza ez den kaperau batekin izan duen eztabaida amaitu da, baina hori gogora ekarriz kaperauak, txunditurik, Angelus Silesiusek "*Cherubinischen Wandersmann*" irakurtzen du: "Badakit, ni gabe Jainkoak ezin duela bizi une bakar batez ere, / Ni ezereztan banaiz, Berak izpiritua derrigor eman behar du". Edo Barokoko liburuan azkenean ezin da jakin Jainko barrura edo kanpora nora doan bat: "Aurrera irakurtzen baduzu, / zu izango zara liburua eta zu esentzia". Kellerrek horretan esaten du, hain zuzen bezala konparazio moduan: "Guzti honek kasik inpresio bete ematen du, ezen Angelus zintzoak gaur bizi beharko lukeela, eta azaleko halabehar gutxi batzuk aldatu beharko lituzkeela, eta Jainkoaren kontenplatzaile indartsua gure garaiko filosofo hain indartsu eta oldez beteriko bihurtuko litzatekela", *scilicet*, Kellerren ustez, Feuerbach bat. Hala, aurrerago beste testu batean, "Esna, kristau izoztua" testuari dagokionez: Goiko idoloen ordeztatu eta baita kanpoko naturaren ordeztatu Gizonaren Semearen iraulketa begiztatzen du zorrotz. Itzul gaitezen ondare kristau soilera, itzul gaitezen laugarren mendera, Efen siriarrek egiten duen *dies natalis*-en azalpena, Ekialdeko elizarentzat erabakiorra baita: "Gaur Jainkotasunak gizatasunaren zigilua bere gainean ipini du, era horretan gizatasuna jainkotasunaren zigiluaz apain dadin". Itzul gaitezen hamaikagarren mendera Canterburyko Anselmoren "*Cur Deus homo?*"-ra; hor *Cur* horri dagokionez saiatzen da Anselmo bekatuaren zorra antzinako ordainketaren bidez argitzen, eta hala (17. kap.), "Jainkoak bakarrik kita zezakeen izugarria baitzen, baina gizakiak kitatu behar zuen, horregatik Jesus bihurtu zen ordaintzen zuen Jainko eta gizaki une berean". Baina egiaz sutan zegoen, hain zuzen ere Anselmoren bidez, desbideraketa zahar honetatik alde honetara, beste aldera hobe esanda, *Cur Deus homo*-ren galdera, transzendentziaren gizon egitea inmanentzia inmanenteen bihurtzeko berriz, eta distira transzendentea erraustu, koagulatu eta antropologizatu egiten zen gure geure desioen hartxidura bihurtuz. Hain "era antropologikoan" irakurriko zukeen Angelus Silesiusek Feuerbach eta baita Hegel gaztea ere. Beste mundura merke-merke saldutako altxorak gehiago pobretu gabeko subjektuentzat eskatzen zituen Angelusek: "Jainkoa bezain aberatsa naiz ni, ez dago

hauts txikiena ere, / nik, gizaki honek, sinetsiezadazu, harekin batera ez dudarik". Inolaz ere Feuerbachen doktrina aldioro gizaki genero abstraktu batean ilauntzen bada, naturalismoetan amiltzen bada, jainkoagandik bai, baina mundutik kanpora botatako guregandik-kanpora soil batetik, ustez berria den eta inolaz kosmiko ez dirauen inmanentzia batetik ere badatorren subjektuaren izpi bat dakar. "Bere lehen pentsamendua", laburbiltzen zuen "gure garaiko filosofikoak", bere garaiko materialismo mekanikuaren erdian: "Nire lehen pentsamendua Jainkoa izan zen, bigarrena mundua, hirugarrena eta azkena gizakia". Eta horrek esan nahi du: Erlijioaren kritika izan zela garai hartan materialismoaren erdian ez bakarrik natur zientzietako lore bat, baizik hain zuzen antropologiakoa, eta beraz egiazkoa ilusio teologikoetatik libratuz. Eta hori ez, ikusi denez, Feuerbach bera gainditzen duen heresia mistikoarekiko konkordantziarik gabe, *qua* subjektu. Baldin, Feuerbachek esaten duen bezala, erlijioaren misterioa gizakiarena berarena bada, orduan gizakia, *qua* desio teoria, baita ere harreman *utopikoen* multzo bezala ere altxatu zen, baina ez gutziz.

"Librepentsalari", "Izpiritu bortitz" mistika kristaueko asmo objektiboan (cf. berriro 17. kap.)

Hemen behean eskatzen diot jainkoari

egin nazala azkar

jainkoaren berdin.

Kanpokoaren aurrean itsutu eta hala segitzea gauza txarra da. Batez ere inguruan dauden gauzak ere txarrak direnean eta oker doazenean. Mistika hitza edozein modutan *myein* hitzetik dator, eta begiak itxi esan nahi du. Alabaina: zeren aurrean isten diren orde, batez ere mistika kristauan, inguruan jasanezinezko denaren aurrean, goitik datorren zamaren aurrean, horrela ihes egingo balitz bezala? Inondik ere ez, mistikoek, hamalagarren mendetik aurrera, oso desgogora, antsiaz beterik zeuden laikoaren mugimendutik, herri mugimendutik zetozen, eta horietan gero eta konprometituago zeuden. Horregatik, sarri bereizten zail den eran, politikaren aldetik ere, ez elizaren aldetik bakarrik, herese bezala salatuak izan ziren. Lolardoak, beginoak, "izpiritu libreko, bortitzeko, beteko anaiak", eta gero bataiatzaileak eta husitak, beren nagusien kontra zeuden beti. Beren buruaren eta beren auziaren lekukotza ematen zuten amore eman gabe aurrera; ez arrazoirik gabe isten dute Lenauren "Albigenseak", poema bakar bezala noski, harako hitz haiek: "eta abar". *Myein*, begiak ixtea, benetako gertakari kristauan, beste zentzu baten esnatzeari lotzen zaio, kanpokalde mixerable bat, mixeria iraunarazten duen miseria bat neurtzen eta zapuztarazten baitzuen esnatzeak. Eta jaunen Jainkoaren aurrean begiak ixten baziren, ixten ziren bera gizaki subjektu esnatuarekiko arrotz ez zelako, ezta gure gainean jarritako edo jarri daitekeen objektu ere ez zelako. Baizik gure subjektu sakonenen bezala, gure pobrezia propioaren, gure erromesaldi propioaren, gure aintza zapaldu propioaren *egoera* (ez: objektu) barnenen bezala hartua zen bakarrik. Hala irakasten zuen Sebastian Franck mistikoak, Thomas Münzerrekiko, honen amaieraren ondoren oraindik, arriskupean leialtasunari eutsi zionak: "Jainkoa da zuzpirio adieraz ezin bat arimen sakonean jarria". Asmo denaren aintza, era horretan erdietsi gabea, subjektuaren *irrikan* zegoen bakarrik, bere oinarriaren *sakonean*. Gizakiaren eta Jainkoaren arteko oinarri bereizeezinezko bera, Eckardt maisuak lehenago jainkotasun gizatiarraren, gizajainkotasunaren "distiratxo, gotorlekutxo, gaztelu" deitu zuen. Edo baita ere "Synteresis" (hau da: "norberaren buruaren oharketa"), han trukutzen delarik bien "aurpegi desestalia", norbera "norbakoiztasun", "norberatasun" bezala aurkitzen delarik. Horrela beraz Eckardtek "Betiko Jaiotza Sermoian", Kristoren Logosaz, Hitz *ezkutu*, gauaren erdian datorrenaz, *gauza guztiak isilik daudenean*: "Ikus, ezkutua delako hain zuzen, joan behar da haren atzetik. San Paulok Jainkoa azaldu behar zitzaion hirugarren zerura jaso izan zenean eta gauza guztiak ikusi eta itzuli

zenean, ez zuen ezertxo ere ahantzi, baina hain sakonak izaki oinarrian, bere adimenak ezin zuen haraino iritsi; erabat eta guztiz barruan, ez kanpoan, baizik guztiz barruan. Eta horretan ziur zegoelako, esan zuen: *Ziur naiz, ez heriotzeak ez sufrikarioak banatuko nauela nigan aurkitzen dudanetik*. Honi dagokionez maisu pagano batek esaldi eder bat esan zion beste maisu bati: Neure baitan zerbait aurkitzen dut, neure adimenean distiratzen duena; igertzen dut noski zerbait badela, baina zer den, hori ezin dezaket ulertu; baina somatzen dut: hori ulertuko banu, egia osoa jakingo nukeela. Orduan erantzun zion beste maisuak: Alimo, eutsi horri! Hori ulertu ahal izango bazenu, horretan ontasun ororen muina zenuke eta betiko bizitza edukiko zenuke. Zentzu honetan azaltzen du San Augustinek ere: Aurkitzen dut neure baitan zerbait, nire arima aurre-durundatzen eta aurre-argitzen duena; nire barruan hori osotasun eta asetasunera ermanez gero, horrek betiko bizitza izan beharko luke". Logosaren mito garbienaz beterik dago guzti hau goitik behera, ikusten denez, "barne" bat duelarik, bere horretan geratzen ez dena, baizik kanpoko zeru astral osoarekin batera kiskaltzen duena, norberaren baitan Gizaki Handiaren zati soil izateko. Horrela inolaz mistika kristau baliozkoena gero eta gehiago atxikitzen duena, *toposaren aldetik berria, utopiaren aldetik itzaltzen ez den distira duena*. Hurbilagotik, hurbilenetik orde: subjektu izate honetan ezkututzen da oraindik azaleratu ez den gure geure unea, ez dagoen eta badagoen benetako orain eta hemena, esentziaren "*Nunc stans*"-a (Augustin), hura izan gaitezen bihurtzen ari garelarik. Mundua lerhertaraztera zuzenduriko mito astral honen eta inolaz munduarekiko konforme denaren arteko desberdintasuna horrela guztizkoa izango da, sortzaile kristauarengandik, gizakiaren aurpegitik datorrena, ez eguzkiaren ziklotik datorrena. Eta hori Han Goiko hondar konpondu gabe batzuk geratu arren, haiek Eckardtek deitzen baititu "Jainko jainkoz gainetiko". Mistikaren hurbilena benetan oso urrun eta espazioari dagokionez oso goian balego bezala, barruan oso sakon, denborazko bihurtu gabe oraindik baina denbora hartzen duen denboran *oraindik ezkutaturik dagoen unean* egon ordez. Bien bitartean: Eckardten "Jainko jainkoz gainetiko", "argiak egoitza duen iluntasun goren" hori izango da berriro gizakiaren barnetasun ezkutuen, hitza jaio zen ikuilua, Kristo Aita-Jaunarengandik, izarrezko oihaletik, han goiko patutik libratzen duen hitz bezala. Txikia, kosmiko izan ordez gizakiaren hurbiltasun eta hazkundeari atxikia, txikia da beraz Eckardtengan Logosa, ez bakarrik haragi egina, baizik gizakitua: "Zeruak berak inguratu ahal izan ez zuena, Mariaren sabelean dago". Horrela irakatsi zitzaizen kristau hauei Gizonaren Semearen arazoa: gora igotzen duen bere subjektua, baina baita ere bere zeru lehertarazia eta behera zetorrena. *Et lux aeterna luceat eis*: transzenditze barneko honetan transzendentzia ez-gizatiarrik gabe *contra omnia saecula saeculorum* mistikoki sutua izan zen.

Logosaren mitoak ekarritako ondorio gehiago: Mendekoste,
Veni creator spiritus, naturarik gabeko erreinuaren irudiak

Arbasoak eta helburua

Zutik dabilenak, horrela, burua goian darama. Horrela libre begira dezake ingurura, inolaz ere gorputzaren zamak eraginda beheraka zapaldurik, areago bere inguruari beti loturik dagoenak baino libreago. Era horretan ibilera zutunean ingurua osatuz aspaldidanik jarrita dauden zirkunstantziak ez dira azaltzen hain loturagile; besterik ez bada, ibiltzeko behar ez dituen eskuez heldu egin dezakeelako. Poliki poliki, lan egin, ez jasan, uza bildu eta dagoenetik jan eta egoitza egiteko behar duena erabili bakarrik egiten ez duen neurrian, gizakia libratzen doa ohiturekiko leialtasunetik. Azkenik ohitura horren *nondiko* horretatik, inolaz ere ez gogoratua, baizik pentsatu berria eta *norantz* orientatzailea, ez bada lehertarazlea, osatuz. Arbasoen eta atzera eragiten eta laguntzen duen haien kultuaren orde z gero eta gehiago azaltzen da inolaz aurrerantza jarritako helburua eta eskatu ez baizik konjuruak egiten dituen kultu bat. Ohizko tradizioetik libratzen den kultu bezala hain zuzen, eta horregatik kultu baino gehiago *cultivare* dena, eraikitzea, berri den zerbait eraikitzea. Horregatik, beraz, posible da ez bakarrik leinuko arbasoa erretiratzea, baizik areago ordurarte hark eragin duen edo eragin zezakeen guztia. Hasierak, dena ipintzen duenak edo bere barnetik botatzen duenak aurrera jauzi egiten duenaren eta horrela ez finkatuaren, baizik bilakatzen ari denaren aurrean atzera egiten du. Horrela ez da irauliko mundu presentea, ezta utziko ere, bai ordea ibaia bezala izango da ikusia, berriro bere baitara itzultzen den, zirkulu gisan bira egiten duen ibaia bezala bada ere. Bokale bat, are jauzi bat, gizakien bidez gertatua, inon gauzatu ez den helburu baterantz: antzina finkaturikotik urrunketa erlijioso eta pentsatuetan *ernaltzen* da hau lehenbizi, baina ez du albo batera uzten zurrunketa. Hala, beraz, badago hain antzina azalduriko Panengan Heraklitoren kontzientziaren bilakaera bat, dena jarioan dabil, dabilena sua bada ere, nahiz irauten duen zerbait bezala, eta arbasoei dagokiena, jatorrian ipinitako Bata, behin betirako mundutik xahutu egiten du. Helburu bat falta da oraindik hemen, azken batean edukia bailitzen itzultzen denez guztia berriro. Baina zer litzateke ibai bat bera baino ez den beste batera aterako ez balitz? Beraz, betiere norantz baten lekua irekita legoke, era estatikoan luzaz gordea izanik ere, han nondikoa ezaguna delarik. Hala ere, hasiera apenas saiatu batetik urruntzen da eta ondorioz garatzeko modukotzat har daiteke.

Prestatzen ari den hasiera, bide eta amaiazen tentsioa (Cf. 15. kap.)

Hasierari sortzaile iritzi zaionean ere, geroa txikiago azaltzen da. Hain zuzen ere, lehenbizikoa, jatorrizko bat hain goian egonik, handik urruntzen den orok galdu besterik egin ezin duenean. Ez zen pentsatua izan inolako sorkuntzarik jatorrizko aita baten bidez, bai ordea jatorrizko argi batetiko isurketak hasieran neoplatonikoa eta gero gnostikoa izan zen emanazioaren doktrinan. Baina mundua eratzen duten argi isurketa haiek ziren hain zuzen goitik behera amiltzen zirenak, urruntasunaren eraginez gero eta ahulago eta ilunagoak bihurtzen zirenak eta helburu bakarra zen itzultzea, munduaren bitartez bere iturburura berriro igotzea. Alfaren azpimarratze hau Platoni zor zaio, baina antzinako Akademian dagoeneko, Espeusiposengan, bidea azpimarratuz, hau da bilakaeraren eran, bazterrean utzia izan zen. Hala, bada, emanaziori, Aristotelesengandik hasi eta Leibniz eta Hegelenganaino eboluzioaren bidegilearen eta eraikuntzaren teoria zorrotzak aurre egin zion. Horren arabera, beraz, jatorriko Bata bere osotasunarekin azken emaitza bakarrik izan liteke, ez garapenaren abiapuntu, haren hasiera ordea zen zerbait zehaztu eta burutu gabea. Eta hori *bila dabilen* Platonen Erosetik hurbilago dago han bilatzen den ideien ikuskizunetik baino, bilakaera oroz bestalde dagoen osotasunaren ideia tinkotik baino. Inolaz ere Bibliaren ukiturik gabe,

emanazioaren eta eboluzioaren ideien artean adierazten da hemen hasiera, bide eta amaiaren arteko tentsioa filosofia greziarrean, eta gauzen alfa *sub specie evolutionis* ez da inolaz ere perfektua. Funtsean emanazionista den gnosian, goitik beherako bakarrik diren bere argi-isurketa eta guzti, eguzki eta ilargi eonezko bere zero soil eta guzti, han bertan, Basilidesengan bereziki, jatorrizko iturburuari deitzen zaio hazi gisako, baina oraindik existente ez den Jainko. Beraz, ez bakarrik kosmogonikoki, baizik areago teogonikoki, Omega baten aldera garatuz, gertatu zen gogarte gnostikoan ere. Hain era harrigarrian beraz gertatzen zen baliozko antzinako pentsamenduan, etorkizunari edo mesiari buruzko asmo guztiak falta zirelarik, jatorriz dagoeneko baden baina *eskhaton* bezala bakarrik erdietsiko den perfektu izatearen bateraketa zaila. Gerora, alfa-bide-omega auzia zorrotzasunik handienaz, hau da biblikoki, azaltzen denean, mundua sortzen duenaren eta mundua salbatzen duenaren bateraketa bezala. *Emanazio* ordeztu (arketipo duelarik: gainezka egiten duen argia) *sorkuntza* hobetsiko denean, eta *eboluzioaz* aparte jauzi bat, erabat berrirako *Exodo bat* (arketipo duelarik: Egiptotik irtetea) gertatuko denean. Orduan munduak sortua izan behar duela dioen printzipioa ezin izan daiteke mundu honetatik ateratzen duena bera; paradisu sude ordainetako akerrak ez zion kendu sortzaile mitikoari egintzarekiko bere erantzukizuna. Aldiz, ikusi den bezala, iraindu gabeko sugaren, eta segidan bere buruaz "Ni izango naiz izango naizena" esaten duen numenaren printzipioak ere, profetengan eta Itun Berrian aurkitzen den etorkizuneko berriak -guzti honek ez du jartzen inolako elkarbiderik Aita Jainko batekin, ezta itxaron den Omega baten inolako itzulerarik ere *Deus creator* hipostasiatu batean. Jakingarria da beraz: ezinegon orok bezala eskakizunak aurkeztu dituen aurreratze orok Biblian, "Kanaan" behin eta berriro oraindik gertatu eta salbatu ez zenean jartzen duelarik, edota ez du ezagutzen sorkuntzaren mitoa edota hitzez hitz hura salbazioaren utopia apokaliptiko lehertarazle baten mesedetan jartzen du azken batean. Honetarako berriro ere Bibliaren kritika hartzen bada, orain helburu metafisikoeekin, Alfari dagokiona ez da azaltzen jatorrizko bezala, baizik gaineratu bezala, eta etorkizunari dagokiona berriz, bereziki Egiptoko irteerako kontakizuna, testuaren aldetik bezala zentzuaren aldetik, sorkuntzaren historia baino zaharragoa da. Jabe, Israel Egiptotik atera duena, horretantxe laburbiltzen da Israelgo jatorrizko aitortza; sorkuntzako gaia aldiz, Nothek egiaztatzen duen bezala, "idazketa literarioetako batean gaineratua" izan da, funtsean apezan idazketan, "Pentateukoaren moldaketa aurreliterarioaren barrutik apartatzen da" (Martin Noth, *Überlieferungsgeschichte des Pentateuch*, 1948, 48. or. hh.). Sorkuntzako historia, Jabe-Ptahri dagokionez eta jatorri ez israeldarreko baizik nagusiki egiptiarreko denez, apez-kodean era bereziki zaharreko atari bezala erabiltzen da. Eta hori inolaz, ez bakarrik Jaberentzako ontasunari baizik areago haren indarrari buruz sor zitezkeen zalantzak gutiesteko. Eta hori oso garbi dago Joben liburuan Jabe sortzaile bezala bere gainetik bota behar duen gaitzespenean: Lurreko harraren kontra, non zegoen bera, Jainkoak zero-lurrak sortu zituenen? Profetagoak hori gero eta gehiago bazterreratu zuen arte (Is. 45, 12), azkenik Aita zaharraren egintzaren ordeztu, kosmo ondo aterearen ordeztu, hain zuzen beti mito astrala ostean zuelarik, zero berrian eta lur berrian (Is. 65, 17) utopizatu zuen arte. Hasieraren legendako indartsuegiak atzera egin zuen eraginkor bihurtu berri zen mesianismoaren *gizakiarekiko hurbiltasun* handiaren aurrean, mesianismo hori orain etorkizunari bakarrik dagokion bezala ulerturik. Hain zuzen ere, bizi baldintzak miserableak zirenean, ustez gertatu zen jatorrizko moldaketaren ordeztu gertatu gabeko helburu bat azkartu zen hemen beraz, honek mundu honetako Jaberentzako egintza osoari gain hartzen ziolarik, Kanaan gisan hartuak "Egipto" moduan esperimentatuari gain hartzen zion bezala. Era horretan Logos bat oldartzen da, maila profetikoan, eta ez gehiago

atzerakoian, erabat bestelako "eboluzioa" ekarriz; bestela ere hainbeste zahagi zaharrik gabea ardo berriarentzat.

Mendekoste, sorkuntza, Veni creator spiritus-era aldatua

Arreta erakartzen duena hemen da, zein hurbil dauden elkarrengandik adurra botatzea eta baten gainera zetorren izpiritu hura. Hizkuntzetan hitz egiten zena hain zen nahasia, ze izpirituak hartuak bakarrik ulertzen baitzuen hura. Kanpoan zeudenei "ardo gozoz beterik" zeudela iruditu zitzairen, eta ez inolaz eon berri batez, baizik eon oso ezagun, pagano eta orgiastiko batez. Hala ere Mendekoste lotu ohi da "kirioen izpirituan esnatze" soilekin, Baaderren esamoldea erabiliz, baina inolaz apostoluak jartzen duen mugarekin: "Hizkuntzetan hitz egiten duenak bere burua hobetzen du, iragartzen duenak elkartea hobetzen du"; baina betiere: norberaren hobetzea aitortuko da. Eta horri gaineratu behar zaio orain arte ohizko ez zen uztia, itxura hutsezko uztia bada ere, Menadetara, dionisiakora doana: oraindik oso urrun dagoen Izpiritu Santuan parte hartzea ospatzen da: "Eta mendekoste eguna iritsi zenean, toki berean bildurik zeuden guztiak. Bapatean, haize-boladarena bezalako burrunba izan zerutik" (hemen berdin Pneuma) "eta berauek zeuden etxe guztia bete zuen. Eta suzko mihiak bezalako batzuk ikusi zituzten, bakoitzaren gainean banaka kokatzen. Eta denak izpiritu santuz bete ziren eta hizkuntza arrotzez hitz egiten hasi, bakoitzak izpirituak ematen zion hizkeraz" (Eg. 2, 1-4). Estasia ezagun orotatik bereizten duena testu honetan da eduki dezakeen era sonanbulikoa ez dela ez hartua eta ulertua Jesusen azalpen bezala (Emauserako bidean edo Tiberiadeko itsasoan bezala). Aldiz testuak jauzi egiten du, Logosaren mitoaren arabera guztiz, Jainkoaren Semetik Jainko Izpiritu Santu hirugarren pertsonara, "egiaren izpiritua" (Jn. 16, 13) bera gogora ekarriz, horrela izendatu baitzuen Jesusek Parakletoa. Ondorio askokoa, hau da erabat etorkizunari lotua bihurtuko zen Pneumaren izaera berri guzti hau gerora ondoren etorri zen Pedroren "mendekoste predikua" bidez, Joel profeta aipatuz: "Eta hala gertatuko da *azken egunetan*, dio Jainkoak, gizaki guztiei neure izpiritua isuriko diedala" (Eg. 2, 17). Ondorioz oparo zen hau eta mendekosteko mirari deitua ordurarte ezagun ziren adur botatze orotik bereizten zuen, orain Mendekoste festa "azken egunetara", gizakiaren historiaren azken garaira aldatua izen baitzen, horrela -Logosaren garaipen osoaz- "Izpiritu Santuaren aro" egiazko (benetako) batek leku izan zezakeelarik. Eta horregatik, geroago noski, guztiz onartua izan ez den Origenes Elizako Gurasoetakoak "hirugarren ebanjelio" batez hitz egin zezakeen, Izpiritu Santuaren ebanjelio bezala. Eta azkenik Joachim di Fiorek, heresekeria iraultzaile betean, "Aitaren" *agintaritzaren* Eon soila erabat estatuko bezala elizako ere ez zen Logosaren etortzeko zegoen *argikuntzako* Eon baten bidez ordezkatu zuen.

Beste era batean sutzen da oraindik Mendekosten hasieraren eta amaiaren auzia. Zehatzago sutzen da Aitari dagokionez sortzaile, neurribako handi, guztiaren, beraz gaizkiaren ere jatorrizko sortzaile bezala, gaizkitik libra gaitzan eskatzen zaiolarik. Jeloskor Prometeiko ororen aurrean, Babelgo dorregintzaren aurrean eta harekin loturik dageon guztiaren aurrean. Gizaki iraultzailea han, eta ez bakarrik Joben liburuan, eltzegilearekin eztabaidan dabilen eltzetxo batekin parekatuko da, eta horrela barregarri geratuko da. Baina Mendekostetik abiatuz badabil sortzailearekiko beste dei bat eta: guztiz bestelako sortzailearena, *Pater omnipotens* gabea, alegia. Deiak honela dio Rabano Mauroren ereserkian (horrela jarri zuen Mahlerrek era esanguratsuan bere zortzigarren sinfonian Faustoren sinfonia bezala jarri eta oinarrian ipiniz). Jatorrizko kreatzailearen jatorrizko kategoria zerutiarra han barruan geratu da eta ez da bereziko geratu den *salbatzailearen* kategoria bakarretik, kontrakoa izanda ere. Aldiz hemen kreatzailean *Deus* bera da hain zuzen kanpora geratzen dena: sortzailea *egiaz* edozein delarik ere, subjektu bezala *spiritus intus docens* dauka, guri isuri zaigun Izpiritu

Santua. Presenteki hitz eginez: hasiera *sortzaile* baten handitasun *amaibakoa* galtzen da *Veni creator spiritus* etorkizunekoaren bidez hasiera azken batean premiatsu eta azken batean hasiberri baten *txikitasun amaibakoan*. Eta bera ez da behin betirako munduaren aurretiko sorkuntza orokor mitiko bezala, handik banatua eta prest egina bakarrik etorriko bailitzen. Aldiz: hasierako X, hasiera bera bezala, oraindik inolaz jazo gabea da, baina badoa, kanpora atera gabe eta objektibatu gabe, une orori dagokion iluntasun soilean zehar, *unearen orain-ez-hemen* bezala, munduaren martxan zehar. Ekintzaren ibilbide horretarantz eta horretara bultzatzen duena, oraindik beretzat ere ezkutaturik dagoen jatorrizko-kausa-momentu baten "bilakaera" egiazko bezala munduaren ibilbideari eta haren itxura experimentalari dagokionez, hain zuzen da guztiaren Alfa hori, bere buruaren bila dabilena eta oraindik objektibatu ez dena. Gizakiengan eta haien historian, erabakior den eta ezerezari bezala guztiari, hondatzeari bezala betetzeari dagokienez oraindik irekita dagoen *Experimentum mundi*-aren frontera iritsi zen hori, mundua bere osotasunean *laboratorium possibilis salutis* bezala harturik. Bidean egotea eta arrazoi gehiagoz amaia bera ere dago, nonbait dagoeneko itxita dagoen zerbait izan ordez, adibidez mito astraletan eta haiekin loturik dauden "betiko lege brontzezkoetan" egon ordez, aurrerako irekitasunaren topos erraldoian, jaiotzen, eraketan, probatan ari diren osotasunen posibilitate objektibo erreala oraindik baliozkoen topos erraldoian. Une orotan, orain eta hemen berez guztiz bertatiko, bitartekorik gabeko, ez objektibatu ez azalduan dirauen hasierako X-aren etorkizuneko toposean, alegia. Eta horretan bakarrik, hurbiltasun hurbilen eta inmanentzia inmanenteen horretan dago horregatik ezkutaturik bere misterioa, badagoela inolaz mundu bat, honen zertarakoa eta zein amaierako dagoen beretzat ere ezkutaturik daukana. Hala beraz izatearen ezkutuki hau, oraindik eskuratu ez den bere "irtebidearekin" batera, ez dago inolaz transzendentzia urrun mundu aurretiko edo mundugaindiko batean han goian; unearen ez aurkituan bakarrik aurkitzen da, inmanentzia inmanenteenaren une bezala hain zuzen. Bere buruaz ez jakite hori da egiazko bultzada arrazoia mundu honen azalpenerako eta hain zuzen da sufrikarioa, jarioa, oraindik utopikoki zamaturik dagoen bere materiaren kalitatea. Egiazko mundua oraindik sortu gabe dagoela, *berrian izatekoa*, - guztiz berezirik beraz *Deus Creator* baten guztiz antzinateko mitologiatik oso ondo buruturiko hasieran. Alderantziz: "Benetako genesia ez dago hasieran, amaian baizik", eta azkenik norantz eta zertarako guri behar bezala jakinarazi eta burutuetan hasten da haien nondikoa argitzen, eta helburura iristen. "Bada beraz munduan zerbait haurtzaroan denei agertzen zitzaiena baina bertan inor izan gabea: aberria" (*Das Prinzip Hoffnung*, 1959, 1628. or.). *Item, creatio est exodus, non est restitutio in integrum*.

Berriro ere Alpha mundi mortu eta huts bezala. Ez ilargirik ez eguzkirik "errebelazio" apokaliptikoan; Erreinuaren Kristo gisako figuraren irudia

Hainbeste da hasiera soiletik eta izandako bakarretik apartatzen duena. Inoiz bizi izandako unearen iluntasuna, eduki gabeko, erdietsi gabeko bezala, da lehenbizikoa, behin eta berriro bultzatuz, baina une berean oraindik inolaz jazo eta oratu gabe bezala. Hasiera benetako oro horregatik da halaber etorkizuneko, iraganean bizi da iragankortasunean berriro alde aurretik azaltzen den etorkizun bezala. Etorkizunak berak, hemen bere estalketaren aldetik, inoiz bizi izandako unearen eta beti egunean dagoen bere edukiaren iluntasun ireki eta zabala irudikatzen duen bezala. Ezen bat iluntasunean: *ezen* badago zerbait, izan badenaren zehar, biziki erakartzen eta teman setatzen den bere Ezen horretan benetan entseiatu diren bitartekotza eta ateraketetan, munduaren prozesu oraindik hondatu gabe baina halaber garaitu gabeko honen posibilitateen horizontean: oraindik gertatu gabeko *Ezen-bultzada*, aurrera erakartzen duen *jarrera*, oraindik gauzatu gabeko *ezkututasun* trabatze eta elkartze honek markatzen du bere azalpen diferentziatu bakoitzean orain arteko zer eta zerbait orok

munduaren lehen bultzadaren -eta horregatik sorkuntza ez den- helburu-eduki oraindik identifikatu gabearekiko proportziorik eza. Jakob Böhmek bere "arrazoirik eza" egiazkoa hasieran jarritz, arbasoen kultu erraldoi bat baino zerbait sakonagoa ikusi zuen hemen, apez-kodeko sei egunetako egintzaren apoteosi interesatua, alegia. Eta Schellingek azpimarratzen du hori areago minimalizazio pasarte kasik ezezagun batean, alfa propioari, hau da ez-propioari dagokionez, ikusten den bezain sakon: "Izate naturala alde guztietan bere burua ezagutzen ez duena besterik ez da; bera beretzat objektu den bezala, objektu kuzkurtu bat da bakarrik. Oharpen hauek aurrean daukagunari zuzentzen badizkiogu, subjektua bere esentzialtasun soilean ezerez bezala da - berezitasun ororen biluztasun erabateko bat - orain arte Hura besterik ez da eta zentzu horretan izan ororen biluztasun bat, izate ororen kontrakoa; baina ezinbesteko zaio bere burua jaztea, *horretarako* bakarrik baita subjektu, bere buruaren objektu dadin, aldezturik onarturik dagoenez, berataz *kanpo* ez dagoela bera objektu bihurtzeko ezer; baina bere burua jantzen duen *bitartean*, bera ez da gehiago ezerez bezala, baizik zerbait - bere burua jante horretan bihurtzen da zerbait; bere burua jantzean beraz dago zerbait-izan edo izan objektibo eta gauzatuaren jatorria inolaz. Baina den hura bezala, subjektua ezin bihurtzeko bere buruarentzat hartzeko moduko, bere burua jantzean beste bat *bihurtzen* baita; hauxe da oinarri-kontraesana, esan dezakegu, izan ororen zoritxarra - edo bere burua *utzi* egiten du eta orduan da ezerez bezala, edota jantzi egiten du bere burua, eta orduan da beste bat eta bere buruarekiko desberdin, -ez lehen bezala izanarekiko naturala, baizik bere burua izanarekin interesaturik dago - berak izan hori sentitzen du gaineratik jantzia bezala eta horregatik ustekabeko. Ohar ezazu hemen, horren arabera lehen hasiera berariaz ustekabeko bezala pentsatua dela. *Izan baden* lehenbizikoa, *primum existens* hori, nik izendatu dudana bezala, une berean da beraz lehen ustekabekoa (jatorrizko halaberharra). Eraikuntza guzti hau beraz hasten da lehen ustekabekoaren moldaketarekin -bere buruarekiko desberdin-, *disonantzia* batekin eta horrela hasi behar du noski" (Schelling, *Münchener Vorlesungen zur Geschichte der neueren Philosophie, Werke*, 1861, X, 100. or. h.). Hemen arazoa, beraz, Ezen- "subjektua" da honen bere-bertan eta berarekiko aurrean izan horretan, izanaren erakarpenaren aurrean: eta Alfa hau jartzen da Ptahren gisako eta Bibliako apez-kodean harturiko munduaren sortzailearen lekuan. Schellingean testu benetan espekulatibo baina inolaz ere ez fabulatuak, berariaz erabiltzen ditu metafora antropomorfoak, "biluztasun", "bere burua jantzi" bezalakakoak, baina batez ere "jantzi" horren modulazio sakonak gaineratuz, jantzi berdin bezala edota baita ere grabitazioa (norberarengana erakarri), jantzia berdin norberarengana erakarria, ustekabekoa, jatorrizko jantzearekiko desberdina eta horrela etengabe Zer eta Zerbait sailean dialektikoki disonantziaileak gaineratuz, haietara eramango duelarik munduaren bultzadaren "bere burua jaztea", une berean mozorrotzailea eta objektibizatzailea dena. Jakingarria areago, nola sorkuntzako Jainkoaren hondarrak Hegelengan ere oraindik erdi zapuztuak diren, hasieraren arazo apur bat moztuaz diharduenean. Hemen "erabakitzen du" "absolutu" batek, bera berez txiki eta ezerez bezala kokatzen dena, baina berehala sorkuntza guztia *ante rem* bere baitan hartzen duena, naturan bestelako izatearen forma bezala "jaregitea". Erabakitzea eta erantzukizuna uztea, hau ere guztiz bestelako zerbait da *creatio* baino, baina bere baitan dauka oraindik, "kualitate guztien biluztasun" horren ordeztu, *Deus creator*-en jatorrizko alfa guztiz indartsu zaharra, guztiz maiestatiko eta mundu plangintza paratuz betea inolaz. Izan ere nola sor zitezkeen bestela amaibako handitasun zahar honek, hitzezko *Fiat* batekin kreatzen ez badu ere, subirano gisako bihurtu diren "erabakitze" eta "jaregite" bien emanazio kategoriak. Zein bestelako itxura daukan horregatik, horren aldean, berriaren exodoko seinaleak, alfa gabezia soila guztizko errebelatze aldera irtetearen seinale bezala, zein garrantzizko gizaki eta bidean izate eta guzti.

Zenbateko neurri handian geratuko den murrizturik kosmo behin betirako egin bat, bere lege betiko, brontzezko eta oso-osokoekin eta haren sorkuntzaren ondoren ezer berririk ez duenarekin, sorkuntzaren mitoaren ondoan oraindik mito astralak, beronen sorkuntza emaitza absolutu bihurtuarekin hertsita, ospatu zen kosmo bat, alegia. Nola hain zuzen ere azkenik hondatua izango den Hara-dena-ona-zen hura kosmoaren bozkario paganoarekin batera, batez ere hemen, erarik propioen eta bere duen bakarrean *logosaren mitoak* berriro erasotzen duenean, *era kiliastan alegia. Oraindik garaiak zodiakoaren arabera arautzen dituen mito astralak ez bezala, logosaren mitoak, espero ez diren moduko mugimendu historikoak ekarri zituen mundu barruko kontaduriara, berri bat ezer baino lehen, goitik behera izarretan idatzirik ez zegoena*. Erromes zen *civitas Christi* baten pentsalari den Augustinekin hasten da lehenbizikoz *kontzeptuan* ere munduaren historia eta haren eskhatona. Erarik fantastikoenean eta radikalenean azaldu zen eskhaton hori azken garaietako azken liburuan, Apokalipsian, bere "lehengo gauzak igaroak dira" (Ap. 21, 4) askatasun deiarekin, lehengo hori batez ere heriotzeari baitzegokion, baina orohar baita ere zeru zaharrari, hemen heriotza ere zati bat denez. Lehergarrienera dago horrela zuzendua hain fantastiko bihurtu den Logosaren mitoak; era apokaliptikoan jo nahi du zuzen egun berrira. Eguzkiak azaldu beharrik ez duen egun batera, baizik bildotsak, eta "natura" estatikoaren ordez "erreinu" eskhatonak.

Hala ere: mito astrala mundu honetako zen, ondare ukaezina

Spinozaren Deus sive Natura-n, bere Pan-teismoan.

"Erreinu" utopian eragin kristologikoa duen naturaren arazoa

Hainbat betetasun azaldu zen, haren ostean gero eta hustasun handiagoa egiten zen bitartean. Eta oso argitsu zen hainbat saldu zen garesti, haren osteko lekua azkarregi murrizten eta iluntzen zen bitartean. Inoiz gutxienez era mitiko astralean adierazia zen gure-inguru naturalaren bapateko etsitzean. Mendiaren, ibarraren, ekaitzaren, trumoiaren eta gero oskarbiaren aurreko liluramen aztikeriatsua, esan dezagun paganoa, *passé* da, biblikoki hain argitsu ez den, baizik izpiritualki putz egiten duenaren aurrean amildu da. Baina benetako naturaren gure-ingurua ere bere lekuan amildu da, behin betirako joan, atzean utzi eta aintzin maila bezala, ez bada azal bezala, nondik alea, hau da bizitza, gizakia funtsean irten diren. "Harriaren erreinu" soila mailarik beherenera hustutze edo gutxienez baztertze honetan laguntza handia eskaini du zalantzarik gabe Logosaren mito soilaren *plus* sutsuak. Besterik ez bada gehiegizko bihur daitekeen mundua "menpeko" egiteko deiarekin. Morroi bat bezala inolaz behean ikusia izango da lurra, baztertua, onenean gure sustraiantzako lur soil izatera eta ez bestetara apaldua. Ilargia eta eguzkia ere ez dira ezer berenez edo halabeharrez gizakiaren historiaz kanpo oraindik bereena iragar dezakete, baldin aldeztu aurretik beste "sorkariak" argitzeko izendatuak badaude. Sorkariak baino goragokoak noski, eguzkia eguneko argi bezala, ilargia gaueko argi bezala lurreko bizitzarako. Baina natura, ezarri zaizkion beste maila antropomorfoko xedeen zerbitzuan ez dagoelarik, ez zen izan elizaren bidez gainean jarri zitzaion logosaren mito baten bitartez desliluratua, elizak seriotasunetik handienaz uste izan duen bezala. Mito astraletik erdi datorren *Ananke*, premiazkotasun fisikoak ekarri ez balu bezala naturaren lehen teoria mekaniko eta izpiritubakoa; hala da noski Demokritorengan, ez noski Tomasengan. Horren alderantziz, kosmoa, agintzen duen eta oraindik ere agintzen dagoen Logosaren azpian, eta harengandik kanpora hain zuzen ere elizaren aldetik ez zen desliluratu bezala azaltzen, baizik kontrara guztiz demoniatu bezala, mamuz eta ehiztari basatiz beterik, zoritxar guztietara irekia. Horregatik eta ez arrazoirik gabe hartu ohi ziren Roger Bacon edo Alberto Handia bezala natura ikertzerak jotzen zuten filosofo kristauak ertaroan susmo txarreko zat; Galileo bera ez zen desliluratzailerik bezala agurtua, eta Kepler hain zuzen "Harmonia *mundi*" batetik, "*Mysterium cosmographicum*" batetik abiatu zen, ez logos transzendentetik. Zalantzarik gabe, *rebus sic stantibus*, lehendik ezarritako logosaren gailur erabatekoak baditu transzendentziara iritsi gabeko salbuespen gutxi batzuk. Bibliako, ez bakarrik Itun Zaharreko, naturaren irudi kontaezinezkotan, ikuskizun guztiz materialean edertasunetik, are goititasunetik datozen parabolak pila ezinbestekotan aurkitzen dira. Patristika kristauak kasik etengabe jotzen du Gnosiaren haragiarekiko eta naturarekiko gorroto benetan abstraktu eta fanatikoaren kontra. Tomasek berriz ondo ezagutzen du Aristotelesengandik datorren materiaren kontzeptu bat, ideia (forma) gizakienganaino, gizakiaren itxuraino entelekia gisan luzatzen dena. Aingeruengan eta ustezko gainerako transzendentzian hautsi behar da hemen materiaren esku hartzea, hartaz naturaren azken esku hartzea; hara bitarte Tomasengan inolaz "*formae inhaerentes*" daude, hau da forma materialduak, ez inolaz "*formae separatae*". Onarturik dagoen apokalipsia osoan aurkitzen da esatera tomista esanguratsua: "*Gratia naturam non tollit, sed perficit*". Hala ere hemen ere falta da giza xede sailen *lur hartze* posile oro kosmikoan, baita haren era bereziko *Absconditum* posiblean bertan ere; naturak ez du inon uztai bat egiten, ezta berenez garden diren mito astraletan bezala, gizakiaren historiaren gurariaren gainean. Joana, aintzin maila da beti oraindik, "onenean" hain zuzen Eguberrian eta Pazkotan, "jakin gabe", izanaren maila beherenean, misterio

kristologikoen "ospakizunetan parte hartuz". Eta Tomasek esan esaten badu ere: *Gratia naturam non tollit, sed perficit*, perfekzio bide hau ez da hemen inondik ere, Faustoren azken zatian bezala, *Civitas dei*-ren aurrean ez baina kanpoan dauden "mendi gailurretako" gardentasun moduko bat azaltzen den perfekzio bide bat.

Geroagoko pentsalarietan ikusiko da hori garbien, haien atsedena ikusten bada. Kanpoko iraunkorrari eta haren lilurari dagokionez haiek duten inbidiarik eza ikusten bada. Hasteko estatikaren aldetik, naturaren forma artistiko deituei dagokienez. "Ez-ni'renak dira, eta berriro lantzen eta gizakiaren menpe jarri zituen *Fichtek* berak ere horregatik ez zien begiratu ere egiten. Aldiz *Kantek*, kontzientzia ernezailleaz aparte kanpokorik ezer utzi nahi ez bazuen ere, ederraren, are goititasunaren sentimenetan bikoitz jokatu zuen. Ezer baino gehiago ez zuen aurkitzen gizakian, "izpirituaren" irudiaren plusean, baizik "paisaian", beraz "naturaren edertasunean". Beraz, artista bera ez zen geniala lehendik finkaturiko araei jarraiki lan egiten zuen neurrian, ezta ere logosaren eran irrikaz beterik, "zeruaren kuttun" bat zen neurrian, baizik "naturak bezala sortzen zuen" neurrian. Horren arabera naturaren edertasuna dago jarria neurri bezala, arteko edertasunaren gainetik ez esateko, lehenbizikoak, zeru izartsu bezala ere, izar irudi zaharretara noski erakartzen ez badu ere. Alabaina, batez ere naturan, ekaitzean, itsasoan edo mendian dagoen goititasuna goititasun bada, gu era horretan zapaltzen bezala handik ateratzen gaituen horretan "gure etorkizuneko askatasunaren zantzu" bat ematen digulako eta hura emateko da bakarrik. Beraz egiaz gizakiarengan moral logiko batera bideratzen du berriro, baina ezer baino gehiago naturarekiko jaineraz betea da betiere. Guztiz alderantziz noski eta berriro murrizketarik gabe biblikoki natura-izpiritu ordena hau bere gailurrera iristen da *Hegel panlogista* radikalenean, berriro ere topiko estetiko soilaren gaindi urrunago joaten delarik. Hemen naturaren edertasuna inolaz arteko edertasunaren azpian dago; natura orohar "jainko bakante" bat bakarrik litzateke, "ez lotu ez kontrolatzen ez dena, hiltzen ez bada behintzat". Lurra "erraldoi gorpu bezala izpirituaren arnasetik apartaturik gure oinetan datzan" gisan, erabat etorkizunik gabeko bihurturik. Pasarte oso zorrotz baten arabera, "materiaren egia bakarra" omen den bezala "egiarik bat ere ez daukala"; arimaren, izpiritu subjektiboaren eta gero objektiboaren eta absolutuaren agerpenaren ondoren hain zuzen. Zein bestela noski, zein inmanentziaz beterik aurkitzen den Hegelen *mundugintza*, hau hala ere ez izpiritu soilaren egintza, baizik beti *munduaren* izpirituaren egintza bezala azaltzen denean. Betiere mundu honetako diren konkordantzia haiekin, konkordantzia hauek ustez idealista soil zirenak ez bakarrik etengabeko zehaztasunzale bihurtzen dituztelarik, baizik hain zuzen ere beste era batera, hau da orohar, aro modernoko kosmoari buruzko pentsalari handiena, *Spinoza*, haiei ezagutarazi zielarik. Hortik dator Hegelengan "Fichte" subjektibistaren eta "Spinoza" Pandarraren arteko azken "gurutzaketa" hura. "Askatasunaren" bultzadaren eta "Substantziaren" alor oro hartzen duen, are gehiegi hartzen duenaren artekoa Hegelengan orohar. Spinoza ordea da, sarri kabalaren gisan eraldaturik dauden mito astralen hondarrek gidatzen duten azken pentsalari europarra. Beste mundu bibliko, naturaz kanpoko guztiz falta da, hark gurekiko lukeen gaizkia edo baita ongia ere, besterik ez bada atxikimen eta ideia faltsu eta desegokietan, sekula izan ere izan ez balira bezala. Beste inon ez bezala bihurtu zen "natura" erabat inbertsonal, Jainkorengana eramandako *Fatum* geldi eta autarka bezala, berberaren kausa izateaz aparte beste ezer ez duelarik eta inolako xederik gabe. Azken hau, Spinozaren ustez, guztiz bazterreratu den historiaren, logosaren eta are apokalipsiaren izaerari omen dagokio, naturaren moldeen "amor fati" orotik, eta *sub specie aeternitatis* egokia izan behar duen gelditasunetik urrun. "Substantzia" horregatik hemen izango da bere gailurrean dagoen munduko eguzkiaren kontzeptu nagusia, eguzki horrek ez baitu itzalik egiten halako panteismoan, betiko "sequi ex"

hartan, honek Spinozaren ustez, ez bakarrik metodo aldetik, euklidestar izan behar baitu, baizik halaber substantziaren alorraren emanazio astral ere bere munduaren modu partikular eratorrietan. *In summa*: mugimendu oro hemen orohar berriro da gelditasun, parekorik ez duen kosmo batek logosari handik irteteko pentsa litekeen modu oro gainditu dio, unibertsoa Jainko guztizkoaz dobelatuz. Denborarik gabeko erabat, amairik gabeko bestela ere *per se* gainezka zegoen Panaren bitartez; honen espazioa gure-inguru-esfera guztiz astrala da Spinozarengan oraindik eta ez azken batean orosubstantziaren "atributu" bat gehiago beste hainbeste eta hainbesteren artean. Horrek Spinozarengan kosmoaren indarberritze indartsuena dakar denbora irekiaren kontra, gizakiarengandiko irteeraren logosaren kontra eta harengatik gainera; beste inon ez dago urrutiago kontrazentru eskatologiko bat munduaren zentru baten ordeztu. Horregatik Goethek, Spinozarekin mundu maitale, honen Jainkoari buruz: "Hari dagokio mundua berarengan, eta bera munduan gordetzea". Eta geroago, zenbaki handien legearen arabera, honi jarraiki izan ere handitasunarekin, handitasunaren sakontasunarekin berarekin denak Panengan erabat behar bezala antolatutik egon behar baitu: "Saiatze oro, borrokatze oro gelditasun betiko da Jainko Jaunarengan". Guzti honetan berriro ere arazoa da naturaren *toposa* pneuman, bereziki ordea *pneuma azken natura* batean; labur esateko: *inolaz ere bere baitan bakarrik mugitzen den logosaren erreinua*. Hortik beraz azkenik guztiz bestela bataiatutako naturaren substantziaren arazoa, beste ezer baino lehen substantzia hori logosaren erreinu eskatologiko baten menpe jarri beharko bailitzateke. Menpe jarri, bufada, "noologiko" ikustezinezko, lurrik gabeko, espaziorik gabeko soilaren ordeztu, eta edukiaren aldetik ideiatik ideia besterik ez duen idealismo gairik gabekoaren ordeztu, horretarako hain zuzen ere benetan sorturiko esentzia ez bakarrik bihurtuko bailitzateke gure-inguru-naturarena, baizik mundu-substantziarena berarena ere. Zalantzarik gabe badagoen naturak hartzen du berari ez dagokion leku bat - hark ezer baino gehiago giza helburu sailekiko, are haien joera eta ezkututasun azken eta etorkizunzaleekiko duen desberdintasun hain izugarrian. Hauek egiaz ez daude inolaz zuzenduta astral batera, Pan gisako lurreratze soil batera. Hala ere gizakiekiko independente den kanpoko mundua dagoeneko oraintxe bertan, gurekiko bitartekotza sakonago bat baino askoz lehenago, "naturaren gizatiartze" posiblea baino askoz lehenago, ez da desberdin *toto coelo* gurekiko, hain zuzen gure sakonenarekiko. Landu beharreko lehengaien fenomeno soilak dagoeneko, naturaren edertasunaren, naturaren goititasunaren erantzun fenomeno harrigarriagoak berak erakusten du guztiz bestelako zerbait, berdin lekigukeen bestelakotasun horren aldean. Eta halaber Goetheren spinozismoak, bere burua utopiko bezala hartu ere egin ez duen panteismo horrek, bere oronaturaren gizatiartzetik zorionaren irudiak hartzen ditu, *natura sive deus* hori izan ere izango balitz bezala -oraintxe bertan. Ezpairik gabe, uler daiteke ez bakarrik gizakiaren historia baizik -bestelakotasun iraunkorrekiko behar den urruntasuna hartuz- munduaren gertakari fisikoa eta itxuraketa esperimendu bezala, orain ezezagun, egin gabeko, osatu gabeko adibide baten proba bezala ere. Materia lehengaia ez egur puska gauza bihurtu soil bezala hartuz, baizik definizio jatorragoaren arabera, Aristotelesen arabera, beraz aspaldidanik azken batean gisa espekulatiborik ez duen definizioaren arabera, oraindik "Dynamis on", "izan-gai" denaren azpioin bezala hartuz. Baina benetan, logos eskatologiko honek, ez daukagun munduari dagokionak - mundu gabezia guztiz izpiritual baten tentaldi guztiak arren- bere zero berria eta are bere lur berria ere lur honetan utopizatu ditu, nahiz hori mitoaren bitartez egin. Nahiz era bereziki apokaliptikoan lehertarazitako lur bat bezala, hain zuzen ere naturaren lekuan, lur zaharra ez baitzen naturako, baina haren *toposa* geratu egin da eskhatonaren irudiaren logosaren mitoan, Jerusalem berrian, alegia, ez baita bakarrik logosaren mitoaren arabera, meta-fisikoa ere bai baita. Jerusalem berria ilargirik eta eguzkirik

gabea Biblian, Gizonaren Semea argikari bakartzat duela, baina, hala eta guztiz ere, "erreinu" izateraino desegina dagoen, baina une berean bere benetako egia eskatologian azkenik desestalia izan behar duen "naturaren" lurraren gainean bezala ortzian. Hau bakarrik dago pentsaturik *kosmoaren eta logosaren ez-ordezko azken* bezala fantasmagorietan, bereziki Apokalipsiko *Genesiko irudi* guztiz berri eta kontrakoetan, hau da erabat Exodoari lotuetan. Eta horren arabera Apokalipsiaren eredu bortitzak badirudi baletorkeela -guztiz bestelako maila batean- *natura sive deus* ere azkenik etxera, hau da on bihurtua, benetan "bete-beteko" egina. Mitorik bat ere gabe mintzatuz: *mundua aberri bezala*, horixe dago hemen gure-inguruko-munduaren ondarean bezala aberriaren *novum*-ean, hau aurpegi estaliaren hurbiltasunik gabe ez baita inolako subjektu, eta bere erreinuaren muineko inolako edukirik ere ez dauka. Zein urrun zinez azaltzen den Patmoseko ahotsa bezalako gauza urrun bat, gizakiaren espazio baten ondorioan apokaliptikoki adierazia bezala. Zein izugarria den fantasiakeria bortitzaren arteko eta kosmos ordez *Urbs christiana* bezala bakarrik azal zitekeenaren oroitzapenaren arteko nahasmendua. Baina beste inon ez da finkatu berriro utopia kristau erlijiosoaren Omega bat, munduaren hondamendiaren, Kanaan berriaren utopia "Jerusalem berriari" buruzko Ap. 21, 23an baino era ez-transzendenteagoan transzendenziaz bortitzenean. Erlijioa utopiaz beterik dago eta utopia da noski haren zatirik muinenekoen, "lurralde librean dagoen herri libre", *civitas Christi in natura ut illius civitatis extensio* bezala osaturiko Omega. Izpiritu soila baino onartzen ez duen doketismo ororen kontra, munduaren aldaketaren alde *bere osoan*, gizakia harekin, mundu arrotz batekin bezala, gehiago loturik ez dagoelarik.

45

Parekotasunik ez, bai ordea bidezko bitxitasuna: gizatiarra eta materialismoa biak oldartzen dira "Jainkoazko transzendenzian" eta haren ordez jartzen dira

Barneak, arimari dagokiona ere deitu ohi denak, sarri beretzat bakarrik ehuten du. Gorputzaz oso hertsiki loturik dago noski, baina ez ikusten dena ikusten ez denaren pareko izateko moduan. Zein sarri kontrajarri diren arima eta kanpoan hertsiki eta ora daitekeen gaia, norberaren baitan dagoen bezala hura, eta kanpoan gizakiaren inguruan espazioan zabalduriko izate bezala hau. Barnera jotzen du misteriozko bideak, esaten da era idealistan; kanpoan dagoen gaira, guztiz barnerik gabe, jo behar du korapiloak askatzen dituen bideak, esaten da era materialistan; hau da misteriozko izan behar ez duen, baizik erro mekanikotara daraman bideak. Baina berriro ere Feuerbachek, inolaz ere idealista izan nahi ez bazuen ere, esaten du tesiaren kontrakora joz: "Gizakia da berak jaten duena", bere lehen pentsamendua Jainkoa izan omen zen, bigarrena mundua, eta hirugarren eta azkena – gizakia. Horregatik, bada, hori era materialistan ez da ikusia izango argibide edo garbitasun bezala, baizik era mekanikoan argitu beharreko bezala. Marxek ere horregatik, Feuerbachen eraginpean, "gizakia" eta hari buruzko argibidea historiaren aldetik lehen mailakotzat jartzen zuen: "Radikal izateak esan nahi du gauzak errotik heltzea. Gauza guztien erroa ordea gizakia da". Eta bere ikur hitz hau geroago Marxek "gizaki" genero abstraktutik ateratzen duenean, *genus* hau "gizarteko harreman multzo" bezala zehaztu zuenean, ez zuen horratio ekonomiara eta gizartera zabalduriko materialismoan inolaz ere gizakiari zuzenduriko ikuspegia baztertu. Natur zientziei zegokien materialismo soilaren gainetik historikoa altxatu zen, zalantzarik gabe ez bakarrik mugimendu mekanikoaren indarrez, baizik gizakiak sorturiko produkzio moduaren indarrez baita baliozko era dialektikoan. Baina aurrera jarraiki: antropologikoa eta materialista bata bestearen ondoan egotea, are elkarrekin egotea ("arima" eta kanpoko gaia beraz) ez al da bakarrik harrigarri gertatzen -burgeski ohi den bezala- materiaren kontzeptu mekanikoaz aparte besterik ezagutzen ez denean? Egur

puska baten materia bakarrik (horren azpian dagoen energia atomopekoa arren) ezagutzen denean, are mito astralaren hondar baten materia denez, benetan inolako gizonek, ezta Gizonaren Semeak ere, halako egur puskan lekurik izango ez lukeen modukoa. Baina materiaren kontzeptu mekaniko soila ez da bakarra materialismoaren historian, harekin loturik dagoen kontzeptu "hila", pisu eta mugimendura mugatua, egiaz kualitaterik gabea bakarra ez den bezala. Ezta "arima" betiere "suzko atomo" propioz osaturikotzat jotzen zuen Demokritorengan, ezta Epikurorengan ere: honek Demokritoren "premiazkotasun" mekanikoan "atomoen erorketa libre" bat gaineratzen zuen, "erorketa zuzen" mekanikoaren salbuespen bat beraz, nolabait esateko nahimen librez egindakoa. Aristotelesek materiaren kontzeptura ekarri zuen berriki estrina ulertu den posible objektibo-errealaren kontzeptu hain inportantea. Horren arabera, materiak, azalpenen sarrerarako baldintzatzaile mekanikoa izatez gainera, *kata to dynaton* ("posiblearen neurriaren arabera") horretaz gainera batez ere benetako *dynamei on* aurkezten du, "izangai izatea" bera. Tamalez pasibo eta zezhatasunik gabekotzat aurkezten du, "ideiaren forma eragileak", zigilu baten antzera, zeinahi irudi zehatz bat ezkoan grabatzen duen bezala. Baina berehala etorri zen Aristotelesen materiari buruzko premisetatik abiatuz "ezker aristotelestar bat" materiaren kontzeptuari pasibotasuna kendu eta ideia markatzaileen aktibotasuna gaineratu ziona: munduko materia era horretan azaldu zen benetan mater-ia bezala, gauza guztien ama bezala, horretarako bere burua ernaltzen zuena bezala, "natura naturata" guztiaren edo munduaren "natura naturans" autarkiko eta berenez aski den bezala. Hau bereziki Avizena eta Averroes aristotelestar arabeengan, beren tesi nagusiaren arabera: Garapena azken batean da "eductio formarum ex materia", -inolaz garbi dagoenez pasibo eta kualitaterik gabeko ez den, aurki gainera *Aita Jainko transzendentetik bat ere behar ez duen* natura batetik. Horrela bada, hemendik aurrera asmatu zen munduaren substantzia guztiz inmanente bat, eta haren "bizitza" Parazello, Giordano Bruno eta Spinozaz gaindi Goetherenganaino luzatzen da. Eta substantzia hori ez zaio inolaz gizakiari ("uomo eroico" bezala Brunorengan, "vulcanus interior" bezala Parazellorengan) arrotz, kosmoan haren pareko izango baita. Hain zuzen ere transzendentzia baztertuan sartzen dena, polemikoki gutxienez (Pan-Teismoaren indarrez) han parte duena. Goethek dioenez hain zuzen: "Zer litzateke Jainko bat, kanpotik bakarrik bultzatuko lukeena, / ...Hari dagokio natura berarengan, eta bera naturan gordetzea". Natura moduko honek esan nahi du hemen "zertxobait bestelako hitzez" noski, *natura naturans*, hura ikusten duenak Aita ikusten duela, eta bera eta aita bat direla; ez era antropologikoan noski, bai ordea trenzendentziarik gabe badago hemen *subjektu* bat, mundua barnetik mugituz, *naturaren* subjektu bezala. Ezker aristotelestarrak ekarri zuen materia forma sortzailean sartze hau, ondoren eskuinean zegoen aristoteldar handiak, Aquinoko Tomasek ukatu zuen Avizena eta Averroesen kontra erarik zorrotzenez. Goreneko inmanentzia materialaren ordeiz irakasten du Tomasek: "lur hondarra", "forma inhaerens-a", hau da, materialaz horniturik dagoena, iristen zen gizakiarenganaino, honen gorputz-arima batasun oraindik lurtiarraraino. Desagertu egiten da gizakiaren eta Jainkoaren arteko mailatan, lurgaindiko aingeruetan beraz, hauek "formae separatae" garbiak bailirateke. Jainkoa, zeruetako Jaun bezala hartua, materiatik libre dago beraz, honek inolaz ere, ezta natura naturans bezala ere, haren transzendentzia autokratikoan ezin baitu sartu. Ezta Jainko sortzailearengan ere eta horregatik, geroago Spinozarengan bezala, ez noski Gizonaren Seme bezala, bai ordea Pan bezala hots egiten duelarik: ni nago aitaren lekuan, *sub specie substantiae*. Egiaz: Ez al zuen, bada, transzendentziari buruzko Plotino pentsalari radikalak askoz lehenago "hilê noêtê" bat, materia izpiritual bat *Usia*, esentzia gorenaren atetaraino luzarazi? Eta neoplatonismo paradoxal honetatik oso urrun ez dagoen Avizebron filosofo espainiar juduak (Giordano Brunok aintzindari

bezala hain zuzen aipatzen duen pentsalari bat) inolaz ere lurgaindikotzat bakarrik irizten ez zituen aingeruen irudien bidez lurreko izpirituak ere, materia bailiren gogoz kontra beren Jainkoaren aurrean geldiarazi zituen. Horregatik: "arima" edo ustezko materiarekiko, horretarako *a limine* kualitaterik gabekoarekiko kanpokotasun absolutua, ez da salaketa edo materialismo ez mekaniko bateko erdi-irudi hauetan ordain bakarrik: logosak eta kosmoak elkarrekin trukatzeko dituzte batzutan, Avizena eta Averroesengan gutxienez, *-transzendentziarekiko antitesian-* bere aurpegi antropologiko eta pansofikoak. "Logos spermatikos", honi dagoeneko Stoak erantsi zion bere kriptomaterialismoa, bizi emale eta helburu iragarle bezala. Nahiz era kristaua hartu duen Logosak sekula eman ez badio ere aukerarik mito astralaren gisan erabat gurtua izan den kosmo existenteari inolako Omega bezala hartua dadin; ez litzateke izango bestela kosmoaren inolako *apokalipsirik*. Gizonaren Seme bezala irrikatu, pentsatu eta utopikoki gogoratu beharrekoak sekula baino era radikalagoan gaineratzen dio noski *Pan utopiko* bat transzendentzia hipostasiatu bati. Sartzen da, status oro gainditzen duen argiaz pizten denean, *naturam sive deum* ere kiskaltzen duen subjektutasun haren errotik abiatuz. Edozein modutan ateismo iraultzailea, Deus ordeztu Pan jartzearen bidez, ezagunago egin da kristautasun herese jator eta subjektutasunez betearen bidez baino. Baina: hitzez hitz, azken hitza, anti-transzendentzia (baita emanazio ere) egiaz ez mugimendurik gabekoan, ez dauka spinozismoak, bere *amor fati* horrekin, "Ikus, dena berri egiten dut" beste goiburu haren parean. Logosaren goiburu bat, "natura naturans" hura, baita "naturaren subjektu" ere, are premia eta menpekotasun astral zaharrak baino askoz urrutiago dagoena.

VII

BIZITZEKO ADOREAREN ITURRIAK

46

Ez da aski

Zerbaitek, bada, kanpora bota eta bultza egiten digu. Gudan ba al dago Nor bat edo aski da horretarako ere bizirik egotea, hau da gose izatea? Abereengan eta gu haien berdin egiten gaituen horretan, jaki, lagun edo babes gosea baretu egiten da, hura ase bezain laster. Ez du segitzen, gizakiengan bezala, gehiago eskatuz, bestelako baliapide, norantz eta zertarako berriekin asetu nahirik itzuli-mitzulika. Izan ere gosea bera, gure lehen bultzaketa hau ez da gudan amaitzen, aurrerago bidaltzen du, zerbait gehiagoren gustua dauka. Noberak beharbada daukana ere galtzeko arriskupean. Biziera aldarrai segurtasunik gabea utzi eta oin geldiko bihurtu zirenean oraindik gizakiek gauza berrien irrika gero eta handiagoa izan zuten. Horrek noski ausardia mota berri bat eskatzen zuen, oraindik aurkitu gabeko bat. Hori ez da erdiesten koldarrekin, baina ezta ere, ez gutxienez borrokarekin eta lehendik oso ondo ezagutzen diren bideetan zehar aurrera egitearekin. Gu bidera bidaltzen gaituenak eutsi behar digu hartan, ez hantxe izoztuta geldiarazi. Ez dago bestela asetzen duen inolako norantzik, bere buruarekiko leial segituko duenik. Ez dago nolabaiteko halabeharrez gizakiaren burua goian, eta ikusten duen gauzarik onena bere kontrara ikusten du. Ez bada ez dela gehiago ibili ere egiten eta haren jolasa bakarrik ez dela amaitu.

Zeren aurrean egon daitekeen irekita

Oraindik ahula denak balantza egiten du batean honera eta bestean hara. Erraz dator koldarkeria gainera, ez du esaten hau edo bestea, gero esan dakion honela edo bestela esan zuela. Honi ez beti kontrajarrita, badago, nolabait esateko ezeri irmo eusten ez dion kaskarinaren ondoan, zenbaki segurua bakarrik jokatzen duen hura ere. Bere arriskurik gabeko jokabidea segurtasunik ez duen gauzarekiko gutxienez leialtasunik gabekoa da. Bereziki batek horietara jo behar duenean, are haien ohorea arriskuz betea eta osatu gabebekoa izatea denean. Horregatik ez dira koldarraren, ohe eginaz aprobetxatzen direnen gustuko. Eta horrela gelditu direnak zalantzatien artean galtzen dira, beraiek behar duten heldulekua bera ere inolaz prest dagoen helduleku bat ez denean, inolaz ere egiazko diru emana eta horrela kobra daitekeena ez denean. Diru horri zerbait gertatzen zaiola, eta denbora aldatu ahala haren balioak behera egiten duela, orduan berehala esaten zaio agur hain seguru segurtatua ez zegoen konfidantzari. Zenbat eta erosoago, setatsuago, irmoago sinetsi den buruz ikasi behar izan den heldulekuan, orduan eta era mingarriagoan amaitzen da, haren zati bat bakarra galtzen denean. Lehenago hain babesle, Salmu bat bezain tinko zirudiena, ezpainetako kalaka bereziki haizetsu bihurtzen da. Hau era oso erosoan lotzen da ohizko helduleku arrunt bihurtu denarekin, aginduekin, alegia: Idatzita dago, edo: Partiduak beti du arrazoi, eta: Jaunaren hitza ez da zalantzan jarri edo arakatu behar. Helduleku bermatu mota guzti honek ez dakar berarekin inolako bultzadarik. Batez ere pentsatzeko bultzadarik; gehiegi daukan heldulekua, hau da osotasun bat, muinik eta azalik gabea, osotasun bezala galtzen da. Aldiz, benetako heldulekua hedatu egiten da haren bila aritzean, haren susmo hutsezkorrean, bidearekiko eta haren seinaleekiko leialtasunean. Halako batek bakarrik egin dezake huts, are egin behar du, gero eta egiazkoago dadin. Ez du jartzen alde zurretik baldintza moduan dena goitik behera, ahaia bezala, eman behar zaion inolako heldutasunik ez duen norbait. Asebeteta ez egotea, horrek hobeto eusten du bidean, era horretako itxarotea itxaroten duenarentzat helduleku bat da. Onenak eraginkor izan behar du -barrundatuz egozten duen bitartean, hitz ematen duen horri ere eutsi ahal diezaion. Ireki bezala han guri eskaintzen zaiguna ez da inolaz lehendik egina, haren betetze faltsuak ez du ematen inolako heldulekurik, non heldu, norbera engainatu gabe, erorialdi oraindik handiagorik gabe. Belauniko erori gabe, segurtasun arrotz, gezurrezko eta egin bati kontua ordaindu gabe, fede ziur aurre-jarriaren bidez itxarotetik erauzia izan gabe. Non edo han dena on balitz bezala, guk daukagun borroka eduki orde. Hau oraindik ez da inon amaitu, beraz erabaki gabe dago. Ez bada "baina" erabakienean, bidearen irekitasun, hartzidura eta posibletasun eutsian eta haren aurre-irudiketan. Handik deitzen du etengabe, beste sinetsi beharrik gabe, ez bada, une berean asekaitz, eginkor, joera objektiboa ezagutuz konjuratu eta aintzindari egiten duen, egin *dezakeen* itxarote hura. Hori noski babes on eta lehendik prestatu batean egotea baino gutxiago da, baina alde zurretik finkatu eta ondorioz faltsua den helduleku batek baino gehiago eta gu gizakiak askoz gehiago errespetatuz eskaintzen digu. Eta baita ere lehendik prestatuturik, hau da lehendik eder apainduriko jaki edozein batek baino gehiago, horrek gehiago nahi duen benetako jangura gerorako uzten baitu.

Benetako Argikundeak ez du egiten arrunt ez oinarriarik gabeko

Pentsatzeak ez du uzten ezer erakus dakion, hori bere ezaugarri da. Bi eratan hausten du, berritan hasiz eta lurrin zaharra kenduz. Ezerk ez du izpiritua iraganetik lotu behar, ez ohizko bezala ezta lokarri batek bezala oratu eta geldiarazten duen anatema bezala ere. Estalia, are jatorri itxurati batez eta inolaz on ez ziren antzinako garai onez apaindurik. Batez ere fede kontuetan jator ez diren gauza asko garraiatzen ditu

berarekin, bereziki agintaritza galkorrarekiko, tamalez oraindik iraunkorrarekiko lotura gehiegi. Guztiz bestelako zerbait sortzen da noski, iraunkorra bezala kitatu gabea azaltzen den bezain laster, ondorioz, iraganetik etorriaz lotzen ez duena, baizik etorkizunetik gure bide propio libreria ateratzen zaiguna. Orduan emantzipazioari eta horri hain zuzen paradoxa gisan ezagun bezala egiten zaizkio gauza asko irudi kristautetan: hau da, ez gehiago segida bezala gogoan izanik, baizik berriki topatu eta elkarren artean lotu berri bezala. Historiaren ordeaz eta gaizki egindako desliluraketaren hondarren ordeaz, emantzipazioak, bere ezaugarri kristologikoak eta mesianikoak erakusten ditu. Kultur obra indartsuak bezalako ondare soila baino askoz gorago aurkitzen da hori, haien indarra bezala sakontasuna ideologia erlijiosoaz eta haren gainezka egiteaz loturik legokeelarik. Hemen adierazten dena itzulera autoktono bat da azken batean; askatasunak berak ez dauka beste erremediorik bere baitan Egiptoko irteeraren, Babelgo hondamendiaren, askatasunaren "erreinuaren" irudiak aurkitu baino. Egiaz, Leninek uste du, arrazoi osoz, gaizki egindako desliluraketaren kontra, eta orobat kontrabando erreakzionarioa dakarren kontrabandisten kontra: "Bi gauza elkarren artean berezi dira agitatzaile batek horrela" (sc. era erlijiosoan helarazitako kontzeptuetan) "hitz egiten badu, ulergarriago izateko, bere azalpena hasteko, garatu gabeko saldoei ohizkoen zaizkien esamoldeen bidez bere ikuspegiak egitiarkiroago ikustarazteko, edota idazle bat hasten bada "Jainkoa eraikitzea" edo "Jainkoa eraikitzen duen sozialismo bat" predikatzen... "Sozialismoa erlijio da" tesia batengan erlijiotik sozialismorako iraganbidea da, eta bestearengan sozialismotik erlijiorakoa" (*Über das Verhältnis der Arbeiterpartei zur Religion*, 1909). Leninen azken bereizketa honek arrazoi du marxismozaleen artean gaizki desliluratuak, arrautza koskola utzi ez dutenak edota beren gorputzeko bi erdien artean, elizaren eta partiduaren artean "elkarriketaren bidez bitarteko" diren zentauru erdizkatuak jotzen dituelako. Horrekin ezin nahas daiteke, lehen mailako desliluraketa batek, beren ateismoan, eta horretan hain zuzen, antzinako arketipo erlijioso iraultzaileak aurkitzen dituenean. Eta haiek zapalkuntza mito orotatik ateratzeko, haiek hautsi eta hausten dituenari, hausturari berari izendatzeko adierazpenarekin. Orain arteko jaunen elizak horrekin ez du ezer irabazten, alderantziz: hereseak ateoak bezain gustura erre ditu, gusturago ez esateko. Ulertzekoa da hori, izan ere hereseak kritiko bezala, lehen kristautasunetik, eta ondorioz barneko kontzientzia txarretik, eta elizaren antzinako eraikuntzaren oinarri onetik baitatoz bereziki eta horregatik ziren arriskutsuago muinean bertan; horrela askoz aztoramendu gutxiagoz aurre egiten zion behinola Sinodo Santuak Errusian Haeckelen "munduaren asmakizuna" ekartzeari, ideia lehenkristau iraultzaileei edo Dostoievskiren Mixkin printzearen irudiari baino. Hemen jaunen elizaren barneko bastioiak dira suntsituak, beren mundu propioan. Alderantziz, eta bestela, *erdiesten du* bai marxismoak, berak ere kristautasuna Erromako estatu erlijio bihurtzean jasan zuen desitxuraketan parte hartzen badu ere, bere barruan inplizito dauden "askatasun", "erreinu", "halabehar menperatuen" arketipoen bidez bere azalpen ildo egiazkoa, bere betetasuna, bere *Totum*-a. Ez du hori erdiesten positibismoaren edo hemeretzigarren mendeko naturalismoaren bidez; hauek egiaz transzendentzia kanporatu baitzuten, baina baita guztiz bestelako gauza bat ere, marxismoaren bizitzako osagai bat, alegia: *transcendere* -aurreraka, bilakaera. Eta bilakaera honetan, historia egiten duen subjektuaren askatze eta identifikatze posible bezala, behinola era erlijiosoan adierazitako *askatasun-arketipoak* ez dira azkenak edo hain zuzen -beste zentzu batekin, azken helburua ispatatzen duen baten zentzuan- benetan azkenak dira.

Baina gauzatu zorabio orotik, gozonenetik ere, libratu direnek gauzatuko dituzte. Baina hitzez bakarrik kristau zirenek ezin zuten zuzenbidea egin: "Ea zer iruditzen zaizuen. Bazituen gizon batek bi seme. Joan zen batengana eta esan zion: "Seme, hoa gaur

mahastira lanera". Hark erantzun zion: "Ez dut nahi"; baina handik berehala damutu eta joan egin zen. Joan zen bestearengana eta berdin esan zion. Eta hark erantzun: "Banoa, jauna". Baina ez zen joan" (Mt. 21, 28 hh.). Alegia hau esan zien Jesusek apez gorenei eta Elizako zaharrenei, argituz: "Zergalariak eta emalohiak zuen aurretik doaz zeruetako erreinura". Eta beste leku batean profetia eginez: "Beren fruituetatik antzemango diezue... Askok esango didate: Jauna, Jauna! Ez ote genuen zure izenean mirari asko egin? Orduan garbi erantzungo diet: Ez zaituztet egundaino ezagutu; alde niregandik, gaizkileok!" (Mt. 7, 16 hh.). Gaur bezala beti ere Berri Ona ezagutzeko lehen fruituak iraulketa sozialista benetako eta hipokrisirik gabekoarenak dira; eta horregatik fruitu horiek dauzkan arbolak ez dauka zertan egonik ohizko lur erlijiosoan. Ezetz esaten duenarengan dago, ateismoan, transzendentziaren beldurraz aparte transzendentziaren kimera, eta harekin batera patriarkaltasun hipostasiatuarena, bota dituen subjektuarengan. Baina aipaturiko arbola hori ez dago horregatik *arrunkeriar*en lurrean, tinko eta estatiko bihurtu den Argikundetik hain erraz ateratzen den bezala. Eta ez da altxatzen transzendentziara gabe *nihilismora*, hau inplikaziorik ez duen ateismotik era arriskuz betean zabaldu ohi den bezala. Hau da, giza askatasun mugimenduarekiko bezala haren itxaropen oinarriarekiko loturarik gabeko ateismo batetik. Arrunkeria izango da ondorio tamalgarria, nihilismoa txarrena, transzendentziaren desliluraketak gizakiaren eta munduaren edukian era utopikoan oinarri hartzen duen *transcendere* oro halaber kentzen bada. Beldurra kendu egingo da noski arrunkeria, baina beste hestura baten preziopean: desesperoaren preziopean. Desliluraketa *zehatza* berriz ez da amaitzen alabaina arrunkeria, baizik inolako gizakiren adimenera eta begietara oraindik iritsi ez denaren harriduran, hau da oraindik gauzatu ez den horretan kokatzen da; eta ez du jotzen nihilismora, baizik itxaropen oinarridunera, hura ez dela alegia azken hitza. Nihilismoak, gainbehera doan burgesiaren izurrite horrek, baditu noski, gainbehera horren ispilu izateaz aparte, premisa batzuk materialismo mekanikoan; hortxe dauzka premisa horiek haren helburu eta xede gabezia kosmologikoan. Izateak, lehengaien mugimendu biragile soil bezala, ez dauka inolako zentzurik: desliluraketa absolutu bihurtu horretan bertan guztiz zakur, tximino, atomora iristen da. Materialismo dialektikoa aldiz (atean harako goiburua dakarrelarik: ezein mekanikok ez du sartu behar) fisika eta kimikakoez aparte ezagutzen du abiapuntu sail luze bat, produkzio andana bat: zelula, gizaki langilea, azpiegituraren eta gainegituraren arteko uztarketa guztiz kualitatiboak. Ezagutzen ditu hain zuzen ere muduaren bere-beragatik argibide bezala kantitatetik kalitatera aldatzen doan etengabeko bilakaerako materia askoak. Ezagutzen du batez ere askatasunaren erreinu gizatiar eta kalifikatu baten egiazko *arazoa*: guztiori da kontrapozoina arrunkeriaren edo nihilismoaren kontra edo erlijioan ez opio ez zapalkuntzako idolo ez zenaren indarberritzea. Baina materialismo dialektikoak bere mundu honetan joeraren ahots indartsua entzun eta jasotzen duen bitartean, berak bere norantz eta zertarakoaren arabera lan egiten eta hartara deitzen duen bitartean, bere egiten du erlijio hiletik bizirik dagoena erlijiorik gabe, *transcendere* hori transzendentziarik gabe: itxaropen oinarrituaren subjektu-objektua. Era horretan iraun egiten du, opio guztia eta beste munduko ergelen paradisua erre ondoren, iraun egiten du mundukotasun osorako edo lur berrirako dei eta iragarpen bezala. Baina azkenik oraindik: beldurraren jainko tabuak kanporatu diren neurrian hain zuzen eta haiek kanporatu direlako bakarrik, azaltzen da *gizaki izurik gabekoari egoki zaion misterioa*. Hain zuzen ere misterio honen menpean dagoen sentimena: begiruneak, arrunkeriarekiko bezala nihilismoarekiko hain arrotz delarik, izugarria beldurrik gabe, neurribakoa ez-gizakitasunik gabe hartzea irudikatzen du. Begiruneak ordain bezala dauka gure etorkizuneko askatasunaren zantzu bat eskaintzen duen goititasun hura. *Transcendere* bat adierazten du norberaren alienaziorik gabea erabat eta gainditze eta

goititze honen ordain bezala ez beldurraren idolo baten hipostasia, baizik gure ustezko berpizte egunaren latentzia. Eta horretan ez beldurrak ez ezjakintasunak dauka aterperik, aldiz bai itxaropenaren jakin nahiak eta jakin ahalak bere oinarria. *Mesianikoa da iraultzaile eta betetasunean irauten duen Argikunde ororen misterio gorria*. Zerua, bestela inolako arrazoirik izango ez luketen egintza honentzako sari kutxa bezala, ez dago gehiago edo hutsik egon behar du, gizakiak era moralean jokatu behar badu; baina zeru gisan gure askatasunaren erreinu bezala era utopikoan aditzera eman nahi denak era berean gure utopia *geo-grafikoa* izan behar du, gizakiak bere helburu sailen *Summun bonum* iraunkor eta gidatzaileari luzaro eutsi nahi badio. Ateismoa da utopia zehatzaren aurrebaldintza, baina utopia zehatza da halaber ateismoaren inplikazio bazter ezinezkoa. Ateismoa da, utopia zehaztua daramalarik, oinarritzko ekintza horretan bertan erlijioaren desagitea bezala erlijioaren itxaropen heresea, era gizatiarrean altxatua. Utopia zehaztua da munduan ezkutatutik dagoen joera-edukiaren filosofia eta praxia. Hau da, azkeneraino kalifikaturiko materiarena: nahiko txiki norberaren inolako alienaziorik edukitzeko, nahiko Omega utopiarik ausartenari egiazko zentzu baten, mundu honetako zentzu baten posibilitate urruna emateko. Hauxe da muga-ideia mesianiko bat, baina horrexegatik adierazten du, ulerpen bihurturik, gainditze *inmanente* bat, hau da gizakiaren askatasungintzaren osotasuna.

49

Argikundeak eta ateismoak ez dute ukitzen "satandarra" eta Jainko hipostasia kontraeraso berean

Antzina ez zen ikusten gaizkia ahul bezala. Hasierako bizitza gaizkiaren aldetik, mamu bezala besterik ez bada, izugarri mehatxaturik sentitzen zen. Egoera aldatu egin zen, gizakiek ez bakarrik beren buruen kontzientzia gehiago izan zutenean eta kanpokoa horrela ez hain arriskuz betea iruditu zitzaizenean. Heldutasunik ez zuen lasterketa hau eten egin zen, beren adimen propioaz baliatzen ausartu ziren. Erarik zabalenean, ikusteko modurik garbienean, Argikunde deitu ohi den garaian; izena bera argitsu bihurtzetik dator, iluntasunen kentzetik. Eta hori zinez jakinaren gainean egin zen hamazortzigarren mendeko Argikunde, eta itotasunetik, zapalkuntzatik, iluntasunetik -handik etorri baitzeturten eta han luzaz egon egon baitzen- argitasunera irteteko orduko nahi burgesaren arabera. Gainerako bizitzak orduan, printze eta frailetzarren iruzurra inolaz amaitu zirenean eta begietako ezkatat erori zirenean, alai eta maitagarri eraikia zirudien. Oraindik irauten zuten gaitzak, pobreziak, eritasunak, guduak, gaizkiak, izugarrikeriak orohar: guzti horretatik mundu-maitasunez begiak apartatu egiten ziren zuzenean, iruzur bat bailitzen edo Ertaroko hondar bat okerrenean. Horrela lehenagoko mamuen beldur izugarria erarik osasuntsuenean kendu egin zen, egiazko gaizkiari, hura oraindik gaindituz, itsasten zitzaion sorginen ehizaren izugarrikeria bezala. Argikundea beraz gauaren erabateko etsai bezala egiaztatzen zen, bai baitzirudien gauak erarik txarrean munstroak alimatu edo haiek babesten zituela. Antzinako gizaki alimoso, beraz oraindik sineskeriaz beteriko eta besterik gabe izukaitzari hots egin ordez, zuhurrari hots egin zitzaion, "gaueko izugarrikerien erasoen kontra" eta haiekiko harremanen kontra. Horrelako zerbait ez du hartzen kontutan gizon burutsu batek, esaten dio "Ehiztaria" obran Kasparrek bere lagunari otsoaren amileko infernuetako mustroei buruz lasaitu nahirik. Horrek esan nahi du gainera: infernuetako gainerako karikaturak hortzak erakutsi behar bazituen ere, ergelegia, ezkutuegia eta iragankorregia zela guztia jatorren, adituen, Kandidoen eta gisakoen egun jatorra hondatzeko. Egiaz, 1755ean Lisboako lurrikara gertatu zenean, mundu posibleen arteko hoberen honen gainera izua etorri zen; gaizkia ez zen azaldu gehiago ongiaren gabezia soil bezala. Gehienez ere, era despotikoan ulerturiko Biblia bat azaltzen zen era zaharrean, Argikundeak zapuztu zuen era batean, suzko amila naturaren bakean berriro

lerroratzeko: bestela hain otzana zen zeruko Aitaren zigor bezala, alegia. Baina Lisboako txokea, astiro bazen ere, berriro joan egin zen: optimismo kasik orokorrak - orain Argikundeko argiaren zerga bezala jaunek *à tout prix* baretzeko zuten interesen alde- Frantziako Iraultzaraino eta handik aurrera iraun zuen. Horrela beraz hara zer zen erabakiorra: satandar deitua baztertua izan zen, teista baino gehiago, Argikundeaz geroztik, esan nahi da: Argikundeak ireslea, gaiztoa, kontraesalea, ez, noski, literatur moda eraginkorretik, bai ordea funtsean kontzeptu filosofiko argitzailetik baztertzeko erabaki ez bakarrik iraultzailea hartu zuenetik. Argitzaileak hemen ez du esan nahi hainbeste argiaren kontrakoa ikusteko moduan jartzeko salaketa bat, era horretan argiaren kontrakoa bere azalpenetan erdi-erdian kokatua eta zehaztua izan zedin, borroka egin zezan. Gaizkia orain Argikundearen optimismoan benetan ahul eta txiki bezala ikusi behar da, bestela erabat ona den munduan edertasunaren akats soil bezala nolabait. Hala eta guztiz ere, ordea, borroka egiteko eta beronen helburu funtsezkoenak lortzeko hain zuzen ez ziren aski alderdi *subjektiboari* atxikiriko eromena, erasotzeko irrika eta abar bezalako gainerako kontzeptuak, ezta alderdi sozial-*objektiboari* - muineko izan arren- atxikiriko klase mailako produkzio eta trukaketa moduaren basakeria guztiak, zapalkuntza eta gudu guztiak, Auschwitz bezalako gertakari bat era kausalez argitzeko edota, besterik ezean, hizkuntza egokian jartzeko ere. Schopenhauer berak, hemeretzigarren mendean bere "gauza bere hartan", bizinahia, erabat deabruzko bezala deskribatzen saiatu zen filosofo bakarrak, mundua nahimen bezala azaltzean ikusi zuen gau izugarriaren deskribaketan, ez du erdiesten infernu honetako ateko *Lasciate ogni speranza* hartan adierazi Dantek bakarrik ahal izan zuen izugarrikeriaren mututasun adierazgarria. Schopenhauerrek berak uste zuen bizinahiaren ukapen indibidual soilaren bidez kenduko zuela munduko miseria, itxura soil bat bailitzen. Bestela alde guztietan ilunetik argira saiatzen den leinuari dagokio iluntasunaren kontrako gorrotoa hura gutxituz, are kanpora botaz edo gutxienez erlatibizatuz halako gisan erakustea, non hain zuzen ere Argikundea ez bakarrik *toto coelo*, baizik *toto inferno* ere dagoeneko irabizirik legokeen. Badago guzti honetan zerbait berezia, nahiz amamen ipuinak, oso goiz argitzaile gertatu zelarik, gaizkia, gaizki bezala, txikiago egiten badu ere; hango deabruak, ergel hutsa denez, hemen adorea eman behar baitu hain zuzen. Harekiko hurbil dagoen zerbaitek, beste maila batean bada ere, badu eraginik Argikundean, honek, era ahalik eta ez dualistenean eta ez manikeoenean, poesiarik handienez bezala filosofiari handienez ere, kontraesalea tipiarazten duenean, hots, hain zuzen alde aurretik erabakita dagoen azken garaipeneko irudi laguntzaile kolpatu eta ahitu izatera erlatibizatzen duenean. Mefisto bezala, azken batean, erdi batean deabru ergel bat da eta alde aurretik kaosaren seme izugarri baino gehiago harrigarri izatera gutxitua dago. Beti ere gai mitikoa den deabruari erabilgarritasun poetiko oro ukatu nahi dio, Hegelen estetikak, Klopstockek eta Goethek egin zuten erabilera arren. "Deabrua irudi txar bat da, era estetikoan erabili ezin daitekena", esaten du Hegelek, dialektikako "negatiboa" arren: "Deabrua ez da gaizkia eta gezurrezkoa, guzti hauek beren hartan (deabruarengan) subjektu berezi egiten baitira; gezurrezko eta gaizki bezala orokor besterik ez dira". Baina baita gezurrezkoa eta gaizkia pertsona mitiko, are estetika aldetik arruntegi batengandik nahiko bereizita hipostasiatuak diren lekuan ere, Hegelen dialektikako negatiboa beraz, guztiz azpimarratu eta tinko eutsirik dagoen "negatiboaren samin eta seriotasuna", Hegelen arabera, "Jainkoa bizi ez den" esfera hori, beti da -era optimistan bermaturik- negatiboak bere baitan "gordetzen duen" fruiturako pasabide. Premia non handien, Jainkoa han hurbilen, esaten du borrarik; gurutzeko hilketaren ondoren ere, "Bestelakotasunaren gau" izugarrian dator garantia panlogikoaz Pazkoa, eta ikusi berriro dena on zen, dena on da *sub specie lucis*. Eta horrela Argikundeko *Optimum-*

aren argi oso eta kasik salbuespenik gabea gaindiezinezkoa, "hara, dena on zen" bibliko teokratikoa oldartzen da poztasun guztiz munduzalean, beti oraindik Argikundeaz geroztik, Hegelengan ere erabat munduan inmanente bezala kokaturiko poztasunean. Baina Argikundeak berak, berari arrotz zitzaizkion gisako sekulartze oro gabe, ez zeukan bere barruan inolako leku zuzenik gaizkiarentzat, Lisboarentzat edo Auschwitzentzat, ezta errezelarik ere. Esan liteke beraz era automatikoan erori zela Jainkoarekiko sinesgabezia gero eta handiagoarekin batera haren kontrarioarekiko sineste beldugarria ere: eta hala ere *-hementxe dago arazoa*: errazago zitzaion Voltaire Candide berari Lisboaren amaian demonioak egiazkotzat presente edukitzea, munduaren Argikundeko optimismoa egunean edo mundua egun bezala edukitzea baino. Gaizkia ikustezinezko bihurtzeraino gutxitzeak, ordea, ez dio bere arazoa konpondu; izan ere satandarra kاپirio bezala enpirikoki askoz sendoagoa da teismoa baino, bai aingerutxo oso urriak eta inolaz soma ezin daitekeen Goijainkoa dauzkanarena ere baino.

Horela, bada, argitasuna iruzur gerta daiteke, gehiegi argituz jokatzen duenean. Zein ona den haren bizitasuna, noski, gaizki dagoela etengabe ziurtatzen duen eta dena lehen zegoen bezala uzten duen marmario ororen kontra. Zein gizatiar eta osasuntsu zen orduan bat ere eroso ez zen, eta argitu ere argitzen ez zuen Argikundea, ohizko negar ez zen guztiz bestelako ur batekin ureztatzen zuenean. Nola itzali duen sua sumeta azpian, infernuko zurikeriak eta ustekeriak geldiarazi zituenen. Izua zegokien bakarrik ergelkeriari eta hura erabiltzen zuten frailetzarrei, eta Argikundeko argitasuna, inguru guztia salbuespenik gabe egunargitan bezala dena jartzen zuena, sartu da hemen aldenik alde. Baina konfidantza laburtu hau: gizakia berez ona da, bere sufrikarioaz hondatzailea iritsi ez den alde guztietan da osatua natura -optimismo hau, neurri handi batean, berak jaramon egin ere egiten ez zion guztiarentzat babespeko ortu bezala bihurtu zen. Jakingarria da benetan munduaren sentimen idilikoaren ahobatekotasuna eta harrandikeria *dolce vita* aristokratikoan, orain hain kezkarik gabeko eta harmoniatsu izaki. Leibniz handi eta bihoztunak daukagun munduari buruz hitz egin zuen *izan litezkeen* munduen arteko onena bailitzen, baina helburu forma beti hobeetara igotzen zuen gauzen trabaketa harmonikoa ohoratzen zuen alde guztietan Shaftesbury guztizko optimistak. Gutxienez azken konfidantza honek segitzen du joandako mende ez oso nobleko aurrerapen sineste bereizkuntza gehiegirik gabea, iruzur egiten zuen osagai hondatzaile eta desegile zenbaezinezkoei zegokienez, hari ukapenaren ukapena inolaz oinez oin jarraitzen ez zitzaizlarik. Fruiturik bat ere ematen ez duen gari hazi zapalduari zegokionez, inolaz ere *per se* munduaren historiaren lokomotora "bilakatzen" ez diren guduei zegokienez, ezer askatzailerik edo salbatzailerik sortzen ez zuen Auschwitz bezalako mundu oso bati zegokionez. Baina une berean lehendik agerian jarrita zegoen gaizkiak eta haren arrakastak ez dutela inolako interesik buila handitan, hau da *puntu nagusia*: bidean dabilen bitartean, *Argikundeak ikusi zuen bezain tolesgabeko* azaltzen da. "Gainerakoak bezalako gizon bat ikusten duzue zuek", esaten du Mefistok tolesgabeko, guztiz legezko, baina hanka herrena ezkutatzen du, infernuko zuloak eta gisakoak ez dira igertzen, oraindik ez behintzat, ez dago taburik, ezta "Ez sartu hona, erantzi zure oinetakoak; zu zauden lekua lur santua baita!" (2 Mos. 3, 5) gisakorik -ez dago jainkoaren galarik lahar sutu batean. Hori da aldeetako bat Fausto-Mefisto eta Moises-Jabe topaketan; satandarraren aurrean eta teistaren aurrean bete beharreko zeremonialak kontrako eran dira desberdin. Fenomenologikoki esanda, "satandar" bezala hartzen denaren zentzuaren esanahia literatura eta historia berrienean argitzeko: gainetik horrela estaltzen den horrek, baldin estalita azaltzen bada, eta gerora ere inolako seriotasun metafisikorik hondatzen ez badu, lortzen du ondoen arrakasta. Bestela esanda: "Satandar" bezala hartzen denak "nahi du" bere "esentzian" bertan ere,

sinets ez dakion; "jainkotiar" bezala hartuaren alderantziz, dela era politeistan dela era guztiz monoteistan, *eo ipso* beretzat "eskatzen du" sinestea. Eta hori ezinbestean behar du, jainkotiar delakoa *realiter* erabat sinestearen menpean dagoelako; aldiz gaizkiak, kontraesaleak, xahutzaileak eta desegileak, bere jatorri enpiriko eta faktikoki nahiko eta gehiagoaren indarrez, ez bakarrik ikuskizun *eidetiko* soilean, baizik areago fenomenologia *errealean* federik gabe ere ez du ezer galtzen, bai alderantziz. Baina zein eragin du *aporia* honek Argikundeko argi egintzarik handien eta askatzailenean, bere *a-Teismoan*, dirudienez infernukoa baztertzeko duen joera horretan hain zuzen? Ateismoak lehenbizi beldur ulertezinezkoa eta jainkoak nahi omen zuen agintaritza feudalaren zerbitzura eta esanetara zegoen erdipurdikokeria lotsagarria kentzea ekarri zuen; jaunen Jainkoaren hipostasia ulertu eta deseginean gizakiaren heldutasun eza eta bere buruaren alienazioa kritikatu ditu lehenbizi. Azken batean desteokratizatu egiten duen ateismoaren eginkizun gizatiar hau hain da handia, hain bestelakoa -beti bezala ordea, txunditzailea- optimismoaren erabilgarritasunaren aldean satandarretik emantzipatzeko, ze, atea gerora Antikristoaz nahasten zenean ere, hau da Nietzscherengan, makurtze ohizkoa lehertarazteko, infernua lehertarazteko ateismoan oraindik oldar zitekeen. Ondorioz etorri zen hemen, Nietzscherengan, ateismo bat ausardia utopikoz betea, hain zuzen ere antzinako Jainkoarekiko fedea hila zelako: "Gu beharbada oraindik gertakari horren *ondorio hurbilenen* pean gaude -eta ondorio hurbilen horien, haren ondorioak guretzat, espero zitekeenaren kontra beharbada, ez dira triste eta ilunak, baizik nekez deskriba daitekeen argi, zorion, arintasun, alaitasun, suspertze, egunsenti mota berri bat dira... Egiaz, gu filosofo eta "pentsalari libreok" "Jainko zaharra hil" den berria jakitean, egunsenti berri batek distiraturik bezala sentitzen gara; gure bihotza taupaka hasten da eskerronez, harriduraz, zantzuz, itxaropenez -azkenik horizontea libre azaltzen zaigu, halaber erabakirik bera ez dela argitsua, azkenik gure ontzi berriak berri abia daitezke, arrisku orotara abia daitezke, ezagutzeko kemen oro zilegi da, *itsasoa*, gure *itsasoa* zabalik dago berriro, beharbada ez da sekula izan "itsaso hain ireki" bat" (Nietzsche, *Fröhliche Wissenschaft, Werke*, 1960, II, 206. or.). Nietzschek eta, guztia bezala, oraindik abstraktua den ateismoak *amaiera honetan* inolaz era txundigarri eta jakingarri batean badute beren barruan haren gutxitze sumagarritik zer bait, Argikundeko optimismoak ukapenari aitortzen ziona -kapirio satandarretik teistara aldatua bada ere (edo alderantziz). Non gelditzen da, bada, jainkoaren hipostasiaren ezabaketa hain errazean, babes, hierarkia, jaun-morroi estatikotasun ororen aldeko haren eskuratze-apologia? Non gelditzen da batez ere berriro, egiaz era mitikoan mozorroturik, transzendente bihurturik dagoen, baina inolaz kanpora ezin daitekeen etsaia (agintaritzaren arketipoa), Zeus gisakoa, hori gabe Prometeo (berdin, *mutatis mutandis*: Job) bera ere era arketipikoan ez baitzen erreboltatuko? Horretan frogatzen da munduko gaizkiaren ukapen arrunt optimistak, hain erraz jokatzen duen Argikundeak, aterpe bat aurki dezakeela gaizki oro oraindik ere Jainkoaren irudikapenaren eta transzendente bihurtu den haren hipostasian jartzen duen ateismo mota hartan, honek ere "halaber" eztabaida orotik kanpo jartzen baitu hori, eta ez bakarrik mitologiko soil ez denetik kanpo. Horren bidez sartzen da ezezkoaren hustasun bat *ikuspegi metafisikoan*, eta hau ez da inolaz mitologikoa, ezta mitologia berriro hipostasiatzen duena ere, bai ordea funtsezkoena, sakonera doana, izugarriaren, osasungarriaren sakonera, mundu ezkutuan barna. Eta horretan gaizkia ezin gehiegi daiteke, are ezin isolatu daiteke; desespero gehiegizkoan edo ontasunaren metaforari buruzko Adornoren argotean moda zen bezala. Guzti hori, aipatu den marmarioari dagokionez, negatiboa baino ez den dialektika harekin, Marxek eta Hegelek ere erlatibizatu behar izan zuten eta seguru ez borroka, ezta "iraultzaren algebra" ere ez zen dialektika harekin, alegia. Eta *desespero gauza bihurtuak* bezain

gutxi balio du -erabat bestelako baina halaber desegoki den beste atal batean-*konfidantza gauza bihurtuak*, antzinatek elizak bezala agintaritzak "kotsola zaitezte" guztiz konformitatezkoarekin helarazi duten bezala. Konfidantza seguruak orduan aparatoaren eta klerikaltasunaren aldetik jabetzaren hierarkian, hierarkiaren jabetzan, etsitzeak eta iraultza eragotziak erdiesten duten emaitza bera erdiesten du. Gehiegizkotasun biek, negatibotasun alferrak bezala positibotasun bermatuak, ez dute uzten Nietzschek ateismoaren bidez lehertarazi dituen estutasuna, estaldura eta ederkapena, baizik alderantziz, hor ere bai alderantziz, estatikotasuna *verbaliter* zapuztua denean. Biek ordea ematen die hala ere halako irekitasun batean, hain zuzen berriro ere *verbaliter*, ohorea borrokan bezala itxaropenean hitzartuei; inolaz ere hemen apaingarri da gehiago, perfume ahul, baina nolabait esateko on itxurako moduko bat, han berriz kontenplatzeko bakarrik jarritako probidentziaren zilarrezko armairu moduko bat prediku bukaera tradizionalistan. Horretan zinez itxaropenaren argitasunak -hain zuzen bere egitekoa inolaz ere ez duelako buruturik ikusten desesperoaren edo konfidantzaren alderdiek egiten duten bezala- ez dauka zentzuan eta buruan besterik ez bada ez-erdietsia, erdietsiaren oraindik-eza; eta guzti hau egin beharreko borrokaren eta irabazi beharreko historiaren prozesuaren interesetan. Horregatik bizirik dago *itxaropen arakatu* orotan, *optimismo* benetako, eta hartaz *militante* orotan bilatzen bezala deusezten ari denean zehar igarotzea, prozesuan beti oldartsuago eratzen dela, kontra-utopiaren gaitasun bezala erabat garaipen gaitasunaren kontra, argi-utopiaren garaipen-posibilitatearen kontra. Horregatik lur ilun, bilatzaile eta zaila tratatzen da erabat gure ekintza ez-kontenplatiboarekin salbagarri posiblearen mesedetan. Hemen ez dago goitiko salbazio plangintza bermaturik, "baizik abiatze gogor eta arriskuz betea, sofritze, ibiltze, galtze eta aberri ezkutuaren bila aritze bat; guztia eragozpen tragikoz beterik, irakiten, zartaduraz, etenez eta promesa bakartiz leherturik, segidarik gabe argiaren kontzientziaz kargaturik" (*Thomas Münzer als Theologe der Revolution*, 1962, 14. or.). Eta gaizkiak nahi ez zuenez bera sinetsia dadin, hau garrantzizko bihur daiteke bere hipostasia erabat mitikoarentzat, hau da haren kontrako benetako gerrarentzat oraindik esanguratsuago, inolaz esanguratsuago gutxitzea baino, hemen ohizko bihurtu den eromen eta sakontasun neurri ororen galera baino: "Hemen bere esku zabar eta mengatzailean gauzkana: lotsaraziz, jarraikiz, itsutuz, armiarma, jatea eta jana izatea, arrubio pozointsua, aingeru hiltzailea, halabeharraren, ezbeharraren eta heriotzearen demonioa, gizadiaren herio kiratsa, zentzuz beterik dagoen ororen aberri gabezia, probidentzia orotik apartatzen duen mendi handi, hutsalak eta igaro ezinezkoak, panlogismo "jaieratsuaren" liluramena -guzti honek *ezin du izan* lehendabizi epaitu eta ondoren aspaldidanik arakaezinezko eta adimenaz gaindiko bideetan zehar babestu eta, kontutan hartu gabe, gure harrokeriaren bidez egindako munduaren "jatorrizko bekatua", bere bihotzean eraman gaituela uste duen printzipio bera" (*Geist der Utopie*, 1918, 441. or.; 1964, 341. or.). Eta gero hor dago, era ez-mitologikoan adierazirik, prozesuan bertan negatiboa, konponbide eta sendaketa prozesu bezala hura bultzatzen duena. Ez litzateke prozesurik bat ere izango, izan beharko ez lukeen eta arriskua oraindik ere sortzen duen zerbait ez balego. "Hauxe da arriskuaren kategoria edo *docta spes* helaraziaren bermaketa gabezia objektiboarena; ez dago oraindik arazorik ez duen egoera baten azken emaitza tinkorik. Ez dago zentzurik ilunenean, horretan erabakitze gaitasuna, *novum*-a, eta posibilitate objektiboa ahiturik leudekeelarik eta galdutako gatazka bat berriro hobeto ezin borroka litekeelarik. Baina ez dago halaber arazorik ez duen egoerarik zentzu argitsu hartan, are zentzurik argitsuenean, izatea alienaziorik gabe, balio zalantzarik gabe heldu eta naturaldu bezala adierazten duenik. Optimismoa horregatik militante bezala bakarrik da onartua, ez sekula bete bezala; azken era honetan, munduaren miseriaren aurrean, ez bakarrik gaizto bezala dihardu,

baizik ero bezala" (*Das Prinzip Hoffnung*, 1624. or.). Era berean: "Utopia bere irudi konkretuan guztiaren izateko nahi arakatua da; han beraz orain badu eraginik izatearen pathosak, hau ustez lehendik prest eraikitako eta era arrakastatsuan osatutako munduko antolamendu batera, are mundu gaindiko antolamentu batera zuzendurik baitzegoen. Baina izatearen *pathos* honek eragiten du oraindik-ez-izan baten eta *Summum bonum*-aren itxaropenaren pathos bezala; eta: ezerez horren erabilera ororen ondoren, historiak aurrera egiten duen bitartean, ez du begirada alboratzen desegintzaren arriskutik, ezta betiere hipotetiko den *ezerez baten definitum* posible batetik. Optimismo militantearen lana da garrantzizkoa honetan: hura gabe proletargoa eta burgesia basatitasun berean amil daitezkeen bezala, hura gabe halaber luze eta zabal mehatxa dezake ertzik gabeko itsasoak, ekialderik gabeko gaberdiak *Definitivum* bezala. *Definitivum* mota honek adieraziko luke orduan historiaren prozesuaren alferrikotasun guztizkoa, eta bera, oraindik jazo gabe bezala, zentzu positiboan *guztia betetzen duen Definitivum*-a bezain gutxi ezaba daiteke. Azkenik beraz geratzen da ezerez absolutuaren eta guztiz absolutuaren arteko alternatiba aldakorra: ezerez absolutua da utopiaren kiebra egiaztatua; guztiz absolutua -askatasunaren erreinuaren aurre-azalpenean- utopiaren betetze egiaztatua da edo utopia izatea denez" (l.c. 364. or.). Zentzu egokian gu azkenik argitzen gaituen izate bezala, baina izate horrek beti gogoan duelarik munduaren aurrehistoriako negatiboa ez aitortzea bakarrik borroka bezala, ez panlogismo presente bezala edota "amaia on dena on" bezala. Egiaz, zer eta zertarako litzateke hain zuzen ere Itxaropen Printzipioaren lehentasun militante dialektikoa, ez balego guztiaren, hau da erabateko betetze posiblearen *postulatu* bezala "ezerezarekiko", hau da erabateko kiebra posible batekiko erlazio guztiz presente bat, oraindik halaber erabaki gabea izan arren? Nola edukiko luke bestela itxaropenaren Omega apokaliptikoak, oraindik gauzatu gabe dagoen azken adibideraino "probatuak", gaizkiaren iluntasun eromenik gabe, bere garaipenaren aurre-irudikapen-fenomenologia, bere "heriotzea non dago zure sastakaia, infernua non dago zure garaipena"? *Item*, Argikunde meta-erlijiosoak ere, *hau da objektuan bertan ere, ez bakarrik haren kontzientzian*, barruan gaizkia dakar, bai bere ostean bai inguruan eta aurrean, argitasun bakarrik izan ez dadin, baizik parekorik ez duen borrokaren bidez iluntasuna egiazko argitasunaz uxa ahal dadin. Izan ere zalantzarik gabe borroka amaitu egiten da, negatiboa bezala positiboa, hurbiletik bakarrik bada ere, absolutu bihurtzen denean; "gizakiaren naturaratzeko, naturaren gizatiartzeko": historiaren prozesuak kiebra jo balu bezala, edo alderantziz irabazia balego bezala. Aldiz, badago oraindik argi eta garbi munduan korrante utopiko handi bat, oraindik garaitu ez den negatibotik *optimum* batera indarrez eta potentzialki eraman daitekeena. Kitatu gabe, ateismoak hain zuzen, "jainkozko" baten toposetik jaun eta goijaun baten errealitate hipostasiatua bota duen neurrian, topos hori irekita jarri du, irekitasunera eraman du azken misterio bakarrerako, hau da, gizakiaren misterio soilerako; horri deritzo kristautasunean eta baita *post Christum* ere -gure erreinu.

50

Bizitzeko adorearen iturburu moralak eta finalak

Eragin eta bizi dena behin eta berriro altxatzen da. Bere baitatik bultzatua da, pultsua dauka, bihotz bat eratu aurretik ere. Pilpiratze horretan, orain, orain eta berriro orain, isurtzen da eguna, hausten duenik, hautsirik legokeenik ez balego bezala. Horrela, batez ere gizon osasuntsua bizi da bere egunean zehar, ez atzera eginez, berriro lan eginez, baizik dirudienez jariatuz eta horrela hura lasai eramanez. Hemen, hasteko, ez dago zenbatu beharrik zerk, bere gorputzaz kanpo, bestelako era batean apartatzeen, inolaz ere jariatzen ez duen bezala, zerk eragozten duen bere egunean zehar gorputz bat bezala bizi dadin. Han ez dihoakio gizakiari inolaz dena segidan, lasai, unerik gabe eta etenik gabe doan ur korrante bat bezala. Han ez balio ez lagundu egiten du "bizi bat bizi

delako bizi da eta ez bizitzeko” dioen harako esaera zalantzarik gabeko hark. Aldiz bai segidarik ez duen eran jotzen dute ez jario eta batez ere gainezka egiten ez duten norantz eta zertarakoen kolpeek kontzientzian; *bizitzeko adorea* eskatuko da bapatean, iturburu berriak, baina ez ordea berez argi eta garbi ikusten direnetakoak, dituela. Hala ohizko osasun ona edukirik, bestetan maitagarri baina halaber berez dihoan bizitzearen eta ihardutearen ohiturak krisi baten modura huts egiten duenean. Horren ondorioa gizarte kapitalistaren barruan da zori txarra izan dutenentzat behin eta berriro beren buruak diren merkantzia saldu ezinezko, gehiago erabiliko ez den lan-indar salgai soil bihurtzeko patua. Eta era kapitalistan gora doazen garaietan erabilia izango bada, merkantzia bihurtze honek esplotatu guztiei esplotatzaileen azpian, menperatu guztiei menperatzaileen azpian, halako autoalienazioa, halako bakardadea dakarkie giza bizitzan, ze aparteko bizi adorea behar baita alienazio horri eta era berean zapaldu eta elbarritzen duen martxa horri eusteko. Goizero lantegiko atean gaizki lo eginda egonez, gauero eginkizun estereotipoz, irabaziagatik azkartuez eta menpekoez lerdekatuta hura utziz. Eta hori soldatagatik bakarrik, langileei datorkien gainbalioaren zatitxo honengatik, honek beraiek sortu eta hurrengo egunerako lan-indarra berritzeko bakarrik balio behar duelarik; eta era horretan lanaren zirkulu elbarritzailea behin eta berriro hertsiko da, baina ez utziko. Baina zori ona izan dutenentzat ere balio du Marxen esaldiak, alegia autoalienazioak haiek ere harrapatzen dituela, baina alde batekin, alegia kapitalista kapitalista bezala eta halako denez bakarrik sentitzen dela egiaztaturik, gizakia hemen gutxienez, nolabait esateko, norberaren galera eta hondamen altuago batean sartzen dela. Zein tamalgarri eta bizitzeko baliorik gabeko azal daitekeen beraz bizitza, etekintsuago den bizimolde batean ere; zein hiltze luzatua gerta dakioken premiatik eta torlojutxo bizitza soiletik babesturik dagoenari bere asperdura hori. Eta alde guztietan dago bizitzaren amaian, berdin dio noski klase banaketa bilauan bizitza hori zein "betea" izan den edo zein bete gabea, ("*Also hangmen must die*" dio esaera amerikar batek), - heriotza guztiz desegoki dirudien akabera bezala, kasurik gutxienetan bizitza borobiltzen duen bezala, gehienetan hautsi egiten baitu. Bere burua hiltzen duenak berak ere, bizitzako desira eta balio sail ase gabeetatik bera askatzen duen bere ekintza horren bidez ez du ukatzen bizitza horren gehiago nahi izate hori; ez du, hona egoki datorren Schopenhauerren tesiaren arabera, benetako bizitza hobe baterako nahia ukatu, baizik, era paradoxalean egindako bizitzaren baieztapen etengabea, bere bizitza hala jarri dioten baldintzak ukatu ditu bakarrik. Eta zenbateko bizi adorea eskatzen duen ohizko heriotz inolaz hautatu gabeak eta hari dagokion ziurtasunak. Askori bereziki geratzen zaio ordea, ohizko egunerokotasunaren eta haren ikuspegi nahiko arinaren babespean, bizi adorearen tristuraren beruna, hegoak ematen omen dituen, ezker-eskuin premiaz beterik. Ezker-eskuin, garai eta hango gizarte guztiak ez baitaude hain poz gabeziaz loretsu, aldatu beharreko helburu hurbilez hain garbikiro mugiturik, gehiengoa bizitza kamuts edo baita ere ahitzailearen zamapetik gutxienez erabakiz eta adorez ateratzen saia dadin. Eta inolaz kontraesanaren bizi adorea altxa ez dadin, berunaren *establishment*-eko garai guztietan ordezkotzako hegalaria baten itxurapenak egin beharko lirateke, hau da *circenses* atsegin zihurtatu bezala eta haren itzalen asperdura berria. *Juste milieu* batean gelditu edukitzeko, guztiz elbarrituz bada ere, edo gehiago erakartzen ez duten beste munduko kontsolamenduen ordezkotzat. Itxura horren bidez ere bizi adorearen iturburuak, benetako bezala, *Juste milieu* burgesean lurperaturik geratzen dira, ahaztezinezko moduan gora egiteko egoeran segitzen badute ere. Ezin deserrotzeko moduan altxatzen da batez ere haiek beraiekin daramaten eragozpen moralak, eta azken pentsamendua, inolako mariskal makilak edo apezpiku makilak ez, bai ordea haren kontrakoak, bere fardelean daramana: izaki arrazoidunen inteligible bakarrik ez den erreinu baten alda ezintasuna. Nahiko itxura faltsu eta etsitzailea dauka

horren ordeaz jeikitzean jaierratsuek zintzokiro egiten duten otoitz delakoak, Wilhelm Raaberren trabestitasun zehatzean beraiei era honetan jotzen dielarik: "Jauna, nire egunoroko ilusioa opa iezadazu gaur". Biziadore joa eta oinperatua ez da orduan noski "Sisyfo" bezalakoa, baizik "Godoten itxaroan" bezalako, ilusiozko zerbaiten itxaroa bezalakoa. Eta ez al dabil itxarotearen azpian, hau da ilusiozko ez litzatekeenaren gabezia, oraindik jarroz, eragozpenaren paradoxaltasunean bertan bat ere paradoxarik ez, baizik haren agiritasuna duen iturburu hura? Eta horrekin batera *Plus ultra*, hau da, horren salbuespenik ez baitu egiten munduaren egoerak. Labur: biziadore, atsegin ez denean, betebeharrak da, eta betebeharrak ez bada, orduan atsegin lurtiarra da oraindik eskuratu gabeko helburu hain urrunaren aurrean, hara jotzen duelarik bizitzak.

Bizi dena, bere buruaz gairi bizi da, bere burua gairiditzen du. Ni beti bereziak eta beti bere buruari bakarrik itxaroten diotak ezin har dezake bere burua hain serioan, bestela ere bizitzan sarri hiltzen da eta. Bera inguratzen duenarekin batera; nia horretan ez da salbuespen. Gu geugandik hain zuzen irauten duena, harrokeriarik gabe hitzaren zentzu bikoitzean, ez zaio ni baliotsuari atxikitzen, gure muin oraindik estalitik dator inolaz ere, ez batek bankuko kontu pribatu bat balitz bezain serioan hartzen duen horretatik. Horrela ere egozentrikoegia ez da izango norberaren, hau da gure geurearen, barneko bizilagun, ezta ere ezin trukatzeko moduko, bai ordea fronte gisan horrelakotasun garatuagoan gizaki izate ororen ordezkari *suo modo*. Ez dago hau suntsituko duen ezbeharririk; horrela sortzen da gudan gizakiongan *ibilera zutuna* -era organikoan bezala politiko eta moralean ulertuz- finkatu eta gordetzen duen benetako biziadorearen *lehenbizikoa*. Eta hori da estoikoek gu geu gudan zutun eustarazten digutena, askatasun gaitasuna deitzen zutena. Hemen noski ez oraindik horregatik borrokatuz, denei erakutsiz, baina horretarako eta horretan, zapalkuntzaren bezala zoritxarraren kontra saiatuz. Hori da *Hegemonikon* delakoa, gizentasuna eta, hau baino gehiago, sendotasuna bizi diren lekua *-impavidum ferient ruinae-*. Egia da Stoa horri buruz sarri era harranditsuegian hitz egin zela, baina biziadore *lehenbiziko* eta *moralerako* bere antzinako iturria zeukan eta dauka zutun bizitzeko erakusketa benetan sotiletan. Oraindik ez heriotza gairidituz, baina inolako kolpe hutsen, haizkora kolperen edo patu kolperen aurrean amore ez emanez. Izukaizgarriaz gairidikorik oraindik ez adieraziz, hegalaria bat eta horren bidez bakarrik deseginezinezko bat adieraziz alegia. Baina herioa mespreziatzen duena apuntatzen du, estoikoen ustetan itsutasunik ere ez baitzuen behar, eta ez zuen onartzen bere jarrera aholku moral eta gizaduintasunezko eragotz zezaten. Jarrera horrek, izan ere, Stoa ez zeukan noski inolako amorru iraultzailerik funtsean, hain zuzen ere ez zeukan, gizaki existenteaz are munduko natura existenteaz kanpo kokatu nahi ez zuelako. Azkena Stoa gehiago hartu ohi zen "Zeusen hiri perfektu" bezala, perfektu bezala aurkeztua, han jakitun estoatarra gizon probatu bezala bakarrik egon zitekeelarik, pilare baten taju zabarrarekin. Oraindik *Kristoren bultzadaren* bidez hain zuzen subjektura etorri zen sekretu ikertu hura gabe. Kanpoko mundu gero eta ilunago batean, "Zeusen hiri" guztiz gaitzetsiz, haren probidentzia ona balioz aldatu eta gizakiaren kontrako eta demoniotar bihurtuz. Mundu honetako *status*-etik gehiago ezer espero ez zutenen bizitza sentiera hain zuzen kristautasunaren bidez indar berriz kargatua izan zen; eta hori bekatuak segizio zutuna elbarritzen zuela uste arren. Barneko bakarrik ez zen *transcendere* bat sortu zen handik, izukaiztasun estoikoa bera bizitzan eta hiltzean hausten zuena; guretzat oraindik ezkutaturik zegoen hegan egite bat etorri zen hain zuzen, asmoz benetan hautsi ezin zitekeen zerbait bezala. Horrekin alderdi moralera sartu zen biziadorearen *bigarren* iturburua, *helburua* adierazten zuena halaber, hau da deabruaren estatutik irteteko adorea. Horren gida zen, gisako fede kristrauan, ez bakarrik faktikotzat harturiko desiozko misterio bat, hau da Kristoren zerura igotzea goi transzendente bat helburu lekutzat zuelarik; batez ere hain

mitologikoa ez zen bizi oinarri mistiko bat ekarri zuen. Augustin errepikatuz, hura Eckardtek aipatzen duen bezala: "Nik neure baitan zerbait sumatzen dut nire arimak aurre-barrundatzen eta hura aurre-argitzen duena; hori nire baitan perfekziora eta betikotasunera eramana izango balitz, horrek betiko bizitza izan beharko luke". "Betiko bizitza", kategoria horrek orohar mistiko ez den gaurko gizakiari heriotzea argitzen, are gutxiago hura hausten ez badio ere: egiaz Augustin eta Eckardten egiaztapenaren muineko sakontasunaren bidez gizakian eta bere mundu barruko alderdian oraindik-ezagertu bat adierazten da. Bai gure muineko hori orain arteko gure agertze, *beraz halaber igarotze* orori dagokionez, lurraldez kanpo kokatzen delako, bai arrazoi gehiagoz azpimarratu diren "aurre-barrundatzaile" eta "aurre-argitzaile", *oraindik azalpenik gabeko aurre-agerpen* propioan bizi adore sakonenaren helburu norabidea adierazten delako; hau da, alde aurretik igertzen den muineko *Spero ergo sum* bat. Hain zuzen ere utopia iturburu propioa helburutzat duelarik, gure egiazko izatea hondatu ez baizik ekartzen duen helburu bezala harturik. Hau gertatzen da noski lanari ihes egiten dion haren azalpenaren *ziurtasunik* gabe, bai ordea eragin, atera eta egiten duen ez-ilusioa baduelarik, alegia muinaren, hau da bultzatzen eta aurrerazten duenaren *absconditum*-ak, bere bizitzako etxea eraikitzeak merezi duela. Guzti hau oraindik Augustin eta Eckardten muinarekiko aipamenean azaltzen den berezitasuna dela eta, haren sekularitatea dela eta, horrek kasik bakan, indartsu eta behera ordeztu gora jotzen duen elite kontzientzia baten hurbilera eramanez baitzezakeen. Baina benetan azpimarraturiko aurre-argitze eta aurre-barrundatze horretan ezkututzen da zerbait, aipaturiko oinarria ez bakarrik barruan sakon jartzen duena, beraz ezta nolabaiteko jabetza gordean ere, baizik bultzada bat aipatzen zen, Kristoren bultzadaren bidez ekarria batez ere, ataraxia estoiko mugidarik gabekoaren ordeztu, eta bultzada hori egiten da eragile aurre-barrundatzean eta aurre-argitzean, *perfectum* edo *plusquamperfectum amor fati* handiak -gero amor dei-derrigor izan behar baitu hor distira egina, are eginetia ere ematen duena. Aurrez besterik gabe definiturikoarekiko eta haren *definitivum*-arekiko gisako konfidantzaren ordeztu, zalantzen eta ubide hain neketsuen erdian guri itxaropena geratu zaigu; eta beste ezer ez bezala hurbiltzen da bere bultzada argi haren aurre-barrundatik eta aurre-argitasunetik, azken batean Augustin-Eckardtegan bere izatea etorkizun bezala baitauka, hau da, barruko sakontasunetik eta gure ibilera zutunaren *oinarritik* sorturiko bezala. Gisako bizi adore *azken*, beraz benetan xede den horrek, ez du galdu bere sekularizazioetan gehiago Ertaroko ez den bere adierazpiderik, baizik giza oinaren gainean jarri du; praxi hau falta den lekuan, bizi adorea bizitza hobe bateko amets mingarri baina nekez hiltzen den baten bidez gero eta gehiago utopiazko edukiz betetzen da; kasurik zailenean ilusioz, kasurik zentzuzkoenean guretzako mundu egokiago baten hauskortasunari belarria erne jarritz. Eta hori ez *adaequatio intellectus ad rem* enpirikoki bilakatu baten indarrez, baizik inolaz pozik egoteko moduko edo argitzaile bihurtu ez den munduaren faktikoarekiko adimenaren *inadaequatio* sortzaile baten indarrez. Zehazki beraz gizatiarki estaliriko baina enpirikoki estali gabeko ebidentzia horren oinarritik dario sekula kitatu ez den Kanten tesi bat ("*Träume eines Geistersehers*" etik, baina ez mamu-ikusle batengandik) helburu den bizi adoreari dagokiona. "Jakituria asko non, atsekabe asko han" horren kontrapozioak dio, behin eta berriro errepikatzeko moduan: "Ez zait iruditzen ezen inolako atxikimenduk edo azterketa egin aurretik ezkutuan sarturiko joerak nire izpirituari malgutasuna kentzen dionik alde edo kontrako edozein arrazoiren aurrean, bat bakarra salbu. Adimenaren pisua ez da erabat partidurik gabea, eta haren besoetako batek, *etorkizuneko itxaropena* goiburutzat daramanak alegia, abantaila mekaniko bat dauka, eta horrek egiten du dagokion platerean erortzen diren arrazoin arinek, berez pisu handiagoa duten espekulazioak beste aldekoan gora jasotzen dituela. Horixe da nik ezaba ezin dezakedan

injustizia bakarra eta egiaz gainera ez dut sekula ezabatu ere egin nahi" (*Werke*, Hartenstein, II, 357). Beraz, bada, "berez pisu handiagoa duten espekulazioak" errazago erortzen dira pisuko itxaropenaren platerean, beste aldean baino. Helburu pentsamendu etengabekoen espekulazioak badira, Bat-aren pentsatzea pentsatzen duenaren espekulazio bezala azken batean, horregatik egoki delarik bizitzea, astia izatea ez bakarrik jakiteko baizik zertarako bizitzen den kontzientzia izateko. Bibliatik harturiko helburu nagusiarekin hemen ere, hemen hain zuzen ildo bezala espekulazioetan, horregatik baitira izan pisu handiagoko. Haien bidez bizitzari zentzua ematea azkenik bizitza inguratzen duen naturari bezala, behin eta berriro bataren itxaropenetik behar dena datorrelarik, *Experimentum vitae et mundi* batean, gizakia buru delarik. Historia deitzen den gisako *Laboratorium possibilis salutis* laboratzaile hain zailean. Haren emaitza eskatologikoki amaituta geratu arte, dela huts egin bezala, bizitza desagertu eta munduaren entropiaren bidez, edo dela bizi adorea transzenditzen duen hura bezala, pentsamendu metaerlijiosoa aurre-barrundatzen edo aurre-argitzen duen hura bezala. Eta honek dauka -izate materialaren Omega bezala- bere baitan eta bere-berarentzat izatearen edo berarentzat erreinu izatearen giltza erabaki gabea. Utopia konkretua, "Itxaropen Printzipiotik" datorren paradoxa ez hain erraz, nahiz tamalez hain arrunt bihurtu den honek, ez dauka bere egia etengabe kontutan hartzen den bideko baldintzen eta urrutiko helburuen arteko bitartekotzaren indarrez, baizik *urrutiko helburuak hurbileko helburu bakoitzean* dituen inplikazioen indar premiatsuagoz, hau ere benetako helburu izan ahal dadin eta ez orainarteko bizitzaren errepikapen arinago edo sakonago bat, helburu zentzurik gabea. Helburu zentzu honek etorkizuneko horizonterantz zuzenduriko bezala pentsaturik du baliorik, erabat final bezala, azkenik behingoz kiebra joko ez duen, baizik "gure begirarte" dei litekeen "perfekzioaren" ideiarekin. Omega honi dagokionez, bere *Chorus mysticus*-a abendu kristauari egokitzen zaio, *humanum* askatu soila irtenbide bezala duelarik. Abendu kristaua da seguruenera azken mito argitu gabea, baina orobat azken giltza, emaitza bat oraindik adierazi nahi duena: gizakia "betiko bozkario" bezala, natura bateratua "Jerusalem zerutiar" bezala. Edozein modutan, mesianikoa da alde guztietan bizitzaren azken euskarria, baina egia utopiko argitzailetik datorren azkena une berean. Zuhurregiarentzat hau ergelkeria izan liteke, jaieratsuegiek alde aurretik eraikitako etxe bihurtzen dute, jakitunentzat zentzu utopikoa da munduko egiazko problema tinkoena, oraindik konpondu gabea. Horrela, beraz, bizitzak ere badauka hainbeste zentzu, nola asekaiztasunean, lanean, guri desegoki zaigunaren zapuzketan, dagokigunaren zantzuan eratzen den; gaindituz, ez bidea galduz.

51

Heriotze-adore posiblearen iturburuak edo irteera

Hiltzean bertan, bat bizirik dago, zurbildu egiten da bakarrik. Gertakari denez erabat hemengoa da, nahiz bere segidarekin, heriotzearekin guztiz loturik dagoen. Hiltzea, beraz suntsitze denez erabat beste zerbait da segidaren aldean, eta beldurra eta are adorea ere bertan dago, ez haren aurrean eduki litekeen beldur gisan, ez harekiko adore gisan heriotzearekin gertatzen den bezala. Atsekabe seinaleak ere erabat dira bizi seinaleak; herio seinale gisan datorrena adierazten dute arrisku bezala bakarrik, ez herioa bera balitz bezala. Zein zorrotz ordea aurkitzen den heriotzearen bestelakotasun objektiboa bere aurretikoan, eta zein hurbil dagoen hiltzearen aurreko beldurra, bizi den baten despedida bezala, heriotzearen izugarritasunak gainditua. Norberaren gorputzean probatu gabea da noski heriotzea, baina besteen gorpuetan are nabarmenagoa. Gu beste ezeri ez bezala horri zor gatzazkio, oraindik beste aldean aurkitzen den irakurleari gorpuak zuzenduriko hilobiko idazpuru zaharraren arabera: zu zarena nintzen ni, ni

naizena izango zara zu. Honi aurre egiteko bizitzeko eta hiltzeko ez bezalako adore bat behar da, handi edo arin, beti ordea beharrezko.

Horrela niak hiltzean bestelako beldurra, joka suntsituz duena, dauka beti bere aurrean. Eta hau gizakiei dagokienez era nabarmenean; abereak izan ere egiaz hiltzean ere geldi geratzen dira. Benetan hiltzeko beldurra dute bakarrik, ez heriotzearen beldurrik; eta hori nirik ez dutelako, beren buruaren kontzientziarik ez dutenez, eta horrela beren desegite propio eta heriotzezkoa aurrez ikusi ezin dutelako eta ondorioz hari beldur ere ezin izan diotelako. Bestela konturatzen da horretaz bere burura itzultzen den ni gizatiarra, heriotze eta hiltze beldur gehiago hain zuzen, bere zer horri dagokion herio izua noski ezagutzen duelako. Eta horrela hain inportante bihurtzen den nia, inolaz ere ez da beti bere burua inportantetzat hartzen duen bezain inportante. Sarri kontrakoa azaltzen da, adibidez harrokeria handian, hau da ni pribatu ez indibidualaren eraketa hutsalean. Pribatu soil hau ni baliotsuan, dela adoretzu bezala dela arrazoi gehiagoz koldar bezala heriotzaren aurrean, ez da aipatzen hemen; lehendik ere alde guztietan oso da sentibera, bere izate ez esentzialari arreta oso handia eskaintzen dio, eta ez du merezi heriotzea bezain, nolabait esateko, kontrakolpe bortitz bat. Baina pribatuak, hain zuzen ere izatearen eta egitearen ohitura maitagarri bezala, eta ondorioz ez harro bilakatu bezala, ez bakarrik halabeharrezko ni baliotsuari atxikirik bezala, amaierarekiko beldurra merezi du, eta gainera ez du jotzen pribatua indibiduala baizik, bere desegilea *itxuraketa* baten desegite bezala. Horri noski eraldaketa dagokio, baina ez hain zuzen ustelketaren eraldaketa desitxuratua: "Zesar hilak, hauts eta lohi bihurturik, zulo bat estaltzen du ipar hotzean", esaten du era kristauan lasaitu gabeko Shakespearek. Eta ez da elitearen patua hemen inportante egiten dena tragikoki ulertzeko moduko bezala, jende arrunta zaratarik gabe Orkora jaisten den bitartean, baizik Zesar dago jarria gehiago bizi gabe garatzen den forma jakin ororen ordezkari bezala. Nondik beraz adorea ezinbesteko heriotzeak daukan izaera guztiz desbaliotzailearen aurrean, berriro demokratikoki orokorren den eta hala ere gizakien etsai gisa denak berdintzen dituen amai honen aurrean? Egia da, hasteko atsedean hartzearen adore irudi xaloa hor dagoela, gustuz baketsu bezala jantzi delarik. Greziarren artean ere azaltzen da heriotza loaren anaia delarik eta guztiz bestela Biblian bizitzaren amaia etzate bezala nekearen ondoren eta mahaia jarrita dagoela: Abraham zaharturik eta bizitzeaz aseta hil zen. Baldin azken honetan egia zati bat badago, gutxienez dago nahiko adin handiari eta gau hotzari dagokionez egun oso bero baten ondoren, irudiko lukeelarik herio adoreak ez lukeela behar adore propiorik. Baina greziarrei ez zitzaien aski heriotzea loaren anaia bezala, Hadesko itzalei Homerok erruki zien, antzinate beriantiarrean heriotzearen beldurra izugarri zabaldu zen, hiltzen ari zen Sokrateri buruzko Fedon elkarriketatik aurrera ez delarik luzaz isilduko. Eta munduan aisetasuna zirudienetz nahiko izan eta heriotzearen beldurra hain luzaz estali zen Biblian, berehala hasi zen adore gabezia indibidual mingotsena, *Koheleth* liburuan, aberea bezala hiltzen den gizakiarekin, berdin diolarik beti berdin den honen kontra altxatzen bada ere. Egiaz: itxuraz kontrakoa ere azaltzen da, hau da heriotzearen gurutzearen eta batez ere gurutzeko heriotze beldurgarriaren guztizko onarketaren bidez ziurtatu nahi zen Biblian benetako herio-adorea, are nahiaren arabera jazarrezina eta garailea zen adore bezala. Hain zuzen ere *Kristoren heriotzean, berpiztearen garantia* bezala bataiatuko da, eta amai honen, ez moralaren aurrean sentitzen zen era kristauan galdekaturik antzinako aro berantiarreko heriotzearekiko beldurra. Eta hortik, inolaz, Inperio Erromatarreko klase agintarien eta beren interesarekiko, gurutzearen pazientzia deitua, klaseen zapalkuntzarako ideologia egoki bezala, kristautasunak guztiz beste alde batetik gomendatu zuena; hilondoko berpiztea eta heriotzean azaltzen zen argia arren. Baina Salbatzailearen azken hitz deituetan badago bereziki atentzioa deitzen duen zerbait, sinoptikoez zalantzarik gabe

landu zuten testuan bildotsaren pazientzia eta Jabek bidalitako heriotzera bere burua ematea kontraesaten duena. Getsemaniko ortuko antsiak berak dagoeneko erakusten du Jesusek ez zekiela ezer Paulok finkatu zuen opal-heriotzearen teologiari buruz, ez zetorrela bat subjektiboki bere heriotzearen beharrezkotasun baieztatuaz. Gurutzeko utziera hondamendizkoa eta Pazkoako aldaketaren ikuspegirik gabeko heriotzea Itun Berrian parafraseatzen dira bakarrik arameeraz, ez grekeraz dauden eta sortzen diren hitz haien desesperoan, are halaber salaketan: "Eli, Eli, lama sabaktani, Ene Jainko, ene Jainko, zergatik utzi nauzu". Ez dute hitzok beren *locus classicus*-a aipua hartu zen 22. 2. Salmuan, baizik pasarte honetan zuzenean jotzen dute zapalkuntzarik bortitzenaren kontra eta antitetiko dira deuseztearen kontra. Daukaten Joben tonuan bertan ez dira arintze bat, baizik antitesiaren indartze bat, uste zen mesias, Gizonaren Semea, zela hemen adorearen azken iturburua, berarengandik eta berarekin, Jainkoa baztertzen zuena, utziera guztizkoaren, beraz heriotzearen Jainko deitzen zuena. Haren kontra, noski, hurrengo aldaketan, desiozko misterioaren indarrez handik berpiztearen desiozko mitoak sortu behar zuelarik. Harridura are handiagoz, gisako desestalketak ustezko miseriarik handienez, seguru utzierarik handienez jotzen zuzenean. Aski beraz oraingoz amaiera erlijiosoan, egia onartu nahi ez duen heriotzearekiko adoreaz, loaren anaia greziarretik guztiz alderantzizko Pazkoako fede kristaueraino luzatzen den bezala. Baina: *credo quia absurdum* ez da gelditu, bere mirari-utopia, *intermissio regulae* bezala, oraingoa ohizko beldurraren kontra bezala ohizko hutsaltasunaren kontra egon arren. Hau da, heriotzearen neurri gabezia soil deseginaren kontra, eta haren lekuan barruan dagoen etorkizuneko arazo irekiaren alde, eta metaerlijiosoan behin eta berriro adieraziaren alde. Horregatik hain zuzen ere gure transzendentziarik gabeko transzenditzeak ez du ahitu behar inolaz heriotzarekiko adore lehertarazlea. Beste aldean lehendik egindako etxerik gabe ere mundu honetako amaitu gabe batek adore kendu ezinezkoa harrigarriko, are miragarriko leku eman diezaiokeen bitartean, era ez itxian.

Bizitzaren erdian heriotzak inguratzen gaitu, nola hurbil gakizkioke? Bera beti dago hurbil eta berez halaber urrun, ezbehar labur batean edo gaiso-ohe luzeago edo laburrago batean. Egunoroko bizitza deitu ohi den ohizko epean, ez dago xokik etxean, etxe normal batean. Guztiz bestela da gaiso larria ospitalean itxita dagoenean, orduan azaltzen da muga egoera, sarri lehen aldiz metafisikoki ukitzen duelarik. Nolabait esateko harantzago begiratzuz, puntu beltz batez markaturik, *facies hippocratica* izpiritualak hemen harrigarriro gehiago begiratzen du atzeraka, eta komentzior bakarrik harantzago, hara begiratu egiten badu. Gaurko fededunek ere dotrinarekin dituzten harremanetan apenas gonbara dezaketen antzinako garaietako *heriotze-ondoko* beldurra eta haren sineskeriazko ziurtasuna, datozen edo etor daitezkeen gauzekin. Infernuaren izua bezala zeruaren poza sendotzarako prestatzen ari direnen eskematan azaltzen dira onenean. Zein bestela, oraindik alde guztietan itxuraz hilda, baina inondik ere ezerezean galdu ez zirenen mamuak zetoze la uste zenean. Zein ulertezinezko bihurtu den, auzitegieta ezaguna izan arren, hiltzaile batek 1700. urte inguruan oraindik, gurpilean zatitua izatera, hau da garai hartako heriotz mota izugarrienera, kondenatua izan zelarik, eta, Walpurgis gauean Brocken mendiko akelarrean parte hartzen bazuen, auzitegiak barkatu egin nahi zionean, barkazioa ez zuela onartu, eta nahiago izan zuela gurpilean zatika zezaten, bere arima salbatzeko azken aukera alferrik galdu baino. Berrehun urte geroago hasi ziren Brocken mendian maskara-festak antzina hain beldurgarri irizten zen gauean zehar, damak sorgin bezala eta gizonak deabru gizen edo argal bezala jantzita; Infernu, galdetzen zuen behinola Paulok, non da zure garaipena? Eta zein bestelako eragina zuen berriro, guztiz alderantziz ordea, zeruko distirak, Santa Katalinak, bere heriotze-eguneko goizean bere aitorleari Jainkoak gauean eskaini zizkion arrosak

erakutsi zizkionean eta, apezak ez baitzuen ezer ikusten, hari hala erantzun zionean: "Baina, egia da, niri bakarrik eskaini dizkit Jainkoak eta". Beste mundua ez arlote, baizik egiazko bezala azaltzen zitzaizkien gisako begiratu guzti hauek galdu dira (nekazarien arteko anakronismo batzuk albora utzita beharbada); hala eta guztiz ere harrigarri bezala gertatzen da hilzorian dauden gehienek gaur batez ere iraganaren oroipena erabiltzen dutela, igarotako bizitzarena, eta inolaz heriotze bezala etorriko denaren jakinmin eszeptiko edo helbururik gabeko bihurtuarekin. Baita pribatu bezala balioztaturiko ni-ak ere, bestela hain berekoi izaki, orain kezkatuak pentsatzen du, ezaugarri ederrekin noski, zer gertatuko den edo gerta litekeen familiarekin edo negozioarekin edo biekin *post exilium sui*, eta hori berak heriotzearekiko beldurra izan arren. Gehienik ere heriotzeko segundu deituan, fabulak dioenez, norberaren bizitzako irudiak pasatzen omen dira erarik laburbilduenean eta orduan gainera oroipen soil bezala, ez etorkizunean posible, era indibidualean eraturiko eta azkenik substantzial litzatekeen izateko modu baten aurrerapen bezala. Brechtek izandako bizitzaren oroipenari osagai zabalago bat gaineratzen zion noski: maila moral bat duen indibiduoak ez du pentsatu behar mundu berri batera sartzen dela, baizik bere bizitzaren eta egintzen bidez jaio zenean aurkitu zuena baino mundu hobe bat utzi behar duela. Baina halakoak ere itxita dagoenari begiratzen dio atzeraka, horri gaineratuz orain arteko gizartean oso gutxitan gertatu den ondare bezala utzitako obren aldagarria eta horren bidez lortzen den hilezkortasuna obretan, iraupenaren arazo zaharrenekin loturik noski. Edozer delarik ere, aldatutako munduari eta utziko den obraren eraginkortasunari dagokionez: oraindik argitan bizi zen norbaiten erretiratzea gogoratuko da, eta ez era gizatiarrean aurrera segitzen duen izatearen itxuraren intentsitate indibidual posiblearentzako esperimenta daitekeen *Novum* bat. Puntu honetarako, hain zuzen, batez ere ikertzen diharduen jakinminaren begiratu askoz modernoagoa egokiago letorke, irteera heriotza ikertzeko hain gutxitan erabilia, alegia. Han barruan dagoen *Le grand Peut-être* horren alde, Montaigne eszeptikoak esaten zuen bezala, tradizio erlijiosoko dogmatika positiboaren kontra, baina halaber dogmatikoa den ezeztapenaren kontra mekanizismo soilean eta haren beste azkartze moduan. Bi iritziei dagokienez beraz, baita mekanizista eta nihilistari dagokienez ere, zientifikoki esan behar da *non liquet* bakarrik; izan ere eskuartean dagoen materiala ez da aski bi erantzunetarako, irauteari dagokionez bezala ez-irauteari dagokionez *Peut-être* baino zerbait gehiago ondorioztatzeko. Baina bereizkuntza zientifikoa sartuz ordea, Kantek bere "*Träume eines Geistersehers*" en adierazten duen bezala, alegia: herio-ondoko erako seinale egiaztatu txikiena aski litzatekeela, esfera guztia salbatzeko, gisako seinaleen gabezia soila alabaina ez delarik aski esfera osoa dogmaren aldetik ukatzeko. Ideologiaren aldetik honi gaineratu zitzaion Berpizkundea ezkerotik (Pomponazzi, *De immortalitate animae*, 1516) gorputz-arimaren heriotzean burgesiak zeukan interes ez bakarrik zientifikoa; menpekoei infernuaren beldur ahitzailea eta batez ere Erroma santuari giltzen ahalmen askatzailea kentzeko. Hortik beraz, askatasun sentimen iraunkorra, Koheleten esaldiaren errekipatze iraultzaile baina ez zapaltzaile bihurtua, gizakia abere bat bezala joaten dela; garai hartako *Bonum* politikoak estali egiten zuen esaldi honen pesimismo sakona, baina une berean ez hain sakona. Eta horrekin batera baliogalera, ez bakarrik, eta zenbateko arrazoiz, zapaltzeko erabilitako beste munduarekiko izua, baizik areago heriotzearen ondorengoarekiko zentzu emate saio oro ere kentzen duena. Eta orain halaber, norbakoitzaren deuseztapenaz gaindi, bakarti, zentzubako eta alferrikako bihurtzen du gizadiaren obra -atzekaldean jarritz entropia kosmikoa edo, lehenago, heriotze atomikoa munduan. Beraz ez dago arrazoirik bat ere gehiago erabateko heriotzearen aldeko defentsa mekanizista soil batengatik pozteko, badago ordea arrazoirik *Non omnis confundar, non omnia confunduntur* oraindik irekiaren eta ez-

dogmatikoaren joera sendotzeko. Eta baita ere norberaren buruarekin erro-erroan aurkitze ez zaharkituaren alde, gizaki maitearekin bezalaxe, bereziki Beatrizen ingurutik datorren emakumearekin: izaki hau eta bere aurak dakarrena ezin joan daitezke, itxarona edo dagoeneko gertatua den heriotzean argi egiten dute. Gizonkiago berez trinko dena fenomenologikoki erarik bortitzenean oldartzaile bezala azaltzen da, argi eta leku gehiago bezala, eta hartan asmo den aberri bezala. Horrela beraz da gainditzea, hegaldatze bat hain zuzen, ez nola hala zabaltzen doana, Goethe gazteak Koraneko Moisesi esanarazi zion deiaren antzekoa: "Jauna, egidazu leku nire bular estuan"; era horretan gainbeherak, bular estu honetatik apartatzeak ustez inolaz jo ez zezan. Guzti honek aukera ematen du ordea desio modu izugarri eta paregabea, utopia gisan jaso daitekeen modu metaerlijiosoa Kristoren Berpiztearen irudian berriro ulertzeko: *-de te, homo nondum naturans, supernaturans fabula narratur*. Fabula kontatua izango da bakarrik gizakiarentzat garrantzizko izaki, orain arte inolaz azaldu ez dena bezala: hau da, bere izate joeradunaren muin trinkoa, labur esateko: bere Ezen-aren Zer-a, iradokizunetan, itxaropen saioetan eta berpizte utopia estalietan ezik, ez da oraindik inon azaldu. Baina gure muina *-homo absconditus* bat inolaz eta benetako misterio egiazkoa, hau da gure geure bertakotasuna bera- ez da inon objektibo bihurtu: oraindik erreal bezala sortu ez denez ezin daiteke erreal bezala joan. Aldiz: bere hurbiltasun hurbilenean, sakontasun sakonenean gure izatean oraindik atera ez dena, *homo intensivus sed absconditus* hau dago, *oraindik izan ez den* bezala halaber *lurraz kanpo heriotzaren ahalmen izate-deuseztatzaileari dagokionez*. Item, baden ezein norbanako oraindik sartu ez den gure existitzearen sua oraingoz dago, aurkitua ez denez, itzali gabe. Horrela, bada, heriotzearen bidez egiten den irteerak ezin garraia dezake oraindik X-a ezerezero, oraindik abiatzea, prozesua, prozesuan dagoen materia munduan mundu bezala dagoen bitartean. Eta *natura naturans*, are *supernaturans* ere objektibatzearen substratu den materialen lehen bezain burutu gabe dago, posibilitate objektibo errealez lehen bezain betea etorkizuneko bere zer-itxuratan, zer-identifikazioetan, zer-errealizazioetan; hor badago lekurik oraindik. Hain zuzen ere lurraz kanpo itxaroetan dagoen gizakiaren izatearen, gero gizadiaren izatearen *Non omnis confundar* horrentzat egiaz. Kantek esaten zuen zuzenean, hala ere oraindik beste mundu baten "ideia" erabat erlijioso zaharrarekin, nahiz inolaz objektibaketarik gabearekin, gure lekua, gure patua beste munduan oso lotuta egongo dela ustez guk gure postuak hemengoan kudeatu ditugunaren moduarekin. Ontasun, edertasun, goititasun eta sakontasun hautsi baina orobat urrun itxura daukanak bestela hain aldakorra den hemengo bizitzan indar zezakeen gutxienez heriotzerako adorea itxarotearen sentimenarekin, itxarotearen kontra oraindik bete gabearen sentimenarekin. Izan ere oraindik aurkitu gabeko gure egiazko esentzia inondik ere da bilakatzen bezala galtzen doan eta iritsi ezin daitekeen topos, han -beste inon ez bezala-, bilatzeak, itxaroteak, egiazko gauaren aurrean ere amore ez emateak bere leku iraunkorra baitu era metaerlijiosoan, baino arrazoi gehiagoz oraindik era meta-fisikoan.

Guzti honen inguruan dabilzanak, horiek ere harrapatuko ditu seguru heriotzak. Gorpuak ez du erremediorik, baztertua izango da, nolabait esateko garbitu egingo da, baina zer gertatzen da loreekin? Haragia usteldu egiten da, eta arima, bat baldin badauka edo bazeukan, alde egina da. Harriak ordea geratu egiten dira, bizirik gabeak baitira, kezkatu ere egiteke joan denak gehiago ikusten ez dituelako. Badu munduak noski hildakoei gehiago ez azaltzeko nahidura, baina hori, ordea, herio-ohetik bakarrik argi eta garbi dagoen zer bait da, ez izugarri geratzen den gure-inguru inorganikoan. Leku hain itxaron gabe baina bereziki egoki honetara itzultzen dira horrela berriro antzinako alternatiba kitatu gabeak - *Kosmos aut Logos* adierazi dutenak- eta bereziki hurbil, existentzialki kiskaliz, itzultzen dira. Behin lurraren Gea-ra itzultze edo unibertsoa

aldatze bezala, hurrengo berpizte eta bizitza berri bezala, gordetze eta jagote "zerutiar" guztiz bestelako baten logosean eta logosarekin. Mito astralen eta logosaren mitoaren alternatiba jakin batzuk aurkitzen dira, gehiago edo gutxiago sekularturik, heriotzean, bere harri bezala izatean, bere antimineral bihurturiko izpiritu bezala izatean. Eta orain segituz: zer geratzen da? Giza historia edo gizakanpoko natura, hau gure historia aurretik bazegoenez eta gero handik logos moduan oldartua eta gainditua izan zelarik? Edo geratzen da gure-inguru bat inolaz ere ez igaro bezala, aldiz izugarri dena uztartzen duen inorganiko bezala, munduaren kosmo izaera, handik giza heriotzeak ere ihes egin ezin dezakeelarik? Horrela, bada, giza historiaren "izpirituan" logosa gertakari soil bat besterik ez litzateke eta inolaz ere ez luke zentzu substantzialik. Arrazoiz esan daiteke, mitoa artearen oinarri izan daitekeela, ez ordea filosofiarena, eta are gutxiago zientifikoki kontziente bihurtu denarena. Hala ere jakintzaren historian bertan, beste hainbesteko arrazoiz, garbi dago mito astralak, sekularturik, eragin nabarmena duela naturaren lehentasunari dagokionez Bruno, Spinoza, eta materialismo frantsesean ere; Logosaren mitoa, sekularturik, gailentzen dela gizaki bihurtzen eta gizatiar den kontzientziari dagokionez Leibniz, Hegel eta are kristautasunaren aurretiko idealismo guztian ere. Baina berriro heriotzera hurbilduz: Kosmoaren espekulazioko dobelaketa erabat estatikoaren kontra Logosaren erabateko askatasungintzak lan egiten du; Logosaren espekulazioko askatze amaibako eta gutxi gora-beherako baten toposik erabat gabekoaren kontra dago kosmikoa inmanente eta transzendentziarik gabe gordetzen duena. (Horren arabera, ikuspegi honetatik ere, *sub specie mortis*, Leninen tesiak zeresan handia dauka: "Idealismo zuhurra materialismo zuhurrarekiko hurbilago dago materialismo ergela baino"). Baina orain arteko giza historia aurrehistoria, aurregaraiak bakarrik denez, natura kosmiko presenteak, hesitzaile bada ere, berari ez dagokion alor bat hartzen du. Hau logosaren mitoaren aldetik, kristautasunaren azken askatzeari eta lehertarazteari dagokionez, eskhatonaren mitoan zegoen adierazia, Jerusalem Berri baten sinboloan -ez sakon barruan, ezta ere arrazoi gehiagorik han goian, baizik munduko aberriko espazio bateratu eta maitagarritasun guztizko bihurturiko batekin. Fantasmagoria espekulatiboen honetako irudiari dagokionez azpimarratzekoa da, haren hiriko guztizko *humanum*-a kosmoan, "espazioan" egindako hiri bezala pentsatua izan zela, betiere enpirikoki atopiko eta apokaliptiko den batean. Eta "heriotzea igaro da", hain zuzen ere han izpiritua hitzez hitz lur berrira, ez espaziorik gabeko askatasunera, isuria izan zelako. Kontutan hartu gabe, Apokalipsiko liburua zalantzarik gabe utopia guztietan gehiegizkoena eta ez bakarrik mitikoena dela, beste edozeinek ez bezala sustatu baitu bular lurtiarra, ez hainbeste egunsenti transezendentean bainatzera, bai lur hobe baten egunsentian, ustez "arima" eta salbatu bezala geratu direnen mesedetan - "andregai bat bezala apaindurik". Nahikoa inolaz irudi itxurati erlijioso hauei dagokienez: gizaki ororen muinean badago inolaz lurkanpotasuna, beraren baitan oraindik gertatu ez denaren iragankortasunari dagokionez, eta bere egiazko lurraldea deitzen da: *Spero ergo ero*, ez nortasun aurkitu gabea.

52

Gosea, "gauza baten ametsa", "itxaropenaren Jainkoa",

gauza guretzat

Laburtzen den gorputz elastiko batetan bere neurririk handiena ahalegin gisan dagoen bezala, halaxe dago Monadan bere etorkizuneko egoera... Esan daiteke ariman gainerako lekuetan bezala presentea etorkizunaz ernaldurik dagoela.

Leibniz, Bayle-ri Gutuna, 1702

Ergelen moduan bizi bagara, zerbaitek bultzatzen gaitu hala ere. Bultzada gisa azaltzen da gosea. Hark daukan ezari, bera ere ezin eutsirik egoki, daukanak ez dio luzaz iraungo. Horrela bultzatzen du ezak, zerbait oro inguruan eraikita daukan hustasun

horrek, oraindik-ezera eta zer erdietsi gabera. Garai nahasietan edo ezinduetan zer horretarako adierazpena ahula bada, gorputzeko goseak ez du amore ematen, eta ogia falta denean faltatzea ez da gehien falta dena, ogia bera baizik. Baina zergatik jaten den zertarakoa, bizitzako ahaleginaren zertarakoa orohar eta aipatu den bizi adoreari dagokionez berez oso zalantzazkoa gerta daiteke, bizitzako beste ogia, beste norantz eta zertarakoan dagoen zer horrek, egunoroko ogia arren, huts egiten duenean. Beste helburuarekiko gisako kezkak ez du balio edo ez egokitasun handiz zuloetan eta auzune miserableetan, miseriak, bera ez den guztia, iresten duen bitartean. Arrazoi osoz ez du balio beste muturrean ere, irabaziaren ehizak (oraindik neurririk handienez miseria oinarrituz, hau exotikoago bihurtu bada ere) norantza eta zertarakoa ez bakarrik ehizaren bidez, baizik -Marxek dioen bezala- bere sudurra baino urrutiago ikusten ez duen burgesaren bidez betetzen duenean. Diruak bigun egiten du, txanponak barre. Arrakasta aski da orduan *per saldo* inolaz, falta den beste inolako edukirik ez da sortzen itxura horren kontra. Ez bada agintzen duenaren bizitza eta ahaleginaren amaia gisa bereko negoziokide eta amai baten ehorzketatik datorrenean; orduan, noski, ezin ospatu ahal izango du hemen zentzuari eta helburuari buruzko ohizko galderak jatorrizko egoera ez pozgarri baizik ameslari bat, alde guztietan bezala huts egiten duen "zertarako badagatik" sosegurik gabe baitago egoera hura. Ezin pareka daiteke horrekin bestela asegabe dagoen bizi gosea, bizi adorea, etengabe lehertarazlea, gizakiaren eduki benetakoa behin eta berriro ez-eduki bezala, oraindik-ez-eduki bezala aurkezten duena. Beraz zentzuari buruzko galdera aurkezten da, eta ez da asetzen zentzuari buruzko gosea eta harekin batera heriotzearen ez-zentzua herriaren opioaren bidez ere, ezta beste munduko berdintze baten ametsaren bidez, erostezinezko eta atergabeko kontzientzia-hartzean eta premia utopikoen benetako antolakuntzan egindako atsedetik gabeko lanaren bidez baizik. Horrela bakarrik dago beraz -ez orain arte agindu duten klase ezberdinen ideologia apologetikoetan, aldiz bai huts ematen eta itxaroten denaren utopia arretatsu moral eta finaletan, odolez zikindurik eta ez-aberri batek beti aztoratu duen historia zeharkatzen duenean-, horrela bakarrik dago beraz, batez ere helburuaren doinu biblikoan, amets iraultzaile hura, *eo ipso* opiotik ez datorrena, baizik etorkizunarekiko, argi neurriarekiko iratzarririk egotetik, horrekin baitago edo egon daiteke mundua haurdun. Beste amets honetaz, etorkizuna iraganean bertan bailegoen, historizismo elbarritzailearen orde, jakobinismo bapatekoaren orde, bazter ezinezko zentzu ernarazlea adieraziz, dio Marxek: "Orduan azalduko da munduak aspaldidanik gauza baten ametsa baduela, eta haren kontzientzia eduki behar duela bakarrik, gauza hura eskuratzeko" (*Ruge-ri Gutuna*, 1843). Baina gauza "gauza baten amets" honetan eta hura praxiaren bidez egiaztapenera eramaten duen kontzientzia, Marxengan ere askatasunaren erreinua da, gaizki eta ongi aurreratua. Zutunik joanez bakarrik irits daitekeena, baina atsekabetuekin eta abailduekin bezala zapalduekin eta umiliatuekin doazen itxaropenean irmo egonez. "Gauza baten ametsean" zegoen gauza ez zen eta ez da behin ere gainbalio egoki batena bere utopia berezian, alde batera bakarrik egiten baitu barre, ezta subjektiboki bakarti geratzen den ilusio bapateko eta joerarik gabekoa. Gauzaren oraindik-ez benetakoa edukitzea, harantzako bidean baitago gose oro bere zabaltzearen arabera, hori da argi eta garbi kontzientzia azkenik konkretu baten eta haren ekimen gaitzizaile konkretuaren eskakizuna. Horretan ordea -Marxen tesiaren zentzu ernarazlean bertan- gisako utopia konkretuaren paradoxa datza, utopikoa ez dela hain zuzen azkenik konkretu bezala ahitzen, baizik alderantziz, orduan hasten dela benetan. Izan ere gauza baten ametsa dago, *rebus fluentibus*, zati objektibo konkretuan *gauzan bertan*, haren prozesuan bezala azkenik *espero daitekeen haren latentziari beti ere atxikiriko* gauzan. *Zentzuaren ikuspegian* falta den guztizko baten ihes puntu deituraino, egiatan erakarpen punturaino -lehenago Jainkoarengana zuzendua. Era a-

teistan ordea Omega utopikora zuzendua dago: une bete, gure inmanentziaren eskhaton, gure inkognitoaren argitasun.

Horrela aurrerantzako begiradak gorakoaren lekua hartu du. Horrela lehenago era erlijiosoan erabilitako edo goraki bataiatutako apaltasuna bezalako sentimendu guztiak, edo printze baten aurrean belaunikatzea, edo otoitzean eskatzea, gehienik ere otoitz bezala gordetzen dira oraindik gogoan. Itxaropena bera, sentimen bibliko propioen bezala, morroi jarrera bezala ez da gure duin, bat morroi bihurtzen duenean, goitik datorren Manna batera zuzentzen denean. Hain zuzen, transzenditzaile bezala altxatzen denean ezin du orobat limosna hartzaile izan, jatorrizko bekatu deitua gizakiaren ezereztasun bezala bere ostean duelarik, subiranoaren grazia merezi gabea, eta ez bakarrik era luteranoan, bere gainean duela. Noski, itxaropenik badagoen lekuan, erlijioa ere badago, baina erlijiorik badagoen lekuan ez dago beti itxaropenik, hau da ideologikoki lekuz aldatua, behetik gora eraikia. Itxaropen, zeren? -zalantzarik gabe; teokratiko soil ez diren Bibliako pasarteek ematen diote natura soilari erantzun oraindik irekirik: "eta betiko poza izango dute beren buruen gainean". *De profundis* argigarria inolaz, utopikoki argitan jarritako gizakiaren argia inolaz, garbi hemen giza sakontasunaren *De profundis*-etik, ez giza apaltasunetik. "Gauza baten ametsa" litzateke hain zuzen bere ondoriorik nabarmenen, erabat eta guztiz utopiko eta hartaz apokaliptikoan, bere itxaropen lerro propiotik, kasurik okerreanean fantastikotik atera eta arrotz eta heteronomo zaion lerro batera eramana. Baina honek bereizten du, hain zuzen ere, zentzu ez zaharkitu edo teokratikoan ikusita, Bibliak dituen benetako Novum-aren aztarnak, hitzez hitz exodoaren eta erreinuaren aztarnak gizona agertzen ez den goi orotik. Eta honek egiten du posible zehazkiro itxaropenean erlijioaren harako ondare hura, Jainko hilarekin galtzen ez dena. Horrela bakarrik, egin den artifizialkeria soil ororen kontra, zuzen dakioke itxaropenaren arabera etorkizun bat Jainkoaren irudikatzeari izatearen eraketa gisan, gainerako jainkoen irudiei ez bezala. Gauza guretzat, mundua guretzat Jainkorik gabeko gauza baten ametsean, baina bere esentzia den itxaropenarekin: mundu honek ikuspegi bat bakarra dauka: fronte, irekitasun, novum, azken izatearen materia, izan, utopia bezala. Halako ikuspegi batek ordea ez du eskatzen ez onartzen laudoriozko kantarik, baizik: "Hara - *nahi* dut; eta aurrerantzean / neurekin naiz fido eta neure eskuarekin. / Zabal dago itsasoa, urdinera / zuzentzen du nire genobarrak ontzia" (Nietzscheren poesia Koloni); guzti hau gure giza historiara esperimendu bezala zuzendurik. Eta azkeneraino eskatzen du: "Hori bilatzea, zuzentasuna bilatzea, horretarako merezi baitu bizitzeak, eraturik egoteak, denbora izateak, horretarako goaz, ebakitzen dugu bide fantastiku konstituitzailea, urdintasunean eraikitzen dugu, eraikitzen gara urdintasunean eta gertakizun soil desagertzen den lekuan han bilatzen dugu egia, egiazkoa - *incipit vita nova*" (*Geist der Utopie*, 1918). Ez dago misterio urrunagorik eta halaber hurbilagorik *homo absconditus*-arena baino bere egiazko misterioz zamaturiko munduan, bere egiazko probleman: nolatan, zergatik zartarako den bera. Ez bakarrik gudan eta munduaren gure ezagutzarako, baizik munduan bertan, bere prozesu propioenean daude galdera hauek erarik sakonenean konpondu gabe eta erantzun identifikatzaile baten zain.

53

Azkena: Marx eta alienazioa kentzea

Zein zaharra eta zein berria den norberarengana itzultzeko deia. Heldutasuna kenduta, inoren helburutarako erabilia ez izateko, hau da gaizki erabilia ez izateko. Baliapide soil bezala, abereen gisan inoren mesedetan zamaturik, gerran norberaren parekoen kontra jarrita, ezertxo ez lortzeko norberaren parekoak lehertaraziz. Eta gure igandetako idazle hauek, batean munduzale, hurrengoan izpirituzale, baina jaunekiko leial, horri beren bedekazioa eman zioten. Artzainek maitagarriro eta pozik omentzen zuten lehen

herese kristauak gurutziltzatu zituen agintea: sarri beraiek jarritako agintea baitzen. Pobreei, esplotatuei, zapalduen aldiz predikatzen zieten onarpena eta pazientzia, baina ez indarra. Zapaltzaileei ez zieten debekatzen indarra, ez egunero eta egunero izutzen zuen estatukoa, ezta basakiro agerian jotzen zuena ere, pazientzia behean ahitzen zenean. Baina pazientzia hau ahitzen zenean, gasa eta pistola defentsa deitzen dira soilik, arrazoi handiak dauzkan altxamenduari berriz terrore. Eta goitiko indarraren alde etorri zen beren itxurakeria ideologikoa, segurua kendutako errebolbera Jainko eta bozkariozko musikaz zurituz. "Aldareak apaintzen dituzte eta pobreak gose latza sufritzen du", esaten zuen aspaldidanik alferrik behin eta berriro eguneko zen Amosek; apainketak, arteak eta filosofiak ere, beren garaia "pentsamenduetan adierazteaz" gainera, garaitik sarri maskara eta apologiaren bidez aparta zitezkeen, gezurrezko kontzientziaren lainoa bera urreztatuz edo hura berriro trinkotuz. Baina halakorik gabe ere, eta ideologiek zentzurik ohizkoenean eratzen dituzten margokeria edertzaile berezirik gabe: aldioro agintzen duen klasearen apologia bezala, beraz izpiritu garbi, are garbiegiaren jokoan bere barruan gordetzen du, batez ere ideologia kapitalista berantiarrean, orain arte aztertu gabe, baina Marxen bidez bakarrik ezagutzeko moduan jarri den atal bat, gizakiaren bere barerarengandiko alienazioari dagokiona, klaseen arabera baldintzatua eta gero eta handitzenago doana. Nabarmenen azaldu zen hau gizarte kapitalista monopoliozalean, gizaki eta gauza oro merkantzia-bihurtze erabateko bezala eta hemen erarik txundigarrienean autoalienaziora eta arrotzera, desbideratura eta funtsik gabekora autosalmenta ekarri zituen kontzientzia faltsu bezala. Idoloen eta idoloen kultuaren azterketa antropologikoa eta erlijio kritikatzalea ez zen arrazoirik gabe etorri zerutik lurrera. Ez arrazoirik gabe hitz egiten du oraindik Marxek merkantziaren "fetitxe izaeraz" eta ideologiaren "ilusioez"; horregatik azkenik, ekonomiari esker, ezkata ez hain transzendente batzuk erori ziren begietatik. Azpimarratzekoa da honi dagokionez, alienazioari buruzko analisia guzti hau, eta honekin batera alienatu guztia giza subjektura itzultzeko ahalegina, erlijioaren kritikaz hasi zela; hori da guk adierazten genuena Hegel gaztearen "zerura merke-merke saldu ziren altxorak" esaeraz, eta geroago Feuerbach ez oso sakonaren baina bai zorrotzaren "erlijioaren kritika antropologikoa". Liburuetatik ordea atera egin zen hau, Marxek alienazioak lapurretarako zuen joera ezagutzeko moduan jarri zuenean ez gehiago zeru mitikoan, baizik merkantziaren eta hura produzitzen zutenak merkantzia soil eta gauza bihurturiko lan indar izatera makurtuen izaera guztiz lurrekoan. Ez da sekula ahanzi behar hemen, aldeztetik erlijioarekin eta hari atxikirik dagoen erlijioaren kritikarekin saiatu gabe, ez lirakeela sortuko Marxen alienazioaren dotrina eta merkantziaren kritika. Horregatik Marxek ez bakarrik adierazi zuen giza ondasunak zerura merke-merke saldu zirela eta handik, Feuerbachek bezala, gizaki genero abstraktu soil batengana urrunetik ekarri behar zirela; baizik goiari buruzko ideologia osoa gaineratu zion zeruari eta gizaki abstraktuaren ordeztar harreman kapitalistako multzo presentea salatu zuen, batez ere ordea haren kaltetunak, atsekabetuak eta ahituak. Horiek dira gehien autoalienatuak (baldin hori jakin badakite edo ez badakite) eta palanka posiblea, gizakia izaki kateatu eta utzi bihurtu duten harremanen iraulketaren hurrengo oinordekoak. Beraz orain arteko historia eta hango ideologiak detektibe gisan aztertzea, hori zalantzarik gabe korrante hotzekoa da pentsamendu marxistan, baina azterketa honekin bilatzen den zertarakoa, gizakiaren urruneko helburua ezpairik gabe korrante berokoa da jatorrizko marxismoan, hasieran era kristauan eraturiko "Askatasunaren Erreinuko" oinarritzko testukoa da ezinbestean. Pentsamendu honetako *korronte hotzak* irakasten du, orain arteko gure historiaren zatirik handienari dagokionez: "Ideia batek interes baten kontra jotzen badu, ideia da beti oker ateratzen dena"; eta areago, azkenik objektiboki helarazia, baina gehiago abstraktu eta utopiko ez den iraulketari dagokionez:

"Langileen klaseak ez du idealik bat ere egiaztatzeko, baizik (horretarako) lehendik gizartean dauden joerak askatasunean jarri behar ditu". Horregatik geroago Engelsek, eta arrazoi handiz, bere liburuetako bati "Sozialismoaren aurrerapena utopiatik jakintzara" titulu hoztailea eman zion; badago noski, berriro ere hemen *korronte beroak* eta haren baztertearen ondorioak irakasten dutenez, aurrerapen handitxoegia utopiatik jakintzara. Korronte beroak bere jakintza behar baitu hain zuzen: ez inolako ez den, baizik azkenik konkretu den utopia bezala. Hau ez da inolaz kontraesan bat izenlagunari dagokionez, salbaziorik tinkoena izaki eta hori erabat ez bakarrik sozialismoaren propagandarako, hura gauzatzeko ordurako baizik. Bereziki utopia konkretuan lanean eta argitzen ari da guri gero eta gehiago dagokigun kulturetako *neurritz gaindiko* guztiaren salbazioa, haietan aurkitzen diren arteko alegoriak, sinbolo erlijiosoak ez baitira ahitzen galdu den ideologiarekin. Jakintsu zahar batek esaten eta arrenkura egiten zuen gizakia errazago dela salbatzen jaten ematen baino. Etorriko den sozialismoak, gonbidatu guztiak mahaian eseri direnean, edo eseri daitezkeenean, paradoxa horren iraulketa tradizionalista oso paradoxal eta zail bezala ikusiko du: gizakia, alegia, errazago dela jaten ematen salbatzen baino. Horrek esan nahi du hemen badagoela mundu bat, bere buruarekin eta gurekin, heriotzearekin eta misterio guztiz gorriarekin bateratu behar dena. Autoalienazio iraunkorra ez baita gizarte faltsu batean sortu eta, hura zergati bakar izaki, harekin batera desagertuko dena; badago autoalienazioarako beste sustrai bat sakonago dagoena. Marxek esan zuen: "Radikal izateak esan nahi du gauzak sustraitik heltzea. Gauza guztien (sc. sozialen) sustraia ordea gizakia da". Joanen lehen Gutunak (3, 2) esaten zuen bere aldetik, sustrai gizakia ez zela hartu behar zerbaiten zergati bezala, baizik zerbaitetarako patu bezala: "Oraino ez da agertu zer izango garen. Badakigu ordea agertuko denean, hura bezala izango garela, den bezala ikusiko baitugu hura. Harengan esperantza hau duen orok garbitu egiten du bere burua, bera garbia den bezala". Bera, hemen, bere etorkizuneko nortasunaz gizakiaren pareko izango dena etorkizunean, pasarte honetan zeruko Aita deituari datorkio noski, baina adierazia da, bere esentzia berdintasunari esker, Gizonaren Semea - historiaren azkenean azalduko den gure egiazko radikaltze eta identifikatze bezala. Bi pasarte hauek elkar irakurri izan balute, edo elkarrekin inoiz topo egin izan balute, orduan isuriko zen guztiarekiko alienazioaren egiazko problemara eta haren kentze posiblerara argi bat detektibe gisako bezala utopikoa orobat. Honek esan nahi du era kristauean: Jainkotzat hartua azkenik Gizon bihurtuko zela, eta era filosofikoan Hegelen Fenomenologiaren arabera eta harekin: substantzia subjektu litzatekeela halaber. Aipaturiko topaketa ez da sarri gertatzen, baina zergatik? Oraindik loratu ez den gizaki erroari dagozkion puntuetan, baino ez hain urrunetan, gertatzen da. Edo haren azalpenak oraindik berarekiko arrotz diren sustraiekin loturik egonez loratzen da. Hemeretzigarren mende sakonagoak, baina ez horregatik sakonak, kendu beharreko alienazioak (*Dieu et l'état*) bezalako ateismo harrigarrietan ikusi du metafisikaren amaia. Baina marxista bulgarak albo batera gera daitezke eta transzendentzia gordetzen dutenak arrazoi handiagoz. *Hic Rhodus, hic salta*, baina dantzaren, jauziaren, ikertu beharreko *Novum*-aren ausardiaz, inolako katezismo motarik gabe. Halabeharrera jotzen duen Marxen "Ekonomiari eta filosofiari buruzko eskuizkribuak", 1844, obrako pasarte bat *kiasmo* baten gisan, atalen trukaketa harrigarri baten gisan eraikia dago, berriki kasik ezagunegia da eta kasik horrexegatik berarengatik ezezaguna, eta "naturaren berpizte" batez hitz egiten du. Umorea ere, kasik arintasun alegizko hura badauka, horrela alaikiroago iraganetik, baina batez ere orainaldi zapaltzailetik apartatzeko, horretan *kiasmo* guztiz utopikoak behatoparri eta ergelkeria bezala azaldu beharko lukeelarik: pasarteak jakina denez honela dio: "Gizakiaren naturaltzea, naturaren gizatartzea", Marxengan hain urri den urrutiko helburuaren idazpuru bailitzen. Badauka korronte

berorik, hantxe alienaziotik itzultze guztizkoa hartzen da kontutan. Arrunkeria bat litzateke naturaltzea *mens sana in corpore sano* bezala hartuko balitz, eta gizatartzea naturaren bezatze bezala, geroagoko tonalitate arkadiarrez hobetua beharbada. Egiaz hemen aurkitzen da esaldi ultrabioleta bat, marxismoan ezkutuan eta guztiz argi eta garbi ez dauden horietakoa, lehen zati isurtzailea kasik Jakob Böhmek berak ere, eta gizaki-eguzkian lehertzen den bigarren zatia Frantz Baaderrek berak ere pozik beren egingo zuketena. Marxek ez zuen behar gisako topaketarik, baina marxismoak, gutxitua izan zen bezala gutxiturik, beharrezko ditu - eta kristautasunak? Nola bana zitekeen azkenik erabat transzendentzia aztertutik ez bada gizaki eta natura eta haien benetako misterio gorrien kiasmoen bidez? Gizakiaren naturaltzea, honek esan nahiko zukeen bere elkartzea, bere mundu-honetakotasun eta etxeratze azkenik argitua, horrela gu alienaziorik gabe izan gintezen, gure *Hic et Nunc*-aren izate potentzialitatearekin; naturaren gizatartzea, honek esan nahiko zukeen bere berarekiko itxirik dagoen kosmoaren irekitzea, behinola era mitikoan lur berri, zeru berri bezala asmakerietan irudikatua izan zen aberri izateko, naturako edertasun orotan, naturako tasun orotan (naturaren margoaren eta naturaren poesiaren bidez helarazia) barrundatzen duen aberri izateko, bera premiaren erreinutik jauzi batez gizakiengana hurbilduz. Eta *apocalypsis cum figuris* osaturiko horizonte guztiz kualitatibu eta lehertarazle hura, antzinateak ez baina bai kristaugoak eta areago Dureroren fantasmagoriek irekita eduki zutena. Gisako muga irudiak dituen utopia konkretuago bat egiteko ahaleginak noski ideia baten jauzian bakarrik pentsa daitezke; askakuntza lurtiar hurbilago baten aurre-irudikapenean, askatasunak askoz oparoagoa eta trinkoagoa bihurtu behar du. Baina: ez legoke banatu daitekeen humanismorik, bere moralaz aparte norantz, zertarako eta erabatekoaren muga irudi zorionsuen hauek ere barruan izango ez balitu. Haien askatasuna ere oraindik munduan eta munduaren esperimentuan argitu ez den *homo absconditus*-aren *Elongatur*-ean dago. Gizatiarraren deuseztagarritasunetik badago hor nahikoa, unibertso berdin gabekotik hilarazitako munduaren inguruan berriz, nahiko eta gehiegi; hala, baldin hau ez beste ezer modan ez balego, prometeiko guztia eta askatasunaren bila dabilen erreinua bera ere onenean erakarpen eder bat lirateke, baina ez zentzu bat dagoen lekurako. Alabaina ez da egiazko gertakari soilezko den orain arteko mundu osoa, eta harekin batera gertakari hauen desegite posiblea; eta egia da bakarrik hari datzekion prozesua, eta horrekin batera Pilatori guztiz bestelako *Novum-partiduko* izatearekin esan ziezaiokeen erreboltatuaren ahotsa: "Egiatik datorrenak, nire ahotsa entzuten du". Haren lekua da borroka, bereizkuntza, korronte beroa, eta ondorioz dei gizatiarra eta bere ideia munduaren prozesuaren frontean. *Non omnis confundar*, honek balio du gure natura gizatartuaren lur-kanpokotasunari dagokionez ere. Eskutik ahora, hurbileko helburu bezala, ez du noski halakoak jaten, eta egiaz gure historia beronek goitik behera azken helburuarekiko dituen loturak baino kezka egunorokoagoa da. Are gehiago eta arrazoi handiagoz elizako kristautasunaren ideologiak, ilusioak, mitifikatzeak eta teokraziak igaroak dira, eta haiekin batera arrenkuraren bestekaldean transzendenteki finkaturiko eta kokaturiko Gorena. Benetako marxismoak, horren orde, benetako kristautasuna hartzen du seriotan, eta elkarrizketa soil batek ez dio asko laguntzen horri, baldin horretan jarrerak ahalik moteldu eta konpromezu moduko bihurtzen badira, aldiz: baldin kristauak atsekabetuen eta ahituen emantzipazioa nahi badute orduan Nekazarien Gerran iraultzaren eta kristautasunaren artean egin zen ituna ez da azkena izango - eta oraingoan arrakastaz. Florian Geyer, Nekazarien Gerrako gudari handiaren ezpatan zizelkaturik omen zegoen: *nulla crux, nulla corona*: hauexek lirateke ezaugarri hitzak azkenik desalienaturiko kristautasun batean, eta han oraindik azkartzen ari den eragin emantzipatzaile ahitu gabeak eskaintzen dio bere neurri sakonenetako batez jabetu den marxismoari. *Vivant sequentes*; bateratu egiten dira beraz

marxismoa eta baldintzarik gabekoaren ametsa pauso eta borroka asmo berberean. Gehiago alienaturik ez dagoen *Humanum*-a, erdi-ikusia, bere mundu posiblearen oraindik aurkitu gabea, biak daude baldintzarik gabe etorkizunaren esperimentuan, munduaren esperimentuan.